Bien que n'étant pas utilisées dans la présente thèse, voici d'autres acceptions pouvant être attribuées à cette réalité : *Hegoalde, Euskadi, Euskal Herria, Euskadi Penintsularra, Pays Basque espagnol*.

5

**Le collectif basque** [Euskal kolektiboa] : Le conflit identitaire est manifeste au sein de la nation basque, car les sentiments d'identité nationale et d'appartenance sont interprétés différemment selon les cas. Les diverses perceptions à propos de la langue, de l'idéologie politique, de l'attachement à la nation, ou du territoire, ont généré différentes manières de comprendre et de définir l'identité basque, et ont suscité des conflits entre ces diverses approches. C'est pourquoi le « collectif basque » se réfère au groupe de personnes qui se perçoit en tant qu'« euskaldun », « vasco », ou « basque » ; en englobant ceux qui se sentent appartenir au groupe « basque » (« euskal » ou « vasco »), quel que soit leur point de vue par rapport à l'identité.

Cette réalité a d'autres acceptions (*euskaldun, euskal herritar*), mais ces dernières n'ont pas été jugées pertinentes pour les raisons suivantes:

-Le terme d'**euskaldun** fait référence, à l'origine, à celui qui sait ou « possède » l'*euskara* : *euskara* (langue basque) -*duna* (qui possède). À l'heure actuelle, cette acception prend une signification plus large, car outre le fait d'avoir la

connaissance de la langue basque, elle fait référence à l'ensemble du collectif. Quoi qu'il en soit, nous ne considérons pas l'origine du mot comme précise, et même s'il est fréquent dans la rue, il n'a pas été utilisé ainsi dans la présente thèse. Car selon nous, le terme d'*euskaldun* ne reflète pas comme il se doit la diversité linguistique qui peut exister dans ce collectif. C'est-à-dire que celui qui sait ou possède l'euskara (*euskara-duna*) et celui qui ne le sait pas (*euskara- ez-duna*), tous deux peuvent faire partie du même collectif.

-Le néologisme **euskal herritar** ou **euskal hiritar** (l'habitant ou le citoyen basque) a remplacé, dans certains secteurs, le terme *euskaldun*, qui remontait à une certaine période, en particulier dans les domaines formels et administratifs. Cependant, de même que le terme d'*euskaldun* fait référence à celui qui sait ou possède l'euskara, nous entendons que le terme d'*euskal herritar* fait référence à celui qui est du Pays Basque, et donc, nous ne l'avons pas non plus jugé comme pertinent. D'une part, parce que le Pays Basque (la territorialité) peut avoir de nombreuses interprétations selon le point de vue idéologique qui y a recours : pour certains, il est composé par les 7 territoires historiques ; d'autres ne prennent en compte que la Communauté Autonome Basque ; d'autres encore considèrent la CAB et la Navarre, ou une partie seulement de la Navarre... De plus, nous pensons que les frontières géographiques ne peuvent pas, à elles seules, définir qui est membre du collectif basque.

Face à cela, et partant du constat que le fait d'être *euskaldun* peut être interprété en fonction de raisons et de référents différents, le terme **collectif basque** est utilisé en dehors du déterminisme du conditionnement géographique, linguistique, culturel ou politique, pour se sentir appartenir au collectif appelé basque (*euskal, vasco*) et pour s'identifier au groupe de personnes qu'il constitue.

Bien que n'étant pas utilisées dans la présente thèse, voici d'autres acceptions pouvant être attribuées à cette réalité : *Euskaldunak, Euskal herritarrak, Vascos, Basques*.

## 6

**La société basque** [Euskal gizartea] : Population qui vit au *Pays Basque*, composée de personnes qui s'identifient avec d'autres groupes que le *collectif basque* (Sénégalais, Espagnols, Français...)

Bien que n'étant pas utilisées dans la présente thèse, voici d'autres acceptions pouvant être attribuées à cette réalité : *Euskaldunak, Euskal Herria, Vascos, Sociedad vasca, Basques*.

## 7

**Membre du collectif basque** [Euskal kolektiboko kidea] : La personne qui s'identifie comme appartenant au *collectif basque*.

Bien que n'étant pas utilisées dans la présente thèse, voici d'autres acceptions pouvant être attribuées à cette réalité : *Euskalduna, Vasco, Basque, Euskal herritarra, du Pays Basque, Euskal Herrikoa*.

## 8

**La réalité basque** [Euskal errealitatea] : Dans la thèse nous l'avons utilisé comme acception pour faire référence à l'intégralité des aspects socioculturels de la société locale, ce terme englobant la culture, les relations, la territorialité, l'identité, la collectivité, les signes, les croyances, les valeurs, la tradition, etc.

"La plus belle des ruses du Diable est de vous persuader qu'il n'existe pas !"  
 ["Deabruaren amarru ederrena, existitzen ez dela sinestaraztea da"]

Boudelaire, 1862 (2003:150)

Errealitate bati sinesgarritasunik ez egozteak edota kaltegabe edo baliogabea dela pentsatzeak ez du esan nahi egiazki hala izan behar duenik. Soziologoaren betebeharrak, hain zuzen ere, sen arruntarekiko haustura epistemologikoa batetik abiatuko den inguru sozialaren azterketa kritikoa egitean datza, errealitate ohiko moduetan hautemateari utzi eta begi bistan ez dauden egiturak azaleratzeko ahaleginean jardutea izango baitu ofizioa.

Saiakera horretan, itxuraz gatazkarik gabeko errealitateekin topo egin beharko du maiz, gehien baldintzatu edo kolpatuko gaituzten fenomenoak, garrantzi-gabekoak direlakoan behar besteko atentziorik ematen ez zaien horietatik izango baitira. Hori dela eta, ikerketa zientifikoa helburua ez da hausnarketaren bidez ohikoak diren fenomenoei izaera gatazkatua esleitzea, baizik eta ohikoak izanik, lehendik ere gatazkatuak diren horien funtzionamendu eta ezaugarriak bistaratu eta ulergarri egiten saiatzea baizik.

"Intuizio soziologikoari" kasu on eginez ikuspegi horri erantzun dio honako ikerketa honek ere, interes gabekoa delakoan hausnarketa akademikotik orain gutxi arte baztertua izan den arren, eragin sozial handiko fenomeno bat hartu baita ikerketaren muintzat: umorea, hain justu ere.

-Zergatik umorea?

Azken mende erdian izan ez duen bezalako oihartzuna lortu du umoreak azken hamarkada honetan. Ameriketako Estatu Batuetan sortu eta sustatutako umore industriaren olatuak, maila globalean izan duen garapena oharkabean igaro da oro har. Telebista saioak, antzerkiak, bakarrizketak, pailazoak, umore eta barre terapiak, bai eta umorearekin

zer ikusia duten beste hainbat modalitate ere, eguneroko bizitzara egokitzen joan dira pixkanaka.

Baina umoreak sona soziala lortu baldin badu, ez da haren presentzia gero eta nabarmenagoa delako izan; aitzitik, eta bereziki, zenbait kasutan eguneroko bizitzaren "normaltasuna" aztoratzea lortu duelako baizik. "Mingarriak" diren gaiak "dagokien" errespetuz tratatu ez direlako; haren erabileraz kolektibo jakin bat "iraindu" delako; umore diskurtso batek aurrekaririk gabeko arrakasta lortu duelako; edo dioena esateko zilegitasunik ez duela irizita botere judizial edo politikoa zentsuratzera deitu duelako, adibidez.

Asaldura horren adibide hurbilenetarikoa bat 2015ko urtarrilaren 7an *Charlie Hebdo* aldizkari umoretsuan lan egiten zuten marrazkilarien erailketak sortu zuen. Bi gazte frantziar-islamiarrek, aldizkariaren komikiek Mahomaz trufa egiten zutela irizita, profetaren izen on eta ohorea defendatzeko zioz, 12 pertsona erail zituzten. Ordu arteko egonkortasun eta ordenu soziala aztoratu zituen gertakari hark: borroak/biktimak, gu/haiek, onak/gaiztoak edo estatua eta nazioa bezalako gaiak zeharka birdefinitzeaz gain, umorearen inguruko eztabaida ere piztu arazi zuen.

Sozialki orain gutxi arte aintzat ematen zen umorearen "aseptikotasunaren" ideia kolokan geratu zen une batez. Bat-batean ezinbestean argitu beharreko kontu bihurtu ziren momentu arte "normaltasunez" pentsatu eta bizitutakoak, eta umorearen gaitasun eta funtzio sozialez eztabaidatu zen, adierazpen askatasuna edo zilegitasuna bezalako kontzeptuen itzalpean.

Baina eztabaidek ez zuten luze iraun. Shockaren ostean ordenu soziala lehen baino lehen berreskuratzea bilatu zen, eta umoreak, arriskutsu edo mingarri izateari utzi zion berehala, berriro ere positibo eta gozagarri izatera

igarotzeko. Hori baita, hain zuzen ere, gaur egun umoreari esleitzen zaion irudikari nagusia.

Umorea onuragarritasun eta gozamenarekin lotzen da: traumak gainditzeko, tentsioak askatzeko edota plazera sentiarazteko gaitasuna egotzen zaio, eta oro har umoretsu izatea edo umorez aritzeko trebetasuna edukitzea ezaugarri indibidual zein kolektibo positibotzat jotzen da. Hala, erlijioso edo politikoki "sakratutzat" ora daitezkeen gaiak umorez ukitzeak ondorio sozialak ekar ditzakeela ulertzen bada ere, oro har ez da kontuan hartzen umore orok, eta ez "politikoa" deritzonak bakarrik, eragin sozial esanguratsurik sor dezakeenik. Izan ere, zer ondorio sor ditzake, adibidez, kalean botatuko banana azal batekin irristatzen den pertsonaren irudiak?

Ikuspegi soziologikoa batetik begiraturik, umorea gizartean konpartitua, ikasia eta irakatsia den praktika sozial bezala uler daiteke. Suerta dadin, subjektuen arteko interakzioa beharrezkoa du, eta beraz, maiz kontrakoa defendatzen bada ere, umoreak ez du gizartetik at existituko; hots, ez da "naturala". Interakzio horretan, subjektuek partekatzen dituzten errealitate eta mundu ikuskerekin jokatu du, eta hori egin ahal, errealitateekiko iritzi eta juzkuak luzatzen ditu bere planteamenduetan.

Umoreak gizartearen baitan "normala" dena eta ez denaren arteko inkongruentzia oin hartzen du: ezaguna eta "zuzena" den egoera edo narrazio bati egiten zaion zauri "akasdu", apurtzaile edota aurreikusitako eragiten baitu egoera umoretsua izatea. Ohikotasuneko "ordenari" "desoreka" bat sorraraziko dio beraz, *haustura* bat, eta haustura horren bitartez iritzi posionatu bat helarazten du. Ikuspegi jakin batetik hitz egiteak diskurtso zehatz bat indartzea (edota ahultzea) dakar, eta beraz, errealitate sozialarekiko jarrera jakin bat hartzea ere bai.

Hartara, umore "inozuenak" ere, maiz "ezer esaten ez" duen debaldeko dibertimendu "neutroaren" paradigmaztat hartzen den horrek, halabeharrez dio zerbait.

Baina esatea, egitea ere bada. Diskurtso edo ikuspegi jakin bat helarazi eta defendatzeak, diskurtso hori errealitatearen parte bilakatzea ekartzen du, eta modu errepikatuan egiten den ariketa denean, diskurtsoaren performazioa ("normalizazioa" eta zilegitzea) sustatzen da. Umoreak beraz, beti indartzen du "norma(la)ren" ikuspegi jakin bat; banana azal batekin irristatzen den irudiaz, adibidez, estropezu egitea, baldarra izatea edo lurretik ibiltzea, gure gizarte (mendebaldarrerako) jarrera "anormalak" direla gogoraraziko zaigu.

Eragin horietaz jabetzea nekeza da umorearen kasuan, ordea. Bestelako genero diskurtsiboekin gertatzen ez den bezala, umoreak berezkoa duen bat-bateko algaraz sortzeko gaitasunak, horrekiko jarrera kritikoa bat garatzeko edota erantzun bat emateko tarte txikia uzten baitu. Interakzio gehienetan ez bezala, umoreak sortutako irriaren katarsian galdurik, zaila izaten da usu umorez igortzen den mezua momentuan bertan auzitan jarri edota horrekiko hausnarketa bat burutzea. Eta gehienetan, umorez botatzen den edukiaz era bat jabetu gabe, hori onartu, barneratu eta konpartitzen bukatzen da "inertziak".

Hor kokatzen da, hain zuzen ere, ikerketa hau burutzeko arrazoi nagusi bihurtu den umorearen potentzialtasun handienetarikoa bat: umorearen itxurazko kaltegabetasuna, alegia. Beste edozein gizarte-diskurtsok bezala baldintzatutako edukiak lantzen baditu ere, umorea komunikazio sistema pribilegiatua da bi arrazoi nagusirengatik.

Alde batetik, gizartean duen onarpen sozial onak umorearekiko mesfidantza gutxi sortarazten du, eta bere erabilera onartu ez ezik bultzatu ere egiten da

oro har: hots, ezerk grazia egitea lortzen badu, azkar batean zabaltzen da kolektiboan. Hala, umorea harreman interperpersonal guztietan ager daiteke, gizarteko talde sozial eta esfera (politiko, kultural, ekonomiko, osasun ...) guztiak zeharkatzeko gaitasuna baitu.

Bestetik, umoreak sorrarazten dituen eragin positiboak (plazera, barrea, atsegina, algara, enpatia, hurbiltasuna...) haren edukiak irrazionalki barneratzea eta transmititzea errazten du. Umorearen bidez igortzen diren diskurtsoen hautematea zailagoa bilakatzen da, gozameneko sentsazio horien atzean "ezkutatzen" baitira, eta beraz, iruditegi sozialak performatzeko abantailatsua da.

#### - Ikerketaren abiapuntua

Umoreak izan dezakeen eragin sozialetan sinestera eta sinesmen horretatik ikertzera eraman gintuen "senak" tesina forma hartu zuen 2010-2011 urteetan: 2003an Euskadiko<sup>1</sup> ETB2 telebista kate publikoak igorritako *Vaya Semanita* umore esketx programa aztergai izan zen hasierako lan hartan.

Programaren aurreneko denboraldietan Euskal Herriko<sup>2</sup> gatazka politikoan<sup>3</sup> parte-hartzen zuten agente sozial, instituzional eta politiko desberdinak izan ziren umore jomuga, eta euskal gizartean<sup>4</sup> lehen aldiz, testuinguru

—

1 "Euskadi" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago.

2 "Euskal Herria" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago.

3 Hala deritzo, bereziki ETA talde armatuaren sorreratik gaur egun arte, ideologia eta agente politiko desberdinak tarteko egonik, Euskal Herriak, Frantziak eta Espainiak izan duten gatazka politiko eta militarri.

4 "Euskal gizartea" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago.

politikoari buruzko parodia publikoki egitea suposatu zuen horrek. Bi hautemate orokor atera ziren lan hartatik:

a) Lehenik eta behin, umorearekiko jarrera soziala eskuarki positiboan izanik ere, kasu konkretu batzuetan umoreak oro har, eta bereziki umorez trataturiko gaiak, ezadostasun soziala pizteko gaitasuna zutela (Zer da umorea eta zer ez? Mugarik izan behar al du? Ze gai jorratu daitezke eta zeintzuk ez?). *Vaya Semanita*-k landutako gaien kasuan zehazki, gizarte sektore batek lekuko egoera soziopolitikoaren tratamendu umoretsua tabu sozialak gainditzeko aukeratzat jo zuen. Baina beste sektore batek, ordea, gatazkaren protagonisten zein euskal kulturaren inguruko mezu lotsarazleak helarazten zituela pentsatu zuen. Hala, telebista saioak aurkezten zuen euskal errealitatearen<sup>5</sup> aldeko eta kontrako jarrera sozialak argitara atera ziren, eta aurrenekoz, umorea, euskal gizartearentzat interes sozialeko afera lez agertu zen.

b) Bigarrenez, umore autoerreferentzialerako dagoen joera izugarri zabala bistaratu zuen tesina proiektuak. Umore mota eta gaiak askotarikoak izan bazitezkeen ere, oihartzun eta arrakasta handiena lortu zuen umorea euskal kolektibo<sup>6</sup> eta euskal errealitatea irudikatzen zuen

—

5 "Euskal errealitatea" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago. Edonola ere argitu nahi da *Vaya Semanita* programak bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko egoera politikoa landuko badu ere, modu tangenzialean Euskal Herri osoari lotu dakioken kultura, taldetasuna, hizkuntza, zeinuak, tradizioak, ea. ere irudikatu dituela. Hala, telebista saioaren inguruko eztabaida soziala ez da soilik programak hartutako diskurtso ideologikoan kokatu, baita "euskal" horri loturiko bestelako irakurketak burutzeko moduaren (des) zilegitasunaren inguruan ere.

6 "Euskal kolektibo" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago.

horixe baitzen. Paradoxikoa badirudi ere, euskal kolektiboan, arlote, mozkorti, jatun, apustuzale, sexualki erreprimitu edota ahozkin bezala formulatzen zuen estereotipoetan oinarrituriko umoreak lortzen zuen espazio publikoan nagusitasuna (telebista kateetan, kalean, ea.), eta euskal kolektiboak, bestelako umore estiloekin konparatuz, bere burua umore jomugatzat hartzen zuten diskurtsoak kontsumitu eta produzitzen zituen masiboki.

Horretaz gain, tesinaren ondorioek bestelako berezitasun esanguratsu bat agertu zuten; nazioen umorea lantzen zuten teoria soziologikoak ziotena (umore etnikoa<sup>7</sup> terminoaz ezagunagoa dena) ez baitzen hemen aurkeztutako "euskal umorearen" aldaerari guztiz aplikagarria. Bi ziren teoria eta euskal kasuko praktiken desdori nagusienak:

a) Batetik, maila teorikoan, nazio baten baitan egiten den umore etnikoarekiko interpretazio sozial gatazkatsuak orain arte ez dira erregistratuak izan, hots, apenas dago umore etnikoaren baitan sortutako eztabaida edo liskar sozialari buruzko bibliografiarik. Horren ordez, umore etnikoaren ezaugarri orokorren inguruko lan deskriptiboak nagusitu dira.

Umore etnikoaren inguruko teoriak, umorea, kolektibo nazional baten mundu ikuskerekin jokatzeko duen diskurtso molde gisa ulertzen dute, kolektibo batek komunean duen kulturari dagozkion balio, iritzi eta sinesmenetatik abiatzen dela kontuan hartuz. Ikuspegi horrek, umorea kolektibo osoak onartu eta konpartitzen duen ikuspegiaren islatzat

—

7 Christie Davies-ek *umore etniko* bezala izendaturiko umore tipo idealean oinarritu gara lan honetarako. Hau da, kolektibo nazional bati dagokiona; edo autorearen hitzetan, muga sozial, moral eta geografikoek baldintzatuko duten umorea kontuan hartzen duena (Davies, 1999). Kasu honetan euskal nazioari dagokiona.

jotzen du beraz, eta gizartean konpartitua eta denen artean adostua den neurrian, gatazkarik gabea ere badela aintzat ematen da inplizituki.

Honakoa Euskal Herriko kasuan aplikatzen bada, ordea, pentsatu beharko litzateke euskal kolektiboak erabilitako umoreak errealitatearen ikuspuntu komun baten adierazle izan beharko lukeela. Hau da, euskal kolektiboko kideek<sup>8</sup> gizarte (eta ondorioz kultura) berdin baten parte diren heinean, errealitatearen inguruko gutxiengo adostasuna konpartitu beharko luketela, eta bertatik bertara partekatutako umoreak ere koherentzia sozial horri eutsiko liokeela bere diskurtso publikoan. Hain zuzen ere, espazio publikoak interakzio sozialaren bidez errealitatea ulertzeko modua doitu eta objektibatzeke dimentsio bat eskaintzen duelako.

Haatik, praktikan ez da hala gertatzen. Alde batetik, balizko euskal errealitatea irudikatzen duen diskurtsoaren aurrean agertutako desadostasun sozialak, kolektiboaren baitan "euskal" hori ulertu eta bizitzeko modu desberdinak daudela agerian jarri duelako. Eta bestetik, ikuspegi desberdin horien artean kontsensu publiko bat lortzeko beharrezko baldintzak bermatzen ez direla nabari daitekeelako.

Egoera horren aurrean pentsa daiteke umore diskurtsoak plazaratzerakoan mezu igorle guztiek aukera eta zilegitasun berdinik ez dutela. Euskal kolektiboaren baitan ematen diren diskurtsoen kudeaketa agente desberdinen arteko botere-harremanen korrelazioaren menpe dagoelako ideia indartzen da, eta zehazki, umore diskurtsoen harira sortutako gatazka, botere-harremanen arteko talka horren islatzat jo daiteke.

—

8 "Euskal kolektiboko kide" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago.

b) Bigarrenez, umore etnikoaren ohiko jokamoldetatik kanpo geldituko den umore autoerreferentzialaren arrakasta ere aipagarria da. Umore etnikoaren inguruko teoria soziologikoa kontuan hartuz, nazio baten umore joerak, nagusiki taldekide ez direnekiko isekan oinarritzen direla nabarmena da. Norberaren kolektibo nazionalari umorez heltzea ez da ohikoa, eta are gutxiago burla errealitate propio horri soilik eta espresuki egitea. Hartara, kolektibo batek propio dituen zeinu kulturalak, linguistikoak, identitarioak edo lurraldekoak ardatz dituen umoreak ez du apenas tratamendu teorikorik jaso.

Baina euskal kasuan ikusi dugunez, euskal kolektibo nazionala jomugatzat hartzen duen umorea da arrakastatsuenarikoa. Bestelako errealitateak (espainiarrak, frantsesak edo bestelakoak) planteamendu umoretsu horietan inoiz gutxi agertzen direlarik, eta agertzen direnean, bestelako tratamendu apalagoa ematen zaierarik.

Gure irudikoz, umore etnikoa aztertu duten autoreek Nazio-Estatuetan burututako umore jarduera landu dute gehien bat, eta estatu propiorik gabeko nazioen berezitasunak azaltzerako orduan, euskal kasuan gertatzen den bezala, gabezia batzuk erakusten dituzten proposamenak dira. Besteak beste, Nazio-Estatuen kasuan, nazioaren auto-definizio sinbolikoa ezartzerako orduan, hau da, nazio-kideen eta nazioa bera identifikatuko duten ezaugarriak finkatzerako anean, agente sozial

edota instituzional desberdinen artean dauden botere-harremanen norgehiagoka oharkabean islatzen dutelako. Izan ere estatuaren eskumenean dauden instituzioak (eskola, erlijioa edo komunikabideak kasu) kolektibo nazionalaren irudi homogeen bat sortu eta zabaltzeaz arduratzen dira eta espazio publikoan (heine handi batean estatuak berak kontrolatua) inoiz gutxitan sortzen dira horren inguruko eztabaidak.

Estatu propiorik gabeko nazioen adibidean, ordea, nazioarekiko hautemate sozialak anitzak dira oro har, nazioaren irudi hori kudeatu dezaketen botere organoak ugari direlako ere. Nazioaren definizioa izaera ezberdineko instituzioen esku dagoenez (kulturalak, politikoak, sozialak, sindikalak, ea.), auto-definizio sinboliko desberdinen ez-adostasunak oihartzun gehiago hartzen dute orokorrean, eta baita umorearen kasuan ere.

Hori guztia ikusteak, beraz, kolektibo baten baitan egiten den umore etnikoak, kolektiboa eta horren errealitate kultural edo identitarioen inguruko aferarekin (auzi nazionalekin) lotura zuzena duela pentsatzera eramaten gaitu. Afera nazional horiek, gainera, estatu propiorik gabeko nazioen kasuan, orain arte teoriatik aztertuak izan diren adibideak ez bezalako bilakaera eta funtzionamendua izan dezaketela iruditu zaigu. Eta funtzionamendu horien artetik esanguratsuen, egindako umoreak errealitatea (nazioa) hautemateko modu desberdinak badaudela agerian

uztea izan da, eta ondorioz, hautemate desberdinen artean dagoen zilegitasun sozial maila desberdinaren erakusle izan daitekeela.

Susmo hauetan oinarrituz, beraz, **umoreak**, (botere-harremanek baldintzatuta) **euskal nazioaren eraketan<sup>9</sup> duen rol politikoa aztertea da tesiaren helburua.**

—

9 Oro har, *nation building* azaltzeko, "nazio eraikuntza" adiera erabili ohi da euskaraz. Lan honetan ordea, "nazio eraketa" erabiltzea egokiagozat jo da, nazioari esleitu nahi diogun konplexutasun eta prozesu izaera modu egokiagoan adierazten duelakoan baikaude. Zehazki, *Harluxet* hiztegi entziklopedikoaren arabera, "*eraikuntza*" adiera zuzenean lotzen zaio arkitekturari, eta "*eraikitze artea eta teknika*" gisa ulertzen da. "*Eraketa*" adierak aldiz, irakurketa zabalagoa ahalbidetzen du. Batetik, ez delako arkitektura, ingeniariaritz edo matematiketara mugatzen den terminoa; eta bestetik, zerbait sortzeko jarduera izateaz gainera, sortutako hori ere ("eraketa" ekintzaren emaitza, alegia) adieraren baitan hartzen duelako. "*Eraketa*" beraz, "*eratzeko ekintza eta horren ondorioa*" izanik. "Nazio eraketa" erabiltzean, nazioa ("emaitza") eta nazioa eratzen duten erreproduzio bideak ("eraketa jarduera") adieraren baitan barnebiduak gelditzen direla ulertzen dugu, bata eta bestea ("emaitza" eta "eraketa jarduera") errealitate berdinari dagozkiola, eta ondorioz, biak direla "nazio". Hala, nazioa, etengabe "eraten" eta birproduzitzen doan prozesu gisa ulertzen dugu; amaiarako emaitzarik ez duena, edo bestela esanda, emaitzatzat, prozesua bera duena.

- *Tesiaren planteamendua*

Umorea eta nazioa, oro har, eta "euskal umore" eta euskal nazioa zehazki, uztartu eta aztertu dituzten ikerketen gabezia kualitatibo eta kuantitatiboaren kariaz, tesi honen iker-objektua, neurri handi batean, "hutsetik" diseinatu da. Ikerketaren helburua abiapuntutzat hartuz, beraz, ikuspegi soziologikoa kontuan izan duen umore eta nazioagintzaren inguruko hausnarketa teoriko bat burutu da: kategoriak banaka aztertuz hasieran (umorea/nazioa), eta elkarren arteko loturak agerian jarriz ondoren.

Umorea da ikerketan erabili den kategoria analitikoetariko bat. Teorikoki ulergarria eta enpirikoki aztergarria izateko, umorearen esanahia zehazitzea ezinbesteko egin beharra izan da. Baina zehaztapen lan hau bereziki konplexua suertatzen da umorea bezain aldakor, kontingente eta anitza den kategorien kasuetan. Umoreak dituen ikuspegi, erabilera eta funtzioen aniztasuna kimatu gabe analisisirako kategoria bezala erabili ahal izateko, ordea, ez du baliorik definizio jakin bat emateak. Beraz, ez da bere definizio bat proposatu, berorri aztertzeko ikuspegi bat baizik: umorea, hartara, *prozesu* bezala ulertu da ikerketa honetan.

Umore mota guztiak ez dira kontuan hartu, ordea, horren ordez, *umore etnikoaren* analisisira mugatu da ikerketa. Umore etnikoaz aritzean, kolektibo nazional bateko kideek erabiltzen duten umoreari egiten zaio erreferentzia, aukera

horren baitan kolektiboko kideek erabiltzen dituzten umore mota desberdin guztiak sartzen direlarik (arrazista, matxista, umore zuria...). Kasu honetan ordea, euskal umore etnikoa bere osotasunean ikertu beharrean, *autoerreferentziala den euskal umore etnikoa* hartu da soilik kontuan: hots, euskal kolektiboko kideek erabiltzen duten eta euskal kolektibo eta errealtate nazionalaren inguruko edukiak lantzen dituen umorea. Zehazki, euskal *kolektibo*, *hizkuntza*, *lurraldea* eta *zeinuak* aipatzen dituena.

Ikuspegi horretatik abiatuz, non umorea *umore-prozesuak*<sup>10</sup> (up) bezala birdefinitu den, up-ek (euskal etniko autoerreferentzialak) duten rol politikoari erreparatu diogu ondoren. Horretarako, soziologiatik up-ak praktika sozial eta diskurtsibo lez uler daitezkeen hainean, errealtate sozialak performatzeko duten gaitasuna hartu da abiapuntutzat. Baina rol politikoari bigarren ikuspegi bat ere esleitu zaio. Up-ek duten ahalmen performatiboa ez ezik, gizartean egiten den up-en erabilera arrazionalak edo errelexiboak (politikoak) ere euskal nazioingintzan zeresana duela iritzita, hori ere rol politikotzat hartu da.

Bi ezaugarri horiek kontuan izanik, beraz, rol politikoak, up-ek gizartean eragiteko gai diren heinean betetzen duten *mediazio* funtzioari dagokio. Hots, up-ek rol politikoak baldin badute, mediatio prozesu izateko duten gaitasunarengatik dela ulertu da. Hala, mediatio, errealtate soziala eratzeko abagune bezala definitu dugu; irudikari, praktika, diskurtso, botere-harreman eta interakzio desberdinak barnebiltzen dituen esparru/prozesu jarrai bezala ulertuz.

*Euskal nazioa* da bigarren kategorian analitikoak, up-en mediatio aztertzeke irudikatu gisa ulertu dena. Nazioingintzaren alde kultural eta sinbolikora mugatuz, nazioa diskurtso/irudikarien bitartez eratzen den errealtate sozial bezala formulatu da. Ikuspegi horretatik, bere baitan

10 Frantsesez idatzirik ataletan, umore-prozesuak (up), *processus humoristiques* (ph) moduan izendatu da.

homogeneoa den nazioaren ideiatik aldendu, eta irudikari desberdin (zein kontraesankorren) bitartez osatzen den errealtate bezala ulertu da beraz. Nazioa hauteman, bizi eta irudikatzeke era desberdinak daudela kontuan izanik, hala, euskal nazioa, *nukleo irudikatu multipolar* bezala formulatu da.

Hausnarketa eta ikuskapen teoriko horrek ahalbidetu du iker objektua eratzeko, bai eta horretatik azterketa bideratzeko oinarria osatzea ere. Horrenbestez, iker objektutzat, **umore-prozesu (up) euskal etniko autoerreferentzialen mediatio euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarrean** hartu da. Ikerketaren muina, beraz, *prozesua* bera aztertzean datza, hau da, up-en bidezko mediatio bera ezagutaraztean; hori, umoreak euskal nazioaren eraketan duen rol politikoa argitara ekartzeko bidea dela ulertzen baita.

Metodologia kualitatiboa erabili da horretarako, lortu nahi den informazioa eta helburua kontuan hartuta, ezinbestekoa baita gerturatze horretaz baliatzea. Metodologia horren baitan, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko<sup>11</sup> up euskal etniko autoerreferentzien behaketa parte-hartzaile eta erregistro burutu da; eta bestetik, up-en egile eta hauetan adituak direnei sakoneko elkarrizketak eta hiruko taldeak egin zaizkie. Bildutako informazio guztia diskurtsoen analisiaren bidez aztertu da, eta horri esker, a) up-en nolokotasunak ezagutu, b) nolokotasun horien pean dauden diskurtsoak bistaratu, c) diskurtso desberdinen arteko harremanak argitara ekarri, eta azkenik, d) mediatio prozesuaren argiztapen bat burutu da.

Bilakaera teoriko eta analitikoaren azalpena bi atal nagusitan bereizi da. Lehenengoak ikerlanaren kokapen teorikoa izatea du helburu, eta bigarrean lanaren alde enpirikoa jasotzen da. Lehen atalak bi zati dauzka bere

11 "Euskal Autonomia Erkidegoa" adiera *Zehaztapen kontzeptualean* azaldua dago

baitan: aurrenean (2. *L'humour*), umore kategorian sakondu eta honen ulermen eta erabilera analitikorako proposamen bat luzatu da. Horren baitan, umorearen inguruko ikuskapen teoriko bat eskaintzen da aurrenik, umorea nondik ikusia eta nola ulertu den azalduz (2.1 *Un première approche de l'humour*). Errebisio teorikoan esandakoan oinarrituz, umorea soziologikoki aztertzeke baliagarria den ikuspegiaren proposamena luzatu da bigarren puntuan. Umorea prozesutzat jo eta mediatio lez ulertzearen nondik norakoak zehaztu dira (2.2. *Proposition pour une étude sociologique de l'humour*).

Kokapen teorikoaren bigarren zatian (3. *La Nation*), nazio kategorian landu da. Lehen puntuan (3.1. *Qu'est-ce que la nation?*) nazioaren definizio bat ematearen gabeziak bistaratu dira, eta hartara, zailtasun hori gainditzeke, nazioaren ikuspegi egokitu baterako testuinguru teorikoa osatzeko probestu da bigarren puntua (3.2. *Contexte théorique pour une approche pertinente de la nation*). Hirugarren puntuan nazioa ulertzeke proposamen hori garatu eta xehatu da (3.3. *Comprendre la nation [comme un noyau] imaginé[e]*). Hala, nazio kategorian, nukleo irudikatu bezala ulertzeke planteamenduan sakondu da, eta zehazki, euskal nazioa, nukleo irudikatu multipolar gisa nola antzeman daitekeen argitu da. Zati honen azken puntuan, euskal nazioingintzak izan duen garapen diskurtsiboan jarri da soa, eta bere nukleo irudikatu multipolarren bilakaera historikoa nolako izan den argitzeke probestu da (3.4. *Récapitulatif de l'évolution historique du noyau imaginaire multipolaire de la nation basque*).

Tesiaren bigarren atala ere, bi zati nagusitan banatua dago. Batetik, ikerketarako erabili den metodologia zehaztu da (4. *Conception de la recherche*); helburu, lagin, teknika eta analisi prozesuak azalduz bertan. Eta bestetik, lau azpi atal desberdinetan banaturik, landa lanaren analisia lortutako datuak argitu dira. Aurrenekoan (5.1. *La matrice culturelle*), up-ak burutzen dituztenek euskal nazioak duten

hautematea nolako den azaldu da. Bigarrean (5.2. *La rupture*) up euskal etniko autoerreferentzialek euskal nazioari esleitzen dizkioten irudikapenen nolokotasuna zehaztu da. Hirugarrenean (5.3. *Distantzia*) up euskal etniko autoerreferentzialek euskal nazioak helarazitako irudikari/diskurtsoen irakurketa zabal eta orokorra burutu da, horiek zer nolako errealtateak objektibatzen dituzten azaldu, eta horren bidez, euskal nazioaren inguruan dagoen nukleo irudikatu multipolarra nolako den agerian jarriaz. Eta azkenekoan (5.4. *Gozamena*) euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarren eraketan, up desberdinek elkarren artean dituzten (botere) harremanak eta artikulazioak nolakoak diren azaldu da, bai eta harreman horiek up-en hautematean (gozamenan) nola eragiten duen argitu ere.

Amaitzeko, iker lan honetan ateratako datuak eta egindako bilakaera teoriko eta enpirikoa kontuan hartuz, iker lanaren hasieran proposatutako galderari erantzuna ematen zaio ondorioetan; umoreak euskal nazioaren eraketan duen rol politikoaren inguruko hausnarketa gehituz bertan (6. *Conclusions*).

#### - Zehaztapen kontzeptuala

Euskal Herriko bilakaera soziopolitikoaren baitan adiera zabala sortzen joan da "euskal" deritzonarekin harremana duten errealtate desberdinak identifikatzeko unean. Testuinguru sozialaren, garai historikoaren edo kolektibo ideologikoaren arabera, izendapen berdinek errealtate desberdinei egiten diete erreferentzia, eta maiz, zailtasun handiak daude kontzeptu jakin batek zehazki zer adierazi nahi duen igartzeko. Hori dela eta, lagungarritzat jo dugu tesian azaltzen diren zenbait kontzeptu nola ulertu ditugun argitzeke, bai eta gizarte mailan ez erabili arren tesirako egokituak izan diren beste batzuk azaltzea ere.

Izendapenen aniztasun eta kontraesan hau, Euskal Herriak estatu propiorik ez izatearen ondorio bezala



ulertzen dugu; agente sozial, politiko eta instituzionalen arteko indar korrelazio desberdinen erakusgarri baita errealtateak hain modu anitzetan ulertu eta izendatzearen jarduna. Horregatik, zehaztapen kontzeptual honetan nahasgarriak izan daitezken zenbait errealtate tesian nola ulertuko diren azaltzeaz gainera, tesitik kanpo errealtate hauek kalean jasotzen duten bestelako izenak ere gehitu dira, besteak beste, egunerokotasunean dagoen "kontzeptu-korapiloaren" testigantza uztea garrantzitsutzat jo dugulako.

1

**Euskal Herria** [Pays Basque]: Zapiz eskualde historikoek osaturiko lurraldeari deritzogu. Hau da, alde batetik espainiar estatuaren baitan kokaturiko Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa eskualde autonomikoak eta bestetik frantziar estatuaren baitan kokaturikoak, alegia: Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa kontuan hartzen dituen esparrua. Lurralde honek ez du estatu propiorik, eta ondorioz, ez du egikaritzarako gaitasun edo eskumenik. Hala ere, esangura politiko, historiko, sinboliko edota sozial handia egozten zaio oro har, hau baita jatorriz euskal nazionalistek, euskal nazioari esleituko dioten eremu geopolitikoa.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Tout le Pays Basque, País Vasco*.

2

**Euskadi - Euskal Autonomia Erkidegoa** (EAE) [Communauté Autonome Basque (CAB)]: 1979an sortua, Gipuzkoak, Bizkaia eta Arabak osatzen duten erkide autonomikoa.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Euskal Herria, Comunidad Autónoma Vasca, CAV, País Vasco, Pays Basque, Pays Basque espagnole*.

3

**Ipar Euskal Herria** [Pays Basque nord]: Frantziaren estatupean dauden lurraldeei dagokie: Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoari batera erreferentzia egiteko erabiltzen den izendapena da. Edonola ere, frantziar estatuaren aitortza ofizialik ez duen heinean, ez du egikaritzea administratiborako eskumen propiorik. Esangura sinboliko-historiko-kulturala (eta horren ondorioz politikoa, zentzu zabalean ulertuta) du.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Iparaldea, País Vasco Francés, Euskadi Kontinental, Pays Basque, Euskal Herria*

4

**Hego Euskal Herria** [Pays Basque sud]: Espainiaren estatupean dauden lurraldeei dagokie: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroari batera erreferentzia egiten dio. Orain arteko Espainiako gobernu orok ez dute onartu Nafarroa izendapen honetan sarturik dagoenik, eta beraz, "Hego Euskal Herria" ez da ofizialki existitzen eta ez du egikaritzea administratiborako eskumen propiorik. Esangura sinboliko-historiko-kulturala (eta horren ondorioz politikoa, zentzu zabalean ulertuta) du.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Hegoaldea, Euskadi, Euskal Herria, Euskadi Penintsularra, Pays Basque Espagnol*.

5

**Euskal kolektiboa** [Le collectif basque]: Euskal nazioaren baitan identitate gatazka nabarmena da, identitate nazional eta pertenezko sentimenduak desberdin ulertzen baitira kasu kasu. Hizkuntza, ideologia politikoa, nazioarekiko atxikimendua edo lurraldearen inguruko pertzepzio desberdinek, euskal identitatea ulertu eta definitzeko modu desberdinak sortarazi dituzte, bai eta elkarren arteko gatazkak piztu ere. Hori dela eta,

"euskal kolektiboa", bere burua "euskaldun", "vasco" edo "basque" gisa hautematen duen pertsona multzoari dagokio; identitatearekiko duten ikuspegia edozein izanik ere, "euskal" ("vasco" edo "basque") taldearen parte direla sentitzen dutenak kontuan hartuz honen baitan.

Errealtate honek badauzka bestelako adierak (euskaldun, euskal herritar) baina adiera horiek ez dira egokitzen jo ondoko arrazoiengatik:

**-Euskaldunak** jatorrian euskaraz dakienari egiten dio erreferentzia (*euskara-duna*). Gaur egun adiera honek esangura zabalagoa hartu du, euskararen ezagutza edukitzeaz gain, kolektibo osoari egiten baitio erreferentzia. Edonola ere, hitzaren jatorria ez dugu zehaztatzen, eta kalean ohikoa bada ere, tesian ez da hala erabiltzen. Gure ustez, *euskalduna* izenak ez baitu behar bezala islatzen kolektibo honen baitan egon daitekeen aniztasun linguistikoa, alegia *euskara-duna* eta *euskara-ez-duna* biak kolektibo berekoak izan daitezkeela.

**-Euskal herritarrak** edo **euskal hiritarra** neologismoak garai bateko *euskaldun*-a terminoa ordezkatu zuen zenbait esparrutan, bereziki arlo formal eta administratiboetan. Baina *Euskalduna*-k euskara-duenari erreferentzia egiten dion bezala, *Euskal herritar* terminoak Euskal Herrikoa denari erreferentzia egiten diola ulertzen dugu, eta beraz, hori ere ez dugu egokitzen jo. Alde batetik, Euskal Herriak (lurraldeak) interpretazio asko izan ditzakeelako erabiltzen duenaren ikuspegi ideologikoaren arabera: zenbaitentzat 7 lurralde historikoek osatzen dute; beste batzuek EAE soilik hartzen da kontuan; zenbaitek EAE eta Nafarroa edota Nafarroako zati bat soilik, ea. Horretaz gain pentsatzen dugu muga geografikoek, horiek bakarrik, ezin defini dezaketela euskal kolektiboko kide zein den.

Honen aurrean, eta *euskaldun* izatea arrazoi eta zeinu desberdinen arabera interpreta daitekeela ikusita **euskal kolektibo** terminoa erabiliko da baldintzapen geografiko, linguistiko, kultural edo politikoen determinismotik at, bere burua euskal (zein *vasco* edo *basque*) deritzon kolektiboaren parte sentitu eta egiten duen pertsona multzoa identifikatzeko.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Euskaldunak, Euskal herritarrak, Vascos, Basques*.

6

**Euskal gizartea** [La société basque]: Euskal Herrian bizi den jendartea, euskal kolektiboa ez beste taldeekin identifikatzen diren pertsonen osatutakoa (senegaldarrak, espainiarrak, frantsesak...)

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Euskaldunak, Euskal Herria, Vascos, Sociedad vasca, Basques*.

7

**Euskal kolektiboko kidea** [Membre du collectif basque]: Bere burua Euskal kolektiboko partaide bezala identifikatzen duen pertsona.

Tesian erabili ez arren, errealtate honi ematen zaizkion bestelako adiera posibleak: *Euskalduna, Vasco, Basque, Euskal herritarra, du Pays Basque, Euskal Herrikoa*.

8

**Euskal errealtatea** [La réalité basque]: Lekuko gizartearen aspektu soziokultural desberdinen osotasunari erreferentzia egiteko adiera bezala erabiltzen da tesian: kultura, harremanak, lurraldea, identitatea, kolektibotasuna, zeinuak, sinesmenak, balioak, tradizioa, ea. barnebiltzen dituen terminoa.

2. L'HUMOUR  
UMOREA

59-94	2.1.	UN PREMIÈRE APPROCHE DE L'HUMOUR
95-129	2.2.	PROPOSITION POUR UNE ÉTUDE SOCIOLOGIQUE DE L'HUMOUR
<hr/>		
130-150	2.1.	UMOREAREN LEHEN HURBILPEN BAT
151-171	2.2.	UMOREAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKORAKO PROPOSAMEN BAT

- Comment interpréter l'humour ?

C'est l'un des principaux défis de cette recherche. Si l'on veut en faire une catégorie exploitable d'un point de vue sociologique, exclure l'approche de la quotidienneté de l'humour est un exercice indispensable. Ceci conduit, forcément, à délimiter et préciser la vision que l'on a de l'humour.

La section suivante répond à cet objectif, puisqu'elle précise comment est compris l'humour dans notre recherche. Pour cela, le texte est divisé en deux sous-sections principales. Tout d'abord (2.1. *Une première approche de l'humour*), on explique comment et à partir de quelle perspective l'humour a été étudié et interprété au cours de l'histoire. Les contributions de certains penseurs y figurent et, bien que l'humour soit un phénomène n'ayant pas fait l'objet de nombreuses études, on met en évidence le fait que les lectures qui en ont été faites sont exhaustives et très différentes les unes des autres. Partant de cette richesse, on s'est livré à un double exercice dans cette première sous-section. En premier lieu, on a montré quelles sont les approches que les différents auteurs et théories ont en commun, au-delà des désaccords qui peuvent les opposer. Par ce biais, on met en évidence le fait que, bien que les auteurs aient des points de vue très différents, ils attribuent généralement à l'humour un minimum de caractéristiques communes. En second lieu, compte tenu de cette diversité d'interprétations concernant l'humour, on a considéré que l'humour doit être malléable et ouvert, d'où la nécessité d'une approche dans laquelle l'humour est exploitable pour les différents cas de figure et points de vue, car seule une telle approche peut empêcher de tomber dans le même piège théorique que les auteurs étudiés, à savoir, le recours à une proposition (trop) partielle, et donc inappropriée, sur l'humour.

Précisément, cette dernière idée constitue l'objectif de la deuxième sous-section (2.2. *Proposition pour une étude sociologique de l'humour*). Dans cette partie, en effet, tout en tenant compte aussi des caractéristiques générales mentionnées à propos de l'humour dans la première section, nous avons élaboré une proposition de catégorie humour permettant une étude sociologique, aussi bien empirique que théorique.

### UNE PREMIÈRE APPROCHE DE L'HUMOUR

Même si cela passe souvent inaperçu, on pourrait dire que l'humour est présent dans tous les secteurs et toutes les dimensions de la société.

Les thérapies du rire pour libérer des endorphines et chasser le stress<sup>1</sup> ; les stages pédagogiques qui permettent, par l'humour, d'augmenter le développement cognitif<sup>2</sup> ; les interventions publiques humoristiques des représentants des partis politiques afin de gagner des électeurs<sup>3</sup> ; les spectacles de clowns qui contribuent, dans les hôpitaux, à améliorer la qualité de vie des patients et accélérer leur rétablissement<sup>4</sup> ; le recours à la publicité pour augmenter les ventes<sup>5</sup> ; les ateliers humoristiques destinés aux entreprises afin de renforcer l'identité de groupe<sup>6</sup> ; la liste n'est pas exhaustive.

La tendance à penser que cet usage ouvert de l'humour a toujours existé, que l'humour a toujours eu, à travers l'histoire, la même présence et la même

1 Skills You Need, (sans date).

2 Micael G. Lovorn, 2008.

3 El Mundo, (2009).

4 "Fundación Theodora, payasos para nuestros niños hospitalizados", (2015).

5 Bancaja, (2008).

6 Eduardo Jauregui eta Jesús D. Fernandez, (2016).

perception, a pu avoir cours. Cependant, la manière d'interpréter l'humour n'a pas toujours été celle-ci. Il serait plus exact de dire que l'origine de cette vague de succès se situe dans la société étasunienne du XXe siècle (Wickberg, 1998). Le marché capitaliste et les médias de l'époque se rendent compte que l'humour peut être profitable tant sur le plan social, qu'économique ou encore politique. C'est ainsi qu'au cours des deux derniers siècles, on peut constater que l'usage de l'humour connaît une croissance qualitative et quantitative sans précédent. Cette tendance, née aux États-Unis et qui s'est propagée à travers le monde en quelques décennies (particulièrement dans la société occidentale), génère une véritable industrie de la production d'humour (Lewis, 2006), ainsi qu'une présence croissante de l'humour au quotidien.

Alors, comprendre que cette propagation de l'humour est un phénomène qui date de ces dernières années nous conduit à penser que sa perception et sa pratique ont évolué en fonction du contexte propre à chaque période, et par conséquent, que l'approche de l'humour qui remonte à ces dernières décennies n'est ni éternelle, ni naturelle.

Le sociologue Alejandro Romero a pris toute la mesure de cette évolution (Romero, 2008). Cet auteur distingue trois grandes périodes dans l'évolution de l'approche sociale de l'humour à travers l'histoire :

a) Le Moyen Âge : L'auteur affirme qu'à cette époque, la culture comique du peuple est très liée à la fête. L'humour est utilisé dans les cérémonies et les festivités, et Romero constate qu'il est très lié, dans la forme et le contenu, au *réalisme grotesque* (surtout scatologique). La tendance de cette forme d'humour à interchanger sans cesse les valeurs de la société est également significative. Elle mélange constamment l'intérieur et l'extérieur, le haut et le bas, ou encore le sacré et le profane. Ainsi, l'auteur lui attribue la capacité de « tuer » et de « ressusciter » la quotidienneté par le blasphème, l'humiliation ou les insultes.

b) La période classique : C'est ainsi que l'auteur appelle la modernité. Au cours de cette période historique, l'humour commence à se spécialiser. Il coupe les ponts avec l'exagération, la grossièreté, la crudité ou encore l'obscénité et « affine » ses contenus et ses modalités, au profit d'un humour plus intelligent. L'humour n'est plus considéré comme une activité populaire, mais comme une pratique conçue à partir de l'individu moderne pour l'individu moderne. Il devient une manière de critiquer tout élément du passé pouvant entraver le progrès moderne. Avec cette « privatisation » de l'humour, le rire aussi est interprété comme une réalité devant être contrôlée, et entre le XVIIe et le XIXe siècles principalement, le rire est considéré comme une activité déshonorante, qui doit être censurée et modérée parce que stupide autant que dangereuse.

c) La postmodernité : L'auteur désigne ainsi la période actuelle. L'humour *instrumental* laisse place à la suprématie d'un humour hédoniste et irresponsable, un humour qui cherche seulement à donner du plaisir. Cette période est considérée comme celle où prédomine l'humour absurde, « adolescent » et sans but<sup>7</sup>.

Pour ce qui est de la dernière idée de Romero (celle de la postmodernité), même si l'affirmation selon laquelle l'humour actuel est sans prétention ou futile provoque des désaccords entre les auteurs, il est vrai qu'à l'heure actuelle l'humour peut être considéré comme un phénomène qui génère de la confiance et de la proximité. Penser qu'il est agréable, léger ou inoffensif, qu'il en soit véritablement ainsi ou pas, a conduit à une prédominance du regard bienveillant sur l'humour dans la société (Mejjad, 2007), ce qui a peut-être contribué à accroître sa présence sociale en l'espace de quelques années. En plus d'être considéré comme positif, il fait l'objet d'une volonté croissante d'intégration dans tous les domaines de la société (Cotte, 2012).

—  
7 Comme nous le verrons plus loin, tous les auteurs ne souscrivent pas à l'analyse que fait Alejandro Romero de l'humour actuel. Quoi qu'il en soit, même s'il existe toutes sortes d'opinions au sujet de ces évolutions, la classification permet de voir que l'humour est une réalité qui se transforme à tout moment et en tout lieu.

Toutefois, bien qu'ayant traversé de nombreux champs sociaux, tous n'ont pas été impactés avec la même force, et il a été particulièrement difficile de franchir la barrière de l'académie.

En effet, l'attention portée à l'humour par l'académie a été significativement insuffisante ; en tout cas, totalement déséquilibrée par rapport à la présence de l'humour dans les relations micro-sociales (Kuipers, 2015). Le cas le plus frappant de cette absence d'intérêt accordé à l'humour est, certainement, celui de la sociologie. En effet, même si l'humour est lié aux interactions, à la communication, aux représentations, à l'identité, etc., il n'est considéré que depuis peu comme phénomène méritant d'être pris en considération.

Giselinde Kuipers en attribue la raison à l'évolution qu'a elle-même connue la sociologie (Kuipers, 2008). Durant les années 1970, convaincue de l'importance de la recherche sur les processus majeurs de transformation de la modernité, la sociologie ne prend pas en considération les micro-réalités du quotidien. De ce fait, on ne considère pas non plus que l'humour puisse être important pour la vie sociale, et par conséquent, pendant très longtemps l'humour n'est pas proposé comme objet d'étude. Marta Pereiro approuve cette interprétation, mais elle y ajoute également une autre idée : si l'humour est exclus du monde de la recherche, cela est dû, en grande partie, aux conséquences des préjugés établis dans la vision moderne de l'académie et, en général, de la science (Pereiro, 2007 : 7). En fait, une distinction cartésienne a été établie entre « comique » et « sérieux », et c'est ce dernier (« sérieux ») qui a été considéré comme unique champ objectif/utile/pragmatique permettant de connaître l'individu, la société et la réalité sociale. Ainsi, l'auteure explique que, si l'humour est exclus, c'est qu'il a été considéré comme peu digne d'intérêt parce qu'étant un sujet d'étude (trop) « humoristique ».

Au cours des trois dernières décennies du XXe siècle, pourtant, grâce à la création des différents mouvements et revendications sociopolitiques (féminisme, identités ethniques minoritaires, etc.), les disciplines liées aux sciences sociales se sont ouvertes aux recherches sur des réalités comme les interactions sociales, les émotions ou la vie privée. Ainsi commence-t-on à

percevoir certains phénomènes, jusque là considérés comme sans importance, comme des champs possibles pour l'investigation sociologique. L'humour fait partie de ceux-là.

### 2.1.1. Avant l'étude par la sociologie

Même si la tendance a évolué au cours des dernières décennies, étant donné le peu d'intérêt accordé à l'humour par la sociologie, il faut se tourner vers des disciplines comme la philosophie, la littérature ou la psychologie pour trouver les premières réflexions sur le sujet.

#### 2.1.1.a. Le signifiant « humour »

La première particularité mise en évidence par la recherche rétrospective des réflexions sur l'humour est l'évolution sémantique qu'a connue le signifiant « humour ».

73 Nous affirmons cela parce que les discours humoristiques (dans la mesure où ils sont des discours) constituent une performance dès l'instant où ils sont utilisés. Quand on dit « X » à propos de la nation basque, on ne doit pas rechercher les effets créés par ces « X » dans la réalité sociale, parce que le discours est déjà une pratique (une pratique performative) et qu'il agit en même temps qu'il est prononcé. Quand l'humour dit « X », ce « X » fait déjà partie de l'édification de la nation basque.



### Nola ulertu umorea?

Horratx ikerketaren erronka nagusietako bat. Soziologikoki kategoria erabilgarria izan dadin, umorearen gaineko egunerokotasuneko ikuspegia baztertzea nahitaezko ariketa da eta horrek, halaberrez, umorearen ikuspegia zedarritu eta xehatzea dakar.

Ondorengo atalak, hain zuzen ere, helburu horri erantzuten dio, ikerketa honetan umore kategorია nola eta nondik heldu den zehazten baita bertan. Bi azpi atal nagusitan banatu da testua horretarako. Aurrenik (2.1. *Un première approche de l'humour*) historikoki umoreaz egin diren hausnarketa esanguratsuenetariko batzuk ekartzen dira gogora. Pentsalari desberdinen ekarriak bildu dira bertan eta umorea urriki ikertu den fenomeno izanik ere, haren inguruan sortu diren irakurketak orotarikoak eta elkarrekiko oso desberdinak direla agerian jarri da. Aberastasun hori abiapuntutzat hartuz, ariketa bikoitza egin da lehen azpi atal honetan. Lehenik eta behin, autore eta teoria desberdinek dituzten desadostasunetik harago, umorearen inguruan partekatzen dituzten ikuspegiak zeintzuk diren ondorioztatu da. Honen bidez agerian jarri da autoreen ikuspegiak haien artean oso desberdinak badira ere, umoreari gutxieneko ezaugarri komun batzuk esleitzen dizkiotela oro har. Horrekin batera, bigarrenez, umorearen inguruko irakurketa aniztasun horretaz jabeturik, aintzat hartu da umoreak malgua eta zabala behar duela. Hots, kasu eta ikuspegi desberdinetarako baliagarria den umorearen planteamendu baten beharra dagoela. Horrek soilik ekidin baitezake aztertu diren autoreen segada teoriko berberean erortzea; alegia, umorearen inguruko proposamen partzial(egi) eta ondorioz desegoki bat erabiltzea.

Azken ideia hau da, hain zuzen ere, bigarren azpi atalaren xedeak (2.2. *Proposition pour une étude sociologique de*

*l'humour*). Bertan, lehen atalean umoreaz aipatu direnak kontuan hartuz, soziologiatik enpirikoki zein teorikoki aztertzeke baliagarria den umore kategoriaren proposamen bat osatu baita.

## 2.1

### UMOREAREN LEHEN HURBILPEN BAT

Maiz oharkabean igarotzen bada ere, umoreak gizarteko sektore eta dimentsio guztietan presentzia duela esan liteke.

Endorfinak askatu eta estresa uxatzeko barre terapiak<sup>1</sup>; garapen kognitiboa areagotzen laguntzen duten umore bidezko ikastaro pedagogikoak<sup>2</sup>; hautesleak irabazteko alderdi politikoetako ordezkarien agerpen publiko umoretsuak<sup>3</sup>; ospitaleko gaixoen bizi kalitatea hobetu eta osaketa azkartzeko pailazoan ikuskizunak<sup>4</sup>; salmentak hazteko publizitate errekurtsuak<sup>5</sup>; talde identitatea sendotzeko enpresentzako umore tailerrak<sup>6</sup>, eta abar luze bat.

Inoiz umorearen erabilera zabal hori betidanikoa dela irizteko joera egon da, umoreak historikoki presentzia eta hautemate sozial berdintsua izan duela pentsatzekoa. Gaur egun umorea ulertzeko modua, ordea, ez da betierekoa izan, eta zuzenagoa da esatea arrakasta olatu honen

1 Skills You Need, (datarik gabe).

2 "Fundación Theodora, payasos para nuestros niños hospitalizados" (2015).

3 El Mundo, (2009).

4 "Fundación Theodora, payasos para nuestros niños hospitalizados" (2015).

5 Bancaja, (2008)

6 Eduardo Jauregui eta Jesús D. Fernández, (2016).

jatorria XX. mendeko gizarte estatubatuarrean kokatzen dela (Wickberg, 1998). Garai hartako merkatu kapitalistak eta komunikabideek ikusi zuten umoreak ekarpen sozial, ekonomiko eta politikoak sor zitzakeela, eta interes horiei esker, azken bi mendeetan umorearen erabilerak inoiz ez bezalako hazkunde kualitatibo eta kuantitatiboa ezagutu du. Hala, AEBtan hasi eta zenbait hamarkadetan munduan zehar (gizarte mendebaldarrean bereziki) hedatu den joera honek, umorearen produkzioaz arduratzen den industria oso bat ekarri du berekin (Lewis, 2006), eta horrekin batera, baita umorearen presentzia egunerokoan ugartzea ere.

Umorearen hedapen hau azken urteetako fenomeno dela ulertzeak pentsatzera garamatza, beraz, garai bakoitzeko testuinguruaren arabera aldatzen joan dela berekiko hautemate eta praktika, eta ondorioz, umoreaz azken hamarkadetan dagoen ikuspegia ez dela betierekoa ez eta naturala ere.

Bilakaera honetaz jabetzen da, besteak beste, Alejandro Romero soziologoa (Romero, 2008). Autore honek historian zehar umorearekiko egon den ikuspegi sozialaren bilakaeran hiru garai nagusi bereizten ditu:

a) Erdi Aroa: Garai horretan, herriaren kultura komikoak festarekin zer ikusi handia duela dio autoreak. Umorea ospakizun eta jaietan erabiltzen da eta forma zein edukietan errealismo groteskoari (eskatologikoari, batez ere) oso lotua egoteagatik nabarmentzen dela esaten du Romerok. Umore mota honek gizartearen balioak etengabe elkar ordezkatzeko duen joerarengatik ere adierazgarria da. Kanpoa eta barrua, goia eta behea, edota sakratua eta profanoa elkar nahasteko joera du etengabe. Hala, birao, umilazio edota laidoen bitartez ohikotasuna "erail" eta berriz "berpizteko" gaitasuna egozten dio autoreak.

b) Garai Klasikoa: Hala deitzen dio autoreak modernitateari. Garai historiko honetan, umorea espezializatzen hasten da. Umoreak gehiegikeriarekin, oieskeriarekin, gordinkeriarekin edota lizunkeriarekin izandako loturak mozten ditu eta "findu" egiten ditu bere eduki eta moduak, umore burutsuago baten alde. Umorea ez da jarduera herrikoi gisa ikusten jada, baizik eta indibiduo modernotik eta indibiduo modernoarentzat egiten den praktika gisa, eta garapen moderno balaztatu dezakeen iraganeko edozein elementu kritikatzeko era bilakatzen da. Umorearen "pribatizazio" honekin batera, barrea ere kontrolatu beharreko errealitate gisa ulertzen da, eta XVII. mendetik XIX. mendera nagusiki, barrea ohore gabeko jardueratzat jotzen da. Ergela bezain arrisksua izanik zentsuratu eta neurtu beharrekoa.

c) Postmodernitatea: Postmodernitate gisa izendatzen du autoreak gaurkotasuna. Egun umore instrumentala desagertu eta hedonista eta arduragabea den umore baten gailentasuna gertatzen dela dio autoreak. Plazer ematea soilik bilatzen duen umorea, zentzugabea, "nerabea" eta xederik gabekoa nagusi den garaitzat jotzen du honako hau beraz.<sup>7</sup>

Romeroren azken ideia honi helduz (postmodernitatearena), egungo umorea pretentsiorik gabekoa edota hutsala dela esateak egileen arteko desadostasunak sortzen baditu ere, egia da gaur egun umorea konfiantza edo hurbiltasuna sortzen duen fenomenotzat har daitekeela. Atsegina, arina edo kaltegabea dela pentsatzeak, egiazki hala izan edo ez,

7 Aurrerago ikusiko den moduan, autore guztiek ez dute bat egiten Alejandro Romerok egungo umoreaz egiten duen analisiarekin. Baina edonola ere, sailkapena baliagarria da ukan une eta lekuan leku umorea eraldatzen doan errealitate bat dela ikusteko, aldaketa horien inguruan askotariko iritziak egon badauden arren.



gizartean umorearen inguruko ikuspegi onbera nagusitzea ekarri du (Mejjad, 2007), eta behar bada horrek lagunduta, umorearen presentzia sozialak ere gorantz egin du urte gutxiren buruan. Positibotzat joaz batera, umorea esparru desberdinetan txertatu nahia areagotuz baitoa (Cotte, 2012).

Baina espazio sozial anitz zeharkatu baditu ere, ez ditu guztiak indar berdinez kolpatu, eta bereziki maldatsua suertatu da akademiaren langa igarotzea.

Akademiatik umoreari eman zaion arreta esanguratsuki urria izan da; harreman sozial mikroetan umoreak duen presentziarekiko erabat desorekatua bai behintzat (Kuipers, 2015). Diziplina soziologikotik jaso duen arreta txikia da ziurrenik, kasurik deigarriena. Umorea gizarteko interakzioei, komunikazioari, irudikariei, identitateari, eta abarri lotua badago ere, orain gutxi arte ez baita kontuan hartu beharreko fenomenotzat jo.

Giselinde Kuipers-ek soziologiak berak izan duen bilakaerari egotzen dio horren arrazoia (Kuipers, 2008). 70. hamarkada bitarte, modernitateko prozesu eraldatzaile handien inguruko ikerketaren garrantziaz konbentzita, soziologiak egunerokotasuneko errealitate mikroak aintzat hartzen ez dituztela gogorarazten digu autoreak. Horren eraginez, umorea ere bizitza sozialerako garrantzitsua izan zitekeenik ez zen pentsatzen, eta ondorioz, denbora luzean umorea ez zen iker-objektu gisa proposatu ere egin. Marta Pereiro bat dator irakurketa horrekin eta beste ideia bat gaineratzen du: umorea ikerketa mundutik baztertua egon bada, neurri handi batean akademiaren eta oro har zientziaren inguruko ikuspegi modernoaren baitan finkatutako aurreiritzen ondorioz izan dela dio (Pereiro, 2007:7). Hain zuzen ere, "komikoaren" eta "serioaren" arteko

bereizketa kartesiar bat egin, eta bigarren hau ("serioa") izan delako, gizakia, gizartea zein errealitate soziala ezagutzeko esparru objektibo/baliagarri/pragmatiko bakartzat hartu dena. Hala, autoreak defendatzen du, umorea baztertua izan bada, ikergai "umoretsu(egi)a" izateagatik garrantzia gutxikotzat jo delako izan dela.

XX. mendearen azken hiru hamarkadetan, ordea, garaiko mugimendu eta aldarrikapen soziopolitiko desberdinen sorrera dela medio (feminismoak, identitate etniko minoritarioak, ea.), interakzio sozial, emozio edota bizitza pribatua bezalako errealitateen inguruko ikerketak zabalduaz joan dira gizarte zientziei loturiko diziplinetan. Horrek ekarri du ordu arte garrantzirik izan ez duten hainbat fenomeno ikerketa soziologikorako esparru gisa hautematen hastea, eta horien arteko bat umorea izatea.

### 2.1.1. Soziologiak aztertu aurretik .....

Azken hamarkadetan joera aldatu bada ere, umoreak soziologiatik jaso duen interes urriaren kariaz, gaiaren inguruan eginiko lehen hausnarketak topatzeko, filosofia, literatura edo psikologia bezalako diziplinetara jo behar da.

#### 2.1.1.a. "Umora" adierazlea

Umorearen inguruko hausnarketen atzera begirako bilaketak bistarazten duen aurreneko berezitasuna "umora" adierazleak izan duen bilakaera semantikoak dakar.

"Umora" adierazleak ez du beti gaur egun nagusi den esanahi berbera eduki, eta aldatari erreferentzia egin aurretik, gorputzeko fluxuak definitzeko adiera gisa erabilia da; organoak ez diren bestelako elementu lingirdatsu edo

isurkariak izendatzeko, hain zuzen ere<sup>8</sup>. Umorea barrearen eremu semantikoarekin lotzera iristea mende luzeetako prozesuaren emaitza da beraz<sup>9</sup>.

Aldaketa horren lehen urratsa norbaiti egotzekotan Cos-eko Hipocrates<sup>10</sup>-i (K.a. 460-370) egokitu dakioke (Pollock, 2003). Bera da umoreek (isurkiek) gaixotasunen sorrerarekin izan dezaketen lotura agerian jartzen duen aurrenetarikoak, eta lotura horretatik, umoreak gogo edo animoan eraginik baduela aditzera dakar.

Umora (gorputzeko isurki lez) eta aldarrearen arteko hasierako lotura horrek, ordea, zer ikusi gutxi du umorea ulertzeko egungo ikuspegi alaiarekin; gorputzeko isurkiak eta aldarrearen arteko harremana, batik bat, tristezia eta atsekabean oinarritzen baita hasiera batean. Lehen baieztapen horiek aintzat ematen dute giza gorputzak lau umore (likido) mota barnebiltzen dituela (odola, behazun horia, behazun beltza eta gorroa), eta norbanakoaren aldarrea isurki hauek gorputzean duten orekaren arabera aldatzen dela. Hala, esaterako, inor burumakur, hits edo betilun egonez gero, behazun beltz gehiegi izateagatik dela

8 "Umora" hitzak jatorri latindarra du: humor, humoris-etik dator eta isurki edo hezetasuna adierazteko erabiltzen zen jatorrian.

9 Bilakaera hori bistakoa da hizkuntza gehien kasuan. Euskaraz adibidez, hitz berbera (umora) baliagarria da barreaz zain isurkiez hitz egiteko. Beste zenbait hizkuntzek aldiz, frantsesa kasu, bi adieren arteko aldea gramatikalki ere ageriko egiten dute. Hala, humeur isurkiez aritzeko eta humour barreaz aritzeko erabiltzen du frantsesak.

10 Lehen medikutzat jotzen dena, berak esango baitu aurreneko gaixotasunek bilakaera bat dutela: aurreneko sintometan hasi eta krisia arte goraldia dutenak, zorieko edo zorigaitzoko amaia izan eta desagertzen diren arte.

pentsatzen da, eta kasu horretan pertsona horri "umora beltzeko" <sup>11</sup> deritzo. Umorearen lehen azalpen horiek aberatsagoak dira "umora txarrari" dagokionez; oro har, gaixotasuna, pena, beldurra, eromena edota desorekarekin baitute zerikusi gehiago, alaitasun edo pozarekin baino.

Berdin gertatzen da barrearekin ere. Aldarrearen eta isurkien arteko harremanak pertsona baten ondoezekin zer ikusia duen edozein ezaugarri isurkien desorekarekin lotzea dakarren bezala, zenbait keinu fisiko ere arrazonamendu berberaz esplikatzen dira. Hala, barrea, eta zehazkiago "gehiagizko" barrea, zorabuta dauden ezaugarritzat hautematen da, eta ondorioz, (umora-isurki) desoreka baten adierazle gisa ulertzen da<sup>12</sup>, hots, jarrera/izaera a-normal moduan.

Umora eta barrea ondoezarekin lotzea ohikoa izan da umorearen inguruko aurreneko irakurketetan, hori dela eta umora (isurkia) eta gogoaren arteko loturak "alaitasunarekin" zer ikusirik izateko, dezente egin behar da aurrera historian.

XVI. mendean, literaturari esker gehien bat, hedatzen hasten da umorearen adiera garaikidea ernalduko duen ikuspegia. Kasu aipagarrienetarikoa bat 1578an John Lyly-k egindako Euphues: The Anatomy of Wit liburuak dakar. Autoreak, wit (grazia, argitasuna edota zorrotzasuna adierazteko ingeleseko adiera) umorearekin (isurkiekin)

11 "Umora beltzari" dagokionez bitxikeria bat. Tristezian bizi diren pertsonak izendatzeko erabiltzen den "malenkonia" adierak umorearen irakurketa honetan du oinarria. Izan ere, grekoz, "beltza" melanos da eta "behazuna" khole. Hala, behazun beltz gehiegi izanagatik triste zeudenei melankholikos deitzen zitzairen.

12 Lotura honi buruz gehiago jakiteko ikus Jonathan Pollock, 2003:16-22.

lotzen du bertan. Lylyk aditzera ematen duen lez, wit-a gorputzeko umoreek (likidoek) sorrarazten dute, baina isurki desberdinen konbinaketaren arabera, wit-aren ezaugarriak ere desberdinak izango dira: abilagoa batzuetan, zorrotzagoa besteetan edota tentelagoa zenbaitetan. Pertsona baten isurkiek haren gogoan izan dezaketen eraginaz dihardu autoreak beraz, baina nahi gabean behar bada, gaixotasun edo ezkortasunarekin lotu ordez, umorea (isurkia), abilezia, talentua, zohardia edo dibertsioarekin jartzen du harremanetan.

Umorearen inguruko azken ikuspegi hau nabarmen zabaltzen da literaturari esker eta arrakasta handia lortzen du XIX. mendeko mendebaldar gizartean. Horrenbestez, "umore txarraz" edo "umore beltzaz" hitz egiten jarraitzen bada ere, pixkanaka indartuaz doa umorea, barrea, alaitasuna, atsegina, plazera, eta ongizatearekin lotua dagoelako ustea.

### 2.1.1.b. Umorearen adierazia

"Umorea" desorekari edo gaixotasunari loturiko ezaugarria izanagatik, alaitasunari, atseginari edota barregarria denari erreferentzia egiteko, bestelako adierazi batzuk erabili izan dira historikoki. Horien artean "komedia" edo "parodia" ezagunenetarikoa batzuk.

Jakin badakigu ez dela egokia historian zehar "parodia" edota "komedia" gisa identifikatu dena gaur gaurkoz "umore" gisa ulertzen denaren berdina denik esatea, besteak beste, adiera bakoitzak errealitate desberdin bati erreferentzia egin diezaiokeelako. Baina halaber, ez dugu egokitzen jotzen umorea azken bi mendeetako fenomeno isolatua dela esatea, hain zuzen ere "umore" adierazia aldarte alaiarekin lotzen hasten denean sortzen den fenomeno gisa antzemanaz. Hala, ulertzen dugu historian zehar egon dela alaitasuna, barrea, dibertsioa, poztasuna

edota grazia bezalako ezaugarriekin lotu den errealitate bat, nahiz eta horri ez zaion beti "umore" gisa izendatu. Errealitate hori aintzat izatea garrantzitsutzat jotzen dugu gaur egungo "umore" fenomenora behar bezala hurbildu ahal izateko<sup>13</sup>.

Abiapuntu zabal honetatik ekitea hautatu da beraz, umorearekiko lehen hurbilketa honetan<sup>14</sup>: batetik, aurreko azpi atalean ikusi bezala, gaur egun umore gisa ulertzen denak historian zehar adierazle desberdinak izan dituela aintzat izanik; eta bestetik, azpi atal honetan landuko dena, historian zehar aldatuaz joan diren irakurketa sozial eta adieraziak izan dituela kontuan hartuz.

Komedia lez izendatuz, Sokrates (K.a. 470-399) da gaiaren inguruan hausnartu duen aurrenetariko pentsalaria. Filosofoak komediaz egiten duen irakurketan argi uzten du plazer emateko gaitasuna dela haren ezaugarri nagusia. Eta hain zuzen ere azpimarra egiten du gozamenik sortzeko gai izan ezean, egiten den hori komediatzat hartzea ezinezkoa dela.

13 Honi lotua, umorea eta barrearen arteko aldea ere argitu nahi da, izan ere maiz elkarrekin badoaz ere, ez dira zehazki errealitate bera. Barrea, erreakzio edo keinu fisiko gisa ulertzen dugu (Freud, 1976), bere intentsitatearen arabera nabarmenagoa (algara) edo leunagoa izan daitekeena (irribarrea). Sarrri, umoreak eraginda sortzen da baina ez da derrigorrez hala izan behar beti; barreak interakzio eta komunikazio bide gisa ere funtziona baitezake. Hala, umoreak sorturiko erreakzioa izatek urruti, onespina, elkarrekiko atsegina, enpatia, sinpatia edota menpekotasuna agertzeko modua ere izan daiteke barrea edo irribarrea. Ideia hau sakonago lantzen du Erving Goffman-ek (1986) barrea frame-tzat hartuaz: komunikazio mota jakin bat ahalbidetzen duen bitarteko berezitu eta independente gisa ulertuaz, umoreaz apartekoa izanik, bere arau, jokabide eta mugak dauzkana.

14 Aniztasun eta irekitasun hau ulertzen dugu, hain zuzen ere, umoreaz kontutan hartu beharreko lehen ezaugarrietariko bat lez.

Baina alde biko txanpona ezkututzen du hausnarketa honek, izan ere gozamenarekin hartu-eman zuzena badu ere, komediak sufrikarioarekin ere loturirik duela agerian jartzen du Sokratesek. Atsegin edo ongizaterako praktika huts gisa ikustetik urruti, Sokratesek aditzera ematen du komediak beti dakarrela berekin "besteaz" burla egitea, eta beraz, gizakien arteko nagusitasuna erakusteko ekintza gisa ere hautematen du. Komediak sortzen duen gozamena besteen atsekabeen golkotik sortutakoa dela azpimarratzen du, eta ondorioz, barre egiten zaion horrekiko nagusitasunak ahalbidetzen duen jarduera moduan identifikatzen du. Hala izanik barrea kontrolatzea eta neurtzea beharrezkotzat jotzen du filosofoak, eta beraz, arrazoiaren eta hausnarketaren bitartez horren erabilera mugatzea ezinbesteko baldintza dela adierazten du.

Platonen planteamenduak (K.a. 427-347) ere ez dabilta Sokratesen ikuspuntutik oso urruti, Platonek komediaren izaera bikoitz hori ere azpimarratzen baitu: plazerarekin batetik eta oinazearekin bestetik zer ikusia duten sentazioak sortarazteko gai den adierazpen gisa ulertuaz komedia eta barrea. Komedia hazka egitearekin alderatzen du filosofoak: bai hazka egiteak zein komediak gozamena sortzen badute ere, jatorrian ezinegon edo samin batekin (hazkurekin edota inor iraintzearekin) lotuak daudela agerian jarriz (Platon, 2010).

Behar bada Platonek komediari egozten dion samintasun honetan zer ikusirik izan dezake filosofoaren esperientzia pertsonalak. Izan ere, Platonen garaikide den

Diogenesek<sup>15</sup> (K.a. 412 -323), burla eta txisteen bitartez maiz lotsagorritzen du Platon haren jarraitzaile eta ikasle direnen aurrean<sup>16</sup>.

Diogenesek umorea (komedia, ironia, subertsioa, ea.) bere egunerokoa nabarmen erabiltzeagatik da ezaguna. "Zakur filosofo" lez ere izendatua, berak darabilen mundu ikuskeraren parte gisa ulertu eta erabiltzen du umorea; aldizkako praktika bat izan beharrean, errealitatean jarduteko bizi estilo bat bezala. Ariketa horretan, Diogenesek Platonek proposatzen duen abstrakzio idealistatik ihes egiteko erresistentzia satiriko bat proposatzen du, ilustrazio oies bat egin eta errealitatearen hautematerako dialogo ez-platoniko bat proposatuz (Sloterdijk, 2003: 176).

Baina Diogenesen hausnarketa eta praktikak ez dira filosofo klasiko gehienek ildoa kokatzen. Izan ere, komedia (parodia, ironia, ea.) gozamen hutserako delako ustetik urrunduz, Aristotelesek (K.a. 384-322) ere Platonekin eta Sokratesekin bat egiten du gizarte orekatu bat sortzekotan barrea eta komedia kontrolatzea beharrezkoa dela pentsatzean. Edo bestela esanda, komediak gozamenarekin bezain beste oinazearekin duen loturaren ustean.

15 Aipagarri da Diogenes maiz erabili dela umorearen bi adierak uztartzen zituenaren paradigma gisa (Pollock, 2003). Izan ere bere munduarekiko ikuspegiari erantzunez, bere umorea egiteko (ateraldi original eta barregarriak sortzeko) bere umoreak (gorputzeko isurkiak) erabiltzen baitzuten maiz. Aipagarri da, esaterako agoraren erdian masturbatu zenekoa. Marruskadura horrek irritsa zein erraz asetzen zion, eta sabela laztantzeak, ordea, jateko grina lasaitzen ez ziola publikoki deitoratuz (Sloterdijk, 2003).

16 Ezaguna da, esaterako, Platonek "gizakia" zer den azaltzeko erabilitako definizioari Diogenesek egindako trufa. Platonek, gizakia "lumarik gabeko hankabikoa" zela esaten zien bere ikasleei, eta Diogenesek, lumaturiko oilar bat erakutsi eta "Hor zure gizakia!" esanaz, hankaz gora jarri zuen filosofoaren hausnarketa. Diogenesek Platonen lotsa eragin zuen, eta jatorrizko definizioari "azkazal zapalekoa" zela gehitu beste erremediorek ez zuen izan Platonek.

Aristoteles da, ziurrenik, komediaren hautematean eta hausnarketan eragin nabarmenena izan duen autore klasikoa, besteak beste gaiaren inguruan gogoeta sakonak eta argigarriak egin izana egozten zaiolako (Pereiro, 2007). Baina egiazki ezer gutxi jakin daiteke hausnarketa horietaz, izan ere komediaren azterketaz diharduen autorearen Poetika bigarren liburua (K.a. IV. mendea), hain zuzen ere komediaz eta poesiaz diharduena, Erdi Aroa geroztik ez da sekula topatu eta apenas dago autoreak gaiaz esandakoaren arrastorik<sup>17</sup>. Edonola ere, adituak bat datoz liburu hark existitu edo ez, komediaren eta barrearen inguruan ondoren egin diren testuak eta landu diren ikuspegiak nabarmen eragin dituela esatean (Erdi Aro eta Berpizkundekoak bereziki). Zehazki, ustez galdua dagoen liburuaren inguruan idatziak dauden esaldi gutxiek, eta bereziki liburuaren galera horren bueltan sortutako hipotesi, istorio eta susmoek<sup>18</sup>, komedia eta oro har umorearen etorkizuneko ikuspuntuak bideratu eta baldintzatu dituela esan baitaiteke (Pereiro, Op. cit.: 25).

Autorearen lanetik ezaguna dena tragedia eta komedia generoen artean egindako bereizketa da. Batetik, aditzera ematen du bai tragedia zein komedia baliagarri zaizkiola gizakiari bere burua zuzendu eta gizarte hobe bat eraikitzeko, baina funtzio horretan, batoren zein bestearen (balia) bideak desberdinak direla argitzen du. Hala, tragediak

—

17 Tractatus Coislinianusen idazkiak egiten duen Poetika bigarren liburuaren ustezko laburpena baino ez dago eskuragai gaur egun. Baina idazki honek Aristotelesen obrari erreferentzia egiten diola pentsatzeak ere ez du adostasunik sortzen adituen artean, hala denik zalantzan jartzen baitute zenbaitzuk.

18 En el nombre de la rosa (2009) Umberto Eco-ren liburua da gaur egunean Aristotelesen liburu galduari erreferentzia egiten dion obra ezagunetarikoa bat.

gizakiak jarraitu eta miretsi beharreko ereduak erakusten/ irakasten ditu (ausartak, nobleak, balentriazkoak, ea, direnak), eta komediak, aldiz, erreproduzitu behar ez diren adibideak zeintzuk diren finkatzen ditu (itsusiak, akasduak, mespretxagarriak, ea.)<sup>19</sup>.

Itsusitasunari lotzen zaion berehalako gozamen horri arrisku bat antzematen dio Aristoteleseki, ordea. Izan ere tragedian ez bezala, komedia maltzurkeriaz erabil daitekeela ohartarazten du, beste gizakien gainetik jarri eta sentitzeko praktika izan daitekeela, eta halako erabilerak guztiz galarazi behar direla aditzera ematen du. Komediari, gainera, bestelako ezaugarri bat gaineratzen dio. Izan ere, barre egitea gizakiaren ethos gisa hautematen du filosofoak, hau da, gizakiak berezkoa duen (eta ondorioz ekidinezina den) jarrera (natural) lez. Hori dela eta, komediarekiko zaletasuna ezin ekidin badaiteke ere, komediaren bitartez "gehiegizko" gozamena sentitzea (gehiegi barre egitea, beraz) gizartearentzat arriskutsua izan daitekeela nabarmentzen du, eta ondorioz, hori kontrolatzearen alde agertzen da (Deluze, 2005).

Komedia edo umorearekiko ikuspegi honek eragina du gaia jorratu duten ondorengo autoreen artean ere. Hala, soziologiak umorearen inguruan lehen murgilketa egiten hasi aurretik, bestelako diziplinetatik hausnartzen duten egileak maiz abiatzen dira plazera eta arriskua, samina edota nagusitasuna uztartzen dituen jarduera delako ustetik.

—

19 Baztertu beharreko ereduak erakusle izateak, ikuspuntu estetiko batetik "bigarren mailako" arte espresio bilakatzen du komedia, eta atsegina sortzeko gaitasuna badu ere, Aristoteleseki ez du komedia arte adierazpen noble gisa ikusiko, baizik eta alderantzizkoa, malformazio eta akatsari lotzen zaion jarduera gisa baizik.

Horren erakusle da, esaterako, Thomas Hobbes-ek egindako umorearen inguruko ekarpena. Hobbesek umorea, gutxi eta kontuz tratatu behar delako ustea du, hain zuzen gizarteko beste subjektuekiko nagusitasuna erakutsi eta eskuratzeko gaitasuna egozten baitio horri (Hobbes, 1983).

*"La gloria súbita es la pasión que da lugar a esos gestos llamados risa, y es causada por algún súbito acto propio que complace, o por la aprehension de algo deformado en otro, por comparación con lo cual hay súbita autoaprobación."*<sup>20</sup> (Hobbes, 1983:163)

Filosofo klasikoen ildoari jarraituz, autoreak defendatzen du barrea eta umorea besteekiko sentitzen den nagusitasunak sortutako gozamena dela, eta ondorioz, subjektuen arteko harremanak (botere-harremanak) agerian jarri eta horiek elikatzeko balio dezakeela. Hala, Hobbesen ikuspegiak bete betean erantzuten dio XVII. mendean umorearen inguruan dagoen hautemate oinarrikoenari, kontuan izan behar baita garai hartan barre egitea edo umoretsu izatea norbere buruaren kontrol faltaren erakusletzat hartzen dela (Romero, Op. cit.).

Antzeko bideak jorratzen ditu Henri Bergson filosofoaren lanak ere (Bergson, 2008). Autorea umorearen gozamen/ sufrikario ideia hartzen du oinarritzat, baina umorearen argi-ilunen azalpen horretan ekarpen aberats bat dakar bere lanak: barrearen inguruan helarazten dituen hainbat ideien artean, umoreak eta barreak gizartearekin duten

—

20 ["Bat bateko arrakastak sortarazten duen pasioak ahalbidetzen du barrea deritzogun keinu hori, eta eratzen da, atsegina sortzen duen norberaren ekintzaren bitartez, edota besteengan hautemandako akats baten bitartez, eta azken horrekin alderatuz, norbere buruaren berehalako onarpena dakar" ]

lotura estua agerian jarri eta gertaera sozial gisa ulertzea proposatzen baitu. Umorearen erabilera norbanakoaren ezaugarri eta gaitasunetik harantzago doala, eta zehazki, testuinguru sozialari atxikitzen zaiola ikusi araztea, etorkizuneko ikuspegi soziologikorako oinarriko abiapuntua izango da.

Ikuspegi sozial horretatik, barre egitearen izaera bikoitza (gozamena zein oinazea sortzearena) bazterkeria eragiteko bitarteko moduan funtziona dezakeela defendatzen du Bergsonek ere, eta ondorioz, barrea kontrol sozialerako mekanismo gisa aritzeko baliagarri dela nabarmentzen du. Norbaitez edo zerbaitez barre egitean, hori kikiltzea bultzatzen dela eta ondorioz, umorea pairatu duenak umorearen itu izan den ezaugarri hori aldatzeko ahalegina egiten duela azalduz. Autorearen ustez, barrea gizartea zuzentzeko praktika da azken batez.

Umorearen inguruko ariketa horri barrea eragiten duten elementuen zerrenda bat gaineratzen dio Bergsonek. Barrea zerk eragiten duen zehaztu nahian, itsusitasuna edo akatsa aipatetik urruti (Aristoteleseki azaldu bezala, kasu) barreak gizatasunarekin lotura duela azaltzen du. Bi lotura mota identifikatzen ditu. Antropomorfismoaren bidez ematen dena, hots, objektuei gizakien ezaugarriak egozteak sorrarazten duen barrea; eta alderantzizkoa, hau da, gizakia objektu gisa irudikatuz, honen jarrerak eta praktikak errepikakor eta automata lez erakutsiaz sortzen dena<sup>21</sup>.

Barrearen funtzionamenduaren ezaugarriak xehatze honetan, bestelako ekarpen bat ere luzatzen du Bergsonek, hain zuzen ere sentimenduen kontrolaz diharduena.

—

21 Behar bada barrea sortuko du (ere) automatismo eta objektibazioak, baina automatismo guztiek ez dute barrerik sortzen, bestela hiltzak edota atake epileptikoak barreagarriak lirateke oro har.

Autoreak adierazten duenez, barrea sortzeko beharrezkoa da ohikoak diren ikuspegiak baztertzera, "anestesia momentánea del corazón" ["bihotzeko une bateko anestesia"] (Bergson, 2008: 11) egitea. Umoreak dioena ulertu edo onartu ahal izateko, urruntze edo otzantze ariketa bat egin behar da, sentimenduak komikotasuna bizitzeko oztopo izan baitaitezke eta horiek ohiko moduetan sentitu eta bizitzea ekidin behar da. Umorea, horrenbestez, egunerokotasuneko errealitatea bestela ulertzeko, ikusteko edo, autorearen hitzak erabili, "sentitzeko" modua da halabeharrez; bestelako irakurketa eta hautemate ariketa bat egitea eskatzen duena behar bezala funtzionatzerik nahi bada.

Azken ekarpen hauekin ikus daitezkeen moduan, umorearen gaineko hausnarketak konplexuagotzen eta aberasten doaz pixkanaka. XIX. mendetik aurrera, bereziki, ugaritu egiten dira umorearen gaineko planteamenduak eta orain arte umoreari egotzi zaizkion ezaugarriez gain, (gizartearen zuzentzaile edo besteekiko nagusitasuna erakusteko bitarteko izateaz gaindi), bestelako gaitasun edo funtziorik izan dezakeela iradokitzen dute zenbait autorek. Kasu honetan, umorearen proposamen berritzaileen psikologiatik heltzen dira.

Ildo honetatik, Herbert Spencer filosofo eta psikologoaren lanak, esaterako, (Spencer, 1987), liberazio psikikorako ekintza gisa ulertzen du umorea; eta barrea, gihar sistemaren baitan gordetako tentsioak askatzeko deskarga moduan planteatzen du. Ikuspegi berdintsuari eusten dio Sigmund Freud-en lanak ere. Autorea umorearen ikuspegi askatzailean murgiltzen da teoria psikoanalitikotik abiatuz (Freud, 1976). Planteamendu honetan, Freud bat dator Spencerrekin umoreak orokorrean eta barreak zehazki, inhibitutako

bulkaden gozamina sentitzea ahalbidetzen duela esatean, eta beraz, bat dator ere umorea liberazio pertsonalerako bitarteko gisa dela pentsatzean. Baina zehaztapen bat egiten du Freudek, ordea, eta muga eta tabu horiek norberak bere buruari egotzitakoak direla pentsatzetik urruti, gizarteak inposatutakoak direla ñabartzen du. Hala, autorearen ustez, umorea baldintzapen, muga, tabu eta zentsura sozialak gainditzeko modua da, eta umorea egiten duenaren eta jasotzen duenaren arteko harremanarekin zer ikusi handia du halabeharrez.

Freuden lanak eragin handia du etorkizunean umorearen inguruan egiten diren gainontzeko hausnarketetan, eta bereziki soziologiatik egindakoetan. Izan ere, barrea eta inkontzientearen arteko zubiak eraikitzeaz gainera, umorea eta harreman sozialen arteko loturak ere aintzat hartzen ditu. Planteamendu horri esker, beraz, batetik, umorea sistematikoki landu eta honen inguruko teoria "serio" bat proposatzea lortzen du Freudek; eta bestetik, umorea eta gizartearen artean egon daitezkeen loturak bistaratzeko, umorearen inguruko lehen "galdera soziologikoak" proposatuz bere hausnarketetan (Kuipers, 2008).

### 2.1.2 Soziologiatik .....

Psikologiatik egindako azken mendeko ekarpenek umorearen inguruko ikuspegia eta ulerkerak nabarmenki aldarazi dute. Ikuspegi aldaketa horretan ikus daitezke, batetik, umorea ez dela jada gizakiaren ezaugarri natural gisa antzematen, horren ordez, gizartearekin eta beraz harreman sozialekin, komunikazioarekin, kulturarekin, eta abarrekin lotzen den fenomeno gisa ulertzen hasten dela. Eta bestetik, funtzio sozial desberdinak izan ditzakeen praktika dela agerian jartzen da aurreneko; sor ditzakeen

ondorioak ez ezik eman dakizkiokeen erabilerak ere desberdinak izan daitezkeela bistaratu.

Aukeren emankortasun horretatik, soziologiak umorea aztertzeari ekiten dio, eta ariketa horretan, horiek ulertu eta lantzeko ikuspegi eta bide desberdinak jorratzen ditu. Aniztasun horrek, ordea, umorea fenomeno sozial gisa ulertzea errazten duen aberastasun epistemiko handia sortzen badu ere, bestelako arazo bat dakar berekin. Autore eta teoria desberdinen ekarpenek umorea ulertzeko abiapuntu desberdinak erabili izanak, umorearen definizio komun baten planteamendua zailtzen baitu.

Jarraian aipatzen dira umorea aztertzeo soziologiatik landu diren bide esanguratsuenak, bai eta umorea ulertzeko hauetan nagusi izan diren ikuspegi desberdinak. Hiru auzi nagusitan barnebildu ditugu azalpen horiek: umorearen unibertsaltasun/partikulartasunari dagozkion ikuspegiak; haren barne egiturari buruzkoak eta eragin sozialen ingurukoak.

#### 2.1.2.a. Unibertsala al da umorea?

Soziologiatik umorea gizarte guztietan ematen den fenomeno dela baieztatzen bada ere (Mejjad, Op. cit.; Kuipers, 2015), umorearen azterketa soziologikoak topatu duen erroka nagusietariko bat umorearen ezaugarriak kasu guztietan berdinak ote diren edota jazotzen den lekuko testuingurura (sozial, kultural, politiko, eta abarrra) baldintzatuak ote dauden zehaztea da.

Zenbait autorek oso argi dute erantzuna, eta umoreak gauzatua den testuinguruko baldintzei bete bete erantzuten diola agertzen dute. Rudolf Dekker-ek (2001), Giselinde Kuipersek (2008) edota Daniel Wickberg-ek (1998), esaterako, argi dute umorearen ezaugarriak era bat lotuak daudela inguruan dituen baldintza sozialei. Zehazki, umore

sena gizarteko posizio sozialen arabera aldatzen dela diote, eta beraz, umorea mailaketa sozialari lotua doakiola agerian jartzen dute<sup>22</sup>. Baldintza sozial eta umorearen arteko loturaz ikuspegi bera partekatzen dute generoa (Raznovich, 2005; Cotte, 2012; Kotthoff, 2000) edota arrazaren gaineko umore azterketak egin dituzten beste zenbait autorek ere. Azken horien artean John Burma da aitzindarietako bat (Burma, 1946), zeinak gatazka eta umorearen erabileraren arteko hausnarketa abiatuz, arraza desberdineko izateak dakarren botere posizio desberdinak bazterkeriarekin eta umorearekin duen lotura jartzen duen agerian<sup>23</sup>.

Irakurketa horien eragile nagusietariko bat lez aipatu behar da Mikhail Bakhtin (1984, 2003) autorearen ekarria. Izan ere mende hasierako filosofo errusiar honek umorearen hausnarketari egindako ekarpenen artean azpimarragarrienetariko bat ordu arte umoreaz zegoen ikuspegi unibertsala kolokan jartzea baita. Kategoria atemporal eta unibertsal gisa ulertzetik urruti (filosofo klasikoek eta psikologo gehienek ordu arte erabili zutena) denbora-espazioaren arabera mugatua dagoen errealitate gisa hautematea proposatzen du. Unean-uneko baldintzek umorea aldarazi dezakeela ulertzea daraman ikuspegi horrek umoreaz gerora egin diren bestelako irakurketen oinarri izango da.

Baina autore guztiek ez dute hain argi ikusten umorearen ezaugarrien partikulartasuna, eta hori ukatzen ez badute ere, ikuspegi globalago batetik ulertzeko proposamena

<sup>22</sup> Antzeko irakurketak egiten dituzte Lawrence Lafave-ek (1972) eta Ofra Nevo-k (1985) ere

<sup>23</sup> Gaur egun, beste hainbat autorek Burmanek zabalduko iker ildo honi eusten jarraitzen dute, horien artean Draitser (1998), Gundelach (2000), Oshima (2000).

luzatzen dute. Honen baitan koka daitezke, besteak beste, alderaketa historikoaren ikuspegitik umorearen inguruan lanean diharduten autore gehienek hausnarketak.

Alderaketa historikoaren ikuspegia 90. hamarkadatik aurrera umorearen azterketaren baitan indar handia eskuratu duen iker-ildo da. Perspektiba honek historian zehar garai eta leku desberdinetan umoreak izan dituen bilakaera eta lekuko desberdintasunak aztertu eta elkarren artean alderatzen ditu. Baina paradoxikoki, lekuko aldaera hauen azterketak umorearen "unibertsaltasunaren" ideia indartzea dakar berekin.

Korronte honen baitako autore esanguratsuenetarikoa bat Christie Davies da, berak egin baitu orain arte ezagutzen den txisteen inguruko ikerketa konparatibo sakonena (Davies, 1990, 1998, 2002). Lan hauetan, autoreak Nazio-Estato desberdinetan erabiltzen den umore etnikoaren<sup>24</sup> ezaugarriak alderatzen ditu, kasuan kasu txistek zeini zuzentzen zaizkion eta igortzen diren mezuak zer nolakoak diren alderatuz<sup>25</sup>.

Ikerketak umorea lekuan leku aldatzen dela agerian jartzen badu ere, kasu guztietan errepikatzen diren zenbait joera ematen direla ere jartzen du agerian. Errepikapen horien artean topa daitezke, besteak beste, umorea egiteko erabiltzen diren gaien arteko antzekotasunak: antzeko "desbiderazioez" (azkarregiak edota tentelegiak direnez, kasu)<sup>26</sup> edota tabu berdintsuez aritzen dela agerian

24 Umore etniko gisa ulertzen da: muga kultural, erlijioso edo sozialek markatzen duten talde jakin batek erabiltzen duen umorea (Davies, 1990).

25 Daviesen teoria Victor Raskin-en Semantic Script Theory of Humor-ean (1985) oinarritzen da gehien bat, eta bertatik hartzen du, esaterako, umorearen egitura binarioa (elkarren aurka dauden bi aukera kontuan hartzen dituen) dela esatean.

26 Daviesek stupid jokes eta canny jokes gisa izendatzen dituenak (Davies, 1990)

jartzen baitu ikerketak (tentelkeriaz, sexuaz, higiene faltaz edo koldarkeriaz egiten diren txisteen kasuak aipatuz, esaterako)<sup>27</sup>.

Daviesen ikuspegi horrekin bat egiten dute beste zenbait autorek ere. George Paton, Chris Powell, eta Stephen Wagg-ek (1996) umorea gertakari sozial makroen agerpen partikulartzat jotzen dute, eta ondorioz, fenomeno unibertsal eta orokortu gisa ulertzea proposatzen dute, umoreak izaten dituen bilakaerak aldaketa sozial makroen arabera gertatzen direla ohartaraziz. Hala, umoreak nazioaz gaindiko joerak dituela diote autoreek, eta umoreak dituen bariazioak, gai orokor horiek lekuan lekuko egoeretara moldatzerakoan gertatzen diren azaleko aldaketak baino ez direla argitzen dute. Oinarrian, beraz, funts edo izaera berdina esleitzen diote umore mota/sen guztiei. Edonola ere, eta nahiz eta aldaera horiek azalekoak baino ez izan, informazio asko eskaini dezaketelakoan dago Powell (1988) zeinak umore senaren ezaugarriak taldearen baten oinarritzko ikuspegiaren erakusle direla dioen. Besteak beste, talde batek "normalizat" eta "desbideratuztat" zer ikusten duen erakutsi dezaketelakoan baitago.

### 2.1.2.b. Zein da umoreak darabilen barne egitura?

Hain zuzen ere "normaltasun"- "anormaltasun" harreman horri heltzen diote autore askok, umoreak nola jokatzeko

27 Baina aintzat hartu behar da Daviesen ikerketak herrialde asko eta desberdinetako kasuak kontuan hartzen baditu ere (Amerika, Erresuma Batua eta Australia), herrialde horiek, gehien gehienez gizarte mendebaldarrari dagozkiola, eta ondorioz, badutela globalizazioak edota sistema kapitalistak bultzatu duen kultura komun baten ezagutzarik. Hots, esan nahi da, behar bada "unibertsaltasun" horiek ez liratekeela hain nabariak izango baldin eta Afrika erdialdeko herrialderen bat kontuan hartu izan balu ikerketan, adibidez.

duen azaltzeko orduan. Gary Alan Fine-k (1984), Powellekin (1988) bat eginik, esaterako, umorearen muina gizarte batek onargarri eta baztergarritzat jotzen dituen ikuspegi arabera sortzen dela aditzera ematen du. Autore hauen ustez, umorea erabiltzen da arbuaiatu, aldarazi edota desagerrarazi nahi den errealitate (agente, praktika, ea.) horren aurka, eta babestua edo umore gabe uzten da, aldiz, desiragarria, "normala", aldatu nahi ez dena edo babespean mantendu beharrekoztat jotzen dena.

*Umore etnikoak* logika honen arabera funtzionatzen duela dio Daviesek: norberaren taldeak aldatu (zuzendu) nahi den horren aurka joaz, edota norberarena ez den talderen bat kolpatuz<sup>28</sup>. Ariketa honen helburua da gizarte jakin baten ezaugarri egokiak identifikatu eta goraiatzea, izan beharko ez lituzkeen (edo ez dituen) horiek umorez aipatuz.

Badira, ordea, honekin bat ez datozen ikuspegiak eta umorea besteen inguruan egin baino, norbere burua ituztat hartuz egiten den praktikatzat jotzen dutenak. Ikuspegi horrek ere bat egiten du umoreak norbera (taldea) garatzeko, hobetzeko eta indartzeko ariketa gisa funtzionatzen duelako ustearekin. Baina kasu honetan ariketa hori ez da gainontzekoen (taldekide ez direnen) akatsak bistaratu egiten, baizik eta norberaren agerian jarritz. Horren adibidetzat har daitezke, esaterako, Donna Goldstein-en lana (2003). Autoreak Brasilgo auzo txiroetako emakumeen umorea aztertzeko egindako etnografian, haien egoera prekario eta menderakuntzakoak barre egiten dutela erakusten du, horrek emakumeen artean kontzientzia politiko bat partekatzen eta indartzen laguntzen duelarik. Kasu horretan, ordea, autoreak azpimarratzen du halako

28 Joera hau Nazio-Estato edo kultura desberdinen mugetan bizi diren kasuan esanguratsua da (Oring, 2003).

umorea (nork bere buruaz eginikoa) praktikatzeko beharrezkoa dela parekideen arteko harreman bat egotea. Egoera edo posizio sozial berekoak izateak bermatzen baitu askatasunez eta lasaitasunez jardutea umorean<sup>29</sup>.

Goldsteinen irakurketa honekin bat egiten dute, oro har, umorea *ikuspegi fenomenologikotik* aztertzen duten autoreek, hau da, umorea errealitate soziala ulertzeko mundu ikuskera lez planteatzen dutenek. Begirada hau bereziki arrakastatsua da umoreak gizarte *postmodernoan* duen papera ulertzeko ahaleginean diharduten autoreen artean (Lipovetsky, 1983; Romero, Op. cit.), gaur egungo gizartean dagoen bizi estiloaren partetzat jotzen baitute umorea bera: plazera plazeren truk bilatzen duen umore baten erabilera, behar hedonista hutsari erantzuten dion praktika banal gisa ulertzen duena:

*"[e]l humor postmoderno banaliza cuanto toca, lo desustancializa, y, en última instancia, si acaso consigue algún dominio sobre el mundo (como era la pretensión del humor en la época clásica), es ante todo para ponerlo al servicio (lúdico) de las personas"*<sup>30</sup> (Romero, 2008:88)

Autore horiek, beraz, norberaren buruaz barre egitea gaur egungo bizi estiloaren (mendebaldarraren) ohikotasunaren partetzat hartzen dute: beharrekoztat, arruntzat eta kaltegabetzat (Costa, 2010). Hala, Goldsteinek ez bezala,

29 Azken ideia honen adibidetzat har daitezke, esaterako juduek haien kolektiboaz egiten duten umorea: oso ezaguna baita haien buruaz umorea egiten dutelako, baina harrigarria da haiek soilik (juduak direnek bakarrik) egin dezaketela, hala izan ezean oso gaizki hartu ohi baitute (Cotte, 2012)

30 ["umore postmodernoak ukitzen duen oro banalizatzen du, sustantziarik gabe uzten du, eta finean mundua menderatzea lortzen badu (garai klasikoan umorearen helburua zen gisan), pertsonen zerbitzura (ludikora) jartzeko izango da"]

ez dute usteko norberak bere ezaugarriez trufatzeko parekideen arteko harremana edukitzea beharrezkoa denik, hain zuzen ere (eta hemen ikusten dugu guk *perspektiba fenomenologikoaren* hutsune nagusia) umorea gizartetik aparte (honen "gainetik") dagoen errealitate gisa hautematen dutelako. Gizarteak aldarazi ezin duen esperientzia, bizipen edo *iluminazio* gisa hautemanez (Kuipers, 2015: 54).

Umorearen nondik norakoan inguruan dauden ikuspegi desberdinak gaituz, badira umorearen egiturari irakurketa orokorragoak eskaini dioten autoreak ere. William O. Beeman-ek esaterako (Beeman, 2000), umorea endo-talde edo exo-talderuntz begira egiten den kontuan hartu gabe, haren oinarritzko jokabidea zertan datzan sistematizatzen du. Autoreak dienez umorea suerta dadin oinarritzko bi fase daude. Batetik, hartzaileak ulergarri duen errealitate bat erabili behar du umoreak, eta horretarako emaila eta hartzailearen mundu ikuskerek edo kulturek gutxieneko antzekotasunak eduki behar dituzte. Umoreak deskribatzen duen errealitatea hartzailearentzat ezezaguna bada, broma sortzea ezinezkoa izango baita (Douglas, 1975; Castro, 1997). Baina honekin batera, autoreak dio umoreak beharrezkoa duela argitara ekarri den egoera hori bere testuingurutik atera araztea. Alegia, deslotu edo haustea. Ezaguna den errealitate bat lekuz aldatzeak<sup>31</sup> sortzen duen egoera "berriak" eragiten baitu, hain zuzen ere, umorea.

Orokorragea den ikuspegi horrekin bat egiten dute autore gehienek, eta umoreak norantz jotzen duen zehaztean desadostasunak agertzen badira ere, umorearen

31 "Leku aldatze" horri zentzu zabala ematen dio autoreak. Ohikotasunean testuinguru jakinetan kokatzen diren elementuak testuinguru horietatik atera eta egoera eta inguru berrietan kokatzeari egiten dio erreferentzia. Joko honek harridura edo ezustea sortzen du, eta hori da, hain zuzen ere, umorea sorrarazteko txinparta eragiten duena.

ezaugarritzat hartzen da ohikotasuneko ikuskerekiko nolabaiteko desoreka sortzeko duen gaitasuna. Daviesek *"assault"* adieraz izendatzen du umorearen funtzionamendu hori (Davies, 1998: 56), ohiko errealitatearekiko "desoreka" horrek errealitatearekiko kolpe edo eraso dakarrela azpimarratuz. Izan ere, ohikotasuna "desorekatzeak" egunerokoan arruntak diren logikak, ulerkerak, eta komunikatzeko manerak auzitan jartzea dakar, eta umorea, "bestelako" ariketa kognitiboa egitea eskatzen duen praktika bilakatzen da horren ondorioz:

*"the rules of logic, the expectations of common sense, the laws of science and the demands of propriety are all potentially in abeyance. Consequently, when recipients are faced with a joke, they do not apply the information-processing procedures appropriate to serious discourse"*<sup>32</sup> (Mulkay, 1988: 37)

Hausnarketa bide horretan ekarpen aberatsenatariko bat egiten duen autorea, aurrez aipatutako Mikhail Bakhtin da (Bakhtin, 1999, 2003). Autoreak umoreak errealitatearen planteamendu hipotetiko bat plazaratzen duela azaltzen du, egiazki gertatzea posible dena edo ez, baina beti ere errealitatea bestela ulertzeko atea zabalduz. Ohikotasunaren haustura bat sorrarazten duen ekintza "erasokor" horrek (*"assault"*), hala, errealitatearen planteamendu desberdinak bistaratzeko aukera ematen duela dio, non, modu bakar eta konpartitu batean ulertu beharrean, errealitatearen irakurketa heterogloxikoa izatea ahalbidetzen duen. Hala, umoreak errealitatearen planteamendu dikotomikoetatik

32 ["logikaren arauak, sen onaren aurreikuspenak, zientziaren arauak eta jabetza eskaera guztiak airean gelditzen dira. Ondorioz, hartzaileak broma batekin topo egiten dutenean, ez ditu erabiltzen diskurtso serioarentzat egokiak diren informazioa tratatzeko prozedura berdintsuak"]

aldendu eta ikusmolde anitzak ahalbidetzen dituen ulerkerak dialogiko bat ahalbidetuko luke (Bakhtin, 1999: 34).

### 2.1.2.c. Ze eragin sozial du umoreak?

Desoreka horrek dakartzan ondorio edo eraginen inguruan, ordea, denek ez dute Bakhtinen ikuspegi berdintsua partekatzen, eta umorearen eragin sozialak oso bestelakoak direla defendatzen du hainbatek.

Umoreari egozten zaizkion gaitasunen inguruko irakurketa muturrenetako bat, hain justu ere, umoreak ondorio sozialik eragiten ez duela pentsatzen dutenen kasua da. Horien artean koka daitezke, esaterako, gorago aipatu den *ikuspegi fenomenologikoa* darabiltenak (Lipovetsky, Op. cit.; Romero, Op. cit.), zeinak umorea "mundu ikuskera" gisa ulertzen dutenez, pretentsio gabea, eta beraz, eragin gabea dela defendatzen duten. Planteamendu hauekin bat dator Gregor Benton soziologoa ere, bere proposamenak *ikuspegi fenomenologikoari* ez badagokio ere, honakoa dio politikaz diharduen umorearen inguruan:

*"the political joke will change nothing, it is not a form of active resistance. It reflects no political programme. It will mobilize no one (...) its impact is as fleeting as the laughter it produces."*<sup>33</sup> (Benton, 1988: 54)

Egia da, edonola ere, gizartea mugiarazi edota harreman soziopolitikoetan eragin edo hauek aldarazteko ezgauza dela pentsatzea ez dela umorea lantzen duten gehienek iritzia. Hain zuzen ere umorea soziologiatik aztertzen dabiltzan egileek, errealitate sozialean eragiteko gaitasuna aitortzen baitiote. Besteak beste praktika sozial izate hutsak,

33 ["txiste politikoak ez du ezer aldatuko, ez da erresistentzia bide aktiboa. Ez du programa politikorik islatzen. Ez du inor mugiaraziko (...) haren eragina sortarazten duen irria bezain galkorra da"]

berekin dakarrelako errealitate sozialearen parte izatea, eta hala den heinean, gehiago edo gutxiago, errealitate sozialekiko eragina izatea suposatzen duelako horrek.

Umorearen eragin sozialean azterketa eta sailkapenean oin hartzen dute, hain zuzen ere, *ikuspegi funtzionalista* darabilten egileak. Abiapuntu hau darabilten autoreek aintzat ematen dute umoreak errealitate sozialean eragina baduela eta hain zuzen ere umorearen alde hori aztertzeaz arduratzen dira. Baina desadostasun handiak erakusten dituzte eragin hori zer nolakoa den zehazterako garaian, eta kasu horretan ere, irakurketak askotarikoak dira.

Zenbait azpimarra egiten dute umoreak indarrean dagoen gizarte ordenua mantentzeko duen gaitasunean. Alfred Radcliffe-Brown antropologoa, adibidez, 1940an mendebaldarrak ez diren kulturetan eginko ikerketek esker ondorioztatzen du, umoreak gizartearen tentsioak askatu edota kudeatzeko baliabidea dela, egitura soziala hankaz gora jar dezaketen egoera larri edo muturrekoak lasaitu eta ordenua bere horretan mantentzen laguntzen duena (Kuipers, 2015:368). Zenbait hamarkada beranduago gizarte industrializatueta egindako halako ikerketek arrazoiak ematen diote autoreari, umoreak, gatazkatsuek diren egoeren inguruko bromen bidez, horiek neutralizatze gaitasuna duela jartzen baitute agerian Pamela Bradney-en (1957) edo Andrew J. M. Sykes-en (1966) lanek. Mahadev Apte-k ere (1985) ahaltsun horixe egozten die inauteri eta pailazoei; oldarkortasuna kontrolpean mantentzeko gizarte tentsioen askapen balbula gisa ulertuz. Antzeko irakurketak indartzen dituzte Alan Dundes-ek (1987) eta Patrick D. Morrow-ek (1987) ere, askapen balbularen ideia horretatik abiatuz, umoreak, eta bereziki "umore beltzak", beldurra, pena edota lotsa gisako bizipen edo emozio desatseginei aurre egin eta horietaz jaregiteko modua dela diote. Horrekin bat egiten du Mulkay-ek ere (Op. cit.), umoreak bizitza soziala osatzen duten hainbat tabuen edota inkongruentziaren inguruan

hitz egiten lagun dezakeelakoan baitago. Gizartean nahasitza, gatazkatsutzat edo anbiguotzat jotzen diren ideiak edo egoerak helarazteko aukera eskaintzen duela dio, eta ondorioz, umoreak bizitza sozialaren alde kontraesankorrenak plazaratu eta azaltzeko aukera ematen duela<sup>34</sup>, beti ere ordenua eta sistema mantentzearen alde jokatur.

Antzeko bidetik baina era muturrekoago batez, umorea kontrol sozialerako erremintatzat jotzen duten autoreak ere topa daitezke, hauetariko askok Bergsonen ikuspegiari helduz (Bergson, Op. cit.), umorea "zuzentzaile sozialtzat" hartzen dute.

Powellek (Powell, 1988) proposatzen duen sailkapenean oinarrituz, umoreak gizarte batek "anormaltzat" jotzen dituen joerak zuzentzeko balio duela esaten du. Hain zuzen ere horiek ahalketzat erakutsi eta aldarazteko nahia bultzatzen duelako. Berdintsua argudiatzen du Michael Billig-ek ere (Billig, 2005), umorea, gainontzeoengan lotsatzeko modukotzat jotzen dena seinatu eta hau egitearekin batera arau sozialak onartu eta mantentzeko baliabidetzat ulertzen baitu.

Azken ikuspegi honetan sakonduz zenbait autorek esaten dute umoreak ahalbidetzen duen kontrol sozialak gizartean egon daitezkeen "desbiderapenak" desagerrarazteko balio izateaz gainera, immobilismo soziala sortzeko ere balio dezakeela. Hots, gauzak "bere horretan" mantendu arazteko gaitasuna duela. Rose Coser-en lanak esaterako (Coser,

1959), ospitale bateko lan-bileretako umore erabilerak aztertzen ditu, txiste kantitate eta noranzkoa lanpostu maila desberdinek duten hierarkia sozialarekin alderatuz. Emaizta argiak ateratzen ditu azterketa horretatik: lantalde bakoitzak (medikuak, residenteak eta erizainak) beraien posizioa besteen aurrean defendatzeko, haiek baina "maila baxuagoagoko" lan taldeen inguruko bromak egiten dituztela ikusten du. Autoreak, hala, ordenu soziala bere horretan mantentzeko gaitasunean, umoreak talde sozialen arteko higieizintasuna bultzatzen duela dio. Hots, gremio bakoitzeko indibiduok jaso eta egin ditzaketen bromen erabateko kontzientzia izanik, espazio edo gremio horren (eta ez beste inoren) parte direlako kontzientzia ere erakusten dutela, eta darabilten umore joerak, posizio (gremioaren maila) hori defendatu eta horretan tinkotzea bultzatzen duela agertzen du. Autoreak dio, horrenbestez, umoreak "jendea bere lekuan mantentzeko" gaitasuna duela.

Ikerketa horrek, ordea, bestelako ideia bat ere luzatzen du bere azken ondorioarekin, izan ere, umoreak posizio sozialen mugieizintasuna indartzen du, hain zuzen ere, posizio bakoitzaren baitan kideen arteko kohesio soziala indartzen duelako da.

Azken ideia horri heltzen diote beste zenbait autoreen laneak. Finek esaterako, (Fine, Op. cit.) umorearen funtzio nagusia harreman sozialak sortu edota estutzekoa dela dio. Autorearen esanetan, umorea talde kultura jakin bat sortu eta definitzeko baliagarria da, "besteen" (taldekide ez direnen) inguruan *konspiratu*, konplizitatea sendotu, elkarrekiko distantzia sozialak murriztu eta identitate komun bat indartuz. Halaber, identitate baten eraketan parte hartzen duen heinean, identitate horren ezaugarriak zehazten ere laguntzen du, talde barruko "arauen" edo "egin

behar diren" eta "egin ezin diren" horien muga ezartzea ahalbidetuz (Robinson eta Smith-Lovin, 2001).

Umorearen jarrera bikoitz horretan indar egingo dute hainbat autorek: batetik, kohesio soziala sortu eta indartzeko balio duela pentsatuz; eta bestetik, mailaketa sozialak bistaratu eta elkar banatuak mantentzeko gaitasuna ere baduela agerian jarritz (Kothoff, 2000; Mulkay, Op. cit.)<sup>35</sup>.

Batasuna, kohesioa, elkarketa edo finkapena sortzetik urruti, umorearen oso bestelako irakurketak egiten dituzten autoreak ere aurki daitezke; hain zuzen ere umoreak haustura eta subertsioa dakarrela defendatzen dutenak. Bakhtinek markaturiko lorratzari jarraituz (Bakhtin, 2003), umoreak errealitate soziala auzitan jarri eta horren kontingentzia bistaratzen duelakoan daude Anton Zijderveld (1982) edo Judith Butler (2001, 2010) bezalako autoreak.

Zijderveldek (Op. cit.), umorea egunerokotasuneko zentzu eta esanahiak, eta oro har bizitza soziala eraikitze beharrezkotzat jotzen du. Autorearen ustez, umoreak "esanahiekin jolasteko" aukera ematen du eta esperimendazio eta negoziaketa soziala ahalbidetzen ditu horren bitartez. Umorea, gure burua eta mundua modu distortsionatu batean ikusteko ispilua dela dio, eta alde horretatik, errealitatea ulertzeko bide *errebelatzailetzat* jotzen du.

35 Badira ere, umorearen alde bi horietako bakarrean oin hartzen dutenak. Euskal Herrian egiten den umorearen inguruko hausnarketan, esaterako, umoreak duen elkartzeko gaitasunean jartzen du arreta Rafael Castellano eta azpimarra egiten du "barreak eta umoreak elkartzeko duela eta banaketarik sortzen ez duelako" ustean (Castellano, 1996:21).

Abiapuntu berdintsua darabil Butlerrek ere. Umoreak errealitate soziala des-naturalizatzeko balio duela dio eta gauzak "bestela" izan daitezkeela erakusteko gaitasuna egozten dio, dagoen ordenu soziala mantenduarazi orde (orain arteko autoreek aditzera eman duten moduan) hori iraultzeko balio duela aldarrikatuz<sup>36</sup>.

Autoreak, umorea gaur eguneko "esanahien praktikak" (*practice of signification*) eraldatzeko gai dela defendatzen du (Butler, 2001, 2009, 2010), errepresentazio kodifikatuen paradigma *desmitifikatzeko* ariketatzat joaz umorea. Hala, sozialki erreflexiboa den subjektuaren erreminta gisa ulertuz, espazio (sozialen) eraketarako baliagarria izan eta kategoria sozialen ikuspegi naturalizatuan (arruntean) eragin dezakeelakoan da Butler.

Autorearen ikuspegi honek, parodiak (umoreak) esanahien osieran duen egituraketa dikotomikoa apurtzen duela zehazten du, alde-aurkako posizio manikeoak gainditu eta espektro horretatik kanpo egon litezkeen bestelako aukerak kontuan hartzea dakarrelarik. Bakhtinenarekin bat egiten du zentzu honetan, umoreak tesi-antitesi logika dikotomikotik urrunduz errealitatearen balizko aukera hipotetiko berriak proposatzeko aukera ematen duelakoan baitago bera ere.

Butlerren ustez, beraz, umorearen baitan topa daitezkeen diskurtso desberdinen arteko harreman dialogikoak, esanahien etengabeko eraketa ahalbidetzen du, non ahots eta iritzi ugartasunak ez duen zertan ebazpen zurrun edo zehatzik izan (sintesia), baizik eta *bidegurutze diskurtsibo* baten parte izanik, kontzeptuen (errealitateen) etengabeko

36 Butlerrek, zehazki, parodiari egiten dio aipamena bere idatzietan (Butler, 2001:173-179), baina parodia umorearen partetzat edo umorea egiteko estilo baten gisan ulertzen dugunez, honakoa ere kontuan hartzea aberasgarritzat jo dugu.

34 Hainbat autorek, umorea "espazio libre" gisa ulertzen dute, edozertaz hitz egiteko askatasuna ematen duen esparrutzat. Limor Shiffman, Stephen Coleman eta Stephen Wardek (2007), edota Hans Speierk (Op. cit.), besteak beste, umorearen alderdi hau lantzen dute arreta berezia jarriaz kritika politikoak bideratzeko umoreak agertzen dituen abantailetan.



negoziaketa (hurriketa) prozesu anbiguo eta determinatu gabeko bat bideratzen duen.

Ideia berbera defendatzen du Simon Critchley-ek honakoa dioenean: *"l'humour projette un autre sensus communis possible, précisément du dissensus communis, distinct du sens commun dominant"*<sup>37</sup> (Critchley, 2004: 9). Bai eta Eric Dicharry-k *"est simplement là pour transformer la réalité sans la faire, pour autant disparaître (...) Il est là pour transfigurer, pour rendre la vie plus vivable, pour relativiser l'existence (...) pour la reformuler"*<sup>38</sup> (Dicharry, 2013:307). Autore hauek bat datoz Butlerrekin umoreak sen ona zalantzan jarriaz, beste gisa bateko logika edo sen on bat proposatzen duela, eta ondorioz, errealtatea (ber) eraikitzeko gaitasuna duela esaterakoan<sup>39</sup>.

Butlerren ikuspegi honekin bat etortzen dira umorea *gatazka teoriari* ikuspegitik landu duten hainbat autore. *Gatazka teoriari* ikuspegia, umoreak gizarteko gatazka soziopolitiko edo kultural batekiko duen lotura azterteaz arduratzen da, eta zehazki, umorea talde sozial jakin baten erasorako edo defentsarako arma gisa nola baliatzen den aztertzen du (Speier, 1998), besteak beste, errealtatea "beste modu batez" planteatzeko ematen duen aukera horri erreparatuz.

37 ["umoreak bestelako *sensus communis* bat jartzen du agerian, hain zuzen ere *dissensus communis*-a dena, nagusia den sen onaren desberdina dena"]

38 ["errealtatea, desagerrarazi gabe, aldarazteko dago bertan (...) Itxuraldatzeko dago, bizitza bizigarriago egiteko, esistentzia erlatibizatzeke (...) birformulatzeko"]

39 Interakzionismo sinbolikoaren ikuspegitik lantzen duten autoreek bat egiten dute ideia horretan, eta umoreari errealtate soziala (ber)eraikitzeke gaitasuna egozten diote. Horien artean George Paton eta Ivan Filby (1996) edo Janet Holmes (2000).

*Gatazka teoriari*en baitan ere desadostasunak handiak dira ordea. Zenbaitzuk pentsatzen dute gatazka zehatz baten inguruan sortutako umoreak eragin handiagoa duela umorea egiten duen taldearen baitan, eta ez hainbeste aldiz, umoreak jomugatzat erabiltzen duen hartan (Paton, Powel eta Wagg, 1996). Beste batzuk, umoreak ituztat duen taldean eragina duela defendatzen dute, besteak beste "ahularen" arma gisa funtziona dezakeela erakutsiaz, non, zapaltzailearen aurka eraso egiteko, egoera zehatz bat salatzeke edota borroka espazio alternatibo gisa agertzeko aukera ematen duen (Speier, Op. cit.; Scott, 2013; Gouin, 2003; Stokker, 1995).

Badira ere gatazka egoera batean umorearen eragina erabat iraungikorra dela uste dutenak: umore bidezko erresistentziak uneko lasaitasuna edo asetasuna ekar badezake ere, egoera gatazkatsuetan "egiazko" eraldaketarik benetan sortzen ez duela pentsatzen dutenak. Hain zuzen ere, askapen balbularen ideari eutsiaz, umoreak egiazki, sistema bera egonkortzen laguntzen duela uste dutenak (Benton, 1988).

*Gatazka teoriari*en baitan azken urteetan oihartzun handia lortzen ari den iker ildo nagusietariko bat gorago aipatu den *umore etnikoaren* azterketa da (Lockyer eta Pickering, 2005a, 2005b). Alde horretatik, Daviesek dio talde sozial orok baduela, gehiago edo gutxiago, umore jomuga gisa jokatzeko duen ohiko beste talde bat, umore etnikoari dagokionean beti egongo delarik gutxieneko aurkakotasunik (Davies, 2002). Hala, umorearen oinarrian (inplizituki edo esplizituki) dauden muga sozial, moral eta geografikoek talde partaidetza eta identifikazioan dauden bilakaerak agerraraziko dituela dio. Izan ere Natividad Gutierrezek Mexikoko umore etnikoaren azterketa egiterakoan dioena moduan: *"Pese a nuestros propios esfuerzos racionales,*

*aprendemos a conocer a otros pueblos y otros estilos de vida haciendo referencia a lugares comunes, clichés y generalizaciones."*<sup>40</sup> (Gutierrez, 1998: 82).

Praktika umoristikoak taldearen kultural eta sinboliko komun baten erakusgarri diren neurrian, kolektibitate nazional baten agerkeri ere izan daitezkeela agerian uzten du Daviesek, eta honen bidez, umore nazionalen azterketa, kolektibo *etniko-politiko* desberdinen arteko harremanen inguruko informazio iturri aberats moduan planteatzen du. Ikuspegi horretatik, umorea gai izango litzateke nazio batek bere burua nola ikusten duen, gainontzeko kolektibitateak nola irudikatzen dituen eta guztien artean egon litezkeen botere-harreman eta posizio sozialak zeintzuk diren agertzeko.

Edonola ere, eta nahiz eta Davies *gatazka teoriari*en baitan kokatzen den autore nagusitzat jo (Kuipers, 2008), oro har ez du umore etnikoaren harira sortzen diren gatazka sozialetan sakontzen. Horren ordez, umore etnikoaren joera desberdinen lanketa deskriptiboa egiteaz arduratzen da, joera desberdin horiek sortzen duten talka sozialen muina alde batera utziaz.

Orain arte ikusten gatozen autoreen proposamenetan bada arreta deitzen duen joera bat. Autoreek umoreari egozten dioten gaitasun edo funtzio soziala edozein delarik ere, funtzio hori bakarra da kasu guztietan. Umoreak dituen eta ez dituen funtzioen inguruko ikuspegi banakatu horri, ordea, bira interesgarri bat ematen dio Dawn Robinson eta Lynn Smith-Lovinen lanak (2001). Orain arteko autoreek ez bezala, umoreak eragin bakarra izan ordez hainbat izan ditzakeela agerian jartzen baitute, neurri batean, umorearen

40 ["arrazionalki ahalegina egin arren, beste herri eta bizi estiloak leku komun, klise eta orokortzen bidez ezagutzen ditugu"]

funtzio nagusiaren bilaketa horretan nork arrazoia eduki lehiari amaia eman. Lau dira orotara autoreek umoreari esleitzen dizkieten gaitasun sozialak: a) kohesio sortzailea izatea; b) tentsioak gaintzen laguntzea; c) hierarkia sortzaile/mantentzaila izatea; edota d) esanahiak eraldatzeko gai izatea. Autoreek, horrenbestez, lehen aldiz agerrarazten dute umorearen funtzioak ez direla finkoak, baizik eta testuinguru sozialaren, partaideen harreman motaren eta umorearen edukiaren arabera direla.

Edonola ere kontuan hartu behar da, Robinson eta Smith-ek ez dutela aukera bat baino gehiago batera sor ditzakeenik aintzat hartzen, ez eta bestelako funtzioentzako atea zabalik uzten ere; umoreari funtzio anizkoitza egozten badiote ere, funtzio jakin batzuk (momentuz identifikatu ahal izan dituztenak) baino ez baitzikiote onartzen.

### 2.1.3. Gutxieneko oinarri komunak .....

Orain arte aipatzen gatozen adibideak kontuan izanda, argi dago umorearen inguruko ikuspegia historikoki asko aldatu dela, eta baita gaur egun dauden ulerkerak ere beraien artean oso desberdinak direla (unibertsala dela edo ez; talde barrura edo kanporako egitura duela; eragina duela edo ez; eta abar). Aniztasun horrek, gainera, umorea iker-objektu gisa zehaztasun edo lausotasun maila desberdinez erabiltzea dakar. Izan ere, zenbait kasutan umore kasu oso zehatzen azterketa empirikoetatik irakurketa orokorrak eratu dira (indukzioz), adibide jakin baten ezaugarriak kasu guztietarako baliagarritzat direla iradokiz (Mejjad, 2007; Mulkay, 1988); eta beste batzuetan ordea, umorearen inguruko hausnarketa egiteko erabilitako definizio edo ulerkerak hain izan da orokorra, ezen landa lanerako baliogabea, eta beraz, hausnarketa teorikoa egiteko baino



ez den izan erabilgarria (Lipovetsky, 1983; Romero, 2008). Honela adierazten du Kuipersek egoera:

*"If done well, sociology provides the tools to connect small-scale interactions with larger societal developments; cultural conditions with individual amusement; and the social functions of humor with its form and content. However, sociology's weak boundaries and its eclecticism also entail considerable risks: undertheorized empiricism and overgeneralization from a single case or limited findings; a proclivity to the "scavenging" of loose concepts, fragments of theories, and isolated findings from ot/her disciplines; the tendency to reduce all humor to a single function or meaning; or more generally lack of theoretical or methodological rigor."*<sup>41</sup> (Kuipers, 2015: 392)

Azterketa soziologikoan umorearen gaia tentuz erabiltzea ezinbestekoa da; azterketa enpirikoen eta teorikoen arteko oreka eta mugez jabetzea eta horien arabera lan egitea umoreaz egiten den azterketa aberasgarria bezain baliagarria eta erabilgarria izan dadin. Horretarako, beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu, batetik, iker esparrua zedarritzea; eta bestetik, "umore" kategoria nola ulertzen dugun zehaztea.

41 ["Egoki egiten denean, soziologiak lanabesak eskaintzen ditu eskala txikiko interakzioak handiagoak diren gertaera sozialekin elkartzeko; baldintza kulturalak dibertimendu indibidualarekin; eta umorearen funtzio sozialak haren forma eta edukiekin. Baina, soziologiaren muga ahulek eta haren eklektizismoak aintzat hartu beharreko arriskuak dakartzate: gutxi teorizatutako enpirikotasuna eta kasu bakarreen oinarrituriko edota aurkikuntza mugatuetatik abiatutako gehiegizko orokortzeak; kontzeptu nagiak, teoria zatiak, eta beste diziplinetako aurkikuntza isolatuak "aztertzekoa"; umore gutzia funtzio edo esanahi bakarrera mugatzekoa; edota gehienetan, zorrotasun teoriko edo metodologikoaren gabezia izatea"]

Iker esparruaren markoaren ezarpena, kasu honetan, ikerketaren helburuak aintzat izanik egin da, eta ondorioz, *umore etnikoa* hartu da abiapuntutzat. Umore etnikoa da Nazio-Estatu bateko umorea ulertzeko eta aztertzeko iker-ildo aberasgarrirenetarikoa bat, besteak beste, identitate nazionalari atxikia egonik, kolektibo (nazional) baten auto pertzeptzioa, identitate propioa, bai eta beste nazioetakoekin dagoen harremana aztertzeko aukera ematen duelako.

Arestian esan den moduan, umore etnikoa Daviesek landu duen umore aldaera da, baina Davies umore etnikoaren aintzat jotzen bada ere, azterketa hau ez da autorearen ikuspegi bertsutik abiatuko, gure ustez, Daviesen lanak zenbait ahuldade erakusten baititu. Horietan esanguratsuen Nazio-Estatu baten baitan egiten den umore etnikoa bakarra eta homogenea dela aintzat ematea da. Modu inplizituan Daviesek Nazio-Estatuen baitako errealitate sozial guztien umorea homogeneizatu edo haien artean berdintzeko joera hartzen du. Nazio-Estatu baten baitan umore sen bakarra dagoela aintzat emanez eta Nazio-Estatu horretan egon daitezken nazio identitate aukera desberdinak baztertuz: bai identitate desberdinak egon daitezkeela kontuan hartzen ez duelako, bai eta identitate nazional bera modu desberdinetan bizitu eta erreproduzitu daitezkeela aintzat hartzen ez duelako ere. Batak zein besteak, umore sen desberdinak erabiltzea ekar dezakeela alboratuz.

Are nabarmenagoa suertatzen da honako alderaketa, gainera, estatu propioirik ez duten nazioen kasuan (Euskal Herrian bezala) non, Daviesen ikuspegiari kasu eginez gero, aintzat ematen den estatuen baitako umorea berdina dela horiek plurinazionalak badira ere. Daviesen ikuspegi horrek, gure aburuz, Nazio-Estatu baten baitan egon daitezkeen botere-harremanak kontuan ez hartzea dakar, umore sen nagusia (estatuak hegemonikotzat duena, hots, *vox Dei*) soilik aintzat izanik, eta honen itzalean gainontzeko aukera guztiak (*vox populi*) desagerraraziz.

"Umorea" ikerketarako erabilgarria izan dadin, umore kategoriaren zehaztapena egitea ere beharrezkotzat jotzen dugu. Orain arte ikusten gatozen gisan, umoreak ulerpen hainbat eta definizio ugari dituela antzeman da. Kasu honetan beraz, umorearen ulermen zurrin eta bakar batetik abiatu ordez, umoreaz orain arte egin diren azterketa anitzak hala erakusten dutela ikusita, jarrera dikotomikoetan oin hartzen duelako ustetik urrundu (Davies, 1990, 1998) eta umorearen definizio malgu eta aberatsago batetik abiatzea erabaki da.

Horretarako bi urrats eman dira. Batetik, autoreen lanen errebaso hau kontuan izanik, umorearen inguruan autoreek dituzten gutxieneko adostasunak identifikatu dira (jarraian zerrendatzen direnak) eta umorearen ezaugarri orokor batzuk argitara ekartzea lortu da horri esker. Bestetik, hurrengo kapituluan ikusiko den gisan (2.2. kap.), umorearen ezaugarri horiek aintzat izanik, umore kategoriaren eraketa (teorikoa) egin da, umore kasu desberdinetarako baliagarria den proposamen teoriko/analitiko baten proposamena eginez bertan.

### 2.1.3.a. Umorearen ezaugarri partekatutak

Autore desberdinek umorearen inguruan egin dituzten azterketek eta irakurketek, modu inplizitu edo esplizituagoan, gutxieneko ezaugarri batzuk partekatzen dituzte. Ondoren azaltzen dira ezaugarri komun horien xehetasunak:

#### - Gozamena

Umoreari esleitzen zaizkion funtzio eta ezaugarriak anitzak direla bistakoa da. Umorea zuzentzaile sozial, "askapen balbula", identitate kolektibo sortzailea, baztertzaila edota lanabes politiko gisa funtzionatzeko gaitasuna izan dezakeela agerian jarri dute autore desberdinek.

Askotariko ikuspegi horiek maiz elkarrekiko aurkakotasunez aritu izanak estali arazi du, ordea, komunean duten ezaugarri oinarrikoenentzako batzuen ebidentzia. Izan ere hasiera batean hautematen ez bada ere, irakurketa horiek guztiek umorearen inguruan ikuspegi partekatu bat badutelakoan gaude: gehiago edo gutxiago, guztiek ematen baitute aintzat umoreak plazera hartzeko balio duela. Hala, ongi izatea, atsegina zein dibertsioarekin lotua agertzen da umorea. Hori hartzen da, inplizituki bada ere, oinarri gisa eta horren gainean, ondoren, erantsi dakizkioko sufrikarioa, bazterketa, talde kohesioa, lotsa, liberazioa... eragiteko bestelako gaitasunak. Gure aburuz, horrenbestez, irakurketen oinarrian beti agertzen da plazera edo gozamena sentiarazteko ahalmena, gozamena emateaz gainerako gaitasunak direlarik beste horiek.

*Gozamena*, beraz, ikerketa honetan umore kategoria ulertzeko eratu nahi den abiapunturako kontuan hartzen den lehen ezaugarria da.

#### - Haustura

Horrela izendatu dugu autoreen lanek inplizituki umoreari egozten dioten bestelako ezaugarria, errealitatearen ohiko interpretazioan sortzen duen desdoia, hain zuzen ere. Bai gizarte batean normal-anormaltzat jotzen denaren arteko joko gisa izendatuz (Powell, 1988; Fine, Op. cit.) zein errealitatearen kontingentzia azaleratzen duela adieraziz (Bakhtin, 2003; Butler, 2001, 2010), iker lanek agerian jartzen dute umoreak ohikotasuna kolpatu, irauli, birplanteatu edo, une batez bada ere, kolokan uzteko ariketa abiarazten duela.

Egia da horren gainean gerora bestelako interpretazioak sortzen direla, besteak beste desdoiak errealitate sozialean eraginik duen edo ez duen auzitan jartzea, edota eraginik izatekotan egitura soziala berdin mantendu edo subertitzeko baliagarri den ikustea. Baina kasu honetan ere, egin daitezkeen interpretazioak askotarikoak badira

ere, oinarrian abiapuntu berbera aintzat ematen dute guztiek; hots, umoreak errealitate sozialaren hautemate "normalarekiko" *haustura* bat dakarrela.

Hain zuzen ere, ulertzen dugu umoreak duen egitura horrek azal dezakeela gorago aipatu den umorearen unibertsaltasun/partikularitasunaren inguruan dagoen auzia. Umorearen oinarritzko egitura (haustura sortzekoa) umore kasu guztietan presente dagoela ulertzen badugu, umoreak agertzen duen izaera unibertstala uler liteke, testuinguru hurbilarekiko duen lotura horregatik bazterrean utzi beharrik izan gabe. Izan ere, umore orok *haustura* dakarrela ulertzeak azaltzen du umorea ez dela unibertstala erabiltzen dituen gaiak berdintsuak direlako, baizik eta bere forma edo egitura kasu guztietan berdina delako. Ondorioz, herrialde desberdinetan umore gai berdintsuak inoiz errepikatuak azaltzen badira (mendealdeko herrialdeetan gerta litekeen moduan), ez da umoreak gai jakin batzuekiko duen errepikakortasunarengatik, baizik eta herrialde horietan errealitate sozialarekiko hausturen hautemateak berdintsuak izateagatik (normal-anormal, ezaguna-ezezaguna, tabua-sakratua, ona-txarra edo ohiko-ezusteak, kasu). Umorea, beraz, forman edo egituran unibertstala dela uler genezake (beti dakar *haustura*), testuinguru soziokulturalaren arabera aldatuko duelarik haren hausturen tasuna.

*Hauptura*, horrenbestez, umorearen ezaugarri oinarritzkoenatariko baten gisan ulertzen dugu.

-*Distantzia*

*Distantzia* deitu diogu umoreak berak darabilen egiturari, hots, zerbait esateko, azpimarratzeko, argitara ekartzeko edo besterik gabe aipatzeko jarduerari.

Lan desberdinek egiten dituzten irakurketak kontuan hartzean ikusi da autore guztiek aintzat ematen dutela umoreak beti dioela zerbait, eta beti "nonbaitetik" esana dela, gainera. Zenbaitek dio norberaren buruaz edo taldeaz aritzen dela umorea, eta beste batzuek aldiz gainontzekoei egiten diela erreferentzia; badira goraipatu nahi denaz diharduela diotenak eta badira aldatu beharrekoa azpimarratzen duela esaten dutenak, baina batera edo bestera, umoreak beti igortzen du mezu edo iritzi bat. Ariketa horri *distantzia* deitu diogu guk eta honakoa ere umorearen oinarritzko ezaugarri gisa aintzat hartzen dugu.

Ukertzen dugu, beraz, umoreak zerbaitekiko *distantzia* sorrarazten edo bultzatzen duela errealitateak aipatzen dituen momentutik, errealitate horrekiko *haustura* joko bat proposatuz *gozarena* sorrarazten duen praktika batean. Umore kategoria zehazteko baliagarria den lehen hurrerapen horretatik abiatuz, beraz, hurrengo atalean umorea azterketa soziologikoan erabiltzeko baliagarria den proposamen zehatzago bat luzatzen da.

## 2.2.

### UMOREAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKORAKO PROPOSAMEN BAT

Ondoko kapituluan, umoreak euskal nazioaren eraketan betetzen duen rol politikoa aztertzeke erabili den umore kategoriaren nolakotasuna azaltzen da. Aurreko kapituluan esandakotik abiatuz, eta bereziki umorearen planteamenduari dagokionez argitara ekarri diren zenbait gabezia teoriko-analitikoei erantzunez, ulermen soziologikorako doitu den eta analisisirako aukera ematen duen umore kategoriaren hurreratze erabilgarri bat proposatzen da. Hain zuzen ere, umorea *mediazio prozesu* gisa aurkezten da, aukeraketa honen zergatiak eta honen ezaugarriak argituaz batera.

#### 2.2.1. Umorea definitzeko zailtasunak .....

2.1. atalean ikusi den bezala, umorea aztertu duten hainbat egilek umorearen ezaugarri eta funtzio sozial partzialetan oinarritzen diren orotariko definizioetan funtsatu dute haien lana. Ariketa horietan, autoreek umorearen entendimendu orokor bat osatu dute kasuan-kasu azterturiko adibideen indukzioz. Hala, bai lanerako abiapuntu teoriko gisa erabili izan dutenean, bai eta analisi

osteko ondorioan aurkeztu dutenean ere, umorearen inguruko ikuspegiak izaera sobera orokor eta abstraktu bati erantzuten amaitu diote gehienetan (Mejjad, 2007; Gutierrez, 1998). Eta baita alderantziz ere; umorearen inguruan teorizatu duten autoreen proposamenek ez dute usu landa lanerako erabilgarriak diren oinarri edo abiapunturik eskaini (Lipovetsky, 1983; Romero, 2008).

Umore kontzeptuarekiko ikuspegi orokorregi zein mugatuegi horiek sortu eta erabiltzeak berehala bistarazi ditu hainbat gabezia. Izan ere, umorearen inguruan soziologiatik egin diren definizioek sarri ezin izan dituzte fenomenoaren ezaugarri eta eragin guztiak behar bezala barnebildu, eta horrek umorea etengabe zehaztu beharreko adigai izatea ekarri du.

Hala, orotariko umore definizio bat sortzeko ezintasunak (edo sortutakoen gabeziak), *adierazle hutsaren*<sup>42</sup> engainuan erortzeko arriskua sortzen du berekin. Hots, kontzeptu zabala izanik, xehetasunez zehaztu eta azaldu nahi izateak, harik eta konplexuago bilakatzen du kasu eta ikuspegi guztietarako baliagarria den umorearen ulerkera bateratu bat gauzatzea, hau definitzeko saiakera oro "alperrekoa" bihurtzen delarik.

Definitzen "zaila" den fenomeno izanik, sarri umorearen inguruan sortzen den ezagutzak ez du umorearen argi-ilunetan sakontzen, ez eta, ondorioz, umorearen inguruko ezagutza eta jakintza aberastea lortzen ere. Horren ordez, ohikoa izaten da sozialki partekatua den umorearen gaineko ikuspegi (aurre-zientifiko) azalekoena erabiltzea, ariketa

42 Ernesto Laclau (2005: 125): "*Un significante vacío es, en sentido estricto del término, un significante sin significado*" ["Adierazle hutsa da, terminoaren zentzu zurrunean, esanahik gabeko adierazlea"].

horretan umorea ulertzeko ikuspegi hegemonikoari<sup>43</sup> dagozkion definizioak (bir)produzituz.

Umorea zehazteko zailtasun horretatik ihes egiteko (edo honi erantzunez) sortzen diren definizio hertsia eta mugatuena ase gabetze gehienak, iturburu berbera dute gure ustez: umorearen jokamolde erlazonala (eta kontingentea) ez (edo ezin) kontuan hartzea, alegia. Eta hori da, hain justu ere, atal honetan argitzea bilatzen dena: alegia, nola ulertu umore kategoria haren ikerketa soziologikoa baliagarria (bideragarria) izan dadin.

Soziologiatik begiratuta, umorea, fenomeno sozial bezala ulertzen den heinean, haren funtzionamenduak testuinguruari (errealitate sozialari) dagokio erabat. Esan nahi baita, soziologiak ulertuko du umorea inguru

—

43 Lan honetan hegemonia adieraren ulerkera zabala erabiltzen da. Klase edo sektore sozial mugatu batek (bai eta horri loturiko, praktika, diskurtso edota bestelako errealitateek) gehiengoarekiko agertzen duen nagusitasuna, gailentasuna edo domeinua adierazteko batik bat, baina baita ere domeinu eta nagusitasun horrek eragin ditzakeen ondorioak aipatzeko ere. Hala, hegemonia adieraren baitan jasotzen dugu, besteak beste, klase edo sektore sozial jakin batek besteekiko duen nagusitasun horretan bere kosmobisio eta diskurtsoak besteengan inposatzeko duen gaitasuna (botere-harremana eta dominazioa). Jesús Martín Barberoren hitzetan oinarritzen gara horretarako, izan ere Antonio Gramscik dioena oinarri hartuta (Gramsci, 1977), honela definitzen du hegemonia Barberok: «*como un proceso en el que una clase hegemoniza en la medida en que representa intereses que también reconocen de alguna manera como suyos las clases subalternas (...) hecho no solo de fuerza sino también de sentido (...) de seducción y de complicidad*» (Barbero, 1991 : 84) ["klase jakin batek egiten duen prozesu hegemonizatzailea, harenak diren interesak azpiratuak dauden taldeek ere propiostat hartzen dituzten heinean gertatzen dena (...) indarraz ez ezik zentzuaren bidez egiten dena (...) liluraz eta konplizitatez."].

sozialarekin duen harremanaren arabera agerian ala ezkutuan mantenduko den subjektuen arteko interakzioak produzitzen duen praktika edo jarduera sozial bezala. Eta hein horretan, baldintza sozialen arabera aldagarriak izango dira bai ezaugarriak zein ondorioak ere.

Aldagai sozial anitzekin harremanetan egoteak kontzeptu malgu bihurtu du umorea beraz, eta malgutasun horrek asko zaildu du bere zehaztapen lana. Orain arte ikusitakoa kontuan hartzen bada, badirudi kasu guztietarako baliagarria den umorearen definizio bat eraikitzeak ahalegin lortezina izateko arrisku handia duela. Izan ere kontzeptu "abstraktua" denez, besteak beste, bere zehaztapena dimentsio mikro eta makroaren arteko oreka utopiko batera "kondenatua" gelditu da neurri handi batean. Umorearen definizio egoki batek, alde batetik, umore kasu oro esplikatzeke gai den azalpen estrapolagarri bat eskaini beharko luke, fenomeno horren ikuspegi orokor bat emateko gai izango litzatekeena. Baina, era berean, ez luke lausoegia izan behar, umorea "zer" den azaltzeaz gainera, umore-kasu konkretuen analisirako ikuspegi erabilgarria ere eskaini beharko lukeelako.

Umorearen inguruko teoriaren hutsuneek zerbait erakutsi badute, beraz, umorea soziologiatik premisa logiko bat bailitzan ulertzea "ezinezkoa" dela izan da. Existentzia ontiko aldakaitz lez planteatzeak fenomeno sozial izanagatik bere baitako elementu, harreman edota ondorio zein eragin guztiak behar bezala ulertzeko baliogabea den abiapuntu antzua sortzen du. Ondorioz, umoreari buruz eginiko definizio totalizatzaileek, epistemologikoki asegabe edota metodologikoki erabilgaitzak dira, oro har.

Inguru sozialaren ezaugarriekiko sentikorra izanik, hortaz, umorea azalduko duten definizioek nahitaez kontuan hartu beharko lukete haren aldagarritasuna. Baina, halaber, malgua den zerbaiten definizio zurrin edo

orokortzailea ezartzeak ez al du oximorona bihurtzeko arriskurik? (Romero, 2006) Hots, eginahal eskuraz ezin izatekoa? Izan ere, nola definitu daiteke definitze hutsarekin mugatu edo osatugabe geratzeko arriskua duen zerbait?

Umorearen izaeraren zabaltasunak ekar lezakeen segada teoriko-analitikoa saihesteko, umorea orotara definitzen/ ikertzen saiatu beharrean, bere kontingentzia kontuan hartzea planteatzen da lan honetan, horretarako baliagarria den kategoria analitiko bat proposatuz. Honen bidez, eta bereziki umorearen gaineko zehaztapen soziologiko bat eraikitzeak dituen zailtasun eta arriskuez jabetu ostean, adigai horren definizioaren azia bazterrean uztea erabaki da, umorearen analisirako ez baita halabeharrezkotzat jotzen hori "zer" den jakitea, umorea "nola uler daitekeen" zehaztea analisisa burutzeko aski delakoan baikaude (Romero, Op. cit.). Hortaz, umorea eta euskal nazioaren eraketa sinbolikoaren arteko zubi teoriko operatibo bat altxatzeko ahaleginetan, bai eta umorearen erabilera teorikoaren zailtasunak gainditzekotan ere, lan honetan adigaiaren izaera aldakor, eragile, "eragindu" eta interaktiboan oinarrituz, umorea *prozesu* bezala ulertzeko proposamena luzatzen da.

### 2.2.2. Umorea prozesu gisa ulertzeko arrazionamendua ...

Umorea bada errealitate ontiko bat, gizartean ulergarria eta ezaguna dena, baina goian aipatu bezala, umorea "bere horretan" hartuta, lausoegia suertatzen da ikerketa soziologikorako baldin eta analisirako baliogarria izan dadin adigaiari zehaztapen gehiago egiten ez bazaizkio.

Saio horretan, beraz, umorearen definizioaren azia baztertu eta horren gaineko begirada funtzional baten

aldeko apustua egin da. Ekarpene bikoitzeko ariketa da honakoa. Alde batetik, umorea aztertzeo perspektiba baliagarri bat proposatzen da lan honetan, hots, umorea prozesu gisa ulertzeko planteamendua egin da. Bestetik, bere analisirako kategoria baliagarri eta erabilgarria eratu da, *umore prozesua* (up) izendatu dena. Umorea prozesutat jotzean, argi izan behar da lehenik eta behin, ez dagokiola umorearen definizio bati, baizik eta umorearen gainean ezarritako *begirada* epistemologiko bati. Esan nahi baita, ez dela umorea prozesua soilik denik esan nahi, baizik eta umorea gauza asko izanik ere (hain zuzen ere aniztasun horretan baitago kontzeptuaren konplexutasuna eta ondorioz bere erabileraren zailtasuna), prozesu lez funtzionatzen duela. Ikuspegi horretatik landuz gero, umorearen esanguraren eztabaidan sartu gabe, adigai honekin lan egiteko aukera dago.

Umorea praktika sozial bezala ulertua den heinean, bi ezaugarri nagusi esleitu dakizkioke. Alde batetik, umorea errealitate sozialari atxikia dagoen fenomeno denez, testuinguruaren baldintza eta ezaugarrien arabera aldakorra izatea. Horrekin ulertzen da, inguru sozialak umorean eragina duela, modu sinkroniko zein diakronikoan baldintzatzeko gaitasuna izanik. Baina baita alderantziz ere, errealitate sozialaren parte den neurrian, umorea gauzatu ahala, errealitate hori (ber)jaraiki edo osatzeko gaitasuna duela. Bestetik, umorea *praktika* ere badela gogoan izan behar da, eta ondorioz, suerta dadin, umorea *gauzatea* beharrezkoa dela, subjektuen arteko interakzio jardueraren ondorioa baita.

Interakzio jarduera aldakorra eta testuinguruarekiko eraginkorra dela kontuan hartuz beraz, umoreak, errealitate sozialaren baitan gauzatzen diren interakzio dinamikoz osatua dagoen eraldaketa ziklo jarraitu bezala jokatzeko

duela uler daiteke. Hau da, errealitate(rekin) moldatuz doan praktika iragazkorra dela, non, beste gertakariak honengan eragina izan dezaketan moduan (umorea moldatu, osatu edo aldaraziz), honek ere beste gertakarietan eragina izateko gaitasuna izango duen.

Hala, jarduera eta gertakarien multzoen bilakaera konstante baten baitan egonik (errealitate sozialaren bilakaeran), umorea beste jarduera eta gertakari batzuen zio eta halaber ondorio gisa uler daiteke: bilakaera horretako urrats bakoitzean aldaketak gehitu ahala etengabe eraldatzen joango dena. Horretan datza, hain zuzen ere, prozesu izatearen muina. Horrenbestez, harremanak izan, eragin, sortu eta etengabe birziklatuko den praktika sozial jarrai eta interaktibo gisa uler daiteke umorea, hots, *prozesu* gisa, eta ondorioz ikuspegi horretatik aztertua izan daitekeelakoan gaude.

Prozesu ikuspegiak, umoreari prozesua ez ezik "beste edozer" izateko aukera ere zabalik uzten du. Honela, aukeraketa manikeistetan zertan sartu gabe, umorea prozesutat ikusiaz batera, beste hainbat ezaugarri egozteko posibilitatea ere badago. Horien artean, adibidez, fenomeno komunikatibo, praktika politiko edota botere-harreman esparru sinboliko izatekoa, besteak beste.

Ikuspegi honek eskaintzen duen aniztasunaren baitan gainera, umoreak testuinguruaren ezaugarrien arabera ager ditzakeen desberdintasunak kontuan hartu eta modu partikularrean aztertua izateko aukera ere ematen du. Izan ere, umorea prozesu gisa ulertuz gero, inguru sozialaren arabera, ondorio edo ezaugarri desberdinak dituen fenomeno dela kontuan har daiteke, eta beraz, kasuan-kasu erakusten dituen kondizioen arabera aztertua izateko aukera dago. Hala, esparru sozial edo komunikatiboaren arabera, agenteak, forma, edukiak edo bitartekoak desberdinak diren heinean, umore prozesuak ere desberdinak izan daitezkeela kontuan hartzeko aukera

eskaintzen du hala nahi izanez gero<sup>44</sup>. Errealitate bakarra izanik ere, prozesua den heinean, izaera, adierazpen edota funtzio anitzak izan ditzake umoreak. "Umoreaz" baino "umoreez" hitz egiteko aukera sortzen da beraz, baldintza desberdinen arabera umore prozesu (up) desberdinak sortuko direlarik<sup>45</sup>.

Umorea, fenomeno sozial homogeneotzat (edo bakartzat) jotzearen ustearekin apurtuz beraz, kasuan-kasu beraien artean desberdinak diren "umoreak", edo egokiago esanda up-ak, daudela ulertzen dugu<sup>46</sup>. Hala, umorea errealitate bakar izanik ere, adiera desberdinak izango ditu, eta ondorioz, prozesu anitz edo multiple gisa analizatua izan daiteke.

Bi kategoria horien (umorea eta up) arteko lotura ez da modu kontraesankorrean ulertu behar ordea, umorea fenomeno sozial gisa existitzen bada up-ak izan badirelako baita, eta ondorioz, fenomeno "bakarra" izanik ere, kasu guztietan umorea ez da zertan fenomeno "bera" izan behar. Horrenbestez, bata zein bestea, umorea eta up-ak, ez dira "esentzialki" gauza desberdinak, baizik eta elkar osagarriak, edota egokiago esanda, fenomeno bera ulertzeko abiapuntu

—

44 Ezaugarri hauek kontuan hartuz, elkarren artean desberdinak diren "umoretzat" har daitezke adibidez, inauteriak eta Internet bidez igorritako saio umoretsuak. Batak eta besteak, espazio, denbora, bitartekari, agente, funtzio, ondorio edota formatu desberdinak dauzkate, eta horrek elkarren artean desberdinak diren umore eredu izatea ekartzen du, hots, up desberdinak dira.

45 Hala, esaterako, up-ak komunikabideetan edota up-ak mugimendu sozialetan modu independentean aztertzeo aukera eskaintzen duen kategoria da.

46 Argitu nahi da, edonola ere, ikerketa honek up-ak desberdinak direla kontuan hartu bada ere, ez zaiela up-ak elkar desberdintzen dituzten ezaugarriak erreparatuko; up-ak askotarikoak direla jakinik, honakook helburu komun bati nola erantzuten dioten ikustea bilatzen baita eta ez ordea, up-en artean dauden aldeak bistaratzeko.

edo perspektiba desberdinei erantzuten dieten kategoriak direla ulertu behar da.

Prozesuaren planteamendu honek, umorearen aniztasun eta partikularitasunarekin batera jokatzeko aukera ematen du hortaz: umorea "*gauza* asko" izateko posibilitatea mantentzeaz gain, kasuan kasuko analisiak egiteko aukera ere eskainiz<sup>47</sup>.

Honen bitartez beraz, batetik, teoria soziologikoetariko askok umorearen definizioarekin arrastaka zekarten arazoari erantzun bat ematen zaio. Bestetik, iker objektua eraikitzeo bidea argitzen eta zehazten da, ikerketa honetarako interesgarriak diren umorearen aspektu edo ikuspegietan soilik zentratzeko aukera emanaz. Eta azkenik, baliabide teorikoen bidez ulergarriagoa eta haren interpretazioa zein analisisa maneiagarriagoa izatea errazten du.

### 2.2.3. Mediazioa, umore prozesuak (up) eta nazioaren artean .....

Up-ek euskal nazioarengan betetzen duten rol politikoaren nolakotasunak ezagutzera bidean beste eskailera-maila bat igotzeko, up-ek duten komunikatzeko gaitasuna hartu da esteka teorikotzat.

Praktika sozialak diren heinean subjektuen arteko interakzio bidez sortu daitezke soilik, eta interakzio horrek arrakasta izan dezan (kasu honetan barregarria

—

47 Ikerketaren abiapuntuan "umore" terminoa definituko ez bada ere, egia da tesiaren ondorioek umorea soziologikoki aztertzeo erabilgarria izango den ulerkera (definizio) bat proposatzeko aukera eman dutela. Baina hau, besteak-beste posible izan da hasieran umorearen inguruko definizioak erabili ez izanagatik.

suertatu dadin), subjektuen arteko elkar-ulermen bat ahalbidetu behar du lehenengo (Bergson, 2008). Horretarako, umorearen bidez komunikazio harreman bat sortarazi behar da halaberrez, non umoreak, errealitate sozialarekiko interpretazio, iritzi edo ikuspegi jakin bat helarazten duen. Hots, up-ak umoretsuak izateko, "zerbait" esan behar dute, eta esandako hori ulergarria izan behar da. Subjektuen arteko elkar ulertze bat, komunikazio harreman bat oinarritzat izateak beraz, *praktika diskurtsibo* (Foucault, 2003) bilakatzeko dituzten up-ak.

Praktika diskurtsibo izateak ordea, informazioa komunikatzeaz gainera bestelako gaitasunak ere emango dizkie up-ei. Horietan esanguratsuenetariko bat, errealitate soziala (ber)eratzeko gaitasuna da.

#### 2.2.3.a. Lehen urratsa: up-ek errealitate soziala eratzen dute

Lengoaiaren filosofian, lengoia errealitatearen islatzat jo da tradizioz. Zeinu eta sinboloen bidezko adierazpenak egitura sozialetik bereziak dauden errealitate bezala ulertu dira eta lengoia, subjektuak munduaz hitz egiteko eta honi zentzu bat emateko erabiliko duen tresna bezala ikusi da: subjektua, lengoia eta munduaren (sistemaren) artean beste inolako loturarik egon zitekeenik pentsatu gabe (Goikoetxea, 2010). Uste honen arabera beraz, a) subjektua, munduaren esanahien sortzaile kontsideratzen da; b) mundua, harreman eta errealitateen bilkura moduan; eta c) lengoaiari, kanpo errealitate eta indibiduen arteko kanalizazio lana egotzen zaio soilik, pertsonen arteko interakzioak ahalbidetzeko mekanismo moduan ulertzen baita (Bekerman, 1996).

Subjektu/sistema/esanahi ikuspegi honi erantzunez garatu dira lengoaiaren inguruan sortu diren lehenengo teoriak ere. Ferdinand de Saussurek (2004) adibidez, lengoia eta errealitatearen arteko erlazio zuzen horri

jarraitzen dio *langage* eta *parole* arteko bereizketa proposatzerakoan. Mundua, gizartea eta lengoiaia, elkarren artean independenteak diren entitateak direla ulertzen du autoreak, eta lengoaiari, errealitatea *den moduan* ordezkatzeko gaitasuna egozten dio neurri batean. Baina aldi berean, esanahiak hitzei ez dagozkiela proposatzen du aurrenekoz: lengoiaia, osatzen duten harremanen arabera aldagarria dela ulertzen baitu, eta errealitatearen zentzua beraz, ez du subjektuaren kontrolpean dagoenik pentsatzen.

Saussuren ekarpenek batetik, eta herrialde desberdinetako linguisten elkargoaren hausnarketek bestetik -Moskuko Elkargoa, Pragakoa (1926), Kopenhagekoa (1931), New Yorkekoa (1934)- estrukturalismoaren sorrera abiarazten dute<sup>48</sup>. Emile Benévistekin bat eginez (1977), Roland Barthesek (1985), lengoiaia, kode garden bezala ikustetik urruti, hitzen bitartez esaten duena baina esangura zabalagoa duen elementu baldintzatu eta baldintzatzaile bezala ulertzen du. Lengoaiaren hautemate errealista eta errepresentazionalistetatik urrunduz, beraz, errealitate oro, gizarteak erabiltzen dituen diskurtoetatik ontologikoki bana ezina dela defendatzen du korrante honek.

Berdinean sinesten du Mikhail Bathkinek ere (1999, 2003) dialogismo eta polifonia ideien bitartez idealismoari aurka egin eta hitzek beraien erabileraz gaindi esanahirik ez dutela defendatzerakoan. Esanahia, talde sozialek lengoaiaren inguruan dituzten konfrontazioaren ondorioa dela uste du autoreak, eta esanahien eskumena, borroka esparru bilakatu dela adierazten du.

Ildo berdinari eusten dio John Langshaw Austinek (1981, 1988) ere, lengoiaia errealitetatik bana ezina dela defendatuz.

48 Gehiago jakiteko ikus Jule Goikoetxea (2010: 39 eta hurrengoak).

Berak proposatutako "hizketa-egintza"-ren teoriak (*speech act*), egoera konkretuetan, esaldi edo *hizkera unitateek* errealitateak sortzeko gaitasuna dutela esanez<sup>49</sup>. Austinen ustez, komunikatzeak ez du informazioa "transmititzea" edo ezezaguna zen zerbait "ikusgarri" bihurtzea suposatuko (bakarrik). Horren ordez, baldintza jakin batzuetan igortzen den formulazio linguistikoa, enuntziatioaren aurretik existitzen ez zen gaitasun edo ahaltasun -performatibo- bat erakutsiko duela defendatzen du (Saez Rueda, 2002).

Honako korrantea aberastuz doa 60-70. hamarkadetan, Jacques Lacan (2008) eta Michel Foucault (2003) edota Jacques Derrida-ren (1989) ekarpenen bitartez ikuspegi postestrukturalistaren eraketa bultzatzen den heinean. Autore hauek estrukturalistek defendaturiko ikuspegi sistemikoa egozten jarraitzen diote lengoaiari oraindik, non lengoiaia mugatua eta baldintzatu dela ulertzen duten. Baina atentzioa, egitura horien eraketaren nolokotasunean zentratzen dute orain, eta baztertu egiten dute egitura beraren ezaugarriei ordu arte emaniko garrantzia.

Hala, errealitateko egiturek zedarririk praktikak eta lengoaiak gauzatzen diren unean, egitura bera ere *gauzatzen* dela defendatzen dute ikuspegi honen aldekoek. Lengoaiak errealitatea eratzeko duen gaitasunean oinarritzen da perspektiba honen planteamendu nagusia, beraz; diskurtoak, errealitatea irudikatzen duenean eraiki ere egiten duela esanez, eta honekin batera, errealitatea lengoaiarik gabe ulertzea eta barneratzea ezinezkoa dela aintzat emanez: "*este paradigma le reconoce al lenguaje*

49 Adibidez "zin dagit" esaten denean edota, horretarako autoritatea duen norbaitek (apaizak adibidez) "senar emazte zarete" esaterakoan.

*una función no sólo referencial (informativa) y epistémica (interpretativa), sino también realizativa (creativa), o, generativa*"<sup>50</sup> (Echeverría, 2003: 23).

Diskurto bidezko errealitate sozialaren eraketa defendatzen duen hausnarketa korrante berdinean indartzen da lengoaiak subjektua osatuko duelako ideia ere. Ordu arte indarrean egondako subjektu aurre-osatuaren ustearen kaltetan, subjektua eta egitura elkar eratzen dituen interakzio jarrai baten ideia indartzen da.

Hausnarketa hauen baitan, Austinek irekitako bidea zabaltzen du Judith Butlerrek (2001, 2009), eta lengoaiari, aldi oroko gaitasun performatiboa esleitzen dio. Derridak defendatzen duen diskurtoaren errepikaportasunaren ideian oinarrituz (*iteration*), Butlerrek dio errealitate sozialaren performazioaren muinean errepikapena dagoela, eta errepikapen hauekiko erreflexibotasuna aldarrikatzen du errealitatearen erreproduktzioa eta subjektuaren identitatea aldaratzeko (*subvertitzeko*) modu bezala. Ildo honi jarraituz, Michel Pêcheuxrentzat (1978, 1978b) adibidez, subjektua ezarria dagoen egitura sinbolikoarekiko menderakuntzaren ondorio da, eta lengoaiaren (eta zehazki horrek sortutako diskurto eta ideologiaren) emaitza bezala ikusten du.

Diskurtoek subjektuak eratuko badituzte, diskurtoek duten alde ideologikoarengatik delako ustea zabaltzen da beraz, non diskurtoak, ideologiaren alde material bezala ulertuak diren. Edo alderantziz planteatuta, ideologia bakoitzak elkarren artean harremanetan egongo diren

50 ["paradigma honek lengoaiari funtzio erreferentziala (informatzailea) eta epistemikoa (interpretatiboa) onartzeaz gainera, ekintzailea (sortzailea) ere aitorzen dio"]

*formazio diskurtsibo* desberdinak ditu (Foucault, Op. cit.), zer eta nola esan behar den baldintzatuko dutenak, testuinguru eta bertan okupatzen den posizioaren arabera aldatuko dena. (Pêcheux eta Fuchs, 1978b:11). Ikuspegi honetatik beraz, subjektuak sortzen du ideologia, ideologiak subjektua sortzen duen bezalaxe (Althusser, 2005), hasiera punturik gabeko birsortze prozesu jarraitu batean elkar eratuz. Prozesu honen baitan gertatzen denak prozesuari berari erantzungo diola ulertu behar da beraz; prozesuan ematen diren jarduerak subjektu batek egindakoak diren heinean, ideologia bati dagozkiola, eta ondorioz, ideologiak subjektuak sortu eta hauen praktiken bitartez erreproduzitzen direnez, ideologiarik gabeko praktikarik dagoenik ezin pentsa daitekeelarik.

Subjektuak esanahi guztien iturri izateari uzten dio hartara, esanahiak ez baitu zer ikusirik subjektuak erabiliko dituen elementu linguistikoekin, bazik eta dagoen esfera ideologikoarekiko koherenteki sortutako diskurtoekin. Diskurtoak ez baitira subjektu psikologikoetatik garatutako errealitate ikuspegiak (Courtine, 1981); aitzitik, ideologia bati erantzunez, subjektuaren praktikak baldintzatzen dituen mundu ikuskera oso baten isla dira (Foucault, Op cit.).

Diskurtoa beraz, *diskurto sistema* (Foucault, 2003, 2010) bezala ulertu behar da: testuinguru jakin batean errealitatea modu jakin batean hautematea, "diskursibizatzea" (narratzea, hausnartzea, ikustea, ulertzea...) eta ondorioz performatzea dakarrena, eta egite horretan, diskurtoak oin hartzen duen ideologia erreproduzitu, errealitate soziala birsortu eta subjektua osatzen dituena.

*"El punto de vista crea el objeto, de forma que todos los objetos se convierten en discursos convenientes, en*

*formas de hablar que multiplican los objetos discursivos y los mundos posibles suspendiendo así la independencia de lo real, entendido como aquello que es externo al sujeto.*"<sup>51</sup> (Pêcheux, 1978: 119)

Diskurtsoa gizarte-dimentsio desberdinak eratzeko gai izango da beraz: ezagutza objektuak, marko kontzeptualak, subjektuak, bai eta harreman sozialak ere (Foucault, 2003, 2010).

Diskurtsoa eratzaileraren gertaera bezala ulertzerakoan, enuntziatuak, "ekintza" (praktika) diskurtsibo bezala uler daitezke. Hala, baldintza psikologikoen arabera sortzen diren egituraketa linguistiko sozialak izatetik urruti, eraikitzen dutenaren funtzio eta aldi berean haien desberdina den errealitate bezala funtzionatzaren dute, guzti hau etengabe aldatzen eta mugitzen ari diren harreman sozialen bitartez erreproduzitzen delarik.

Baina lengoaiaren esanahiaren funtsa interakzio sozialen ondorio den heinean (Habermas, 1999, 2003), diskurtsoen performazioa ez da modu lineal eta absolutu batean ematen. Norgehiagokak daude diskurtsoen artean hauek kudeatzen dituzten ideologiak (botere-harremanen) ordezkari material diren neurrian.

Diskurtso desberdinen arteko artikulazio gatazka hori bistakoa da up-en kasuan. Umore jomuga desberdineko up desberdinetan errealitatea hautemateko modu desberdinak helarazten diren neurrian, elkarren artean talka ere

51 ["Ikuspegiak objektua sortzen du, eta beraz, objektu guztiak komenigarri diren diskurtso bilakatzen dira, objektu diskurtsiboak eta posible diren munduak biderkatu arazten dituzten hizkera, subjektutik at dagoen zerbait lez antzematen den errealaren independentzia bertan behera utziaz."]

sortarazten dituzte, zein errealitate ikuspegi gailentzen den edo ez auzitan jarriz. Egoera horretan, up-ek bi funtzio betetzen dituzte: batetik eta hasieran aipatu bezala, diskurtsoen igorle diren heinean *praktika diskurtsibo* dira, eta beraz, orain arte aipatu bezala, kontuan hartu beharko da up-ek ere errealitateak performatzeko gaitasuna dutela. Baina bestetik, diskurtso desberdinak barnebiltzen dituen esparru komunikatibo zabal eta ireki bezala uler daitezke, errealitatearekiko ikuspegi desberdinak artikulatu, lehian sartu edota (des)zilegitzeko esparru bezala funtzionatzaren dutelarik. Hots, up-ek, diskurtsoen arteko harremanak beraien baitan hartzen dituzten prozesu bezala funtzionatzaren dute, diskurtsoaren esanahia negoziatzeko eta (bir)sortzeko abagune bilakatuz.

Hau kontuan izanik, up-ak errealitate sozialaren eraketarako *mediazio* gisa ulertzea proposatzen dugu.

### 2.2.3.b. Bigarren urratsa: Zer da mediazioa?

Mediazio kontzeptuaren adierak bilakaera nabarmena jaso du denboran zehar.

Adigai honen lehen aipuak Ingalaterra eta EEBBtako kulturaren ikerketa kritikoetan topatu daitezke (Morley, 1980; Masterman, 1985) eta hasiera batean, komunikabideek errealitatea eta ikuslearen arteko zubi-lanean betetzen zuten funtzio eta roleri egiten ziren erreferentzia. Hasierako ikuspegi horrek, komunikabideen alde instrumentalena indartzen zuen ordea. Izan ere komunikazio prozesuan bitartekaritza lan inpartziala ekoizten zitzaizkien komunikabideei, eta horien funtzio eta eraginak hartzaile eta emaileen erabilera ohiturekin lotzen ziren gehien bat, komunikabideak horien artean izan zitzaizkeen

eraginak ez baitziren kontuan hartzen (Couldry eta Hepp, 2013; Hepp, 2012).

XX. mendean zehar, ordea, komunikabideen erabilera oparo zabaldu ahala (irratia, prentsa eta zinemaren bidez, bereziki) ordu arte ez bezalako elkarrekintza modu berriak eratzten hasi ziren gizartean, eta horren ondorioz, subjektuen arteko harremanak izateko erak ere konplexuago bihurtu ziren. Bilakaera sozialek hala behartuta, errealitate soziala eta subjektuen arteko komunikabideen bidezko mediazioaren ulkerera ere aberasten joan zen pixkanaka, eta artekarizatzen ez ezik, mediazioa, hartzaile eta emaileengan eragina izateko, bai eta errealitate sozialaren zentzu eta esanahiak (ber)eraikitzeko eremu posible gisa ere hautematen hasi zen esparru zientifikoa.

*"the long tradition from the 1980s of looking far beyond the production-text-audience triangle toward the open-ended and nonlinear consequences of media as they circulate through our lives."*<sup>52</sup> (Couldry eta Hepp, 2013: 193)

Mediazioaren aldaketa epistemikoak bultzatuta, bi joera nabarmentzen hasi ziren ezagutza esparru honetan. Lehena, mediatioak, ordu arte komunikabideak ulertzeko indarrean zeuden bi ikuspegiarekiko haustura areagotzea. Alde batetik, ideologia ulertzeko ikuspegi marxistarekin hautsiaz, zeinak sistemak gizarte sozialarekiko zuten eraginean oinarrituz, hartzailearen jarrerak sistemaren baitan zuten posizioen arabera ondoriozta zitezkeela usteko zuena. Eta bestetik, ikuspegi konduktibistatik urrunduz,

52 ["80. hamarkadatik datorren tradizio luzea, zeinak produkzio-testua-hartzaile hirukitiki harago, medioen ondorio ireki eta ez linealak, gure bizirik zeharkatzen dituztenak, kontuan hartzen dituen"]

zeinak hartzailearen jarrera, "estimulu-erantzun" harreman baten baitan ulertzen zuen.

Bigarrena, komunikazio harreman eta komunikabideen ulermenaren inguruko irakurketen ugartze bat abiarazi izana. Mediatioaren zubi-lan gardenak ez zuten gehiago gizarteko joera berriak azaltzeko gaitasunik, horregatik, komunikabideei ordu arte egozten zitzaizkien ezaugarri, eragin, eraginkortasun, zein funtzioen inguruko irakurketa berriak azaltzarekin batera, mediatioaren inguruko planteamendu epistemiko berriak agertzen hasi ziren, bai eta gaurdaino indarrean segitzen duten zenbait eztabaida gune berri ere (horietako batzuk jarraian aztertuko direnak).

Mediatioak ulertzeko ildo berri honetan sakonduko duen lehen autoretariko bat Manuel Martín Serrano da. Autore honek, 70. hamarkadatik hona, komunikabideek errealitatearen hautemate eta gizartearen arteko harremanean ezartzen dituzten baldintza tekniko, sozial eta kulturalen eragina argitze aldera lan egin du, eta bereziki, komunikabideak errealitate sozialaren ikuspegi hegemoniko baten erreproduktore bezala betetzen duten funtzioa aztertzeaz arduratu da.

Serranoren planteamenduak (Serrano, 2008), komunikabideak erreminta tekniko neutral gisa ulertzen zituen hasierako ikuspegi hartatik urrunduko ditu. Horren ordez, errealitatearen irakurketa jakin bat aurkezten duten eduki sinbolikoak sortzeko gizartean zilegituak dauden esparruak direla dio. Alegia, errealitatearen interpretazio "objektibo" bat igorri beharrean, komunikabideak, errealitatearen ikuspegi zehatz bat proiektatu eta zilegitzeko baliabideak direla adierazten du.

Serranoren ustez, komunikabideak ez dira informazioa helarazten duten kanalak izango soilik, horretaz gain,

egitura kognitiboetan eragiteko gaitasuna duten erremintak ere badira, eta horrenbestez, mundu ikuskera zein pentsamoldeak baldintzatu, aldarazi edota iraunarazteko gaitasuna egozten die.

Baina hauen eragina ez da ausazko noranzkoan emango. Serranok dio komunikabideen bitartez igortzen diren mezuek ere, boterea duten gutxi batzuen esku dauden heinean, eredu kultural eta historiko konkretu bat erreproduzitzen duten baldintza estrukturalak dituztela haien baitan. Horren ondorioz, komunikabideen bidez egindako errealitatearen (erre)produktzio "mugatu" eta "interesatu" horretan, subjektu/komunikabide/errealitate harremanean sortutako mediazioak, komunikabideak kontrol sozialerako mekanismo bilakatzen dituelako planteamenduari eusten dio. Are gehiago, gizarte osora zuzendua dagoen informazioaren bitartekaritza eta ardura duten heinean, komunikabideen bidez komunikazio publikoaren tratamendu eta erabileraren instituzionalizazioa gauzatzen dela erantzen du, komunikabideak errealitate sozialaren produktiorako instituziotzat joaz.

Serranoren proposamenarekin beraz, mediazioak informazio trukaketarako erretan inpartzial izateari uzten dio aurreneko, eta horren ordez, hartzailen ikuspegietan nahitara eragiteko gai den komunikabideek ahalbideturiko bitartekaritza bihurtzen da. Mediazioa, beraz, botere posizioetatik gizarte osora zabaltzen den errealitate konkretu baten eraketa homogeen eta aldibereko bat sortzeko modua litzateke, eta ondorioz, baita errealitate sozial hegemonikoaren ezarpena bideratzeko ere.

Baina komunikabideek goitik-beherako noranzkoan eragina izan badezakete ere, kontrol sozialerako erreminta "soilak" ulertzeko ikuspegi mugatua dela irizten diote zenbait autorek. Jesús Martín Barbero (1991), da horietako bat.

Barberok mediazioa<sup>53</sup> ulertzeko duen abiapuntua XIX. mendetik aurrera mendebaldar gizartean eman zen bilakaera kulturalarekin eta bereziki masa gizartearen agerpenarekin lotua dago. Autorearen ustez, garai hartan indartu ziren komunikabideei esker (irratia eta prentsa bereziki), orduko gizarte klaseen desberdintasunak (sinbolikoak) lausotu eta klaseen elkar "hurbiltzea" eta hegemonia indarren berregituratzea bultzatu duen kultura aldaketa bat eman zen; hain zuzen ere gerora "masa gizarte" eta "masa kulturaren" sorrera bultzatu zuena.

Bilakaera kultural horretan, komunikabideak bitartekari teknologiko izatetik, komunikaziorako potentzialitate sozial izatera pasatu zirela azpimarratzen du Barberok, eta ondorioz, ez dator bat Serranorekin mediazioa produktio sozialerako esparru instituzional gisa definitzean. Gure irudikoz, bi dira arrazoi nagusiak.

Alde batetik, Barberok proposatzen duen zehaztapen kontzeptualak aldaketa epistemiko bat dakarrelako. Serranoren planteamenduan, mediazioa "espazio" gisa aurkezten da; komunikazio harremana ematen den esparrutzat ulertzen du autoreak (nahi bada esparru sinboliko-komunikatibotzat), non agente komunikatzaile desberdinen arteko harremanek topo egin eta elkar eragiten duten. Baina Barberoren proposamena, "espazio" —

53 Barberok, mediazioa honela definitzen du: *"las articulaciones entre prácticas de comunicación y movimientos sociales, diferentes temporalidades y la pluralidad de matrices culturales"* (Barbero, 1991: 203) ["komunikazio praktika eta mugimendu sozialen arteko artikulazioak, iragankortasun desberdinak eta matrize kulturalen aniztasuna"] Medioen ikerketa ez du egingo produktio eta errezeptio logikaren arabera, gero hauen arteko lotura edo enfrontamenduak ikusteko, baizik eta mediazioetatik abiatzea proposatuko du, hau da, materialitate soziala eta adierazkortasun kulturala mugatu eta konfiguratuak duten lekuetatik abiatu behar dela esango du (Barbero, 1991: 233 eta hurrengoak).

bezala planteatzeak iradoki dezakeen medioen izaera *inmobilita* eta gardenetik urruntzen da, eta haren azalpenek mediazioari aiurri mugikor eta malguagoa esleitze aldera jotzen dute: hain zuzen ere mediazioa prozesu gisa aurkeztuz.

Barberoren ustean, mediazioa komunikazio bat ematen den garaian ez ezik, komunikazio hori hasi aurretik eta amaitu ondoren ere "eragindua" eta eragilea den fenomeno da, non mezuaren emaile eta hartzaileaz gain bestelako agenteengan<sup>54</sup> ere ondorioak izango dituen, eta non lehen mailako komunikazio prozesuaz gaindi (eta honi dagokion "espazioetatik" at), errealitate soziokulturalaren beste hainbat eremu eta dimentsiotan (sinergikoki) eragiteko gaitasuna izango duen. Hala, gure aburuz, mediazioa prozesu gisa ulertzeak, komunikabideen jite iragazkor eta zabala balioztatzen du Barberoren proposamenean.

Bestetik eta aipatu berri dugun horri lotuta, agente ugari parte-hartzen duten prozesu zabal gisa proposatzean, Barberok ulertzen du komunikabideek helarazitako informazioak ez duela mezu objektibo eta zentzu bakarrekoa, transmititzen diren mezuak, hartzaileek beraiek birmoldatu edo berrinterpretatu dezaketen eduki sinbolikoak direla baizik. "Egia" (errealitate soziala), harreman intersubjektiboek osatutako eraketa bat da<sup>55</sup>, eta ez ordea, Serranok esan bezala, gizartea nahi bezala konbentzitu eta hezten duen botere instituzioen emaitza.

—

54 "Agentzia" ez dira subjektu edo instituzioak bakarrik kontuan izan nahi, baizik eta Bruno Latourri kasu eginez, *objektuen* agentzia ere kontuan hartzen da (Latour, 2008)

55 Ideia honek, Peter L. Berger eta Thomas Luckmanek errealitate sozialaren eraketan proposatzen duten ideari jarraituko dio (Berger eta Luckmann, 2006)

*"Si entendemos por lectura "la actividad por medio de la cual los significados se organizan en un sentido" (B. Sarlo "Crítica de la lectura: un nuevo canon?"), resulta que en la lectura (...) no hay sólo reproducción también, una producción que cuestiona la centralidad atribuida al texto-rey y al mensaje entendido como lugar de la verdad que circularía en la comunicación. Poner en crisis esa centralidad del texto y del mensaje implica asumir como constitutiva la asimetría de demandas y de competencias que se encuentran y negocian a partir del texto. Un texto que ya no será máquina unificadora de la heterogeneidad, un texto ya no-lleno, sino espacio globular y atravesado por diversas trayectorias de sentido."*<sup>56</sup> (Barbero, 1991:232)

Hala, Barberoren arabera, botere-harreman bertikaletatik aldentzen da mediazioa, besteak beste, mezu batek bidalitakoan duen esangura hartzaile guztiek berdin ez interpretatzea gerta daitekeelako adibidez, eta kasu horretan, ez duelako uste komunikabideen bidezko gizarte kontrolak beti funtzionatzen duenik.

Ildo honetatik, Barberok ez du, Serranok bezala, hartzaile eta emaileen arteko bereizketa zurrunik egiten. Horren ordez, hartzaile eta emaileen arteko interakzio —

56 ["Irakurketa gisa ondokoa ulertzen badugu, "esanahiak zentzua hartzen duten ekintza" (B. Sarlo "Crítica de la lectura: un nuevo canon?"), orduan, irakurketak ez du erreproduktzioa egiten, baita produktioa ere: auzitan jarriz testuari egozten zaion zentraltasuna, bai eta mezuarena ere, komunikazioan zirkulatzen duen egia gisa ulertua dena. Testuaren eta mezuaren zentraltasuna auzitan jartzeak berekin dakar testuaren bidez negoziatzen diren eta testuan dauden konpetentzien arteko asimetria eraikia dela onartzea. Heterogeneotasuna elkartzeko makina bateratzaile izateari utziko dion testua da, testu ez-betea, baizik eta espazio globular eta zentzu desberdinek gurutzatutakoa." ]



sare modura definitzen du mediazioa (Barbero, Op. cit.). Noranzko bakarrek komunikazio esparrua izan ordez (Serrano, Op. Cit.) mezua igortzen duenak boterean egonik errealitatearen irudi zehatz bat sortarazi nahi badu ere ez du beti bere helburua (errealitatearen ikuspegi zehatz hori) aldaketarik gabe igortzeko gaitasunik eta bermerik. Hain zuzen ere, mediazioa esanahiak (des)kodifikatu daitezkeen prozesu mugikor eta kontingente lez irudikatzeak, botere-harremanak pairatzen dituenari ere informazioa *taktikok*<sup>57</sup> interpretatzeko aukera ematen dio, eta ondorioz, hartzaile ez ezik, agente bertsua emaile ere izan daiteke espazio horren baitan.

Baina taktikarako esparru horrek ere bere mugak izan ditzake. Izan ere, Guillermo Orozco-k (1991) adibidez, subjektuaren baldintzapen kultural eta sozialetan arreta jarriz, norbanakoaren testuinguru soziokulturaletik eta pentsamendutik datozen mugak mezuen interpretazioan eragina dutela adierazten du.

Autore honen ustean, mediazioa, ikusleagoak komunikabideekin eta beste instantzia sozialekin dituen interakzioen<sup>58</sup> bitartez sortu eta birproduzitzen diren zentzu eta esanahien eskuratzeko eta barneratze prozesua da. Hala, nahiz eta autoreak mediazioak "gune ireki eta libreak" diren ideiarekin bat egiten duen, gune horietan gertatzen diren interakzioak sozialki eta kulturalki mugatuak daudela uste du, eta subjektuak jasotako sozializazioaren arabera mediazioetan emango diren edukien negoziazioa eta barneratze prozesuak hein batean baldintzatuak daudela baieztatzen du (Orozco, Op. cit.).

Horrenbestez, mediazioa zentzuen negoziatorako

57 *Taktika* eta *estrategiaren* arteko bereizketa Michel de Certeau-ren azalpenetik berreskuratu da (de Certeau, 1974).

58 Komunikabideak tarteko egonik sortzen diren interakzioak *interaktibitate* bezala ere izendatu daitezke (Rammert, 2012).

prozesu aske bat izanik ere, subjektuen *matrize kulturelek* (Barbero, Op. cit.), hots, kolektibo baten kide izanagatik sozializazioz barneratutako mundu ikuskerek, mediazioen baitan gertatzen diren hartu-emanak baldintzatuak dituzte. Esan nahi baita, mediazioetan edonolako interakzioak eta errealitateen negoziatioak gauzatzeko potentzialitatea egon litekeen arren, subjektuek ikasi eta barneratua duten errealitatearekiko komunztaduran jokatzeko gehienetan, eta ondorioz, zalantzan geratzen da subjektuak mediazioaren baitan duen esku-hartzeartze "askerako" gaitasuna.

Mediazioaren zenbait ezaugarriren inguruan autoreen arteko desadostasunak daudela ikus daiteke beraz, eta bereziki, botere-harremanen ondorioz sortutako errealitate sozialaren interpretazio eta eraketarako gaitasun eta esku-hartzeari dagokienean. Hala ere, *grosso modo*, esan liteke autore gehienek bat egiten dutela mediazioa errealitate eta subjektuaren artean dagoen inguru sozialaren irakurketa eta interpretaziorako komunikabideen bitartez sortzen den instantzia bezala ulertzean; non agenteen arteko interakzio bidez, bai agenteren baten (edo guztien) gain eragina izan, bai eta errealitatearen (bir)definizioak gauzatzeko aukera eskainiko duen fenomeno (esparru/prozesu) komunikatibo zabal gisa aurkezten den.

Horri dagokionez, eta eztabaidan gehiegi sakondu nahi izan gabe, garrantzitsutzat jotzen dugu mediazioaren harira sortzen diren ikuspegi desberdinen testigantza jasotzea, guztiak ez badira ere, nagusienak bai behintzat. Izan ere, hasieran aipatutakoa gogoraraziz, mediazioari ematen zaizkion irakurketa desberdinek kontzeptuak duen erabilgarritasun malguaz jabetzea, eta ondorioz, komunikabideetan ez bestelako esparru batzuetan ere, (umorean kasu), aplikatu daitekeela ikustea dakar. Eta bestetik, esleitzen zaizkion esanguren joritasunaren baitan, umorearen analisisirako egokia (eta egokitua) den

mediazioaren kategorizazio erabilgarri bat sortze aldera, ikuspegi desberdinen artean oro har bat egiten duten ezaugarriak inferitzeko aukera eskaintzen du.

Ariketa honetan beraz, adierari orain arte egotzi zaizkion ezaugarri eta funtzioak zorrotasun kontzeptual handiagor sailkatzeko asmoz, azken hamarkadetan zabaldu den beste eztabaida bat ere aipatu nahi da: mediazio eta *mediatizazio* kontzeptuen artekoa, alegia.

Orain arte mediazioari zegozkion ezaugarri desberdinak bi adarretan sailkatzeko ahalegina egin dute zenbait autorek - Jay G. Blumler eta Dennis Kavanagh (1999), Gianpietro Mazzoleni eta Winfried Schulz (1999), Friedrich Krotz (2009), Winfried Schulz (2004), Nick Couldry (2008), Sonia Livingstone (2009)-. Lehena, mediazioa, komunikazioari lekiok, hau da, komunikatzaileek haien hartzaileei komunikabideen bidez esanahiak transmititzeko ekintza adierazteko termino bezala erabiltzen dena izango litzateke, hots:

*"Mediation, [...], dialectical process in which institutionalized media of communication (the press, broadcast radio and television, and increasingly the World Wide Web) are involved in the general circulation of symbols in social life."*<sup>59</sup> (Silverstone, 2002: 762)

Bigarrena aldiz, mediatizazioa, mediazio horrek sortarazten dituen aldaketa sozial eta kulturalak deskribatzeko sortutako kontzeptua da (Schultz 2004;

59 ["Mediazioa (...) prozesu dialektikoa, non, instituzionalizaturiko komunikabideak (prentsa, irrati, telebista eta gero eta gehiago WWW) bizi sozialeko sinboloen zirkulazio orokorrean inplikatzeko diren"]

Livingstone, 2009)<sup>60</sup>, hau da, historikoki agertzen joan diren komunikabide desberdinekin batera eratu diren mediazio prozesuek eragin dituzten ondorio globalak behatu eta medioen gaitasun eta botereaz hausnartzeko aukera ematen duen kategoria da (Knoblauch, 2013)<sup>61</sup>.

Bi terminoen arteko bereizketa, ordea, ez da erabat argia, izan ere: *"there is quite substantial disagreement as to what the word may mean in theoretical terms and in terms of empirical research."*<sup>62</sup> (Knoblauch, Op cit.: 297). Kasuan kasu, mediazioak esan nahi duenaren inguruan egon daitezkeen desdoikuntzak ez ezik, zenbaitetan, bi terminoak (mediazioak eta mediatizazioak) modu bereiz gabean erabiltzen dira; eta bestetan, mediazio kontzeptuaz aditzera emango dira bi joerak (bai komunikazioa eta bai honen ondorioak ere) (Barbero, Op. cit.).<sup>63</sup>

Egoera honetan, besteak beste, mediazio kontzeptuaren bilakaera epistemiko azkarrak bultzaturiko testuinguru teoriko sendo baten faltaren zioaz, ezbaian gelditzen da

60 *Mediatizazioaren* inguruko informazio gehiago: korrante instituzionalistan, Stig Hjarvard (2013), eta korrante sozial-konstruktibistan Friedrich Krotz (2009), Andreas Hepp (2012, 2013).

61 Orain arte aipatutako adibideez gain beste esanguratsu batzuk: Ernst Manheimek (1979) adibidez, gizarte modernoan komunikabideen ondorioz ematen hasi ziren harreman sozialen aldaketaz jarduteko erabiltzen du *mediatizazioa* (Barbero, 1991-en ikusia); eta Jürgen Habermasek (1999) komunikabideen eragina aztertzeaz urruti, mediatizazioa boterea edo dirua bezalako medio sinbolikoen bidez ematen den mundu sozialaren menderakuntzaz aritzeko erabiltzen duen terminoa da.

62 ["Desadostasuna dago hitzak teorikoki eta ikerketa enpirikoari dagokionez duen esanahiaren inguruan"]

63 Izendapenen inguruko eztabaida luzea da: esaterako medializazio (*medialization*) kontzeptuaren inguruko, zeinak erreferentzia egiten dion errealitate soziala komunikabideek erabiltzen dituzten kodigoetan igortzeko egiten den "itzulpen" lanari (Van Loon 2008:117)



maiz halako bereizketa semantikoen baliogarrtasun eta erabilgarrtasuna (Knoblauch, Op. cit.). Izan ere, edozein izen aukeraturik ere (mediazio, mediatizazio, edo beste edozein), izendapenak hutsean gelditzen dira esanahi zehatzik ez izanagatik. Halabeharrez azaldu beharra dago, beraz, aukeratutako terminoarekin aditzera eman nahi den errealitate edo fenomenoaren zein den.

Zehaztapen hauek, ordea, zenbaitetan kontzeptuaren esangura aberastea ere ekarri dute, mediatioari orain arte egotzi zaion eskumen esparrutik harago erabilgarria izan daitekeen termino bilakatzeko aukera emanez. Izan ere, kontzeptua fintze aldera eginiko hausnarketak ez dira beti mediatioaren ezaugarrien sailkapen kartesiar bat bilatze aldera egin, kasu batzuetan mediatioaren ulkerera puizteko posibilitatearen aurrean egindako ariketaren emaitza ere izan dira.

Noranzko honetan Muñiz Sodr -k (2001) egin du ekarpen garrantzitsuenetarikoa bat, hain zuzen ere mediatioa beste esparru sozialetara zabal daitekeela agerrarazteko ahaleginean proposatzen baitu  nabardura semantikoa: mediatio eta *mediatio* kontzeptuen artekoa, alegia.

Autorearen ustean, mediatioa da erreminta teknologikoetan zurkaizten den interakzioari erreferentzia egiteko termino egokia. Hau da, orain arte gainontzeko autoreek "mediatio" gisa izendatutako errealitateari aipamena egiteko adiera. Hala, mediatioak, gizartean munduaren ikuspegi manipulatua eta ondu bat agerrarazten duela dio, subjektuen mundu ikuskeretan eragin eta hauen bitartez errealitateak modu jakin batez (ber)sortzeko espazio bezala ulertuz.

Mediatioari aldez, esanahi zabalagoa esleitzen dio Sodr k, eta komunikabideekin baino, komunikatzeko-bide kulturalekin lotzen du hura. Autorearen ustean, mediatioa, errealitatea eta subjektuaren arteko dagoen itzulpen-

kanalari dagokio, hau da, subjektuak errealitatea hauteman, ezagutu eta ulertzeko erabiltzen dituen baliabide kulturalak deitzen die mediatio (zeinuak, sinboloak, kodeak...), eta bereziki lengoaiaren erabilera azpimarratzen du, hori baita bere ustez subjektuen mundu sinbolikoa sostengatuko duen kultura mekanismo esanguratsua.

Honaino ikusi bezala, mediatioen inguruko planteamendu esanguratsuenek, oro har komunikabideen erabilerarekin lotzen dute mediatioa. Hau da, halabeharrez, baliabide komunikatibo-teknikoen presentziaz batera agertzen den prozesutat jotzen da. Baina joera horretatik aldenduz, Sodr k, adibidez, kontzeptu honen esanahia komunikabideekiko loturatik baztertu eta esparru zein jarduera kulturalekin zer ikusi handiagoa duten proposamenekin uztartzen du. Hala, mediatioa, medio teknologikoen presentziarik gabe ere jazo daitekeen prozesua litzateke, errealitatea (errealitate soziala) eta subjektuaren artean edonolako mekanismo sinbolikoren bidez gauzatzen den hartu-eman komunikatibori dagokio.

Baina Sodr k proposatzen duen mediatioaren ikuspegia zentzu batean eztabaidagarria izan liteke. Izan ere, mediatioak errealitatea eta subjektuaren arteko bitartekaritza kulturalak baldin badagokie, zein nolako desberdintasuna dago mediatio eta kultura beraren artean? Hau da, kultura, gizakiak bere ingurua ulertzeko erabiltzen duen mundu sinboliko-kognitiboaren osotasunari (zeinuak, erreferenteak, hizkuntza, sinismenak...) eta sinbolismo horren ondorio performatiboei (errituak, ohiturak, interakzio sozialak...) badagokie, ez ote litzateke mediatio kontzeptua kultura adierazteko beste modu bat?

Izan ere, Sodr ren errealitatea eta subjektuaren arteko mediatioaren proposamenean, "komunikabideak" jarri ordez (Barberoren proposamenean bezala, hau da [errealitatea-

komunikabideak-subjektua]) "kultura mekanismoak" jartzeak [errealitatea- itzulpen kanal kulturalak -subjektua], mediatioa eta kultura maila berean kokatuko ditu. Hau da, gizakiak inguruan duen errealitatean bizirauteko eta hori konprenitzeko erabiltzen dituen bitarteko konpartituen multzoa, eta horien etengabeko negoziatio eta doikuntza esparru gisa ulertzen du mediatioa; hots, kulturarena izan zitekeena. Nola azaldu, beraz, kultura eta mediatioen arteko harremana edo ezberdintasuna?

Sodr ren ikuspegi kultural bertsua konpartitzen duen Edgar Morin-en proposamenak, mediatioak "*los dispositivos de intercambio entre lo real y lo imaginario*"<sup>64</sup> (Morin, 2008: 65) direla dio. Hau da, errealitatearen eta subjektuaren mundu sinbolikoaren arteko bitartekaritza egiten duten elementu kulturalak dira, eta beraz, bizitza pragmatikorako beharrezkoa den sostengu imaginarioa eratzeke esparrutat jotzen du mediatioa.

Baina bai subjektuaren mundu sinbolikoa ("lo imaginario"), eta ondorioz baita mundu sinboliko eta errealitatearen arteko mediatioa ere, kulturaren baitan dauden elementuak dira. Morinen ekarpena kontuan hartzen bada, beraz, ikus liteke Sodr k proposatutakoak baino esparru zehatzago eta elementu konkretuagoen artean ere mediatioak egon badaudela, hots, mediatioak kultura bera izan ordez, kulturaren baitan kokatuak daude.

Hala, litekeena da mediatioa eta kultura, errealitate desberdinak izanik, batak bestea bezala jokatzeko gaitasuna edukitzea. Alegia, Sodr k aipatzen duenaren ildotik, kulturak subjektua eta errealitatearen arteko negoziatioa esparru lez funtzionatzen duen heinean, mediatio funtzioa ere betetzea. Horrenbestez, mediatioak, esparru kulturalen bildutako praktika edo fenomeno komunikatibotzat uler

64 ["erreal eta imaginarioaren hartu-emanerako gailua"]

litezke oro har<sup>65</sup>, eta kultura, fenomeno komunikatibo horien guztien mediatio prozesutat; hots, *metamediatio edota mediatioen mediatio* bezala.

Gauza berdintsua izan ordez, hortaz, mediatioa, kulturaren "ezaugarritzat" jotzen dugu: kulturaren baitan agertzen diren errealitatearen osagai edo elementu desberdinen artean (irudikapenak, subjektua, botere-harremanak...), kultura mekanismoen bidez (ikurrak, hizkuntza...) gauzatzen diren etengabeko interakzio komunikatiboei ahalbidetzen duten prozesua. Prozesu horrek, agente desberdinak barnebildu eta aldi berean hauengan eragina izateko gai izango da, ariketa horretan errealitate sozialaren eraketan eraginez; eta isolatua egotetik urruti, mediatio prozesu hau, beste hainbat mediatioz zeharkatuta eta osatuta egon daiteke.

Mediatioaren espektroa izugarri zabaltzen da honekin beraz: ez soilik azken bi autore hauen proposamenek mediatioaren ulkeratik komunikabideen presentzia erazi izanagatik, baizik eta horren ondorioz mediatioaren zentzuak edozein eremutako harreman komunikatiboei eta harreman horietan gauzatzen diren kultur baliabideen bidezko interakzioei erreferentzia egiteko baliagarri bihurtzen dutelako; horien artean, baita umorerako ere.

65 Honekin ez da esan nahi komunikazio oro beti mediatio bat denik. Izan ere gure aburuz komunikazio guztiek ez dute zertan mediatio bat suposatu behar. Hau da, komunikatzen diren mezu guztiek ez dute zertan negoziaketarako edota errealitatearen birdefinizioarako esparru bat sortu eta ahalbidetzen (edo bai baina ez erraztasun berdinez). Kontrara ordea, mediatio guztiek halabeharrez zerbait komunikatuko dutela uste dugu, errealitateari buruzko informazioa eskuratzeko baliabideez (kulturalak) osatua dagoen heinean errealitatearekiko informazioa igortzen dutelako.

Oro har, beraz, iker lan honetan erabiltzen den mediazioari buruzko ikuspegia honela laburbiltzen dugu:

Mediazioa<sup>66</sup>, komunikabideen bitartekaritzaz gaindi (edo hauek ere barnebiltzen dituen esparru kultural zabalago batetik), irakurgarri eta ulergarriak diren orotariko bitartekari sinbolikoak (zeinuak, hizkuntza, praktikak, errituak, irudikarioak...) erabiliz gauzatzen den komunikazio prozesua da. Prozesu honek, komunikazio harremanean parte hartzen duten agentez gaindi (subjektu, objektu, diskurtso eta praktikak) eta komunikazio hori ematen den krono-topoaz harago, gizartearen bestelako agente eta esfera sozialetan sinergikoki eragina izateko gaitasuna duen etengabeko interakzio komunikatiboa ahalbidetzen du.

Hala, mediazioa ez da espazio bezala ulertzen, aldatzen doan eta agente zein interakzio desberdinez elikatzen den fenomeno malgu eta birziklatu bezala baizik. Etengabeko bilakaera honen efektuak, errealitate sozialaren eta honen baitako agenteen erreproduktioari lotuak egongo dira bereziki, zeinak komunikazio-harreman dialogiko (eta ez

dialektiko<sup>67</sup>) bat ahalbidetuz, errealitate sozialaren (ber) irakurketa eta (bir)sortze iraunkorra ahalbidetzen duen. Negoziaketa horretan, edonola ere, agente desberdinen artean dauden botere-harremanek (botere posizioak) eragina dute, eta diskurtso desberdinen zilegitasun eta instituzionalizazioarako gaitasuna baldintzatuz, errealitate sozialaren (bir)produktioarako gaitasuna ere harreman hauen eraginpean dago.

Agenteen botere-harremanen eraginak tarteko egonik, beraz, mediazioa, (komunikazio) interakzio sinbolikoaren bidezko errealitate sozialaren (bir)produktioarako abagunea eskaintzen duen prozesutzat ulertzea proposatzen dugu; bai eta ezaugarri horiei erantzunez, up-ak, euskal nazioaren eraketarako mediazio bezala funtzionatzen dutela ere.

#### 2.2.4. Umore prozesuen mediazioa .....

Honaino ikusitakoaren arabera, up-ak, errealitate sozialaren eraketa eta mediazioa, elkarren artean osagarriak diren kategoriak edota fenomenoak direla uste dugu. Balizko

67 Dialogia Mikhail Bakhtinek bezala ulertzen dugu (Bakhtin, 2003), hots, esanahien (eta ondorioz errealitateen) etengabeko "bidegurutzeko diskurtsiboak" sortzen dituen eta hauen negoziaketan (eraketan) diharduen prozesu komunikatibo anbiguo eta indeterminatu jarrai bat bezala, non emaitza zehatz edo finkorik (sintetirik) zertan agertu gabe, esanahi eta praktika desberdinen bizikidetzak eta ikuspegi eta iritzi aniztasuna ahalbidetzen duen. Horrez gain, gure aburuz *dialektikaren* harreman manikeistak (tesiantitesiak) ez du behar bezala islatzen mediazioak, prozesu komunikatibo malgu eta birziklatu bezala ulerturik, errealitate soziala (bir)produktioarako duen gaitasuna eta konplexutasuna. Horretaz gain, *dialogia*, Bakhtinek parodiaren gaitasun eta ezaugarriez jarduteko erabiltzen duen terminoa izanik gainera, umorearen analisisirako askoz ere egokiagoa dela deritzogu.

lotura triangeluar honetatik abiatuz, beraz, up-en bidezko euskal nazio eraketa sinbolikoari heltzeko lan honek erabili duen planteamendu teorikoaren oinarria osatu daitekeelakoan gaude; umorea *prozesu* bezala ulertzeak, *up-ak* errealitate sozialaren eraketan (zehazki euskal nazioan) betetzen duten *mediazio* funtzioaren funtsatutako iker-objektua eratu daitekeela uste baitugu.

Motzean esanda, eta orain arte aipatutakoa gogora ekarriz, umoreak dituen interakzio, aldakortasun eta ezaugarri dialogikoengatik, bai eta gaitasun performatiboengatik ere, lan honen abiapuntu teorikoak umorea prozesutzat jotzea du oinarri. Ikuspegi horretatik, up-ek bete ditzaketen funtzio guztien artetik<sup>68</sup>, errealitate sozialaren eraketan duen esku-hartzea da aintzat hartu dena, hori baita euskal nazioaren birstortzea aztertzeko abiapuntua. Hemendik aurrera, prozesu ikuspegia eta performazio funtzio hauek barnebiltzen dituen kategoria bat aukeratu da up-ek euskal nazioaren eraketan duten rol politikoa zehazteko. Eta finean, up-ek mediazio bezala funtzionatzen dutela planteatuz osatu da lanaren iker-objektua.

68 Umorea prozesu bezala ikusteak ez du esan nahi halaberharrez honen gaitasun performatiboan zentratu behar denik iker lana. Izan ere, up-en azterketak ikerketarako beste hainbat aukera ematen baititu, adibidez, up-ek gatazka egoeretan duten eragina edota up-en bidezko garapen kognitiboaren azterketa egitea.

Baina planteamendu horretarako, ordea, beharrezkoa da hiru kategorien (up, errealitate sozialaren eraketa eta mediazioaren) ezaugarritasun, funtzionamendu eta eraginaren antzekotasunak patxadaz kontuan izatea, hurbiltasun hori delako, hain zuzen ere, horien arteko lotura sendoak bermatu eta iker-objektu egoki bat osatzea ahalbidetzen duena<sup>69</sup>. Bi dira lotura nagusiak gure ustez:

Alde batetik, mediazioak eta up-ek konpartitzen duten performatzeko gaitasuna dago. Gorago azaldu den bezala, (2.2.3.a *Lehen urratsa: umoreak errealitate soziala eratzen du atalean*), up-ak agente desberdinen arteko komunikazio harreman bat ahalbidetzen duten diskurtsotzat ulertzean, horiek eratzen duten harreman komunikatiboan informazioa transmititzeaz gainera, errealitate soziala (bir)produktioarako gaitasuna ere badutela ikusi da. Berdin gertatuko da mediazioarekin ere<sup>70</sup>, errealitate sozialean eragina izateko (hori performatzeko) gaitasuna egozten baitzaio. Bitzuk beraz, bitartekari sinbolikoen bidez ematen den eta errealitate sozialarekiko "eragilea" den komunikazio harreman bati dagozkio.

69 Aipatu behar da up eta mediazioa kategorien funtzionamendu eta ezaugarrien antzekotasunak ahalbidetu duela bereziki hauen arteko uztarketa teorikoa sortzea. Eta modu berean, kategoria zabal hauen uztarketa honexek, bai mediazioa (umorearen kasuan) eta baita ere up-ak (mediazio bezala) modu bateratuan ulertuko diren bi kategorien ikuspegi partikular bat sortarazi duela: up-ak mediaziotzat ulertzeak, bai up-entzako bai eta mediazioarentzako ere ikuspegi egokitua sortarazi baitu.

70 Zehazkiago, lan honek mediazioari eman dion adierarekin. Izan ere ikusi den bezala, mediazioak esanahi asko izan ditzake eta ondorioz, baita hemen kontuan hartuko ez diren beste hainbat funtzio ere.

66 Fenomeno komunikatibo honi egotz lekiakiokeen izendapen guztien artetik (mediazioa, mediatizazioa ...) mediazioa da ikerketa honetarako aukeratutakoa, horixe delako, oraintxe ikusi bezala, komunikabideen testuingurutik at esparru kulturean aztertu dutenek erabili duten terminoa (Morin, Op. cit.; Sodr , Op. cit.).

Bestetik, bai up zein mediazioari egozten zaien performatzeko gaitasun hau, biak ala biak komunean duten prozesu jokamoldeari lotuak daude hein handi batean. Hau da, up-ak beraien testuinguruaren parte diren heinean (fenomeno soziala izanagatik), horrekiko harreman interaktiboa dute: errealitate sozialean gaitasun performatibo bat izateaz aparte, testuinguru sozialarengandik eraginak ere jasotzen dituzte, up-ek (mediazioak lez) fenomeno aldakor, interakzionista eta dialogiko bezala dihardutelarik. Hots, prozesu gisa.

Hausnarketa hauek kontuan hartuz beraz, umoreak, prozesu bezala ulertzearekin, mediazio funtzioa betetzen duela diogu. Zehazki, up-ak, errealitate sozialeko elementu desberdinen arteko (diskurtso, iruditegi, agente...) interakzio sinbolikoak ahalbidetuko dituzten komunikazio dialogiko jarrai baterako abagunea eskaintzen duten prozesua dira; zeinak fenomeno diskurtsibo lez funtzionatzen duten heinean, aipatu eta ukitzen dituen errealitate horietan (eta sinergikoki beste batzuetan ere bai) eragina izateko gaitasun politikoa (performatiboa) izango duten.

Proposamenaren azalpen honi loturik, planteamenduaren inguruan argiztapen bat egitea komeni da edonola ere. Izan ere up-ak mediaziotzat ulertzearekin ez baita up-a "medio" edo "kanal" moduan aurkeztea bilatzen. Prozesu umoristikoa prozesu lez ulertzen den heinean, etengabeko bilakaera duen jarduera bezala antzematen da. Hots, gertakari zein errealitateko elementu desberdinak barnebildu eta hauetan eragina duen fenomeno gisa. Heine horretan, umorea diskurtso desberdinen arteko interakzio esparru gisa ari da, eta beraz, elkargune moduan:

*"Podríamos decir que la mediación tiene una dimensión topológica como ubicación, lugar o representación real de las que hemos llamado dialécticas sutiles y abiertas. Mientras que las dialécticas son un recurso epistémico que puede ser reconocido en determinadas relaciones y acciones, las mediaciones son escenarios donde tiene lugar."*<sup>71</sup> (Muñoz, Herrera, Rueda eta Sanchez, 2005: 80)

Baina "espaziotzat" hartzeak ez du esan nahi up-en mediazioa higigaitza edo finkoa denik. Izan ere, fenomeno soziala izanik, testuinguruak eraginda etengabe transformatu doan fenomeno da. Eta hain zuzen ere, aldakortasun horregatik bai eta "eragindua" eta "eragilea" izateagatik ere, "medio" (pasibo) baino, "mediazio" prozesu (aktibo eta aktibatzaile) bezala ulertu da.

Up-ak mediaziotzat aurkeztuz gainera, jarraian agertzen den bezala, aurreko atalean aipatu diren umorearen hiru ezaugarrien (*haustura*, *distantzia* eta *gozamenarekiko*) ikuspegi aberats eta zehatzago bat eskuratzeko aukera dugu<sup>72</sup>.

71 ["Esan liteke mediazioak dimensio topologikoa duela kokapen, leku edo errearen errepresentazio gisa, dialektika leun eta ireki lez izendatu duguna. Dialektikak harreman eta ekintza jakinetan identifikagarriak diren errekurtso epistemiko diren bitartean, mediazioak horiek gertatzen diren eszena dira."]

72 Mediazioan gero eta gehiago arakatu ahala ikusten dugu prozesu jarrai eta ezaugarri anitzekoa den heinean zaildu egiten dela haren atalkako azalpena egitea. Hots, "guziak guziarekin" harremana duen prozesu bat izanik, konplexua suertatzen dela hutsune edo akatsik gabeko up-en mediazioaren desglose bat proposatzea. Jarraian planteatzen den hiru ataleko zatiketa hau, beraz, elkar harremanean eta elkar eraginpean dauden prozesu beraren ekintza edo alde desberdinen interpretazio gisa ulertu behar da: hiru zatitan deskribatu badugu ere osotasun bakarrari dagokiona.

### - *Hautura*

Up-en zehatzapenen errebasoan agertu bezala (2.1 kapituluaren), umoreak gizarte kulturarekiko eta bereziki irudikapenekiko oso lotura zuzena du. Talde bateko kideek identifikagarriak eta ezagunak dituzten errealitateak ezohiko edo ezusteko egoeretan kokatzen ditu, eta sen onarekiko *haustura* bat proposatuz, narrazio umoretsua gauzatzen da.

Ulertzen dugu up-en jokamolde horrek bi elementu hartzen dituela bere gain. Bata, up-ek narrazioaren oinarritzat duten errealitatea (egoera edo pertsonaia), hau da, subjektuak bere errealitate sozialaz duen jabetza eta ezagutzan funtsatutako abiapuntu diskurtsiboa (*matrize kulturala*<sup>73</sup>). Eta bestea, abiapuntutzat erabilitako errealitate horrekiko desdoi bat eragiten duen egoera edo gertaera hipotetikoa. Hau da, hasieran deskribatutako situazioarekiko inkongruentzia bat sorraraziko duen fikziozko errealitate<sup>74</sup> baten proposamena.

73 *Matrize kulturala* Barberoren kontzeptua da jatorriz. Lan honetan, autoreak kontzeptu honi emandako esangurari eutsiko zaio, subjektuak sozializazioz barneraturiko errealitate sozialarekiko kosmibisio kulturalari dagokiona (Barbero, 1991).

74 Fikziozko errealitate bat izateak ez du esan nahi irrealia denik, hau da gezurrezkoa edo existentziarik gabekoa. Baizik eta irudikapenetik sortutako errealitate sozialarekiko irakurketa hauskor batek proposatuko duen errealitate hipotetiko (eta potentzial) baten proiektzioa dela baizik; errealitate sozialean dagoenarekin bat etor daitekeena edo ez. Horregatik *haustura* bezala ulertzen dira berdin, irrealia den egoera baten planteamendua (euskaldunak Marte planetan bizitzea, adibidez) edota errealitate baten hiperbolea (euskaldunek gaztelaniaz gaizki hitz egiten duten ustearen *matrize kulturaletik* abiatuz, gaztelaniaz oker mintzatzearen esajerazioa egitea, kasu).

Up-ek uztartu arazten dituzten bi errealitate desberdinen planteamendu horrek ahalbidetzen du, gure ustez, mediazioaren sorrera. Ezaguna denaren (matrize kulturalaren) eta berria edo hipotetikoa denaren (fikzioaren) arteko loturak aukera ematen baitu errealitate soziala ikusi eta ulertzeko ohiko moduak (hots, matrize kulturala bera) negoziatzeko. Esan nahi baita, up-ek hausturen bidez funtzionatzen duten momentutik, biderkatu egiten dituzte errealitate soziala bestela ulertzeko moduak. Ez soilik fikziozko errealitate bat proposatzen duelako, baizik eta horren bitartez, neurri batean, agerian jartzen duelako matrize kulturalaren kontingentzia. Horrek aukera ematen du errealitate sozialaren gaineko negoziaketa abiatzeko, edo bestela esanda, up-en mediazioa sortzeko.

Argi izan behar da, edonola ere, horrek ez dela esan nahi up-en mediazioak zubi lana egiten dutenik. Hots, matrize kultural eta errealitate posible edo hipotetikoaren arteko lokailua denik. Aitzitik, mediazioa ez da eskema linealean ulertu behar [matrize kulturala - up mediazioa - fikzioa], baizik eta errizomatikoan, non matrize kulturala eta fikzioa bere baitan aritzen diren, mediazioa beraren parte diren, elkar eragiten diren prozesu-harreman horretan errealitate sozialaren birplanteamendu eta (bir)produktiorako abagune aktiboa eskainiz.

### - *Distantzia*

Hauturaren bitartez sortzen den abagune horretan, ordea, errealitatearen inguruko orotariko interpretazioak eta negoziaketak sortu badaitezke ere, ez da ahaztu behar up-ak jada berekin dakarrela errealitatearekiko diskurtso jakin bat. Erabili duen hausturaren bitartez, up-ak errealitate

zehatz bat ituzat jo eta horrekiko iritzi, ikuspegi edota balorazio bat helarazten baitu.

Errealitate batekiko distantzia bat sorrarazten du hortaz, objektibazio ariketa bat, non errealitate bat "beste modu batez" ikusteko ahalegina eskatzen/ahalbidetzen duen, horren gainean "zerbait" konkretua (diskurtso bat) helarazteko. Hala, hausturak agerian jartzen du ze errealitate hartzen duen umoreak jomugatzat, eta errealitate hori ohikotasuneko irakurketetatik "desplazatu" arazten duenez, distantziak ahalbidetzen du zer nolako diskurtsoa esleitzen zaion ikustea. Diskurtso horrek errealitatearekiko jarrera edo ikuspegi desberdinak bultzatu ditzake: izan daiteke, adibidez, errealitate hori dagoen bezala mantendu arazteko, aldarazteko, edota matrize kulturala oinarritzat hartuz, errealitate berriren bat proposatzeko.

Up-en mediazioak, beraz, errealitate soziala (bir)definitzeko eta (bir)produzitzeko aukera eskaintzeaz gainera, errealitate jakin bat eta modu jakin batez eraldatzeko posibilitatea ematen du. Errealitate sozialaren gaineko diskurtso bat igortzen du, diskurtso hori (bai eta potentzialki beste edozein) aktibatzeo eta abiarazteko aukera ematen duen abagune gisa funtzionatuz. Distantzian, beraz, up-ek egiten dituzten hausturen bidez "zer" esaten den, eta ondorioz, zerekiko eta nolako distantziak (eta beraz diskurtsoak) bultzatzen diren, ikus daiteke.

- *Gozamena*

Errealitatearekiko desorekak proposatu eta horien bidez diskurtso jakinak igortzeko aukera ematen duen abagune horrek, gainera, bertan parte hartzen dutenei gozamena sentiarazteko gaitasuna du.

Gozamena, ordea, ez da kasu guztietan ematen, horren ordez ulertzen dugu up-ak proposatzen duen haustura eta distantziarekiko onarpena dagoenean baino ez dela azaltzen. Hau da, up-ak helarazitakoarekin bat egiten denean. Hala, up-ak mediazio gisa ulertzeak aukera ematen du zein [haustura + distantzia] konposizio onartzen diren eta zein ez ikustekoa, edo bestela esanda, produzitzen diren up guztien artetik onartuak zein diren eta zein ez antzematekoa. Horrenbestez, mediazioan gozamenak jokatzeko duen papera da up desberdinen artean egon litezkeen hierarkiak bistaratzeko. Agerian jar baitezake up desberdinen artean egon litezkeen botere-harreman eta horien arteko artikulazioak; indar korrelazio edota zilegitasun aferak, eta ondorioz, ikusgarri egiten ditu, berdin, euskal nazioaren inguruan dauden up desberdinen instituzionalizazio maila eta gaitasun politikoak.

Esandakoa kontuan izanik ulertzen dugu a) up-ak mediazio gisa proposatu daitezkeela euskal nazioaren eraketan duten rol politikoak zein den ulertzeko; b) horrek up-en ezaugarriak mediazioaren ezaugarri gisa ere ulertzea dakarrela, eta beraz, *haustura, distantzia eta gozamena* (gutxienez) up-en mediazioaren aldagai gisa ere hauteman daitezkeela; eta c) hala antzemateak aukera ematen duela umorea zertaz egiten den, egite horretan zer esaten (eta performatzen) den eta esaten den guzti hori nola kudeatzen eta artikulatzen den ikustekoa. Finean, hiru urratseko bilakaera horrek ahalbidetzen duelarik up-ek euskal nazioaren eraketan betetzen duten rol politikoak (mediazio prozesua) nolako den ezagutzeko.

Horri lotua azken ideia bat azpimarratu nahiko genuke, izan ere gogoan izan behar da lan honen helburu nagusia ez dela up-en bidezko mediazioak eratzen duen nazioaren

nolakotasuna ezagutzeko. Hau da, lanaren xede zuzena ez da jakitea umore bidez nolako euskal nazioa irudikatzen den, baizik eta umorearen bidez zer nolako naziogintza prozesua(k) ematen diren ezagutzeko. Hots, mediazio prozesua bera (eta ez hainbeste mediazioaren emaitza) ezagutzeko da lanaren ekarpena.

Edonola ere, bi gauzak (prozesua eta honen emaitza performatiboa) elkar ezin bana daitezkeela ulertzen da neurri handi batean. Izan ere, umoreak, prozesu (diskurtsiboa) den mailan, produzitzen den heinean ere performatzen duela ulertzen da<sup>75</sup> (Foucault, 2003, 2010; Deleuze, 1986; Lacan, 2008; Butler, 2001, 2009, 2010) eta ondorioz, up-en mediazioak helarazten dituen nazio irudikapenak bere horretan jada errealitatetzat jotzen dira: nazioaren parte direla, eta egokiago esanda, euskal nazioa bera direla ulertuz, alegia.

Horrenbestez, ikuspegi honetatik prozesua eta emaitza bana ezin direla ulerturik, lan honek prozesua aztertzen badu ere (hauxe delako bai umoreaz eta bai nazioaren eraketaz jakiteko ekarri handiena eskaintzen duena), ezagun da up-en diskurtsoak aztertuak diren heinean, up-ak mediatzen duten euskal nazioaren nolakotasunak ikusteko aukera ere ematen duela.

—  
75 Hau diot diskurtso umoretsuak (diskurtso diren heinean) erabiliak diren unetik badirelako performazio bat, hau da, euskal nazioaz "X" esaten delarik, ez dira "X" horiek errealitate sozialean sortzen dituen efektuak bilatu behar, diskurtsoa jadanik badelako praktika bat (praktika performatibo bat) eta esaten delarik egiten ariko da. Hots, umoreak "X" esaten duenean "X" hori izango da jada euskal naziogintzaren parte, eta beraz, euskal nazioaren parte.

3. LA NATION

NAZIOA

179-190	3.1.	QU'EST-CE QUE LA NATION?
191-220	3.2.	LE CONTEXTE THÉORIQUE POUR UNE APPROCHE PERTINENTE DE LA NATION
221-232	3.3.	COMPENDRE LA NATION (COMME UN NOYAU) IMAGINÉ(E)
233-259	3.4.	RÉCAPITULATIF DE L'ÉVOLUTION HISTORIQUE DU NOYAU IMAGINÉ MULTIPOLAIRE DE LA NATION BASQUE
<hr/>		
262-269	3.1.	ZER DA NAZIOA?
269-287	3.2.	NAZIOAREN IKUSPEGI EGOKITU BATERAKO TESTUINGURU TEORIKOA
288-295	3.3.	NAZIOA (NUKLEO) IRUDIKATU MODUAN ULERTZEA
295-311	3.4.	EUSKAL NAZIOAREN NUKLEO IRUDIKATU MULTIPOLARRAREN BILAKAERA HISTORIKOAREN BERRIKUSKETA

L'humour n'est pas la seule catégorie qui doit être définie. Afin d'approfondir le processus de médiation exercé par les up par rapport à la nation, et de compléter convenablement les liens théoriques existant entre la nation et l'humour, nous allons nous attacher, dans les pages qui suivent, à préciser comment nous comprenons la nation.

Cette tâche présente un certain nombre de difficultés, si l'on tient compte du fait que les réflexions menées au cours des dernières décennies ont abouti à une remise en cause de l'existence de la nation. L'apparition de phénomènes mondialisés a non seulement favorisé l'affaiblissement de certains concepts enracinés dans le substantialisme moderne et liés à la nation, mais elle a aussi impulsé le débat théorique sur la nation, en remettant constamment en question les caractéristiques ou les fonctions de la catégorie. Les transformations subies par les collectivités actuelles ; les influences des cultures transnationales et mondialisées ; les communications et les relations délocalisée ; les structures collectives *supra-* et *trans-*nationales ; ainsi que les nouvelles approches conceptuelles de la culture (en tant que phénomène aux origines multiples<sup>1</sup>) ont fait évoluer la manière d'appréhender l'identité, le collectif ou encore l'individu, tout en amenant à penser, dans de nombreux cas (Catanzaro, 2011), que les structures et les voies de reproduction de la nation tendent à se modifier (ou à disparaître). À partir de là, certains considèrent la nation comme une structure désuète et inutilisable (Held 1989, Featherstone, 1991), tandis que d'autres défendent la thèse selon laquelle des identités plus régionales ou locales sont en train de se substituer à l'identité nationale (Bauman 2001, Mafessoli 2004).

Toutefois, même si l'impact des changements de ces époques que l'on qualifie de postmodernes sont manifestes, parallèlement à la fragilisation des principales méta-narrations de la modernité<sup>2</sup>, il est incontestable que l'État-

1 Homi K. Bhabha, 2002.

2 Certains auteurs, William McNeill notamment, voient la nécessité de réaliser des analyses qui vont au-delà du paradigme moderne de la nation et des nationalismes, et défendent le fait qu'il faut *décomposer* la nation et le nationalisme (McNeill, 1986).

Etengabeko aldatzeko gaitasun horrek zailtzen du, hain zuzen ere, nazio kasu guztiak azaltzeko baliogarria den definizio konkretu baten osaketa burutzea. Izan ere, George W. F. Hegelek (1999) aipatzen duen horretan oinarrituz, nazioa gizarteari lotua dagoen heinean, eta ondorioz, mutatzeko duen gaitasun historikoaren eraginez, uanean eta lekuan-leku bere ezaugarri eta funtzioak aldarazten ditu, eta "atzo" baliagarri ziren nazioarekiko ulerkerek ez dute, gehienetan, "gaurko" fenomeno azaltzeko gaitasunik. Historian zehar nazioaren inguruko irakurketa andana agertzea ekarri du horrek: ezaugarri, egitura eta nazioaren sorreraren azalpena zehaztasun handiagoz nor hurbiltzen den ikusteko elkarren artean lehiatu direnak. Baina horrekin batera, zalantza berri bat ere azaldu da adituen artean. Izan ere, aukera guzti horien artean, zein da nazioaren ikuspegi/ulerkera zuzena? Nondik abiatu behar da nazioaren inguruko hausnarketa/ikerketa?

2 Zenbait autorek, William McNeill-ek kasu (McNeil, 1986), nazio eta nazionalismoen paradigma modernotik harago doazen analisiak egiteko beharra ikusten dute, eta nazioa eta nazionalismoa *deskonposatu* behar direla defendatzen dute.

Anabasa teorikoan ez jausteko, nazioa ulertzeko dauden ikuspegi guztiaren artean egokia zein den erabaki beharra baztertzeko aldarria egiten du Gisela Catanzaro-k. Nazioa ulertu nahi bada, ikuspegi *estrategikoago* bat hartu behar dela dio autoreak, eta horretarako, nazioa (eta hau inguratzen duten bestelako kategoriak) *problematizatzea* ezinbestekoa dela adierazten du: definizio *auto-ebidenteetatik* urrundu eta nazioa entitate gatazkatsua dela onartzea baita horren hurbilpen teorikorako halaberharrezko abiapuntua (Catanzaro, 2011:9).

Baina ariketa hori egiteak orain arte "inertziakoa" (ez erreflexiboa) izan diren zenbait jokaera "zientifiko" zalantzakor bilakatzea dakar berekin. Besteak beste, umore kategoriarekin gertatu bezala, nazio kasu guztiak barnebilatu dituen ulerkera bakar eta atemporal baten bilaketa egitea noranzko antzua dela erakusten baitu; bai eta alderantzizkoa ere, nazioaren inguruan dauden azalpen eta ikuspegiak anitzak eta kontraesankorrak izanik ere, kasuan-kasu zuzenak izan daitezkeela. Aintzat hartu beharreko bi argibide sortzen ditu egoera horrek gure ustez. Batetik, nazioaren hurbilpen zientifikoan jarrera ireki bezain apala izateko obligazioa. Nazioa aztertzeko hartuko den ikuspegia edozein izanik ere, zuzena eta bakarra ez dela hasieratik onartu beharra. Eta horrekin batera, bestetik, nazio kasuaren zedarriztapena egitearen komenigarritasuna kontuan izatea, nazioaren ikuspegi mikro batetik kasuan-kasuko adibideak barnebiltzeko gai izango den bat sortzearen abantailak baloratuz (Catanzaro, 2011:15).

Noranzko horretan urrats bat ematen du honako lan honek. Nazioaren inguruko interpretazioak anitzak direla aintza hartuz eta aniztasun hori nazioa bera ulertzeko giltza eta abiapuntua ere badela onartuz, ikerketarako baliagarria den begirada jakin baten alde egiten baita ikerketan. Hemen erabiliko den nazioaren ulerkera, nazioaren

inguruan dauden guzti horien artean "beste bat" da, beraz. Hala, ez da nazioaren ikuspegi absoluturik bilatu nahi izan, horren ordez, ikerketaren helburuak erdiesteko egokia den nazio ikuspegia hautatu da: nazio kasu guztietara estrapolagarria izango ez dena (edo bai), baina edonola ere, gaur gaurkoz umorea eta euskal nazioaren eraketa aztertzeko proposamen teorikorik egokientzat jo dena. Hala, lan honek ez du nazioaren esentzia bilatzera jotzen (ez behintzat modu zuzenean, nahiz eta zeharka horretarako baliagarri izan daitezkeen ezaugarri eta irizpideak egozten zaizkion), batetik, ez delako hori iker lan honen helburua, eta bestetik, nazioaren definizio zehatz bat lortzea ez delako beharrezkotzat jo ikerlana aurrera eramateko. Aitzitik, nazioa kategoria sozial bezala ulertu da eta horren erreproduktio bideetan zentratu da lana. Planteamendu honi esker, analisi empirikorako erabilerrazagoa den ikuspegi bat eskuratzeaz gainera, umorea eta nazioa uztartzeko gutxiengo abiapuntu teorikoa erdietsi da.

Nazioa perspektiba horretatik ulertzeko burutu den sare teorikoaren xehetasunak lau azpi-ataletan aurkezten dira. Lehenik eta behin, aipatu berritakoa kontuan izanik nazio kategoriaren eraketa zientifikoaren inguruko hausnarketa labur bat proposatu da. Hala, nazio kategoriak dituen adiera eta ulerkera anitzak kontuan hartuz, bata edo bestearen artean aukeratu beharrak zer dakarren auzitan jarri eta nazioaren ikuspegi malgu eta birziklagarri baten aldeko apustua egin da. Hausnarketa honetan murgiltzeko, nazioaren inguruan egon diren eztabaida teoriko garrantzitsuenei heldu zaie: nazioaren izaera politikoa edo kulturala eta sortze moderno edo aurremodernoaren inguruko irakurketak gogora ekarriz.

Bigarren atalean, lan honetan erabiltzen den nazio kategoriak oinarritzat duen abiapuntu teorikoa zehazten da. Hala, ikuspegi modernistatik abiatuz, eta beraz, eraikia

1 Homi K. Bhabha, 2002.

den errealitate sozialtzat joaz, nazioak gizarte kohesioa sortu eta bermatzeko egitura gisa betetzen dituen funtzioak, sorrarazten dituen eraginak eta erabiltzen dituen bitartekoak azaldu dira.

Aipatu berritako marko horretatik abiatuz, hirugarren atalean lan honen helburua erdiesteko baliagarria den nazio kategoriaren gaineko proposamen teoriko jakin bat luzatzen da. Hain zuzen ere, Benedict Anderson-en *komunitate irudikatuaren* ideia (Anderson, 1993) eta Judith Butler-ek genero identitatea azaltzeko erabiltzen duen *nukleo* kontzeptua kontuan hartuz (Butler, 2001), nazioa *nukleo irudikatu (multipolar)* gisa formulatu da.

Laugarren eta azken azpi-atalean, euskal nazioaren adibidera hurbildu da nukleo irudikatu multipolarren planteamendua. Azpi-atal honetan laburbildu dira euskal nazioaren nukleo irudikatuak historiako une desberdinetan izan dituen ezaugarri nagusienak eta aldaketa horretan nukleo irudikatuaren bilakaera garai bakoitzeko testuinguru soziopolitikoari eta bereziki nazio eraketari nola lotu zaion azpimarratu da. Horrekin agerian jarri nahi izan da, batetik, nukleo irudikatuaren egikaritzea bera. Hots, haren kontingentzia, eta beraz, "ez-naturaltasuna". Bestetik, egikaritze horretan parte hartu duten agente nagusi eta esanguratsuenetarikoa batzuk ezagutzera ematea. Eta azkenik, gaur egungo euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarren ezaugarriek beren jatorria non duten ulertzea iristeko gutxieneko oinarri batzuk bistaratzeko.

### 3.1.

#### ZER DA NAZIOA?

*"Me veo impulsado a concluir así que no puede elaborarse ninguna 'definición científica' de la nación: pero el fenómeno ha existido y existe"*<sup>3</sup> (Anderson, 1993:20.

Tom Nairn-en Nations and States liburuari erreferentzia eginez )

*"Zer da nazio bat?"*

1882an Ernest Renan filosofoak luzatu zuen galdera horri erantzuna topatzea azken bi mendeetako hainbat ikertzaileen helburu eta buruhauste bilakatu da<sup>4</sup>. Nazio hitzak, *nasci* (jai) bere erro latindarrari kasu on eginez, toki jakin batean jaiotako giza taldeei erreferentzia egiteko erabili da jatorrian. Baina "nongotasun" zentzu eta identitatearekin betidanik lotua egon bada ere, Aro Modernoan (eta mendebaldar gizartearen) jatorri geografikotik haragoko esanahi kultural eta politiko zabalago bat eskuratzen du. Orduetik aurrera esleitutako

3 ["Nazioaren inguruko 'definizio zientifikorik' ematea ezinezkoa dela ondorioztatzea behartua nago: baina fenomenoak existitu du eta existitzen da"]

4 Renanek 1882an Sorbonan egindako aurkezpen batean proposatutako itauna, etorkizunean sortuko diren antzeko beste hainbat galderaren aitzindari izan dena. Besteak beste, "Ze nazio gara?" XIX. mendean Friedrich Hegel eta Johann Fichte-k planteatua, edota "Nazioa al gara?" Domingo F. Sarmientok botako duena.

izaera heuristikoa indartu ahala, kontzeptuaren definizio eta zehaztapena desadostasun handien iturburu bilakatu da.

XVIII. mende amaieran eta XIX. mende hasieran nazioaren kontzientzia sozial eta bereziki epistemologikoa eratu ahala, historialariek, soziologoek, politologoek bai eta filosofoek ere fenomeno "berri" horren oinarri zein bilakaeraren zedarritzea egiteko ahaleginean jardun dute. Saio horretan sortzen joan diren nazioari buruzko ikuspegi eta azalpen desberdinak, ordea, inoiz gutxitan izan dira elkar osagarriak (Smith, 2000). Hala, Aro Modernoan sortu diren paradigma nagusiek elkar jo eta nazioaren gaineko azalpen kontraesankorrak proposatu dituzte gehienetan; nazioarekiko hurbilpen teorikoa egitekotan, ikuspegi desberdinen arteko aukeraketa manikeo bat egitea halabeharrezkoa bihurtu delarik.

Eztabaida horietan hiru dira nazioaren inguruko irakurketen artean sortu diren antinomia nagusiak: a) nazioa eraikitako errealitate bat dela defendatzen duten, eta nazioaren esentzia bultzatzen duten ikuspegiaren artekoa; b) aniztasun eta heterogeneitate partikularrekoa den, edota sortze moderno komun baten ondorio den eztabaidatzen dutenena; eta azkenik c), nazioaren oinarri kulturalen edota bere helburu politikoen garrantziaren arteko eztabaidan funtsatutakoena (Smith, 2000: 303). Hiru eztabaida puntu horiek denbora luzez nazioaren ulerkerak komun bat sortzeko mugari teoriko izan dira, eta nazio interpretazio desberdinak modu paraleloan lantzea areagotu du horrek.

Jarraian laburbiltzen dira zeintzuk diren antinomia horien banaketarik gatazkatsuenen oinarritzko ikuspegiak<sup>5</sup>.

5 Antinomiak hiru izanik ere bi azpi ataletan sailkatu dira lan honetan, ulertzen baita nazioa eraikitako errealitate bat izatea edo esentzia duela pentsatzearen arteko antinomia beste bien baitan azaldua geratzen dela.

#### 3.1.1. Nazio politiko eta nazio kulturalaren<sup>6</sup> erronka ······

Planteamendu aurkaritze horien adibide esanguratsuenetarikoa bat ikuspegi antagonikoa duten nazioaren inguruko paradigma *kultural* eta *politikoaren* artekoa da zalantzarik gabe<sup>7</sup>. XVIII. mendean eraturako bi joera horiek nazioaren (eta nazionalismoaren) inguruan egin diren etorkizuneko irakurketa gehienen oinarri izan dira, eta funtsean, nazioari bi izaera (edo jatorri) desberdin esleitzeak bereizten ditu elkarrengandik.

Alde batetik, nazio politikoaren ikuspegiak nazioari jatorri arrazional, politiko eta modernoa egotzen dio, gizaki libre eta berdinen arteko elkartasunerako nahi kontziente baten ondorioz sortutako kontratutzat joaz. Horren aldekoek Frantziar Iraultzaren gertaera eta bilakaeran funtsatzen dute nazio politikoaren proposamena, herria ahaldundu eta egitura sozial berri baten ezarpenaren paradigmatzat joaz nazioa. Izan ere, Frantziako Iraultzak gizartearen sorrarazten dituen errebolten ondorioz, erregearen figura kaltetua eta zilegitasunik gabe geratzen da, eta horrek, estatuaren subiranotasuna Erregetzaren eskuordetzeko gaitasunik gabe uzten du monarkia absolutua. Horren eraginez, estatuaren aldarririk eta oinarriak herriak bereganatzen du, eta boterea, gizartearen ordezkariak duen Asanblea Nazionalaren esku gelditzen da. Hala, Frantziako Iraultzak

6 Bestelako izenak ere jasoko ditu sailkapen dikotomiko honek: nazio liberala vs. erromantikoa; borondatezkoa vs. organikoa, subjektiboa vs. objektiboa, edota nazio etnikoa vs. nazio zibikoa, besteak beste.

7 Nazio kultural eta politikoaren dikotomia entzutetsuaz gain, hauetariko bakoitzaren baitan ere korrante eta ikuspegi gehiago badaudela gogoratu behar da. Anthony Smithek (2000) korrante modernistaren baitan, esaterako, ikuspegi sozioekonomikoa (Nairn, 1977), ideologikoa (Kedourie, 1966; Juergensmeyer, 1993) edota politikoa (Giddens, 1997; Breuilly, 1990) bereizten ditu.

sortutako nazioa ilustrazioak bultzaturiko ideietan oinarritzen da, gizarteak batasunerako duen borondate arrazionalaren emaitza lez ulertuz. Nazioaren ikuspegi politiko hau, beraz, zibilizazioaren ekintzarako gaitasunean eta historiaren agente aktibo izateko subjektuaren eskuduntzan funtsatzen da, eta nazioa modernitatean sortu dela defendatuz, jendartea elkartu eta estatua zilegitzen duen fenomenotzat jotzen dute honen aldekoek.

Frantziako Iraultzak proposatzen duen ildo politikotik harago, ordea, nazioaren ulerkerak kultural (edo erromantikoa) defendatzen dutenak daude. XVIII. mendeko Alemaniako giro intelektualaren baitan ernaltzen den ikuspegi horrek kontuan hartzen ditu nazio baten baitan konpartitutako iragan mitifikatu eta komun batek duen pisua, bai eta gizataldearen kultura bera ere. Planteamendu horrek betiereko komunitate etniko-kultural politizatu bezala ulertzen du nazioa: jatorri bereko oinarria duen komunitate izanik, funts horretan aitortza politikoa bilatzen duen taldeetat joaz. Hala, komunitate beraren kide izatearen zilegitasunak arrazoi organiko bat du horren aldekoentzat; nazioa subjektuen aitzindari eta determinatzailetzat ulertzen dute eta kultura beraren baitan jaiotzeko edo bizitzeak nazio kide bilakatzen ditu herritarrik.

Frantziar<sup>8</sup> eta alemaniar nazio ereduaren desberdintasun substantzietatik sortutako banaketa dualista horrek, errealitatearen irakurketa polarizatu egitea bultzatzen du, nazioaren sailkapen eta ulermenerako bi tipo ideal proposatuz. Planteamendu dikotomizatuak arrakasta handia du XIX eta XX. mendeetan zehar eta nazioaren

8 Dikotomia honetan badira bestelako adibide historikoak kontuan hartuko dituzten autoreak ere. Horien artean Hans Kohn-ek (1984) adibidez, nazioaren eraketa Iraultza Ingelesean kokatuko du Frantsesean beharrean.

sailkapen teoriko nagusienak egiteko oinarritzko molde bihurtzen da. Izan ere, Ramon Maiz-ek dioenez, dikotomizazio horrek nazioak (eta nazionalismoak) direnen eta ez direnen artean bereizketa argia egiteko aukera eskaintzen du, eta gainera, nazioaren bi ikuskera desberdin enpirikoki deskribatu ahal izateak nazio desberdinak sailkatu eta ordenatzeko abantaila handia dakar orduko joera zientifiko positibistaren baitan (Maiz, 2005: 108 eta hurrengoak).

Baina sailkapen dikotomikoak ahulguneak erakutsi ditu denborarekin, besteak beste, agerian gelditu delako kategoria bakoitzaren baitako nazio tipoez ez dutela bilakaera historiko koherente eta lineal bera izaten. Hau da, garaia araberako testuinguru soziopolitiko eta intelektualak baldintzatuta, nazio frantses edo alemanaren garapen eta ezaugarriak beraien ustezko izaera politikoa edo kulturaletik aldatu edo hurbiltzen dira, eta ondorioz, momentuaren (eta egoera historiko, politiko, ekonomiko, sozialaren) arabera, nazioen bilakaera ere "politikoago" edo "kulturalago" izango da, zurruntasun tipologikoari behar bezala erantzutea ezinezkoa izanik.

Nazioaren ikuspegi dikotomiko horrek gaur egun oraindik pisuzkoa izaten jarraitzen badu ere, egia da joera hori aldatzen doala pixkanaka. Horren erakusgarri dira, adibidez, bi kategoriak (kulturala eta politikoa) elkar lotuak daudela esango duten zenbait autore (Alvarez Dorronsoro, 1993; Azurmendi, 1992) nazioek eta nazionalismoek bi ereduak iturrietatik edan dutela defendatzen dutenak (Mateos, 1999). Nagusiki bi arrazoi aipatzen dituzte horretarako. Alde batetik, ilustrazioaren pentsamendua Europa osoan (baita Alemanian ere) zabaldu zenez, nazio politikoen ereduak nazio kulturala landu zuten teoriariengan ere eragina izan zuela pentsatzea zentzuzkotzat jotzen dute, eta beraz, nazio kulturalaren sustatzaileek ere eredu politikoen eragina jasan zutela pentsa liteke. Bestetik, ikuspegi

kulturalarengandik jasotako ekarpenei erreparatzen diete. Horien artean esanguratsuenetariko bat estatuaren zilegitasuna jendartean zabaltzeko beharrezkoa zen epeltasun eta atxikimendua lortzeko, proposamen politikoei osagai afektiboak estekatzeko bidea zela ikustea.

Banaketa dikotomikoaren gabezia horiek 50-eko hamarkadatik aurrerako produkzio zientifikoan bereziki agerikoak dira. Garai horretan ematen diren deskolonizazio prozesuek zientzia politikotatik burututako nazioaren inguruko ikerketa andana bultzatzen dituzte (Smith, 2000) eta horiek, ordu arte baliagarria izandako modernitate klasikoaren paradigmatikoa proposamena (bereziki planteamendu dikotomikoan oinarritua) birmoldatzeko beharra agerian jartzen dute. Ordu arte indarrean egondako ikuspegi horrek ez ditu munduan barrena sortzen doazen nazio-kasu berriak behar bezala esplikatzerik lortzen. Kasu horiek ez baitituzte ikuspegiak planteatzen duen estatu barneko nazio zibilizatu, homogeen eta arrazionalak izan beharko lituzkeen ezaugarri eta bilakaera linealaren moldeak betetzen. Nazioen errealitatea ulertu nahiko badute, beraz, nazio tipo ideal horien arteko iragazkortasuna zein teorien birformulazioa halaberrez egin beharrek ariketa da (Maiz, 2005).

### 3.1.2. Nazio aurremoderno eta modernoaren erroka . . . . .

Ardatz kultural/politikoa, ordea, ez da nazioaren ulerkerak bateratua sortzeko dagoen mugarri bakarra. Nazioaren eraketa moderno eta aurremodernoari buruzko proposamenez ere nazioaren inguruko ikuspegi paraleloak helarazi dituzte, nazioa ulertu eta aztertzeke aukerak zatikatuz.

Alde batetik, nazioa eta nazionalismoa modernitatea baino lehenagoak direla defendatzen dutenen korronea

dago. Ikuspegi horren aldekoen arabera modernitatea iritsi baino lehenago ere kultura tradizionalako komunitateek (etniek<sup>9</sup>) nazio izaera garatua dute. Hala, gizatalde horiek gerora sortuko diren nazioak baino lurralde txikiago eta klase sozial zehatzagoetara mugatuak egon arren, nazio modernoak eratzeke beharrezko oinarri komunitario eta kulturalak erakusten dituzte, eta ondorioz, haiek ere jadanik nazio direla ulertzen dute zenbait autorek. Planteamendu horren aldekoen artean irakurketa desberdinak topa daitezke. Adrian Hastings da nazioaren oinarriak jatorri etniko sendoa dutelako hipotesiari heltzen dionetariko bat. Hastingsek, nazioaren funtsek erlijioa eta literaturan oin hartzen dutela argudiatzen du, nazioak modernitateko beste edozein fenomenorekiko baino gehiago, jatorri etnikoarekiko loturak osatzen dituela defendatuz (Hasting, 2000: 22)<sup>10</sup>. Determinismo kulturalaren ildo berdintsuari eusten dio Clifford Geertz autoreak ere. Bere esanetan hizkuntza, ohiturak, arraza edo erlijioa bezalako ezaugarri kulturalak eskaintzen duten elkartasun, konpromiso eta leialtasun sentimenduei esker eratzen baitira nazioak (Geertz, 2003: 45). Pierre Van den Berghe-k, aldiz, bestelako abiapuntua hartzen du nazioaren "betierekotasuna" azaltzerako orduan. Autore horren ustez, nazioak oinarri sozio-biologiko bati dagokio, eta zehazki, norbanakoak bere informazio genetikoa zabaldu eta aberasteko duen behar naturalak bultzatuta eratzen den ahaidetasun zabal gisa

9 Lan honetan etnia eta nazioaren arteko aldea Smithek bezala ulertzen dugu. Etnia, identitate kolektibo bat elikatuko duten eduki kulturalak kontuan hartuz besteengandik bereiziko den komunitate bezala, eta nazioa, talde etnikoak bere diferentziaz (auto)kontzientzia politikoa dueneko (Smith, 1997).

10 Autoreak aipatzen du, adibidez, Frantzia eta Ipar Amerikako iraultzak ulertzea zaila litzatekeela aurretik frantses eta iparramerikarren gutxieneko batasun kontzientziarik egon zela aintzat hartu ezean (Hasting, 2000)

ulertu behar da (Van den Berghe, 1970). Ikuspegi horiek, oro har, subjektuek gizartean bizi eta antolatzekeo "berezkoa" duten ordenu bezala ikusten dute nazioa eta gizartearen kudeaketarako "naturala" den fenomenotzat joaz izaera organikoa esleitzen diote.

Baina badira ikuspegi horiekin bat ez datozen egileak ere, nazioari "berezkotasan" bat egoztetik urruti gizakiak berariaz sortu eta eratu duela diotenak, nazioaren sorrera modernitatean kokatzen dutenak, hain zuzen ere (Smith, 2000, 2004; Connor, 1998; Kedourie, 1966; Breuilly, 1990; Anderson, 1993; Hobsbawm, 2004). Nazioaren inguruko ikuspegi horrek (zertan datzan aurrerago zehaztuko denak) nabarmenki eskuratzen du nagusitasuna mundu akademikoaren baitan: autore gehienek bat egiten baitute nazioa modernitateko fenomeno dela esatean. Planteamendu modernoak honezkero, eta adostasun horri esker, *ortodoxia* bat bihurtu da horrela (Hastings, 2000:12).

Oro har, beraz, ikuspegi bakar batean kokatu eta nazioaren ulerkerak osoa planteamendu horren arabera egituratu eta eraikitzea (zientifikoki) baliagarria izan da inoiz, nazio eta nazionalismo fenomenoak sailkatu eta ulertzeko, besteak beste. Baina horiek errealitatean izan duten bilakaera azaldu edo aurreikusteko gabeziak erakutsi dituzte denborarekin. Izan ere Maizek esaten duen moduan:

*"La bipolaridad (...) obvia la consideración dinámica e indeterminada de la nación, esto es, su interpretación no como un dato objetivo, manifestación de una esencia o tradición prístina inmutable, sino como el resultado*

*contingente y siempre contestado de un proceso político de construcción."*<sup>11</sup> (Maiz, 2005: 41)

Hala, errealitatea azaltzeko duten gabeziez jabeturik, nazioaren gaineko ikuspegi anitzago eta malguagoak proposatzeko saiakera egin dute zenbait autorek.

### 3.1.3. *Dikotomiaz harago bada naziorik* .....

Nazioa gizarte tradizionalako komunitateek eratua den edota modernitatean sorturiko fenomeno bezala ulertu beharra dagoen ezin baieztatzeak bestelako konbinaketa aberasgarriei ireki die atea. Bide teoriko zurrin, mugatu eta baztertzaillean erortzea saihesteko, hala, aipatu berri diren ikuspegi banakatu horiek baino konplexutasun handiagoa duten proposamenak beharrezkoak direla agerian jartzen dute zenbait autorek.

Kultura/politika eta aurremoderno/moderno sailkapen ardatzen elkar iragazkortasun eta konbinaketak izan dira horretarako soluzio. Friedrich Meinecke-k (2015), adibidez, nazio batzuk ondare kulturelean oinarrituz eta beste batzuk eraketa komun eta historia politiko partekatu bat izateagatik eratu direla argi ikusten badu ere, nazio

<sup>11</sup> ["Polobitasunak (...) nazioaren ulerkerak dinamiko eta malgua baztertzeko dakar. Hau da, datu objektibo, esentzia erakusle edo tradizio aldakaitz gisa ulertzen duen interpretaziotik urruti, eraketa prozesu politiko baten emaitza kontingente eta eztabaidagarri moduan ulertzen duena."]

politiko eta kulturalen ezaugarriak elkar lotuak daudela proposatzen du. Hala, kulturaren produkzio politikoa edota erlijioaren rol politikoa kontuan hartu beharrezko faktoreak direla dio. Anthony Smith-ek ere dualismo kontzeptualaren aurka jotzen du bere obra osoan zehar eta nazioak oinarri etniko baten gainean eraikitako modernitateko fenomeno politikoak direla adieraziko du. Hala, autore honen ustez jendea nazioaren izenean nola eta zergatik mobilizatzen den ulertzeko kontuan izan behar den oinarritzeko elementua etnizitatea da, nazioa inguru etniko batetik at ulertzea ezinezkotzat jotzen baitu (Smith, 1997). Ikuspegi bera azaltzen du Walker Connor-ek ere, nazioa jatorri etnikoa duen kontzientzia politikoan oinarritzen den fenomeno moderno gisa ulertzen baitu, honakoa *etno-nazionalismo* gisa izendatuz. Egilearen esanetan nazioak existituko badu beharrezkoa du antzinatek elkartua dagoen kolektiboa dela sinestea eta sinesmen hori etnizitateak soilik eskaini diezaiokien ezaugarria delakoari eusten dio (Connor, 1998). Ildo berean mugitzen da Ulises Moulines ere, nazio kide izateko politikoki kontziente izan behar dela adierazten baitu, nazioa jatorri etnikoa duen taldetasuna dela pentsatuz (Moulines, 2000).<sup>12</sup>

—  
<sup>12</sup> Joera hau ikusi daiteke korrante jakin batean dauden autoreen artean ere. Ernest Gellnerrek, kasu, zeinak ikuspegi modernoan kokatuko duen bere burua, honakoa dio nazionalismoaz: *"Nationalism is not the awakening of nations to self-consciousness: it invents nations where they do not exist."* (Gellner, 1964:68) ["Nazionalismoa ez da nazioek haien buruaren kontzientzia hartzea: baizik eta nazioak ez zeuden lekuan sortzea"]

Agidanez, aldebakarreko planteamenduak (politiko/kultural, aurremoderno/moderno) nazioaren izaera eta ezaugarriak azaltzeko inoiz baliagarriak izan badira ere, ikuspegi desberdinen konbinazioak erosoagoak eta erakargarriagoak dira bai gaur eguneko nazioa (eta honi lotu dakizkiokeen bestelako fenomenoak) ulertu, bai eta errealitateko kasuen azterketa burutzeko ere (Catanzaro, 2011). Ikuspegi dikotomikoetatik urruntzeak sorrarazten dituen proposamenen aniztasunak agerian jartzen du, batetik, errealitate sozial bezala ez ezik kategoria zientifiko bezala zedarritzeko orduan ere nazioaren konplexutasuna handia dela, eta beraz, aldebakarreko ikuspegiak nekez lortzen dutela horren ezagutza asetzea. Eta bestetik, nazio kasu guztientzat baliagarria den azalpen orokor bat ezartzeko zailtasuna (edo ezinezkotasuna) kontuan hartu beharrezkoa dela. Izan ere, Smith-ek esan bezala *"cada caso debe ser estudiado atendiendo a sus propios meritos en el marco de un escenario social e histórico concreto"*<sup>13</sup> (Smith, 2000: 158).

Baina nazioaren azterketak badu aintzat hartu beharrezko beste alde bat ere, nazioari eman zaizkion irakurketetan ikertzailak izan duten inplikazioa nazioaren inguruko irakurketa berriek presente duten auzia baita. Azalpen-faktore bakarreko nazio ulerkerarik ez egoteak nazioa gizartearen garapen historikoaren emaitza izateari dagokio (Khon, 1984:24), baina baita historikoki nazioa

—  
<sup>13</sup> ["kasu bakoitza aztertu behar da testuinguru sozial eta historiko jakin baten baitan dituen ezaugarri propioak kontuan izanik"]

aztertu dutenek egin dituzten irakurketak garaian-garai baldintzatuak egon izanari ere. Izan ere, nazioaren izaera ontikoa testuinguru soziopolitiko eta kulturalari lotua dagoen moduan, nazioaren inguruko interpretazio zientifikoak ere korrante historiko eta "moda" ideologiko/epistemikoez eragindako ikertzailearen begiradaren arabera aldatu dira (Catanzaro, 2011). Hala, gaur egungo nazio kategoriarri orain arte atxiki ez zaion ezaugarri berriren bat esleitzen bazaio, ez da soilik nazioa historikoki aldagarria delako, baita ikertzaile eta pentsalariaren begirada eraldatzen doalako ere. Esan nahi baita, litekeena da nazioak ezaugarri jakin bat betidanik eduki izana eta hala ere garai bateko behatzaileentzat ikusezina izatea, hain zuzen ere, behatzailea "aldatu" ahala ahalbidetzen delako nazioaren ezaugarri berriak ikusteko gai izatea. Horrek aditzera ematen du, hartara, nazioaren "izate" horren zehaztapenean behatzailearen ezaugarriek ere zer ikusi handia dutela, eta ondorioz, nazio kategoriarren eraketa teoriko egoki bat burutzeko eragin horren jabetza edukitzea ezinbestekoa dela (Catanzaro, 2011). Gaur egun egiten diren nazioaren gaineko proposamenek presente dute honako baldintzaren hau ere, eta esplizituki jarri ohi dute agerian. Izan ere, nazioen logikak (bai eta horrek dakartzan bestelako gizarte egituraketa guztiak ere) hain daude barneratuak eta normalduak, ezen diskurtso zientifikoak ere bere hausnarketa, baieztapen, ikuspegi eta enuntziatu askotan implizituki aintzat ematen dituen<sup>14</sup>. Ingrid Bolivar-ek dioen moduan:

14 Kontuan izan behar da estatu mailako zientzia arloan sortu eta osatu diren diskurtso eta ikuspegiak estatu horren oinarrian dagoen kultura sistemaren baitan jokatu eta hau zilegitzen eta indartzen bukatu dutela gehienetan (Larrinaga, 2012)

*"Las investigaciones sobre nación tienen que hacer frente a aquellos hábitos de pensamiento que la consideran como un destino deseable y bueno por sí mismo para las sociedades humanas, como la comunidad política por excelencia en el que se debería experimentar una 'camaradería profunda' y anónima."*<sup>15</sup> (Bolivar, 2005:93)

Bai behatzailearen gaitasun/mugen ondorioz, bai historian zehar eman diren interakzioen eraginez, edota indarrean egon eta azpiratuak izan diren ikuspegi zientifikoaren arrakastaren/porrotaren emaitza gisa, nazioa "zer den" zehaztea momentuko beharren arabera egokitzapen lana dela ikus liteke<sup>16</sup>. Horrek dakar nazioari heltzeko ikuspegi andana horretako proposamenen (des)egokitasuna objektiboki ezin neurtu edo frogatzea, ikuspegi guztiak baliagarriak izan baitaitezke (edo ez) faktore desberdinen arabera: ikerketaren testuinguru soziala, nazioa behatzeko hartu nahi den perspektiba, edota horren bitartez eskuratu nahi diren helburu zientifikoaren arabera, besteak beste. Horrenbestez, ezin esan liteke nazioaren inguruko ikuspegi teoriko/analitiko oker edo zuzenik dagoenik; zer eta *nola*

15 ["Nazioaren inguruko ikerketek aurre egin behar diete nazioa gizartearentzat helmuga desiragarri eta egoki gisa aurkezten duten pentsatzeko joerei. 'Adiskidetasun sakon' eta anonimoa ahalbidetu beharko lukeen komunitate politiko nagusi moduan erakusten dutenei."]

16 Argi dago nazioarekin ez ezik beste errealitate sozialekin ere (eta behar bada esan beharko genuke guztiekin) berdina gertatzen dela, eta horien ulerkerak ere lekuan-leku eta garaian-garai aldatuz joan direla ziurrenik. Baina hala izanagatik ere ez dugu uste hausnarketa hau esplizituki planteatzea soberan dagoenik, besteak beste, lan honen erronka korapilatsuenetarikoa bat izan delako nazioa kategorioa nola ulertu erabakitzea, eta horrekin batera, auzi honen kontzientzia hartzeak ahalbidetu duelako, batetik, nazio kategoriarren konplexutasun eta kontingentziaz jabetzea; eta bestetik, nazioa ulertzeko proposamen egokitu baten eraketa egitea.

## 3.2.

### NAZIOAREN IKUSPEGI EGOKITU BATERAKO TESTUINGURU TEORIKOA

*"La cohesión nacional no es espontánea: debe ser manufacturada de manera deliberada y a veces con muchísimo esfuerzo"*<sup>17</sup> (Mandoki, 2007:10)

#### 3.2.1. Modernitatea eta Estatu Subiranoaren eraketa.....

Nazioaren inguruko irakurketak askotarikoak badira ere ikusi da autore gehienek bat egiten dutela modernitateak nazio gisa identifikatzen den fenomeno horretan izan duen inplikazioaren aitortzan. Bai Aro Modernoan hutsetik sortua delako iritzia dutenek bai eta lehenagotik zegoen egitate bat dela pentsatzen dutenek ere, garai horretan (eta mendebaldar gizartean) nazioak jatorri geografikotik harago doan zentzu politiko, kultural eta sinbolikoa eskuratzen duela onartzen dute.

Nazioarentzat esanguratsua den modernitatearen galbahe hori garai horretan Europan jazotzen diren zenbait gertaera historikok markatua dator. Gertakari horiek bultzatuko dute nazioa intelektualki, emozionalki, politikoki, ekonomikoki eta historikoki berria den gizarte ordenamendu bezala agertzea. Egia da autore bakoitzak jazoera desberdinak aipatzen dituela nazioarentzat

17 ["Kohesio nazionala ez da berezkoa: berriaz egin behar da eta ahalegin handia eskatzen du horrek zenbaitetan"]

esanguratsuak izan ziren gertaera historikoen zerrendan, baina gehiago edo gutxiago, adituek bat egiten dute eraldaketa horien artean azpimarragarrienetarikoa bat Estatu Subiranoaren agerpena dela esaterakoan (Mateos, 1999)<sup>18</sup>.

Estatu Subiranoa modernitatean sortzen bada ere, haren garapen eta zabalkunderako beharrezkoak diren oinarriak Erdi Aroan hasi eta hurrengo mendeetan zehar jazotzen diren prozesu soziopolitiko eta ekonomikoek finkatzen dituzte. Eraketa prozesu horren bilakaeran hiru une historiko bereizten ditu Charles Tilly autoreak (Tilly, 1975).

1) Erdi Aroko Erregimen Feudalaren baitan gertatzen hasten diren aldaketa ekonomiko garrantzitsuei dagokie lehenak. Gogoan izan behar da ordu arteko gizarte tradizionalak tokian-tokiko botere kudeaketan oinarritzen duela bere antolamendua, non botere ekonomikoa (bereziki nekazaritza jardueran errotua) lekuko noblezia eta Elizaren artean zatitua dagoen.

Garai horretan, ordea, nabarmenki indartzen dira merkataritza jarduerak eta horrekin batera merkataria baliabide ekonomikoen erabilera askea aldarrikatzen hasten dira pixkanaka, haien harreman eta negozio komertzialak hedatzeko lurralde esparru zabalak barnebiduko dituen aginte iraunkor eta bakar baten beharra ikusten baitute.

18 Nazio eta Estatu Subiranoaren arteko harremanak alde biko eztabaida pizten du. Batetik, nazioa estatua baino lehen existitzen duen errealitateztat hartzen dutenak daude; eta bestetik, estatuak, kolektiboa elkartua mantentzeko nazioa sortzen duela ulertzen dutenak (Perez Agote, 1989). Kasu honetan bigarren irakurketa eman da egoki(ago)tzat, nazioa modernitatean sortua edo hori baino lehenagokoa izanik ere, Estatu Subiranoaren agerpenak horrekiko eragin indartsua duela ulertzen baita. Zehazki, nazioa gaur egun ulertzen den modukoa bihurtzerainokoa.

2) Behar horrek markatzen du bigarren momentu historikoa. Garai horretan XIII. eta XIV. mendeetako merkatariek marko politiko desberdin baten premia aldarrikatzen dute, ordu arteko lurjabe handien eskutan dagoen botere banakaturia zentralizatze beharra ikusten baitute. Horrek monarka baino maila baxuagoko autoritateen eskubide eta botereen desagerpena ekartzen du Europan. Horien artean nobleenak, baroiak, autonomia lokal eta erregionalenak, bai eta eliza Katoliko Erromatarraren jurisdikzio politikoa bezalako pribilegioena ere (Tivey, 1987). Zentralizazio prozesu horren ondorioz XVII eta XVIII. mendeetako Europan nabarmenki ugartzen dira monarkia absolutista diren gorteak. Eratzen doan botere zentralizatu horren muin dira, eta estatua<sup>19</sup> beren ondare, edo hobekiago esanda, monarkaren jabeago bihurtzen dute.

Estatuaren sorrerak dakarren lur esparruen kudeaketa bateratu horrek ondorio nabarmenak eragiten ditu denbora gutxian. Horien artean estatuaren mugen kanpo eta barnealdea kontrolpean eta mehatxuetatik libre mantentzen duen armada iraunkor baten presentzia izateko beharra sortzea. Armada ezartzearen arrazoia Estatu Subiranoaren mugak babestu bai eta barnealdean

19 *Estatu* hitzaren erabilera Errenazimendu garaian emango da lehenengoz Europan. Latinetik datorren hitz honek "lurraldeari" egiten dio erreferentzia oinarrian. Jatorrizko ulerkeria hau aberastuz, modernitatean bestelako esangura jasotzen du ordea. Quentin Skinner-ek adieraziko duenez, "la idea típicamente moderna de Estado como forma de poder público separada tanto del gobernante como de los gobernados y de suprema autoridad política dentro de los límites de un territorio determinado" (Skinner, 1997:353) ["modernitateko estatuaren ideia tipikoa, botere publikoaren egituratzat duena, gobernariak eta gobernatuek aparte dagoena eta lurralde jakin baten mugen baitan goreneko autoritate politikotzat duena"].

eman daitezkeen boterearen aurkako ekintza oldarkorrek kontrolpean mantentzearena da. Baina ekintza horren ondorioz, Estatu Subiranoa indarkeria fisikoaren erabilzaile zilegi bakarra bihurtzen da, lurraldearen baitako guztien "hobe beharrez" kudeatzen duen biolentzia fisikoaren monopolioa (eta zilegitasuna) eskuratzen baitu (Weber, 1986)<sup>20</sup>.

Armadaren sorrerak bultzatuta zerga sistema zentralizatu ezartzen du estatuak eta hiritarregandik armadak indarrean jarraitzeko ezinbestekoa duen finantzaketa lortzen du horrela. Zerga sistemak estatuaren segurtasunaren izenean egindako gerrak ordaintzeko sostengu ekonomikoa bermatzea dakar, eta pixkanaka, espazio ekonomikoaren batasuna bultzatzea ere bai (Weber, 1979; Tilly, 1992), estatuak zedarritutako lurraldearen baitako merkatu ekonomiko "nazionalari" hasiera emanez. Hartara, bere eskuetan biolentzia legitimoa ez ezik, Estatu Subiranoak monopolio fiskala ere lortzen du<sup>21</sup>.

Azkenik, epe horretan azpimarratu beharreko beste aldaketa esanguratsu bat, Estatu Subiranoaren baitan ematen hasten den burokratizazio prozesua da. Izan ere, Estatu Subiranoaren mugen barneko batasun eta

homogeneizazio prozesu sozioekonomikoen, eta horiekin batera doan zentralizazio gero eta handiagoak, lurralde barneko kudeaketarako administrazio sistema konplexu bat saretzea dakar.

3) Hirugarren eta azken epe historikoa, beraz, oinarri sozial eta politiko horien gainean Nazio-Estatuaren sorreraren azken urratsak bultzatzen dituzten iraultza politiko modernoek markatzen dute. Gizarte tradizionalako egitura soziala ez da gai ordu arte agertzen joan diren aldaketa ekonomiko eta politikoak aintzat hartu eta bere baitan barnebiltzeko eta beharrezkotzat jotzen da bestelako ordenu soziopolitiko baten eraketa bultzatzea. Ordenu horren osaketan, ordea, garai hartako beste zenbait faktorek ere eragingo dute. Horien artean aipagarrienak kapitalismoa eta arrazionalismoa, zeinak Estatu Subiranoarekin bat egiten (eta elkar elikatzen) duten (Navari, 1987).

Hala, kapitalismoaren zabalkundearekin batera XVIII. mendetik aurrera emandako industrializazioaren hedapenak ekartzen dituen aldaketa ekonomikoen gain, aldaketa kultural eta baloreen aldaketa bat ere abiarazten da. Diruaren erabilera egitura ekonomiko berri baten

20 Max Weberrek honela definitzen du estatua: "comunidad humana que, dentro de un determinado territorio (...) reclama (con éxito) para sí el monopolio de la violencia física legítima" (Weber, 1986:83) ["lurralde jakin baten baitan (...) biolentzia fisiko zilegiaren monopolioa beretzat (eta arrakastaz) aldarrikatzen duen giza kolektiboa"]

21 *Koertzioa eta kapitala* Estatu Subiranoaren eraketan elkar eragin eta elikatuko diren prozesuak direla dio Tilly-k (Tilly, 1992)

trukerako elementu nagusi bilakatu ahala, kapital orenen balore neurri estandarizatu ere bihurtzen da. Ordu arteko merkataritza harreman eta hurbileko interakzio sozialak (eta ondorioz kulturalak) erabat aldarazten dira eta kapital metaketa desberdinek gizarte mailaketa berrien agerpena areagotzen dute, besteak beste, gizaki "libre" baina hierarkizatuak sortuz. Cornelia Navarik dioen bezala dioen bezala<sup>22</sup>:

*"El privilegio y la jerarquía cedieron para dar paso a una jerarquía diferente, basada en la riqueza, rangos ocupados por individuos con valores e intereses diferentes, mientras que por debajo las abultadas filas de hombres sin amo, libres de las comunidades tradicionales, dirigen sus intereses y lealtades políticas en nuevos sentidos"*<sup>23</sup> (Navari, 1987:46)

Kapitalismoarekin batera arrazionalismoak ere zer ikusi handia du ikuspegi politiko berri horren eraketan. Navariren ustez, arrazionalismoak gizarteko gaiak genesi bibliotik urrunduz hausnartu behar direla planteatzea dakar, non

—  
22 Ikuspegi hau lantzen duen autore nagusienetako bat Tom Nairn (1977) da. Bere ustez, nazioak garai modernoak baino lehenagokoak badira ere, garai modernoko ekonomia politikoa emandako desberdintasun eta "ondorio sozial biolentoen" testuinguruan aldaketa nabarmenak dituela adierazten du. Ikuspegi honen baitan, ordea, autorea ez da kapitalismoaren analisisan zentratuko, horren ordez, kapitalismoak sortutako desberdintasun sozial eta klase banaketan zentratuko da bereziki. Hala, Nairnek nazioa, kanpo indar menderatzaileek baldintzatuko duten helburu komunaz jabetzen den kolektibo militante interklasistatza hartzen du.

23 ["Pribilegio eta hierarkiak lekua egin zioten bestelako hierarkia desberdin bati; aberastasunean oinarritzen zenari, balio eta interes desberdinak zituzten indibiduoek okupatzen zituzten mailez osatutakoari. Horien azpitik jaberik gabeko hainbat gizakik, komunitate tradizionaletatik aske zeudenez, haien interes eta fidelotasun politikoak helmuga berrietara zuzentzen zituzten bitartean"]

gizakia (gizona<sup>24</sup>), gizartearen ardatz eta pentsamenduaren unitate baliagarri bakarra dela sinestea bultzatzen den aurrenekoz. Ikuspegi hori instituzioetara ere igaroko da, eta "puru" edo "naturala" bezala onartutako erakundeek (Eliza kasu) beraien esku dauzkaten pribilegioak galdu beharko dituztela defendatzen du korrante intelektualak. Hala, bai gizakiarekiko sinesmen sutsuak zein instituzioen arteko parekidetasunak ere, gerora nazio bilakatuko den gizarte egitura berriak duen pentsamenduaren muina dira.

Zenbait mendez garatzen eta eraldatzen doazen pentsamendu, fiskalitate, merkatu zein jarduera administratibo guzti horiek gizarte tradizionalen interes sakabanatu eta pribatuetan oinarrituriko egitura sozial zartatu eta mailakatu atzean uzten dute, eta horren ordez, ordu arteko sinesmen, interakzio eta ikuspegi kognitiboak ordezkatzan dituen gizarte eredu berri bat jartzen dute abian. Sortzen doan egitura, ordea, ez da ordu arteko ordenuaren birmoldaketa bat, eredu sozial tradizionalak eskaintzen duten egitura politiko eta soziokulturalen erabateko etena baizik. Tillyk aipatzen duen hirugarren

—  
24 *"Las identidades nacionales parecerán imponer una homogeneidad artificial sobre una sociedad culturalmente plural y lo que es más, se percibirán como legitimación de las normas de algunos grupos a expensas de otros"* (Gibernau, 2008: 99) ["Identitate nazionalek, kulturalki plurala den gizartearen artifiziala den homogeneotasun bat inposatzen dute. Are gehiago, gizarteko zenbait talderen bizkarretik, beste batzuen arauak legitimazio gisa hautemango dira"]. Autoreak talde kulturaleri erreferentzia egiten die honakoa dioenean, baina berdin baliagarria da bestelako gizarte sailkapenekin gertatutakoa ere ulertzeko, besteak beste, emakume eta gizonezkoen artekoarekin. Kontuan izan behar da arrazionalismoaren muina (bai eta estatu modernoaren eraketako subjektu politiko ere) gizonezkoa dela, gizartearen posizio publiko, zentral eta aktiboan kokatuko baitu bere burua emakumezkoen itzalperatzea sustatu, egonkortu eta instituzionalizatzen den mailan.

epe historiko hau, beraz, Estatu Subiranoa eta gizarte zibilaren artean osatzen den *harreman* berri baten sorrerak markatzen du, ekonomikoki eta politikoki zentralizatuagoa ez ezik, sozialki ere bateratuagoa den gizarte egitura baten ezarpena izango dena.

### 3.2.2. Zilegitasuna lokailu soziopolitiko berri gisa ······

Estatuaren eta gizartearen arteko harreman berri hori Nazio-Estatu modernoak ezartzen duen gobernu programan oinarritzen da. Baina eratu eta ezarri diren instituzio, gizarte-harreman, botere-harreman eta erakundeen biziraupena bermatu nahi bada gizarte antolaketa berri bat aurkeztea ez da aski izango. Horretaz gain, horiek guztiak denboran zehar iraunarazteko gai den tresnaren bat ere behar du gobernu programak.

Ordu arte monarkiak Jainkozko herentzia eztabaidea ezin izan ez duen botere monopolioa estatuaren esku geratu eta aberria monarkaren jabeago eskusiboa izatetik herritar guztien ondare izatera pasatuaz batera, egitura tradizionalen baliagarri izandako gizarte ordenu eta kontrolerako tresnak ere kolokan geratzen dira (erlijioa, errepresioa, obligazioa, ohitura ...). Izan ere, ordenu berriaren ezarpenarekin gizartearen ikuspegi kognitibo aldarazteaz gain, gizarte tradizionalen egiturak auzitan jarri eta horien baliogabetzea bultzatzen da kasu gehienetan. Bai eta, ordu arte boterea mantentzeko bitartekoak baliogabetu ere.

Nazio-Estatuak eta sortu berri diren instituzioak bizirik iraun dezaten, ordea, beharrezkoak dituzte gizarte kontrolerako bai eta haien boterea bermatzeko baliagarriak diren mekanismoak. Baina gizarte tradizionalen eraginkortasuna zalantzan geratuaz batera, boterearen bermerako egokiak diren bestelako baliabideak nola eratu asmatzean dago orain erronka.

Eduardo Apodakak eta Mikel Villarreak adierazten dute "zilegitasuna" dela Aro Modernoan eratzen den boterearen bermerik esanguratsua, eta beraz, *statu quo*-aren jarraipena ziurtatzeko bitartekorik egokiena. Zilegitasuna, (agerikoa den) biolentziarik ez dakarren boterea da, zeina, estatu eta instituzioekiko botere-harremanak normalizat edo hutsaltzat hartzen laguntzeko baliagarri den:

*"El sujeto o los sujetos implicados aceptan esa imposición porque tiene sentido para ellos dentro del tipo de acción o relación en que se da, porque pertenece a la relación y ellos también se actualizan en esa relación"*<sup>25</sup> (Apodaka eta Villarreal, 2004:6).

Zilegitasuna, boterea pairatzen duenaren eta boterean dagoenaren arteko lotura modu berria da, beraz, biztanleriak egitura soziopolitikoari eta botere-harreman berriei emaniko oniritziarekin eskuratzen den zurebidezko jarrera gisa azaltzen dena. Baina harreman hori ezartzeko ordenu berriaren zilegitasuna funtsatuko duen azalpen eta arrazoi multzoa eratu behar dira aurrenik, eta estatuak bere botere posizioa egoki eta beharrezkotzat aurkeztuko

—  
25 ["Inplikatuak dauden subjektuek onartu egiten dute inposizio hori, zentzua baduelako jasotzen den ekintza edo harreman motaren baitan; harremanari dagokiolako eta haiek ere harreman horretan gaurkotzen direlako"]



duen diskurtso baten beharra du halaberrez. Funtzio hori beteko duen diskurtsoa nazioa da (Apodaka eta Villarreal, Op. cit.: 8)<sup>26</sup>.

### 3.2.3. *Kultura nazionalaren bidezko zilegitasunaren ekoizpena* .....

Nazioak hiritarren arteko elkartasun eta partaidetza sentimendua sortu eta sustatzeko balio du, talde berdinaren kide izatearen berrespena eman eta hiritar (eta estatu kide) bihurtzen dituen identitate kolektibo bat eskaintzen duen diskurtso bateratzaile bezala funtzionatuz (Apodaka eta Villarreal, Op. cit.). Historian aurreneko estatua eta gizartearen arteko interesak kolektiboaren izenean modu bateratuan aldarrikatzen dira eta kolektiboa talde elkartu

eta bakar bezala irudikatzen hasten da<sup>27</sup>. Herritarrek, hala, ez diote jadanik beraien fidelotasuna subirano bati zor, orain kolektibo politiko oso baten aurrean dira erantzule eta arauak ez dira gehiago erlijio-fedean edo obligazioan sostengatzen, gizarte zibiletik eta modu arrazionallean negoziatu eta adosten dira ordenu berrian.

Nazio-Estatua modernoa baldin bada, bere egitura, zabalpen edo kudeaketa geografikoagatik baino, erabiltzen duen diskurtso (auto)legitimatzaileagatik dela esan liteke (Apodaka eta Villarreal, Op. cit.)<sup>28</sup>. Hots, nazioaren eraketa eta erabilpenarengatik. Nazioa gizartearen diskurtso bateratzailea izateaz gain gizarte egitura horren presentzia normala eta beharrezkoa dela konbentzitzeko gako ere bada. Hala, nazioak eratu, zabaldu eta birsortzen duen batasun diskurtso horrexek berak zilegitzen du gizarte egitura berria (eta bertan dauden botere-harremanak),

27 Ordu arteko biztanleriari dagokionez Billig-ek zera dio: "apenas tenían un atisbo de concepción de nación territorial (un "país") a la que debieran una lealtad más firme que la vida misma" (Billig, 2014: 24) ["apenas ulertzen zuten zein zen bizitza baino handiagoa zen nazioaren ("herrialdearen") zentzua"]

28 Gobernuaren eta gobernatuaren arteko botere-harreman legitimo bat ezartzen lagunduko duen nazio diskurtsoaren ideia hau, botere erlijiosoaren diskurtsoekin alderatuko dute zenbait egilek. Elie Kedouire-k esaterako, "historiaren erlijioa" izenez, nazioak, historiaren aukeraketa politiko bat eginez sortuko den narrazio batekiko fedea garatzeko ahalmena duela dio. Hala, nazioari esker, modernitatean goraiatzeko den "ni" indibidualak, bere talde nortasuna garatzeko esparru eta sinesmen bat topatzen duela defendatzen du (Kedouire, 1966). Izan ere, "La sociedad nacional surge cuando el Estado propaga esa nueva fe social y secular en la comunidad de origen y cultura en los individuos subjetivados según las técnicas de nacionalización." (Apodaka eta Villarreal, 2004:8) ["Gizarte nazionala sortzen da, batetik, estatuak fede sozial eta sekular berria jatorrizko komunitatean hedatzen duenean; eta bestetik, nazionalizazio tekniken bidez subjektibatutako indibiduen artean kultura zabaltzen duenean."]

26 Egia da nazioa *diskurtso legitimatzaile* bezala ikustea zenbaiten ustez nazioari baino nazionalismoari dagokion definizioa dela. Zenbait autorek nazionalismoa egitura politiko berriari dagokion legitimaziorako eredu (diskurtso) gisa ulertzen dute eta nazioa, aldiz, egitura politiko hori oinarritzen den kolektibo moduan. Smithek adibidez nazionalismoari esleitzen dizkio honako zenbait ezaugarri. Nazionalismoa, autorearen ustez, nazioari loturiko simbolismoa, lengoia edo ideologia baita, besteak beste (Smith, 2004: 18-22). Baina nazioa "gizatalde" politiko bati erreferentzia egiteko erabiltzea motz geratzea dela uste du zenbaitek (Billig, 2014; Gibernau, 2008): nazioak, besteak beste, kolektibo horren (auto)definizio politikorako oinarritzko elementuak, bai eta elementuen ondorioak ere barnebiltzen dituela pentsatzen baitute. Nazioaren esanahi edo ikuspegia kolektibo politiko "soila" izatea baina konplexuagoa dela deritzote, hainbestearino ezen *nazionalismo* eta *identitate nazional* terminoak ere barnebil ditzakeen bere baitan. Nazioa, hartara, boterearen zilegitasuna ardatz duen sistema kultural lez ulertzen da, atxikiak dauzkalarik kolektiboa, harremanak, praktikak, diskurtsoak, zeinuak, errealtatearekiko hautemanak, identitate politikoak, ea. Ikuspegi horretatik heltzen diogu guk ere nazio kategoriarri.

eta finean, Estatu Subiranoari autoritatea onartzen dio haren biziraupena bermatzen lagunduz batera<sup>29</sup>. Prozesu horri *integratio nazionala* deritzo (Guibernau, 2008). Hala herritarren arteko elkartasuna bultzatzearekin batera ordenuarekiko (gobernuarekiko) leialtasuna ere areagotzen du naziotasunak, eta halaberrez, Estatu Subiranoarekiko sinesmena eta zilegitasuna sustatzea dakar horrek.

"Si en un Estado que ejerce el poder desde una estructura central sobre un territorio físicamente definido los individuos sometidos a ese poder dejan de estarlo en virtud de una relación política personal con quien lo ejerce, entonces no cabe otra forma de representación simbólica legitimadora del poder que la de ser emanación de la comunidad de individuos sometidos. La nación es, por tanto, el supuesto básico de la legitimación impersonal del Estado que se da en los países occidentales."<sup>30</sup> (Perez-Agote, 1995:120)

29 Hasiera batean aipatu dena kontuan hartuz, hau da, nazio guztiek ez dutela zertan sorrera eta bilakaera berdintsua izan behar (Smith, 2000), ulertzen da testuan aipatzen den Estatu Subirano/nazio harremana desberdina izan daitekeela kasuan kasu. Edonola ere, estatu mendebaldar nagusietan bilakaera hori gertatu zela kontsideratzen da, eta bereziki espainiar eta frantziar estatuen kasuan, Euskal Herriari zuzenean eragiten dioten estatuak izanagatik kontuan hartu direnak.

30 ["Baldin eta estatu batek egitura zentral batetik lurralde definitu batean boterea ezartzen badu; eta botere horretara menperatuak dauden indibiduoak, boteredunarekiko duten harreman politikoa dela medio, hala egoteari uzten badiote; orduan, boterea zilegitzeko errepresentazio sinboliko molde bakarra zapalduetako indibiduen komunitatetik eratorria izatea da. Nazioa da, beraz, herrialde mendebaldarretan ematen den estatuaren legitimazio inpersonalaren oinarritzko ustea."]

Baina Estatu Subiranoa "nazionalizatzeko" bidean nazioaren diskurtsoa eraginkorra izan dadin gizarte zabaldutako eta barneratu egin behar da aurretik, hots, sinetsi, bizitu eta sentitu. Eta horretarako, Ernest Gellnerrek dioen moduan, kultura da bitarteko eraginkorrena (Gellner, 1988)<sup>31</sup>. Kultura nazionalaren inguruko xehetasunetan sartu aurretik, ordea, kontuan izan behar da nazioa gizarte egitura berri gisa agertu zen heinean, diseinatu eta eraikia izan behar zela. Hots:

"La 'nación' no era un desarrollo espontáneo, sino elaborado. No se trataba simplemente de una novedad histórica, aunque representaba las cosas que los miembros de algunos grupos humanos muy antiguos tenían en común o creían tener en común frente a los 'extranjeros'. Tenía que ser realmente construida."<sup>32</sup> (Hobsbawm, 2004: 105)

Eraketa horretan, nazioa mekanismo eta prozesu soziokultural eta politiko desberdinen bidez osatu diren egitura kultural-identitario zein politiko-administratiboek zedarrizten dute, estatuak bilatzen duen zilegitasuna indartu eta babestuko duten gutxieneko oinarriak sortuz, hau da, bere botereari beharrezkoa duen zilegitasuna emanaz. Baina nazio eraketan, ordea, organizazio politiko

31 Kulturaren garrantzia oinarritzotzat jotzen duen korrante nagusia *nazio eraketarena* da (*nation-building*). Oro har, korrante hau ikuspegi modernistaren baitan kokatua dagoela ulertzen da, nahiz eta, Iker Iraola soziologoak gogora ekartzen duen moduan, egon badauden nazio eraketaren eta modernizazioaren arteko bereizketa egiten duten autoreak: horien artean adibide gisa aipatzen du Araceli Serrano Pascual (1995) (Iraola, 2012:25).

32 ["Nazioa ez zen berezkoa, baizik eta landutakoa. 'Atzerritarren' aurrean taldeko kide zaharrenek komunean zutena, edo komunean zutela uste zutena, irudikatzen bazuen ere, ez zen nobedade historiko soil bat. Egiazki eraikia behar zuen izan."]

soil bat baino zabalagoa eta konplexuagoa den lotura sozial bat ere saretzen da:

*"Por construcción nacional entendemos no sólo la concreción política de la nación (...), sino también la organización armónica de la sociedad civil, (...) la estructuración nacional como un sistema ordenado de interrelaciones y la identificación efectiva, y no solo programática, en base a lo que el programa nacionalista ha seleccionado como 'señas de identidad'."*<sup>33</sup> (Recalde, 1982:327)

Nazio eraketa mekanismo eta bitartekari desberdinen bidez ematen den gizarte ordenu berria zilegitzeko balio duen diskurtsoaren osaketari dagokio, non, organizazio politikoaz batera gizarteko egitura sozial eta identitarioak ere taxutzen diren. Eginkizun horretarako baliabide kulturalak pisuzkoak bihurtzen dira, izan ere, kultura propio bat garatzeak neurriara egindako kolektibo (nazional) bat sortzeko aukera ematen dio estatuari, eta ondorioz, boterea zilegitzeko balioko dion sistema oso baten diseinu eta osaketa bideratu dezake haren bitartez. Hala, nazio eraketan eragiten duen faktore bakarra ez bada ere, kultura nazional propio baten existentzia beharrezkoa da nazio eraketa gauzatu dadin. Horregatik, estatuak bultzatzen duen nazio eraketa eraikuntza kultural bat bezala ulertu daiteke funtsean (Larrinaga, 2012).

Kultura nazional hegemoniko bat diseinatu eta eratu aurretik, ordea, oro harreko gizarte praktika eta diskurtsoak

33 ["Eraketa nazionala ez da nazioaren zehaztapen politikoa soilik (...) baita gizarte zibilaren antolaketa harmonikoa ere, (...) nazio egitura interrelazio eta identifikazio pragmatiko eta eraginkorren sistema ordenatu gisa ulertzen da, programa nazionalistak "identitate zeinu" lez aukeratu dituenen arabera osatzen dena."]

arautu behar ditu estatuak eta horretarako bere mugen baitan dagoen kultura entropia kudeatzea beharrezkoa du. Izan ere, kontuan hartu behar gizarte tradizioaletik datozen kultura, hizkuntza, ohitura, eta finean, leinu eta etnia desberdinez osaturiko lurraldea kudeatzen duela estatuak, eta haren zentralizazioak (kulturalak batez ere) aniztasun horri aurre egin beharko diola Nazio-Estatu baten irudia eta sentimendua zilegitu eta zabaldu nahiko baditu. Horrenbestez, eduki eta bitarteko kulturalen kontrola bermatu nahi badu, beraz, estatuak aurrez aipatu den biolentziaren monopolioa eta monopolio fiskala ez ezik, monopolio sinbolikoa ere bereganatu beharko du. Horretarako, pixkanaka eta honezkero duen botereaz baliatuz, eduki eta baliabide kulturalen jabetza eta metaketa eginez joango da, harik eta gizarte errealtatea sinbolikoki "nahi bezala" osatzeko beharrezkoak dituen tresna eraginkorrak eskuratzen dituen arte.

### 3.2.3.a. Kultura nazionalaren berariazko diseinua

Anthony H. Birch-en arabera (1989) integrazio nazionala eman dadin funtsezko urrats batzuk gauzatu behar dira aurrenik. Horien artean jartzen ditu identitate nazionalaren sinboloak hautatzea; nazio instituzio politikoen ezarpena egitea; identitate sentimendua transmititzea horren historia erakusteko hezkuntza sistema publikoa bat abian jarri; eta horien guztien bitartez, azkenik, nazio harrotasuna sustatu eta garatzea.

Kultura nazionalak zuzeneko esku hartzea du prozesu horien osaketan, urrats desberdinak burutzeko eduki eta bitartekoak bere iragazkitik pasatzen baitira beti. Iragazketaren eginbeharretariko bat kolektibo nazionalaren zeinu eta elementu sinboliko komunak identifikatzea (erabakitzea) da, bere boterearen zilegitasuna bilatzeko estatuak beretzat egokienak diren eduki eta diskurtso

kulturalak aukeratu behar baititu. Eginkizun horretan kultura nazionalaren esku geratzen dira, besteak beste, eraiki nahi den gizartearen identitate zeinuen zehaztapena, gizartearen egingo diren errituen aukeraketa, edota erabiliko den erlijio eta hizkuntza ofizialen ezarpena.

Azkeneko horri dagokionez gogora ekarri behar da nazio baten eraketan bereziki esanguratsua dela hizkuntzaren aukeraketa, estatuaren mugen baitan hizkuntza ofizial batekiko posizionamendua aukeraketa linguistikoki soil bat egitea baino haraindikoa da. Hizkuntza, praktika eta diskurtso kulturalen transmisiorako elementu funtsezkoena da (Gramsci, 1977) eta hizkuntza jakin baten ezarpenak jarduera eta diskurtso orotan hizkuntza horrek dakarren lengoaiaren erabilera egitea suposatzen du, errealtatea ulertu eta adierazteko zeinu batzuen (eta ez besteen) jabe izatea ekarriaz berekin. Kultura nazionalaren baitan egiten den hizkuntzaren hautaketa eta hedapenarekin batera, beraz, *esanahien ezarpena* kontrolatzen du estatuak (Thompson, 1984:134). Izan ere, hizkuntzaren aukeraketak errealtate sozialak hautemateko modu jakin bat finkatzea dakar, eta ondorioz, naziotasuna eta identitate nazionala eraikitzeke era partikular bat indartzea ere bai. Kapital sinbolikoaren monopolioaren jabe izateak izendapen sozialen ezarpenerako autoritatea aitortzen dio estatuari eta errealtate sozialak zer diren (edo ez diren) eta nolakoak diren erabakitzeke eskumena berak izango du soilik<sup>34</sup>.

Eratze ariketa horretan hizkuntza ez ezik, kultura nazionalak nahitara hautatzen ditu estatuaren botereari mesede egingo dioten nazioaren gainontzeko zeinu eta sinbolo guztiak. Zeinuen hautaketa hain da berariazkoa ezen horiek errealtatean topatu ezean kultura nazionalak hutsetik

34 Hau kontuan hartzea interesgarria da umorearen zilegitasunarekin zer gertatzen den ikusteko. Hots, umorea zer den eta zer ez nola zehazten den antzemateko (5.4. *Gozamena* kapitulua)

"asmatuko" dituen. Hala, estatuak nazio eraketarako beharrezkoak dituen sostengu sinboliko-historiko egokiak topatzen ez dituela ikusiz gero, estatuari komenigarri zaion "fikzio historikoa" sortzen du bere baliabide kulturalen laguntzaz. Hala, estatu kideak bateratuak mantenduko dituen kultura nazionalaren edukiak historikoki ontikoak izateak edo ez, ez du estatuarekiko hautematean eragin esanguratsurik izango, komunitatean antzinatek elkartuak daudela uste izatea, zinez hala izan edo ez, aski baita nazioa eratzeko (Connor, 1998:89).

*"el redescubrimiento del pasado étnico permite crear recuerdos, símbolos y mitos que no tendrían fuerza alguna al margen del nacionalismo. Pero estos mitos, símbolos, valores y recuerdos tienen aceptación popular porque están basados en las tradiciones vivas del pueblo (...) que sirven para dotarle de unidad y diferenciarle de sus vecinos. A su vez, esta unidad se basa en el poderoso mito de unos presuntos ancestros comunes y de una memoria histórica compartida."*<sup>35</sup> (Smith, 2000: 99)

Iraganaren berreraikuntzak egungo egitura soziala zilegitzeko balio du beraz, *arkeologia politikoa* egin (Smith, 2000b) eta memoria (eta ahaztura) kolektiboa diseinatu eta zabalduz herritarren baitan. Hala, nazioen eraketaren punturik gorenean (XVIII eta XIX. mendeetan) antzinakoak balira bezala aurkezten dira hutsetik asmatuak izan diren

35 ["iragan etnikoaren berraurikuntzak ahalbidetzen du nazionalismotik at inolako zentzurik edukiko ez luketen oroitzapen, sinbolo eta mitoak eratzeko. Baina mito, sinbolo, balio eta oroitzapenek onarpen soziala badute, herriaren tradizio bizietan oinarritzen direlako da (...), zeinak batasuna eman eta auzoarengandik desberdintzeko balio duten. Batasun hori oinarritzen da uestzeko arbaso komun eta memoria historiko partekatu bat dagoela aintzat ematen duen mito boteretsuan."]

hainbat tradizio<sup>36</sup>, identitate nazionalak kolektiboarentzat betierekoak edo "naturalak" diren ezaugarriak balira bezala bistaratzea delarik haien helburua<sup>37</sup>.

*"La 'tradición inventada' implica un grupo de prácticas, normalmente gobernadas por reglas aceptadas abierta o tácitamente y de naturaleza simbólica o ritual, que buscan inculcar determinados valores o normas de comportamiento por medio de su repetición"*<sup>38</sup> (Hobsbawm eta Ranger, 2002:8)

Ezaugarri identitario eta historikoen (auk)eraketa prozesu horren ondorioz, nazioaren agerpena lehendik ere bazegoen gizartearen "birsortze" bezala aurkezten da kasu askotan. Hau da, nazioaren sortze modernoa gutxietsi eta komunitatean aspalditik dagoen "esentziari" forma berria ematen dion "azalberritzea" balitz bezala, horri esker egitura berriarekiko onarpen soziala (eta zilegitasuna) errazago lortzen delakoan.

Zilegitasun hori eskuratzeko egiten den nazioaren ezaugarrien hautatze eta ezarpenean, ordea, herriak zer esan gutxi izango du, ustez kontsentsuzkoa beharko —

36 Gona eskoziarrak edota koroatze errituak esaterako, garai modernoko asmakizunak dira (Billig, 2014:53)

37 Honekin lotuta, Massimo d'Azeglio-k esan zuen *"abbiamo fatto l'Italia, ora dobbiamo fare gli italiani"* ["Italia egin dugu, orain italiarrak egin behar ditugu"] elkartu berria zen Italiaren Parlamentuaren lehen saioan (1861eko otsailaren 18an). Hots, estatua eta haren instituzioak eratuak zeudelarik, hiritarrak, italiarrak alegia, ohitura, sinesmen eta tradizio sortu berriez "eratztea" zen hurrengo urratsa.

38 ["Asmatua den tradizioak" praktika multzo bati egiten dio erreferentzia, zeinak, jatorri natural edo sinbolikoa duten eta esplizituki edo zaitutuki onartuak diren arauak bideratzen duten. Erreplikapenaren bitartez zenbait balio eta jokaera irakastea du xede"]

lukeen nazio eraketa hori "goitik-behera" eginda dagoela ziurtatzen baitute zenbait autorek. Tom Nairn-ek (1977), esaterako, *intelligentsiari* egozten dio kultura nazionalaren "diseinuaren" agentzia, eta hala, estatuak nazioaren eraketan duen eskumena kontuan izanik, nazio identitatea eraikitzekeo gizarteratu eta homogeneizatu beharreko balioen aukeraketa modu herrikoian egiten denik ezin esan daitekeela defendatzen du. Autorearen ustez nazioa boteretik herrira igorriko diren errealitate sozialen inguruko diskurtso jakinen bidez formatzen doazen ikuspegi kognitibo eta interakzio sozialen emaitza da, eta ondorioz, nazioa gizarteko *intelligentsiak* mugitu eta zuzentzen duen egitura gisa ulertzen du. Hala, nazioaren kudeaketa ikuspegi propioak gizartean txertatu eta zabalatzeko gaitasuna duten aditu eta bitartekariaren eskuetan daudela dio: intelektualek nazioaren ezaugarri eta definizioak eskaini; profesoalek nazioaren ideia hori zabaldu (publizitatea, propaganda, komunikazio eta organizazioaren bidez); eta herriak hori guztia kontsumitzen duelarik.

*"la intelligentsia son los únicos estratos que tienen un interés permanente en la idea misma de nación (...) sólo ellos pueden sacar a la luz los vínculos sociales que comparten con otros estratos (...) el papel central desempeñado por intelectuales y profesionales debe mantenerse constantemente si no se desea correr el riesgo de que el movimiento se desintegre"*<sup>39</sup> (Smith, 2000:118)

Baina autore guztiek ez dute horretan bat egiten edo gutxienez zenbait ñabardura gehituko dizkiote —

39 ["Nazioaren ideian interes bizia duen geruza sozial bakarra intelligentsia da (...) haiek soilik bistaratu dezakete beste geruzekin partekatzen dituzten lotura sozialak (...) intelektual eta profesoalek egiten duten jarduera etengabe mantendu behar da mugimenduan desagerrarazteko arriskua ekidin nahi bada"]

*intelligentsiaren* esku-hartze nazionalari. Connorren ikuspegiak, adibidez, planteamendu horrekiko erabateko aurkakotasuna erakusten du. Nazioa ez du eliteen estrategia soziopolitiko baten ondorioztat joko, kolektiboaren sinesmen, historia eta, oro har, kultural oinarrituriko mugimendu politiko bezala baizik. Herriak sortutako fenomeno bezala, alegia (Connor,1998). Conorrekin bat egingo duen arren, Liesbet Hooghe leunago agertzen da *intelligentsiaren* irakurketan. Azken horren arabera mugimendu nazionalista gehien muinean *intelligentsiak* badaude ere, ezin esan liteke nazioaren eraketako aspektu oro horiek kontrolatzen dutenik, horien ekarriak beste gizataldeetara hedatzen amaituko baitu azkenean, eta ondorioz, baita forma edo edukietan aldatzen ere (Hooghe, 1992). Eric Hobsbawmek (2004) iritzi horri eusten dio halaber, bere ustez, nazioen (eta Nazio-Estatuen) funtzionamendua ezagutu nahi bada ideologo nazionalistek bultzatzen duten logikari gehitu behar zaio sare sozialen bitartez sortu eta eraikitzen dena. Nazioak "goitik" eraikiak direla kontuan hartuaz batera "behetik" edo "behean" ematen diren harremanak, esperantzak, irrikak eta beharrak ere ulertu behar direla uste baitu. Nazioari buruzko ideologia hegemonikoa gauzatu izateko substratu soziala beharrezkoa dela kontuan hartzen duen ikuspegi bat bultzatzen du horrela.

Nazio eraketa denboran zehar garatzen den eta agente eta fenomeno desberdinen bitartez osatuaz doan prozesu bezala ulertua den heinean, badirudi azkeneko autore hauek adierazten dituzten ikuspegiek hobeto erantzuten dietela nazio eraketaren baitako botere-harremanen hartu-emanari. Aintzat hartzen baitute, besteak beste, boterea gizarte sektore jakin eta mugatu batzuen esku egonik ere, izaera higikorra, aldagarria eta eskuragarria duela. Horren arabera menderatuaren onarpena ez da zertan sumisio izan, bereizketa erresistentzia ere ez, eta "goitik" datorren guztiak ez dira zertan balore dominantzailatzat jo

behar. Anbiguetate horrek erakusten du, halaber, boterea "dutenen" eta "ez dutenen" arteko erlazioak (botere-harremanak) hasiera batean planteatu daitezkeen bezain argiak ere ez direla, talde boteretsuenek ezartzen dituzten doktrinak gizarteratuak diren heinean horien irakurketa gizartean birmoldatua eta berrinterpretatua izan baitaiteke.

Edonola ere, botere-harreman desorekak egon badaude gizarte eta *intelligentsiaren* artean, eta horrek berak nazioaren eraketan esku-hartze eta eragiteko ahaltasun desberdinak ematen dizkie batzuei eta besteei. Alde horretatik, *intelligentsiak* nazio eraketan egiten dituen esfortzuak hegemoniaren aldeko esfortzuak dira beti (Billig, 2014); gutxi batzuek beren burua nazioaren "esentziaren" ordezkari gisa izendatu eta gizarte osotasunaren izenean jardun eta hitz egiten baitute. Joera horren bitartez, beraz, kultura hegemoniko eta homogeneizatzaile bat bideratzen da, zeinak, estatuak (*intelligentsiaren* laguntzaz) hautatu eta sortzen dituen sinbolo eta mito guztiak taldearen elkartasunaren oinarri bihurtu daitezkeen ahalbidetzen duen.

### 3.2.3.b. Homogeneizazio ariketa bat

Estatuaren kontrol esparruaren baitan dagoen oro estatuari dagokio, eta ondorioz, kultura beraren parte da, hots, "nazionalizatu" geratzen da halabeharrez. Prozesu horretan, kultura nazionalak bere eskumeneko adierazpen kultural (erlijioso, linguistiko...) desberdinen arteko distantziak murrizteko ahaleginean, kultura homogeen eta homogeneizatzaile baten alde jokatzeko du (Bauman,1992: 18). Prozesu horren bidez hegemonikoak ez diren bestelako kultura-adierazpenak estatuaren zilegitasuna kolokan jar dezaketean mundu ikuskerak bultzatzen ez dituzten, hauetariko gehienak desagerrarazi daitezkeen arduratzen da estatua, eta berea, bakarra eta hegemonikoa dena, inposatu egiten du bere eskumeneko lurralde guztian barrena.

Jarrera bereganatzaile berbera erakusten du oso errotuak dauden eskualdeetako kultura partikularrekin ere. Halako kasuetan, estatuak ez ditu hegemonikoarekiko desberdinak diren espresio kultural bezala identifikatzen, baizik eta horiek ere bere baitan hartuz, kultura nazionalari dagozkion adierazpen "erregionalista" edo bazterrekoak bezala izango dira interpretatuak eta berrizendatuak<sup>40</sup>.

*"transformando las artesanías o las danzas en patrimonio cultural de la Nación (...) utilizándolas ideológicamente para hacer frente a la fragmentación social y política del país"*<sup>41</sup> (Barbero, 1991:207)

*"surge así un nacionalismo nuevo, basado en la idea de una cultura nacional, que sería la síntesis de la particularidad cultural y generalidad política, de la que las diferencias culturales étnicas o regionales serían expresiones"*<sup>42</sup> (Barbero, 1991:167)

Baina joera homogeneizatzaile hori ez da beti arrakastatsua izaten. Maiz, nazio kideen artean egiazki

—  
40 Honek ez du beti emaitza eraginkorrik izango, gerora ikusiko den bezala, estatu propiorik gabeko nazioen kasuan adibidez, estatuaren homogeneizazio eta zentralizazio saiakerak diskurtso hegemoniko bat sortzen badu ere, litekeena da bere baitako beste nazioek era bat ez onartzea eta haien autonomia politiko edo kulturalaren burujabe eta defendatzaile izatea. Edonola ere, estatutik eratorritako diskurtso hauek, gehiago ala gutxiago, eragina izango dute beti.

41 ["Artisautza edo dantzak nazioaren ondare kultural bilakatuz (...) eta herrialdeko zatiketa sozial eta politikoari aurre egiteko horiek ideologikoki erabiliak"]

42 ["hala sortzen da nazionalismo berri bat, kultura nazional baten ideian oinarritzen dena, partikularitasun kulturalaren eta orokortasun politikoaren sintesia litzatekeena, non diferentzia kultural etnikoak edo eskualdekakoak horren baitan dauden adierazpen izango diren"]

dagoena baino homogeneotasun maila handiagoa dagoela erakusten dute estatuak, hain zuzen ere hala izatea estaturen batasun eta boterearen erakusgarritzat jotzen dutelako. Hartara, kultura nazionalaren baitan hegemonikoa den ildo nagusi bat bada ere, egia da ildo hori ez dela lau eta uniforme izaten, horren ordez, elkar borrokan eta norgehiagokan dabilzan "kultura nazional desberdinen" konbinazioz berregiten eta moldatzen doan prozesua izan ohi da (Miller, 1997, Guibernau 2008). Ezaugarri hau kontuan izanik, estatuak *polietnikoak* direla dio Benjamin Akzinek (1968). Izan ere, Cornelia Navarik dioen duen moduan:

*"No hay en el mundo ningún pueblo con esa homogeneidad, sin diferencias regionales o culturales, en el que todos hablan la misma lengua o comparten los mismos usos lingüísticos y en el que lo gobernantes no se distinguen de los gobernados ni en rango, ni en riqueza ni en educación"*<sup>43</sup> (Navari, 1987:25)

Nazioa, beraz, estatuak gizartea zentralizatu eta batzeko jalgitzen duen diskurtso gisa erabilia da, prozesuak arrakasta izateko estatuko lur esparruaren baitako adierazpen kultural guztiak (etnia guztiak) elkartuak baleude bezala erakustea beharrezkoa baita.

Baina prozesuak ez du beti funtzionatzen eta zenbait kasutan ez da estatuaren lurraldearen baitan egitura nazional bakar eta berdina sortzea lortzen, edo nahiago

—  
43 ["Munduan ez dago maila horretako homogeneotasuna duen herririk, desberdintasun kultural edo eskualdekakorik ez duenik, non denek hizkuntza bera hitz egin edota lengoia erabilera berbera duten eta non gobernariak eta gobernatuak ez diren haien artean maila, aberastasun edo hezkuntzagatik bereizten"]

bada, ez da nahi besteko homogeneizaziorik erdiesten. Izan ere, estaturen integrazio prozesuak kale egin dezake eta estatuak zabaldu nahi duen kolektiboaren ideia gizarte osoak onartua ez izatea gerta liteke. Kasu horietan zenbait talde etnikok edo kolektibok haien identitate kulturala politizatuko dute estatuak inposatu nahi duen naziotasunaren aurrean, eta ariketa horretan, estatuaren helburuei ez dagozkien nazioak eratu ditzakete, estatu propiorik gabeko nazioak izango direnak<sup>44</sup>. Halakoetan zailagoa du estatuak behar duen zilegitasuna lortzea. Alde batetik, nazio horiek estatuak proposatutakoaren desberdina den kolektibotasun eta kultura (nazionala) aldarrikatzen dutelako; eta bestetik, estaturen aurkako diskurtsoa eraikitzen dutelako bere aldeko diskurtso bateratzailea indartzen duten heinean.

*"el conflicto se produce entre dos marcos de referencia, entre dos definiciones del Nosotros colectivo, dos ideas de comunidad. Una de ellas, la segregada desde el Estado-Nación ya establecido; otra, producida por la minoría nacional"*<sup>45</sup> (Gurruchaga, 1985:45)

Estatuak, beraz, bere nazioa zilegitzeko "betierekotasuna" eta "naturaltasuna" erabiltzen dituen modu berebean, estatu propiorik gabeko nazioek estatu menderatzailea

—  
44 Nazio hauek, eskuharki "estatu gabeko nazio" bezala izendatu ohi dira, baina egokiagotzat jo da "estatu propiorik gabeko nazio" bezala zehaztea, uste baitugu estatu baten pean dauden heinean errealitate hori ere bistaratu beharra dagoela; propiotzat onartzen ez den estatua edukitzeak, estatu faltak ez bezalako eragin eta inplikazio desberdinak sortuko baititu nazio hauengan.

45 ["gatazka bi erreferentzia markoren artean jazotzen da, Gu kolektiboaren bi definizioen artean, komunitatearen bi ideien artea. Horietako bat Nazio-Estatutik datorrena da, indarrean dagoena; bestea, gutxiengo nazionalak sortutakoa"]

baino lehen haien nazioa egon bazegoela aldarrikatzen dute, estatuak inposatu nahi dien nazioaren desberdina den nortasun (historikoki zilegitu) bat badutela defendatuz<sup>46</sup>. Edonola ere, kultura nazional hegemonikoak ez du atsedenik hartzen eta bitarteko desberdinak erabiltzen ditu estatuaren homogeneizazio hori ahalik eta sendoena izan dadin. Prozesu horretan erabiltzen duen baliabideen artean aipatu beharretako bat hezkuntza publikoa da.

Hezkuntza publikoak estatuak sortutako kultura nazionala hedatu eta bere hiritarrak horretan sozializatzeko bitarteko indartsua da. Zeinu, balio, diskurtso eta irudikari zehatzak gizarte osoak partekatu ditzan bermatzeko ezinbesteko instituzioa. Hala dio John Breuilly-k:

*"los intelectuales y profesionales, especialmente los educadores, resultan cruciales para los nacionalismos. A menudo son los que elaboran la categoría de nación dotándola de significado simbólico. Es su imaginación y su capacidad de comprensión la que da a la nación sus contornos y gran parte de su contenido emocional. A través de imágenes y símbolos retratan y representan para otros el significado y la peculiaridad de la nación."*

<sup>47</sup> (Breuilly, 1990:174)

—  
46 Konplexua da estatu propiorik gabeko nazioen sorrera zehaztea, kasuan kasu nazioa eta nazionalismoaren bilakaerak aldatu egiten baitira. Andrew Orridge-k (1987:75) estatu propiorik gabeko nazioak sortzeko bi motatako arrazo bereizten ditu autoreak. Batetik, modernizazioak eskatu ez bezalako garapena duten lurralde kaltetuen erantzun bezala; eta bestetik, gizarte modernoak jasango duen deserrotzearen aurrean emaniko erantzun bezala.

47 ["intelektual eta profesionalak, hezitzaileak bereziki, oinarritzaileak dira nazionalismoentzat. Maiz nazio kategoria erabiltzen dutenak izan ohi dira, esanahi sinbolikoa egotzen diotenak. Haien irudimenak eta ulertzeko moduak ezarriko dituzte nazioaren mugak, eta osatuko du nazioaren eduki emozionalaren parte bat. Irudi eta zeinuen bitartez besteentzako irudikatzen dute nazioaren esanahi eta berezitasuna."]

Hiritarren homogeneizazio prozesuan gizarte masari bideraturiko hezkuntza publikoa baliagarria da nola estatuaren boterearen zilegitasuna eta gizarte kontrola lortzeko<sup>48</sup>, hala estatuaren premia eta garapen ekonomikoei behar bezala erantzuteko. Izan ere, Gellnerrek (1964, 1988) lantzen duen bezala, gizarte modernoak sustatzen duen industrian oinarrituriko ekonomia garatu ahal izateko beraien artean ordezkagarriak diren subjektuak eskuratu behar ditu lehenik, eta horretarako, biztanleak "berdinduko" dituen homogeneotasuna eta estandarizazio kulturala beharrezkoak dira.

Homogeneizazio joera hori nazioaren barne mailan emateaz gainera, "kanpora" begira ere ematen dela gaineratu behar da, nazioek, nazioarte mailan, haien arteko joera "berdin zalea" erakusten baitute. Nazio bakoitzak besteengandik bereiziko duen ezaugarriak lantzen dituen neurri berean, nazio bat izateagatik ustez eduki beharreko beste batzuk ere indartuko ditu. Hala, beste ezaugarri horiek dira nazio gisa errekonozituak izan daitezten guztiak "halaberrez" eduki behar dituztenak, hain zuzen ere, jadanik existitzen diren nazioen antza izatea bermaraziko dietenak.

*"con "nuestras" banderas y "nuestros" himnos, "nuestros" asientos en Naciones Unidas y "nuestra" participación en*

48 Kontuan hartzekoa da Breuillyren aipu horretan irudikari ("imaginación") eta irudiak ("imágenes") aipatzen direla nazioa osatzeko elementu garrantzitsu gisa, zeinak, kasu honetan hezkuntzak sortutakoak direla dioen.

*los Juegos Olímpicos y la Copa Mundial de Fútbol (con nuestros uniformes oportunamente diseñados)"*<sup>49</sup> (Billig, 2014:149)

Beraz, nazioek sortu eta bilatzen dituzten partikularitasun eta berezitasun horiek nazio guztiek partekatzen dituzten zeinuen gainean eginiko "azaleko" bereizketak dira egiazki, funtsean, oinarri, egitura, helburu, bitarteko edota baliabide berdintsuekin funtzionatzen baitute.

### 3.2.4. Egunerokotasunaren nazionalizazioa .....

Billigek aipatzen dituen elementu horiek nazioen elkar aitortza bultzatzeko ez ezik, nazioaren baitako kultura nazionala sustatzeko ere baliagarriak dira. Egunerokotasuneko praktiketan zeharka presente dauden elementuok (eguraldiaren mapa, kirol eta bereziki futbol partidetak aldarriz nazionalistak, kale edo instituzio publikoetatik eskegitzen diren banderak, ea.) estatu kideek inguruan dituzten errealitate sozial eta gizarte egitura ulertzeko kosmopolisismo jakin bat "nahigabea" indartzen duten ikurrak dira. Kultura nazionalak erabiltzen dituen eduki, erreferente, bitarteko eta mekanismo multzoaren azken xedea, Nazio-Estatuaren egitura (eta

49 ["gure 'bandera' eta gure 'ereserkiekin', Nazio Batuetan eserlekuarekin eta Joko Olimpikoetan eta Munduko Futbol Txapelketan parte hartuz (horretarako espresuki prestaturiko uniformekin)"]

boterea) zilegitzeko baliagarria den mundu ikuskera bat gizarteratzea da. Hala, kultura nazionalaren bitartez sortzen diren sinbolo eta diskurtsoek marko axiologiko, sinboliko, sinesmeneko eta interpretaziozko bat eta berdinen inguruan sozializatzen dituzte gizartekideak. Praktika sozialei esanahia eman eta identitate bat eskaintzen duen marko orokor bezala funtzionatzen du honek eta errealitate soziala modu bateratuan hautemana izatea bermatua geratzen da neurri handi batean.

Kulturaren bitartez zabaldu eta irakatsiko diren ikuspegiak, halaber, errealitate sozialari buruzko berehalako adostasun sareak sortzen dituzte gizartekideen artean eta horiek gizartearen sen onaren<sup>50</sup> euskarria ezartzen dute. "Menderatze sinbolikoaren" bidez estatuak egitura kognitiboak eratze gaitasuna eskuratzeaz batera, esperientzia arrunteko oinarritzko ikuspegiak sortzeko ahalmena ere lortzen du, eta gizarte kide guztiek partekatzen duten bizitza sozialari buruzko oinarritzko ezagutzaren funtsak ezartzen ditu horrekin.

50 Roland Barthesek doxa deituko dio (Barthes, 2004), eta Peter L. Berger eta Thomas Luckmann-ek (2006) *common sense knowledge* gisa izendatzen dute. Azken horien arabera, errealitate soziala, modu jarraituan behin eta berririo errepikatzen diren ekintzek osatzen dute, eta gizarte baten ezagutza, praktika sozial hori hobetzen eta zuzentzen egindako ahaleginek sortutako irakaspenaren emaitza kognitiboak litzateke. Ondorioz, egunerokotasuneko jarduerak gehienak jadanik barneratua dugun jakintza horri erantzungo lioke: ezagutza informal edo sen onekoari.

*"¿Cómo sé yo lo que significa ser británico o lo que es la nación británica? Lo saco de los editoriales de los periódicos, de los libros de historia, de las películas, de las canciones – y doy por descontado que lo que estoy ingiriendo está siendo también digerido por millones de británicos a los que nunca he visto–."*<sup>51</sup> (Miller, 1997: 50)

Modu inkontzientean erabiltzen den ezagutza mota hau "egiazkotzat" da barneratua: mundua jakintza horrek iradokitzen duen moduan funtzionatzen eta existitzen dela onartzen da, eta beraz, jakintza horrek sostengatzen duen errealitatearen ikuspegia egia bakar bezala da hautemana. Sen onak markaturiko errealitate sozialak, beraz, aurre-erreflexiboak eta ez-zientifikoak izanik ere, ebidentzia baten indarra eta ziurtasuna eskaintzen die hau konpartitzen dutenei (Larrinaga, 2012:95). Hain zuzen ere horregatik: *"tiene sentido decir que estamos en una realidad nacional, y no tiene tanto sentido decir que estamos en tal nación determinada"*<sup>52</sup> (Recalde, 1982:5).

Errealitate nazional horretako hegemonia kulturala *biolektzia sinbolikoaren* bitartez eskuratzen da neurri handi batean, hau da, subjektuek pairatzea onartzen

51 ["Nola jakin dezaket nik zer esan nahi duen britainiarra izateak edo zer den nazio britainiarra? Egunkarietako editorialetatik hartzen dut, historia liburu, pelikula eta abestietatik – eta aintzat ematen dut barneratzen nabilen hori ezagutzen ez ditudan beste hainbat milioika britainiarrek ere barneratzen dutela.–"]

52 ["nazio jakin batean gaudela esateak baino zentzu gehiago du errealitate nazional batean gaudela esateak"]

duten haienganako biolentziaz (Bourdieu, 1985, 2001). Biolentzia sinbolikoa ez da biolentzia bezala hautematen, ordea, gizartekideek biolentzia horrek oin hartzen duen premisak baieztatu eta apropiatu egiten baitituzte mundua agertzen zaien bezalakoxea dela onartzearekin batera. Mundu horretatik datozen egitura kognoszitiboen bitartez hautematen dute haien ingurua eta honakoa "natural" eta "normal" bezala ulertzen bukatzen dute<sup>53</sup>.

"Normalizazio" horren bidez estatuaren menderakuntza inposatzeko errealitatea modu jakin batean irudikatu eta erakutsiko duten tresnak ezinbestekoak dira. Esan bezala hezkuntzak paper garrantzitsua betetzen du munduaren ikuspegi jakin bat sozializatzerako orduan, baina horrekin batera komunikabideak ere zer esan handia dute, nazioa ideia politiko bat izatetik, bizipen, sentimendu eta ohikotasunaren parte izatera pasatzeko berebiziko funtzioa betetzen baitute (Barbero, 1991). Jesús Martín Barberok sakontzen du ideia honetan. Autoreak XX. mendean ematen den masa gizarte fenomenoaz hitz egiten badu ere bere ekarpenak baliagarriak dira kultura nazional hegemonikoak hasiera batean betetzen duen funtzioa eta erabiltzen dituen bideak nolakoak diren ezagutzeko. Hala, autorearen arabera komunikabideak gaitasuna dute *"de hacerse voceros de la interpelación que desde el populismo convertía a las masas en pueblo y al pueblo en Nación."*<sup>54</sup> (Barbero, 1991: 178). Errealitate sozialei esangura berriak egotzi edota horiek

53 Ikuspegi honetatik Michael Hechter-ek honakoa dio: *"There is ample evidence that nationalist groups employed violence strategically as a means to produce their joint goods, among which sovereignty looms large"* (Hechter, 1995: 62) ["Talde nazionalistek haien ondasun kolektiboak osatzeko modu gisa biolentzia estrategikoki erabiltzen dutela esateko aski ebidentzia dauzkagu. Ondasun horien nagusienetarikoa bat subiranotasuna da."]

54 ["masa herri eta herria nazio egiten duen interpelazio populistaren bozeramaile izatekoa"]

berrizendatzeko gaitasuna dute, eta beraz, erreferentziak, identifikazioak, kontzeptu eta kategoriak estatuak nahi bezala definiturik gizarteratzeko baliagarriak izango dira.

Komunikabideen edo hezkuntzaren bitartez kultura nazionalak gizarteratzen dituen edukiak bereganatzeak eta horien bitartez egiten den errealitatearen ikuspegiak ez du soilik estatuaren boterea zilegitzeko balio, aitzitik nazioa bera erreproduzitzeko eta indarrean mantentzeko modua ere bada. Hau da, estatuak bere boterea bermatzeko nazioa (eta horrekin batera kultura nazional bat) eratzen dituenean, nazioa bera erreproduzitzen jarraitzeko modua ere sortzen ari da: kultura nazionala baita, hain zuzen ere, autopoietikoki nazioa eta kultura nazional horrexeri indarrean eutsaraziko diona.

*Nazionalismo banala* deitzen dio Michael Billigek horri (Billig, 2014), nazionalismoa eguneroko errutinetan eta ohikoak diren praktika eta diskurtsoetan presente egonik bizirik irauten duela uste baitu, egunerokotasunak nazioa erreproduzitzen duela baieztatuz.<sup>55</sup> Izan ere, nazioa ikuspegi modernotik begiraturuta "sortua" izan den errealitate sozial bezala kontsideratua bada, interakzio sozial eta botere-harremank eragindako prozesu historikoaren ondorio bezala ulertua delako da. Hala, nazioak gaur egun jadanekotasuna badu ez da garai modernoan sortu eta ordutik hona "bere kasa" biziraun duelako, baizik eta badirudi zentzuzkoa dela pentsatzea prozesua alderantziz

55 Zehazki *nazionalismo banala* erabiltzen du *"para denominar la recopilación de hábitos ideológicos (incluyendo los hábitos de la práctica y la creencia) con los que se reproduce a las naciones consolidadas como tales"* (Billig, 2014:21) ["Ohitura ideologikoak (sinesmen eta praktika ohiturak horien artean) izendatzeko, nazioak birproduzitzeko baliagarri dena"]. Hala, nazionalismo banala, gizarte mendebalderako Nazio-Estatuek haien erreproduziorako erabiltzen dituzten mekanismo ideologikoei erreferentzia egiteko erabiltzen du.

dela. Hots, eraketa sozial gisa ulertzeak nazioak biziraupen soziala duela aurre-suposatzea dakar, eta beraz, subjektuen interakzio eta praktika sozialek etengabe birsortzen dutela ulertzea ere bai, besteak beste, nazioa subjektuen interakzioetatik at (naturalki) existitzen ez delako.

Nazioa egunerokotasunean eta etengabean erreproduzitzen den errealitate soziala izanik ere, gehienetan erreproduzio hori ia hautemanezina da subjektuarentzat. Billigek gaur egungo mendebalder gizartean nazioaren presentzia eta berau erreproduzitzeko bideak egon badaudenik ere zalantzan jartzearaino itzalpetuak daudela dio. Nazioa (eta kultura nazionala) hain daude presente egunerokotasunean ezen haiek identifikatzea ezinezko lana den. Horren adibidetzat praktika edo aldarrikapen nazionalistak adierazpen politiko "exotiko" eta "marjinaletara" nola mugatu ohi diren ikustea argigarritzat jotzen du autoreak, nazionalismoa norberaren nazioan gertatzen den zerbait izan ordez "besteen" kontua balitz bezala hautemana baita sarri. Ildo horretatik, esanguratsua da patriotismoaren eta nazionalismoaren arteko banaketak hartzen duen konnotazioa ikustea. Patriotismoa, Nazio-Estatuari lotzen zaion kontzeptua da, atxikimendu eta konpromiso sosegatu eta arrazionala adierazteko balio duena eta Nazio-Estatuaren kide direnek partekatzen duten identitatearen parte bezala hautematen dena. Nazionalismoak, ordea, "periferian" kokatuak

dauden mugimendu politikoei egiten die erreferentzia eta "separatistei" eta "estremistei" lotzen zaien termino bilakatu da.<sup>56</sup>

Patriotismo-nazionalismo banaketa egitea eta bereziki norberaren kolektiboari dagozkion mugimendu nazionalistak nazionalista bezala ez ikustearen arrazoa kultura nazionala erabat barneratua eta normaldua izanaren ondorioz datorrela dio Billigek:

*"el nacionalismo no desaparece por completo, sino que se convierte en una especie de excedente de la vida cotidiana (...) Se da por supuesto que la vida ordinaria en el Estado normal (...) es banal, políticamente insulsa y no-nacionalista."*<sup>57</sup> (Billig, 2014:77).

Egunerokotasuna apolitikotzat ikustea, Nazio-Estatu sistemaren arrakasta bermatua dagoelako sintoma da, beraz: Nazio-Estatu baten subiranotasuna finkatzeko nahitara erabiltzen diren sinbolo nazionalak

56 *"Nuestro 'nacionalismo aparece como 'patriotismo': una fuerza benéfica, necesaria y, a menudo, estadounidense."* (Billig, 2014: 100) ["Gure 'nazionalismoa 'patriotismo' gisa agertzen da: mesedegarria, beharrezkoa eta sarritan estatubatuar gisa agertzen dena.]. Edonola ere zenbait autorek patriotismoa eta nazionalismoa elkar bereizteko, bi egoera emozional eta mental oso desberdinak agertzen dituztela esaten badute ere, egiazki oso zaila da ebidentzia psikologiko argirik aurkitzea patriotismoaren arrazionaltasun eta nazionalismoaren uesteko irrazionaltasunak bereizteko (Billig, 2014). Honen harira Serge Moscovici (1983) esango du indibiduen egoera psikologikoak elkar banatutako errepresentazio kulturalen menpe daudela. Norbaitek ezin du bere nazioarekiko sentimendu patriotikorik izan, baldin eta "nazioa" edota "patriotismoaren" inguruko errepresentazio sozialik ez badute.

57 ["nazionalismoa ez da erabat desagertzen, aitzitik ohiko bizitzaren gehigarri bilakatzen da (...). Aintzat ematen da Estatu normal baten baitako bizitza arrunta (...), banala eta politikoki hutsa edo ez nazionalista dela"]



egunerokotasunaren parte bilakatu eta "normaltasunez" erreproduzitzen ariko direla esan nahiko baitu horrek, kontzientziatik inkontzientzia sinbolikora igaroaz (Larrinaga, 2012). Hala, herritarrek ohikotasunean erabiltzen dituzten sinbolo, praktika eta diskurtso desberdinen bidez nazioek munduan duten posizioa (estatuak, kultura nazionalak edota *intelligentsiak*, haientzat aukeratu duten hori) zein den gogorarazten dute etengabe. Baina gogorarazteko modua hain da ohikoa eta ezaguna ezen ez den kontzienteki mezu bezala hautematen, egunerokotasuneko beste adibide bat bezala baizik<sup>58</sup>. Errealitate soziala "nazionalizatua" dagoelako, hain zuzen ere, praktika nazionalistak identifikatzea eginbehar nekeza bihurtzen da.

*"La 'construcción de la nación' se encarna en procedimientos y tipos de relación que parecen inofensivos, casuales, simplemente, hechas para el divertimento pero que a la larga imponen un sello particular al poder político y se traducen en dominación"*<sup>59</sup> (Bartra, 2002:95)<sup>60</sup>

58 Autoreak gogoratuko du: *"La imagen metonímica del nacionalismo banal no es la de una bandera agitada conscientemente con ferviente pasión, es la de la bandera que vemos colgada en un edificio público y pasa desapercibida"* (Billig, 2014:24) ["Nacionalismo banalaren irudi metonimikoa ez da kontzienteki eta pasioz astintzen den banderarena, baizik eraikin publiko batean eskegita egon eta oharkabean pasatzen zaigunarena"]

59 ["Nazio eraketa" kaltegabeak, ustekabeak eta ongi pasatzeko eginak diruditen prozedura eta harremanetan gauzatzen da, baina epe luzera botere politikoa finkatzen dute diote eta dominazio bilakatzeko dira"]

60 Ildo honi eutsiko dio lan honek ere, umoreak nazioa (bir)produzitzen duela proposatzerakoan

Hartara, arruntak iruditu arren egunerokotasuneko jarduerak ez dira friboloak, ideologikoak baizik<sup>61</sup>; edozein unibertso sinboliko natural bihurtarazteko gaitasuna dutenak (Billig, 2014; Eagleton, 2005; Fairclough, 1992; Ricoeur, 1989)<sup>62</sup>.

Orotara beraz, esan liteke nazioarekiko lotura eta kolektiboaren uztarketa ez dela borondatezko leialtasun kontziente baten bidez egiten, baizik eta egunerokotasunean ezarri den adostasun sistemikoaren bidez. Oharkabeko adostasun sistemiko hori egunerokotasuneko jarduera erreproduktiboen bitartez garatzen da, non, bai ikuspegi identitario zein kulturaletik estatuaren boterearen menpeko herritarrek haien buruak nazio kide lez birstortzen dituzten etengabe. Hala, mundu ikuskera zehatzei zein identitate logika konkretuei erantzuten dieten egunerokotasuneko praktikak burutzen dituzten heinean,

61 *La ideología alemana* obra izango da ziurrenik "ideologia" hitza aro garaikideko zentzu kritikoz erabiltzen duen aurrenekoa. Liburu honetan, Karl Marx eta Friedrich Engels-ek defendatzen dute garai bakoitzean nagusi diren ideiak, klase dominatzailearen ideiak direla (Marx eta Engels, 1971:64). Hots, filosofiak eragin ideologiko bat dakarrela berekin non printzipio abstraktu eta unibertsalen formulazioek, klase botereetsuen interes partikularrak adierazi eta estaltzeko balio duen. Ideologia uler daiteke praktika eta sinesmenen patroik bezala, zeinak ekidinezin edo natural bilakatu dituen indarrean dauden posizio sozialak (Eagleton, 2005).

62 *"las nociones que tan sólidamente banales nos parecen resultan construcciones ideológicas del nacionalismo"* (Billig, 2014:58) ["hain banalak iruditzen zaizkigun nazioak nazionalismoaren eraketa ideologikoak dira"]

nazio kide bilakatzeko dituen *habitusak*<sup>63</sup> birproduzitzen dituzte, hain zuzen ere, nazioaren biziraupenaren funts nagusietako bat izango direnak. Bizitza sozialeko egiturak (arrazionalki sortuak izan direnak jatorrian) errutinazkoak bihurtzen dira horrela. Estatu kideek mundu ikusmolde eta identitate ezaugarri zehatzei erantzuten dieten egitura kognitibo (ideologikoei) dagozkien praktikak burutzen dituzte eta ikuspegi eta identitate horiek modu naturalizatuan bereganatuz Nazio-Estatuaren ordena sinbolikoa erreproduzitzen dute horien bidez<sup>64</sup>.

Nazionalismoaren ideologia zabalduz doan heinean, beraz, Aro Garaikideko sen ona ere birmoldatuz doa, "egunerokotasun ideologizatuaren" produkzio eta

63 Egunerokotasuneko disposizio, praktika eta errutinei dagokie *habitus* kontzeptuak. Bourdieuren hitzetan *"historia incorporada, naturalizada y, por ello, olvidada como tal historia, el hábitus es la presencia activa de todo el pasado del que es producto"* (Bourdieu,1991:56) ["Habitua da barneraturiko, naturalizaturiko, eta ondorioz, ahazturiko historia. Habitua bera sorrarazi duen iraganaren presentzia aktiboa."]

64 Badira hala pentsatzen ez dutenak ere, izan ere Anthony Giddens-ek dioenez, errutina balazta da nazionalismoarentzat, nazionalismoa ordenua edo errutina aztoratzen denean agertzen baita bere ustez, hots salbuespen kasutan, eta gizartea beraz ez da "berez" nazionalista. Baina ikuspegi honen arabera, nola ulertu behar da halako gertaerak ematen ez diren uneetan dagoen "nazionalismoa"? *"En realidad, cuesta aceptar que los eventos ocasionales aislados de la vida ordinaria basten para sustentar una identidad nacional que se recuerda continuamente. Parece más verosímil que en el estado-nación la identidad forme parte de una forma de vida más banal"* (Billig,2014:85) ["Egia esan kostatzen da onartzea ohiko bizitzatik aparteak diren noizean behinkako ekitaldiek aski gaitasun dutenik etengabe presente dagoen identitate nazionala sustatzeko. Sinesgarriagoa dirudi Nazio-Estatuaren baitan identitateak bizimodu banalarekin zer ikusia izatea."]

erreproduktiboen inguruko ahaztura kolektiboa ematez batera<sup>65</sup>. Hartara, kultura nazionalak (nazioen) mundua pentsatzeko forma oso bat dakar berekin, bere nazioa (eta horren baitako errealitate soziala) "naturalizat" erakutsiz, baina baita herrien arteko lotura eta harremanak edota nazio sistemaren betierekotasuna ere. Eguneroko bizitza nazioaren erreproduktiborako bitartekorik nagusia izateak esan nahi du, beraz, Nazio-Estatua eguneroko bizitza horren testuinguru "naturala" dela<sup>66</sup>, eta testuinguru hori probestuz nazioaren erreproduktiborako egunerokotasunaren lausotasunean eta ahanzturan oin hartzen duela. Edo bestela esanda, eguneroko jardura ohikoetan ideologia eta kultura nazional bat birproduzitzen dela, jardura horien artean koka daitekeelarik, zergatik ez, umorearen erabilera ere.

65 Honekin ez da esan nahi nazionalismoaren eraginak negatiboak direnik beti. Izan ere nazionalismoak dakarren identitate nazionala indartzea herriaren subiranotasunarekin lotua egon daiteke, esaterako, eta demokraziaren aldeko jarrerak eta neurriak bultzatzea eragin dezake.

66 *"Lo que es 'nuestro' se presenta como si fuera el mundo objetivo: es absolutamente concreto, absolutamente objetivo, absolutamente incontrovertido. En todos estos aspectos, las expresiones difieren de la agitación patriótica de la bandera. La patria se hace al mismo tiempo presente e inadvertida al presentarla como el contexto."* (Billig, 2014: 184) ["Gurea" dena objektiboa bailitzan agertzen da: era bat zehatza, objektiboa eta ez-eztabaidagarria. Ikuspegi honetatik, bandera patriotikoki astintzea bezalako keinuekin ez du zer ikusirik. Aberria, testuinguru gisa aurkezterakoan, ikusgarri eta oharkabekoa egiten da aldi berean."]



### 3.3.

#### NAZIOA (NUKLEO) IRUDIKATU MODUAN ULERTZEA

*"Sociedad unida por un común error sobre sus orígenes y una común aversión a sus vecinos"*<sup>67</sup>

Julian S. Huxley eta Alfred C. Haddon (Recalde, 1982-n ikusia)

Ikusi bezala, kultura nazionalak etengabe dihardu nazioaren ezaugarri eta berezitasunen nolokotasunaren aukeraketa eta doiketa egiten, hain zuzen ere, hautaketa horretatik ateratako zeinu, balio edota ezaugarrien puzzleak baldintzatzen duelako nazioaren praxia. Baina egunerokoan praktikatuak eta gauzatuak izateko, zeinu eta bereizgarrien sare horrek irudikatua izan behar du aurrenik, hots, nazio kideek argi izan behar dute zeintzuk diren haiei (endo taldeari) dagozkien ezaugarriak, eta ondorioz, zeintzuk taldekide ez direnek izango dituztenak.

Kultura nazionalak nazioaz egingo duen (auto)irudiak emango die horren berri nazio kideei: "gu" zein "garen", nola elkartu edo osatu "ginen", komunean zer "dugun", edota nolako izaera "dugun" ezagutu eta irudikari komun horretatik/horretan jarduteko aukera eskuratzen baitute. Horri esker, batetik, nazioa egon badagoenaren ziurtasuna lortzen dute, eta bestetik, taldetasun komun baten parte izatearen sinesmenak identitate jakin bat garatzea

67 ["Bere jatorriari buruzko akats komunak eta auzoari gorroto partekatua izateak elkartzen duen gizartea"]

ahalbidetuko die. Hain zuzen ere, identitatea egoteak nazioa birproduzituak duten elkarrekintzak sustatzen eta bideratzen lagunduko duelako. Hala gogorarazten digu Billigek: *"Si hay que reproducir el mundo de las naciones, entonces la nacionalidad debe ser imaginada"*<sup>68</sup> (Billig, 2014:40).

Benedict Anderson da nazio *irudikatuaren* ideia gogotik landu duen autoretariko bat (Anderson, 1993). Haren ustez nazioa komunitate politiko irudikatua, berez mugatu eta subiranoa da<sup>69</sup>. Andersonek adierazten du, nazio batek bere baitan izan ditzakeen gatazka edo ezberdintasun sozialez gain taldetasun eta kideetasun sentimendu horizontal bat mantentzen duela, gizartekideei berdina den zerbaiten parte direla sentiarazten diena. Hala, nazio kide bakoitzak zuzeneko harremana nazio horretakoak diren gutxi batzuekin baino ez eduki, ezagutzen ez duen beste gehiengo bat badagoela eta haiek ere nazio kide direla irudikatzen du. Nazioari loturiko irudikapen horien baitan daude, halaber, nazioaren egitura, geografia, kudeaketa edota instituzioen ezaugarritzea; oro har ezezagunak izan arren, estatu modernoak lortutako zentralitateak

68 ["Nazioen mundua erreproduzitzea beharrezkoa bada, naziotasunak irudikatua behar du izan"]

69 *"limitada porque incluso la mayor de ellas (...) tiene fronteras finitas (...) más allá de las cuales se encuentran otras naciones, (...) soberana porque el concepto nació en una época en que la Ilustración estaban destruyendo la legitimidad del reino dinástico jerárquico (...) y comunidad porque (...) la nación se concibe siempre como un compañerismo profunda, horizontal."* (Anderson, 1983: 24-25) ["[nazioa] mugatua da (...) horietan handienak ere mugak dauzkalako (...) eta horien bestaldean nazio berriak daudelako (...) subiraua da ilustrazioak erreinu dinastiko hierarkikoa deuseztatzen zuen unean sortzen delako kontzeptua (...) eta komunitatea da (...) nazioa beti hautematen delako laguntasun sakon eta horizontal gisa."]

sortu eta indartzen dituen bitartekoei esker (museoak, mapak, hezkuntza sistemak edota biztanleriaren zentsua), hurbilekoak, propioak eta ezagunak bailiran irudikatzen amaitzen direnak.

Nazioaren existentzia eta tasuna zehazten duena, neurri handi batean, kultura nazionalak sustatzen dituen irudikariak dira; kolektibo nazionalak partekatuko dituenak eta nazioaren existentziaren ziurtasuna eta kontzientzia emango diotenak.

Baina salbuespen bat jartzen du Andersonek bere proposamenean. Autorearen ustez komunitate guztiek ez baitituzte halako irudikariak behar, eta adibidetzat hartzen ditu kide guztien arteko aurrez-aurreko harremanak gauzatzea posible diren komunitate txikiak. Andersoni arrazoi emanez tamaina txikiko komunitate tradizionalak ari da Hobsbawm ere nazioaz honakoa dioenean: *"es una comunidad imaginada [que llena] el vacío emocional dejado por la retirada o desintegración, o la no disponibilidad de comunidades y redes humanas reales"*<sup>70</sup> (Hobsbawm, 2004: 55). Autoreek ulertzen dute nazioa eratzen dela taldekideen zuzeneko harreman "errealak" gauzatzea ezinezkoa den kasuetan. Alegia, handiegiak diren taldeetan.

Baina, hain zuzen ere, alderantzizkoa defendatzen dute zenbaitzuk. Louis Althusser-en ustetan, adibidez, Hobsbawm-en planteamenduak, arazo paradoxiko bat sortzen du. Izan ere, errealitate oro ezagutzeko gai ez izateak, ezezaguna den horrekiko berehalakotasuna eskaintzen duten lotura identitarioak sortzeko aukera ematen du, eta

70 ["Errealak diren harreman sare eta komunitateen desagertze edo urruntzeak sortutako hutsune emozionala [betetzen] duen komunitate irudikatua da"]

beraz, Hobsbawmek ez bezala, zenbait errealitate "ezagutu ezinak" izateagatik "existitzen" direla (hots, errealak direla) defendatzen du (Althusser, 1999). Irudikapenak ulertzeko bestelako bide bat zabaltzen du azken hausnarketa horrek. Ezezaguna den errealitatea osatzeko (Anderson) edo erreala dena ordezkatzeko (Hobsbawm) gaitasuna izan dezaketela ikusteaz batera, Althusserrek dioena kontuan hartuz, irudikapenen bidez errealitatea *sortu* ere egiten dela uler baitaiteke.

Baina errealitate jakin batzuk ezagutzeko gai ez izanagatik irudikapenek errealitate ezezagun hori sortzeaz gain (Althusser), "existitzen ez diren bestelakoak" ere "osatuko" dituztela proposatu nahi da lan honetan, eta nazioaren kasuan, errealitate sozial izatea eta hala erreproduzitzea ahalbidetuko duelako iritziari eusten diogu.

*"En lugar de refutarla confrontándola (...) más valdría atender a la materialidad de esa imagen y a su capacidad configuradora de su realidad, que es, ella misma, un hecho real en tanto produce efectos, transformadores o reproductivos, en la realidad."*<sup>71</sup> (Catanzaro, 2011:39)

Baina nola eratzen da errealitate bat irudikari kolektibo baten bitartez? Identitatearen inguruan Judith Butler-ek egindako lan mardulak erantzun bat ematen diote galdera horri (Butler, 2001, 2009, 2010).

Generoaren inguruan egindako hausnarketa mamitsuetan gehiegi sartuko ez bagara ere, interesgarria

71 ["Hobe litzateke ukatzen saiatu beharrean (...) irudi horren materialitatea kontuan izatea, bai eta errealitatea eratze gaitasuna aintzat edukitzea. Errealitatea eraldatu edo birproduzitu dezaketen efektuak sortzen dituen heinean, irudi hori ere erreala baita."]

egin zaigu *queer* teoriaren baitan identitateen performazioak autoreak egiten duen planteamendua berreskuratzea. Ikuspegi post-estruturalista batetik abiatuz, Butlerrek adierazten du generoa ulertu behar dela konstrukzionismo vs. esentzialismo dikotomiaz harago, eta proposatzen du *naturalizatua izan den eraketa sozial* gisa antzematea. Hau da, autoreak dio identitateak modu erlazional eta interaktiboan eraikitzen direla, hots, harreman sozialei (eta nahi bada botere-harremani) lotuak daudela, eta ondorioz, ez direla *substantzialak*, biologiak edo naturak "berez" sortu eta zedarrituriko ezaugarri izatetik urruti baitaude.

Baina eraikiak badira ere, esentzializaturiko alde bat ere badutela dio autoreak. Izan ere, genero identitateak (eta identitate guztiak oro har) indarrean egotea lortzen badu(te), berezkotasun eta "izate" jakin bat (esentzia bat) egon badagoelako ustea sorrarazten dutelako da. Butlerren ustez, "egiazkoa" den esentzia bat dagoela sinesteak eta esentzia horri ezaugarri batzuk edo beste batzuk esleitzeak baldintzatuko dute genero batekoa edo besteko izatearen eguneroko praxia. Identitatea, funtsean, irudikari, sinemen eta diskurtso desberdinez elikaturiko nukleo esentzial bat dagoela pentsatzeak abiatzen du, eta uste horrek, identitate horri dagozkion subjektuen (edo identitate horren parte izan nahi dutenen) praktikak (keinuak, izaerak, jarduerak, harremanak, diskurtsoak...) baldintzatuko (mugatuko, zuzenduko) ditu. Hala, identitatea irudikatutako nukleo horren/horrekiko kopia pragmatikoan gauzatzen da, identitatearen esentziatzat jotzen den irudikapen paradigmatico horren errepresentazioa imitatzen *formatzen* delarik.

Horrenbestez, identitatea sortzen da jatorrian irudikatze eta idealizatzeko dugun modu horretatik eta horrengan sinetsita, identitate hori bereganatzeko saiakera amaiezina batean subjektuak irudikapena etengabe erreproduzitzen du bere egunerokotasuneko jardunean.

*"cuando se entiende la identificación como una incorporación o fantasía hecha realidad queda claro que la coherencia es anhelada, esperada e idealizada, y que esta idealización es efecto de una significación corporal. En otras palabras, actos gestos y deseo crean el efecto de un núcleo interno o sustancia."*<sup>72</sup> (Butler, 2001:266)

Identitateak izateko era jakin bat dagoelako ilusioa sortzen duen atzeraeraginezko nukleo gisa funtzionatzen duenez, uler daiteke *originaltasun baten mitoaren imitazioa* dela, zeinak ez duen aintzat hartzen *original* hori ere "kopia" denik (Butler, 2001: 95); inork eskuratzerik ez duen eta hala ere etengabe imitatzen den asmatutako diskurtso baten inguruan sortutako nukleo bat. Generoa, beraz, ez du "egiazkotzat" edo "gezurrezkoztzat" jotzen Butlerrek, horren ordez, diskurtso jakin baten *egiazko efektuak* direla dio, hots, gorputzetan kokatuak eta islatuak (*performatuak*) geratzen diren asmatutako diskurtsoak edo irudikariak, zeinak, sistemaren botere-harremanak eta nagusitasuna (kasu honetan hetero-normatiboarena) mantentzen laguntzen duten fikzio erregulatzaile gisa jokatzeko duten.

Baina badago determinismo identitario horretatik ihes egiterik. Izan ere autorearen ustez identitatea gisa horretan ulertzeak aukera ematen du identitatea bestela birproduzitzeko (*subertitzeko*) aukerei ateak zabaltzea. Identitateen eraketa prozesuaz jabetuta, dio autoreak, agerian geratzen da identitate eraketa prozesuak duen kontingentzia, eta ondorioz, ikusgarri egiten da norbanakoak

72 ["identifikazioa egi bihurtu den inkorporazio edo fantasia gisa ulertzen denean, argi ikusten da koherentzia desatzen, itxoiten eta idealizatzen den zer edo zer dela, eta idealizazio hori gorputz signifikazio batek sortua dela. Bestela esanda, ekintzak, keinuak eta desioak, barne nukleo edo sustantzia bat dagoelako efektua sortzen dute"]

beretzat nahi duen identitatea osatzeko ahalmen eta eskuduntza duela, bai eta, subjektu bakoitzak nahi dituen ezaugarri hornitu (edo hustu) dezakeela bere identitatea. Baina autoreak ez du kontuan hartzen eragin sistemiko eta egiturazkoak identitateen osieran duten zuzeneko esku-hartzea (Braidotti, 2000), zeinek nukleo ideal horrek dituen edukiak botere-harreman, merkatu arau edota kontrol sozialari erantzuten dioten eduki hegemonikoz betetzen duten. Praktikan, beraz, lan konplexua bilakatzen da norbanakoak "nahi bezalako" identitate partikular baten eraketa egitea, nahiz eta beti dagoen nukleo politizatu eta erreflexiboki jokatzeko aukerarik. Izan ere eskuarki:

*"Todas las sociedades premian la adaptación (la 'modulación') a los principios rectores de los intercambios que la constituyen: a sus 'valores'. Sean cuales sean. Nos esforzamos por ser alguien según esos valores, ser alguien a la luz de esos principios. De poseer una identidad según la norma."*<sup>73</sup> (Apodaka eta Villarreal, 2004: 10)

*Norma* (edo Butlerren kasuan *nukleo*) hori, ordea, ez da genero identitatara lotua egon behar halaberharrez, baliagarria da bestelako identitateak ulertzeko ere, eta hala jartzen dute agerian zenbait autorek, hain zuzen ere, nukleoaren ideia horixe nazio identitatea azaltzeko erabili dutenak. Montserrat Guibernau-k, esaterako, identitate nazional bera konpartitzen dutenek, maila desberdinetan

73 ["Gizarte guztiek saritzen dute haren oinarrian dauden funtsezko printzipioetara egokitzea ("modulaztea"): haren balioetara moldatzea. Horiek edozein direlarik ere. Balio horien arabera norbait izaten saiatzen gara, printzipio horien pean inor izaten. Normaren arabera identitate bat edukitzea"]

bada ere, komunak diren historia edo kultura batean sinesten dutela adierazten du (Guibernau, 2008: 209); ahaidetasunak, hizkuntzak, lurraldetasunak edota sortze ekintza, zein etorkizun konpartitu baten sinemenak, nortasun jakin bat ematen dielarik bertako kideei:

*"cada identidad nacional parece tener un núcleo formado por una serie de elementos clave formado por los símbolos, los valores, la cultura y la lengua, las tradiciones y las memorias colectivas que comparten los connacionales."*<sup>74</sup> (Guibernau, 2008: 209)

Hala, autoreak dioten moduan, identitate nazionalak ere nazio kideek partekatzen dituzten zeinu eta balio komun batzuek osatua dagoen nukleo bat izango luke. Ideia horietatik abiatuz, urrats bat gehiago eman nahiko genuke zentzu horretan eta identitate nazional bat ez ezik, irudikapen partekatu horiek nazio bera sostengatzeko ere balio dezaketela diogu. Izan ere, Butlerrek aipatzen duena kontuan izanik, uste komun horien arabera praktika sozialak burutzerakoan gizartekideak beren identitate nazionala formatzen dute, baina horrekin batera, errealitate nazional jakin bat ere (bir)sortzen ari dira. Beraz, nazioaren inguruko usteak gizartekideen praktikak arautzearekin batera, praktika horien arabera dimensio ontikoa eskaintzen diote nazioari.

Esparru horren bueltan dabil Hugh Seton-Watson honakoa diotenean: *"a nation exists when a signify cant*

74 ["Badirudi identitate nazional guztiek badutela haien nazio kideek partekatzen duten sinbolo, balio, kultura, hizkuntza, tradizio eta memoria kolektiboari dagozkion elementuz bete dagoen nukleo bat"]

*number of people in a community consider themselves to form a nation, or behave as if they formed one*"<sup>75</sup> (Seton-Watson, 1977: 5). Hots, Butlerrek genero identitatearekin dioen bezala nazioa badagoela sinesteak eta sinemen horretan ezaugarri jakin batzuk egozteak (nukleo konkretu bat) nazioaren performazio jakin bat egitea suposatuko luke, identitate nazionala ez ezik nazioa bera ere eraikiko litzatekeelarik. Beraz, nazioa eskuraezina den baina existitzen delako ziurtasunez hautematen den nukleo irudikatu gisa funtzionatzen duela diogu.

Uler daiteke, beraz, nazioa egon badagoela esateko oinarritzko faktoreak ez direla taldearen ezaugarri hautemangarriak, taldeak berak bere buruari buruz dituen irudiak baizik (Connor, 1998:45). Hain zuzen ere,

eta Butlerrek aurkezten duen identitateekiko ikuspegia nazioaren birprodukzioaren azalpenerako baliagarritzat joaz, irudikapen horiek nazioaren bestelako egitura edo errealitate "objektiboen" osaketaren jatorrian daudela uler daiteke<sup>76</sup>. Hau da, nazioa egotekotan, haren inguruko irudikapenak daudelako da: *"La nación como tal no tendría realidad propia al margen de sus imágenes y las representaciones que de ella se hacen."*<sup>77</sup> (Anderson, 1993:247). Horrekin ez da esan nahi, ordea, nazioa irudikapen soilak denik. Maila horretan Andersonen azken hitzok tentuz irakurri beharrekoak direla uste dugu. Izan ere, nazioa irudikapenik gabe existituko ez litzatekeela defendatzeaz gain, irudikapenez haratago doan naziorik ez dagoela ere esaten baitu autoreak.

76 Ideia hauxe landuko du Billigek Nazio-Estatuaren kasuan: *"El sistema de estados-nación contiene algo absolutamente irregular. Los estados-nación adoptan todas las formas y tamaños (...) Tampoco la amalgama es reflejo de alguna lógica lingüística o religiosa subyacente (...). Tal vez se hayan dado cita fuerzas históricas para generar el estado-nación como forma de gobierno lógica de la modernidad. Sin embargo, la forma en que se ha establecido en la práctica ese principio lógico parece haber venido acompañada de una testaruda anarquía (...). Si las variables 'objetivas', como las relacionadas con la lengua, la religión o la geografía, no son capaces de predecir donde se deben trazar la fronteras de los Estados, se debe suponer entonces que las variables decisivas son las 'subjetivas'"* (Billig, 2014:48) ["Nazio-Estatuen sistema irregularra da. Nazio-Estatuak edozein forma edo tamaina har dezakete (...) haien nahasteak ere ez dagokio azpian dagoen logika linguistiko edo erlijioso bati (...). Behar bada, Nazio-Estatua modernitateko gobernu forma izatea indar historikoen elkarretaren ondorioa da. Baina printzipio logiko hori praktikan modu anarkikoan gauzatu dela dirudi (...). Aldagai 'objektiboak', hizkuntzarekin, erlijioarekin edo geografiarekin lotuak daudenak, esaterako, estatuen mugak non ezarri behar diren aurreikusteko gai ez badira, oinarritzko aldagaiak 'subjektiboak' direla ondorioztatu behar da."]

77 ["Nazioak haren irudiez eta hartaz egiten diren errepresentazioez aparte, ez luke bere horretan errealitate propioirik izango"]

75 ["nazio batek existitzen duela komunitate bateko kideen artean gehiengo batek nazio baten parte dela sentitu edota hala izango balitz bezala jokatzeko duenean"]

Anderson nazioa errealitate soziologiko gisa planteatzen duen ideia modernoaren aurka dago. Nazioak, egiten zaizkion errepresentazioez gaindi inolako errealitateirik ez duela pentsatzen baitu, eta subjektuek irudikapenetan sinets dezaketela ulertzeaz gain, irudikapenen mundura mugatzen du nazioaren errealitatea, oro har (Smith, 2000).

Lan honetan aurkezten den nazioaren proposamena ez da azken irakurketa horrekin bat etortzen. Izan ere, Andersonen *komunitate irudikatuaren* ideia abiapuntutzat hartu bada ere ez da nazioa irudikapenen hertsitasunera mugatu nahi, hots, nazioa ez da irudikapen soil gisa ulertzen. Aitzitik, nazioa errealitate sozial gisa ulertzen dugu, nazioak egiten den irudikariaren performazioak erreproduzitzen duena, eta ondorioz, irudikapenetatik harago dagoen (independentzia duen) errealitatez josten dugu. Edonola ere, nazioa osatzen (*performatzen*) duten bestelako tresna eta prozesuak egon badaudela onartzen badugu ere<sup>78</sup>, aipatu berritakoa aintzat harturik, irudikapenak nazio eraketarako ezinbesteko osagaitzat jotzen ditugu.

3.3.1. *Estatu propioirik gabeko nazioen kasua: nukleo irudikatuen aniztasuna* .....

Performatzen den nukleo irudikatu bezala kontsideratzean, nazioa nukleoan dauden edukien arabera eratu dela ulertzen da, eta beraz, Andersonek dioen moduan, nazioen arteko aldeak, nazioa irudikatzeo dauden modu desberdinek markatzen dute (Anderson, 1993).

78 Kontuan hartu behar da, nolahi ere, nazioak eraketa sinbolikoaz gain bestelako prozesuak ere izan ditzakeela: ekonomikoak, politikoak, administratibo edo judicialak, kasu.

Irudikapenak ere kulturaren parte diren mailan, estatuaren kultura nazionalak (hegemoniko denak) esku hartze zuzena du bere nazioari dagozkion irudikari autoerreferentzialen aukeraketan, eta beraz, kultura nazionala da, neurri handi batean, nukleo horien edukia sailkatzen eta hautatzen dituen. Kultura nazionalak gizartekideen historia, erritu, hizkuntza edota ohituren ezarpenarekin egin bezala, nazio kideek beraien buruaz izan beharreko irudia ere osatzen du eta estatuari komeni zaizkion ezaugarriez hornituriko nazioaren irudi paradigmaticoa eraikitzen du horren bitartez.

Baina nazioen homogeneotasunaren atalean aipatu bezala, Nazio-Estatuak orokorrean ez dira trinkoak, eta kultura, erlijio, etnia edo hizkuntza desberdinak dituzten kolektiboak izanagatik Nazio-Estatu baten baitan errealitate soziala eta nazioa hautemateko modu desberdinak topa daitezke usu.

Nazio-Estatuaren baitako nazioa(k) ez d(ir)a homogeneoa(k) izaten, *plurietnikoak* baizik (Perez Agote, 2001:2). Kultura hegemonikoak ildo nagusitik aldentzen diren kolektiboen ikuspegiekin elkarbitzitan ibili behar du maiz, bai eta ikuspegi hegemonikoak intentsitate edo modu desberdinetan esperimendatzen dituztenen perspektibak kudeatu ere. Izan ere, aukeren aniztasunak *nazio identitate konposatuak* (Guibernau, 2008:207) sor daitezeko ahalbidetzen du, eta hori arriskutsua izan daiteke Nazio-Estatuaren biziraupenerako. Hartara, kultura hegemonikoak (Nazio-Estatuak kultura nazional modura izendatzen duena) etengabe saiatzeko da hari dagozkion kultura eta identitate osagaiak inplementatzen, egin behar horretan bere biolentzia zilegia erabiliaz estatua (ustez) arriskuan jartzen duen aniztasunaren kontrola burutuz.

*"la imaginación dominante es ejercicio presente de la violencia, y no es solo en tanto violencia ejercida sobre otras imaginaciones –reprimidas por el texto dominante– sino, también, en tanto violencia negada y encarnada en la afirmación de la positividad (imaginada) de este presente que cree estar más allá de una violencia pasada."*<sup>79</sup> (Benjamin, 1998: 42)

Nazio-Estatuaren baitan hegemonikoa ez den nazio kasuren bat ematekotan estatuak bere esku dagoen guztia egiten du beratu neutralizatu edo integratzeko, jarduketa horretan bere kultura nazionala moldatzen joango delarik: bai bestelako nazio hori "gutxietsiz" (errepresio, zentsura edo zilegitasun politikoa kenduz, adibidez), edota "beregantzeko" ahaleginak eginez (kulturalki kolonizatuz, adibidez) (Krebs, 2010).

Baina ahalegin horiek era bat funtzionatu bitartean, "bestelako" nazio horren kide (sentitzen) direnek Nazio-Estatuak bultzatu nahi duenarekiko bestelakoa den errealitate baten nukleo irudikatua konpartitzen dute. Hau da, ez da soilik hegemonikoa ez den ikuspegi bat dutela (nazioa ulertzeko modu desberdinak dituzten estatuen kasuetan bezala), baizik eta Nazio-Estatuari ez dagokion bestelako nazio bat izaterakoan, estatuari ez dagokion bestelako nukleo irudikatu bat ere partekatzen dutela (horrek berekin dakartzan errealitate nazionalen performazioekin, noski).

Estatu propioirik ez izanagatik, ordea, nazio horrek nekez garatzen du berezko kultura nazionala, ez soilik estatu

79 ["dominatzailea den irudikaria biolentzia ariketa bat da, eta ez soilik bestelako irudikarien gainean sortzen den biolentzia delako -testu dominatzaileak erreprimituak daudenak- baizik eta baita ukatua den biolentzia delako. Hots, iraganeko biolentziarekin zer ikusirik ez duelako baieztatzen gautzen delako."]

subiranoak jartzen dizkion oztupoengatik (horregatik ere bai), baita estatu propioirik gabeko nazioaren baitan botere zentralizatu ez egotean (oinarri instituzional sendorik ez izatean) nazioaren gainean eragile gehiagok esku har dezaketelako ere, eta beraz, nazioarekiko ikuspegi eta iritziak anitzagoak direlako (Larrinaga, 2012:92)<sup>80</sup>. Hala, kultura nazional hegemonikorik egon badaiteke ere eragile eta ikuspegi desberdinen arteko talkak ugariagoak eta esanguratsuagoak dira azken kasu horietan eta egoera horren ondorioz, estatu propioirik gabeko nazioek nekezagoa dute nukleo irudikatu komun baten eraketa burutzea eta horren arabera jardutea. Aipatu behar da halaber, estatu propioa duten nazioek "polo aniztasunik" izan badezakete ere, horien eragina estatu propioirik gabeko nazioena baina ahulagoa dela, hain zuzen ere kultura nazional hegemonikoaren eragina askoz handiagoa delako.

Hori kontuan izanik, beraz, estatu propioirik gabeko nazioen nukleo irudikatuak (eta behar bada maila apalagoan baita nazio propioa dutenena ere) *zentro anitzekoak* edo *multipolarrak* direla proposatzen dugu. Hau da, nazioarekiko irudi zentralizaturik ezean nazioa ulertu, irudikatu eta ondorioz bizitzeko modu desberdinen arteko indar korrelazioak estatu propioa duten nazioen kasuan baino agerikoagoak dira, eta ondorioz, nukleo irudikatua ezaugarritzen duena ez da besteen gainetik nabarmenki nagusitzen den diskurtso hegemoniko bakar bat, baizik eta irudikari desberdinen arteko artikulazioen sarea. Halaber, artikulazio horietan nagusiagoak eta azpiratuagoak dauden irudikariak egon badaitezke ere, diskurtso anitzen arteko

80 Edonola ere, ez da ahaztu behar estatu propioirik gabeko nazioen kasuan ere, kultura nazional zentralizatu bat eratzen dela. Edo bestela esanda, nazioarekiko ikuspegi guztiek ez dutela balio eta zilegitasun maila bera izango, nahiz eta estatu propio bat ez izanagatik, kultura nazionalaren bidez bultzatu nahi den homogeneotasun hori eskuratzea zailagoa den halako kasuetan.

interakzio etengabeak ematen direnez, botere-harremanak aldaraztea edota momentu jakin batean diskurtso bat nagusiaraztea lorgarriagoa da kasu hauetan.

Motzean beraz, ulertzen dugu nazioa "bakarra" bada ere, irudikari desberdinen arteko (eta maiz kontraesankorren) eduki eta elkar harremanek osaturiko nukleo sinboliko aberats eta aldakorra duela muinean (multipolarra), bere baitako eduki eta botere-harremanen arabera nazioa etengabearen performatzen dutena<sup>81</sup>. Hala, ikuspegi honetatik proposatzen dugu euskal nazioa ere hainbat ezaugarri desberdin eta interakziok osatua dagoen nukleo irudikatu multipolar gisa uler daitekeela.

Ondoko kapituluaren egin da euskal nazioaren inguruan eraiki diren irudikarien bilakaeraren laburpen bat, zeinak, aniztasun eta aldakortasun horren testigantza jasotzen duen.

81 Kontu hartu behar da nukleo irudikatuaren polo aniztasuna ideologia edo korrante politiko desberdinekin ez aldaratzearekin. Jakina da korrante bakoitzak nazioarekiko ikuspegi bat helarazten duela, eta diskurtso horiek ere osatuko dute nazioaren nukleo irudikatua. Baina ikuspegi horiez haratagoko irakurketak ere egon badaude, ildo politiko zehatz bati ez dagozkionak halabeharrez, edota korrante politiko desberdinek proposatzen dutenaren arteko konbinazioak egiten dituztenak adibidez. Hartara, harremana badute ere (eta neurri batean baita baldintzatua badaude ere), nazioaren nukleo irudikatua aberatsagoa da bere aniztasunean gizaratean dauden joera politikoak baino.

### 3.4.

#### EUSKAL NAZIOAREN NUKLEO IRUDIKATU MULTIPOLARRAREN BILAKAERA HISTORIKOAREN BERRIKUSKETA

*"Está claro entonces que la pregunta por la construcción de nación implica conocer las experiencias de autclasificación de los actores, pero que en ellas es necesario detectar las relaciones materiales de interdependencia y, sobre todo, las vinculaciones emocionales que las sostiene y justifican."*<sup>82</sup>

(Bolívar, 2005: 96)

Euskal nazioaren inguruan historikoki eraiki diren irudikarien bilakaeraren laburpen bat proposatzen dugu atal honetan. Ondoko berrikusketan bi gauza jarri nahi dira agerian. Batetik, euskal nazioari historikoki atxiki zaizkion ezaugarriak nolakoak izan diren eta nola aldatuaz joan diren agertu nahi da. Ulertzen dugu aberasgarria dela gaur egun erabiltzen diren irudikariak prozesu historiko baten momentuko emaitza direla gogoratzea, bai eta etorkizunean egongo direnen aurrekari ere, eta beraz, ez direla zorizko kreaio espontaneoak, aitzitik, motibo edo gertakari baten/batzuen ondorio, testuinguru sozial eta gertaera historikoekin lotuak daudenak era bat.

82 ["Nazio eraketaren inguruko galderak berekin dakar aktoreen autklasifikazio irizpideak ezagutu beharra. Horietan antzeman behar dira elkar menpekotasunerako harreman materialak, eta batez ere, horiek 'justifikatu' eta iraunaraziko dituzten lotura emozionalak"]

Testu honetan azaldu nahi den bigarren puntua, hain zuzen ere, azken ideia honi dagokio. Euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarraren osaerak uanean uneko gertaera historikoekin, eta zehazkiago nazio eraketa prozesuekin, izan duen hartu-emanan agerian jartzea bilatzen baita. Aurreko kapituluaren esandakoa gogora ekarriaz kontuan hartzen dugu kultura nazionalak esku hartze handia duela ohikotasuneko praxian, eta ulertzen dugu umoreak, egunerokotasuneko praktika den heinean, eragin hori ere jasotzen duela. Ondorioz, bata eta bestearen artean (up eta nazio eraketaren artean) historikoki eman diren loturak ezagutzeak gaur egun daudenak hobe ulertzen lagun dezaketela uste dugu. Horretarako, espainiar eta euskal nazionalismoek<sup>83</sup> garatzeko historikoki erabili dituzten diskurtsoak hartu dira kontuan eta up-ek (eta bereziki bertan erabilitako euskal nazio irudikariekin) horiekiko zer nolako loturak izan dituzten (edo ez) bistaratu da.

- *Euskal eta espainiar nazioen eraketa diskurtsiboak eta up-ak*

Euskal nazioaren nukleo multipolarra osatzen duten irudikariak noiz eta nola sortzen diren zehaztea ezinezko lana da. Izan ere, ziurrenik, nazio gisa kontsideratua izan aurretik ere, gaur egun Euskal Herri deritzogun honetan elkarren ondoan bizitu ziren aurreneko leinu edo etniekin kultura eta bereziki mundu sinboliko baten jabetza izango zuten. Eta ondorioz, bestelako kolektiboan edota haien buruaren inguruko irudikariak (usteak, ikuspegiak, beldurrak, sinesmenak, ea.) bazituztela pentsatzea

83 Testu honetan, garrantzia gehiago hartu dute espainiar edo euskal nazionalismoko adibideek, frantziarrek baino. Izan ere, 4. Metodologia atalean azaltzen den moduan, lan honetan aztertu den lagina Hego Euskal Herrian kokatutako up-ek osaturik dago gehien bat, eta beraz, Hego Euskal Herriko bilakaera nazionalari garrantzia emateko autua egina da.

zentzuzkoa dirudi. Beraz, euskal nazioaren<sup>84</sup> inguruko irudikariak aspaldikoak eta askotarikoak izan badaitezke ere, gutxi batzuen berri baino ez dugu, hain zuzen ere bere garaiko idazki eta liburuetan jaso ziren horienak baino ez.

Halakoen adibide esanguratsuenetariko bat baita ezagunenetarikoa dena ere, Aymeric Picaud fraide beneditarrak idatzitako *Codex Calistinus*-en bosgarren alean topa daiteke. XII. mendean idatzirikoa Santiago bidearen gida liburu horretan, honakoa zioen fraideak euskal nazioaren inguruan:

*"Esta tierra es bárbara por su lengua, llena de bosques, montuosa, desolada de pan, vino y de todo alimento del cuerpo, salvo el consuelo de las manzanas, la sidra y la leche. (...) Los navarros y los vascos son muy semejantes en cuanto a comidas, trajes, y lengua, pero los vascos son algo más blancos de rostro que los navarros. Estos se visten con paños negros y cortos hasta las rodillas solamente, a la manera de los escoceses, y usan un calzado que llaman albarcas, hechas de cuero con pelo, sin curtir, atadas al pie con correas, que sólo resguardan la planta del pie, dejando desnudo el resto. Comen, beben y visten puercamente. Pues toda la familia de una casa navarra, tanto el siervo como el señor, lo mismo la sierva que la señora, suelen comer todo el alimento mezclado al mismo tiempo en una cazuela, no con cuchara, sino con las manos, y suelen beber por un vaso. Si los vieras comer, los tomarías por perros o cerdos comiendo. Y si los oyeses hablar, te recordarian el ladrado de los perros, pues su lengua es completamente bárbara. A Dios le llaman urcia; a la Madre de Dios, andrea María; al pan, orgui;*

84 Garai hartan, noski, testuan "euskal nazio" moduan izendatzen dugun errealitatea ez zen "nazio" gisa identifikatzen ("nazioa" kontzeptu modernoak baita), eta "herri" edo "komunitate" lez izendatzen zela esatea zuzenagoa litzateke. Edonola ere, irakurketa erraztearren, hasiera batetik "euskal nazio" adiera erabiltzea egokitzat jo dugu.

*al vino, ardim; a la carne, aragui; al pescado, araign; a la casa, echea; al dueño de la casa, iaona; a la señora, andrea; a la iglesia, elicera; al presbítero, belaterra, lo que quiere decir bella tierra; al trigo, gari; al agua, uric; al rey, ereguia; a Santiago, iaona domne lacue."*<sup>85</sup> (Codex Calixtinus, 5. liburua, VII. kapitulua)

Garaiko euskal nazioa deskribatzen duen adibide eder bat da honakoa, bizi ohitura eta kulturaren ezaugarri esanguratsu batzuk agerian jartzen dituena. Eta ez da bakarra, gaur egun badira halako adibide gehiago eskuragarri, euskal nazioa ezagutu zuten bidaiariek edota garaiko kleroei buruz idatzitakoak, eta gehiago edo gutxiago, orduko gizarte baten inguruko irudikariak islatzen dituztenak. Baina lagina dezente urritzen da euskal nazioaren inguruan eginko up-etan erabilitako irudikariak topatu nahi direnean. Apenas daude jasoak XVII. mendea baino lehenagokoak diren euskal nazioaren

85 ["Zonalde hau basatia da duen hizkuntzagatik, basoz bete, menditsua, ogi, ardo eta bestelako oinarriko elikagai gabekoa, sagar, sagardo eta esnea salbu. (...) Nafarrak eta euskaldunak antz handikoak dira haien jaki, jantzi eta hizkuntzan, baina euskaldunek nafarrek baino azal zuriagoa dute. Trapu beltz eta motzekin janzen dira, belauetarainokoak, eskoziarren modura, eta abarka izeneko zapatak daramatzate, ileduen larruz eginak, ondu gabek, oinera sokaz lotuak, oinazpia babestuz soilik, gainontzekoa bistara utziaz. Narraski jan, edan eta janzen dira. Nafar etxeetako kide guztiek, jaun eta morroi, andre eta neskame, janari guztia kazola berean nahasian jaten dute, koilarerik gabe, eskuarekin, eta edalontzi beretik edaten dute. Jaten ikusiko bazenitu, zakur edo txerriat zenituzke. Eta hizketan entzungo bazenitu, zakurren zaunka gogoraziko lizuke, haien lengoia era bat basatia baita. Jainkoari, urcia deitzen diote; Jaungoikoaren amari, andrea María; ohiari, orgui; ardoari, ardim; haragiari, aragui; arrainari, araign; etxeari, echea; etxeoko jabeari, iaona; andrearri, andrea; elizari, elicera; presbiteroari belaterra, lur ederra, alegia; gariari, gari; urari, uric; erregeari, ereguia; Santiagori, iaona domne lacue."]

inguruko testu, antzerki edota istorio umoretsuak, eta jasoak dauden horietan ere, ez dira euskal umore etniko autoerreferentzialaren laginak izaten, baizik eta, "kanpokoek", hots, euskal kolektiboaren parte ez zirenek, sortutakoak (goiko adibidearen kasuan bezala)<sup>86</sup>.

Garai Barrokora hurbildu (urrundu) behar da euskal nazioaren inguruko up-en lehen *topikoak* ezagutzeko<sup>87</sup>. XVII. mendeko Espainian, antzerki eta istorio laburrei esker batez ere, lurralde desberdinei zegozkien lehen estereotipoak<sup>88</sup> zabaltzen hasi ziren, etorkizunean autonomietako topiko<sup>89</sup> bilakatuko ziren horietan, eta horien artean euskal nazioari zegozkionak ere indartsuki agertzen hasi ziren. Sonatuenetariko bat "biscayno"-arena.

XV. mende amaiera arte Euskal Herriko leinuen arteko gerrak ohikoak ziren (Ganboa eta Oinaztarren artekoak ezagunenetariko bat) baina Gaztela eta Aragoiko monarkiaren finkatzeak euskal gizartea ermandade deiturikoetan berregokitzea ekarri zuen, bai eta bertakoen

86 Datu faltagatik, ondoko orritan aipatzen diren up-ak ez dira autoerreferentzialak kasu guztietan, baina "besteen" begiradapean sortu diren umore diskurtsoak izanik ere, euskal nazioaren inguruko up-en irudikarien garapena ulertzeko esanguratsuak eta aberasgarriak diren ikuspegiak eskaintzen dituztela ulertu da. Hala, honakoak ere lanean kontuan hartzea erabaki da.

87 Gehiago jakiteko ikusi Fernando Garcés eta Jordi Vicente, 2013.

88 Estereotipo gisa bat gatzoz Raul Bejar Navarrokerekin (1981) honakoa dioenean: "*Los estereotipos son creencias exageradas, asociadas a una categoría, y cuya función primordial es justificar la conducta de un determinado grupo, en relación con esta categoría. La noción de estereotipo así concebida designa ideas sostenidas en forma subjetiva y exenta de crítica de un grupo social en relación a otro*" (Navarro, 2007:169) ["Estereotipoak kategoriatuak izan bati loturiko sinesmen esajeratuak dira, eta talde baten jokaerak justifikatzeko balio dute. Hala ulertuta, estereotipoak talde sozial batek beste batekiko dituen ideia subjektiboak eta hausnartu gabeei egiten die erreferentzia."]

89 Topiko gisa ulertzen da estereotipoak leku (topos) jakin bateko biztanleriari dagozkionean (Garcés eta Vicente, 2013)

kapare unibertsala onartzea ere, bake soziala bultzaraztea ekarri zuena. Gertaera historiko horiek abiapuntu izan ziren "biscayno"-aren irudikariaren osaketan, zeina, euskal kultura edo hizkuntza zuten guztien izendapen orokor bilakatu zen Espainiako Urrezko Aroan.

Bi moldeko "biscayno"-a irudikatzen zen orduko istorio eta antzerkitan: bata eskribau edo morroi umoretsu eta ironikoa zena, eta nabigatzaile abenturazale moduan, bestea (Garcés eta Vicente, 2013:220-223). Lehenari bi ezaugarri orokor esleitzen zitzaizkion. Batetik, "biscaynoa" pertsona ahobero eta kokin gisa aurkezten zuena, jaunxkilak bailiran jokatzen zuten morroi gisa irudikatu ohi zena. Honako irudikaria ez da kasualitatezkoa, zer ikusia baitu aipatu berri den kaparearen ezarpenarekin. Garai hartako euskaldunek zuten kondizio apalak noble gisa bizitzea galarazten zienez, pribilegio horrek izaera sinbolikoa zuen batik bat (Garcés eta Vicente, 2013:223). Hala, hauspotutako gizajo moduan irudikatzeak, alegia, kaparea edukitzeari zegokion rola ez betetzeak, umoretsu bilakatzen zuen "biscayno"-aren irudia<sup>90</sup>.

—

90 Honela dio euskal gizartearen apaltasuna defendatzen duen konbertsazio batek: "*Válgate por nobles zapateros, nobles carboneros, nobles sastres, nobles carpinteros, que oírlo solo, provoca la risa./- Pero válgate por nobles ociosos, nobles haraganes, nobles inútiles, incultos, inconvenientes de bulto, que, de verlos solo, provocan a vómito e indignación*" (Larramendi, 1969:139) ["-Zapatari nobleak, ikazkin nobleak, sastre nobleak, zurgin nobleak, entzuteak soilik barrea sortarazten dutenak. / -Okerrago dira, ordea, noble nagi, noble alfer, noble gauzaez, ezjakin, trabagarria, ikusteaz bakarrik botagura ematen dutenak."]. Aipu horrek agerian jartzen du garaiko euskaldunak noble izanik ere lan arruntetan aritzen zirela, eta hori lotsarako motibo gisa ikusi ohi zela. Hain zuzen ere, irakurketa horri buelta ematen saiatzen da autorea, eta lan egitea baino lotsagarriagozat jotzen du lanik ez egin eta alferkerian aritzen diren kasua.

Morroi ahoberoaren irudikariari, gainera, bigarren ezaugarri bat egokitzen zitzaion, kasu honetan, "biscayno"-aren hitz egiteko moduarekin zer ikusia zuena. Izan ere, orduko euskal gizartearen gehienak ama hizkuntza euskara izateagatik gaztelania ez jakitea edota jakitekotan kaskarki erabiltzea zekarren, euskal topikoaren umore ezaugarri gisa erabiltzen hasi zena. Morroi harro eta hizkuntza trakesduna zuen euskal kolektiboko kidearen irudia, beraz, ohiko bilakatu zen XVI eta XVII. mendeko antzerki eta kondairetan, eta behin betiko hedapena lortu zuen Bartolome de Torres Naharro-ren 1517ko *Tinelaria* komedia, edota Miguel de Cervantes-en 1605eko *Don Quijote de la Mancha* obrei esker.

Baina bazen "biscayno"-aren bestelako figura molderik ere, hain zuzen ere garaian mendialdeko biztanleriari egozten zitzaion irudiari<sup>91</sup> lotuagoa zegoena. Alegia, "biscayno"-a indartsu, basati, landatar eta adoretu lez irudikatzen zuena. Molde horretako irudikariak eskulan gogorretan (errementari eta itsasgizon) abila eta oso abenturazalea zen pertsonaiaren irudia indartzen zuen, eta gehienez, garaiko espainiar Koroari estuki lotuta ageri ohi zen; haren indarra eta "odola", espainiar monarkiaren zerbitzura jartzen zuen guda gizon gisa.

Koroarekiko fideltasun horrek izan bazuen oinarri errealik ere. Gogoan izan behar da XVI-XVIII. mendeetan zehar, garaiko euskal gizarteko kideak, Espainiak buruturiko gerra, konkista eta kolonizazioetan parte hartze zuzena izan zutela (Vaca de Osma, 2001), eta sarri, gerlari fidel eta adoretu izateak milizia haietan kargu garrantzitsuak betetzea ekarri zuela. Hala, garai hartan euskal gizarteak Espainiarekiko

—

91 Gaur egungo Euskal Herria, Kantabria, Asturias edota Galiziako biztanleria sartzen zen ikuspegi horren baitan

zuen hurbiltasun, onarpen eta identifikazioa handia zela ulertu behar da, eta horrek, haiekiko irudikapenak ez ezik haien auto-identifikazioa ere (identitate kolektiboa, alegia) baldintzatzen zuela. "*En la crónica del indígena Huamán Poma, para decir que un pueblo indio era leal, leemos: 'fiel como en Castilla los biscaynos'*"<sup>92</sup> (Garcés eta Vicente, 2013:221).

Identitate espainiar horren adibidetzat har daiteke, esaterako, Errege Katolikoek Granadako erreinua inbaditu ostean (1492-an), euskal gizarteak bereganatu zuen "odolaren purutasunaren" diskurtsoa. Garai hartan Errekonkistaren garaipenarekin eta judu eta musulmanen aurkako jazarpenaren ondorioz, odolaren purutasuna gai garrantzitsu bilakatu zen espainiar gizartearen baitan. Orduko euskal nazioko biztanleria penintsulako musulman eta judutar gutxien zegoen lekuetariko batean bizi zela ikusirik, burgoitu egiten zen kristau zahar eta espainiar Koroaren ordezkari "puruenetariok" izateagatik (Garcés eta Vicente, 2013:222)<sup>93</sup>. Eta hala, euskal nazioko gizartea haien burua espainiar gisa ikusteaz ez ezik, beste inor baino "espainiarrago" izateaz ere harro agertzen zen (Garcés eta Vicente, 2013); harrotasun horrek isla zuzena zuelarik haien "biscayno"-aren irudikarian ere.

—

92 ["Huamán Poma indigenaren kronikan honela adierazten da herri indio bat leiala dela: 'biscaynoak Castillan bezain fidelak'."]

93 Honela irakur daiteke gipuzkoarren "jatorotasuna" defendatzen duen testu batean: "*sabe que ninguno de ellos tiene sangre de moros, judíos, godos, romanos ni demás naciones, sino que todos conservaron la sangre primitiva, originaria, española, porque todos fueron vascongados guipuzcuanos*" (sic.) (Larramendi, 1969:145) ["badaki horietako bakar batek ere ez duela moro, judu, godu, erromatar edo beste edozein naziotako odolik. Aitzitik, denek gorde dute arbasoen odola, jatorritzakoa, espainiarra, denak baskongado gipuzkoarrak izan baitziren"]

Hurrengo mendeetan, euskal gizarteko kideei egotzi zitzaizkien topikoek ildo horri eutsi zioten, non, basati, adoretu, abenturazale, eta gaztelania trakeski hitz egiteak osatzen zuen haien irudia. Identitate mailan, ordea, bestelakotu egin zen egoera eta ordu arte ez bezalako aldaketa esanguratsuak jazo ziren euskaldunen "espainiartasuna" hautematean. XIX. mendetik aurrera nabarmendu zen egoera hura bereziki, Espainiarekin ordu arte izaniko lotura irmoa aldatzen hasi baitzen, eta argiki, euskal nazionalismoaren sorrerak zer esan handia izan zuen bilakaera hartan.

XIX. mendean Euskal Herrian (eta Bizkaian bereziki) eman zen Industrializazio prozesuaren eraginez jazo zen immigrazio hazkundeak, bai eta 1876an foruak kendu zituztenean eman zen krisi politiko gogorak ere, Europan mamitzen eta gauzatzen ari ziren ideia nazionalistak Euskal Herrian erretzea ekarri zuen. Sabino Arana zen euskal nazionalismoaren hasierako ideia eta diskurtsoari gorputza eman ziona eta berak ezarri zuen euskal abertzaletasunaren lehen doktrina politikoa, "*Euzkotarren aberria Euzkadi*" zela aurrenekoz baieztatuz. Sabinok bost elementu hartu zituen nazionalismoaren oinarritzat: hizkuntza, gobernu eta legeak, izaera eta ohiturak, nortasun historikoa, eta arraza. Baina guztien artean azkena, arraza alegia, jo zuen "euskal esentziaren" ezaugarri denak barne biltzen zituen kontzeptu gisa (Odrizola eta Zabalo, 2014: 70).<sup>94</sup> Hala, paradoxikoki, XVII-XVIII. mendeetan euskal gizartearen odol purutasunak eraikitzen hasita zegoen espainiar identitatea defendatzeko eta goraiatzeko balio izan zuen modu

—

94 Ez zen bakarra izan, Arana hil ostean ere bere diskurtsoa garatzen joan ziren autore gehiago egon baitziren. Iberoko Aita Ebanjelariak, esaterako, arrazaren eta odolaren garrantzia azpimarratzen jarraitu zuen



berean, arrazonamendu horrek berak kontrakorako balio zuen orain; hots, espainiarrengandik berezia zen gizarte eta identitate bat azpimarratzeko, hain zuzen ere.

Euskaldunaren inguruko topiko eta irudikari umoretsuak aldatzen hasi ziren horrekin batera, eta bereziki, identitatearen gaineko ikuspegi dagokienean. Euskal nazionalismoaren agerpenak euskal gizartearen identitate politikoan ez ezik, haietaz egiten ziren up-etan ere aldaketak eragin zituen. Hala, euskaldunen irudiak "mendialdeko biztanleriaren" irakurketa horren erroari heltzen jarraitu bazion ere (basati, indartsu, landatar eta hizkera baldarreko pertsona moduan hautematen jarraitzen baitziren) ez ziren jada Espainiarekiko fidel gisa irudikatzen, horren orde, espainiarrekiko *alter-ego*-an oin hartzen hasi ziren up-ak.

Garaiko Industrializazioak zuen inpaktu sozialaz baliatuz, Bilbo bilakatu zen txiste askoren habi. Euskal nazionalismoak euskal/espainiar arteko bereizketaren drunda piztu bazuen ere up-ak ez ziren "odolaren" irakurketara mugatu eta etorkinen presentzia esanguratsuak (Bizkaian bereziki) "kanpoko" eta "bertako" biztanleen kontrastea sortarazi zuen, bai eta ondorioz, hiri eta landa girokoen artekoa ere. Hala, umoretsua bazen, ez zen euskal gizarte ("odolez") espainiarraren desberdina zelako (hori ere bai), baina bereziki, espainiarrekiko desberdintasun horretan euskal gizarte ezgauzagotzat (gutxiagotzat) jotzen zelako baizik. Gertaera hura nahikoa izan zen up-ak eratzeko eta euskaldunen basatasuna agerian jartzen zuten up-ak Bilboko zein Espainiako burgesiarren dibertimenduaren parte bilakatzeko hasi ziren pixkanaka (Garcés eta Vicente, 2013). Berezi indartu ziren euskaldun zarpail, baserritar (modu peioratiboan), astakilo eta arlo-tearen irudiak, orduko euskal gizartearen gehiengo baten ohiko bizitzaren ezaugarriak (landa giroa, baserria, euskaraz mintzatzea, ea.) up-en "hausturarako" motibo bihurtuaz batera.

Egia da, bestalde, Industrializazioaren egoera horrek aurkako noranzkoan zihoazen up-ak ere sorrarazi zituela eta euskaldunek etorkinei eginiko irainak eta txistek ere ez zirela falta izan; "maketo" edo "belarrimotz" gisa deituak, atzerakoi, alfer edo ahohanditatzat jotzeagatik up-en itu ere izan baitziren immigranteak. Hala, pentsa daiteke mui berbera zutela up batzuek eta besteek: pare bat mende lehenagotik kolektibo berari zegozkion biztanleak elkar urruntzen/desberdintzen hasi baitziren orain, eta up-en erabilerak errealitate hori islatzeaz gainera, erreproduzitzeko ere baliagarri suertatzen zen. "Bestearen" ahultasun zein akatsak azpimarratuz (erasotuz) eta norberaren "normaltasun" eta bertuteak indartuz (babestuz), gizarte bien erretena zabaldu eta desberdintasunak ageriko izan zitezen ez ezik, horiek sendotzen ere laguntzen zuten up-ek (performatzen). Up-ek ez baitzuten errealitate bat irudikatzen balio soilik, baita hura finkatzeko ere.

Garai hartan, beraz, euskaldunen inguruko estereotipo eta topikoak antzerki pertsonaia zein txisteen bidez nabarmenki hedatu ziren bai Euskal Herrian zein Espainian ere<sup>95</sup> eta Bilbon sortutakoek gain Espainiatik egindako euskaldunen inguruko kondaira, ipuin eta sestoak ugaritu egin ziren nabarmen (Garcés eta Vicente, 2013). "Euskaldunen" inguruko txiste olatu-kolpe masibo bat ekarri zuen horrek eta ordu arte penintsulako zonalde bakoitzeko biztanleei egozten zitzaizkien topiko eta estereotipoen oreka apurto egin zen, txisteen balantza euskaldunen (eta katalanen<sup>96</sup>) alderantz desorekatuaz nabarmen.

—  
95 Alberto San Cristobal-en obra (1947) har daiteke adibidetzat, Jesús Basañezen laguntzaz eta Joaquín Guericcagoitiaren marrazkiekin osatua dagoena.

96 Kontuan hartu behar da XIX. mendean eratzen dela nazionalismo katalana ere.

Baina zer dela eta hasi ziren euskal gizartearen inguruko up-ak hainbeste ugaritzen? Espainiar estatuak bizi zuen garaiko egoera kontuan hartu behar da horretarako.

XIX. mende erdialdean espainiar estatua ez zegoen bere hoberenean. Hainbat koloniek beren independentzia politikoa berreskuratu zuten (Kuba eta Filipinak, besteak beste) eta 1889ko krisiak gogor kolpatu zuen Errestaurazio erregimena. Testuinguru hartan, beraz, euskal eta katalan nazionalismoen eraketek Espainiar estatuaren gainbehera areagotu zezaketelako beldurpean, Espainiak abian jarri zuen haren proiektu nazionalista<sup>97</sup>. Proiektu horren baitan Espainiar estatuaren zilegitasuna indartzeko ahaleginak egiteaz gainera, zilegitasunaren galera ekar zezaketen nazionalismo berrien aurkako neurriak ere hartu ziren<sup>98</sup>.

Zentzuzkoa dirudi, beraz, euskal nazioa jomugatzat hartzen zuten up-en eraketak espainiar proiektu nazionalistarekin zer ikusia izan zuela pentsatzea: hain zuzen ere, horien erabilerak espainiar estatuaren zilegitasuna eta autoritatea defendatzen (edo normalizatzen) laguntzen

—  
97 Irakurketa desberdinak daude espainiar nazionalismoaren inguruan, baina oro har esan daiteke XIX. mendea baino lehen zentralizaziorako borondatek agertu bazen ere, ez zela prozesu nazionalistatik eman (Núñez, 2010).

98 Garai berean estatu Frantsesean ere izan zen aldaketarik. Hego Euskal Herrian abertzaletasuna sustatzen bazihoan ere, Ipar Euskal Herrian ez zegoen oraindik kontzientzia nazionalik, eta Ipar Euskal Herriak "herri" gisa identifikatzen jarraitzen zuen bere burua nazio kontzeptua abstraktuegia izateagatik oraindik. Hala, Ipar Euskal Herriak Frantziaren bidez izan zuen nazioarekiko lehen kontaktua. Ipar Euskal Herrian naziotasun (frantsesa) indartu zuten faktore desberdinen artean 1914ko Gerra Handia aipa daiteke, besteak beste. Gerra hartan 6000 euskal soldadu hil izanak Ipar Euskal Herria Frantziarekin eta frantses nortasunarekin lotzea ekarri zuen (Bidegain, 2014)

baitzuten euskal nazionalismoari zilegitasuna kentzeko ahalegin berebean. Espainiaren zuzentasun eta indarraren aurrean euskal gizarte atzerakoi, baldar edo basa gisa irudikatzea, beraz, ez zen halabeharra, nazio (des)zilegitze norgehiagokaren baliabide bat baizik.

Euskalduneko up-en ikuspegi horrek indarrean jarraitu zuen hurrengo mendean ere eta bereziki berpiztu zen Francoren diktadura zehar (1939-1977). Garai horretako up-ek, ordea, aldaera bat zekarten berekin, euskal nazioari ordu arte esleitzen joan zitzaizkion ezaugarri gehienak (landatarrak, indartsuak, basatiak...) bere horretan mantentzen baziren ere, ezaugarri horietariko batek besteek baino arreta gehiago eskuratu baitzuten Erregimenean; euskarak, hain zuzen ere.

Nabardura ez zen zorizkoa. XX. mende erdialdean euskal nazionalismoaren diskurtsoak euskal nazioaren ikuspegi berri bat indartu zuen, eta arrazaren zentraltasunetik, hizkuntzarenera egin zen jauzia, arrazaren diskurtsoa ez baitzen pragmatikoki erabilgarri suertatzen dagoeneko. Bi arrazoi azpimarra daitezke aldaketa horren zio gisa. Batetik, II. Mundu Gerraren amaierak Europaren pentsaeran izan zuen eragina, zeinak, Faxismoari eta nazismoari egin zitzaizkion arbuioek ordu arte arraza ulertzeko modua aldatzea eta kontzeptuaren zentzua fintzea ekarri zuten. Euskal nazionalismoaren teorizazioan ere eragina izan zuen horrek eta "arrazaz" "arrazismo" kontzeptutik hurbil geratu zenez, arriskutsu bilakatu zen haren erabilera, arrazonamendu politikorako ildo berriak bilatzea eskatzen zuelarik horrek (Zabalo eta Mateos, 2005:166). Bestetik, Euskal Herriko biztanleriaren errealitatea. Industrializazioaren ondorioz areagotu zen aniztasunak ez zion arrazaren purutasunaren ildoari mesederik egiten, hankamotz geratzen baitzen euskal kolektiboaren parte



sentitu baina arrazaren ezaugarria modu zorrotzean betetzen ez zutenekin.

Testuinguru horretan, 50. hamarkada amaieran, gazte abertzale batzuk egoera hura aldarazteko beharra ikusi zuten, Gerra Zibila galdu ondoren etsita zeuden abertzale euskaldunen jarrera pasiboaren aurrean aktiboki jokatu eta abertzaletasunaren oinarriak birplanteatzeko beharrari erantzunez. Hor sortu zen Ekin-ETA taldea, zeinak Frankismoaren aurka jo eta helburu horiei eutsi nahiko zien hasieratik (Odriozola eta Zabalo, 2014: 71). Euskal nazionalismoak ordu arte ezarritako muga teorikoak erlaxatzeko hautua egin zuen euskal nazionalismoan kide berriak eskuratzearan mesedetan. Eta hala, arrazaren ideia baztertzeko joan zen pixkanaka, horren orde, ordu arte paper osagarria betetzen zuen hizkuntza (eta kulturari) protagonismoa emanik.

*"sistema frankistak euskal elementu eta sinbolo oro, eta abertzaleen adierazpen oro zigortzen zuen testuinguru hartan euskararen galtze-prozesuaren gaineko kontzientzia hartu zuten gazte haiek, aurrena, eta abertzale askok, ondoren. Euskara erabiltzea eta ikastea nazioa berreraikitzekeko elementu giltzarri bihurtu zen abertzale askorentzat."* (Odriozola eta Zabalo, 2014: 71)

Euskal kolektiboaren topikoak hedatzen hasi ziren indartsuki beste behin, eta kasu horretan ere, arrazoi politikoak medio zeudela pentsatzea bidezkoa da.

Frankismoak estatu osoan kultura zentsura arau zorrotzak ezarri zituen. Erregimena minimoki kolpa zezakeen edozein adierazpen kultural (literatura, antzerkia, poesia...) galarazia zegoen<sup>99</sup> eta horien artean baita up-ak

<sup>99</sup> Erregimenak ezarri zuen debeku esanguratsuenetariko bat inauterien galarazpena izan zen, hots, ordu arteko up-ak ugarien ziren esparru sozialetariko baten debekua egin zuen.

ere. Erregimenak bere ordenu soziopolitiko-militarraren aurka jo zezaketen up diskurtsoekiko gogorki jokatzeko zuten, eta alderantziz, eskuzabaltasun eta mirespenez aritzen zen Erregimenaren balioak bultzatu edota honen etsaiak zirenak kolpatzen zituzten up-ekin<sup>100</sup>. Hala, Enrique Jardiel Poncela idazle eta dramagileak 1939an sortutako *El naufragio del Mistinguett* kontakizun antisemitik edo Edgar Neville antzerkigileak sortutako *Frente de Madrid* (1941) Erregimenaren kontaketa propagandistikoa egiten zuen pelikulak atek zabalik izan zituzten<sup>101</sup> haien hedapenerako.

Egia da, edonola ere, testuinguru hertsatzaile hartan Erregimenaren kontrolpetik at zeuden urratsak ematea oso zaila bazen ere zenbait aldizkari satirikok "onartezinaren mugan" jokatzeko lortu zutelak. *La Codorniz* aldizkariak, esaterako, metafora trebeak eta ironia handiko up-ak erabiliaz Erregimena ukitu (edo kolpatzen) zuten diskurtsoak proposatzen zituen<sup>102</sup>, eta nahiz eta "mugan"

<sup>100</sup> Frankismoak egin zuen up-en kontrola up-en gaitasun politikoaren erakusgarri dela deritzogu. Hots, kontrolatu beharrekoa zela ulertzen bazen, neurri batean, errealitate sozialean eragin zezakeela ikusten zelako dela pentsa liteke.

<sup>101</sup> Autore horiek Frankismoaren alde idatzi, bai eta falangistekin militatu bazuten ere, zalantzan jartzen da konbikzioz Erregimenaren aldekoak zirenik. Izan ere, haien obretariko batzuk zentsuratuak izan ziren eta Erregimena ez zen haietaz era bat fido. Autore horietaz gaur egun dauden interpretazioen artean, Frankismoaren alde adierazi zituzten jarrerak atxikimendu ideologikoari baino, idazleek ordu arte izan zuten kapital ekonomikoa bermatzeari gehiago zegokiola esan ohi da. Batagatik edo besteagatik, frankistak izan edo ez, Erregimenak beso zabalik jaso zituen obrak burutu zituzten.

<sup>102</sup> Adibide bat jartzearen, parte meteorologiakoa ematen zuen bineta batean honakoa agertzen zen idatzia: *"Reina en toda España un fresco general procedente de Galicia"*, ["Galiziatik datorren nagusi hotz/hotz nagusi bat indarrean dago Espainian"] Eguraldiaz edo Franco jeneralaz hitz egiten ari ote ziren ulertzea irakurlearen eskuetan utzia.



ibiltzeak aldizkaria hainbatetan zigortu, zentsuratu eta itxialdiak jasotzera eraman zuen 1978 arte arrakasta handiz<sup>103</sup> argitaratzen jarraitzea lortu zuen.

Lauagoa eta errazagoa izan zen bidea euskal nazioaren gainean egiten ziren up-en kasuan. Frankismoak ez zuen haien sortze eta hedapenerako inolako trabarik jarri, hain zuzen ere, up-etan euskal gizartearekiko zabaltzen ziren ikuspegiak Erregimenaren balioekin bat egiten zutelako. Garai hartan indartu egin ziren ordu arte euskal nazioaren inguruan sorturiko topiko eta estereotipoak eta beste behin euskaldun landatar eta indartsuaren irudia hedatuz joan zen. Horren adibidetzat har daiteke ondokoa, TBO aldizkariak igortzen zuen *Josetxu el Vascoren*<sup>104</sup> komiki istorioak, non janzkeratik hasi (txapela, abarkak, gerriko gorri, alkandora eta galtza zuriak) eta izaeraraino (hitzekoa, indartsua), klizez beteriko euskal nazioko kide bat irudikatzen zen bertan.

Baina Frankismoak begitan hartu zuen euskal nazioaren ezaugarri bat aipatzekotan, hori euskara da. Erregimenak euskararen inguruan egin zuen irakurketak, hizkuntza/identitate/harrotasuna elkartzea zekarren, hiruetakoa batean jotzea aski zelarik beste biak erortzeko. Hala, espazio publikoan euskararen erabilera galarazteaz gain hizkuntzaren aurkako desprestigio "umoretsuari" ere ekin zion, eta garai hartan agertzen joan ziren hizkuntza itutzat hartzen zuten hainbat up. Frankismoak euskal hizlarien autoestimua (harrotasuna) zapaltzea bilatzen zuen identitate euskalduna desegituratzeko bide gisa. Euskararen zein euskal hitzunen inguruko txiste eta burlek euskara hizkuntza atzerakoi eta baldar bezala aurkezten zuten heinean, hitzunen artean euskararen erabilera eta

<sup>103</sup> *La Codorniz* aldizkariaren 250 mila ale saltzera iritsi zen

<sup>104</sup> Argazkiaren iturria Pérez, M, (2012)

ezagutzarekiko lotsa zabaldu, eta horrekin, identitate nazional euskalduna baztertua izateko asmoz jokatu zuen Erregimenak<sup>105</sup>.

Adibide ezagunenetariko bat *Txomin del Regato* da, Jesús Prados nafarrak irudikatzen zuen irrati pertsonaia, zeinak gaztelaniaz hitz eginez landa gunekoen hizkera eta batez ere doinua parodiatzen zuen. *Txomin del Regatoren* berezitasun aipagarrienetarikoa, ordea, hark lortutako arrakasta da ziurrenik, Espainian ez ezik Euskal Herrian ere oso sonatua izan baitzen. Behar bada Frankismoak baino lehenagoko XIX. mendeko txisteez edota Urrezko Aroko antzerki eta nobelek jada bidea leundua zutelako, edota Erregimenak iraun zuen bitartean euskararen aurka modu gogorrean eta bortizki jokatu zuelako, agian. Arrazoi edozein delarik ere, egia da euskal gizartearen parte handi batek *Txomin del Regatoren* gertakizunekin barre egiten zuela eta horrek agerian jartzen zuela up-ek igortzen zuten diskurtsoa onartua ("normaldua") zegoela gizartean.

Baina horrek ondorioak zekartzen euskal nazioarentzako. Gogoan hartu behar baita Frankismoak bere politikarekin bat zetozen up-ak igortzen zituela eta euskal nazionalismoa politika horren areriotzat izanik, botere-harreman hori islatzen zuela up-etan ere. Hala, Frankismoak up-en bidez helarazten zituen diskurtsoak euskal gizartean onartzeak (umore gisa hautemateak, alegia) Erregimenak euskal gizartearekiko zuen botere-

harremana onartzea ere bazekarren. Hots, up-en bidez euskal gizarteak barneratu ("normaldu") egiten zituen euskararekiko, euskal hiztunarekiko, eta ondorioz, baita euskal identitate eta nazioarekiko ere espainiar estatutik (Frankismotik) zetozkion diskurtso eta menpeko posizioak. Uler liteke, beraz, Frankismoak (dominatzaile posiziotik) errealtatearekiko nahi eta komeni zitzaizkion ikuspegiak euskal gizartean (menpekoarengan) barneratzea lortu bazuen euskal gizarteak Frankismoaren aldetik *biolentzia sinbolikoa* pairatu zuelako izan zela (Bourdieu, 1985, 2001).

Horri lotuta, aipagarria da urte batzuk beranduago espainiar Trantsizio garaia hastapenean, hain zuzen ere, euskara eta euskal hiztunaren inguruan ordu arte eginiko up-en irakurketak erabateko aldaketa izan zuela. Izan ere, *Txomin del Regato* bezalako adibideak ez ziren gehiago euskal gizartearen aldetik umoretsu gisa ikusi: euskal nazionalismotik (eta bertako *intelligentsiatik*, batez ere) bestelako irakurketa bat eman eta Frankismotik euskal nazioari egiten zitzaion umilazio gisa ulertzen hasi baitzen (Acevedo, 2012). Kasu horretan, euskal nazionalismoak up-ekiko bestelako diskurtso bat garatzeak errealtatea ("normaltasuna") bestela ikustea ekarri zuen gizartean, ordu arte umoretsua zena laido gisa hautemanaz orain. Edo bestela esanda, up-en diskurtsoek ekar zezaketen Espainiarekiko botere-harremanaz bestelako hautemana izanik.

Baina urte batzuk igaro beharko ziren Trantsiziara iristeko oraindik eta 60. hamarkadan *Txomin del Regatoren* graziak buruz-buru ziharduen euskal nazionalismoak euskararen alde eginiko apustu indartsuarekin. Euskal nazionalismoak haren teorizazioaren ardatz gisa euskara hartuta, hizkuntza ikasi eta irakasteko mekanismo sistema

105 Eta baita hainbat kasutan lortu ere. Izan ere, Frankismoak bultzarazi zuen euskararekiko lotsaz, hainbat pertsonak (herrietako biztanleak maiz), hizkuntza landatarra edo baldarra zelakoan euskaraz hitz egiteari utzi, edota haien seme alabak gaztelaniaz ikas zezaten (eta euskara ikas ez zezaten) esfortzuak egin baitzituzten.

oso bat jarri baitzuen abian gizartean. Garai hartan euskara batua eta estandarra zehazteko *Euskaltzaindia* batzartzen hasi zen; *gau eskola* eta helduen euskalduntze-alfabetatze guneak zabaltzen hasi ziren; edota *Ikastolen* sorrera bultzatu zen, besteak beste. Horrek guztiak euskarari (eta euskal kulturari, oro har), protagonismoa eta arrakasta popularrak eman zizkion. Baina horretaz gain, euskara eta abertzaleen arteko hartu emanak hizkuntza politizatzea ere ekarri zuen (Gurrutxaga, 1990): euskararen zabalpena mugimendu nazionalistara lotua geratuz, eta alderantziz, nazioaren zabalkunde eta kontzientziarako elementu bilakatuz euskara (Zabalo, 2006).

Testuinguru hartan Euskal Herrian egiten ziren up-ek, eguneroko gertaerek, alegia, ohikotasuneko interakzioen jazoerak hartu ohi zituzten jomugatzat. Hala, zenbait lekutako inauteriak, zintzarrotsak, narrazio edo antzerki-komediek (Gabriel Aresti edo Piarres Lartzabalenak, besteak beste) eta bereziki, bertsolari eta zirtolariek barnebiltzen zuten up-en produkzioaren gehiena.

Franco hil eta hurrengo urteen bueltan hasi zen egoera hura nabarmen aldatzen, up-en praktika eta sorkuntza kualitatiboki eta kuantitatiboki aberastuaz joan baitzen pixkanaka: up-en produkzioa hazi egin zen, komiki, antzerki, nobela, ea. umoretsuak ugartuaz baitzihozzen, eta horiek jorratzen zituzten gaiak ere aniztu egin ziren, Erregimenak ordu arte zedarrituriko ildoetatik ateriaz. Frankismoaren amaiaekin sortzen joan ziren up-ak, ordea, ez ziren jarrera kritikoa eta diskurtso hauskorretan lehertu, eta ez zen Erregimenak isilaraztera behartu zituela pentsa zitezkeen iritzien uharkarik askatu. Horren orde, umore lau eta "baboa" izan zen nagusi. Bilakaera horren

adibidetzat inauteriak har daitezke. Espainiar Trantsizioan (1975-1977) eta demokraziaren hastapenean, Frankismoan debekatutako inauterien ondare ez materiala (urtaro, uzta, edota izaki mitikoei atxikitako kapital sinbolikoa) "ahaztu" egin zen. Erregimenaren ostean, inauteriak burutzeko arrazoiak "aldatu" egin ziren, eta momentu hartan, gehiago zuten "festatik", alegia, ospakizuna burutze hutsa xedetzat izatetik, erritu edo tradiziozko jardueratik baino<sup>106</sup>.

Baina inauteriaren ez zen salbuespena izan. Garai hartan indarberritzen hasi ziren up-ek "azaleko" dibertimendua bilatzeari erantzuten zioten batik bat, kutsu "zurikoak" izanik gehienean (Acevedo, 2012). Hala, Espainian egiten hasi ziren up-ek diskurtso hutsaletan oin hartzen zuten, eta Frankismoak ezarritako kateak askatuaz baziozen ere, uste baino ahulago ageri ziren kritika politikoa egiten zuten up-ak.

Arrazoi desberdinak egon daitezke horretarako. Batetik, kontuan hartu behar da hertsatzailea zen Erregimenetik ateratzean, politikoki subertsiboak ziren up-en "sustagarria" galdu zela. Alegia, landutako diskurtso politikoez edo errealtatearen irakurketa kritikoez zentzu gehiago izatea bortitza eta aurkaria zen inguru batean, eta halaber, up-en diskurtso iraultzailea galdu izana egoera soziala baretzearekin batera. Baina alderantzizko egoera ere eman zitezkeen. Izan ere aintzat hartu behar da Frankismoaren aldekoak ez zirela Erregimenarekin batera desagertu, eta Trantsizio garaian espainiar errealtate soziopolitiko-judizialak ez zuen errotik berria zen egitura bati (demokraziari) hasiera emateko behar besteko aldaketarik izan.

106 Gehiago jakiteko ikus Antxon Aguirre, 1984

*"un nacionalismo español explícito e incluso agresivo en sus manifestaciones simbólicas y verbales, directamente heredadas o emparentadas con el nacionalismo tradicionalista español de principios del siglo XX y con el franquismo, [que] ha persistido de modo muy visible (...) durante el período de Transición y consolidación democrática"*<sup>107</sup> (Núñez, 2010:29-30)

Erregimena desagertu bazen ere horrek ez zuen Frankismoarekin amaitu eta litekeena da up-etan eman zen "aldaketa" eta "askapena", uste baino "azalekoagoa" ere izatea horregatik. Hala, ustezko garai (eta ondorioz errealtate) aldaketak ahalbidetzen zuen testuinguruan ikusgaitza zen zuzena eta okerraren arteko "marra gorria" gurutzatzen animatu zirenak, berehala egin ziren haien "akatsaren" jatedun. 1977aren irailaren 20an, esaterako, *El Pápus* espainiar aldizkari anarko-satirikoari bonba jarri zioten haiek egindako umore/kritika politikoa lekuz kanpo zegoela hautematen zutelako, nonbait, frankismoaren zaletuek. Gertaera hark, abisua pasa zien halako up-etan zenbiltzan gainontzekoei:

*"Decir que fue esta explosión lo único que dinamitó un humor elevado y progresista resultaría simplista. Pero*

—  
107 ["Haren adierazpen sinboliko eta ahozkoetan esplizitua eta bortitza den nazionalismo espainiarra, XX. mendeko nazionalismo espainiar tradizionalistatik eta frankismotik jarauntsia edota horiei lotua dagoena, eta Trantsizio eta demokraziaren eraketan garaietan oso modu agerikoan (...) egoten jarraitu duena"]

*(...) contribuyó no sólo a la ruina de éstas revistas, sino a la sensación de desamparo de los agentes críticos"*<sup>108</sup> (Acevedo, 2012:176)

Zuzena eta okerraren arteko muga jakin batzuk (frankistak) indarrean zeuden oraindik, nahiz eta ostertzak zabaltzeko ahalegina egiten zuenik ere bazegoen (*El Jueves*, 1977; edo *Hermano Lobo*, 1972, besteak beste). Oro har, ordea, garaiko up-en tasunak mugatuta jarraitzen zuen, non umorea egiteko "askatasunak" Erregimeneko (auto) zentsuraren ondorioak zekartzan berekin; eta horrek, umore "zuria" alegiazko "adierazpen askatasunaren" sasi erakusle nagusi bilakatu zuen.

Umore "txepel" haren adibidetzat har daiteke garaiko *Tip y Coll*-en diskurtso politiko des-politizatua<sup>109</sup> (1967tik aurrera); *Martes y Trece*-ren umore zuria, zeina uste baino ilunagoa izatera iritsi zen zenbaitetan<sup>110</sup> (1979tik

—  
108 ["Leherketa horrek orduko umore landu eta aurrerakoiaren gainbehera ekarri zuela esatea sinplista litzateke. Baina (...) lagungarria izan zen aldizkari horien porroterako ez ezik, agente kritikoen babesgabetasunerako"]

109 Egoera politikoaren inguruan ez zuten umorerik egiten, haien aipu politikoak *"Y la próxima semana... hablaremos del gobierno"*, ["Eta hurrengo astean... gobernuaz arituko gara"] esatera mugatzen baitzen. Irudiak ikusteko, *Tip y Coll*, (2007).

110 Aipagarri da, esaterako, begi bat ubeldua duela *"Mi marido me pega"* ["Senarrak jipoitzen nau"] dioen emakumea irudikatuz *Martes y Trece*-k eginiko parodia. Irudiak ikusteko, *Martes y Trece*, (1991).

aurrera); edo *Faemino* y *Cansado*-ren umore infantila<sup>111</sup> (1980tik aurrerakoa). Guzti horiek, gainera, esponentzialki indartzen zihon formatu berri batean zetozen, izan ere, garaiak berekin ekarri zuen mezu nazionalista zabaltzeko teknologiaren erabilera ere, eta telebista bilakatu zen mezu horien artean up-ak gizarte osora helarazteko tresna erabilgarrietako bat: ikuslegoa, nazio beraren parte sentiarazi (Morley, 2000) eta diskurtso hutsal (normaldu) berberean "heziko" zuena (Acevedo, 2012:177).

Euskal nazionalismoak, bere aldetik, 60. hamarkadan abiatutako urratsetatik jarraitu zuen 70.-ekoan ere, eta Francoren heriotzarekin erakundetze prozesu azkarra eman zuen, besteak beste, abertzaletasuna eta sinbolo abertzaleak esparru publikora agertuz Hego Euskal Herrian (Perez Agote, 1987). Horien artean euskararen irakaspena eta hedapena sustatzen zutenak (Tejerina, 1992:170).

80. hamarkadan, ordea, egoera aldatzen hasi zen pixkanaka. Euskal nazionalismoak bere herritarrak euskalduntzeko, eta ondorioz, euskal nazioan integratzeko esfortzu handia egiten bazuen ere, kasu guztietan ez zuen arrakastarik lortu eta euskal nazioaren kideztat haien burua jo zutenen kopuruak gora egin bazuen ere, guztiak ez ziren euskal hitzun. Egoera hark euskal nazionalismoaren teorizazioan arazoak sortu zituen (Zabalo, 2006: 85). 50. hamarkadan indarturiko ildo teoriko horrek 30 urte beranduago errealtate sozialari behar bezala erantzuteko baliagarri izateari utzi zion eta abertzale ziren guztiek

—  
111 Irudiak ikusteko, *Faemino* y *Cansado*, (2007).

euskaraz ez zekitenez, nazionalismoaren diskurtsoak kuantitatiboki galerak izan nahiko ez bazituen behintzat, malgutu beste erremediorik ez zuen izan. Horrek, euskalduntasuna eta abertzaletasuna halabeharrez eskutik emanak ez joatea ekarri zuen:

*"Euskaltzaletasunetik datorren kritikaren arabera, euskara da Euskal Herriari izaera ematen diona eta benetan indartu beharrekoa, beraz. Nolabait euskal nazionalismoaren diskurtso teorikoa gainditzen dela esan daiteke, nazionalismoak euskara euskal nazioaren funts gisa erabiltzen baitu, baina ardatza nazioa izanik. Euskaltzaileen aldetik sortzen den kritikan, berriz, ardatza euskara bera da: euskara da gorde eta sendotu behar dena, euskararik gabe ez baitago ezer"* (Zabalo eta Mateos, 2005: 171)

80ko hamarkadan espainiar eskuinaldearen diskurtso nazionalistak gogor eutsi zion "periferiako" nazionalismoak, euskalduna eta katalana bereziki, Espainiaren batasunaren mehatxu gisa ikusteko ideari, eta 80 eta 90ko hamarkadetan lurralde horien politika linguistikoren aurka jo zuen bertako nazionalismoen deslegitimazio estrategia gisa. Euskal eta katalan nazionalismoek zenbiltzaten politika linguistikoek gaztelania jazartzen zutela agerian jartzeko hainbat publikazio eta publizitate produkzio egin zituen espainiar estatuak, besteak beste, norberaren herrian lan egiteko "bestelako hizkuntzak" ikasi beharra bazterkeria delako ideia indartzu (Núñez, 2010: 39-41). Baina espainiar

estatuak hizkuntza kolektiboen eskubide pragmatikoen eztabaidan indar egitean, auzi sinboliko bati heltzen ari zion egiazki. Hots:

*"Lo que se discute implícita, y a veces explícitamente, es el principio mismo de la tradicional, natural y por lo tanto deseable supremacía última del castellano como idioma de todos los ciudadanos españoles, al abrigo del carácter asimétrico que la Constitución recoge en el que garantiza a todos los españoles el deber de conocerlo, frente al derecho de usar los demás idiomas."*<sup>112</sup> (Núñez, 2010: 39) [Jatorrizko azpimarrak mantendu dira]

Euskal nazionalismoaren birformulazio testuinguru horretan sortzen da EITB (1982), hots, euskal telebista publikoa; hori ere, zergatik ez, euskal nazionalismoak zituen diskurtsoak helarazteko tresna gisa. Hasiera umilak izan zituen telebista kateak, albistegiak eta programa gutxi batzuekin lehen urratsetan, baina segituan haziaz joan zen eta 1986an bere bigarren katea (ETB2) sortu zuen igortzen zituen saio kopurua biderkatuaz, eta nola ez, horien artean baita up-enak ere.

EITBren up-ak garai hartan Espainian egiten zirenen ildotik zihoazen, bi zirelarik haien ezaugarri nagusiak.

112 ["Inplizituki, eta zerbaitetan esplizituki, eztabaidatzen dena da, espainiar guztien hizkuntza den gaztelaniaren gailentasun tradizional, natural eta desiragarria. Hain zuzen ere Konstituzioak dioenaren babespean, non zehazten den, espainiar guztiek gaztelania ezagutzeko *betebehara* dutela, gainontzeko hizkuntzak erabiltzeko *eskubidea* duten bitartean"]

Batetik, haien pisu kuantitatiboa. Hots, Euskal Herrian egindako up-ek ez zuten sekula hainbeste jenderengana batera heltzeko gaitasunik eduki eta haien produkzioa ere ez zen inoiz hainbestekoa izan. Telebistari eskerrak ordu arteko antzerki, inauteri edota bertsolaritzak ez bezalako proportzioak hartu zituzten up-ek<sup>113</sup> eta gizartearen zuten presentzia nabarmenagoa izatea ekarri zuen horrek. Bestetik, kualitatiboki, espainiar telebista kateek erabiltzen zuten up-en estiloari erantzuten zioten EITBk egindakoek eta horietan ere umore "zuria" zen nagusi: egunerokotasuneko gertaera arrunten gaineko umorea edota irakurketa sakonik proposatzen ez zutenena nabarmentzen baitzen, baita politikaz jarduten zuten up-en kasuan ere. Hau zioen Eneko Olasagastik, *Jaun eta Jabe* saioaren zuzendariak (1996), euskal telebistaren lehen —

113 Ideia bat egiteko, 1987tik 1998ra EITBk estreinatu zituen umore telesail edo programak 22 izan ziren (marrazki bizidunak kontuan hartu gabe, horien artean besteak beste, Lazkao Txiki bertsolariaren pasadizoak kontatzen zituztenak). Honakoak izan ziren up telebista saioak: *La Traka*, 1987; *Funtzioa*, 1989; *Hau da A.U.*, 1990; *Juntos y Revueltos*, 1990; *Bi eta Bat*, 1991; *Bertan Zoro*, 1991; *Inocente Inocente*, 1992; *Penelope-enea*, 1992; *Beni eta Marini*, 1992; *64*, 1993; *Flamingo berria*, 1993; *Txoko-latex*, 1993; *Duplex*, 1994; *Amaren etxea*, 1994; *Txiskala*, 1995; *A ze para*, 1995; *Jaun eta Jabe*, 1996; *Gure familia eta beste piztia botzuk*, 1997; *Benta Berri*, 1997; *Sikofonia*, 1998; *Maité*, 1998; *Easy Peasy*, 1998. Hala, bataz beste, urteko bi umore programa/telesail/lehiaketa sortu ziren. Programa bakoitzak denboraldi bat baino gehiago irauten zuela kontuan izanik, EITBren bi katek urte berean 6 umore saio edo telesail igortzera iritsi zen batera. Horrekin aditzera ekarri nahi da up-ek euskal telebista publikoaren hasierako hamarkada haietako programazioan zuten pisu handia.

kateak igorri zuen EAE-ko lehendakaria irudikatzen zuen telesail umoretsuaren inguruan:

*"Jaun eta Jabe ez zen politika munduaren parodia. Hala ere politika munduak eman zezakeen gertakizun iturritik probetxu handia atera zuen (...) Lehenbiziko aldiz, gure herrian politika mundua fikzio telesail bateko argumentu gai bihurtu zen, zeharka bazen ere. (...) Herri honetan politika eta umorea ez dira inoiz besotik helduta joan. Ez da batere erraza izan zenbait gai ukitzea"* (Irazu, 2001:51) [Jatorrizko azpimarrak mantendu dira]

Euskal Herriko testuinguru politikoa (aipatua zenean) telesailaren jazoerak biltzen zituen marko gisa jokatzeko zuten, eta ez ordea, "hausturarako" elementu bezala. Hala, up-ek ez zuten politikaz mintzo, politikan kokatutako pertsonaien egunerokoak baizik, haien izaera "zuriari" men eginez.

Argi zegoen frankismoaren amaierak, bai espainiar zein euskal nazionalismo mailan, ez zuela eztanda subertsiborik sorrarazi up-ei dagokionez, alderantzizkoa baizik, hutsaltasunean eta azalekotasunean funtsatzen ziren up-ak bultzatu ziren. Eta bazirudien joera hark oso erantzun ona jasotzen zuela gizartearen aldetik; "gauzak serioegi" hartzeaz nekatua zegoen edota banaltasunaren eferbeszentzian murgiltzeko beharra zuen gizartearen zela agerian utzi baitzuen sortzen zihoazen up berriak beso zabalik jasoaz.

Salbuespenak albuespen, ezerezaren joera horrek indarrean jarraitu zuen bitartean (XXI. mende hasiera arte

gutxi gora behera) "euskal" gaia apenas izan zen aipatua up-etan eta euskal nazioaren ikuspegi kostunbrista indartzen zuten up-ak egoten jarraitzen bazuten ere (indartsuak, jatunak, baserritarrak...), asko lasaitu zen Espainiatik egindako euskal nazioarekiko up-en jarria; ziurrenik, bestelako bideetatik ekiten ari zelako euskal eta espainiar borroka nazionalista. 1996tik aurrera, espainiar gobernuan zegoen *Partido Popular* (PP) alderdiak (1996-2004) euskal nazioaren inguruan eraiki zuen diskurtso politikoa tasunak zer ikusi handia izan zuen horretan. Hizkuntzen politikaren pragmatismoaren gainean eraikitako narrazioei euskal nazioaren irudi jakin bat eraikitzeko pisuzkoa izan zen beste diskurtso bat ere modu indartsuan erantsi baitzitzaion garai hartan; ETAREN inguruan osatutakoa, hain zuzen ere (Núñez, 2010).

Espainiar nazionalismoaren baitan ETAREN jardueraren armatua euskal nazionalismoarekiko jarrera *erreakzionario* bat elikatzeke motibo bilakatu zen. Bitartekoak eta helburua nahastuaz, nazionalismoen (eta independentziaren) izaera "berez" doilorra zela agerian jarriaz batera diskurtso espainiar nazionalista zilegitzeko giltzarri bilakatu zen ikuspegi hura (Núñez, 2010:43). ETAREN jardueraren gaineko irakurketak, euskal nazioari ordua arte inoiz egotzi ez zitzaion testuinguru "beldurgarri" bat esleitu zion. Euskal gizartearen irudikariak dagoeneko ez zegoen hainbeste kolore zuri-gorritz jantzitako txapela dun pertsona onbera, landatar, xeble eta indartsuari; irudikari horri irabazi egin zion berriak, non pertsona hotz, fidakaitz, ilun, fanatiko, armatu, erradikal edota arriskutsu gisa irudikatzen hasi

ziren<sup>114</sup>. Hartara, euskal nazionalismoa, ETA, eta oro har "euskal" zen oro, gai serio bilakatu zen; serioegiak, publiko zabalarentzako up-etan tratatuak izateko ere<sup>115</sup>.

90ko hamarkada eta 2000 hasieran up-ek apenas ukitu zuten gaia. Minak eta alde/aurkako sentimenduak agerikoegiak ziren (hala izan zitezkeen bultzatu zen ere), eta komunikabideen bidez zabaltzen joan zen euskal nazioarekiko irudikariak ez zuten errealitatea beste gisa batera hautemateko tarte gehiegirik uzten: euskal nazioarekin zer ikusia zuen gehienak, ETArekin zuen harremana, eta halaber, ETA gai tragikoa zen. Hala, garai horren bueltan indartzen da, hain zuzen ere, gerora up-etan erabilia izango den "euskaldun serioaren" irudikaria.

Tarte horretan koka daiteke ere, euskal nazionalismoa bizi eta ulertzeko diskurtso aniztasunaren agerpena. Izan ere, 80ko hamarkadan euskararen inguruan eraikitako nazioa Euskal Herria ulertzeko modu bakar izateko baliagarria ez zela ikusteaz batera, nazioa ulertzeko eta

nazionalista izateko bestelako aukerak agertzen joan ziren (nahiz eta diskurtso nazionalistaren ildo nagusi izaten jarraitu zuen). Hala, aukera "berri" horien artean lurralde eta borondatean oinarritzen ziren ikuspegiak aipa daitezke. Horien arabera, euskal nazioa osatzeko horren alde egon eta horretan sinestea hobesten zutenak, edota euskal lurralde izendatutakoa sartzen ziren pertsona guztiak nazioko kide izan zitezkeen (Zabalo eta Mateos, 2006), euskal nazionalismoak izan zuen zurruntasun teorikoa apurtu egiten zelarik, beste behin, honekin batera.

Mende hasiera berriarekin, non, batetik, euskal nazionalismoaren muga zabaltzen hasia zen, eta bestetik, PP-ren espainiar gobernu amaiera zetorren (2004), euskal nazioaren irudikaria markatua utzi zuen ETArekiko ikuspegia aldatzen hasi zen pixkanaka. Gatazka politikoaren eta jarduera armatuaren trataerak zuri-beltzekoa izateari uzten hasi zion. ETA, gatazka politikoa eta euskal nazioa bestelako diskurtso moldeetan agertzen hasi ziren, bai eta horiek tratatzeko era aldatzen hasi ere.

Aldaketa horren up adibide esanguratsuena, zalantzarik gabe, audientzia markak apurtu zituen *Vaya Semanita* telebista programa izan zen (ETB2, 2003)<sup>116</sup>. *Vaya Semanitik* gatazka politikoaren gaia eta bertako aktoreak erabiltzen

116 Beste kasu batzuk ere har daitezke adibidetzat, esaterako *Lehendakaris Muertos*-ek musika talde iruindarra (2004), zeinak ETA eta gatazka politikoaren gaia gordinki ukitzen zuten haien abestien letretan (up-ak erabiliaz askotan).

zituen bere up-etan eta umore itutzat gai politikoak erabiltzen zituen. Ordu arte "tabu" soziltzat hartutako alor eta ikuspegi inguruan umorez jardutea eta up-ek gizarte sektore desberdinen haserrikerik ez piztu izana, zuzenean programaren eta zeharka (euskal) gizartearen arrakasta gisa ospatu zen. Hala, *Vaya Semanita* molde horretako lehen saiakera arrakastatsua izan zen. Programan zenbait aldaketa eman baziren ere, 2013 arte antenan jarraitu zuen eta bi urteko geldiuonearen ostean, orain, 2015ean, berriz hasi dira igortzen, bere altzoan gisa bereko up-en uzta berri bat sortuz.

Horrekin batera, beraz, euskal nazioaren inguruko bestelako ikuspegia indartzen hasi zen: "euskal" gaiak jorrazteko oztopoak (tabu sozialak) gaindituz zihoazen heinean eta gatazka politikoa up-en bidez nola jorratu zitezkeen estalgabetuta, "baserritar xelebrearen" irudia indarrean jartzen hasi zen berriz. Berezitasun handi bat zekarren *Vaya Semanitik* berekin, ordea, ez baitzen espainiar estatua euskal nazioarekiko irudikari landatarra indartzen zuen programa haren egile; "euskal umorearen" erreferentetzat jo zen saioaren sortzaileak (eta hedatzaileak) euskal nazioari zegozkion orain (EITB)<sup>117</sup>.

Saioa ez zen bakarrik aritu eta gaur egun arteko bidean

beste hainbat up-k ere lagundu zuten. Izan ere, *Vaya Semanita*-k ekarritako aldaketaren ostean euskal nazioa zuzenean edo zeharka, etxetik edo auzotik (euskal naziotik zein Espainiatik), kolpatu zuten beste hainbat telebista saio, pelikula, umoregile, antzerki... agertzen joan ziren. Up horietariko zenbaitzuk *Vaya Semanita*-k euskal nazioaren inguruan erabilitako diskurtsoen ildoari jarraitu zioten; eta beste batzuk, aldiz, ildo horretaz oso bestelakoa zen euskal nazioaren irudikapenak islatu zituzten (jarraian ikusiko dira horietako batzuk). Baina batera edo bestera, "euskal" gaia up-en produkzioaren muinean birkokatu zuten denek laguntzaz.

Ondorengo analisisian aztertzen dira azken urteetan indartzen joan diren korrante horretatik eratorriak, gaur eguneko topa daitezkeen up diskurtso desberdinak zeintzuk diren.

117 Irakurketa honekin bat dator Antton Luku eta ondorengoak dio: "*Kasu eman angí, irakurle, (...) euskalduna eraldunentzat trufatzen delarik Vaya Semanitan*" (Luku, 2008:82).

114 Kontuan hartu behar da garai hartan espainiar komunikabideek euskal nazioaz igortzen zuten informazio gehienak ETArekin zuela harremana eta horrek ere irudikapena elikatzen zuela (Núñez, 2010).

115 Komunikabideetan apenas topa daiteke urte haietan ETaren gaia jorratu zuenik. Aldiz, ezagunak dira gizartearen euskal preso politikoei buruzko zein ETaren biktima izandakoen inguruko txistek (Irene Villa, 1991ean ETaren bonba batek zauritutakoaren ingurukoak, besteak beste). Horiek, edonola ere, esparru "pribatueta" egin ohi ziren/dira eta ez publikoan.

4. CONCEPTION DE LA RECHERCHE  
IKERKETAREN DISEINUA

317-328	4.1.	MODÈLE D'ANALYSE
329-358	4.2.	MÉTHODOLOGIE ET TRAVAIL DE TERRAIN
359-365	4.3.	ANALYSE DE L'INFORMATION
<hr/>		
367-373	4.1.	ANALISI EREDUA
373-390	4.2.	METODOLOGIA ETA LANDA LANA
390-393	4.3.	INFORMAZIOAREN ANALISIA

Dans les chapitres précédents, les bases théoriques composant la concordance entre la nation et l'humour ont été établies, et concrètement, la relation entre la constitution de la nation et les ph a été mise à jour.

Ce lien a débuté avec la spécification de la catégorie d'humour. Pour ce faire, on a rappelé d'abord les principales approches et théories sur l'humour, en prenant en considération les différentes perspectives sur l'humour explorées à partir de la sociologie et d'autres disciplines, extérieures à la sociologie. Deux conclusions ont été tirées de cette analyse : d'une part, qu'il n'existe pas d'unanimité entre les spécialistes et les chercheurs sur la manière de comprendre et de définir l'humour, et donc, que les interprétations de l'humour sont foison. Ceci met en évidence que la catégorie d'humour permettant de répondre à des situations au cas par cas, ou à une approche macro, doit être ouverte, perméable, recyclable et souple. D'autre part, on a constaté que malgré les importants désaccords qui existent, dans un premier temps, entre les auteurs, il existe, au fond, davantage de concordance que l'on ne pense à propos de l'humour, car ils lui attribuent implicitement certaines caractéristiques fondamentales communes. Les principales caractéristiques partagées que l'analyse permet d'identifier sont au nombre de trois, ainsi désignées : le *plaisir*, la *rupture* et la *distance* (voir 2.1).

En partant de ces bases, une proposition de catégorie d'humour utile à l'analyse sociologique de l'humour a été avancée, en mettant justement en évidence le fait que l'humour peut être compris en tant que *médiation* (voir 2.2). Pour ce faire, d'une part, il a été montré que l'humour fonctionne en tant que processus (ph), ce qui permet de tenir compte de son caractère variable et interactif. D'autre part, dans ce processus, on a vu que l'humour communique (qu'il s'agit d'une pratique discursive), en se basant sur le fait qu'en plus d'être un processus social, il facilite une relation de communication entre les sujets. Partir de ces deux aspects permet de comprendre les ph en tant que médiation qui performe la réalité sociale et, en son sein, la nation basque.

Afin de fixer cette proposition, cependant, il a été nécessaire de s'assurer que la nation est une réalité qui est performative. Pour cela, on a d'abord procédé à l'analyse des principales lectures de la nation, en soulignant que, comme on a pu le voir dans le cas de l'humour, la nation aussi fait l'objet d'interprétations générales (voir 3.1). Parmi toutes les options, on s'en est tenu à l'approche moderniste, car c'est celle qui prend en compte l'interprétation constructiviste (et non essentialiste) de la nation et, par conséquent, celle qui s'ajuste le mieux aux objectifs de la recherche (voir 3.2). Partir de cette approche permet de comprendre que la nation est un discours pour un ordre sociopolitique, et donc, qu'elle comporte un aspect important qui est conçu ou imaginé. Parvenus à cette idée de la nation imaginée (Anderson, 1993), on a expliqué la capacité à performer des représentations par le biais de la théorie *Queer* (Butler, 2001), ce qui a conduit à formuler la nation en tant que *noyau imaginé multipolaire*. Au final, grâce à cette approche, on a vu qu'elle est considérée comme un discours dans lequel les représentations sur la nation se matérialisent dans la quotidienneté (voir 3.3). Cette dernière interprétation a permis, d'une part, de voir que la nation est une réalité sociale qui performe, et donc, à la relier théoriquement à ce qui a été affirmé au préalable à propos de l'humour. Toutefois, en même temps, il a été mis en évidence que, puisque l'humour est une pratique du quotidien, il a également la potentialité de participer activement à cette constitution de la nation, et donc également celle de jouer un rôle politique dans la constitution de la nation basque.

Pour finir, les réflexions mentionnées ont été rapprochées du cas de la nation basque, et l'évolution qu'ont eue, au cours de ces dernières décennies, les représentations (les discours) de la nation et les liens qu'elles (ils) ont eus avec le contexte politique au fil des époques ont été mis en lumière (voir 3.4). Ce dernier point est utile pour connaître les liens entre la constitution imaginée de la nation basque et l'évolution des ph, ainsi que mieux connaître et apprécier l'origine des ph qui se font aujourd'hui au sujet de la nation basque.



En se basant sur ces élaborations théoriques qui viennent d'être mentionnées, la conception de la recherche est définie dans la section citée par la suite. Tout d'abord, on explique quel est le modèle d'analyse, en donnant des éclaircissements, d'une part, sur la question de recherche et l'objectif du travail, et d'autre part, sur l'objet de recherche et les sous-objectifs. De même, une carte conceptuelle résumant l'évolution théorique réalisée vient également s'y ajouter, détaillant le cheminement qui conduit de la question de recherche de départ à la formulation de l'objectif qui a été utile pour ce travail. Ensuite, la méthodologie et le travail de terrain sont exposés, en présentant l'information sur l'échantillon et les techniques de recherche utilisées. Pour finir, une explication est donnée concernant la manière de gérer et d'étudier l'ensemble de l'information et du matériel récupéré.

## MODÈLE D'ANALYSE

L'objet de recherche est significativement nouveau. La constitution nationale par le biais de l'humour n'a été que très peu étudiée à partir de la sociologie, et encore moins en considérant l'humour comme médiation, ce qui a entraîné un processus de recherche aussi intéressant qu'abrupt. Intéressant, parce que la recherche, outre le fait d'ouvrir un espace pour l'exploration de « nouvelles » voies permettant de formuler et de réaliser un ajustement théorique, une approche méthodologique et une analyse empirique, offre la possibilité de s'immerger dans un processus satisfaisant de création et d'imagination. L'item permettant de parvenir à la relation « glissante » entre ph et nation, en remettant en question les catégories et points de vue généralement utilisés, encourage un processus de réflexion enrichissant qui permet d'ouvrir de nouvelles portes épistémiques et théoriques. Dès lors, non seulement le résultat du processus est pertinent (car il permet de construire une nouvelle voie théorique et analytique destinée à étudier l'humour -les ph- et la nation), mais le parcours pour y parvenir s'avère tout particulièrement intéressant. Cependant, un parcours dépourvu d'appui théorique rend parfois la recherche abrupte. En effet, pénétrer sur un terrain

peu exploré présente les risques qu'entraîne avec elle une « première fois ». Ne pas disposer de modèle préalable permettant de débattre de l'approche, d'en voir les défauts et de réaliser des ajustements, rend cette proposition, dans une large mesure, vulnérable. Par conséquent, en réponse à ces « dangers », nous avons usé, dans l'approche de la méthodologie, d'autant d'initiative et de soin que dans la proposition théorique, et examiné étape par étape les possibilités d'analyse les plus pertinentes.

#### 4.1.1 Question de la recherche et principal objectif

*“La investigación del sociólogo no es, pues, adánica: no aborda libre de prejuicios la realidad que quiere estudiar, sino que la concibe de antemano desde una teoría que se supone no arbitraria y no demasiado coloreada por juicios de valor”*<sup>1</sup> (Beltran, 2003:20)

Étant donné que la connaissance sur l'approche que nous proposons est loin d'être abondante, et que les points de départ, les théories et les outils permettant l'étude scientifique de l'humour sont restreints, le choix a été fait de ne pas formuler d'hypothèse dans ce travail de recherche.

Nous estimons que les hypothèses sont des confirmations qui sont prouvées ou réfutées au fil de la recherche, des propositions hypothétiques préalables à l'explication du phénomène que l'on veut analyser, et donc, si l'on ne veut pas errer sans but ou si l'on souhaite éviter de réaliser un travail vain, leur formulation exige une connaissance minimale ou une base solide du thème de recherche : *“No puede existir desconocimiento sobre la hipótesis planteada, porque se puede cometer un error en su construcción”*<sup>2</sup> (Tello, 2011 : 230).

1 [« L'investigation du sociologue n'est donc pas adamique : elle n'aborde pas sans préjugés la réalité qu'elle souhaite étudier, mais la conçoit préalablement à partir d'une théorie supposée non arbitraire, et qui ne soit pas trop teintée de jugements de valeur » ]

2 [« Il ne peut y avoir de méconnaissance de l'hypothèse envisagée, parce qu'on peut commettre une erreur dans sa construction » ]

Dans ce cas précis, en tenant compte des caractéristiques de la recherche et de l'objet de recherche, il a été estimé que la formulation d'hypothèses pourrait conduire à opter pour une approche limitée ou inappropriée du thème de recherche, c'est-à-dire qu'il existait un risque important que cela constitue un frein à la recherche, au lieu d'être un atout. En effet, dans un cas comme celui-ci, où le thème de recherche est nouveau et généralement peu analysé, il a été constaté que proposer des présomptions qui seront corroborées ou réfutées pourrait conditionner l'objet de la recherche et limiter exagérément sa connaissance (Edwards, 2003). Enfin, nous avons voulu éviter le « risque » entraîné par la formulation d'hypothèses, à savoir, que les interprétations des résultats tirés du travail de terrain soient conditionnées par les hypothèses préalablement formulées, et donc, le risque de tomber dans le piège qui consisterait à orienter les interprétations de la recherche vers les hypothèses préétablies (Andrade, 2007). En effet, comme le souligne Gregorio Klimovsky, *“quien plantea una hipótesis supone que ella es verdadera”*<sup>3</sup> (Klimovsky, 2001 : 132). Ainsi donc, en partant de la proposition de l'auteur Derek Edwards (Edwards, 2003 : 149), il a été décidé d'écarter l'utilisation des hypothèses dans ce travail de recherche, pour prendre la question de recherche comme point de départ.

La formulation de la question donne la possibilité de prendre en compte la situation à un moment donné, les relations, les conflits, les évolutions, les transformations... d'un sujet méconnu, et de le découvrir sous une forme relationnelle (Becerra, 1994 : 27). Ainsi, en choisissant une réalité déterminée et en formulant (en rendant manifeste) son incertitude, en plus de préciser l'objet de recherche, on parvient à conserver une attitude ouverte vis-à-vis de celui-ci.

En partant de cette idée, la question de recherche que cette étude a prise comme point de départ est donc la suivante : « Quel rôle politique joue l'humour dans la constitution nationale ? ». Proposer cette question de recherche a permis de formuler le principal objectif de l'étude, « la connaissance du rôle politique


3 [« celui qui émet une hypothèse suppose que celle-ci est vraie » ]

de l'humour dans la constitution de la nation basque » comme étant le but du travail. Dans ce cadre, trois sous-objectifs précis permettant de parvenir à l'objectif essentiel sont soulignés (précisés plus bas). Avoir pris ce point de départ a permis de conduire la conception de la recherche, mais sans être conditionnée par les présomptions excessives du chercheur. Nous réalisons que dans toute recherche les points de vue subjectifs du chercheur sont présents. Toutefois, l'objectif, dans la mesure du possible, est de les éviter et d'être réflexifs sur ceux qui existent, et le fait de ne pas envisager d'hypothèses a permis de travailler dans cette direction.

Cependant, du fait que les catégories (humour, nation basque et rôle politique) qui figurent dans la question de recherche et dans l'objectif sont trop floues pour le travail, elles deviennent des outils inutilisables à la conduite de la recherche. Afin qu'elles soient valides pour la recherche, nous avons pris en compte les contenus élaborés au moyen du cadre théorique (Valles, 2000). Cette adaptation a amené deux contributions à ce travail : d'une part, avec la délimitation de l'humour, de la nation et du rôle politique que constitue le lien entre eux, les catégories utiles pour le travail de terrain ont été composées. D'autre part, la délimitation théorique a entraîné la pièce fondamentale permettant d'atteindre l'objectif principal ; à savoir, l'élaboration de l'objet de recherche (Zemelman, 1987).

#### 4.1.2. La carte conceptuelle

### LE RÔLE POLITIQUE DE L'HUMOUR DANS LA CONSTITUTION DE LA NATION BASQUE



### LA MÉDIATION DES PROCESSUS HUMORISTIQUES (PH) DANS LA CONSTITUTION DU NOYAU IMAGINÉ MULTIPOLAIRE

#### 4.1.3. L'objet de recherche et les sous-objectifs

À partir de cette structure théorique que l'on peut voir sur la carte conceptuelle, l'objet de recherche approprié pour atteindre l'objectif principal a été obtenu. Il est ainsi formulé : **la médiation des processus humoristiques (ph) ethniques autoréférentiels basques dans la constitution des noyaux imaginés multipolaires**. C'est ce que cette recherche analyse. Cet objet de recherche oriente les catégories formulées dans l'objectif de départ vers des réalités plus concrètes qui sont analysables. Ainsi, [l'humour] est compris comme *ph ethnique autoréférentiel basque* ; [la nation basque] est représentée par les *noyaux imaginés de la nation basque* ; et [le rôle politique] est étudié en tant que *médiation* (qui sera, précisément, la *médiation de l'humour*), englobant à la fois l'utilisation politique spécifique faite de [l'humour] et la capacité performative de ce dernier<sup>4</sup>. Le cœur de la recherche se situe donc dans l'analyse de la *médiation*, car sa compréhension met en évidence la nature du lien entre les deux autres catégories analytiques (les *ph* et les *noyaux imaginés multipolaires de la nation basque*).

Cependant, sachant que la médiation englobe de nombreux éléments très différents, et en tenant compte également du fait qu'il s'agit d'un processus variable et malléable, nous avons décidé d'effectuer son analyse par sections et d'une manière progressive. Pour faciliter l'étude étape par étape, observer la médiation plus en détail et parvenir à l'objectif de recherche de manière plus pertinente, trois sous-questions sur la médiation des *ph* et pour chacune d'entre elles un sous-objectif ont été définis. Pour composer les sous-questions et les sous-objectifs, on a tenu compte des caractéristiques de l'humour identifiées et élaborées progressivement lors de la réflexion théorique, à savoir, la *rupture*, la *distance* et le *plaisir*.

4 Considérant ce qui a été dit dans la réflexion théorique, il faut rappeler que le [rôle politique] recouvre une double signification : d'une part, celle qui se rapporte à l'utilisation rationnelle spécifique de l'humour (que l'on pouvait comprendre comme utilisation politique au sens usuel du terme), et d'autre part, celle qui concerne sa capacité de recréer des faits sociaux d'une manière non-rationnelle, autrement dit, son pouvoir performatif.

#### 4.1.3.a La rupture

La première étape à accomplir pour savoir quel type de processus dans la constitution de la nation basque (médiation) par le biais des *ph* consiste à savoir quels sont les *ph* utilisés, et pour cela il est opportun d'observer les *ruptures* des *ph*. Comme cela a été mentionné auparavant, on appelle *rupture* l'effet de déséquilibre ou de décalage qui est nécessaire pour provoquer l'humour (voir 2.2), car c'est là que devient manifeste la réalité (discours/représentation) que le *ph* a prise pour cible.

Compte tenu de cela, la sous-question suivante a été formulée : *Sur quoi fait-on les ph ?* Lié à cette question, le sous-objectif suivant a été élaboré : **Identifier quelle réalité sur la nation basque les *ph* ethniques autoréférentiels basques prennent-ils comme cible humoristique.**

Afin de faciliter ce travail d'identification, on a établi préalablement certaines réalités liées à la nation, précisément celles qui fonctionnent comme variables pouvant servir à classer les ruptures : le *territoire*, la *langue*, le *collectif* et les *signes*. Pour sélectionner ces variables, celles qu'utilise Fredrik Barth (1976) pour délimiter la « frontière ethnique » d'un groupe ont été prises comme point de départ, à savoir, le *territoire*, la *langue*, la *parenté*, la *mémoire collective* et *l'identité de groupe* (Barth, 1976). En l'occurrence pourtant, bien que l'on se base sur la proposition de Barth, certaines adaptations nécessaires ont été apportées à la proposition de l'auteur, et même si le fond ou le contenu est respecté, sur la forme certaines spécifications lui ont été rajoutées, toujours avec l'intention de composer les variables pertinentes pour cette recherche.

Ainsi, d'une part, le *territoire* et la *langue* ont tous deux été pris en considération. À propos du premier, Barth explique que toute nation est

attachée à un territoire (imaginé)<sup>5</sup> et, par conséquent, devient un élément fondamental de la nation. Dans le cas de la nation basque, le poids du territoire est manifeste, surtout en raison de la présence qu'il occupe (a occupé) dans le discours nationaliste basque, mais aussi parce qu'il est source de débats ou de conflits. En effet, comme cela se produit régulièrement dans le cas des nations ne disposant pas d'État propre, il existe davantage de tendances/possibilités d'interpréter différemment les caractéristiques (désignation, frontières géopolitiques, etc.) du territoire « correspondant » à la nation. C'est pourquoi, dans le cas de la nation basque, celui-ci a été considéré comme variable devant être prise en considération.

Concernant la seconde, l'auteur affirme que la langue est l'un des principaux marqueurs culturels d'une société donnée, et explique qu'une nation s'efforce de valoriser dans la pratique et symboliquement sa langue. Dans le cas de la nation basque également, il a été estimé qu'il en était ainsi, notamment parce que, comme le territoire, la langue aussi a (eu) un poids significatif dans le discours nationaliste. Par là même, on comprend que, même si au Pays Basque, outre la langue basque, on parle également le français et l'espagnol (ainsi que d'autres langues de manière plus confidentielle), l'euskara demeure l'un des signes distinctifs de la nation basque, et doit, par conséquent, être également considéré.

Barth désigne par le terme de parenté la relation qui lie entre les eux les habitants d'une nation. Nous sommes d'accord avec l'auteur pour dire que toute nation a une société qui se sent « autochtone » ou « appartenant à cette nation ». Pourtant, dans ce cas, il a été jugé pertinent de changer la désignation. Nous pensons en effet qu'utiliser le terme de *collectif* au lieu de parenté évite l'idée selon laquelle on considère souvent que les membres de la nation

5 Ce lien peut se faire à deux niveaux. Au niveau pratique, parce qu'il se situe dans un espace géopolitique concret qui est propre à une société donnée ; ou encore au niveau symbolique car, même s'il y a eu une impossibilité de vivre sur le territoire qu'une société considère comme « le sien » (par exemple en raison de guerres), compte tenu du fait que l'on continue à maintenir symboliquement le lien, on peut le considérer comme territoire correspondant à sa nation, y compris après des décennies ou des siècles. C'est le cas du Sahara occidental ou de la Palestine.

appartiennent à une même famille ou sont du même « sang ». Précisément, et comme on l'a vu dans la réflexion théorique, parce ce que qui va rassembler les membres d'une nation est contingent et variable.

Enfin, l'auteur parle de *mémoire collective* et *d'identité de groupe*. La première fait référence à l'histoire commune que partagent les membres de la nation, et la seconde la comprend comme l'identité politique et partagée reliant aussitôt les membres de la nation. Dans ce cas, en revanche, du fait que tant la mémoire collective que l'identité de groupe s'avèrent être des variables trop floues pour la recherche, on a préféré voir quels sont les éléments qui supportent la mémoire collective et l'identité de groupe. Ainsi, ont été englobés, au moyen de *signes*, les différents symboles, pratiques, traditions, croyances, coutumes... qu'utilisent les membres de la nation pour se sentir comme tels.

On pourrait peut-être croire que cette sélection de variables est en contradiction avec ce qui a été dit sur la nation dans la réflexion théorique (voir 3.1.). En effet, il faut se souvenir que la nécessité d'établir une définition ouverte et souple de la nation sur un plan théorique a été soulignée, et il semble que cela vienne heurter à présent le fait d'avoir établi quatre variables qui correspondent à la nation. En ce sens, on a souhaité ajouter une explication, précisément, en exposant que la nation est composée d'éléments et de référents qui sont contingents, on veut signifier que toutes les réalités peuvent potentiellement jouer un rôle important dans la constitution de la nation ; ce qui signifie pas pour autant qu'il doive en être ainsi dans tous les cas de figure. Car sur le plan empirique (et concrètement dans la constitution de la nation basque), même si tous les discours, représentations, interactions et réalités peuvent aussi avoir la capacité d'intervenir dans la constitution nationale, ils n'ont pas tous le même poids. Du fait des évolutions historiques et politiques, les représentations sociales de la nation basque ont tissé un lien plus étroit avec certaines réalités données qu'avec d'autres et, par conséquent, certaines pratiques ou certains signes concrets offrent une contribution plus importante à l'actuelle renaissance nationale. Quoi qu'il en soit, il faut mentionner que,

38X	Technicien culturel de Donostia/Saint-Sébastien				•
39X	Technicien culturel de Tolosa				•

#### 4.2.2.e La documentation

Outre l'information recueillie au moyen du registre des ph, de l'observation participative et des entretiens, une collecte de documentation a également été effectuée. Celle-ci a permis de compléter l'information obtenue par le biais d'autres techniques. Cette voie différente nous a permis de tenter d'accéder au plus d'information possible liée aux processus humoristiques

basques, parce qu'elle a permis de compléter l'information recueillie grâce aux autres techniques, et de faciliter également une interprétation pertinente de l'information, tout en aidant à percevoir les ph à partir du contexte actuel social, culturel, politique et économique.

La recherche de documentation a été réalisée dans différents domaines :

1) Sur Internet et les réseaux sociaux en ligne : pour accéder non seulement aux ph, mais aussi aux opinions et impressions qu'ils génèrent, nous avons également eu recours à Twitter et aux blogs d'opinion, dans la mesure où les débats qui s'y déroulent se sont révélés particulièrement intéressants.

2) Dans la presse : nous avons également relevé des articles généraux et d'opinion en rapport avec les ph, principalement dans les quotidiens *Berria*, *Gara*, *El Correo* et *El Diario Vasco*, mais aussi ponctuellement dans la presse espagnole, surtout dans *La Vanguardia* et *El Mundo*.

3) Les conférences : Il n'est pas fréquent de trouver des conférences ou séminaires ayant pour thème de discussion l'humour. Toutefois, nous nous sommes efforcés de participer aux rares rencontres qui ont eu lieu, notamment à la conférence *Humour and the Humanities Graduate Student Conference* organisée par l'Université de York (Toronto, 2012) ; *Euskal umorea? (Un humour basque ?)*, organisée par Elekatu-Elikatu (Bayonne, 2013) ; au congrès intitulé *Humor en la historia de la comunicación (Humour dans l'histoire de la communication)*, organisé par l'Université de Castilla La Mancha (Cuenca, 2013) ; ou encore aux rencontres *Rockomikiak, binetak & doinuak* (Rock-bandes dessinées, bulles et musique) (Donostia/Saint-Sébastien, 2014).

4) Le travail bibliographique : La recherche bibliographique a été menée non seulement pour composer le cadre théorique, mais aussi pour accéder à l'information sur les ph. Par ce biais, on a eu connaissance des arrêtés et des règles établis dans certains endroits à propos des ph.



#### 4.2.2.f Les résidences de recherche

Le matériel obtenu au moyen des techniques mentionnées a été vérifié et affiné à l'aide de celui recueilli lors de trois résidences effectuées dans des universités à l'étranger. La possibilité de résider dans des centres qui comptent nombre de chercheurs et de travaux de recherche qui se sont penchés sur l'humour, nous a permis d'accéder à des sources d'information différentes et d'interroger des professionnels de ce domaine de recherche. Ainsi avons-nous eu l'opportunité d'ajuster et d'adapter notre approche de tout le matériel collecté et du travail réalisé jusqu'alors. Ces résidences ont comblé, dans une large mesure, l'insuffisance théorique rencontrée au sujet de l'humour.

##### -Madrid/Cuenca (2010-2011)

La première résidence de recherche a été double. D'une part, la résidence principale s'est déroulée à l'Université Complutense de Madrid, sous le tutorat d'Elena Casado, professeure au sein du Département de Sociologie. C'est dans ce cadre que nous avons pu approfondir les théories nécessaires à établir le lien entre humour et nation. Ce séjour s'est avéré particulièrement utile pour approfondir les théories féministes de la performativité. Par ailleurs, une partie de la résidence s'est déroulée avec Isis Saz, enseignante et chercheuse au sein du Département Histoire de l'Art de l'Université de Castilla la Mancha, ce qui nous a permis d'approfondir la vision artistique et esthétique de l'humour et de développer une perspective d'étude des ph pratiqués dans la rue.

##### -Ottawa, Canada (2012)

La première résidence de longue durée à l'étranger s'est déroulée à l'Université d'Ottawa, au cours d'un séjour de trois mois au sein du groupe de recherche

*ONOUPS (Observatoire des nouvelles pratiques Symboliques)*. Les recherches sur l'humour ayant une longue tradition au Canada, ce séjour sur place a été particulièrement fructueux, car il nous a permis de découvrir de près les recherches menées sur l'humour, et de rencontrer les enseignants responsables de ces travaux. Ces réunions ont tout particulièrement enrichi notre travail, car elles nous ont aidés à affiner les décisions à prendre, non seulement sur les théories concernant l'humour, mais aussi sur le plan de la méthodologie. L'opportunité que nous avons eue de travailler main dans la main avec les différents enseignants et doctorants poursuivant leurs recherches sur l'humour nous a été utile pour réorienter notre travail, corriger certains défauts et prendre en compte de nouvelles approches.

Les professeurs que nous avons interrogés sont les suivants :

- Dalie Giroux : professeure à l'École d'Études Politiques de l'Université d'Ottawa, spécialiste de l'utilisation de l'espace public et des activités politiques.
- Jean-Pierre Couture : professeur à l'École d'Études Politiques de l'Université d'Ottawa, spécialiste des pratiques symboliques et politiques.
- Andreas Krebs : professeur à l'École d'Études Politiques de l'Université d'Ottawa, spécialiste des relations de pouvoir et des colonisations culturelles basées sur les pratiques et les discours du quotidien.
- Dimitrios Karmis : professeur à l'École d'Études Politiques de l'Université d'Ottawa, ayant travaillé sur l'exclusion et les activités de résistance, notamment celles qui font appel aux mécanismes culturels.
- Francis Dupuis-Déri : professeur de Sciences Politiques à l'Université du Québec à Montréal, spécialisé dans les recherches féministes et les mouvements altermondialistes, connaisseur des revendications politiques ayant recours à l'humour.
- Éve Lamoureux : professeure d'Histoire de l'Art à l'Université du Québec à Montréal, travaillant sur la sociologie de l'art, spécialisée dans l'usage de l'art pour les changements culturels et l'activité politique.

-Buenos Aires, Argentine (2012)

La résidence que nous avons effectuée à l'Université de Buenos Aires, outre qu'elle nous a fourni la possibilité d'approfondir la question de l'humour, nous a également permis d'explorer conjointement les thématiques de l'humour et de la constitution de la nation. D'une part, avec Gisela Catanzaro, professeure à la Faculté de Sciences Sociales de l'Université de Buenos Aires, nous avons pu comprendre et questionner la nation, obtenant ainsi la délimitation, d'un point de vue théorique, de l'une des deux catégories analytiques de la recherche. D'autre part, avec Mara Burkart, partenaire de l'Institut d'Études d'Amérique Latine et des Caraïbes de l'Université de Buenos Aires, nous avons réuni la vision de l'humour et de la nation. Mara Burkart est spécialiste de l'humour et de la guerre, ainsi que de l'humour et de la constitution nationale, et elle a mené de nombreux travaux sur ces thématiques (notamment sa thèse intitulée : *"HUMOR: La risa como espacio crítico bajo la dictadura militar. 1978-1983"* (HUMOUR : *Le rire en tant qu'espace critique sous la dictature militaire. 1978-1983*). Enfin, nous avons rencontré Beatriz Trastoy, professeure à l'Université de Buenos Aires. Mme Trastoy est spécialiste du théâtre et des théories esthétiques contemporains, et ses conseils se sont avérés très intéressants pour la compréhension de la fonction sociale de l'humour.

## ANALYSE DE L'INFORMATION

*"las palabras significan mucho más de lo que dicen"*<sup>13</sup>

(Santander, 2011: 208)

L'espace dans lequel les sujets réalisent des actions et projettent des idées, est interprété comme une réalité ordonnée socialement. En fonction de cela, on peut considérer que ce qu'un individu comprend et connaît du monde est, dans une large mesure, semblable à ce que l'ensemble de la société comprend et connaît (Schutz, 1974). À partir de cette approche, nous voyons l'humour aussi comme le reflet d'une compréhension commune de la réalité ; on comprend qu'étudier les opinions, les valeurs, les craintes ou des sacralisations, et donc, les imaginaires d'un collectif (en l'occurrence les imaginaires du ph ethnique autoréférentiel basque), est une manière de savoir quelles sont les perceptions qu'a une société de la réalité (des noyaux imaginés de la nation basque).

Cependant, même si l'on considère comme vraie l'affirmation de Suthz, en se livrant à ce type d'interprétations, il faut prendre en compte le risque de tomber dans une généralisation excessive, car les discours étudiés ne répondent pas à un échantillon représentatif, et donc, les résultats obtenus ne peuvent être étendus à l'ensemble de la société. Malgré tout, dans la mesure où les ph étudiés appartiennent à la réalité sociale (précisément, puisqu'il s'agit de ph intervenus dans la Communauté Autonome Basque durant la période entre 2011 et 2015), on comprend que les résultats qui en sont issus également sont réels (Coll, 2009) ; en ce sens, même s'ils ne sont pas représentatifs de toute la réalité sociale, ils ont leur utilité pour expliquer les médiations des ph dans la constitution de la nation basque (Fernandez, 2006).

13 [« Les paroles signifient beaucoup plus que ce qu'elles disent » ]

La technique utilisée pour obtenir les résultats est *l'analyse des discours*, car on comprend que les imaginaires des ph, en raison de leur signification, de l'utilisation symbolique qu'ils font, et de leur capacité performative, sont des *discours* et, du moins, peuvent être traités en tant que tels. La pertinence de ce type d'analyse vient de deux aspects : d'une part, étant donné qu'il permet de tenir compte de la capacité qu'ont les discours d'influer sur la réalité sociale, il s'accorde, donc, avec la manière de comprendre le discours défendue dans le cadre théorique du présent travail (chapitre 2.2.3). D'autre part, dans la mesure où il met en lumière l'usage des signes et significations qui construisent la réalité et les relations de pouvoir qui conditionnent ceux-ci, il devient pertinent pour travailler avec les types d'objectifs du présent travail.

Après le « revirement discursif »<sup>14</sup> qui rend *l'analyse du discours* partie prenante des luttes politiques des revendications identitaires et culturelles minoritaires (Fraser, 2000), son usage s'étend et se renforce au sein des sciences sociales. Cette voie fonde son approche sur la capacité qu'a le langage à construire la réalité. Elle défend le fait que le discours œuvre aussi, avec la représentation de la réalité, à la construction de cette dernière et, par conséquent, affirme qu'il est impossible, sans le langage, de comprendre et de pénétrer la réalité. L'analyse du discours a donc pour but de connaître la construction de la pratique et de l'imaginaire social : les catégories, les classifications, l'attribution des caractéristiques, la construction du « nous » face à « aux autres »... en cherchant à comprendre comment se fait la transmission et la construction (Martin, Pardo et Whittaker, 1998).

14 Il fait référence au changement épistémique sur le discours dans lequel le courant d'opinion qui prétend s'éloigner des perceptions réalistes et représentationnelles du langage (Saussure, 1997 ; Bekerman, 1996) et que toute réalité est ontologiquement indissociable des discours utilisés par la société, se renforce. Ces idées seront approfondies au chapitre 2.2.

*"hace inteligible como se produce el conocimiento, cómo la realidad y cómo el propio proceso de conocer resulta legible y, en definitiva, cómo se construye la interpretación de la realidad"*<sup>15</sup> (Iniguez, 2003:48)

Mais même si les résultats offerts par *l'analyse du discours* sont très significatifs, pour ce qui est de l'analyse des données, il est fréquemment reproché à cette approche, une participation excessive du chercheur, autrement dit, son manque d'objectivité. On l'accuse d'avoir recours à des moyens trop obscurs pour réaliser l'analyse de l'information, justement parce qu'il est impossible de montrer et de prouver toutes les étapes du cheminement de l'étude qu'a suivi le chercheur et, par conséquent, on a coutume de la considérer comme une analyse qui ne montre pas aussi clairement qu'il le faudrait la pertinence et la justesse de l'analyse. Les partisans de ces critiques proposèrent, pour la remplacer, le recours à *l'analyse des contenus*.

*L'analyse des contenus* divise les textes en unités d'étude minimales et étudie isolément les éléments du texte en les classifiant au moyen d'une fiche des contenus conçue préalablement (Andreu, non daté). Laurence Bardin définit ainsi la technique d'analyse des contenus :

*"el análisis de contenido es un conjunto de técnicas de análisis de comunicaciones que tiende a obtener indicadores (cuantitativos o no) por procedimientos sistemáticos y objetivos de descripción del contenido de los mensajes, permitiendo la inferencia de conocimientos relativos a las condiciones de producción/recepción"*<sup>16</sup> (Bardin, 1990:28)

15 [« elle rend intelligible la manière dont se produit la connaissance, comment la réalité et comment le processus même de connaissance devient lisible et, en définitive, comment se construit l'interprétation de la réalité » ]

16 [« l'analyse de contenu est un ensemble de techniques d'analyse de communications qui tend à obtenir des indicateurs (quantitatifs ou pas) par procédés systématiques et objectifs de description du contenu des messages, permettant l'inférence de connaissances relatives aux conditions de production/réception » ]

Cependant, même si l'analyse des contenus, en utilisant la méthode quantitative, ne permet pas d'analyser la signification et les indicateurs de tous les textes, souvent peut subsister le risque de faire une interprétation limitée. D'une part, parce que cette technique se concentre uniquement sur le message, tandis qu'elle isole le contenu du message des autres éléments qui participent au processus de communication, sans tenir compte du fait que ces autres facteurs peuvent ou non provoquer des modifications dans la signification du discours (émetteur, message, récepteur, canal ou encore effet) (Shoemaker et Reese, 1991). D'autre part, le même outil est utilisé dans tous les textes pour la collecte de données garantissant la standardisation des résultats fournis par l'analyse, ce qui peut entraîner une limitation excessive du processus de recherche. Autrement dit, tous les contenus issus de la recherche doivent forcément être adaptés dans une fiche technique invariable, structurée préalablement, et qui, bien évidemment, doit être considérée comme étant la fiche qui englobe toutes les possibilités d'interprétation. Pourtant, le plus fréquent est que l'analyse des textes fournisse des informations que le chercheur n'a pas déterminé par anticipation, et par conséquent, l'analyse des contenus présente le risque de ne pas tenir compte de nombreuses informations significatives. Ainsi donc, comme avec d'autres outils qualitatifs, l'analyse des contenus présente de nombreux inconvénients pour l'étude des textes, justement parce qu'elle comporte le risque important d'être limitée avant même d'analyser la réalité (Bourdieu, 2001).

Face à cela, l'analyse des discours offre trois avantages. D'une part, elle n'établit pas à l'avance les catégories de recherche, mais les crée et les formule à mesure que progresse la recherche ou permet de les redéfinir. D'autre part, elle facilite l'analyse des différents éléments qui concernent le discours, c'est-à-dire que, pour ce qui est de la compréhension de la signification du texte, elle tient compte de l'analyse de la situation qui entoure le discours et donc, des influences que peuvent avoir sur le texte les modifications de contexte

(temps, espace et situation sociopolitique et culturelle) et d'agences. Enfin, en plus de la langue (écrite ou orale), elle considère également les autres moyens de communication et de représentation : elle confirme que d'autres textes, extérieurs à la linguistique, peuvent également être étudiés et lus (programmes de télévision, images, photographies, bandes dessinées, pièces de théâtre...).

En faisant l'analyse des discours, nous avons utilisé le programme Nvivo 8 pour effectuer la codification des matériels et l'élaboration des matrices des contenus. En outre, le tableau Excell et les notes manuscrites ont également aidé dans l'organisation et la gestion des idées. Les détails concernant la procédure suivie sont exposés dans les lignes qui suivent.

#### *-Le registre des ph*

1) *Préparation préalable à l'analyse* : sur une page Excell la fiche technique a été complétée avec les variables permettant la classification de l'information que l'on souhaitait extraire du travail de documentation. En tenant toujours compte du fait que ces variables peuvent être modifiables.

2) *Analyse sur le moment, classification de l'information* : on a rempli la fiche technique à mesure que l'on visualisait le matériel audiovisuel.

3) *Analyse de la documentation* : L'information de la fiche technique a été regroupée en thèmes et idées généraux, afin de visualiser les différents contenus des imaginaires/discours (Nvivo8).

4) *Diagramme des concepts* : en même temps que l'information, une carte des concepts fondamentaux a été créée (Nvivo 8), en mettant en évidence les relations entre eux.

### *-Observation participative*

1) *Analyse sur le moment* : Quand il a été possible de réaliser un enregistrement vidéo de la performance, des remarques audio ont été rajoutées pendant l'enregistrement, afin que les impressions sur ce qui se déroule soient recueillies. Lorsque l'enregistrement n'a pas été possible, les notes ont été prises à la main.

2) *Analyse de ce qui a été documenté* : Avec quelques exceptions, généralement la même journée d'observation a été utilisée pour faire l'analyse du matériel d'enregistrement et rajouter les notes prises à ce sujet. L'information conservée sur le contenu des ph a été classifiée dans la fiche technique et les autres contenus recueillis sur la performance (impressions de l'assistance, interactions...) ont été ajoutés au diagramme des concepts.

3) *Diagramme des concepts* : Après avoir classifié et ordonné le matériel collecté, les corrélations nécessaires ont été établies et, quand il l'a fallu, de nouveaux « nœuds » relationnels ont été créés.

### *-Entretiens et groupes de trois*

1) *Analyse sur le moment* : Pendant la réalisation des entretiens, des notes et commentaires ont été notés sur le cahier de terrain, en croisant ce que disaient les personnes interviewées avec l'information recueillie jusqu'alors. En même temps, l'entretien était enregistré afin de mener à bien, par la suite, son analyse.

2) *Analyse de la documentation* : La documentation enregistrée n'a pas été transcrite intégralement, mais les passages considérés comme importants ont été classifiés et ajoutés dans le programme Nvivo8.

3) *Diagramme des concepts* : Le matériel retenu dans les entretiens a été ajouté au diagramme des concepts, là encore en élaborant de nouveaux « nœuds » relationnels après avoir établi les corrélations nécessaires.

### *-Documentation*

1) *Diagramme des concepts* : un autre type de documentation intéressante, collectée au cours du travail de recherche, est venue s'ajouter progressivement au diagramme des concepts.

Après avoir classifié l'ensemble de l'information recueillie dans ce diagramme des concepts, les idées ont été regroupées entre elles et les résultats issus de ce travail ont finalement fait l'objet d'une rédaction.

Aurreko kapituluetan nazioa eta umorearen arteko komuntadura osatzeko oinarri teorikoak ezarri dira, eta zehazki, euskal nazio eraketa eta up-en arteko harremana ekarri da argitara.

Lotura horri hasiera eman zaio umore kategoriaren zehaztapena eginez. Horretarako, lehenik eta behin, umorearen inguruan egon diren ikuspegi eta teoria nagusienak ekarri dira gogora, soziologiatik eta soziologia ez den bestelako diziplinetatik jorratu diren umorearen gaineko perspektiba desberdinak aintzat hartuz. Azterketa horretatik bi argibide nagusi atera dira: batetik, aditu eta ikerlarien artean ez dagoela umorea ulertzeko eta definitzeko modu komun eta adosturik, eta ondorioz, umorearen inguruko ulerkerak oparoen dela. Horrek agerian jarri du bai kasuan-kasuko egoerei bai eta ikuspegi makro bati erantzuteko baliagarria den umore kategoriatik osatzekotan, zabaldu, iragazkorra, birziklagarria eta malgua behar duela izan. Bestetik, ordea, antzeman da autoreek umoreaz egin dituzten definizioetan lehen bistara agertzen dituzten desakordio horien baitan uste baino adostasun handiagoa dagoela, umoreari oinarritzeko ezaugarri komun batzuk esleitzen baitzikiote inplizituki. Azterketa horretatik hiru dira identifikatu diren umorearen ezaugarri partekatutako nagusiak: *gizamena*, *haustura* eta *distantzia* izendatu direnak (ikus 2.1).

Oinarri horietatik abiatuz, umorearen azterketa soziologikorako baliagarria den umore kategoriaren proposamen bat luzatu da, hain zuzen ere, umorea *mediazio* gisa uler daitekeela agerian jarri (ikus 2.2). Horretarako, batetik, umoreak prozesu gisa funtzionatzen duela erakutsi da (up), honek aukera ematen duelarik umorearen izaera aldakor eta interaktiboa kontuan hartzeko. Eta bestetik, prozesu jardura horretan, umoreak informazioa helarazten duela (praktika diskurtsibo bat dela) ikusi da, prozesu sozial izateaz gainera subjektuen arteko komunikazio harreman bat ahalbidetzen duela oinarritzat

hartuz. Bi aspektu horietatik abiatzeko aukera eman du up-ak errealitate soziala, eta horren baitan euskal nazioa, performatzen duen mediazio gisa ulertzeko.

Azken proposamen hori finkatzeko, ordea, beharrezkoa izan da nazioa performagarria den errealitatea dela bermatzea. Horretarako, lehenik eta behin, nazioaren inguruko irakurketa nagusienak aztertu dira, umorearen kasuan ikusi bezala nazioak ere orotariko interpretazioak dituela agerian jarriaz (ikus 3.1). Aukera guztien artean ikuspegi modernistari heldu zaio, hori delako nazioaren interpretazio eraikitzailea kontuan hartzen duena, eta ondorioz, ikerketaren helburuei hobekien doitzen zaiona (ikus 3.2). Ikuspegi horretatik abiatzeko aukera eman du ulertzeko sistema eta ordenu soziopolitiko baterako diskurtsoa dela nazioa, eta ondorioz, baduela irudikatua den alde garrantzitsu bat. Nazio irudikatua den hori helduz (Anderson, 1993), irudikariek duten performatzeko gaitasuna azaldu da *Queer* teoriaren bidez (Butler, 2001) eta nazioa *nukleo irudikatu multipolar* gisa formulatzea ekarri du horrek. Planteamendu horri esker, finean, nazioaren gaineko irudikariak egunerokotasunean gauzatzen (materializatzen) diren diskurtso gisa jokatzeko dutela ikusi da (ikus 3.3). Azken interpretazio horrek eskaini du, batetik, nazioa performatzen den errealitate soziala dela ikusteko aukera, eta beraz, umoreaz arestian esandakoari teorikoki lotzeko parada. Baina horrekin batera, agerian jarri du umorea egunerokotasuneko praktika bat den heinean, nazioaren eraketa horretan parte hartze aktiboa izateko potentzialtasuna ere baduela, eta ondorioz, euskal nazioaren eraketan rol politikoa betetzeko ere bai. Amaitzeko, aipatutako hausnarketak euskal nazioaren kasura hurbildu dira, eta azken hamarkadetan euskal nazioaren gaineko irudikari (diskurtsoek) izan duten bilakaera eta garaian garaiko testuinguru politikoarekin erakutsi dituzten loturak bistaratu dira (ikus 3.4). Azken hori baliagarria da euskal nazioaren eraketa irudikatu eta

up-en bilakaeraren arteko loturak ezagutzeko, baina baita ere gaur egun egiten diren euskal nazioaren inguruko up-en jatorria hobeto ezagutu eta baloratzeke ere.

Aipatu berritako eraketa teoriko horiek oinarritzat hartuz, jarraian aipatzen den atalean ikerketaren diseinua zehaztu da. Lehenik eta behin, analisi ereduak zein den azaldu da, iker galdera eta lanaren xedea batetik, eta iker objektu eta azpi helburuak bestetik, argituz. Halaber, egin den bilakaera teorikoa laburbiltzen duen mapa kontzeptual bat ere gehitu da, hasierako iker galderatik lanerako baliagarria izan den helburuaren formulaziora nola iritsi den gogoan izateko balio duena. Jarraian, metodologia eta landa lana zein izan den azaldu da, laginaren inguruko informazioa eta erabili diren ikerketa teknikak zeintzuk diren aurkeztuz. Amaitzeko, eskuratu den informazio eta material guztia nola kudeatu eta aztertu den esplikatu da.

## 4.1.

### ANALISI EREDUA

Iker objektua esanguratsuki berria da. Umore bidezko nazio eraketa apenas ikertu da soziologiatik eta are gutxiago umorea mediaziotzat joaz, eta horrek ikerketa prozesua interesgarria bezain maldatsua izatea ekarri du. Interesgarria, batetik, doiketa teorikoa, planteamendu metodologikoa eta analisi enpirikoa formulatu eta burutzeko bide "berrien" esploraziorako tartea zabaltzeaz batera, gogobeteko sormen eta irudimen prozesu batean murgiltzeko aukera eskaini duelako. Umore eta nazioaren arteko harreman "irristakorrari" heltzeko itemak eskuarki erabiltzen diren kategoriatik eta ikuspegiak zalantzan jarri eta ate epistemiko eta teoriko berriak irekitzeko aukera

eman duen hausnarketa prozesu aberasgarri bat bultzarazi du. Hala, prozesuaren emaitza egokia izateaz gainera (umorea eta nazioa aztertzeko bide teoriko eta analitiko bat eraikitzea lortu baita), horretarainoko ibilbidea bereziki interesgarria suertatu da. Baina helduleku teoriko eskaseko ibilbidea izateak garrantz bilakatu du zenbaitetan ikerketa, izan ere, urriki jorratutako esparruan sartzeak "lehen aldi" batek berekin dakartzan arriskuak ere sortarazi ditu. Planteamendua eztabaidatu, akatsak ikusi eta egokitzapenak egiteko aurretiko eredurik ez izateak, zaurgarri bilakatu du honako proposamena. "Arrisku" horiei erantzunez, beraz, proposamen teorikoan erabilitako inizatiba adina arreta erabili da metodologiaren planteamenduan eta urratsez-urrats haztatu dira analisisirako aukera egokienak.

#### 4.1.1. Iker galdera eta xede nagusia.....

*"La investigación del sociólogo no es, pues, adánica: no aborda libre de prejuicios la realidad que quiere estudiar, sino que la concibe de antemano desde una teoría que se supone no arbitraria y no demasiado coloreada por juicios de valor"*<sup>1</sup> (Beltran, 2003:20)

Nola proposatzen dugun planteamenduaren gaineko ezagutza oparoen ez delako, hala umorearen ikerketa zientifikorako abiapuntu, teoria eta lanabesak urriki direlako, iker lan honetan hipotesirik ez formulatzeko hautua egin da.

Ulertzen dugu hipotesiak ikerketan zehar frogatu edo errefusatuko diren baieztapenak direla, aztertu nahi den fenomenoaz azaltzeko aurreneko proposamen hipotetikoak, eta beraz, noraezean ibili nahi ez bada edota alferreko lana

<sup>1</sup> ["Soziologoaren ikerketa ez da garbia: ikertu nahi duen errealitateari ez dio aurreiritzirik gabe heltzen, aitzitik, ustez arbitrarioa ez den eta balio epaigarri askorik ez duen teoria batetatik abiatuko da."]

egitea ekidin nahi bada, horien formulazioak ikergaiaren inguruko gutxieneko ezagutza edo oinarri finko bat izatea eskatzen du: *"No puede existir desconocimiento sobre la hipótesis planteada, porque se puede cometer un error en su construcción"*<sup>2</sup> (Tello, 2011: 230).

Kasu honetan, ikerketaren eta iker-objektuaren ezaugarriak kontuan izanik, baloratu da hipotesien formulazioa burutzeak ikergaiaren ikuspegi mugatu edo desegoki bat hartzea ekar dezakeela, hau da, lagungarri izan baino ikerketarako balazta izateko arrisku handia zegoela. Izan ere, ikergaia berria eta oro har gutxi aztertuta den halako kasu batean, berretsi edo errefusatuko diren aurresteak proposatzeak iker objektua baldintzatu eta horren ezagutza gehiegi mugatzea ekar dezakeela ikusi da (Edwards, 2003). Hipotesien formulazioak dakarren "arriskua" ekidin nahi izan da horrela, alegia, landa lanetik ateratako emaitzen inguruan egiten diren irakurketak aurrez formulaturiko hipotesiek baldintzatuak ez egotea, eta ondorioz, ikerlariaren interpretazioak aurre ezarritako hipotesietara bideratzearen lakioan ez erortzea (Andrade, 2007). Izan ere Gregorio Klimovsky-k dioen bezala, *"quien plantea una hipótesis supone que ella es verdadera"*<sup>3</sup> (Klimovsky, 2001:132). Hartara, Derek Edwards autorearen proposamenetik abiatuz (Edwards, 2003:149), iker lan honetan hipotesien erabilera baztertu, eta horren ordez, iker galdera abiapuntutzat hartzea erabaki da.

Galderaren formulazioak ezezaguna den gai baten uneko egoera, harremanak, gatazkak, bilakaerak, transformazioak... kontuan izan eta modu erlazional batean ezagutzeko aukera ematen du (Becerra, 1994:27). Hala, errealitate jakin bat hautatu eta horrek duen

ziurgabetasuna formulatuz (ageriko eginez), iker objektua zehazteaz batera horrekiko jarrera zabala mantentzea erdiesten da.

Uste horretatik abiatuz, beraz, ondokoa da ikerketa honek abiapuntutzat hartu duen iker galdera: *"Nolako da umoreak euskal nazio eraketan duen rol politikoa?"*. Iker galdera hau proposatzeak aukera eman du ikerketaren helburu nagusia formulatzeko, **umoreak euskal nazio eraketan duen rol politikoa ezagutza** hartu baita xedetzat. Eta horren baitan, helburu nagusia erdiesten lagundu duten hiru azpi helburu zehatz markatu dira (beherago zehaztu direnak). Abiapuntu hau hartu izanak ahalbidetu du ikerketaren diseinua bideratzea baina ikerlariaren gehiegizko aurresteengatik baldintzatu egon gabe. Jabetzen gara ikerketa orotan ikerlariaren ikuspegi subjektiboak presente daudela. Ahal den neurrian, ordea, horiek ekiditea eta egon badaudenen inguruan erreflexiboak izatea izan da helburua, eta hipotesirik ez planteatu izanak noranzko horretan lan egiten lagundu du.


Baina iker galdera zein helburuan agertzen diren kategoriak (umorea, euskal nazioa eta rol politikoa) lanerako lausoegiak izateagatik ikerketa bideratzeko lan tresna erabilgaitz bihurtzen dira. Ikerketarako erabilgarriak izan daitezten, beraz, aurreko ataletan egin den hausnarketa teorikoan landutako edukiak kontuan hartu dira (Valles, 2000). Egokitzapen horrek bi ekarpen egin dizkio lanari: batetik, umorea, nazioa eta horien arteko lotura den rol politikoa zedarritzearekin landa lanerako baliagarriak diren kategoriak osatu dira. Eta bestetik, zehaztapen teorikoak berekin ekarri du helburu nagusia erdiesteko oinarritzko pieza: iker objektuaren eraketa, hain zuzen ere (Zemelman, 1987).

#### 4.1.2. Mapa kontzeptuala.....

2 ["Proposatutako hipotesiaren gaineko ez-ezagutzarik ezin da egon, haren eraketan akatsa egin baitaiteke bestela"]

3 ["hipotesia proposatzen duenak hori egiazkoa dela aurreste du"]

UMOREAREN ROL POLITIKOA EUSKAL NAZIOAREN ERAKETAN



UMORE PROZESUEN (UP) MEDIAZIOA EUSKAL NAZIOAREN NUKLEO IRUDIKATU MULTIPOLARREAN



#### 4.1.3. Iker objektua eta azpi helburuak .....

Mapa kontzeptualean ikus daitekeen egitura teoriko horretatik eskuratu da helburu nagusia erdiesteko egokia den iker objektua, zehazki honela formulatu dena: **umore prozesu (up) euskal etniko autoerreferentzialen mediazioa euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarren eraketan**. Hori da ikerketa honek aztertzen duena. Iker objektu honek hasierako helburuan formulaturiko kategoriak aztergarriak diren errealitate konkretuagoetara bideratzen ditu. Horrela, [umorea], up *euskal etniko autoerreferentzial* gisa ulertzen da; [euskal nazioa] *euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarra* ordezkatzen du; eta [rol politikoa] *mediazio* gisa aztertu da (zehazki up-en mediazioa izango dena), bere baitan hartzen dituelarik bai [umoreaz] egiten den berariazko erabilpen politikoa, bai eta [umoreak] duen gaitasun performatiboa ere<sup>4</sup>. Ikerketaren muina, beraz, *mediazioaren* azterketan kokatzen da, hori ulertzeak argitara baitakar beste bi kategorია analitikoen (*up* eta *euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarren*) arteko loturaren nolakotasuna.

Mediazioak elementu asko eta oso desberdinak barnebildu ditzakeela jakinik, ordea, bai eta aldakorra eta malgua den prozesu bat dela kontuan hartuz ere, horren azterketa atalka eta modu progresiboan egitea erabaki da. Urratsez urratseko azterketa errazteko, eta halaber, up-en mediazioa xehetasun handiagoz behatu eta ikerketa helburuari egokiago heltzeko, up-en mediazioaren inguruan hiru azpi-galdera eta horietako bakoitzari loturiko azpi-helburu bana zehaztu dira. Azpi-galdera eta

4 Hausnarketa teorikoan esandakoa aintzat hartuz, gogora ekarri behar da [rol politikoa] zentzu bikoitza hartzen duela: batetik, umorearen berariazko erabilera arrazionalari dagokiona (zentzu arruntean erabilera politikoa bezala uler zitekeena), eta bestetik, egitate sozialak modu ez-arrazionalen birsortzeko duen gaitasunari dagokiona, hots, ahaldun performatiboa.

azpi-helburuak osatzeko kontuan izan dira hausnarketa teorikoan identifikatu eta eraikitzen joan diren umorearen gaineko ezaugarriak. Hots, *haustura*, *distantzia* eta *gozamena*.

#### 4.1.3.a. *Haustura*

Up-en bidezko euskal nazioaren eraketan prozesua (mediazioa) nolakoa den ezagutzeko eman beharreko lehen urratsa, nolako up-ak erabiltzen diren ezagutzea da, eta horretarako baliagarria da up-en *hausturei* erreparatzea. Arestian aipatu bezala, *haustura* deritzo umorea suertatzeko beharrezkoa den desoreka edo desdoi efektuari (ikus 2.2), hor egiten baita ikusgarri up-ak zein errealitate (diskurtso/irudikari) hartu duen jomugatzat.

Hori kontuan izanik, ondoko azpi-galdera formulatu da: *Zeren inguruan egiten dira up-ak?* Galdera horri lotuta azpi-helburu hau eratu da: *Up euskal etniko autoerreferentzialek umore jomugatzat euskal nazioaren inguruko ze errealitate hartzen duten identifikatzea.*

Identifikazio lan hori errazteko, aurrez ezarri dira nazioari lotuak dauden zenbait errealitate, hain zuzen ere hausturak sailkatzeko baliagarri suertatu diren aldagai gisa funtzionatu dutenak: *lurraldea*, *hizkuntza*, *kolektiboa* eta *zeinuak*. Aldagai horiek aukeratzeko Fredrik Barth-ek (1976) talde baten *muga etnikoa* zedarrizteko erabiltzen dituen aldagaiak hartu dira abiapuntutzat, hots, *lurraldea*, *hizkuntza*, *ahaidetasuna*, *memoria kolektiboa* eta *talde identitatea* (Barth, 1976). Kasu honetan, ordea, Barthen proposamena oinarritzat hartu bada ere, beharrezko egokitzapen batzuk egin zaizkio autorearen proposamenari, eta funtsa edo mamia errespetatu bada ere, forma aldetik zehaztapen batzuk gaineratu zaizkio, beti ere ikerketa honetarako egokiak diren aldagaiak osatu asmoz.

Hala, *lurraldea* eta *hizkuntza*, batetik, biak hartu dira aintzat. Lehenaren inguruan Barthe adierazten du nazio oro (irudikatutako) lurralde bati atxikia dagoela<sup>5</sup>, eta ondorioz, nazioaren oinarritzko elementu bilakatzen dela. Euskal nazioaren kasuan lurraldearen pisua nabarmena da, batez ere euskal diskurtso nazionalistan (izan) duen presentziarengatik, baina baita ere, hainbat gatazka edo eztabaidaren iturri izateagatik ere. Izan ere, estatu propiorik ez duten nazioen kasuan gertatu ohi den moduan, nazioari "dagokion" lurraldearen ezaugarriak (izendapena, muga geopolitikoak, eta abar) desberdin interpretatzeko joera/ aukera gehiago dago. Hori dela eta, euskal nazioaren kasuan aintzat hartu beharreko aldagaitzat jo da honakoa.

Bigarrenari dagokionez, autoreak dio hizkuntza dela gizarte jakin baten bereizle kultural nagusietako bat, eta nazio batek bere hizkuntza praktikoki zein sinbolikoki balioan jartzeko ahaleginak egiten dituela azaltzen du. Euskal nazioaren kasuan ere hala gertatzen dela baloratu da, besteak beste, lurraldearekin gertatu bezala, hizkuntzak ere euskal diskurtso nazionalistan pisu esanguratsua (izan) duelako. Hala, Euskal Herrian euskaraz gain frantsesa eta gaztelania hitz egiten badira ere (bai eta modu apalagoan beste hainbat hizkuntza), ulertzen da euskara dela euskal nazioaren zeinu bereizleatariko bat, eta ondorioz, kontuan hartu beharrezkoa ere bai.

Barthe ahaidetasuna deitu dio nazio bateko biztanleak elkar lotzen dituen harremanari. Autorearekin bat eginez, ados gaude nazio orok "bertakoa" edo "nazio horri

5 Lotura hau bi mailatan egin daiteke. Praktikoan, hau da, gizarte jakin batek propiotzat duen esparru geopolitiko konkretu batean kokatua dagoelako; edota sinbolikoan, gizarte batek "berrea" kontsideratzen duen lurraldean bizitzeko aukera gabe geratu bada ere (gerrengatik, kasu), sinbolikoki mantentzen jarraitzen duen lotuta kontuan hartuz, bere nazioari dagokion lurraldetzat jo baitezake, hamarkadak zein mendeak pasata ere. Mendebaldeko Sahara edota Palestinan, kasu.

dagokiola" sentitzen duen gizarte bat baduela, baina kasu honetan izena aldatzea egokiagoztat jo da. Hala, ahaidetasunaren ordez *kolektiboa* erabiltzeak maiz nazio kideei egozten zaien familia edo "odol" berdinekoak direla pentsatzea ekiditen duelakoan gaude. Hain zuzen ere, eta hausnarketa teorikoan ikusi bezala, nazio bateko kideak elkartuko dituen kontingentea eta aldakorra delako.

Azkenik, autoreak *memoria kolektiboa* eta *talde identitatea* aipatzen ditu. Lehenak nazio kideek partekatzen duten historia komunari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak nazio kideen artean unean bertan sartzeko den nortasun politikoa eta partekatu gisa ulertzen du. Kasu honetan, aldiz, bai memoria kolektiboa zein talde identitatea ikerketarako aldagai lausoegiak suertatzeagatik, nahiago izan da memoria kolektiboa zein talde identitatea sostengatzen duten elementuak zeintzuk diren ikustea. Hala, *zeinuen* bidez barnebildu dira nazio kideek haien burua hala sentitzeko erabiltzen duten sinbolo, praktika, tradizio, sinesmen, ohitura... desberdinak.

Iruditu dezake, behar bada, aldagaien aukeraketa hori egitea hausnarketa teorikoan nazioaz esandakoarekin kontraesanean datorrela (ikus 3.1.). Izan ere, gogoan hartu behar da maila teorikoan nazioaren gaineko definizio zabal eta malgu bat egitearen beharra azpimarratu dela, eta badirudi horrek talka egiten duela orain nazioari dagokion lau aldagai ezarri izanarekin. Zentzu horretan azalpen bat gaineratu nahi da, hain zuzen ere, nazioa kontingenteak diren elementu eta erreferentziaz osatzen dela adieraztean esan nahi da errealitate guztiak potentzialki nazioingintzan paper garrantzitsua joka dezaketela; baina ez, ordea, kasu guztietan hala izan behar duenik. Izan ere, maila enpirikoan (eta euskal nazioingintzan zehazki) diskurtso, irudikari, interakzio eta errealitate guztiak nazio eraketan esku hartzeko gaitasuna izan badezakete ere, denek ez dute pisu bera. Bilakaera historiko eta politikoen eraginez, euskal nazioaren irudikapen sozialek errealitate jakin batzuekiko

besteekiko baino lotura estuagoa saretu dute, eta ondorioz, erreferente, praktika edo zeinu konkretu batzuk beste batzuk baino ekarpen handiagoa egiten diote gaur-gaurko nazioaren birsortzeari. Edonola ere, aipatu behar da lau aldagai horien inguruan lan egin bada ere, aurrezarririk aldagai horiek ez direla modu hertsatzailean erabili. Hau da, up-etan euskal nazioaren nukleo irudikatuen eraketarako lau aldagai horietatik kanpo legokeen besteren bat aipatzen zela ikusi balitz, hori ere ikerketara gehitua izateko malgutasunez jokatuko litzateke<sup>6</sup>, pentsatzen baita nazioagintzan eragin dezaketen eta aurreikusteko gai ez garen beste errealtaterik ere egon daitekeela. Kasu honetan, ordea, ez da horrelako adibiderik topatu.

#### 4.1.3.b. Distantzia

Hausnarketa teorikoan esandakoa gogora ekarriaz (ikus 2.2), ikusi da up-ek errealtate bat jomugatzat hartzen dutenean errealtate horrekiko "zerbait" esaten dutela. Hots, *hausturak* errealtate jakin bat kolpatzen duenean, errealtate hori bere testuinguru arruntetik "desplazatzea" dakar, eta ondorioz, errealtate hori beste modu batez ulertu

6 Ekonomia kasu, umore etniko ingelesean pisu handia hartzen duen gaia da, adibidez.

eta ikusteko ariketa sustatzen du. Up-ek kolpatzen duten errealtatearekiko helarazten duten diskurtsoa ezagutzeari dagokio *distantziak*, hain zuzen ere, up-en mediazio prozesuan parte hartzen duten euskal nazioari buruzko diskurtsoak zeintzuk diren ikusteko aukera emanez.

Honakoa kontuan izanik, hau da proposatzen den api-galdera: *Zer esaten dute euskal nazioaz horri buruz egiten duten up-ek?* Eta galdera horrekin azpi-helburu hau osatu da: **Up euskal etniko autoerreferentzialek osatzen duten euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarraren tasuna ezagutzera ematea.**

#### 4.1.3.c. Gozamena

*Gozamen* gisa ulertu da up-ek plazera sortzeko duten ahalmena (ikus 2.2). Baina up desberdinek ez dute gizarte mailan gozamen berbera eskuratzen, besteak beste, *gozamena* lotua doakiolako up-en *haustura* eta *distantziaz* egiten den hautemateari. Hala, gozamenaren ekoizpena zertan datzan ulertzeak, bai eta gozamen desberdineko up-ak nola kudeatzen diren jakiteak aukera ematen du up-en arrakasta, eragina edota instituzio maila baloratzeko, eta finean, up-en bidezko mediazio prozesua nola gauzatzen den ezagutzeko.

Horretatik abiatuz, hau da osatu den azpi-galdera: *Nola jokatzeko eta eragiten dute up-ek euskal nazioaren eraketan?* Eta azpi-helburutzat ondoko hau hartu da: **Up euskal etniko autoerreferentzialaren bidezko euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarraren eraketan, up-en artikulazioak eta eraginak ezagutzera.**

Azpi helburuak ezartzea baliagarri suertatu da, halaber, ikerketa prozesuaren urratsak markatzerako. Izan ere up-en mediazioak dauzkan aspektu desberdinak batera ikertzea ezinezko lana zela ikusita, horren atal desberdinak (azpi helburuetan markaturiko bakoitza) banaka eta elkarren hurrenkeran aztertzea erabaki da. Orotara, beraz, hiru urrats diakronikotan banatu da ikerketa, urrats edo fase desberdinetan banatzeak mediazioaren elementu eta ezaugarrien aniztasuna kudeatzeko aukera eman, eta horrekin batera, aniztasun horretatik ahalik eta informazio gehien eskuratzeko parada eskaini duelarik. Urrats bakoitzean, beraz, up-en mediazioaren alderdi bat landu da eta lanketa horretatik ateratako informazioa hurrengo urratserako abiapuntu bilakatu da. Kate horretako begi bakoitzak aurrekoak emandako informazioa interpretatu eta osatu du hortaz, eta kate amaierako material guztiaren irakurketa orokorra **umoreak nazioagintzan betetzen duen rol politikoa** ezagutzeko baliagarri suertatu da.

## 4.2.

### METODOLOGIA ETA LANDA LANA

Metodologia kualitatiboa erabili da ikerketan. Metodologia honek errealtate sozialeko zentzu eta esanahien eraketaren berri izateko aukera ematen du, eta kasu honetan gertatzen den bezala, erregularitasun edo joera estatistikorik bilatzen ez den ikerketetarako bereziki erabilgarria suertatzen da. Zehazki, ikerketa honi primeran doazkion bi ezaugarri dauzka metodologia kualitatiboak. Batetik, Ignacio Ruiz Olabuenaga-k (2012) dioen moduan, metodologia kualitatiboa mundu soziala sinbolo eta esanahien bidez eraikia dagoela pentsatetik abiatzen da, eta oso egokia suertatzen da halako errealtateak ikertu nahi dituztenentzat. Bestetik, oso erabilgarria suertatzen da, malgutasun, aldakortasun eta "izaera zabaleko" ikerketak egiteko. Izan ere:

*"La metodología cualitativa genera las condiciones para que surja lo inesperado en el discurso: en tanto a*

*metodología abierta y flexible, propicia la manifestación de lo implícito y lo emergente*<sup>7</sup> (Ruiz Olabuenaga, 2012:23)

Hori horrela, erdietsi nahi den helbururako metodologia egokientzat joa da honakoa, up-en azterketan, nazio nukleo irudikatu multipolarraren eraketan eta oro har mediazio prozesuaren ulermenean, irudikariekin (diskurtsoekin) lan egiten baita etengabe: horiek nola aritzen diren, zein esanahi eta diskurtso egozten zaien eta zein kudeaketa jasotzen duten ulertzea baitira, beste hainbat artean, egin behar nagusietariko batzuk. Ikuspegi metodologiko kualitatiboari segituz burutu dira, beraz, datu bilketa eta horien analisirako urrats guztiak.

#### 4.2.1. Laginaren aukeraketa eta datu bilketa.....

Ikerketa honetako lagina bi eratako irudikari/diskurtsoek osatu dute. Batetik, up-etako broma gisa izendatu direnek (zer diren jarraian zehazten da), eta horiek osatzeko burutu diren zenbait adituri eginiko elkarrizketek, bestetik.

##### 4.2.1.a. Up-etako bromak

Umore bidezko euskal nazio eraketaren rol politikoa argitara ekartzeko egokitzat joa da Euskal Herrian erabiltzen diren up-en ikuspegi orokor bat kontuan hartzea. Horrek esan nahi du diziplina umoretsu jakin batean zentratu ordez (komikiak, bakarriketarako, literatura, zinea, eta abar),

7 ["Metodologia kualitatiboak diskurtsoan zehar ezustekoak gerta daitezkeen baldintza egokiak sortzen ditu: metodologia ireki eta malgua den heinean, inplizituan dagoena ageriko egiten laguntzen du"]

forma desberdinetako up-ak kontuan hartu dituen lagina osatu dela. Horrela egitea erabaki da ikerketa honek ez duelako umore forma jakin batekiko interes berezirik, aitzitik, up-etan dauden irudikariak (diskurtsoak) ezagutzea da helburua, horiek edozein forma dutelarik ere. Izan ere, ulertzen dugu: *"si bien todo discurso tiene forma textual o es susceptible de adquirirla, un mismo texto puede incluir distintos discursos y un mismo discurso puede aparecer bajo distintas formas textuales"*<sup>8</sup> (Ruiz Ruiz, 2009: orri gabe). Formari dagokionez, beraz, modu irekian jokatu da.

Baina, up-en produkzioa eta erabilera gizartean izugarri zabala dela kontuan izanik lagina mugatzen duten zenbait irizpide ezartzeko beharra ikusi da. Hori dela eta, ikerketa helburua behar bezala jadesteko informazio gehien (saturazioa) eta aberatsena (kalitatea) eskaini duten kasuak topatze aldera, hiru irizpide finkatu dira (Andreu, datarik gabe):

##### -Dimentsioa

Up-ak dimentsio sozial desberdinetan ager daitezke: ekonomikoa, soziala, akademinoa, osasungintza... Kasu honetan, dimentsio kulturalari heldu zaio batik bat, esparru kulturallean sortzen eta erabiltzen diren up-ak hartu direlarik kontuan (komunikabideetan, zinean, ospakizunetan, tradiziozko praktikean...). Izan ere, ikusi da esparru kulturala dela Euskal Herrian azken urteetan up produkzio emankorrena sorrarazi duena eta horien artean kokatzen dira, gainera, euskal nazioari buruzko edukiak lantzen dituztenak. Egia da, bestalde, esparru kulturala eta soziala edota politikoa bereiztea nekeza izan dela zenbait kasutan up-ek dimentsio desberdinetan jokatzeko

8 ["diskurtso guztiek testu forma izan edo izateko gaitasuna badute, testu berdin batek diskurtso desberdinak izan ditzake bere baitan, eta diskurtso bera testu forma desberdinetan ager daiteke"]

eta eragiten bukatu baitute sarri. Hartara, sailkapen hau kasuen bilaketarako baliagarri izan den tipo ideal gisa erabili da, baina erakutsi duen malgutasuna dela eta, ez da adierazgarritzat jo emaitzen ondorioak ateratzeko orduan.

##### -Tipoa eta gaia

Euskal Herrian egiten diren up mota guztien artetik, euskal umore etnikoa erabiltzen dituztenak hartu dira kontuan. Hots, haien burua euskal kolektiboko kide gisa identifikatzen dutenek erabiltzen duten umorea hartu da aintzat. Baina horren baitan gaiak askotarikoak izan daitezkeenez (sexualitatea, arrazakeria, homofobia...), up autoerreferentzialak direnei erreparatu zaie soilik. Hau da, euskal kolektiboko kideek erabiltzen duten eta haien inguruan diharduten up-ei, hots, euskal nazioaren inguruan hitz egiten dutenei<sup>9</sup>.

##### -Interakzio esparrua

Up-ek maila desberdinetako interakzioak sor ditzakete. Kasu honetan up-en lehen mailako exekuzioan jarri da arreta, hots, gauzatze originalean. Horrek ahalbidetu du up-etako bromak eskuratzea eta ezagutzea, baina baita ere, jende aurreko produkzioa egiten den kasuetan, broma horien efektuak (gozamen) baloratzea ere. Up-en

—

9 Kontuan hartu behar da umore etniko autoerreferentziala eta umore kostunbristaren arteko aldea. Umore kostunbrista eskualde edo herrialde baten ohituretan oinarritzen den umorea da eta bertako tradizioak edo ohikotasunak islatzen ditu. Aintzat emanez kolektibo guztiak pentsaera eta jokatzeko modu bertsuak dituela. Umore etniko autoerreferentzialak, hain zuzen ere, ikuspegi horrekin haustea ahalbidetzen du, kolektibo guztiak ohitura eta tradizio berak dauzkanik ez duelako uste. Ohiturez gain, beraz, nazioaren baitako mundu ikuskera desberdinak, erreferenteak, diskurtsoak, ideologia politikoak, praktikak edota botere-harremanak kontuan hartzen dira. Umore etniko autoerreferentzialak, beraz, umore kostunbrista bere baitan du, baina ez da horretara mugatzen.

produkzioari (sormena eta prestaketari) eta transmisioari (hedapenari) ez zaio hainbeste garrantzia eman, nahiz eta aurrerago azaltzen den moduan, elkarrizketen bitartez horien inguruko informaziorik ere eskuratu den. Hala, besteak beste, ez dira kontuan izan kaleko jendarteko txistek, horiek ere produkzio badira ere, ez direlako lehen mailako produkzioak, hots, beste nonbait/noizbait sortuak izan diren up-en transmisio gisa ulertu direlako.

Laginaren formaziorako nahitara kontuan hartu ez den aldagaietako bat hizkuntza izan da. Hasiera batean hizkuntza irizpidetzat hartzeak hautu logikoa irudi dezakeen arren, bakarra aukeratzeak (euskara, gaztelania edo frantsesa) euskal nazioaren esku hartzen duten up-ak asko posizionatzea eta mugatzea ekar dezakeela ikusi da, eta beraz, euskal nazioaren zenbait nukleo irudikatu automatikoki baztertuak izatea ekarriko luke horrek. Horri gaineratu behar zaio Hego Euskal Herrian bereziki, euskaraz ez beste hizkuntzetan up-ak egiteko dagoen joera zabaldua, euskal hiztunak diren artean ere up-ak erabiltzerako orduan gaztelaniara jotzeko dagoen ohitura handia baita. Hala, egoera horretan gaztelania baztertzekoak hizkuntzak duen erabilera kuantitatiboarengatik laginean gabezia handi bat sortuko lukeela ulertu da; eta euskara baztertzearrekin, jatorriz lekuko hizkuntza izateagatik duen garrantzia kualitatiboa kontuan hartuz, ondorioak berdintsuak izan zitezkeela aurreikusitako da. Hartara, diglosia egoeran egonagatik (Zalbide, 2011), lagina osatu duten iker unitateen arteko orekari eustearren, hizkuntzarekiko jarrera irekia mantendu da oro har.

Hizkuntza aparte utzita, aukeratu diren beste hiru irizpideak aski malguak direnez egokiak dira Euskal Herrian ematen diren up-ei buruzko ikuspegi orokor bat hautemateko. Baina bromen ezaugarri desberdinak barnebiltzeko bezain malgu izateak, lagina osatzen duten iker unitateak (eta horren kopurua) zehaztu ahal izateko

"zabalegiak" bilakatzen ditu halaber. Egoera horretan, beraz, irtenbide posible bat lagina mugatzen lagunduko luketen irizpide gehiago sartzea izango litzateke, baina horrek up-ek helarazten dituzten irudikapenen ikuspegi orokorra gehiegi mugatzeko arriskua ekar lezake. Besteak beste, ez dagoelako up-ek helarazi dezaketenaren edo helarazteari uzten diotenaren aurretiazko ikerketarik, eta ondorioz, zenbait diskurtsori atek ixteko arriskua sortzen duelako horrek. Hala, kasu honetan egokitzen jo da laginaren aukeraketa egiteko "elur-bolaren" teknika erabiltzea, eta ondorioz, horren tamaina saturazio puntuak zedarritzea (Corbetta, 2003).

Hiru irizpide horien laguntzaz, ikerketarako baliagarri diren up-en aukeraketa burutu da, eta up horietatik, lagina osatu duten diskurtso molde zehatzak atera dira, hots, "bromak".

Broma gisa definitu da up jakin baten baitan (esketa bat, antzerki bat, bertso bat...), matrize kultural jakin batetik abiatuz, errealitate sozial (diskurtso) baten inguruan jardun eta gutxienez *haustura* eta *distantzia* bat duen *gozamina* sortzeko elementu minimoa. Broma bat, hala, up egitura sinpleena dela ulertzen dugu<sup>10</sup>. Broma horien eta jarraian azaltzen diren elkarrizketetako diskurtsoen bidez eskuratu da *haustura*, *distantzia* eta *gozaminen* azterketarako materiala.

1) *Hautura*: Hausturen kasuan ikusi da, batetik, broma batek haustura bat edo bat baino gehiago eduki ditzakeela, hots, ez dutela zertan elementu bakarra kolpatu, baizik eta broma berak bat baino gehiago har ditzakeela jomugatzat. —

10 Jarraian egin den analisisian ez da bromez hitz egingo, beraz, up-ez baizik.

Bestetik, hausturek forma desberdinak har ditzaketela: hitz joko bat izan daiteke, ez-ohiko edo testuinguruz kanpo dagoen praktika bat, edota uste gabeko gertaera edo komentario bat. Eta horrekin batera, azkenik, forma horietako bakoitzak baliabide desberdinak erabili ditzakeela up-aren haustura hori areagotzeko. Horien artean aipagarri dira, esaterako, figura erretoriko desberdinak: konparazioa, metonimia, errepikapena, hiperbolea... Kasu honetan, aldiz, helburua beste bat delako, hausturek darabiltzaten formak ez dira hain kontuan izan, eta horren ordez, aintzat hartu dena bromez kolpatzen dituzten errealitateak (diskurtsoak/irudikariak) dira. Hau da, garrantzia handiagoa hartu du ikerketan up-ek, oro har, eta bromez zehazki, euskal nazioaz "zer" dioten ezagutzeak; "zer" hori "nola" esaten duten erregistratzeak baino.

Bromen hausturak non kokatzen diren identifikatzeko, hala, "barre enlatatua" erabili da erreferentziatzat ikus entzunezko up-en kasuan; jendartearen barrea eta aipua zuzeneko ekitaldietako up-etan; eta idatzizko komentarioak blog edo idatzizko up-en kasuan. Egia da, edonola ere, bromak ongi ulertuak izateko formen inguruko gutxiengo irakurketa bat egin dela, hain zuzen ere formen inguruko kontrola edukitzea beharrezkoa delako bromez helarazten dutena behar bezala ulertzeko. Baina datuen analisisian eta azken ondorioetan formak ez dira presente eduki, aintzat eman delako up-etako diskurtsoak ulertzea aski dela euskal nazioaren gaineko zer nolako irudikariak helarazten dituzten jakiteko.

2) *Distantzia*: Hausturen inguruan eginiko hausnarketa oinarritzat hartzen du distantziak. Batetik, hausturak agerian jarri dituen bromen jomugak berreskuratu eta euskal nazioari zein irudikari (diskurtso) esleitzen zaion,

bai eta irudikari hori esleitzeko modua nolako den ere ageriko egiten du. Horrekin batera, hausturetan kontuan izan ez diren beste elementu batzuk ere berreskuratzen ditu eta ageriko egiten ditu bromen testuinguruan dauden bestelako irudikariak zeintzuk diren. Hau da, hausturarako erabiltzen ez diren baina hala ere bromaren kontaketa presente dauden bestelako errealitateak (irudikariak/diskurtsoak) nolakoak diren. Hau kontuan izanik, agerian jartzen da bromez eta up-ek zein irudikariren gainean sortzen dituzten "objektibazioak", hau da, hausturen bidezko desoreka eta irudikari horiekiko "distantziak", eta zein erabiltzen dituzten bromen testuinguru "normaldu" gisa, matrize kultural jakin baten oinarritzko ezagutza moduan. Alderaketa honek euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarren deskribapena du emaitzat.

3) *Gozamina*: Distantziatik jasotako emaitzak kontuan hartuz, bai eta elkarrizketetan jasotako informazioa erabiliaz ere, gozaminean euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarrean parte hartzen duten diskurtso desberdinak haien artean nola artikulatzen diren aztertu da. Kasu honetan ikusi da testuinguru sozialean diskurtso horien kudeaketa nolako den eta horrek ekarri du, azkenik, up-en mediazioa nolako den ulertzea.

#### 4.2.1.b. Elkarrizketatuak

Laginaren funtsezko materiala up-en bromez egiten badute ere, informazio hori osatu egin da up-en aditu eta arituen testigantzen bidez, gehienez up-en exekuzioari loturiko kideak izan direnak. Kontuan izan da, nahiz eta honakoa ez den laginaren sailkapenerako aldagai gisa hartu,

elkarrizketatu guztiek haien burua euskal kolektiboko kideatzat hautematea. Hala, taldetasun pertenezia arrazoi desberdinei egotzi eta modu desberdinetan bizitzen badute ere (hizkuntza ardatz hartuz batzuek; lurraldeari garrantzia emanaz besteek edota abertzaletasuna lehenetsiaz beste batzuek), "euskal", "vasco" edo "basque" kolektiboari dagozkiola sentitzen dute denek. Horrek bermatu du, up-en egileen kasuan bereziki, euskal up-etniko autoerreferentziala izatea. Aritu eta aditu horien hautaketa egiteko hiru fase izan dituen "elur-bolaren" teknika erabili da. Zehazki ondokoa izan da jarraitu den prozedura:

#### -6 elkarrizketa pilotu

Gaiaren inguruan egin diren ikerketen urritasunak laginaren aukeraketarako irizpide edo abiapuntuen aukeraketa zaildu du. Egoera horretan, up-en inguruan lanean edo ikerketan diharduten adituekin elkarrizketa pilotuak egin dira, horiek emandako informazioaren bitartez laginaren osaketarako kontuan hartu beharreko up-ak, kasuak, adituak... zeintzuk izan beharko lirakeen ezagutu ahal izan delarik. Hasierako 6 adituen aukeraketa burutzeko bi ezaugarri hartu dira kontuan. Batetik, up-en munduan esperientzia eta ezagutza zabalak izatea; eta bestetik, profesionalen kasuan bereziki, gai eta ikuspegi desberdineko up-etan jardutea (hizkuntza, forma eta ideologia desberdinetako edukiak lantzen dituztenak izatea aintzat hartu delarik).

#### -Up-en bilaketa eta egileekin elkarrizketak:

6 elkarrizketa pilotuetan jasotako informaziotik abiatuz up kasuetara eta up-en exekuzioan aritzen diren beste egile eta adituengana jo da. Elkarrizketatuek eskaini dituzten erreferentzia guztien artean, laginaren aukeraketarako ezarri diren irizpideak betetzen dituztenak aintzat hartu

dira soilik. Prozesua behin eta berriro errepikatu da hortik aurrera: aldiro, up kasu eta aditu berriengana zuzenduz.

#### -Saturazioa eta laginaren itxiera

Elur-bolaren teknika up saturazio bikoitz bat emandakoan eten da. Batetik, egileek iradokitako up-ak errepikatzen hasitakoan; eta bestetik, analizaturiko up-en emaitzetan errepikakortasun bat ematen hasi denean.

Hiru faseko lagin aukeraketak zenbait abantaila eskaini ditu. Batetik, lagin osoaren hautaketa ikertzailearen esku uztea ekidin da, lehen momentuan elkarrizketatuak berariaz aukeratu badira ere, ondorengo kasuen hautespenean ez baita zuzeneko parte hartzerik izan. Bestetik, up-en jarduera edo exekuzioan dabilentzat esangura handien duten up-ak identifikatu eta erregistratzea lortu da, hiru ezaugarri orokorri erantzuten dioten up-ak bildu direlarik, oro har: a) *arrakatsutzat* jotzen direnak, hau da arrazoi desberdinengatik une horretan elkarrizketatuentzat entzutetsu bihurtu direnak; b) *gatazkatsuak direnak*, arazo edo liskar sozialen baten parte izateagatik ezagutzera eman direnak; c) *tradizionalak*, hau da, historikoki up-ekin lotuak izan diren praktika edo diskurtsoak, arrunki umoretsutzat hartu direnak.

#### 4.2.1.c. Bestelako informazio iturriak

Bi informazio iturri nagusi horiek ikerketa aberastu duen bestelako dokumentazioarekin osatu da: sare sozial eta blogetako eztabaida eta iruzkinak, prentsa artikulak, hitzaldi eta kongresuetako ekarpenak edota up-ekin zer ikusia duten araudi eta legedien inguruko dokumentazioak, besteak beste, lagina aberasteko baliagarri suertatu dira.

#### 4.2.1.d. Laginaren gaineko balorazio orokorrak

Elur-bolaren bidezko laginaren hautu horrek, ordea, ez du erabateko orekarik sortu formatu desberdinetako up-en artean, bereziki murrizta izan baita komiki, aldizkari, literatura eta fanzine umoretsuei egin zaien erreferentzia. Horrek agerian jartzen du, gure ustez, komikiak edo marrazkiak arrakastadunak izan badaitezke ere (kontsumoari begira, adibidez), horiek baino erreferentzialtasun edo ikusgarritasun handiagoa eskuratzen dutela beste formatuetan egiten diren up-ek.

Modu berean, desorekak agertu dira up-en jatorri geografikoari dagokionez. Hots, hasiera batean ikerketa Euskal Herriko zazpi lurraldeetara zabaltzeko asmoa bazegoen ere, azkenean, landa lanak up-en bilaketa EAE-ra mugatzen bukatu du. Eta zehazkiago, Gipuzkoa eta Bizkaian zentratu dira horietako gehienak, bereziki urria izan delarik Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako up-en ekarpena. Elur bolaren teknika erabiltzeak ekarri du up-en bilaketa EAE-n zentratzea; elkarrizketatuek Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban gauzatzen diren up-ak aipatu baitituzte gehien bat. Neurri batean pentsa liteke, beraz, EAE-ko up-en oihartzun eta karga simbolikoa beste lekuetan egiten direnena baino nabarmenagoa dela oro har.

Laginaren aukeraketa hau proiektuak dauzkan helburuentzako egokia izan bada ere, egia da neurri batean faltan suma daitekeela *a priori* kontuan hartu ez den esparru bat: ikusle edo hartzailearena, hain zuzen ere. Esparru horren ikerketak informazio interesgarria eskainiko zukeela ziurra bada ere, up-en formazio eta ezaugarriak xehetasunez ezagutzea hobetsi da kasu honetan; ikusleriak up-ekiko duen hautemateak hemen proposatzen ez diren

bestelako helburu eta landa lan zabalagoa eskatuko bailuke. Hala, jabetzen gara etorkizunean lantzeko interesgarria den ikerketa ildo bat irekia uzten da honen bidez.

Edozein kasutan, up-en hartzaileak espresuki aztertuak izan ez badira ere, esan beharra dago neurri handi batean, beraien erreakzio eta iritziak islatuak geratu direla lan honetan. Batetik, up-en egileen testigantzek ikusleriaren jarrerak agerian utzi dituztelako. Izan ere, up-en egileak hartzaile ere badirela ahaztu gabe (beste up-ak jaso eta hauei erantzuten dietelako maiz), ikusleen jarrerak, gustuak, zaletasunak eta iritziak oso presente dituzte, up-en egileen produkzioaren arrakasta, neurri handi batean, ikusleagoak duen iritziak baldintzatua baitago. Eta bestetik, landa lana biribiltzeko egin den dokumentazio bilketan, blogak eta sare sozialetako iritzi eta eztabaidak ere kontuan hartu direnez, hein batean, up desberdinen inguruan sortzen diren iritziak ere erregistratuak geratu dira.

Azken iruzkin bat gaineratu nahi da horren harira; orokorrean umorea gutxi aztertutako esparrua izanagatik, laginaren osaketan zehazki, eta erabilitako metodologian oro har, jarrera bikoitz bat hartu dela gogoratu beharrekoa baita. Lehena, iker esparru berritzailea izanik horren baitan ez galtzeko beharrezko neurriak hartzeko zorrotz aritzea: analisia gehiegi ez zabaltzeko, lortu nahi diren helburuekin zer ikusi zuzenik ez duten adibideak, maiz oso tentagarriak izan arren, alboratzeko. Eta bigarrena, helburuak lortzeko esanguratsuak diren adibideak topatuz gero, nahiz eta horiek hasierako kategoriekin bat ez etorri, analisiaren baitan sartzeko jarrera irekia mantentzea. Hori, kasu bakarrean egin da (*Yes, We Spanih are different* antzezlanean), naziotasuna (espainiarra nagusiki baina baita euskalduna ere) up-ez lantzen den antzerki arrakastatsua izanik, Bilbon (Bizkaian) antzeztu

izan tesiarene planteamendurako informazio baliagarria eman dezakeela ulertu baita. Jarrera irekia mantentzea ezinbestekotzat jo da, bereziki, ulertu delako erreferentzia teoriko irmorik gabe eraikitako metodologia izanagatik, hasiera batean ezarritako hautespen aldagaiak (oso zabalak izanagatik ere) ez dutela zertan egokiak izan, hots, irizpideak ez direla oinarri mugiezinen arabera aukeratuak izan, eta beraz, lan enpirikoak hala behar izanez gero, horiek moldatzeko malgutasunez jokatu beharra dagoela.

#### 4.2.2. Metodologia eta ikerketa teknikak.....

Tekniken aukeraketak garrantzia berezia du teoriarik esandakoa enpirikoki aztertzeko (edota baldintzatzeko) aukera (eta arriskua) zehaztua gelditzen delako horien bitartez. Up-en kasuan, gaiaren zabaltasun eta ezjakintasun orokortuak orotariko teknika eta ikuspegi metodologikoak erabiltzeko aukera zabala eskaini du: ez baitago inon adierazia up-ak aztertzeko diziplina eta teknika ortodoxoa zein den (Kuipers, 2008). Posibilitate ugartasun honek, hala, helburuen araberako egokitasuna eskaintzen duen tekniken hautaketa "librea" egitea ahalbidetu du, baina aldi berean, aukeraketa honetan zehaztasunarekin jokatzearen beharra areagotzea ekarri du: erreferentzia metodologiko argirik ez izateak akats teknikoak burutzeko arriskua handitzen baitu (Pereiro, 2007; Martinez, 2009). Hori dela eta, ikerketaren alde metodologikoaren zehaztasun eta gutxieneko zorrotztasuna bermatua egon dadin, *triangulazio metodologikoa* deritzon prozesu zientifikoa aplikatu da ikerketarako datu bilketa eta analisia egin artean (Igartua eta Humanes, 2004).

#### 4.2.2.a. Triangulazio metodologikoa

Datuen maneirako jarraibide honek, iker-objektuaren azterketa, ikuspegi eta teknika desberdinak erabiliz egitea dakar, teknika bakoitzetik ateratako emaitzak elkar alderatuz eta osatuz, aztertu nahi den fenomenoaren inguruan egiten diren interpretazioak errealitatearekiko fidelago eta doituagoak izatea dakarrelako (Vicente 2006). Kasu honetan bi mailatan burutu da *triangulazio metodologikoa*:

##### 1) Informazio iturrien aniztasuna:

Analisirako datuak leku bakar batetik hartu ordez, iturri desberdinetakoak kontuan hartzea dakar triangulazio metodologikoaren erabilerak, jatorri anitzeko datuak eskuratzeak interpretatu nahi den errealitatearekiko ikuspegi aberatsagoa eta leialagoa izateko aukera eskaintzen baitu. Horri segituz, batetik, up-k; bestetik, up-etan aritutakoen testigantzak; eta azkenik, up-ekin zer ikusi zuzena duen bestelako dokumentazioa bildu da. Baina horretaz gain, up-ak ere jatorri anitzekoak izan zitezzen zaindu da.

##### 2) Teknika aniztasuna:

Triangulazio metodologikoan errealitatea ikerketa teknika desberdinak erabili aztertzea gomendatzen da, fenomeno berdina ikuspegi desberdinetatik aztertzeak emaitzen fidagarritasuna areagotzen baitu. Kasu honetan, triangulazio metodologikoak hala eskatzen duelako ez ezik, forma anitzeko lagina aukeratu izanagatik baita ere,

ikerketan informazioa eskuratzeko teknika desberdinak erabili dira: hori horrela, up-en (bromen) erregistroa, behaketa parte-hartzailea, sakoneko elkarrizketak zein hiruko taldeak, eta dokumentazio bilaketa egin dira.

Laginaren azalpenean ikusi da informazio iturrien aniztasuna mantendu dela ikerketan. Jarraian azaltzen da aniztasun hori praktikara eraman dela ikerketan erabili diren tekniketan ere.

#### 4.2.2.b. Up-en erregistroa

Hala deitu zaio ikus entzunezko (telebista saio eta bideoak) eta idatzizko up-ak (blog eta sare sozialetakoak) biltzeko egin den lanari. Teknika honen helburua up-tako bromak bereizi eta sailkatzea da eta horretarako goian aipatu diren aldagaiak oinarritzat hartzen dituen fitxa tekniko bat osatu da. Aldagai horien baitan bestelako azpi-aldagaiak jaso dira, hausturak eta distantziak errazago sailkatzeko balio izan dutenak. Ondoko taulak (4.1 taula) laburbiltzen du fitxa teknikoan erabili den sailkapen eredu<sup>11</sup>:

<sup>11</sup> Fitxa teknikoa malgua izan da une oro, hain zuzen ere fitxa teknikoa aurrez egituratu izanagatik ere ez delako baztertu nahi izan ikerketarako interesgarri izan zitekeen kasurik. Hala, aldagai jakin batzuk ezarri zaizkio hasieratik baina horiek hedatu eta egokitu egin dira hala behar dela ikusi den aldi orotan.

#### 4.1. taula:

Aldagai nagusiak	Azpi-aldagaiak		Aldagai nagusiak	Azpi-aldagaiak	
LURRALDEA	Izendapena Esparru geopolitikoa Barne mugak Kanpo mugak Hirigunea Herrigunea Paisaia Klima Bestelako ezaugarriak		KOLEKTIBOA	Jatorri historikoa Bertokotasuna Arroztasuna Generoa Izaera Praktikak Ideologia politikoa	
				Sinesmenak	Erlijiozko- tasuna Besterik
				Naziotasuna/identitatea Besterik	
HIZKUNTZA	Euskara	Euskalkiak Batua Zuka Hika Doinua Erabilera	ZEINUAK	Ohiturak/Tradizioak	
				Erreferenteak	Politikoak Kulturalak Sozialalak
				Ikurrak	Politikoak Kulturalak Sozialalak
	Gaztelania Frantsesa Besterik			Sakratua Profanoa/Profanagarria Bertakoa Arrotza Besterik	

Fitxa teknikoak, up guztiak "testu" formatuan jartzeko aukera eman du, bereziki erabilgarria suertatu delarik ikus entzunezko materialarekin lan egiteko garaian.

Datu bilketa bereziki konplexua izan da telebistako ikus-entzunezko up-en kasuan. Tebista programa bakoitzeko saioak ikuskatu (urte horretan igorritako guztiak), eta saio bakoitzean erabiltzen diren *esketchak* kontuan hartuz, horietako bakoitzean erabilitako broma baliagarri guztiak erregistratu baitira fitxa teknikoan. Tebista saioez gain,

teknika honen bidez aztertu dira, Internet bidezko up albistegiak, blog bat, tweet-ak, komikiak eta Interneten eskegitako bideoak. Orotara 1551 iker-unitate. Up gehienak 2013 eta 2014 artean jaso dira, elur-bolak markatu duelarik horietara iristeko epearen eta ordenuaren aukeraketa.

Behoko taulan (4.2 taulan) laburtzen dira saioak eta horien ezaugarri nagusiak. Ez dira fitxa teknikoan eskuratutako datuak gehitu dokumentu hori bereziki luzea izateagatik.

## 4.2. taula:

Up-aren iturria	Zehaztapena	Erreferentzia	Izena	Kopurua	Iker unitate (Broma-up)	Noiz
Telebista (UPT)	ETB2ko telebista saioa	UPT1-UPT6	- <i>Ya queda menos</i>	6 saio 156 esketx	132	2013
		UPT7-UPT15	- <i>Vaya Semanita</i>	9 saio 225 esketx	189	2013/2014
		UPT16-UPT31	- <i>Euskadi Movie</i>	16 saio 384 esketx	336	2013/2014
	ETB1eko telebista saioa	UPT32-UPT58	- <i>Irrikitown</i>	27 saio 702 esketx	567	2013/2014
		UPT59-UPT74	- <i>Kontuz atsuak!</i>	16 saio	80	2013
Interneteko edukiak	Sare sozialak (UPS)	UPS1-UPS43	- <i>Twitter</i>	43 tweet	43	2012/2013
	Up albistegiak (UPA)	UPA1-UPA24	- <i>Beranduegi</i>	24 saio	135	2013
		UPA25-UPA31	- <i>Izparringia</i>	7 artikulua	13	2013
	Bloga (UPB)	UPB1-UPB5	- <i>Barretartia</i>	5 post	8	2013
Bideoak (UPY)	UPY1-UPY14	- <i>Transmarikaballo manifestazioa (Medeak) 2009</i> - <i>Ondarruko vasca</i> - <i>El encierro de la Villavesa 2013</i> - <i>Lipdub Kukutza 2011</i> - <i>Lipdub Nafarroa Bizirik 2012</i> - <i>Pirritx, Porrotx eta Marimotx 2012</i> - <i>Hernaniko herri olinpiadak 2012</i> - <i>Bilboko inauteriak 2012</i> - <i>Altsasuko Ospa eguna 2011</i> - <i>Tolosako inauteriak 2012</i> - <i>Donostiako Piraten Irrikitaldia 2012</i> - <i>Bilboko kaldereroak 2012</i> - <i>Atharratzeko maskarada 2012</i> - <i>Sohütako maskarada 2013</i>	14 bideo	4	2013/2014	
Egunkaria	Berria egunkaria	UPE1-UPE15	- <i>De Rerum Natura</i>	15 tira	15	2011/2013

## 4.2.2.c. Behaketa parte-hartzailea

Zenbait kasutan, *performance* formatua duten up-ak jaso dira, hots, zuzeneko emanaldi edo ikuskizunetan aurkeztu direnak. Halako adibideek up-ak aurrez-aurre hautemateko aukera emateaz gainera, horiekiko eta horien ikusleekiko zuzeneko interakzioa izateko parada ere eskaini dute. Kasu horietan, behaketa parte-hartzailea erabili da informazio bilketa burutzeko, informazio bereziki aberatsa lortu delarik horri esker. Izan ere, batetik, up-en xehetasunetan hobeto sakontzeko tartea eskaini du, up-aren bilakaera, garapena eta ezaugarriak zuzenean hautemateko aukera emateaz batera. Bestetik, up eta horien ikusleen arteko interakzioa aztertzeko aukera egon da, up-ek jendearengan sortzen dituzten eragin eta erreakzioak agerian baitaude etengabe. Eta azkenik, zuzeneko parte hartze aktiboa egiteko aukera izateak, ikuslegoko (edo *performance*ko)

"beste kide bat" bilakatzeko aukera eman du, bai eta, ondorioz, up-a "barnealdetik" ezagutzeko. Horri esker, up-en inpresioak, sentsazioak, algarak edo irainak lehen pertsonan bizitzeko abagunea egon da, edo bestela esanda, up-a ikertzailearena ez den beste posizio batetik lehen pertsonan bizitzeko.

Bi multzotan sailkatu da behaketa parte-hartzailearen bidez eskuratutako informazioa: batetik, fitxa teknikoan broma sailkapena egin da, up-en *hausturak* zer nolakoak diren ikusteko aukera izanik horren bidez. Bestetik, aurrez-aurreko bizipenari esker, up-etatik eskuratutako informazioa hobeto ulertzeko eta osatzeko baliagarria den dokumentazio osagarri andana eskuratu da: ekinbideek, algarek, txalok, irainek, txistuek, edota ikusleen aldarriek informazio oso aberatsa eskaini baitute.

Jarraian zerrendatzen da behaketa parte-hartzaileaz jaso diren up-ak (4.3 taula):

## 4.3. taula:

	Zer	Non	Noiz
B1	<i>Umore Azoka</i> , azoka	Leioa (Bizkaia)	2011
B2	<i>Reclaim the Street</i> , performancea	Bilbo (Bizkaia)	2011
B3	<i>Vaya Semanita</i> , antzerkia	Donostia (Gipuzkoa)	2011
B4	Madriki eguna, performancea	Hondarribia (Gipuzkoa)	2011
B5	<i>La Risa en Bilbao/Bilboko Barrea</i> , ekitaldia-jardunaldia	Bilbo (Bizkaia)	2012
B6	Bertso saioa	Hendaia (Lapurdi)	2012
B7	<i>Bodologoak</i> , bakarrizketa	Hondarribia (Gipuzkoa)	2012
B8	Bakarrizketa (izenik gabe)	Gasteiz (Araba)	2012
B9	Bertso saioa ( <i>Etxerat</i> )	Oiartzun (Gipuzkoa)	2012
B10	Bertso saioa ( <i>Etxerat</i> )	Oiartzun (Gipuzkoa)	2013
B11	Inauteriak	Lantz (Nafarroa)	2013
B12	Inauteriak	Tolosa (Gipuzkoa)	2013

Zer	Non	Noiz
B13 Inauteriak	Donostia (Gipuzkoa)	2013
B14 Inauteriak	Bilbo (Bizkaia)	2013
B15 <i>Irrikitaldia</i> , performancea	Donostia (Gipuzkoa)	2013
B16 Bertso eguna	Donostia (Gipuzkoa)	2013
B17 Kaldereroak	Donostia (Gipuzkoa)	2013
B18 Bertso saioa	Gasteiz (Araba)	2013
B19 <i>Bi Bala</i> , bertso musikatua	Donostia (Gipuzkoa)	2013
B20 <i>Bi Bala</i> , bertso musikatua	Bergara (Gipuzkoa)	2013
B21 <i>Irrizikloa</i>	Iruñea (Nafarroa)	2013
B22 <i>Euskeraren espektakulue</i> , bakarriketa	Bermeo (Bizkaia)	2013
B23 <i>Yes, we Spain is diferent</i> , antzerkia	Bilbo (Bizkaia)	2013
B24 <i>Ospa eguna</i> , performancea	Altsasu (Nafarroa)	2013
B25 <i>Bidasoa Biga Sol</i> , antzerkia	Elizondo (Nafarroa)	2013
B26 Inauteriak	Donostia (Gipuzkoa)	2014
B27 Inauteriak	Bilbo (Bizkaia)	2014
B28 Kaldereroak	Bilbo (Bizkaia)	2014
B29 <i>Irrikitaldia</i>	Donostia (Gipuzkoa)	2014
B30 <i>8 Apellidos Vascos</i> , filma	Donostia (Gipuzkoa)	2014

Ahal izan den guztietan behaketak bideoz grabatu dira. Zenbaitetan, ordea, kameraren presentziak ekar zezakeen deserosotasuna, eta ondorioz, parte hartzaileen jokaera aldaketa saihesteko, bai eta up-ak bideozko grabaketak debekatuak dauden aretoetan eman direlako ere, grabazioa audioz egin da bakarrik. Audioa erabili da, halaber, ikuslegoaren inpresioak erregistratu nahi izan direnean. Zenbait kasutan zuzenean galdetu zaio ikuslegoan zegoenari up-ari buruzko iritzia. Grabatzeko baimena eskatu da hau egin den kasu guztietan.

Goian zerrendatu den up kasuetarako ez ezik (4.3. taula), behaketa parte-hartzailea gure egunerokotasuneko up-etan ere aplikatu da, landa koaderno batean bilduz ohikotasuneko behaketatik jasotako informazio eta esperientzia. Hor islatu dira, besteak beste, egunerokoan

topatu diren up-ekiko harremanak, diskurtsoak, iritziak edota inpresioak. (Auto)etnografia bat egin dela esan ezin badaiteke ere, besteak beste, teknika horrek eskatzen duen prozedura zientifikoa ez delako zorrozki bete, ikerketak etnografiaren izaerari eutsi diola esan daiteke neurri handi batean (Feliu eta Lajeunesse, 2007; Ellis, 2004). Egunerokotasunarekiko begirada erreflexibo eta analitiko bat garatu da ikerketaren azken urteetan (2014-2015), non, inguruarekiko ez ezik, guk geuk erabili, produzitu eta kontsumitzen ditugun up-ekiko bai eta horiek guregan duten eraginarekiko jarrera kritikoa garatzen bukatu den. Hala, Andreas Krebs-ek adierazten duen moduan, ikerketa prozesuak eragina eduki du ikertzailearen subjektibotasunean. Edo behar bada alderantziz esatea egokiagoa litzateke, konturatu baikara ikertzailearen

subjektibotasuna egiten duen ikerketaren parte ere badela, eta subjektibotasun hori osatu eta ikertu ere egiten duela ikerketa prozesuan zehar. Are gehiago, esaterik baldin bada, up-en kasuan gertatzen den gisan ikertu nahi denak egunerokotasunean etengabeko presentzia duenean (Krebs, 2010).

*"Given that my own subjectivity is being produced through the processes that I wish to study, my own subjectivity becomes implicated in the analysis to be undertaken. This is a technology of the self that opens one up to the encounter, a process of becoming other (...) the process of deterritorializing the habitual flows productive of subjectivity"*<sup>12</sup> (Krebs, 2010:99)

Iker objektuak eta ikerketak, gure subjektibotasunean eragina izan duela onartzen dugu beraz; maila pertsonal zein profesionalean (ikertzeko orduan), ikuspegiak zein hausnarketak aberasteko baliagarria izan delarik honako esperientzia.

#### 4.2.2.d. Sakoneko elkarrizketa eta hiruko taldeak

Up-ak bildu eta erregistratuaz lortutako informazioa elkarrizketen bitartez osatu da. Horretarako up-en exekuzioan parte hartzen duten pertsonak, bai eta up-etan zuzenean parte hartzen ez badute ere up-en inguruan adituak direnen testigantzak jaso dira.

12 ["nire subjektibotasuna ikertu nahi dudana prozesuaren bitartez osatzen dela kontuan hartuz, nire subjektibotasuna analisiaren parte bihurtzen da. Norberarekin topo egiteko teknologia da, beste norbait bihurtzekoa (...) subjektibotasuna sortzen duten ohiko fluxuak leku aldatzeko prozesua"]

Orotara 39 kontaktu burutu dira, guztiak posta elektronikoko bitartez, baina horietako 12 bertan behera gelditu dira arrazoi desberdinengatik: zenbaitetan komunikazioa "besterik gabe" eten egin delako, eta bestetan, komunikazioa mantendu bada ere, ez delako elkarrizketa adosterik lortu. Arrakastatsua izan diren 27 kontaktuetatik 6 elkarrizketa pilotuak izan dira, hots, beraien ezaugarriengatik berariaz aukeratu direnak, eta galdetegia birmoldatu eta egokitzeko, interes guñeak finkatu eta aurre ezarritako aldagaiak baieztatzeko probestu direnak. Baina horretaz gain, kontaktu berriak lortzeko abiapuntutzat balio izan dute, hasierako 6 horiek aipatu dituzten up eta beste elkarrizketatu potentzialen bidez elur-bolaren teknika abian jarri baita. Hala, teknika hau bereziki eraginkorra izan da kontaktuak bilatu eta topatzerako orduan, Euskal Herri mailan up-ak eta up-en eremuan dabiltzanak "gutxi" izanagatik, gehienek elkarren berri baitute.

Kontaktuen kate horretan, gainera, eskuratu den kontaktuetariko bakoitzak elkarrizketa bat baino gehiago egiteko aukera zabaldu du kasu batzuetan. Hau da, pertsona batekin harremanetan jartzerakoan, elkarrizketan parte hartzeko prest zegoen jende gehiago erakarri du berekin zenbaitetan. Halakoetan, kasuan-kasuko egoera aztertu eta elkarrizketa bat baino gehiago egiteak mereziko lukeen edo ez balioetsi eta gero, baiezkoren kasuan sakoneko elkarrizketen ordez hiruko taldeak egitea aukeratu da. Horren bitartez, up jakin baten exekuzioan parte hartzen duten kide desberdinen iritzien eta ikuspegiaren arteko ñabardurak ikusi, eta taldekideen arteko eztabaidak (egotekotan) zein puntutan zentratzen diren erregistratzeko aukera egon da. Horretaz gain, hiruko taldeak egin ostean, kasu gehienetan (guztietan batean izan ezik) bakarkako bigarren elkarrizketa bat burutu da. Bigarren buelta horrek, elkarrizketatu batengandik ezusteko informazio asko



topatu denean edota kontrara, hau da, elkarrizketa espero bezain mamitsua suertatu ez denean sortutako zalantzak argitzeko balio izan du.

Elkarrizketa guztiak erdi-egituratuak izan dira (Corbetta, 2003). Hau da, izaera malgua izan dute nahiz eta guztiak funtsezko helburu eta gai berdinei erantzuteko prestatuak izan diren. Hala, gaien zerrenda bat eraman bada ere, gaiak espontaneoki atera daitezten utzi da, eta hala izan ez denean, elkarrizketak aurrera segitu ahala planteatu zaizkie haietaz iritzi bat eman zezaten.

Honakoak izan dira, oro har, elkarrizketetan aipatu diren gaiak:

- 1- Umorearekiko hautematea
  - a- "Gure buruez" barre egitea
  - b- "Euskal umore" kategorian
    - b.i- Euskal nazioarekiko ikuspegia
- 2- Up-en erabilera forma eta motibazioak
  - a- Up-ren erabileraren abantaila / desabantailak
  - b- Bitartekoen aukeraketa eta kudeaketa
  - c- Tabuak, sakralizazioak eta profanazioak
- 3- Up-en eragin eta eraginkortasunen balorazioa
  - a- Politiko eta kulturalak
  - b- Naziogintzarekikoak
  - c- Egunerokotasunekoak
- 4- Beste up-ekiko ezagutza eta iritzia
- 5- Beste up-ekiko harremanak
  - a- Artikulazioak
  - b- Gatazkak
  - c- Ondorioak
    - c.i- (Auto)zentsura
    - c.ii- (Des)zilegitasuna
    - c.iii- Bestelakoak
- 6- Up-ekiko iritzi eta bizipen pertsonalak

Elkarrizketako hizkuntza elkarrizketatuak aukeratutako horixe izan da, gehienetan euskaraz egin bada ere, zenbaitetan gaztelania erabili delarik, eta frantsesa behin ere ez. Ordu beteko batzuetan besteko iraupena izan dute elkarrizketek eta kasu guztietan elkarrizketatuaren baimenez grabatuak izan dira (batzuetan audioz bakarrik eta bestetan bideo eta audio grabazioa eginez).

Elkarrizketen saturazio diskurtsiboa agudo lortu da, pentsa liteke Euskal Herriko EAE-n up-en produkzioa bereziki zabala ez izateak horretan ere lagundu duela.

#### 4.4. taula:

Burututako kontaktuak	Elkarrizketa pilotuak	Sakoneko elkarrizketa	Hiruko taldea	Errepikatutako elkarrizketa	Elkarrizketatu gabekoak
E1	Bakarrizketalaria	•			
E2	Filosofoa	•			
E3	Blogaria eta aktorea	•			
E4	Kazetaria	•			
E5	<i>Barretaria</i> blogeko koordinatzaile/arduraduna				•
E6	<i>Beranduegi</i> umore albistegiko aurkezleatariko bat				•
E7	Bilboko Jaietako Programatzaileen Koordinatzailea, EAJ-PNV				•
E8	Bilboko Udaleko Zinegotzia, PSE-EE				•
E9	Bilboko Udaleko Zinegotzia, Bildu				•
E10	Bilboko <i>Kaskagorri</i> konpartasako kidea				•
E11	Bilboko Konpartsetako Jai Batzordeko kidea				•
E12	Bilboko Udaleko Jaietako Zuzendaria				•
E13	Bilboko Udaleko Zinegotzia, PP				•
E14	<i>Izparringia</i> webeko kazetarietako bat				•
E15	Bakarrizketalaria eta <i>Wazemank</i> (ETB1) telebista saioko gidogilea				•
E16	Umore saioretako aktorea, eta <i>Noaaa</i> , <i>Wazemank</i> eta <i>Finlandia</i> (ETB1) telebista saioretako gidogilea				•
E17	Soziolinguista, umoregilea eta up-etan aditua	•	•		•
+ E17.2					E17.2
E18	Bakarrizketalaria, umoregilea, irrati esataria				•
E19a	Donostiako <i>Piratak</i>				•
E19b				E19a	E19c2
E19c				E19b	
+ E19c2				E19c	
E20a	<i>Medeak</i> talde feministako kideak				•
E20b				E20a	E20a2
E20c				E20b	
+ E20a2				E20c	
E21	<i>Pirritx</i> , <i>Porrotx</i> eta <i>Marimototx</i> pailazo taldeko kide bat				•
E22a	<i>Bi bala</i> bertso musikatuaren taldeko partaideak				•
E22b				E22a	E22b
E23	Altsasuko alkatea				•
E24	Altsasuko <i>Ospa eguna</i> parodiaren egileatariko bat				•
E25	<i>Irrikitown</i> (ETB1) eta <i>Vaya Semanita</i> -ko (ETB2) gidogilea				•

Burututako kontakua	Elkarrizketa pilotuak	Sakoneko elkarrizketa	Hiruko taldea	Errepikatutako elkarrizketa	Elkarrizketatu gabekoak
E26a + E26a2 E26b E26c	E26a		E26a2 E26b E26c		
E27	Zaldieroa komikigilea	•			
28X	Up telesailetako aktorea				•
29X	Up telesailetako aktorea II				•
30X	Up telesailetako eta zine gidoigilea				•
31X	Bertsolaria				•
32X	Bertsolaria II				•
33X	Antzerki zuzendaria				•
34X	Kazetaria				•
35X	Komikigilea				•
36X	Pailazoa				•
37X	Antropologoa eta up-etan aditua				•
38X	Donostiako kultura teknikaria				•
39X	Tolosako kultura teknikaria				•

#### 4.2.2.e. Dokumentazioa

Up-en erregistroa, behaketa parte-hartzaile eta elkarrizketen bitartez eskuratutako informazioa esparru desberdineko dokumentazioaren bitartez osatu da. Euskal up-ekin loturiko ahalik eta informazio gehien eskuratzeko saiakera egin da bestelako bide honetatik; bai beste tekniken bitartez bildutako informazioa osatzeko balio duelako, eta bai, informazioaren interpretazio egoki baterako lagungarria delako ere, up-ak gaurkotasuneko testuinguru sozial, kultural, politiko eta ekonomiko batetik hautemateko balio izan baitu. Dokumentazio bilaketa esparru desberdinetan burutu da:

1) Interneten eta bertako sare sozialak: Up-ak eskuratzeko ez ezik, horien inguruan sortzen diren iritzi eta inpresioak jasotzeko ere erabili dira Twitter eta iritzi blogak,

bereziki interesgarriak suertatu direlarik azkeneko horietan eman diren eztabaidak.

2) Prentsa: Up-ekin zer ikusia duten artikuluak eta iritzi artikuluak ere jaso dira, nagusiki *Berria*, *Gara*, *El Correo* eta *El Diario Vasco*-tik, baina kasuan kasu, espainiar prentsako dokumentazioa ere bildu da, *La Vanguardia* eta *El Mundo*-tik, batez ere.

3) Hitzaldiak: Ez da ohikoa izan up-ak hizpide dituzten hitzaldi edo mintegirik topatzea, baina egon diren gutxietan parte hartzen saiatu da. Besteak beste, *York University*-k antolatutako *Humour and the Humanities Graduate Student Conference* (Toronto, 2012); Elekatu-Elikatutako antolatutako *Euskal umorea?* hitzaldia (Baiona, 2013); *Universidad de Castilla La Mancha*-k antolatutako *Humor en la historia de la comunicación* kongresua (Cuenca, 2013); edota *"Rockomikiak binetak Et doinuak"* (Donostia, 2014).

4) Lan bibliografikoa: Marko teorikoa osatzeko ez ezik, up-en inguruko informazioa eskuratzeko ere egin da ikerketa bibliografikoa. Horren bidez, besteak beste, up-en inguruan zenbait lekutan jarri diren ordenantza eta araudien berri izan da.

#### 4.2.2.f. Ikerketa egonaldiak

Aipatutako tekniken bitartez eskuratutako materiala, atzerriko unibertsitateetan egindako hiru ikerketa estantzietan eskuratutakoarekin kontrastatu, osatu eta borobildu da. Up-ak lantzen dituzten ikerlari eta ikerketak ugari diren zentroetan egoteko aukerak, informazio iturri desberdinak eskuratu eta ikerketa ildo honetako profesionalak elkarrizketatzeko aukera eskaini du. Horren bidez, ordura arte bildutako material guztia eta lanari emandako ikuspegia doitu eta egokitzeko aukera egon da. Egonaldiaren bidez ase da, neurri handi batean, up-en inguruan topatu den gabezia teorikoa.

- Madril/Cuenca (2010-2011)

Lehen ikerketa egonaldi bikoitza izan da. Batetik, *Universidad Complutense de Madrid*-en egin da estantzia nagusia, Elena Casado Soziologia Departamentuko irakaslearen tutoretzapean. Bertan, up eta nazioaren arteko lotura burutzeko beharrezkoak diren teorian sakontzeko aukera egon da eta bereziki baliagarria izan da performatibitatearen teorian feministetan mugitzeko. Bestetik, *Universidad de Castilla la Mancha*-ko Isis Saz Artearen Historiako departamentuko irakasle eta ikerlariarekin elkar banatu da egonaldia, up-en ikuspegi artistiko eta estetikoan sakondu eta kalean egiten diren up-en inguruko azterketarako perspektiba garatzeko aukera izanik.

- Ottawa, Kanada (2012)

Atzerriko lehen egonaldi luzea *University of Ottawa*-n egin da, bertako *ONOUPS (Observatoire des Nouvelles Pratiques Symboliques)* ikerketa taldean hiru hilabeteko egonaldi batean. Up-en inguruko ikerketetan tradizio handia dagoela eta, bereziki aberasgarria izan da bertako egonaldia. Ikerketak bertatik bertara ezagutzeko aukera egon da, bai eta ikerketa horien irakasle arduradunekin batzartzeko ere. Batzar horiek up-en inguruko teorian ez ezik, metodologian hartu beharreko erabakiak fintzen lagundu dute. Up-en inguruan ikertzen diharduten bestelako irakasle eta doktoregaiekin eskuz-esku lanean jarduteko aukerak ere lana birbideratu, akatsak zuzendu eta ikuspegi berriak kontuan hartzeko baliagarri suertatu da.

Honakoak dira elkarrizketatu diren irakasleak:

a- Dalie Giroux: *Université d'Ottawa*-ko, *School of Political Studies* departamentuko irakaslea, espazio publikoaren erabilera eta politika jardueren inguruan aditua

b- Jean-Pierre Couture: *Université d'Ottawa*-ko, *School of Political Studies* departamentuko irakaslea, praktika sinboliko eta politikoen inguruan aditua

c- Andreas Krebs: *Université d'Ottawa*-ko, *School of Political Studies* departamentuko irakaslea, egunerokotasuneko praktika eta diskurtsoetan oinarrituriko botere-harreman eta kolonizazio kulturalen inguruan aditua

d- Dimitrios Karmis: *Université d'Ottawa*-ko, *School of Political Studies*-eko irakaslea, bazterkeria eta erresistentzia jardueretan lan egindakoa, horien artean kultura mekanismoen bidezko jarduerak aztertu dituen

e- Francis Dupuis-Déri: *Université du Québec à Montréal*-eko Département de Science Politique-ko irakaslea, ikerketa feministetan eta mugimendu altermundialistetan aditua, zeina up-en erabileraren bidezko aldarrikapen politikoetan jakituna den.

f- Éve Lamoureaux: *Université du Québec à Montréal*-eko Artearen historiako departamentuko irakaslea, artearen soziologian lanean jardundakoa, aldaketa kulturalak eta jarduera politikorako artearen erabileran jantzia.

- Buenos Aires, Argentina (2012)

*Universidad de Buenos Aires*-en egindako egonaldiak up-etan sakontzeko aukera emateaz gainera, up eta naziozintzaren gaiak elkar uztartuak jorratzeko aukera eman du. Batetik Gisela Catanzaro *Unibersidad de Buenos Aires*-eko Gizarte Zientzietako Fakultateko irakaslearekin nazioa ulertu eta auzitan jartzeko aukera egon da, ikerketaren bi kategoriatan analitikoetariko bat (nazioa) teorikoki zedarritzea lotu delarik horrela. Eta bestetik, up-ak eta nazioaren ikuspegia uztartzeko aukera eskaini du Mara Burkart *Unibersidad de Buenos Aires*-eko *Instituto de Estudios de America Latina y Caribe*-ko partaidearekin egon izanak. Mara Burkart aditua da up eta gerra, eta up eta naziozintzaren alorrean, hainbat lan jorratu baititu horren inguruan. Besteak beste, bere Doktoretza Tesia: *"HUMOR: La risa como espacio crítico bajo la dictadura militar. 1978-1983"*. Amaitzeko Beatriz Trastoy *Unibersidad de Buenos Aires*-eko irakaslearengana jo da. Trastoy anderea antzerkia eta teoria estetiko garaikidean aditua da, eta haren aholkuak bereziki interesgarriak izan dira up-en funtzio sozialak ulertzerako garaian.

### 4.3. INFORMAZIOAREN ANALISIA

*"las palabras significan mucho más de lo que dicen"*<sup>13</sup>  
(Santander, 2011: 208)

Subjektuek ekintzak burutu eta ideiak proiektatzen dituzten espazioa sozialki ordenatua den errealtate bat bezala ulertzen da. Horren arabera, gizabanako batek munduaz ulertu eta ezagutzen duena, hein handi batean, gizarte osoak ulertu eta ezagutzen duenaren berdintzat jo daiteke (Schutz, 1974). Ikuspegi horretatik up-ak ere errealtatearen ulermen komun baten islatzat ikusten dira; kolektibo baten iritzi, balore, beldur edo sakralizazioen adierazgarri, eta ondorioz, irudikariak aztertzeak (kasu honetan euskal up etniko autoerreferentzialaren irudikariak), gizarteak errealtatearekiko (euskal nazioaren nukleo irudikatuekiko) dituen hautemateak zeintzuk diren jakiteko modu bat dela ulertzen da.

Haatik, Suthz-en baieztapena egiazkotzat jotzen bada ere, halako interpretazioak egitean gehiegizko orokortasunetan erortzeko arriskua kontuan izan behar da, aztertutako diskurtsoak ez baitote ordezkarria den lagin bati erantzuten, eta beraz, eskuratzen diren emaitzak ezin dira gizarte osora zabaltu. Hala eta guztiz ere, aztertutako up-ak errealtate sozialaren parte diren heinean, (zehazki 2011-2015 urteen arteko EAE-n jazo ziren up-ak diren heinean), hauetatik ateratako emaitzak ere erreala direla ulertzen da (Coll, 2009). Neurri horretan, errealtate "osoaren" ordezkarria ez bada ere, euskal naziozintzarekiko up-en

<sup>13</sup> ["hitzek esaten dutena baina gehiago adierazten dute"]

mediazioak azaltzeko baliagarritasuna dute (Fernandez, 2006).

Emaitzak lortzeko erabili den teknika *diskurtsoen analisisa* da, ulertzen baita up-etako irudikariak agertzen duten adierazgarritasunarengatik, egiten duten erabilera sinbolikoagatik eta duten gaitasun performatiboarengatik, *diskurtsoak* direla edo hala tratatuak izan daitezkeela bederen. Analisi mota honen egokitasuna bi aldetatik dator: batetik, diskurtsoek errealtate sozialean eragiteko duten ahalmena kontuan hartzeko aukera eskaintzen duenez lan honetako hausnarketa teorikoan azaldu den diskurtsoa ulertzeko moduarekin bat egin du (ikus 2.2.3). Eta bestetik, errealtateak erakitzen duten zeinu eta zentzuen erabilera zein horiek baldintzatzen dituzten botere-harremanak argitara ekartzen lagun dezakeenez ikerketa honek dituen helburu moldeekin lan egiteko egokia bilakatzen da.

"Bira diskurtsiboaren" ostan<sup>14</sup> diskurtsoaren analisisa aldarrikapen identitario eta kultural gutxituen borroka politikoen parte bilakatuz batera (Fraser, 2000), horren erabilera zabalduaz eta indartuz joan da gizarte zientzien baitan. Bide horrek lengoaiak errealtateak eratzeko duen gaitasunean oinarritzen du bere planteamendua; diskurtsoak, errealtatearekiko irudikapenarekin batera, errealtate horren eraikuntza ere burutzen duela defendatzen du, eta ondorioz, errealtate lengoaiarik gabe ulertzea eta barneratzea ezinezkoa dela adierazten

<sup>14</sup> Diskurtsoaren gaineko aldaketa epistemikoari egiten dio erreferentzia, non, lengoaiaren hautemate errealista eta errepresentazionalistetatik (Saussure, 1997; Bekerman, 1996) urrundu eta errealtate oro ontologikoki gizarteak erabiltzen dituen diskurtsoetatik bana ezina dela dioen iritzi ildoak indarra hartzen duen. Ideia hauek sakonago landu dira 2.2. kapituluaren.

du. Diskurtsoaren analisiak, beraz, gizarteko ekintza eta iruditegia nola osatzen den ezagutzea du helburu: kategoriak, sailkapenak, ezaugarrien esleipena, "gu"-aren eraketa "besteak" baten aurrean... nola helarazten (eta erakitzen) den ulertzea bilatuz (Martin, Pardo eta Whittaker, 1998).

*"hace inteligible cómo se produce el conocimiento, cómo la realidad y cómo el propio proceso de conocer resulta legible y, en definitiva, cómo se construye la interpretación de la realidad"*<sup>15</sup> (Iñiguez, 2003:48)

Baina diskurtsoaren analisiak eskaini ditzakeen emaitzak oso esanguratsuak izan badaitezke ere, datuen analisisirako ikuspegi honi ikertzailearen gehiegizko parte-hartzea dela eta (objektibotasun falta, alegia) kritika egin ohi zaio. Informazioaren analisisa burutzeko erabiltzen diren bideak ilunegiak izatea egozten zaio, hain zuzen ere ikertzaileak jarraitu dituen azterketa-bidearen urrats guztiak erakustea eta frogatzea ezinezkoa delako, eta ondorioz, analisiaren egokitasun eta zuzentasuna behar bezain argi erakusten ez duen analisisat hartu ohi da. Hala, kritika horien aldekoek *edukien analisisaren* erabilera proposatzen dute horren ordez.

Edukien analisiak, testuak azter-unitate minimoetan zaitu eta testuaren elementuak aurretik diseinaturiko edukien fitxa baten bidez sailkatuz modu isolatuan aztertzen ditu (Andreu, datarik gabe). Laurence Bardin-ek honela definitzen du *edukien analisisaren* teknika:

<sup>15</sup> ["ulergarri egiten du ezagutza nola sortzen den, nola errealtateak eta ezagutza prozesua ulergarri izan daitezkeen, eta finean, errealtatearekiko interpretazioa nola osatzen den"]

"el análisis de contenido es un conjunto de técnicas de análisis de comunicaciones que tiende a obtener indicadores (cuantitativos o no) por procedimientos sistemáticos y objetivos de descripción del contenido de los mensajes, permitiendo la inferencia de conocimientos relativos a las condiciones de producción/recepción"<sup>16</sup> (Bardin, 1990:28)

Baina edukien analisiak, testu ororen adierazi eta adierazleak aztertzeko aukera ematen badu ere, maiz horien interpretazio mugatu bat egiteko arriskua dakar. Alde batetik, teknika horrek mezuan soilik jartzen duelako arreta, komunikazio prozesuan parte hartzen duten gainontzeko elementuetatik isolatzen duelarik mezua edukia, bestelako faktore horiek diskurtsoaren adieran aldaketarik eragin dezaketen edo ez kontuan izan gabe (emailea, mezua, hartzailea, kanala edota efektuak) (Shoemaker eta Reese, 1991). Bestetik, analisiak emandako emaitzen estandarizazioa bermatzen duen datu bilketarako erreminta berdintsua erabiltzen da testu guztietan, eta horrek ikerketa prozesua gehiegi mugatzea ekar dezake. Hau da, ikerketatik ateratako eduki guztiak aurretiaz egituratutako fitxa tekniko aldakaitz baten baitan egokitu beharko dute halaberrez, eta noski, interpretazio aukera guztiak barnebiduko dituen fitxa dela aintzat eman

—

16 [" edukien analisisa komunikazioen analisis teknika multzo bat da, zeinak adierazleak eskuratzen dituen (kuantitatiboak edo ez) mezuen edukia deskribatzen duten prozesu sistematiko eta objektibo bidez. Horri esker, produkzio/hartze baldintzen inguruko ezagutza inferitza lortzen du"]

behar da horretarako. Baina ohikoena, ordea, testuen analisiak ikerlariak aurrez zehaztu gabeko informazioak eskaintzea izaten da, eta ondorioz, edukien analisiak informazio esanguratsu asko kontuan ez hartzeko arriskua du. Hartara, beste hainbat erreminta kualitatiborekin bezalaxe, edukien analisiak ere eragozpen asko ditu testuen azterketarako, hain zuzen ere errealtatea aztertu aurretik mugatua geratzeko joera duelako, (Bourdieu, 2001).

Horren aurrean, diskurtsoen analisiak hiru abantaila eskaintzen ditu. Alde batetik, ez ditu ikerketa kategoriak aurrez ezarriko, baizik eta ikerketa garatu ahala kategorio horiek sortzen eta formulatzen edo birdefinitzeko aukera ematen du. Bestetik, diskurtsoa ukitzen duten elementu desberdinen analisisa ahalbidetzen du, hau da, testuaren esanahia ulertze aldera, diskurtsoa inguratzen duten egoeraren azterketak egiten du, hots, testuinguruaren (denbora, espazioa eta egoera soziopolitiko kulturala) zein agentzien aldaketek testuan izan dezaketen eraginak kontuan hartzen ditu. Eta azkenik, hizkuntzaz gain (idatzia edo ahozkoa) komunikazio eta errepresentaziorako bestelako bitartekoak ere kontuan hartzen ditu: hau da, linguistikatik kanpo dauden bestelako testuak ere aztertu eta irakurri daitezkeela ziurtatzen du (telebista programak, irudiak, argazkiak, komikiak, antzerkiak, eta abar).

Ikerketa honetan diskurtsoen analisisa egin da, eta horren baitan, materialen kodifikazioa eta edukien matrizeen eraketa burutzeko Nvivo 8 programa erabili da. Horrekin batera, Excell taulak eta eskuzko oharrek ere lagundu dute ideien antolaketa eta kudeaketan. Segidan ematen dira jarraitutako prozeduraren inguruko argibideak.

#### -Up-en erregistroa

1) *Analisi aurreko prestaketa*: Excell orri batean fitxa teknikoa osatu da dokumentazio lanetik atera nahi den informazioa sailkatzeko baliagarria diren aldagaiekin. Horiek, beti ere, aldagarriak izan daitezkeela kontuan hartuz.

2) *Uneko analisisa, informazioaren sailkapena*: Ikus entzunezko materialaren bistaratzea egin ahala betetzen joan da fitxa teknikoa.

3) *Dokumentazioaren analisisa*: Fitxa teknikoko informazioa, gai eta ideia orokorretan elkartu da, irudikari/diskurtso eduki desberdinak bistartzeko (Nvivo 8).

4) *Kontzeptuen diagrama*: informazioarekin oinarritzko kontzeptuen mapa bat sortu da (Nvivo 8), haien arteko harremanak agerikoak eginez.

#### -Behaketa parte-hartzailea

1) *Uneko analisisa*: Performancearen erregistroa bideoz burutzea posiblea izan denean, audiozko oharrek gehitu dira grabazioa egin bitartean, gertatzen ari denaren inguruko inpresioak jasoa gera daitezzen. Grabatu ezin izan denean, apunteak hartu dira eskuz.

2) *Dokumentatutakoaren analisisa*: Salbuespenen baten batekin, oro har behaketaren egun berdina erabili da grabazio materialaren azterketa egin eta horren gaineko apunteak gehitzeko. Up-en edukiaz gordetako informazioa fitxa teknikoan sailkatu da eta performancearen inguruan jasotako bestelako edukiak (ikuslegoaren inpresioak, interakzioak...) kontzeptuen diagraman gehitu dira.

3) *Kontzeptuen diagrama*: Bildutako materiala sailkatu eta ordenatuaz, beharrezko loturak osatu dira eta behar izan den kasuetan harreman "nodo" berriak sortu dira.

#### -Elkarrizketak eta hiruko taldea

1) *Uneko analisisa*: elkarrizketak burutu bitartean landa kuadernoan notak eta apunteak jaso dira, elkarrizketatuek esaten dutena ordu arte jasotako informazioarekin buruz gurutzatuz. Horrekin batera elkarrizketa grabatu egin da geroko bere azterketa burutzeko.

2) *Dokumentazioaren analisisa*: Grabatutako dokumentazioa ez da bere osotasunean transkribatu, horren ordez garrantzizkotzat jo diren atalak sailkatu dira Nvivo8-n.

Si l'on tient compte de ce qui a été constaté jusqu'ici, on peut donc affirmer que les personnes interrogées de ce groupe partent de matrices culturelles qui présentent de grandes similitudes. Cependant, les interviewés ont recours à des motivations ou des points de départ différents, au cas par cas, pour réaliser les ph, certains intervenant pour exprimer leur opposition à une situation ou une position (forces répressives, oppression, rapports de pouvoir...), et d'autres le faisant pour montrer ou encourager une adhésion (langue basque, culture basque...). Ainsi donc, même si au premier coup d'œil il semble qu'il s'agit de postures différentes, au fond tous ont la même essence. En effet, quand ils agissent contre quelque chose (contre la situation de dépréciation de la langue basque, par exemple), ils le font parce qu'ils défendent autre chose (parce qu'ils sont pour vivre au Pays Basque en basque, par exemple). Au contraire, quand ils interviennent pour défendre quelque chose (mener des actions pour encourager la langue basque), ils expriment une opposition ou un désaccord avec une autre situation (en mettant en évidence, par exemple, l'idée selon laquelle l'euskara

23 [« Nous sommes très critiques sur le point de vue national. En tant que Medeak, nous estimons qu'il y a des féministes qui sont très efficaces et qui se chargent très bien de cette construction nationale féministe. Très bien. Mais notre priorité n'est pas de construire un Pays Basque féministe. Nous critiquons les choses qui ne nous plaisent pas et nous agissons pour les changer »]

est minoré ou opprimé). Toutefois, qu'ils affichent une position favorable ou opposée, le fond de l'action est, dans les deux cas, le même ; dans l'un comme dans l'autre, le soutien à la langue basque est manifeste. C'est la manière de mettre en lumière ce soutien qui change.

La matrice culturelle dépend de ce « fond » qui oriente et motive ces actions. Ainsi, même si l'on a vu, dans le cas des personnes mentionnées jusqu'ici, que les bases et les motivations qui les conduisent à réaliser des ph sont différentes, pour ce qui est de la nation basque, du moins dans une large mesure, on peut dire que toutes les personnes interrogées partagent une matrice culturelle semblable. Par des expressions favorables ou opposées, elles avancent une vision commune, de gauche et (du moins en majorité) *abertzale*, de la nation basque à laquelle on reconnaît une culture et une langue propres.

### 5.1.5. Des matrices culturelles qui « n'ont pas besoin » d'explications

Toutes les personnes interrogées ont plus ou moins mis en évidence certains détails de leur matrice culturelle : que ce soit en s'exprimant directement, ou par le biais des idées qui ont jalonné leur discours, ils nous ont fait découvrir leur matrice culturelle concernant la nation basque. Cependant, certains interviewés n'ont pas laissé paraître leur point de vue sur la nation basque. Ces personnes n'ont rien dit sur leur vision de la nation basque, ou alors, si elles y ont fait allusion, c'est de manière superficielle et confuse. On peut les répartir en deux groupes : d'une part, les partis politiques, et d'autre part, les personnes travaillant à la télévision (EITB).

À propos du Carnaval de Bilbao, des entretiens ont été réalisés avec les partis politiques (avec des conseillers municipaux du PP<sup>24</sup>, du PSE-EE<sup>25</sup>,

24 PP (*Partido Popular*) : parti politique conservateur espagnol fondé en 1989.

25 PSE-EE (*Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra*) : fédération du PSOE (parti politique social-démocrate espagnol) dans la Communauté Autonome Basque, issue d'une alliance, en 1993, avec *Euskadiko Ezkerra*, parti politique nationaliste basque et de gauche.

d'EAJ-PNV<sup>26</sup> et de Bildu<sup>27</sup> ainsi qu'avec le coordinateur du EAJ-PNV pour la programmation des festivités), et concrètement, ils ont été interrogés sur le différend qui a opposé, dès 2004 et pendant huit ans<sup>28</sup>, la Municipalité et les groupes associatifs de Bilbao à propos du Carnaval.

Le Carnaval de Bilbao a donc été le point de départ des entretiens, mais pour en savoir plus sur leur vision des choses, ils ont également été interrogés sur l'influence, la fonction et les conséquences des ph. Par ce biais, outre leur opinion sur le Carnaval, ils ont fini par donner leur avis sur les ph, et tous ont parlé des ph au Pays Basque. Dans les entretiens réalisés avec les partis politiques, en revanche, il a été très difficile d'obtenir des informations permettant de découvrir leur matrice culturelle sur la nation basque. À une exception près :

*"Aquí somos un país muy pequeño y tenemos unas diferencias terribles entre unos y otros. Yo creo que los bilbaínos sí, los bilbaínos tenemos muy buen humor, somos muy cachondos (...) Creo que los alaveses seguramente por el frío, y los guipuzcoanos seguramente porque, por esa rencilla que han tenido con nosotros, tienen peor humor"* <sup>29</sup> [E8]

Dans ce cas précis, par exemple, le conseiller municipal du PSE-EE met clairement en évidence la notion de territoire, et aussi la qualité de la matrice culturelle qui est la sienne à propos de la collectivité. Dans ses dires, les territoires d'Alava, du Guipuzcoa et de Biscaye (il évoque concrètement Bilbao au lieu de Biscaye) composent le Pays Basque (« pays »), et il établit des comparaisons entre les communautés de chaque territoire. Il considère les habitants d'Alava, à cause du « climat froid », et ceux du Guipuzcoa, en raison des « tiraillements »

26 EAJ-PNV (*Euzko Alderdi Jertzalea*) : parti politique nationaliste et chrétien-démocrate basque fondé en 1895.

27 Bildu : parti politique de coalition nationaliste et de gauche basque, fondé en 2011, qui regroupe notamment en son sein *Eusko Alkartasuna* (EA) et *Alternatiba*. À partir de 2012, d'autres partis ont rejoint la coalition, tels que *Sortu* et *Aralar*, et son intitulé est aujourd'hui EH Bildu (*Euskal Herria Bildu*).

28 Ce sujet est approfondi au chapitre 5.4 *Gozamena*.

29 [« Ici nous sommes un très petit pays, avec d'énormes différences entre les uns et les autres. Je crois qu'à Bilbao, nous avons beaucoup d'humour, nous sommes très marrants (...) Je pense que les Alavais (habitants du territoire historique d'Alava), sans doute à cause du froid, et les Guipuzcoans (habitants du Guipuzcoa), sûrement du fait de ce ressentiment qu'ils ont envers nous, ont un humour bien pire que le nôtre »]

qui les opposent aux habitants de Bilbao (ou aux Biscayens), comme des gens ayant peu d'humour. En revanche, selon lui, les habitants de Bilbao sont joyeux, bon vivants et drôles.

En dehors de cette représentation que donne le conseiller municipal du PSE-EE du territoire et du collectif basques, aucune autre information permettant d'en savoir davantage sur la matrice culturelle des conseillers municipaux et du coordinateur de la programmation des festivités ne figure dans les entretiens. Pour quelle raison ? Chaque conseiller municipal s'exprime à partir d'un système discursif donné<sup>30</sup> (Faucault, 2003, 2010), marqué par l'idéologie établie par chaque formation politique. Par conséquent, on peut comprendre que la matrice culturelle de chaque conseiller municipal à propos de la nation basque est, dans une large mesure, circonscrite par le parti lui-même. Autrement dit, le point de vue des conseillers municipaux est « formaté » et « normalisé » ; ils ne ressentent pas la « nécessité » de donner d'explications quant à leur point de vue sur la nation basque, car ils considèrent, d'une manière irrationnelle peut-être, que leur discours est institutionnalisé dans la société.

On retrouve une attitude semblable chez les employés de la télévision basque EITB. Le coordinateur-scénariste des émissions humoristiques de la chaîne de télévision en espagnol ETB2 ne fournit pas d'explication sur la matrice culturelle qui est la sienne à propos de la nation basque. Même s'il précise quels sont les ph qui fonctionnent et ceux qui ne fonctionnent pas, il n'explique pas la nature de la matrice utilisée pour établir cette classification. Cette attitude démontre qu'il perçoit le point de vue qui est le sien comme connu, normalisé et/ou prépondérant, et donc, il ne voit pas la « nécessité » d'éclaircir son fonctionnement. On peut considérer que cette absence de besoin de fournir des détails sur la matrice reflète directement l'hégémonie d'une vision du monde.

Le même phénomène se produit chez les scénaristes et comédiens qui travaillent pour la chaîne de télévision en langue basque ETB1. Les références à la matrice culturelle de la nation basque sont très rares, même s'il y est fait allusion parfois :

—

30 Cette question est traitée au chapitre 2.2.

*"Arabak ez du erreferentzialidade handirik. Gipuzkoakoak grisagoak dira, politikagatik, Gipuzkoan kontainerrak erretzen ziran, Bizkaian ez hainbeste. Bizkaikoak askoz ere umoretsuagoak dira, espresiboagoak."*<sup>31</sup> [E16]

Dans cet exemple, on peut constater que l'explication donnée par l'employé de la chaîne ETB1 est comparable à celle fournie par le conseiller municipal du PSE-EE. Il situe le territoire de la nation en Guipuzcoa, Biscaye et Alava, et attribue des caractéristiques différentes aux communautés de chaque province: il considère les habitants d'Alava et du Guipuzcoa comme plus sérieux, et les Biscayens comme ayant le plus d'humour.

Même s'il est en accord avec la vision du conseiller municipal du PSE-EE, il faut pourtant tenir compte ici du fait que l'employé de la chaîne ETB1 ne répond pas directement au système discursif d'un parti politique. Il s'exprime en tant que travaillant au sein de l'institution EITB (à partir de la position de sujet<sup>32</sup> au sein de ce discours) et non au niveau individuel, en tant que personne qui a un nom et un prénom. Ainsi, même si la matrice culturelle qu'il ne montre pas était en accord avec une idéologie politique déterminée, il faudrait la situer dans une vision qui fait référence à EITB et la comprendre à partir de cette situation.

Ainsi, les employés interviewés d'ETB1, comme ceux d'ETB2 et les partis politiques, considèrent donc comme prédominant le point de vue qui est le leur sur la nation basque, et ne ressentent donc pas le besoin de s'en expliquer. De plus, on pressent que ces matrices culturelles qui demeurent sans explications, tant celles des partis politiques que celles des employés d'EITB, présentent de grandes similitudes entre elles. Bien que les systèmes discursifs créés soient différents (les partis politiques, d'un côté, et l'institution EITB, de l'autre), il semble que la matrice culturelle sur la nation basque reconnue par les personnes interrogées (quand elle se rapporte aux ph), se déplace autour d'un même discours « normalisé ». C'est-à-dire que, même en partant de systèmes discursifs différents, ils partagent des idées communes qui sont hégémoniques.

—

31 [« Le territoire d'Alava n'a pas de grand référentiel. Les habitants du Guipuzcoa sont « plus gris », à cause de la politique, en Guipuzcoa des conteneurs ont été brûlés, en Biscaye pas autant. Les Biscayens ont beaucoup plus d'humour, ils sont beaucoup plus expressifs. »]

32 Cette question est traitée au chapitre 2.2.

En revanche, dans les mentions faites par les employés d'ETB1, il convient de souligner une nuance. En effet, deux personnes interrogées ([E15], [E16]) mettent en évidence l'importance et la nécessité de faire des ph en euskara. Avant tout autre explication, ils soulignent en particulier leur volonté de proposer des ph en langue basque, en fondant leurs explications sur la nécessité de promouvoir de cette langue. On peut donc en déduire que le « devoir » de revendication en faveur de la langue basque place le positionnement en faveur de cette langue en dehors de la matrice culturelle hégémonique. Autrement dit, avoir recours à la langue basque et exprimer explicitement une position favorable à l'euskara, démontre qu'il s'agit d'une réalité qui n'est pas reconnue, « naturalisée » ou « normalisée ».

On pourrait appliquer la même approche aux autres exemples examinés jusqu'ici. Les personnes dont les entretiens sont regroupés dans les sous-sections *En faveur de la diversité, À partir de la conscience du « Nous », La langue basque pour axe* et *Du regard critique de gauche*, « ont dû » exposer leurs matrices culturelles (parmi ces positions favorables à la langue basque). Par conséquent, on comprend que cela répond au désaccord entre leurs points de vue et la matrice culturelle dominante ou hégémonique, autrement dit, au fait que le niveau d'institutionnalisation, et donc, de « normalisation » de leurs matrices culturelles soit plus faible.

Compte tenu de tout ce qui précède, nous avons donc réparti en deux ensembles les matrices culturelles sur la nation basque des auteurs de ph. D'une part, les *matrices culturelles hégémoniques* qui ne nécessitent pas d'explications, autrement dit, celles qui bénéficient d'un haut degré d'institutionnalisation (et de reconnaissance) dans la société. D'autre part, celles qui sont *apostates*<sup>33</sup> par rapport à la *matrice culturelle* hégémonique, à

savoir, qu'elles sont différentes de la vision hégémonique. Par conséquent, dans la mesure où les collectifs ayant des matrices culturelles apostates s'éloignent de l'hégémonique, ils ont besoin de préciser en quoi réside leur différence, afin d'être compris dans la société. Ils s'expliquent donc plus clairement que ceux qui ont la matrice culturelle hégémonique, sur la nature de leurs points de vue/opinions/discours. Selon nous, donc, les deux matrices culturelles sont donc composées de collectifs se référant à une même réalité sociale, mais en raison des relations de pouvoir qui existent entre l'une des matrices (et, par conséquent l'un des collectifs) et l'autre, les uns ont un caractère hégémonique et les autres, en revanche, un caractère subordonné. Justement, ces explications composent une attitude apostate à partir de la conscience de la situation de dépendance. Ils se positionnent donc contre l'opinion hégémonique, et cette opposition, comme nous l'avons évoqué précédemment, peut être présentée de deux manières différentes : d'une manière *positive*, en défendant, protégeant ou renforçant des points de vue sur la nation basque qu'ils présentent dans la matrice culturelle apostate ; ou d'une manière *négative*, c'est-à-dire en s'opposant aux points de vue imposés par la matrice hégémonique, en tentant d'invalidier la logique hégémonique contraignante, et indirectement, en se positionnant en faveur de la matrice culturelle apostate.

Dans la recherche, il a été tenu compte du fait que les ph agissent positivement ou négativement, ou qu'ils sont transmis à partir de la matrice culturelle hégémonique ou apostate. Précisément parce qu'utiliser l'information des matrices culturelles permet de mieux évaluer les discours des ph, d'analyser et de comprendre leurs relations mutuelles et, finalement, d'avoir une compréhension appropriée du processus de médiation des ph. Ces interprétations sont reflétées dans les chapitres suivants.

33 La signification originelle de l'acception apostat fait référence à quelqu'un de rebelle ou d'impertinent. Par la suite, l'église catholique a utilisé ce terme pour désigner celui qui rejette la foi chrétienne, et plus précisément, celui qui renie les croyances dans lesquelles il a été élevé. Ce travail s'en tient surtout à la signification originale du terme, et il faut le comprendre comme acception faisant référence à celui qui a refusé la vision du monde reçue par la socialisation comme dominante ou hégémonique ou qui s'est attaché à une vision du monde différente.

## 5.1 MATRIZE KULTURALA

Matrize kulturala (Barbero, 1991) subjektuak sozializazioz barneratu duen mundu ikuskerari dagokio, errealitate soziala hautemateko eta bertan moldatzeko erabiltzen dituen oinarriak. Hala, errealitate soziala baloratze eta interpretatzeko euskari kulturala izanik, egunerokotasunean aritzean matrize kulturalen naturalizatuak dauzkan edukiek eskaintzen dioten aukera eta mugen arabera jarduten du subjektuak: normala/a-normala, ona/kaltegarria, egokia/desegokia, propioa/arrota, eta abar, horren arabera sailkatuz.

Errealitate sozialaren parte diren heinean, matrize kulturalak baldintzatzen ditu up-ak ere. Subjektuaren matrize kulturalak ahalbidetzen du up bat up gisa ulertua izatea, errealitatea interpretatzeko duen ikuspegiaren arabera up-a gozagarri, aspergarri edo iraingarri izango baita. Hori dela eta, matrize kulturalen berri edukitzeak, hau da, subjektuak errealitate soziala ulertu eta bizitzeko duen kosmobisioa ezagutzeko, up-ekiko dituen pertzepzioak ezagutzeko ere balio du. Hala, ikerketa honek up-en hautemate sozialean sakontzeko asmorik ez badu ere, up-en mediazioa ulertzeko beharrezkotzat jo da up-ak egin edo erabiltzen dituzten matrize kulturalen gutxiengo ezagutza edukitzea. Hain zuzen ere, informazio horrek up-ak "nondik" egiten diren ulertu arazi, eta ondorioz, zein zentzu (diskurtso) egozten zaien, bai eta diskurtso desberdinak helarazten dituzten up-ak nola hautematen dituzten ikusteko tartea eskaintzen duelako.

Matrize kulturalak zehaztasun osoz ezagutzea ezinezkoa da ordea. Ezin da subjektu (kolektibo) batek errealitate sozial oro nola hautematen duen jakin subjektua beraren parte izan gabe. Eta hala izatekotan ere, barnean egoteak matrize kulturala bereiztea galarazi diezaguke. Bada, non kokatu behar gara, matrize kulturalen inguruko informazioa eskuratu ahal izateko? Ikertzaile posiziotik abiatzeak, batetik, Borges-en maparen<sup>1</sup> paradoxan erortzea ekiditeko bezain urrun kokatu gaitu iker objektutik, ahal den neurrian iker objektuaren parte ez izatea, eta beraz, euskal nazioarekiko matrize kulturalak "kanpotik" behatzeko aukera eskaini baitu. Baina halaber, euskal kolektiboko kide (gazte, emakumezko eta zuri) izateak up-en egileen matrize kulturalen ezaugarri esanguratsuenak jaso eta behar bezala ulertzeko aski hurbil utzi gaitu.

Elkarrizketetatik jasotako materiala erabili da up-en egileen matrize kulturalak ezagutzeko. Ulertu da matrize kulturalak subjektuak mundu sozialean ibiltzeko erabiltzen dituen "betaurrekoak" diren heinean, subjektuen praktika eta diskurtso orotan presente daudela, eta berdin, ikerketa honetan burututako elkarrizketetan ere azaltzen direla. Horrenbestez, euskal nazioaren inguruko matrize kulturalen oinarritzko zertzeladak bilatu dira diskurtsoen analisiaren bidez, horien laguntzaz up-ak euskal nazioarekiko zer nolako ikuspegiaren oin hartzen duten eta nondik abiatzen diren ezagutzeko.

Bi ikuspuntu hartu dira kontuan elkarrizketetan jasotako informazioa baloratzeko garaian. Batetik, *emic*, hau da,

<sup>1</sup> Borges-en maparen paradoxak galde egiten du ea zentzurikote duen errealitatearen tamainakoa den maparik egiteak, zehaztasunean irabazita ere hori egiteak ez baitu inolako praktikotasunik. Kasu honetan "mapa", ikerketa bera, alegia, "ulergarria" eta erabilgarria izateko errealitatetik "urruti" kokatu eta behatu behar izan da.

*elkarrizketatuek pentsatzen dutela esaten duten hori* hartu da aintzakotzat. Alde horretatik, zuzeneko galderetan elkarrizketatuek haien ikuspegiak argitzeko erabili dituzten azalpen esplizituak jaso dira. Zenbait kasutan, ordea, lortutako erantzunek ez dute guztiz bat egin gerora, elkarrizketan zehar, zeharka agertzen joan diren euskal nazioarekiko bestelako azalpenekin. Hartara, oro har, pisu gehiago hartu du *etic* ikuspegiak, hau da, kanpo ikuspegitik (ikertzailearenetik) ateratako informazioak. Horri esker, elkarrizketatuek *pentsatzen dutela erakusten duten hori* eskuratzea lortu baita.

Matrize kulturalen analisiak agerian jarri du elkarrizketatu guztiak euskal kolektiboaren kide izateko dutela haien burua, baina horrela izanik ere, batzuek eta besteek duten euskal nazioarekiko ikuspegia desberdina da oso. Horrek dakar euskal up etniko autoerreferentziala erabiltzeko dauzkaten motibazio edo arrazoiak ere haien artean desberdinak izatea, hain zuzen ere matrize kulturala desberdina dutelako. Ondoko orriotan ikerketan elkarrizketatuak izan diren up egile desberdinek oinarritzat duten matrize kulturalen nolakotasuna zein den azaltzen da, elkarrizketan aipatutakoak bai eta egileen inguruko bestelako informazio baliagarria (nola hasi ziren edo zertan jarduten duten zehazten duena) eskainiaz horretarako.

### 5.1.1. Aniztasunaren alde .....

-*Pirritx, Porrotx eta Marimotx*

Euskal nazioak duten matrize kulturalaren tasuna modurik argienean azaltzen dutenatarikoak *Pirritx, Porrotx eta Marimotx* pailazoak dira.

*Pirritx, Porrotx eta Marimotx*-en sorrera oso lotua dago haien herriari, Lasarte-Oriari (Gipuzkoa). Herrian egiten zen euskararen erabilera urria zela ikusita, herriko ikastetxeekin elkarlanean hasi ziren haurren artean euskara sustatu eta indartzeko asmoz. Pailazoz jantzita euskara hutsean egindako saioak eskaintzen hasi ziren eta ekimenaren arrakasta ikusita, Lasarte-Oriari ez ezik, bestelako herri zein eskualdeetara zabalduak joan ziren pixkanaka. Gaur egun milaka pertsona biltzen dituzte saio handienetan eta Euskal Herrian ez ezik atzerrian barrena ere dihardute lanean. Azken 30 urteetan "euskara eta alaitasuna"-ren alde lanean jardun dute buru belarri.

*"Guk aipatu degu gure herria eta gure hizkuntza jazarria dala. Eta garai batean Francoren debekuak egoten zian, eta eraztunak jartzen zian, eta errepresio zuzena zeon, eta porrak zeuden. Gaur da eguna, hemen ari geala, enegarren aldiz, Euskal Herria Irratiari Nafarroan lizentzia ukatu diotena. Eta gaur egun da eguna Nafarroan ETB ikusterik ez dagoena. Gaur egun da eguna Nafarroan eta beste lurraldeetan lanpostu publikoetan euskararen*

<sup>2</sup> Haien aldarria zabalduak joan da urteekin. Hots, euskararen alde lanean segitzen badute ere bestelako gaiak ere landu dituzte: gaixotasuna, natura edo familia esaterako. Honen harira sortzen da *Irrien Lagunak* proiektua, alor desberdinetako 20 elkarte desberdinek parte hartzen duten elkarte.

*balorazioa hutsaren hurrengoa dana. Gaur da eguna kaleko seinalizazioetan, kaleko presentzian euskara desagerrarazi nahi dutena. Gaur da eguna Hendaian suprefeta batek dirulaguntza ukatu nahi diona lkastolari. Gaur egun gertatzen ai da hori.*" (sic.) [E21]

Garrantzia handia hartzen du hizkuntzak. Euskara Euskal Herriaren ondare baliotsuenerikotzat dute, bizirik dagoen kultura partikular (euskal) baten erakusle moduan. Baina halaber, zaindu, erabili, bultzatu eta sustatzeko beharra aldarrikatzen (eta praktikara eramaten) badute, neurri handi batean, euskarari esleitu zaion lekua onartzen ez dutelako da. Hots, zapaldua eta gutxitua den hizkuntza dela ikusi eta egoera horri buelta ematea beharrezkotzat jotzen dutelako.

Zapaldua izatearen ikuspegi bera darabilte euskal nazioari buruz hitz egiterakoan ere.

*"Irakurri genun periodikoan ta jartzen zun: "Bereberrak (Amazijak) Afrikako Euskaldunak". Eta Berrian irakurri non, eta hitz egiten zun artikulu horretan ba Afrikako Iparraldean, Egiptotik hasi eta Marokon badagola Amazijen herria. Dala Estadorik gabeko herri bat, ofiziala ez den hizkuntza batekin, eskoletan ere emateko zailtasunak dituztenak, errepresioa ere jasaten dutenak, zatiketa etnikoa... eta orduan Euskal Herrian ere, Nafarroa, Iparralde... Gurean ere badu bere antzekotasuna eta joe, pues gai polita da hau jorratzeko."* (sic.) [E21]

Euskal Herria, oro har, oinperatua dagoela ulertzen dute. Herriaren hizkuntza, kultura, bizimodua edota harremanak ukatzen direla, eta funtsean, eskubideak errespetatzen ez direla argi adierazten dute. Horrek, ordea, ez daramatza

Euskal Herriaren ikuspegi etnizista bat bultzatzera, alderantziz baizik, Euskal Herriari buruzko ikuspegi zabal bati eusten diote etengabe. Aniztasun horren erakusgarri da, besteak beste, lurraldeaz duten ikuspegia, Euskal Herriaren baitan zazpi lurralde historikoak *"Nafarroa, Iparralde..."* sartzen dituzte, eta horrekin batera, lurralde horri dagozkion kolektibo eta kultura aniztasuna ere errespetatu behar direla zehazten dute:

*"Euskal Herria ez da bakarrik Larrabetzu, Euskal Herria da Barakaldo. Euskal Herria ez da bakarrik Arbizu, Euskal Herria da ere bai Tuter. Euskal Herria da Urruña eta Euskal Herria da Maule, eta da Hondarbi, eta da Lasarte-Oria."* [E21]

Lekuan-leku, Euskal Herrian, hizkuntza, kultura, harremanak, eta abar, izateko eta bizitzeko modu desberdinak daudela kontuan hartu behar dela agerian jartzen dute. Zazpi lurraldeen baitan dauden errealitate (kultural, kolektibo, linguistiko ...) guztiak euskal nazioaren parte direla baiteritzote, eta hala, euskararen nagusitasunaren alde jokatzeko badute ere, aniztasun nazionalaz jabetu eta *"kolore guztietako"* Euskal Herri anitza irudikatzen dute.

Aberastasun horren baitan euskal kolektiboarekiko zenbait zehaztasun ere igortzen dituzte:

*"Euskaldunak izan gea oso sentimentalak baina oso barruan gordetzekuak ere. Euskal Herriaren eraikuntza honetan bizi izandu gea urte luzetan ukazio egoera batean. Ukazio horrek ere erreazioak sortu ditu, orduan, bizi izan ditugu eta bizitzen ditugu tarteka eta oso egoera txuri/beltzekoa, oso grisa. Euskaldunak izan gea oso*

*barrurako eta usteet egiten ai geala bide bat, eta gaur egungo gaztek gehiago kanporatzen degu orain"*. (sic.) [E21]

Hizkuntza gutxitua eta herria zapaldua utzi dituen testuinguru historiko bera oratzen dute kolektiboaren izaera "barnerakoiaren" arrazoi gisa. Baina aiurri aldaketa bat hautematen dute, besteak beste, gerora zehazten duten moduan, *"herri honetan egon den herrigintzarako jarrera aktiboa"*-ri esker: *"Herri txikia gara, hizkuntza minorizatua daukegu, baina auzolana oso errotua dago Euskal Herrian: elkarlana eta lan bolondresa"* [E21]. Euskal kolektiboa, langile eta lagunkoitzat hautematen dute beraz.

#### 5.1.2. "Gutasunaren" kontzientziatik .....

*Pirritx, Porrotx eta Marimotx*-en azken ikuspegi honen ildoari jarraituz, lan boluntarioa burutzeko herri ekimena azpimarratzen dute bai Bilboko *Kaskagorri* konpartsak, bai eta Donostiako *Piratek* ere.

#### -Kaskagorri

1989koa da *Kaskagorri* konpartsa, hain zuzen, Bilboko lehen konpartsak sortu eta 20 urte gerokoa. Euskal kultura eta gazterien alde lan egiteko osatu zen eta ekimen desberdinak egiten dituzte urtean zehar xede horren alde: *"Kaskagorri da tresna bat jartzen duena Gazte Mugimenduak kultura lantzeko"* [E10]. Ekintza guztien artean esanguratsuenarikoa bat, Inauterietako desfileko karroza da zalantzarik gabe: *"aprobetxatzen da zerbait salatzen baina umorez"* [E10].

Gazterien alde *Kaskagorri* burutzen dituen ekimen guztiak funts beretik abiatzen dira, euskal kulturaren aldeko jarrera dute abiapuntu nagusitako bat, eta horrekin batera jarrera ezkertiar eta euskaltzalea nagusitzen da haien artean:

*"Balore ezkertiarrek bultzatzen dira, edo balore gorriak ez? Azkenean euskaraz bizitzeko espazio bat da, giro parekidean lan egitekoa, parte-hartzailea, musikari dagokionez Euskal Herriko musika taldeak izatea..."* [E10]

Zeinu euskaldunak hartzeko hautu kontzientea egiten dute, bai musikan zein, oro harreko adierazpen kulturaletan. Oinarri horietan finkatuz euskal kolektibotzat dute haien burua, zeina, "Bilbotar gazte" identitatea ez ezik, haien nortasuna *"espainolen desberdina"* [E10] gisa identifikatzen duten. Hala, alderdi politiko bati zuzenean lotuak ez badaude ere, egiten dituzten ekintza eta diskurtsoan bistaratu egiten da haien jarrera politikoa ezkerrekoa eta abertzalea dela: *"ezin duzula zuzenean PNV zure etsaia dela aipatu agian, baina beti dago salaketa bat horren kontra, parodiaren bidez, antzerkiaren bidez"* [E10].

#### -Piratak

*Kaskagorri*koen antzeko ildoari eusten dio *Piratek* euskal nazioaz duten matrize kulturalak. *Piratak*, Donostiako Aste Nagusiak eskaintzen zuen jai ereduarekiko desadostasunetik sortzen dira 2003an. Zehazki, hiriko botere instituzionalek bultzatzen zuten jai *"pribatu eta pasiboaren"* aurrean aukera herrikoi eta parte-hartzaile bat eraikitzeko asmoz eratutako proiektua da: *"aldarrikapena eta umorea batuko zituena"* [E19c]. Herri mugimenduko espresio desberdinek parte hartzen dute bertan, ikuspegi eta iritzi aniztasuna

dagoelarik haien baitan. Aniztasuna baldin badago, pentsa liteke euskal nazioarekiko matrize kultural askotarikoak ere egon litezkeela, eta litekeena da hala izatea, baina egon litekeen aniztasun horren baitan komunak dituzte zenbait oinarri, besteak beste, hizkuntza, kolektibitatea edota zeinuen inguruko jarrera argia erakusten baitute.

*"Gure baloreak dira izan behar dela parte-harzailea, parekidea, euskalduna eta auzo lanean oinarritua. Horren baitan guk sortuko dugu ze eredu nahi dugun."* [E19b]

Jai eredu propio bat eraikitzeko eginahalean, beraz, euskara bultzatzearen alde aritzen den proiektua ere bada haiena, besteak beste, egiten dituzten ekintzak euskaraz izan daitezen zaintzen dutelako. Zeinuekiko eta honekin lotua kolektiboarekiko duten jarrerari dagokionez, haien diskurtsoan argi islatzen dute jai eredu eta hiri(tar) eredu aintzat hartzen dituen hausnarketatik abiatzen dela euskal nazioarekiko haien matrize kulturala.

*"Botere ekonomiko eta instituzional handienek"* [E19c] bultzatu eta kontrolaturiko Aste Nagusiari muzin egiten dioten modu berean, *Piratek* uko egiten diote Belle-Époque eta Frankismoaren garaian indartu zen "postaleko" Donostia xalo, lasai eta politaren irudiari ere. Piraten iritziz, Donostiako Aste Nagusia orain gutxi arte planteatua egon den moduan hiri pasibo eta turistikoaren neurriera eraturako jai izan da, eta horregatik, jai ereduaren aldaketa bultzatzeak, kolektiboaren (hiritarren) eta hiriaren aldaketa ere bultzatzea dakar. Jai parte hartzaile, ekintzaile, sormenezko eta burujabe batzuen alde egiten dute, beraz, non elkar-lanaren bidez herritik eta herriarentzat sortua den jai eredu eta erreferentzia berri bat sustatuaz batera, jaietan ez ezik, hirian eta kolektiboan ere eragina duen.

Ikus daiteke *Piraten* abiapuntu eta lan esparrua Donostiako eremuan kokatua dagoela baina haien diskurtso eta ikuspegiak ostertz zabalagoa hartzen dute, *"español mandatariek eta jelifanteek inposatutako identitate"* [E19c] kolektibo eta hiritar baten aurka jotzen baitute. Hala, Donostia inguruan lan egiten badute ere erabiltzen duten perspektiba askoz zabalagoa da, "espainolen inposaketa" batez hitz egiterakoan, herrien (nazioen) arteko botere-harreman baten pairakuntzaz ari baitira. Hain zuzen ere, espainiar tradizio, kultura, gizarte edota politikaren boterearen nagusitasunak ekarritako ondorioez dihardute, Donostiako hirian aldaketa jakin batzuk sortu dituen eta *Piratek* parte hartzaileak, herri ekimenez sortuak eta euskaltzaleak diren ikuspegi eta praktiken bitartez aldarazi nahi dituztenak.

*-Ospa Eguna*

Herrian sortutako arazo jakin bati erantzuteko borondatez erabiltzen dituzte altsasuarrek (Nafarroa) ere up-ak. Herritarrek aspalditik pairatzen zenbiltzan indar polizialen presentzia eta jazarpen *"masibo eta injustifikatuak"* [E23] bultzatuta sortzen da honakoa: Guardia Zibil eta Polizia Foralaren etengabeko kontrolek, jazarpenak, sarekadek eta isunek jasangaitz bihurtu zuten herriko giroa eta horren aurrean neurriak hartzea erabaki zuten herritarrek. Sona handia lortu zuen 2011kako *Ospa Eguna* deiturikoak, polizia eta militarrez mozturoririk herriko ehunka pertsonak parte hartu zuten egun osoko parodiak. Egoera hura aldatu/salatu nahiak ekarri zuen *Ospa Egunean* ideologia eta mundu ikuskera desberdineko jendea elkarraztea:

*"orduan hasi ziren antolatzen Osparen asanblada. Eta asanblada horretan elkartzen hasi ginen jende asko,*

*kuadrila askotakoak. Saiatu ginen ikustarazten behar hori jende desberdinaren artean. Ya ez zen bakarrik lanean eta politikoki lanean ari ginen jendea, baizik eta ya egoera ari zen zabaltzen, zen intensiboa eta parte hartzen zuen gurekin beste jende batek, ez ezkerrekoak bakarrik, eskuinekoak ere bai."* [E24]

Baina mugimenduen sustatzaileek argi dute haien jarrera zein den: *"guk ez ditugu polizia eta militar espainolak nahi (...) talde errepresore bat dira eta horrelako jarrera dute Euskal Herriarekiko eta euskaldunekiko"* [E23]. "Haiek-gu" banaketa garbia egiten dute elkarriketatuek haien kolektibo nazionalarekiko. Batetik, "gu" euskaldunak eta "haiek" espainiarrak bezala identifikatuz, eta bestetik, elkarren arteko botere-harremanak agerian jarritz, espainiarrak (eta zehazki polizia espainiarra) errepresio giletzat ulertzen baitute. Baieztapen horretan honakoa azpimarratzen dute: *"Guk ez dugu inoiz aldarrikatuko polizia behar izanez gero polizia hori militar eta espainola izatea. Aldarrikatzen deguna da geure polizia behar degula"* [E23]. Hots, zapaltzailea izateak gehiago zor dio "espainiarra" izateari polizia izateari baino.

*Pirritx, Porrotx eta Marimototxen* kasuan bezala, *Ospa Egune*ko antolatzaileen diskurtsoak ere erakusten du Euskal Herria herri gutxietsia edo zapaldua dela beraientzat, eta neurri handi batean, Espainiatik datorren zapalkuntza dela erdeinu horren eragile. Oro har, beraz, esan daiteke *Ospa Egune*ko sustatzaileen artean dagoen euskal nazioarekiko matrize kulturalak ezkerreko ideologia abertzale bati eusten diola nagusiki, nahiz eta egia den parte-hartzaileen artean bestelako ikuspegi duen ere badagoela.

5.1.3. Euskara ardatz.....

*-Bidaso, biga So!*

Azpiraketa horren jabebedun da [E18] elkarriketatua ere bai. Irrati esatari, umoregile eta bakarriketari honek Espainiako zapalketaren kontzientzia ez ezik, frantziar estatuak burutzen duena ere presente du bere up-en eraketan: *"gorrotatzen dudana da euskalduna apaltzen duen umorea. Euskalduna, beraz, zozo batentzat pasarazten duena. Zeren eta gure gurasoen buruetan sartua zen, frantsesek egina"* [E18]. Euskal Herritarrek frantsesengandik jasotako umilazio eta gutxiespenek lortatza du euskal nazioarekiko haren matrize kulturalen, eta kultura propio bat garatzerako orduan (bereziki hizkuntzaren aldetik) zailtasunak jarri zaizkion naziotzat jotzen du Euskal Herria. Hain zuzen ere, hizkuntzari egozten dio garrantzia handia, euskaraz egindako up-ak hizkuntza sustatzeko eta kultura propio bat garatzeko lagungarriak direla baiteritzo.

Euskara indartzeko nahiak eta matrize kultural euskaltzaleak bultzatzen ditu [E17] elkarriketatuen up-ak ere. [E17]-k soziolinguista eta umoregileak, ez du uste euskara hizkuntza ahula denik, *"munduko hizkuntzen artean gu gea gehien hitz egiten dienen artean lehen %10tan"* [E17], eta hala pentsatzea hizkuntzaren inguruan *"sartu diguten klitxe"* bat dela deritzo. Baina euskararen erabilera bultzatzearen alde dago nolana ere, eta ariketa horretan, umoreak duen garrantzia azpimarratzen du: *"hizkuntza batean ez badezu aukerarik umorerik iteko ez dezu hizkuntza hori erabiliko, eta alderantziz, aukera badezu hizkuntza hori gehiago erabiltzeko aukera dago"* [E17].

[E17] eta [E18]-k elkarrekin egiten dute *Bidasoa, biga So! Irri Iparrak eta Hego Erak* up-a. Bertan euskararen gaia lantzeaz gain, Euskal Herriko hegoalde eta iparraldearen



arteko muga politiko eta kulturaleri erreparatzen diete, euskal kolektiboa Bidasoaldean<sup>3</sup> nola eta zertan bereizten den modu umoretsuan argitara ekarriz. Bereizketa hori egiteko ardatz esanguratsuetariko bat aspektu sinboliko eta linguistikoa kokatzen dute, euskaraz mintzatzeko eta adierazteko dauden desberdintasunak aintzat hartzen baitituzte haien up-an.

#### -Barretartia

Barretartia blogak ere hizkuntza hartzen du abiapuntuetariko bat lez: *"helburua da euskeraz umorea zabaltzea. Hori da nire helburua. Euskeraz sortu edo bultzatu, eta dagoena bildu eta hortik jarraitu"* [E5] dio blogeko koordinatzaileak. Autore desberdinek euskaraz egindako umore narrazio, istoriotxo, artikulua ea. biltzen dira bertan, eta mota askotako up-ak eta ondorioz matrize kulturalak agertu badaitezke ere, euskaraz up-ak egitea da elkartzen dituen jomuga. Blogeko koordinatzaileak agerian utzi nahi du up-ak euskaraz ere egiterik badirela, eta horiek ere euskal hiztunen kolektiboarekiko eta euskararen egoerarekiko positiboa eta lagungarriak direla.

Aipatu diren azken kasuetan ikus daiteke euskarak pisu handia hartzen duela elkarrizketatuen matrize kulturalan eta hori agerian gelditzen da sortzen dituzten up-etan ere. Hizkuntza, euskal nazioaren ezaugarri garrantzitsuenetarikotzat jotzen dute, eta behar duen

—

3 Bidasoaldea deritzo Euskal Herriaren iparraldean kokatua dagoen Bidasoa ibaiaren inguruko zonaldeari. Gune esanguratsua da Bidasoa ibaiak Gipuzkoa eta Lapurdiren arteko muga markatzen duelako, eta halaber, baita espainiar eta frantziar estatuen artekoa ere.

zilegitasun edo nagusitasuna oraindik ez duela iritzita, euskara (up-etan eta umorez) erabiltzen segi eta indartzearen aldeko azaltzen dira.

#### 5.1.4. Ezker begirada kritikoaz .....

#### -Beranduegi

lido euskaltzaleari eusten dio *Beranduegi* kideen matrize kulturalak ere. Up-ak euskaraz egitearekin, *"sortzen dezu 'hau euskaraz ere egin daiteke' esateko modu bat"* [E6] dio elkarrizketatuak.

*Beranduegi*, ARGIA aldizkaritik egindako albistegi umoretsua da. 2011ean sortu bazen ere, bi urte lehenagotik, 2009an, eman ziren bere sorrerarako baliogarriak izan ziren lehen urratsak. Izan ere, urte hartan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finala ospatu zen eta ARGIA aldizkariak txapelketaren analisi eta kritika umoretsuko saio bat zabaldu zuen Internetez. Proiektuarekin gustura geratu zirenez Bertsolari Txapelketa amaitu ondoren ere saioarekin jarraitzeko erabakia hartu zuten eta AEBtako *Saturday Nigth Live* telebista saioak igorritako *Wekeend Update* albistegia erreferentziatuz hartuz, gaurkotasuneko gertaerak umorez kontatzen duen *Beranduegi* saioa sortu zuten.

Euskaltzalea izateaz gainera bestelako ezaugarriak ere erakusten ditu *Beranduegi* aurkezleek matrize kulturalak. Horien artean, adibidez, euskal nazioaren lurraldeaz ikuspegi argi bat: *"ya ez genuen nahiko muga Bidasoan eta ematen du sortu dela beste muga bat A8an"* [E6] Elkarrizketatuak euskal nazioarekin lotzen diren

zazpi lurralde historikoen arteko banaketari (sinboliko eta politikoei) egiten die erreferentzia eta agerian jartzen du banaketarik gabeko nazio baten aldeko ikuspegia duela. Edo bestela esanda, zazpi lurraldez osaturiko euskal nazioaren aldeko ideia defendatzen duela.

Up-ak egiterako orduan ere ikuspegi jakin bati erantzuten diote *Beranduegi*koek:

*"Bada umore bat egin nahi duguna ezkerreko perspektiba batetik ere eta nik uste gehienetan lortzen dugun zerbañ dela. Askotan telebistan ikusten dituzun umore horiek erreproduzitzeko ba ez. Ez da gure linea editoriala aldizkari edo webgunean lan serio egiten dugunean, ba umorea egiten dugunean ere ez."* [E6]

"Ezkerreko ikuspegi" horrek euskal nazioarekiko duten matrize kulturalan nabarmen eragiten du; euskaltzale, zazpi lurraldeko esparruaren aldekoa eta funtsean, abertzalea baita haien abiapuntua. Ikuspegi ezkertiarra mantentzen dute hala, baita botere-harremanei dagokionez ere:

*"Posizioak asko determinatzen du hori, boterean dagon alderdi baten inguruan txiste gehiago egin ditzazkezu, ba boterean ez dagoen baten aldean, ez? Ba seguruna garai batean PNV-ren edo PSOEn inguruan dexente gehiago edo PP-ren inguruan dexente aritu gara, baina nik uste Bildu Gipuzkoako Diputazioa hartzen duen unetik ere bere parte ere tokatu zaiola programan, eta azkenean ere da hori, ari zera azken batean erakunde bat kudeatzen eta gauza asko kritikagarriak izan daitezke ez?"* (sic.) [E6]

Ezker ikuspegitik abiatzeak, hein handi batean, ezker abertzaleak<sup>4</sup> euskal nazioaz duen ikuspegiarekin bat egitea dakarrela ematen du, baina ez dira zuzenean horrekin lotzen eta jarrera kritikoa erakusten dute ezker abertzaleak "boterea" eskuratzen duen momentutik<sup>5</sup>.

#### -Bi Bala

Ikuspegi ezkertiar horri eusten diote *Bi Balako* kideek ere, baina beste kasuetan gertatu ez den bezala, esplizituki adierazten dute ezkertiar izateak ez dagokiola ezker abertzalekoa izateari<sup>6</sup>.

*"Bai ta nik usteet, ezker abertzalea aipatuta gu hortik oso, oso, oso, gertu gare (...) bueno argi daukegu euskal eskuina gorrotau iten degula ta euskal egitazko ezkerrekin badauegu amodio eta gorroto bat. Denok daukeguna azkenean."* (sic.) [E22a]

*Bi Bala izan aurretik, 11 Bertuten*<sup>7</sup> parte hartzen zuten bertsolariak ziren [E22a] eta [E22b] elkarrizketatuak. Krisiari

—

4 Ezker abertzalaren baitan erakunde eta talde aniztasuna dago: alderdi politikoak, euskal preso kolektiboak... Oso modu zabalean hartuta, esan daiteke talde guztiek komunean dutena, batetik, ezker ikuspegia izatea dela (sozialista erradikalak eta sozial demokratikak), eta bestetik, helburu politiko konpartitu eta orokor gisa, Euskal Herriaren independentzia eskuratu nahian ere bat datozela oro har.

5 2011ko foru hauteskundeetan Bildu Gipuzkoako Foru Aldundian garaile atera izanari egiten diote erreferentzia.

6 Elkarrizketatuek agerian jartzen dute honen bidez, ezker ideologia izanik ere ez dutela erakunde politikoekiko menpekotasunik.

7 Batez ere bertsolari gaztez osaturiko taldea, bertsokak eta bertso musikatuak jendaurrean egiten zituztenak.



buruzko bertso sorta musikatua osatu zuten orduan eta 2013an ospatu zen Bertso Egunean krisiaren gaia lantzekotan zela eta, bertan parte hartzera deitu zituzten. Kutsu umoretsua zuen krisiaren inguruko bertso sorta bat osatu zuten egun horretarako, espero gabeko arrakasta lortuz ikusleen artean. Horren ondoren, *Bi Bala* izenez Euskal Herrian barrena saioak emanez segi dute.

*Bi Balakoen* up-ak euskaltzale, abertzale eta ezkertiarra den matrize kultural bati dagozkiola aditzera ematen dute argi haien diskurtsoan, eta beraz, neurri handi batean, ezker abertzaleak proposatzen duen ildo ideologikoari eusten diotela ere bai (euskal nazioarekiko ikuspegia ere horren arabera dutelarik). Baina esplizituki agertzen dute ezker abertzalearekiko jarrera kritikoa eta ez dute heien burua honekin erabat lotua ikusten. Kasu honetan ordea, *Beranduegikoek* ez bezala, *Bi Balakoen* ez dute zehazten deslotura ezker abertzaleak boterearekin izan dezakeen harremanarengatik denik, horren ordez, "ezkerrekoak direnek" (haiek barne hartuta) dituzten "inkoherentzia" eta jarrera "anbiguoetan" jartzen dute soa: "nik kuadrilen badauzket ean buru ezkeriartzak jotzen dutenak baino nik eskubitik gertukoago ikusten ditudenak egunerokotasunen, eta zeatik hoi ezin duk garbi esan?" (sic.) [E22a], edo "zein ez da sentitu inoiz guay preson manifa batera juteagatik? Danok!" (sic.) [E22b].

#### -Zaldieroa

*Bi Balakoen* darabiltena baino ikuspegi irekiagoa da *Zaldieroa* komikigilearena, bere matrize kulturalaren ildo ezkertiar, euskaltzale eta abertzalea dela agerian uzten badu ere ez baita kategorien aldekoa eta bere burua inon kokatzea zail ikusten du. Aurreko kasuetan ez bezala, beraz, marrazkilaria ez du zehazten ezker abertzalearen aldekoa ote den edo ez, baina horrek ez dio eragozten haren lana balore eta konbikzio politiko, kultural edota sozial zehaztatetik abiatzen duela agertzea. Hala, bistaratu egiten

ditu hark egindako marrazkien eduki eta formen oinarritzat darabiltzan diskurtsoetariko batzuk.

"Ni esate baterako Nafarroan gutxi irakurtzen naute, ulertuko duzunez. Gazteleraz egin izan banu hamaika urte hauetan ba errezago. (...) Militantziagatik egin dut beti euskaraz, beti militantzia izan da."

Up-en bidez euskal nazioarekiko duen ikuspegia defendatzen duela aditzera ematen du, haren diskurtsoan ere ageriko egiten duena, kasu batzuetan zer marrazten duen azalduz (eta ondorioz ze euskal nazio defendatzen edo irudikatzen duen agertuz) eta beste batzuetan euskal nazioaz egiten diren zenbait up kritikatu (bere euskal nazioaren ikuspegitik urruntzen direnak aipatuz):

"Umorean askotan da baskitate espainol bat erabiltzen dena, esate baterako euskara ez da agertzen eta agertzen denean da gauza alienijena bat bezala. Pentsatzea euskara euskaldunontzat gauza alienijen bat dala, izan behar zara oso arrotza, oso espainola. Edo gauza bera lparaldearekin, Zuberora geratzea munduaren beste aldean dagoen herrialde exotiko bezala, ez duela gurekin zer ikusirik."

*Zaldieroa* argi adierazten du euskal nazioarekiko duen ikuspegia abertzaletasun, ezkertiarasun eta euskaltzaletasunetik abiatzen dela horregatik inolako alderdi edo talderekin zertan lotua egon beharrik izan gabe, eta ikuspegi horiek direla up-ak egiteko erabiltzen dituen "balioak".

"Orain dela gutxi irakurri nuen komediantek esaten zuela komedia egiten dutenak, osea komediantek izaten direla jende bat baloreak asko zaintzen dituztenak, badutela munduko ikuspegi alternatibo bat. (...) Eta gero da tipo bat haserre dagoela munduarekin horregatik

hain zuzen ere, baloreak dituelako, gauza guztiei seriotasun bat ematen die, sumintzen da edozer gauza ikusten duela. Eta hori da nire kasua (...). Nik baditut balore argiak, horien arabera jotzen dudana."

Ikus daiteke euskal nazioarekiko ikuspegian eta hori helarazteko modu kritikoa antzekotasunak daudela *Zaldieroa* eta aurreko kasuen artean, nahiz eta oraingoan marrazkilaria diskurtsoan ez duen gatazkarik sortzen ezker abertzalearen posizioak, hori aintzakotzat hartzen duen edo ez azaldu ere ez baitu egiten.

#### -Izparringia

Ezkerreko ikuspegia eduki eta ezker abertzalekoa izatearen artean egon daitekeen dilemari argi erantzuten dio *Izparringiako* kazetarietako batek:

"Desberdina da zu ezkertiar eta abertzale izan edo ezker abertzaleko militante sutsua eta neurri bateraino a-kritiko izatean. Konnotazio desberdina dute hitz berberak. Orduan bai gea euskaldunak, ezkertiarak eta abertzaleak posturan, baina ez itxitasun horretatik. Ez gea ezker abertzaleko militanteak orokorrean." [E22a]

*Izparringia* 2013an sortu zen idatzizko albistegi umoretsua da, gaurkotasuneko gaiak jorratzen dituzten asmatutako albisteez osaturikoa. Ikuspegi, iritzi eta ideologia desberdineko jendeak idazten du bertan eta ez da alde aurretiko linea editorial finkaturik. Neurri batean nahi duenak nahi duena kontatu dezake, eta beraz, matrize kultural anitzeko osatua dagoela pentsa daiteke. Bere buruaren izenean hitz egiten du elkarrizketatuak beraz, "denen ikuspuntuak, iritziak ez dakizkit, ez dakit zer pentsatzen duten" baina jarraitzen du "nahi duena idatzi dezake bakoitzak, baina egia da neurri batean antzeko ikuspuntuak ditugula" [E22a].

Honi lotuta argitzen du: "Ez litzateke egia ere esatea zabalak geala, zentrokoak, ez nuke hori ere esaten. Ez dugu agian esplizituki posizionamendu bat baina posizionamendu baten arabera jotzen dugu aldi berean" [E22a]. Izan ere, zehazten du ondoren: "Dena euskaraz da, orduan badago kutsu bat nazionalista edo euskaltzalea, behintzat argi dago euskeraren kontrako pertsona batek ez lukeela hor idatziko" [E22a]. Eroso sentitzen da azkenik honako definizioan: "Esango dut, euskaldun, abertzale eta kritikoak garela" [E22a].

Kasu honetan ere, *Bi Balakoekin* gertatzen den lez, *Izparringiako* elkarrizketatuak euskaltzale eta abertzalea den matrize kultural batetik abiarazten ditu bere up-ak. Baina argi adierazten du, halaber, horrek ez duela ezker abertzalearekiko zuzeneko loturarik suposatzen, hain zuzen ere ezker abertzalearekiko ere kritiko izateko askatasunez ikusten duelako bere burua.

#### -Medeak

*Medeak*-en kasua da honakoa ere. *Medeak*, 2000. urtean mugimendu feministan militatzen zutenetarikoa batzuk sortutako taldea da. Belaunaldi berri bati zegozkiola sentitzen zuten neska gazteek osaturikoa, bestelako gatazka, ardura eta ezinegonak zeuzkatela ikusirik, prozesu propio bat garatzeko beharri erantzunez eratu. Taldeak lehen urteetan oihartzun handia lortu zuen, besteak beste, haien aldarrikapenak espazio publikoan agertarazteko erabiltzen zituzten bitartekoengatik. Izan ere, politika egiteko forma tradizionalaz gain (manifestazioak eta kontzentrazioak), forma ludikoago eta sortzaileagoak jorratzen zituzten bideak erabiltzen hasi baitziren (antzerkiak eta performanceak, kasu).

*Medeakeko* [E22a] elkarrizketatuak honela azaltzen du nazioarekiko haien ikuspuntua zein den: "Gu ere gaude 'Jo ta ke, irabazi arte!', eta horren alde gaude" [E20a2]. Honen bidez aditzera ematen du Euskal Herriaren burujabetza,

nortasun eta askatasunaren aldeko jarrera duela, izan ere *"Jo ta ke, irabazi arte"* dioenean, ezker abertzalearen baitan erabilia den aldarrikapen bat berreskuratzen du bere abiapuntu ideologikoa azaltzeko, eta beraz, pentsa daiteke ezker abertzalearen maximekin bat egiten duela. Baina ñabardura garrantzitsu bat gehitzen du ondoren:

*"Nazio ikuspegiaren inguruan oso kritikak gera. Guk, Medeak bezela, ulertzen degu badaudela feminista batzuk oso onak dianak eta oso ondo egiten dutenak nazio eraikuntza feminista hori. Ta oso ondo. Baina gure prioridadea ez da Euskal Herri feminista bat eraikitzea. Ta gustatzen ez zaizkigun gauzak kritikatu egiten ditugu eta aldatzeko aktuatzen dugu."*[E20a2]

Hots, ezker abertzaleak defendatzen duen ikuspegiekin bat egin badezakete ere, haien helburuak eta lehentasunak bestelakoak dira up-ak erabiltzen dituztenean, eta beraz, ez dira zuzenean ezker abertzalearekin lotzen. Hartara, euskal nazioari dagokionez matrize kultural abertzale eta ezkertiar batetik lanean badabilta ere, jarrera kritikoa (feminista) bat hobesten dute horren gainetik, eta ondorioz, euskal nazioaren baitako zenbait errealitate sozialekiko ("euskal erreferenteak", "euskal tradizioak", "euskal sinesmenak", euskal kolektiboaren baitako harreman matxista, homofobiko, ea.) jarrera erantzunzalea agertzen dute.

En plus de la comparaison avec le climat de l'Espagne, certains ph ont tendance à comparer les climats locaux qui existent au sein de la nation basque. Ce qui frappe ici est la manière dont on qualifie le Pays Basque nord : car s'il fait mauvais temps au Pays Basque, la pire réputation en la matière revient au Labourd, à la Basse Navarre et à la Soule.

46 [« -J'ai vu des choses que vous ne croiriez pas. J'ai vu le soleil briller plus de deux heures consécutives, du beau temps au-delà de la plaine alavaise, j'ai vu des gens en sandales à la « puerta del Sol » en mars... Et regardez à présent [il est sous la pluie] je me trempe comme un couillon parce qu'à la météo ils ont dit qu'il n'allait pas pleuvoir »]

47 La « Puerta del Sol » est l'une des places les plus connues de Madrid.

Justement, dans la pièce de théâtre *Bidasoa Biga So! Irri Iparrak eta Hego erak* on en vient aussi à ce thème. Pour cela, les auteurs partent d'un véritable micro-trottoir réalisé à Donostia/Saint-Sébastien. Dans ce questionnaire, des jeunes sont interrogés à propos de ce qu'ils savent sur le Pays Basque nord. Les réponses recueillies mettent non seulement en évidence qu'ils ne connaissent pas grand chose du Pays Basque nord, mais elles montrent de nombreuses références au mauvais temps qui « existe » au Pays Basque nord. Ces données recueillies les exposent avec ironie dans le ph :

*"-Nolakoa da Iparraldeko Klima Donostiako gazteentzat? Lau hitz aipatu dituzte: negua, hotza, zuria eta izotza. Hori horrela al da?"*<sup>48</sup> [B25]

L'un des acteurs répond ainsi, ironiquement, aux réponses données par les jeunes :

*"-Baaai, bai, bai. Ni Donostiara noalarik, abiatzen naiz Baigorritik, eta ematen dut hotzaren kontrako olio, berotzeko bost jauntzi. Lau reno erabiltzen ditut bere lerakin, ta abiatzen naiz. Ta hartzen dut artza xuriak ehizatzeke gezia. Egia da Senpere eta Ezpeleta arteko bidea artza xuriz betea dagola. Gero Senpereko lakuan hizotza mozten dut zerra batekin, bidean arrainak harrapatzeke nire gosariarentzat. Haize hotza eta tenperaturak 30 grado zeropetik. Oso zaila da.*

*-Beraz Irungo mugan, Santiagoko zubia pasatzen duzuenan sekulako aldaketa nabari duzue ez?*

*-Buuu! Bai, bai, bai. Ezin da pentsatu. Jantzi guztiak erantzi eta eguzkitan*

48 [« À quoi ressemble le climat du Pays Basque nord pour les jeunes de Donostia/Saint-Sébastien ? Ils ont utilisé quatre mots : hiver, froid, blanc et glace. C'est vraiment comme ça « ? ]

*jartzen ditut idortzeko. Eta arropaz aldatzen naiz, galtza motxak, lorezko atorra, betaurreko beltzak. Iduzkien kolpeen kontrako olio ematen dut. (...) Gero gamelu bat alokatzen dut Egia eta Donostia arteko basamortua igaroteko. Harrigarria da nola muga batek klima aldatzen duen!"*<sup>49</sup> [B25]

Bien que ce ne soit pas le ph, nous considérons comme significatif de tenir compte de ce qu'ont dit les jeunes à propos du Pays Basque nord, car cela permet d'observer le lien créé entre l'éloignement (symbolique) et la météo. À savoir que, quand les jeunes interrogés considèrent le climat du Pays Basque nord comme rude, ils le comparent inconsciemment avec celui du Pays Basque sud. Même si le climat local est mauvais, ils ne doutent pas un instant que celui du Pays Basque nord est encore pire. Autrement dit, ils expliquent clairement que le climat change radicalement de l'autre côté de la Bidassoa.

Il est possible, en revanche, que dans cette perception du climat du Pays Basque nord, la distance (symbolique) ou l'ignorance qui est la leur vis-à-vis du Pays Basque nord influe davantage que le temps lui-même, et d'ailleurs, que cette méconnaissance de ce qui existe de « l'autre côté » de la frontière ait également un impact sur leur opinion à propos du climat. Ce qui est obscur et confus, ce n'est donc pas le temps, mais le Pays Basque nord lui-même (la représentation qu'ils en ont).

On peut voir que le film *8 apellidos vascos* se livre au même exercice. En effet, dans le film le climat de la nation basque est représenté comme rude et violent. Toutefois, le jeu de la normalité/l'agressivité montrée par le biais du climat n'attire pas seulement l'attention sur le temps, elle souligne quelque chose qui est différent de ce qui est « nôtre », en l'occurrence une différence

49 [« - Ouiii, oui, oui. Moi, quand je vais à Donostia/Saint-Sébastien, je pars de Baigorri et je mets de l'huile contre le froid, et cinq vêtements pour me réchauffer. J'utilise quatre rênes avec leur traîneau, et je démarre. Et je prends une flèche pour chasser les ours blancs. C'est vrai, la route entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette est pleine d'ours blancs. Ensuite, au lac de Saint-Pée, je brise la glace à l'aide d'une scie, pour pouvoir attraper des poissons en chemin pour mon petit-déjeuner. Le vent est froid et les températures sont au-dessous de 30°. C'est très dur./- Alors à la frontière d'Irun, quand vous passez le pont Saint Jacques, vous notez un changement spectaculaire ?/- Oh la la ! Oui, oui, oui. Impensable. J'enlève tous mes vêtements et je les mets à sécher au soleil. Je me change et j'enfile un short, une chemise à fleurs, des lunettes de soleil. Je mets de l'huile contre les coups de soleil. (...) Ensuite je loue un chameau pour traverser le désert entre Egia et Donostia/Saint-Sébastien. C'est impressionnant comment une frontière change le climat ! » ]

géographique (et symbolique) marquée par une « frontière » concrète. C'est-à-dire que ce qui est « différent » est représenté par le biais du climat rude et violent, en l'occurrence, c'est l'idée d'un territoire sombre, occulte et dangereux, totalement différent de la stabilité et de la douceur (climatique) de l'Espagne, qui est renforcée ici. On peut donc penser que les distinctions climatiques entre les territoires ne concernent pas seulement le temps, mais qu'elles sont aussi l'expression de la proximité/l'éloignement, de la connaissance/méconnaissance, du caractère habituel/singulier d'un territoire. Cela est vrai pour ce que l'on perçoit du Pays Basque (en l'occurrence, de la CAB) depuis l'Espagne, autant que pour ce qui existe sur le Pays Basque nord à partir du Pays Basque sud, le mauvais temps devenant la métaphore de l'ignorance et donc, d'un danger potentiel.

Ainsi, les auteurs de la pièce de théâtre *Bidasoa Biga So!* créent la *rupture* avec ce point de vue. En traitant par l'humour une pensée répandue dans la société, et en montrant comme une absurdité le lien direct entre la frontière géopolitique et la climatologie.

En résumant ce qui a été dit jusqu'à présent, on peut voir, en somme, que la question du territoire est un sujet très flexible. L'identité du territoire de la nation basque crée des ruptures à propos de l'espace géopolitique, des caractéristiques et de toutes sortes de désignations, et pour représenter, ou pas, ces caractéristiques en tant que nation, il n'existe pas de critère objectif, car les idéologies politiques, les sentiments, l'attachement ou encore la proximité-

l'éloignement (qui sont, dans une large mesure, préétablies par les différentes matrices culturelles) marquent la manière de percevoir le territoire, dans laquelle, quoi qu'il en soit, on peut détecter différentes attitudes.

Même si l'on a vu qu'*indirectement* (implicitement) les discours généraux sont renforcés, concernant les *ruptures directes*, il convient de mentionner notamment ceux qui se font sur toute autre approche territoriale n'utilisant pas les noms Guipuzcoa, Biscaye et Alava (CAB) et *Euskadi*. De même, ceux qui proposent comme *rupture* le fait que la nation basque n'appartient pas à l'Espagne interviennent avec la même intensité. Ces derniers, en outre, bénéficient d'une protection évidente par le biais des ph qui interviennent à propos du traitement *indirect* qui encourage une idée similaire. Quoi qu'il en soit, il faut tenir compte du fait qu'il existe des ph qui évoluent dans des types de *ruptures* opposés, dans lesquels l'Espagne et la réalité de la nation basque sont différentes et distinctes.

Concernant le traitement des provinces, le peu d'attention dont bénéficient la Basse Navarre, le Labourd et la Soule dans les *ruptures* (*directement*, mais aussi *indirectement*) est notable, ainsi que les discours polarisés qui se renforcent sur ces provinces quand elles sont mentionnées dans les *ruptures*: car on peut trouver ceux qui disent qu'elles n'appartiennent pas à la nation basque, et ceux qui dénoncent le mépris dont fait l'objet le Pays Basque nord. Ainsi, les provinces de la CAB et leurs capitales bénéficient de l'attention que n'ont pas la Basse Navarre, le Labourd et la Soule, tandis que la plupart des *ruptures* des ph examinés intensifient de manière manifeste la centralité de Bilbao.

Zazpi lurralde historikoak  
erakusten dituen EITB-ko  
eguraldi mapa 2013.



## 5.2 HAUSTURA

### 5.2.1. Lurraldea.....

Euskal nazioaren lurraldea up-en *hausturen* motibo da sarritan. Ondorengo atalean lurraldea ardatz hartzen dituzten up-en *haustura* horien nolakotasunak azaltzen dira. Horretarako hiru azpi ataletan banatu da lurraldearen atala hurrenez-hurren aztertuz izendapena, banaketa geopolitiko eta lurraldearen ezaugarri orokorrak.

#### 5.2.1.a. Izendapena

Euskal nazioari erreferentzia egiteko izendapenak aldatu egiten dira up-en arabera, *Euskadi*, *Euskal Herria*, *Pais Vasco* edo *Basque Country* gisa aipamen egin dakiokela ikusi baita. Baina izendapen desberdinak ez dira errealitate bera deskribatzeko sinonimiazko adierak, aitzitik, izenarekin batera aldatu egiten dira euskal nazioari egozten zaizkion lurralde ezaugarriak, izen bata edo bestea erabiltzea euskal nazioaren errealitate jakin bat edo beste bistartzeko baliabide gisa funtziona dezakeelarik. Izen bakoitzak, horrenbestez, tamaina, egituraketa, ezaugarri edota izaera desberdin bat duen lurralde nazionala irudikatzen gaitasuna du.

Jarraian, izenen erabilerak eta horiek aditzera ematen dituzten lurralde errealitateak zeintzuk diren zehazten da, izendapenekin loturiko *hausturak* non eta nola azaltzen diren argituz.

-*Euskadi*

*Euskadi* izen edo adierazlea da up-en hausturetan presentean dagoenetako bat eta euskal telebista publikoa (EITB) da haren sustatzaile nagusia. Aztertu diren telebistako up-etan [UPT] *Euskadi* izenaren erabilera nahiko ohikoa bada ere, aipagarria da *Euskadi* adierazlea inoiz gutxitan dela *hausturen* bidez kolpatua. Hau da, ez da izenaren (E-u-s-k-a-d-i) inguruko up-rik burutzen, horren ordez, hitzaren esanahiaren inguruan (adierazia) egiten dira up guztiak, hitzak erreferentzia egiten dion errealitateaz (esparru geopolitikoaz) dihardutelarik *hausturak*. Ondoko adibidean ikus daiteke esan berritako hori. "*Ya queda menos*" (ETB2) umore saioko bi aurkezleen arteko elkarrizketaren parte batean *Euskadi* adierazleak lurraldearen gaiari (adieraziari) heltzeko balio duela ageriko egiten da:

— *—Eso sólo pasa en Euskadi.*

-*¿Pero a qué Euskadi te refieres? ¿Al grande o al pequeño? ¿Por hablar de todo eh!*<sup>2</sup>

[UPT1]

1 Azken esaldiaren amaieran aurrez grabaturiko barreak erantsi dituzte programako editoreek, ikusleagoak erraztasunez identifika dezan elkarrizketa barre egin arazteko intentzioz sortua izan dela.

2 [« -Hori Euskadin baizik ez da gertatzen /-Baina ze Euskaditz ari zara? Handiaz ala txikiaz? Guztiak hitz egitearren diot eh ! »]

Adibidean esplizituki agertzen da lurraldearen auzia. Bigarren mintzalariaren galderak, *Euskadi* izenarekin ustez ezaguna den errealitatea (lurralde adierazia) zalantzan uzten du, eta *Euskadi* hitzak barne hartzen duen lurraldearen irudikapenarekiko *haustura* sortzen da horren bidez. Bigarren mintzalariak "zein *Euskadiz*" ari den galde egiten dionean, *Euskaldi* (ulertzeko modu) bat baino gehiago daudela agerian jartzen du, "handia" eta "txikiaren" artean bereizketa eginez. Bigarren esaldiak ez du zehazten aukeretakoa bakoitzak ze lurralde konbinaketari egiten dion erreferentzia, aintzat ematen baitu, neurri handi batean, ikusleagoak badakiela *Euskadi* "handia" eta "txikiaren" nolakotasunak zeintzuk diren. Edonola ere, "txiki" eta "handi" zerri dagokion ulertzeko egon litezkeen zalantza guztiak uxatzen dira jarraian egindako up batean gaiari modu argiagotan heltzen zaionean. Kasu honetan, euskal nazioari dagozkion edo ez dagozkion lurralde desberdinaren izenak esplizitatzen dituzte:

— *—¿Has dicho que Navarra y Euskadi son lo mismo?*

-*Yo, bueno, eh... por el mapa de Euskadi... que incluye Navarra ¿no?*<sup>3</sup> [UPT1]

Azken adibidean "Euskadi" eta "Nafarroa" errealitate desberdinak direla aintzat hartzen du lehengo solaskideak. Egia da ez dela zehazten *Euskadiri* egozten zaion lurraldea

3 [“-Nafarroa eta Euskadi gauza bera direla esan duzu? -Nik, beno, eh... Euskadiko maparengatik diot...Nafarroa barne hartzen baitu, ezta?"]

zein den, baina Nafarroa berezia dagoela planteatzen agerian jartzen du *Euskadiren* bidez Euskal Autonomia Erkidegoa identifikatzen duela euskal nazioaren lurralde bezala (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). Hala, pentsa daiteke *Euskadi* "txikiak" ari denean ere lurralde horri egiten diola erreferentzia. Bigarren kasu honetan, aintzat emaniko matrize kultural horren zalantza jartzeak sortzen du *haustura*, hain zuzen ere, bigarren solaskideak Nafarroa *Euskadiren* parte izan daitekeela agertzen duenean. Nabarmena da bigarren solaskideak darabilen doinua ere, zalantzaz beteriko iradokizun lotsatiaz helarazten baitu bere proposamena ("*bueno, eh...*"). *Hhaustura* nabarmenago egiten da, beraz, hanka sartze bat egiteko beldurrez balego lez hitz egiten duenean, *Euskadi* eta Nafarroa bat direla pentsatzea justifikatu beharreko ikuspegia balitz bezala aurkezten duenean. Aurreko adibidearekin lotuz, hala, "txikia" EAE bada "handia" EAE eta Nafarroa dela uler daiteke, horiek baitira mintzalariak aipatzen dituzten lurraldeak.

Baina lau lurralde kontuan hartzen dituen *Euskadi* "txiki" edo "handi" potentzial baten eztabaidak euskal nazioaren irudikaririk kanpo uzten ditu zuzenean frantziar estatupean kokatutako euskal lurraldeak. Bigarren adibidean Nafarroa *Euskadiren* parte dela agertzeko mintzalarietako batek esplizituki aipatzen du "*mapa de Euskadi*" ["Euskadiko mapa"] delakoa. Arrunki<sup>4</sup>, "Euskadiko mapak" EAE-ko

4 Eguraldi mapa edo eskola liburuetao mapetan antzeman daiteke hori, adibidez.

lurraldea ez besterik erakustekotan, zazpi lurraldeak kontuan hartzen dituen irudia izan ohi du, eta beraz, Nafarroa ez ezik "Euskadiko mapak" Ipar Euskal Herria, hots, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa ere kontuan hartu ohi ditu.

Adibideko mintzalarien kasuan, ordea, Ipar Euskal Herria ez da "Euskadiko maparen" parte bezala kontuan hartzen. Bi arrazoi egon daitezke horretarako. Simpleena litzateke pentsatzea, batetik, up-ko eztabaida gaia Nafarroa delako izatea. Hau da, Nafarroaz hitz egiten ari direnez, Ipar Euskal Herria zertan aipatu ez dutelako gertatzea. Baina behar bada, Ipar Euskal Herriaren omisioa arrazoi sakonagoetan oinarritzen da, uler baitaiteke ere, bestetik, Ipar Euskal Herria ez bada agertzen euskal nazioaz dagoen irudikarian kontuan hartzen ez delako izatea. Izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, Ipar Euskal Herriak ez du atentzio handirik eskuratzen EITB-ko up-etan. Aztertu diren kasuetan, oro har, Euskal Herriko iparraldea "Euskadiko maparen" matrize kulturaletik erauzia dagoen lurralde zatia da, haren inguruko aipua minimoak baitira eta izaten dituen haren existentzia ukatze aldera jotzen baitute gehienak. Adibide honetan ere joera hori atzeman daiteke, diskurtsiboki aipatzen duen "mapa de Euskadi" ez baitu *Euskadiko* maparen (goiko irudiaren) esanahi berbera hartzen. Hain zuzen ere, eztabaida EAE eta Nafarroaren inguruan soilik egiteak dakarrelako "Euskadiko mapa" adierazleak Ipar Euskal Herria bere adieraziaren baitan aintzat ez hartzea, edo gutxienez, garrantzia askoz txikiagoa izatea.

Baina adibide horiek lurraldearen inguruan egon daitezken ikuspegi desberdinetariko batzuk auzitan jartzen badituzte ere, euskal nazioaren izendapena ez dute afera gatatzatsu bezala aurkezten: euskal lurraldearen osaketa edozein izanik ere, nazioak hartzen duen izena *Euskadi* baita kasu guztietan. Lehen adibidean, esaterako, *Euskadi*

"handi" eta "txikiaren" artean ez da izenari dagokionez inolako desberdintasunik egin, bi kasuek *Euskadi* erabiltzen baitute lurralde desberdinak izendatzeko. Bertsua gertatzen da bigarrenean ere. Adibide horretan hizketan agertzen diren bi mintzalariek esangura desberdinez erabiltzen dute *Euskadi*. Lehenak EAE identifikatzen du *Euskadirekin* eta bigarrenak, aldiz, EAE-z gain Nafarroa ere gehitzen du lurralde zerrendan. Nafarroaren presentziak ez du, ordea, *Euskadi* adierazlearen nagusitasuna aldarazten; *Euskadi*, "Nafarroa barne hartzen" duela baito hizlariak esplizituki. Hau da, Nafarroa kontuan hartzeak ez du oztokatzen nazioa *Euskadi* adierazleaz izendatzen jarraitzea, hain zuzen ere Nafarroa *Euskadiren* baitan sartu ("*incluye*") eta horren "parte" bihurtzen delako zuzenean.

*Euskadi* izena EITB-ko up-en *hausturetan* maiz aitatzen den elementua izateaz gainera, presentzia handia du *haustura* gisa erabilia ez denean ere. Sarri, *Euskadiri* dagokion errealitate soziopolitiko eta kultural baten markoaren baitan jazotzen dira lurraldeaz bestelakoak diren gaiak jorratzen dituzten up-ak. "*En Euskadi somos...*"<sup>5</sup> [UPT9] edo "*aquí en Euskadi...*"<sup>6</sup> [UPT11] bezalako adierazpenen bitartez, up-ek euskal nazioaren izena Euskadi dela berresten dute zeharka.

Aipatutakoa kontuan izanik, Euskal Autonomi Erkidegoko telebista publikoak euskarazko eta gaztelaniarazko programazioan igortzen dituen umore saioetan *Euskadi* izendapena nagusitzen dela argi esan daiteke. Kasu horietan, gainera, bestelako azalpenik eman ezean, *Euskadi* EAE-ri egiten dio erreferentzia, Espainiako estatuak bere lurraldean egiten duen banaketa politiko eta administratiboarekin bat datorren izendapen eta lurralde banaketa berbera erabiliaz. Zenbait kasutan, —

5 ["Euskadin ... gara"]

6 ["Hemen Euskadin"]

ordea, *Euskadi* up-en *haustura* gisa proposatua denean bereziki, bestelako lurralde eta eskualdeak ere kontuan har ditzake (Nafarroa gehienetan), baina kasu horietan ere nazioari egotzitako izenak berdina izaten jarraitzen du (*Euskadi*) eta beste behin, ageriko jartzen dena ez da izaten izendapenaren inguruko auzia, lurraldeari dagokiona baizik. Horrek begi bistako egiten du izendapen bezala *Euskadi* hartzen duen nagusitasuna eta zentraltasuna. Hala, EITB-k igortzen dituen up-etan *Euskadi* marko nazionalaren erreferentziako adierazle bezala funtzionatzen du, eta berekin, baita EAE-ren adieraziak ere. Horrenbestez, hiru lurraldeko *Euskadi* nazioaren ideia kolokan jar dezakeen beste errealitatek agertzekotan ere, *Euskadi* izendapenak fagozitatuta egiten du proposamen berria, eta ondorioz, *Euskadiez* ezik, EAE-ren presentzia ere iraunkorra bilakatzen da euskal nazioaren irudikapenean. Edo bestela esanda, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroaren euskal nazioaren kontingenteak diren bitartean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia lurralde egonkor, zilegi, ezinbesteko eta "naturalak" dira.

-*Euskal Herria*

*Euskal Herria* izenaren erabilera ugaria da aztertu diren up-etan (telebistaz igorri ez direnetan). Euskadirekin gertatu bezala, *Euskal Herria* aipatu denean ere adierazlea ez da *hausturarako* erabili, testuinguru moduan baizik. Hala, up-ek gai jakin baten inguruan dihardutenean, gaia edozein izanik ere, *Euskal Herria* deritzon inguru nazionalen oin hartzen dute usu.

Adibidetzat har daitezke, esaterako, *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimotoxen* abestien estrofa: "*Eman ta jaso, jaso ta eman elkartasuna da hori, eman ta jaso jaso ta eman ba al dago ederragorik. Euskal Herria, euskara ta herria. Euskal Irria, euskara ta irria*" [UPY6]. Berdin gertatzen

da *Bi Balakoen* kantuetan ere, zeinak *Euskal Herria* izenaz baliatzen diren up-ak euskal nazioaren baitan kokatzen direla aditzera emateko: "*Euskal Herria batzen du soilik, elkar ezin ikusiak*" [B20]. Edota *Bidasoa*, *Biga so!* antzerkian, non, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko desberdintasunetan oin hartzen duen up-ak abiarazteko "*Euskal Herriko iparralde eta hegoaldea*" [B25] aipatzen duten. *Euskal Herri* adierazlearen erabilera zabal eta anitz horrek aditzera ematen du euskal nazioa *Euskal Herri* gisa izendatzeko dagoen joera *Euskadi* lez izendatzekoa baina hedatuagoa dagoela up-etan.

Bestelako up-etan topatu den maiztasunik aurkitu ez bada ere, egia da euskal telebista publikoan *Euskal Herria* adiera inoiz erabiltzen dela. Bi kasutan gertatzen da hori. Batetik, ETB1-ek egiten duen *Euskal Herria* adierazlearen erabilera dago, zeinak gizarteko bestelako up-en joerari jarraituaz, *Euskal Herria* adierazlea *hausturetarako* erabili ordez testuinguru gisa baliatzen den. Marko guztietan ez da presente egongo, ordea, eta haren aipamena oso testuinguru jakinetan baino ez da agertuko: hain zuzen ere, herri-kirrol edota herrietako jaiekin zer ikusia duten up-en kasuetan. "*Euskal Herriko jaietan*" [UPT32] edo "*Euskal Herriko txosnak*" [UPT35] adierazteko, adibidez. Kasu horietan, *Euskal Herria* biziki lotua dago euskalduntzat jotzen diren ohitura, tradizio edo jarduerekin, euskal kulturari propiotzat egozten zaizkion ezaugarriak azpimarratu nahi direnean agertzen baita. Horrenbestez, *Euskal Herriaren* erabilera "euskal kulturaren" aspektu folklorikoak azpimarratu nahi direnean egiten da, gainontzeko kasu guztietarako *Euskadi* delarik euskal nazioaren izen arrunta.

Bestetik, ETB2-k egiten duen *Euskal Herriaren* zuzeneko erabilera aipatu behar da, zeinak adierazlea testuinguru moduan erabili ordez, up-aren baitako *haustura* gisa baliatzen duen. Euskal telebista publikoaren bigarren kateak, ETB1-ek bezala, testuinguru folklorizatua

azaleratzeko erabiltzen du *Euskal Herria* izendapena, baina kasu honetan, bere erabilera egoera zehatzago batean ardazten da. Hain zuzen ere, up-ko pertsonaia ezker abertzaleko kideztat irudikatzea bilatzen denean. Halako kasuetan ohikoa da pertsonaietarikoa batek modu deigarrian bere iritzi politikoak zeintzuk diren<sup>7</sup> esplizitatzea, diskurtso horren baitan erabiliaz euskal nazioari erreferentzia egiteko *Euskal Herria* izena ere.

Ondoko kasuan antzeman daiteke joera hori. ETB2-ko esketx honetan, notario bat hil berria den pertsona baten testamentua irakurtzeaz dago. Bertara hurreratu dira hildakoaren Valladolideko eta Hernaniko familiarrak:

"-[Notarioa] *Vamos a proceder a la lectura del testamento del Juan Mari Gartzia.*

-[Valla.] *¿Cómo que Gartzia? ¡Será García! ¡Si nació en Valladolid!*

-[Hern.] *Sí, pero se lo cambio por Gartzia que es un apellido de Navarra.*

-[Valla.] *O sea España.*

-[Hern.] *¡Euskal Herria!*"<sup>8</sup>

[UPT20]

Lurraldearen gaia ez ezik, bestelako elementuak ere aintzat izan behar dira *haustura* zerk sortu duen eta

7 Halakoetan, up-en pertsonaia euskal preso politikoen hurbilpenaren alde, AHTaren kontra, Francoren aurka, edo euskal nazioaren independentziaren alde daudela azaltzen dute haien diskurtsoan, eta berdin, hurbiltasuna agertzen dute "euskal kulturarekiko" eta tradizioekiko (euskal dantzak, herri kirolak, bertsolaritza ...)

8 ["-[Notarioa] Juan Mari Gartziaeren testamentua irakurtzeaz ekingo diogu /-[Valla.] Nola Gartzia? García izango da! Valladoliden jaiotzen eta! /-[Hern.] Bai, baina Gartziaengatik aldatu zuen, bizen nafarra baita /-[Valla.] Espainia alegia /-[Hern.] Euskal Herria!"

non sortu den ulertzeko. Lehenik eta behin, esketxaren testuingurua hartu behar da kontuan. Hasieran, esketxak giro serio eta isila iradokitzen du baina familiako arteko eztabaidak bat batean aldarazten du egoera lasai hori. Izan ere, ustez izan beharreko errespetuzko jarreraren ordez, oihu eta kolpeka hasten dira familiakoak, eta horrek *haustura* eragiten du. Esketxean irudikatzen den testuinguruak badu aipatutako horri gehitzen zaion beste tentsio puntu bat ere, bertan agertzen diren pertsonaia ideologia politiko desberdinekoak baitira (espainiar nazionalistak eta euskaldun abertzaleak, hurrenez hurren). Hala, elkarren aurrean daudenean deseroso daudela eta elkar ez dutela atsegin adierazten dute gorputz keinuen bitartez<sup>9</sup>.

Giro horretan pizten da *Euskal Herriaren* inguruko *haustura*, hain zuzen ere, notarioak hildakoaren abizena irakurri eta gaztelaniaz esan beharrean ("García") euskarazko adiera erabiltzen duenean ("Gartzia"). Euskalduna edo espainiarra beharko lukeen argitzeko nahiak eztabaidaren ildo lurraldearen gaira bideratzen du segituan ordea, eta "Navarra" "España" dela edota "Euskal Herria" dela defendatzen amaitzen dute azkenekoak.

*Euskadi* adierarekin ikusi bezala *Euskal Herriaren* aipua ere lurraldearen auzia dakar berekin. Kasu honetan, aldiz, eztabaidan dagoena ez da hainbeste euskal nazioaren lurraldearen nolokotasuna, *Euskal Herriaren* alde agertzen den pertsonaia argi adierazten baitu Nafarroa euskal nazioaren partetzat duela. Eztabaidan dagoena, beraz, espainiar estatuarekin duen edo ez duen lotura da. Nafarroaren auziak agerian jartzen du euskal nazioa (oraingoan *Euskal Herri* bezala izendatutakoa) eta Espainia errealitate desberdin eta bateragaitzak direla Hernaniko

9 Esketx formatu hau maiz erabiltzen dute ETB2-ko saioetan. Euskal nazioari dagozkion gaiak jorratzen dituzte aurrez aurre familia euskal abertzale eta espainiar nazionalistak jarriaz.

pertsonaiarentzat. Hala, *Euskadi*-rekin gertatzen ez den bezala, *Euskal Herria* izenak halabeharrez hartzen du Nafarroa bere baitan, eta gainera, Espainia ez bestelako errealitate bati dagokiola argi uzten da.

EITB-n egiten den *Euskal Herria* izenaren erabilerak, beraz, ikuspegi *hausle* bati erantzuten dio. Izan ere, batetik, testuinguru folklorikoetan izendatzen denean kutsu landatar edota herrikoia azalera ekartzeko erabiltzen da, "bertakotasuna" aditzera emateko modu lez. Baina horretaz gain, bestetik, *Euskal Herriaren* bidez agertu nahi den "bertakotasun" horrek posizio (ideologiko) konkretu bat eskuratzen du, euskal nazioa (kultura, hizkuntza, jaiak, harremanak ...) ezker abertzalekoa den pertsonaia baten ikuspuntutik ikusia denean soilik erabiltzen baita. Azken kasu horietan, ezker abertzalekoa den pertsonaia eztabaida edo borrokan amaitu ohi du bera bezala pentsatzen ez dutenekin, eta *Euskal Herriak* euskal nazioarekiko ikuspegi oldarkor edo gatazkatsuenaren baitan kokatua bukatzen du sarritan.

EITB-ren kasuan, beraz, *Euskal Herria* adiera ez da *Euskadiren* sinonimoa. Batetik, adierazle bata eta besteak aditzera eman nahi duten lurralde esparrua desberdina delako kasuan-kasu. Baina bereziki, erabilia denean adiera horrek ez duelako *Euskadiri* ematen zaion normaltasun eta transbertsaltasunik eskaintzen. Hau da, up-en gehiengoan ez bezala (*Bi Bala*, *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimotox* edo *Biga So!*), non *Euskal Herriaren* erabilera testuinguru "normaldu" moduan azaldu ohi den, EITB-n egoera jakin batzuetara zentratua dago haren presentzia, folklorikoak, abertzaleak eta gatazkatsuak diren testuinguru edo gertaerekin lotzen direlarik, batez ere.

-*Pays Basque, Basque Country* eta *País Vasco*

*Pays Basque, Basque Country* eta *País Vasco* adierak oso gutxitan topatu dira aztertuak izan diren up-etan, baina nahiz eta maiztasun handirik ez eduki edota behin ere ez agertu, horien erabilera/ez-erabilera kualitatiboki esanguratsua dela ikusi da. Erabilera horien berri izateak, besteak beste, *Euskadi* eta *Euskal Herria* adierazleen presentzia hobeto interpretatzen lagundu baitu.

Hego Euskal Herrian egiten diren up-etan, esaterako, ez da *Pays Basque* aitatzen duen adibiderik eskuratu. Erabileraren urritasun horrek *Pays Basque* Ipar Euskal Herriko errealitate soziopolitikoari dagokion izena dela ikustea ekartzen du, hein handi batean. Hau da, estatu biren (Espainiaren eta Frantziaren) arteko mugak (eta ondorioz, bakoitzaren errealitate soziopolitiko, kultural eta ekonomiko desberdinek) sorrarazitako euskal nazioaren inguruko irakurketa baldintzatua dela, eta beraz, ez dela euskal nazioko kide guztien artean partekatua den adierazle gisa ulertzen, ez eta, ondorioz, erabiltzen ere<sup>10</sup>. Esan nahi baita, Hego Euskal Herrian *Pays Basque* erabat arrotza den erreferentzia dela ikusirik, uler daiteke euskal nazioaren izendapenean eta horien erabileran estatu espainiar eta frantsesaren eragina handia dela. Izan ere, *Pays Basque*-k euskal nazioko kide guztiak barnebiltzekotan ere<sup>11</sup>, —

10 Litekeena da gauza bera gertatzea *Euskadi*, *País Vasco* eta *Euskal Herria* izenekin ere. Hots, egon daitekeela inor bere burua euskal kolektiboko kide lez ikusita ere, izendapen batzuekin eta ez besteekin bat egitea (adibidez, Ipar Euskal Herriko izanik *País Vasco* izenari erabilera gutxiago ematea ohikoa izan liteke). Ikerketan Hego Euskal Herriko kasuak Ipar Euskal Herrikoak baina gehiago aztertuagatik, ordea, izen erabilera eta izenekiko identifikazio urritasun argiena *Pays Basque* adieraren kasuan jazo da.

11 Hots, zazpi lurraldeetan bizi diren euskal kolektiboko kideei erreferentzia egiteko balio badezake ere.



izendapen horren erabilerarik ez egiteak dakar euskal nazioa kide guztiek (eta hegoaldekoek bereziki) *Pays Basque*-k aditzera ematen duen lurralde errealtatearen baitan haien burua kokatua ez ikustea. Hala, *Pays Basque*-k bestelako adierak (*País Vasco*, *Euskadi* edo *Euskal Herriak*) azaltzen duten esparru geopolitiko berberari erreferentzia egin badiezaioke ere, adierarekiko erreferentzialtasuna eta irakurketa era bat desberdina dira. Edo gutxienez, adierarekiko lotura eta identifikazio maila desberdina izan dadin sustatzen da, *Pays Basque*, *Euskadi* ez bezala, ez baita nazioaren izen "natural" edota balizko gisa aurkezten.

Lehen begiradaz pentsa liteke *Pays Basque* erabiltzen ez bada, *País Vasco*, *Euskadi* edo *Euskal Herria* adierazteko izen frantsesa delako izan daitekeela. Hau da, Hego Euskal Herrian frantsesa hizkuntza ofiziala ez denez, nazioa izenpetzeko euskarazko edo gaztelaniarazko adierak erabiltzea logikoagoa dirudielako. Baina arazoa linguistikoa izan baino sinbolikoa dela pentsa daiteke, besteak beste, Hego Euskal Herriko up-etan *Basque Country* ingelerazko adierazlea topatzeko ez delako hainbesteko arazorik egon [B8][B14].

*Basque Country* aipatu denean, euskal nazioari izaera "globala" emateko egin da. Bi zentzutan uler daiteke honakoa. Batetik, globala, orokor moduan ulertua, non esparru geopolitiko jakin bati erreferentzia egitetik urruti, irakurketa zabal bat sorrarazteko erabiltzen den. Ondoko adibidean ikus daiteke hori: "*somos Basque Country*"<sup>12</sup> [B8]. Kasu honetan, izenaren esanahiak ez dagokio nazioaren lurraldeari (edo ez soilik behintzat), aitzitik, badirudi egokiagoa dela esatea identitate nazional moduan funtzionatzen duela zuzenean; nortasun edo izate baten ezaugarri lez agertzen baita. Bestetik, globala, munduko edo unibertsal adieren sinonimo lez ere uler daiteke, euskal

nazioa munduan kokatzeko funtzionatzen duena. "*Basque Country* gara" esatean, "kanpo" begirada bati erantzuten ari dio hizlariak, frantsesez, gaztelez eta euskaraz ez dakien "munduko entzule ingeles hiztun" bati "gure" nortasunaren inguruan azalpena emanez bezala, munduan kokatuak eta presente "gaudela" jakinaraziz.

Azken izen horren erabilera zabal ez bada ere, *Basque Country Pays Basque* baino txertatua(go) dago Hego Euskal Herriko nazio kideen irudikarian, eta badirudi *Basque Country* izenak transmititzen dituen balore edo ikuspegiekin bat egitea errazagoa dela *Pays Basque*-k irudikatzen dituenekin baino<sup>13</sup>. Antzeman daiteke, beraz, *Pays Basque* ez erabiltzea ez dela hizkuntzaren arazo bat, hurbiltasun, afinitate edo adostasun kontu bat baizik. Hala, *Pays Basque*-ri esleitzen zaion adiera ezin ezagutu badezakegu ere (up kasurik ez izateagatik), argi gelditzen da *Basque Country*-rekin ez bezala, *Pays Basque*-k ez duela bat egiten Hego Euskal Herriko up egileek duten euskal nazioaren hautemanarekin [E15], [E13]. Edo beste hitzetan, euskal nazioari erreferentzia egiteko arrotzagoa egiten dela *Pays Basque*, *Basque Country* baino, azken horren hurbiltasun sinbolikoa handiagoa delako ziurrenik.

*Basque Country* agertu dena baina zenbait gehiagotan azaldu da *País Vasco*. Bi dira, ziurrenik, bere agerpen guztien artetik kasu aipagarrienak: *8 apellidos vascos* pelikula batetik eta *Yes, we Spain is different* antzerkia bestetik.

*8 apellidos vascos* filmean<sup>14</sup> *País Vasco* etengabe erabiltzen da. Pelikulan, *País Vasco*-k EAE-ri egiten dio

—

13 Besteak beste EAJ-PNV-k sustatu duen Euskadi markarekin lotu den adiera delako *Basque Country*.

14 Pelikulak neska euskaldun eta mutil andaluziar (Espainia) baten arteko amodio harremanean oin hartuta, euskal nazioaren ezaugarri nagusien (kultura, hizkuntza, kolektiboa, zeinuak, lurraldearen...) kontaketa umoretsua egiten du.

erreferentzia eta andaluzak diren pertsonaiek erabiltzen duten izendapena da batez ere. Pelikulan, ordea, *País Vasco*-ren erabilera "espainiar ikuspegitik" emandako izen bezala azaltzen da, hau da, espainiarrek euskal nazioaz hitz egiteko erabiltzen dutena. Izan ere, pelikulak euskal nazioaren gaineko erreferentziak espainiarren (andaluzen) ikuspegitik egin ordez, euskal kolektiboaren perspektibatik eginak direla aditzera eman nahi duenean, euskal nazioari *Euskadi* deritza. Hala, mutil andaluzia Euskal Herrira egonaldia egitera doanean euskal kolektiboko pertsonaien artean integratzeko ahaleginean *Euskadi* izena erabiltzen du *País Vasco*-ren ordez.

Logika berberaz erabiltzen dira bi adierak *Yes, we Spain is different* antzerki musikalean. Bertan, Espainiako komunikabideetan famatu bilakatu diren pertsonaia, kazetari, tertulia-kide, aktore... desberdinen imitazioak egiten dira. Imitatutako pertsonaiek euskal nazioari erreferentzia egiteko oro har erabiltzen duten izendapena *País Vasco* da. Baina, pertsonaien artean euskal kolektiboko kideren baten imintzioa egiten denean (sukaldari ezagunak, kirolariak edo politikariak, esaterako) pertsonaiek *Euskadi* erabiltzen dute euskal nazioari erreferentzia egiteko.

Azken bi kasu horietan, beraz, *Euskadi* eta *País Vasco* sinonimotzat jotzen dira eta biak EAE-ri buruz ari dira, lurraldearekiko beste inolako auzirik erakutsi gabe. Izeneren erabilera ez da *haustura* moduan agertzen, beraz, bazik eta up-en edo bestelako gertakarien testuinguru "natural" bezala. Hartara, oraingo honetan ere, espainiar estatuak duen lurralde administrazioaren baitako banaketa eta izendapen berberak erreproduzitzen dira bi kasuetan, *Euskadi* ala *País Vasco* erabiltzeko alde bakarra izenaren erabiltzaileak bere burua euskalduna edo espainiarra identifikatzeak markatzen duelarik. Baina honako alderaketa hau ere ez da modu nabarmenean egiten, hots, ez da *haustura* bezala agertzen, baizik eta itzulpen linguistikoa

sotil bezala, pertsonaiaren jatorria azpimarratzeko keinu gisa funtzionatzen baitu. *País Vasco*-ren presentzia, hortaz, EITB-ren *Euskadi* adieraren berdintsua da, up-aren baitan zeharka erabiltzen baita euskal nazioa azaltzeko izen arrunt moduan.

#### 5.2.1.b. Banaketa geopolitikoa

Izendapena ez ezik euskal nazioari dagokion banaketa geopolitikoaren auzia ere oso presente dago up-etan eta horien *hausturetan*. Ondorengo atalean euskal nazioaren lurraldearen esparru geopolitikoak up-etan agertzen dituen ezaugarriak azaltzen dira.

#### -Euskal nazio espainiarra?

Zenbait up-k agerian jartzen dituzte euskal nazioaren egoera politikoaren inguruko interpretazio desberdinak. Hala, euskal nazioak espainiar estatuari dagokiola edota, horren ordez, burujabetza politikoa duen nazioa dela dioten diskurtsoak maiz agertzen dira up-etan<sup>15</sup>. Bi modutan ematen dira irakurketa horiek. Batetik, euskal nazioa Espainiatik berezia dagoen errealtatetzat irudikatzen denean, diskurtso horrek zuzeneko trataera jasotzen du. Hots, *haustura* forma hartzen du. Bestetik, alderantzizkoa indartu nahi denean eta euskal nazioak Espainiari dagokiola erakutsi nahi denean, diskurtsoa zeharka lantzen da, modu inplizituan eta ez *haustura* moduan. Ondoko kasuan

—

15 Aztertuak izan diren up-etan ez da frantziar estatuari buruzko halako diskurtsorik bultzatzen duen kasurik aurkitu. Hego Euskal Herrian burutzen diren up-ek frantziar estatuaren eraginaren edota Ipar Euskal Herrian ematen diren egoerekiko (estatuarekiko hartu-emanekiko) hurbiltasunik ez dagoelako beste adibidetzat har daiteke honakoa ere.

12 ["Basque Country gara"]



ikus daiteke lehen ildoari dagokion adibide bat. Honakoa dio Espainia eta euskal nazioaren arteko harremanaz *Barretartia* blogean idatzitako pasarte batek:

"...badakizue langabeziaren ondorioz euskal herritar asko eta asko atzerrira joan direla lan bila. Horietakoa bat nire lagun Mikel da. Gizajoak bi urte daramatza langabezian, eta, azkenean, kanpora alde egitea erabaki du. Oso urrutiko herrialde batera joan da. Ez dakit ezagutuko duzuen herrialdea. España izena du." [UPB8]

Kasu honetan Espainiari egozten zaion urruntasunak sortzen du *haustura*. Batetik, "euskal herritarrak" "atzerrira" joan direla aipatzen duenean Espainia erbestea lez irudikatzen du, eta ondorioz, euskal nazioa Espainia ez den aparteko herrialde bat dela aintzakotzat ematen ari da. Euskal Herri eta Espainiaren arteko muga eta loturak, gainera, urrunak direla azaltzen du "oso urrutiko herrialdea" dela esaten duenean. Horrekin, Espainia asago den estatutzat aurkezten du, euskal nazioaren eta espainiar estatuaren mugak elkar ukituaz daudela (edota Espainia berari dagozkiola) urardotuz. Azkenik, distantzia fisikoa ez ezik, sinbolikoki ere urrun kokatzen du, "ez dakit ezagutuko duzuen" galdetzen duenean Espainiaren hurbiltasun fisikoa ez ezik, kulturala ere zalantzan jartzen baitu, hein handi batean euskal nazioko kide izateak estatu Espainiarra ezagutzea ez duela derrigorrean ekarri behar iradokiz.

ETB2-k ere zenbait kasutan agerian jartzen du euskal nazio eta espainiar estatuari dagokion lurraldearen bereizketa berbera. Ondoko kasua har daiteke adibidetzat. Bertan, Hernaniko eta Valladolideko bikote ezkonberri baten gurasoek elkarren artean duten solasaldia agertzen da:

–[Aita Vall.]: *Estamos encantados de haber venido a San Sebastián.*

–[Ama Vall.]: *Si, San Sebastián es una de las ciudades más bonitas de España.*

–[Aita Hern.]: *Habláis de San Sebastián de los Reyes ¿no? Porque esto es Donostia, y no es España ¡Es Euskal Herria!*

–[Aita Vall.]: *Pues para haber venido de Valladolid no hemos tenido que usar el pasaporte. ¡Así que es España!*

–[Aita Herna.]: *El pasaporte no sé. ¡Pero igual sales de aquí con ostias hasta en el carnet de identidad!*<sup>6</sup>

[UPT7]

Hainbat *haustura* azpimarra daitezke hemen. Lehena up-aren konposizioak berak sortzen duena da. Izan ere, Valladolid (Espainia) eta Hernaniko (Euskal Herria) familia prototipikoak irudikatzen dira bertan, ideologia nazional espainiarra eta abertzalea aurrez aurre jarritz beste behin. Konbinaketa horrek tentsio egoera bat sortarazten du "berez", lurraldeari dagokionez aurkariak diren matrize kulturalak baitituzte batzuek eta besteek. Hala, euskal nazioari dagozkion gaiak eztabaidatzen dituzten heinean, tentsioa eta *haustura* bera indartuz doaz. Egoera horren baitan, lurraldea da aipatzen den gaietariko bat, eta zehazki, *Euskal Herria* Espainiari dagokion ala ez hartzen da hizpide. Horren aldeko eta aurkako argudioak botatzen —

16 ["Zorutzen gaude San Sebastianera etorri izanarekin/ –Bai, San Sebastian Espainiako hiri ederrenetariko bat da/ –San Sebastian de los Reyesi buruz ari zarete, ezta? Hau Donostia baita, eta ez da Espainia, Euskal Herria baizik/ –Ba, Valladolidetik etortzeko ez dugu pasaportea behar izan. Espainia da beraz! /–Pasaportea ez dakit, baina agian nortasun agirian ere ostiak jasota aterako zarete hemendik"]

dizkiote elkarri solaskideek, eztabaida gogortu eta esketxean elkarri joka amaitzen duten arte. Up-ak lurraldea gai gatazkatsutzat agertzen du beste behin, baina ez du horren inguruan ideia jakin bat helarazten, ikuspegi desberdinak dituztenen arteko liskarra islatzen amaitzen baitu soilik. Liskar horretan, gainera, batzuek eta besteek haien ideiak defendatzeko erabiltzen dituzten baliabide eta arrazoiketak desberdinak dira. Izan ere, Valladolideko familiak erabiltzen dituen argudioak Hernanikoenak baino garapen "logikoagoa" erakusten dute. Badirudi euskal nazioak Espainiari dagokiola defendatzea errazagoa dela ("no hemos tenido que usar el pasaporte") alderantzizkoa baino, euskal nazioa aparteko errealtate bat dela argitzeko ez baitu apenas argudiorik erabiltzen hernaniarrak. Hala ikus daiteke egiten dituen bi mintzalditan: aurrenekoan, ez du bere ikuspegia defendatzeko azalpenik ematen, baieztape bat egiten baitu soilik ("no es España ¡Es Euskal Herria!") tartean indarkeria erabiliz. Eta bigarren aipuan Valladolideko jotzeko mehatxua egiten du zuzenean, beste inolako azalpenik eman gabe.

Lurraldeari buruzko zuzeneko helarazpen horiez gain, ordea, badira gaia zeharka aipatzen dituzten up-ak ere. Kasu horietan, lurraldea ez da *haustura* gisa azaltzen up-ak bestelako gaiez dihardute eta, baina inplizituki jatorriaren ideia lantzen dute. EITB-k igorritako ondoko up-an, adibidez, *Manolito Gafotas*<sup>17</sup> liburuari erreferentzia eginez honakoa dio up-ko pertsonaietariko batek: "está muy

—

17 Elvira Lindo, Cadizeko (Espainia) autoreak egindako umorentzako nobela da. Haur literatura espainiarraren erreferente nagusienetariko bat.

*bien consumir productos de la tierra.*"<sup>18</sup> [UPT14]. Adibide honetan, esaldiak aintzakotzat jotzen du *Manolito Gafotas* "bertako produktua" dela, eta beraz, Espainia hartzen du "bertakotasun" identitate hori ematen duen lurraldetzat.

Zeharkako espainiar erreferentzialtasun horiek ere adierazgarri suertatzen dira, zenbaitetan, ez hainbeste diskurtsoarengatik baizik eta diskurtsoak ikuslegoan sortutako erreakzioengatik. 8 *apellidos* vascos pelikulan egindako behaketa parte hartzaileak<sup>19</sup> erakutsi du, espainiar estatuaren lurraldea oso presente dagoela euskal gizartearen<sup>20</sup> irudikari kolektiboan, eta hari eginiko aipuek (edo ondoko adibidean ikusten den moduan, haren kontra eginikoe) berehalako *haustura* sortzen dutela ikuslegoan. Hala, nahiz eta akaso ikuslegoko zenbaiten kasuan Espainia ez den euskal nazioaren lurralde gisa hautematen, Espainiak euskal nazioaren kokapenerako erreferentzia geografiko nagusi lez funtzionatzen du maila ez-erreflexibo batean. Hots, up-etan. Ondorengo adibidean ikus daiteke esan berritako hori. Pelikulako bi pertsonaien arteko elkarrizketa irudikatzen da bertan, aita euskalduna eta gazte andaluziarraren artekoa. Elkarrizketan alaba euskaldunari zuzentzen zaio aita honakoa esanez:

—

18 ["Oso ongi dago bertako produktuak kontsumitzea"]

19 Pelikula berariaz ikusi zen zinean, up-ez gain jendearen erreazioak hautemateko. Bildutako informazioaren artean, atentzio berezia eskaini zitzaion ikuslegoaren algarak leherrarazten zituzten up-ei.

20 Euskal gizartea eta ez kolektibo darabikigu, zinemara hurbildu zirenek haien buruak nola identifikatzen zituzten zehazterik ez zelako egon. Hartara, litekeena da zenbait euskal kolektiboko kide sentitzea, baina baita haren burua hala hautematen ez zuenik ere egotea.

"-[Aitak alabari] Me recuerda muchísimo a ese chaval del sur con el que salistes.

- [Gazte andaluzak alabari] ¿Con uno del sur salistes?

-[Aitak gazte andaluzari] Sí, de Vitoria."<sup>21</sup>

(sic.) [UPV25]

Algara eztanda sortarazten du aipu honek zine areto barruan. Argi dago ikusleagoak *haustura* topatu duela pertsonaiek esan berri duten horretan; "gasteiztarra" ("Vitoria"), "hegoaldekotzat" ("sur") jotzeak nolabaiteko desoreka baitakar (*haustura*), edo bestela esanda, ez delako "normal" gisa hautematen. Zergatik, ordea? Zer dela eta sortu du *haustura* Araba hegoaldean dela proposatzeak<sup>22</sup>? Eta hegoaldean ez badago, non kokatua beharko luke egon? Hizketan dabilen pelikulako pertsonaiek EAE-ren maparen erreferentzia darabil Araba hegoaldean dagoela esateko. Baina ikusleagoak ez du berdin ulertzen eta *hausturatzat* hartu izanak erakusten du "hegoaldeaz" hitz egitean EAE ez den bestelako irudikari geopolitiko bat datorkiola burura: Espainiaren hegoaldea, hain zuzen ere. Hala, ikusleagoak erreferentziatzen hartzen duen lurraldea Espainia delako Arabak ez luke hegoaldean behar, Ipar Euskal Herria bazik, horrek eragiten duelarik desdoia, *haustura*, eta ikusleagoaren barre eztanda.

Kasu horretan up-aren diskurtsoak EAE-ren maparen irudikaria indartzen duela badirudi ere, bestelako *haustura* sortarazteko pentsatua dagoela argi antzeman daiteke. Ageriko egiten du ikusleagoaren lurralde irudikari erreferentzialtasuna (hots, euskaldunen kokapenaren koordinada ez-erreflexiboak) lotuagoak daudela

21 ["- Zurekin ateratzen egon zen hegoaldeko mutil horren antza hartzen diot -Hegoaldeko batekin atera al zinen? -Bai, Gasteiztar batekin"]

22 EAE-ko mapa kontuan hartuz gero, Araba hegoaldean gelditzen da.

Espainiaren mapa geopolitikoari, EAE-renari baino. Hala, *hausturaren* bitartez egiazki indartzen den diskurtsoa Araba "hegoaldean" dagoela pentsatzearen aldrebeskeri edo zentzugabekeria da, eta horren ondorioz, Espainiaren lurralde irudikariaren erreferentzialtasuna "normaldu" egiten da.

Espainiarekiko loturari dagokionez bestelako jarrera bat ere antzematen da EITB-ko esketxetan: kolonizazioarena. Hasiara batean pentsa zitekeenaren kontra, ordea, up-ek lantzen duten ideia ez da Espainiak (edo Frantziak) euskal nazioarekiko egin lezakeen kolonizazio kultural, sozial edo politikoa agertzen (estatu batek estatu propiorik gabeko nazio batekiko egin lezakeena). Aitzitik, euskaldunek espainiar estatuko geografiako zenbait zonaldeetan egiten dutena aipatzen da.

Ondoko esketxa har daiteke adibidetzat. Euskal kolektiboko kideek Espainiako eskualde eta hiri batzuetara joateko duten zaletasuna kontuan hartuz, lurralde horietan egiten duten okupazioak jarduten du:

"*Salou es vasco. Van casi un millón de vascos a Salou, como Benidorm, ahora nuestro herrialde es Salou (...) Es una inversión, ya no queda en Euskadi ni Dios, (...) se van hasta Azcuna y Odón*"<sup>23</sup> [UPT9]

Salou (Tarragona, Espainia) "euskaldun" bat nolakoa litzatekeen irudikatzen gorbata egiten du esketxak, eta frontoia, Batzokia<sup>24</sup> eta Athletik-en kluba duen Salou nolakoa litzatekeen agertzen du bertan. Kasu horretan,

23 ["Salou euskalduna da. Ia milioi bat euskaldun doa Saloura, Benidorm gisa, gure herrialdea Salou da orain (...) Inbertsioa da, Euskadin ez da inor geratzen, (...) Azcuna eta Odon ere badoaz"]

24 EAJ-PNV alderdi politiko nazionalistaren egoitza politiko eta sozialari dagokio.

*haustura* hiperboleak berak dakar, ezaguna den errealtate baten gehiegikeriak. Baina ez du euskal nazioaren lurraldearen zehaztapen argirik eskaintzen, alderantziz, euskaldunak edonon egon daitezkeela eta dauden lekuan egonik ere ingurua "euskalduntzeko" gaitasuna dutela dio. EITB-ko hainbat up-etan indartzen da diskurtso bera. Beste adibide batean esaterako, euskaldunek Castro (Kantabria, Espainia) "kolonizatzen" dutela azaltzen da[UPT14]. Hara bizitzera joan diren bizkaitarren ugaritasuna nabarmendu nahian, hiria "euskalduna" dela eta jadanik Kantabriari ez dagokiola azpimarratzen bukatzen du esketxak.

Up horietan *haustura* ez da euskal nazioa Espainiaren parte lez irudikatzeagatik sortzen, Espainia euskal nazioaren parte izan daitekeela proposatzeagatik baizik. Hots, espainiar estatuarekiko joera (eta botere-harremana) iraultzeagatik.

Deigarria suertatzen da, gainera, zein lurralde "euskalduntzen" diren ikustea. Izan ere, "kolonizatorako" ez dira lurralde historikoak izanagatik ustez euskal nazioari dagozkion horiek aipatzen (Nafarroa edo Ipar Euskal Herria). Horren ordez, euskal nazioarekin (itxuraz) loturirik ez duten bestelako hiri eta probintziak aipatzen dira (Salou eta Kantabria). Alde horretatik, up horiek indartu egiten dute, batetik, Nafarroa euskal nazioaren parte lez ikusteko zailtasuna, eta bestetik, Ipar Euskal Herriaren inguruan dagoen "isiltasuna"<sup>25</sup>. Halako up-en diskurtsoek, finean, euskal nazioaren zabalpen eta hedapen diskurtsoa igortzen dutela iruditu arren, euskal nazioaren lurraldearen (edota kolonizazio/konkista baten) aldarri baino keinu alegiazko baten antz gehiago dute.

25 Aurrerago landuko den ideia da honakoa.

-Lurralde sinbolikoa

Euskal nazioari dagokion lurraldearen inguruko auziak askorako ematen du up-etan. EAE, Nafarroa, Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdiren elkarketa eta banaketen arteko konbinazioen aniztasunean oin hartzen baitute up-etariko askok. Hala, lurraldearen inguruko argitasun eta adostasun falta honetan oinarrituz euskal nazioari dagokion lurralde esparrua "nahi eran aukeratu" daitekeela agerian jartzen dute zenbait up-k.

"-*Aunque también depende de quién mande. Esto está muy claro: cuando es para bueno, Navarra es Euskadi. Y cuando no, no lo es. Por ejemplo, ¿Indurain? Vasco de toda la vida. ¿Lo de Caja Navarra? Pues menos vasco ¿Kukuxumuxu, las camisetas de los San Fermín? ¡Vasco! Y ya la paga extra de los funcionarios pues menos vasco. ¿Qué quieres que te diga?*"<sup>26</sup> [UPT1]


Solaskideak argi uzten du euskal nazioaren mapa aldatu egiten dela, hots, ez dela finkoa ez eta zertan beti berdina izan ere eta aldaketa horren eragile nagusizat identifikatzen du "agintean dagoena". Hau da, EAE-ko Eusko Jaurlaritzan EAJ-PNV edo PSE-EE agintean egoteak<sup>27</sup> euskal nazioari egozten zaion lurraldean aldaketak sortzen dituela agerian jartzen du.

Bata edo bestea agintean egon denean ez da egiazki (ontikoki) lurralde aldaketa politikorik gauzatu, ordea, eta beraz, mintzalariek aipatzen dituen bariazioak sinbolikoak direla ulertu behar da. Izan ere, gizartean euskal nazioak


26 ["-Agintean dagoenaren arabera ere bada. Oso argi dago: onerako denean, Nafarroa Euskadi da. Eta ez denean, ez da. Adibidez, Indurain? Euskalduna, betidanik. Caja Navarrakoa? Ez hainbeste. Kukuxumuxu, San Fermín-tako kamixetak? Euskaldunak! Eta funtzionarioen aparteko ordainsaria, ez da hain euskalduna. Zer nahi duzu ba esatea?"]

27 PSE-EE-k 2009-2012 artean agindu zuen Eusko Jaurlaritzan. Gainontzeko urteetan EAJ-PNV-k izan du agintaritzia.

2007



2009



2013



duen lurraldearen inguruko ikuspegi aniztasun eta interpretazio malgutasunak hala ahalbidetzen duelako, agintean egon den alderdiaren interes eta ideologia politikoaren arabera, euskal nazioari egotzi zaion lurralde irudikaria aldatuaz joan da legealdi batetik bestera. Hala, euskal nazioaren lurralde politiko-administratiboak bariaziorik izan ez badu ere, haren irudikaria norgehiagoka politikorako erreminta gisa erabili dela ikus daiteke.

Twitterren eta sare sozialetan, oro har, hainbat txantxa egiteko aukera eman duten aldaketak izan dira horiek [UPS4],[UPS5],[UPS7] urte gutxiaren buruan erabat moldatu baita maparen kolorea, forma eta itxura. Argi ikus daiteke esandakoa ondoko argazkian. Sare sozialetako up bat azaltzen da bertan, euskal nazioaren itxura aldaketak *haustura* gisa erabiltzen dituen [UPS4]. Lehen irudian ikus daitekeen bezala EAJ-PNV agintean dagoenean (2007) euskal nazioari dagokion eguraldi mapak zazpi lurralde historikoak erakusten ditu. Lurraldeak haien artean berdin koloreztatuak agertzen dira eta euskal nazioaren mapak lurralde homogenea dirudi, hots, barne mugarik gabekoa. Bigarren irudiak, ordea, PSE-EE-k Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak irabazi eta agintean sartzen denean (2009) eguraldi mapan egiten dituen aldaketak islatzen ditu. Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren koloreak apaldu egiten ditu gobernu berriak, EAE delarik nabarmendua agertzen den lur eremu bakarra. Ondorioz, euskal nazioari egotzen zaion esparru geopolitikoak Nafarroa eta Ipar Euskal Herria euskal nazioaren "inguruan" dauden beste edozein probintziatzat jotzen ditu, Kantabria, Errioxa, Gaztela eta Leon edota Aragoiren parekotzat. Azken irudian ikusi daitekeenez 2013an EAJ-PNV indarrera bueltatzen denean euskal nazioaren mapa berriz aldatzen da. Kasu honetan, ordea, 2007an zuen itxura izatera itzuli beharrean PSE-

EE-k ezarritako ereduari eusten jarraitzen dio eta EAE-ren inguruan dauden probintzia guztiak berdin azaltzen dira. Hots, euskal nazioaren mapak espainiar estatuaren mapari dagokiola eta haren baitako beste probintzien pareko dela aditzera ematen da irudian. Nolanahi ere, EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria gainontzeko probintziak baino biziago koloreztatuak agertzen dira, eta beraz, euskal nazioaren esparru geopolitikoak zazpi lurraldez osatua dagoela iradokitzen da berriz. Ez dute, ordea, lurralde guztiak kolore berbera erakusten eta horrek bistaritzen du euskal nazioaren baitan mugak daudela: EAEk, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak hartzen duten tonalitateak haien artean desberdinak baitira. Hala, 2007koa ez bezala, euskal nazioaren lurraldea ez da bakar eta oso lez islatzen, orain mugak eta banaketak ditu lurralde desberdinen artean, EAE, Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroak osatutako lurralde elkargo baten antza hartuz.

Aipatu berriakoa kontuan izanik, hasierako adibideko solaskideak egoera honi heltzen diola uler liteke [UPT1]. Aldaketa sinboliko horiek kontuan hartuz lurraldearen gaia nahasgarria eta interes politikoen arabera aldakorra dela agerian uzten du, non, nahikundeak batetik bestera alda dezakeen maparen itxura. Halaber, bistaratu egiten du ez dagoela zazpi lurraldeak elkartzeko oinarri komun edo objektiborik, baizik eta "komenigarria" denean ("*cuando es para bueno*") modu batera edo bestera antolatu daitekeela lurraldea. Hala, ezer onik izanez gero, Nafarroa *Euskadiren* parte kontsideratzen du up-ko hizlariak; eta ezer txarrik erakustekotan, Nafarroa *Euskaditik* kanpo uzten du.

Baina adibideko mintzalariak ez du, ordea, Nafarroa lurralde bezala hautematen. Hau da, *Euskadiri* "gehitu" eta "kentzen" diona ez da Nafarroa (probintzia), baizik eta "nafartzat" jotzen dituen zenbait ezaugarri. Kasu honetan

ere ariketa sinboliko bat eginez, [Nafarroa= Kukuxumusu<sup>28</sup> + Indurain<sup>29</sup> + ...] ideian indar egiten du up-ak, zeinu jakin batzuen atzean disolbatuaz probintziaren presentzia. "Nafarroa *Euskadi* izan daitekeela" esatean, beraz, honen anexioa ez dagokio probintziari zuzenean, kategoria sinboliko edota erreferentzial jakin batzuen onarpenari baizik.

Azken horrek zuzenean baieztatzen du orain arte ikusitako zenbait adibideetan errepikatzen datorren joera. Euskal nazioaren lurraldearen nolakotasun hautemateak, oro har, lurralde (probintzia/estatu) jakin bati egotzen zaion tasunarekin lotura estua du. Ondorioz, up-ak ez dira euskal nazioari esleitu behar zaizkion edo ez zaizkion lurraldeez mintzo, lurraldeekiko sentimendu, sentsazio, distantzia (hurbiltasun/urruntasun) edo balioez baizik. Horrenbestez, sentikortasun desberdinek lurraldearekiko eraspene desberdina ahalbidetzen dute, hala nolako euskal nazio lurralde irudikaria eratuz bidenabar. Ikuspegi hori nabarmen antzeman daiteke ondorengo adibideetan.

#### -Ipar-Hego muga

Honaino ikusi bezala, Ipar Euskal Herriak ez du apenas aipamenik jasotzen up-etan. Kasu gehienetan ez zaio zuzeneko erreferentziarik egiten eta baten bat azaltzekotan *Euskal Herria* izendapena erabiltzen dutenetan egiten du inplizituki. Ez kasu guztietan, gainera, euskal nazioari

<sup>28</sup> 1996an sortua, kamiseta eta bestelako artikuluetan umorezko marrazkiak diseinatzen dituen zigilua da.

<sup>29</sup> Txirrindulari nafarra, bost urtez jarraian *Frantziako Tourra* irabazi izanagatik ezaguna.

*Euskal Herria* izena egozten diotenen artean, zazpi lurraldez osatua dagoen nazioari erreferentzia egin nahi diotenen soilik hartu behar baitira kontuan [UPS4], [UPA15], [UPY16] [B10], [B16], [B20], [B25].

Gehiengoetan, ordea, Ipar Euskal Herria azaldu ere ez da egiten. EITB-k eskaintzen dituen up-etan, esaterako, Ipar Euskal Herriaz ez da behin ere mintzatzen; ez Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa euskal nazioaren barnean ote diren esateko, ez eta euskal naziotik kanpo ikusten ote dituzten azaltzeko ere. Aipua falta horrek, hala, Ipar Euskal Herriarekiko erreferentzialtasuna galtzea ekartzen du hein handi batean; lurralde (eta errealtate sozial) horrekiko "isiltasunak" euskal nazioaren parte izateari uztea areagotzen baitu. Hala, Ipar Euskal Herria ez da ez "ona" ez eta "txarra" ere (hurbila/urruna, ezaguna/ezezaguna...) zuzenean ez da nazio "errealitate" moduan hautematen.

Joera orokorra hori izanik ere, ildo nagusitik at geratu diren zenbait kasu topatu dira, eta horien baitan bi joera orokor: batetik, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko bereizketa indartzen duten *hausturak* sortzen dituztenak. Eta bestetik, aldiz, bereizketa horretaz jabetuta horren gaineko irakurketa kritiko bat sustatu dutenak.

Ipar eta Hego Euskal Herriaren aldearen arteko bereizketa indartzen duen kasuetako batek honela dio: "*¿Iparralde? ¿Pero eso qué es? ¿Francia en vasco?*"<sup>30</sup> [B8]. Kasu honetan, mintzalararen lehen galderan *Iparralde* izena erabat ezezaguna duela agertzen du<sup>31</sup>; bigarrenarekin,

30 ["Iparralde? Zer da hori? Frantzia euskaraz?"]

31 Kontuan izan behar da, gainera, "Iparralde", inolako aitortpen ofizialik ez daukan lurraldea dela; adierazpen geografikoari, "hegoaldekoek" eman baitiote esanahi geopolitikoak.

aurretik adierazi duen zalantza ageriko egiten du; eta hirugarrenaren bidez, bere zalantzarik erantzun posible bat ematen dio. Hala, zer den ez dakiela iradokitzen badu ere, azken galderan *Iparralde* izena bi errealtaterekin lotzen du: batetik, hitzak nolabaiteko lurraldeari (Frantziari) erreferentzia egin diezaiokeela esanaz; eta bestetik, euskal nazioarekin, edo zehatzago esanda euskararekin zer ikusirik ere izan dezakeela agerian jarritz.

Baina ez dio, ordea, *Iparraldeari* Euskal Herriko lurralde moduan inolako aitortzarik egiten. Alderantziz baizik, bertan behera uzten du Ipar Euskal Herriak Frantziatik bereizia den errealtate bezala ulertzeko posibilitatea, eta *Iparralde* Frantziaren parte dela, edo zehatzago esanda, Frantzia bera dela agertzen du finean. Hor sortzen da, hain zuzen ere, up-aren *haustura*, azken galderaren bidez Iparralde adierari zentzu berri bat ematen baitio mintzalariek. Izan ere, *Iparralde* frantziar estatupean dagoen euskal lurraldeari erreferentzia egiteko izena izatetik, euskaraz Frantzia esateko izena izan daitekeela iradokitzen pasatzen da, eta beraz, *Iparralde* hitzaren ohiko adierarekiko *haustura* bat sortarazten du, existitzen den zerbait denik ere zalantzan jarritz.

Aipatu behar da, gainera, bakarriketaren gainontzeko diskurtsoan Hego Euskal Herriarekiko erreferentziak agertzen direla, eta beraz, hizlariaren matrize kulturalen euskal nazioaren irudiak presentzia duela. Ipar Euskal Herriaren erreferentzia zuzena egiten du kasu honetan ere (esplizituki azaltzen baitu "*Iparralde*" izena) baina bere presentzia baliogabetzeko erabiltzen du aipua; euskal nazio bat dagoela onartzen badu ere, Ipar Euskal Herria horretatik erauzi egiten baitu. Hemen uler daiteke, beraz, aipua zehatzak balio duela, hain zuzen, aipatutakoaren presentzia

ontologikoa ukatzeko. Horrenbestez, kasu honetan Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean sortzen den aldea ez da euskal nazioaren baitako *muga*; horren ordez, egokiagoa da euskal nazioaren *ertza* adierazten duela esatea. Hau da, Ipar Euskal Herriari ez dio euskal nazioaren parte delako aitortzarik egiten eta horrek desagerrarazi egiten du lurraldeari dagokion errealtate bezala. Hego Euskal Herriak "haratago" beste euskal naziorik dagoenik onartzen ez duenez, hala, bi errealtateren arteko muga izan behar zuenak Hego Euskal Herriko errealtate nazionalaren *bazter* bilakatzen du.

Bestelako joerarik agertzen duen up-rik ere bada, ordea. Zenbait up-k Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean egiten den alderaketa aintzat izanik irizpide horren aurka jotzen dute. Joera horren erakusgarri da, besteak beste, *Beranduegi* albistegi umoretsua. Honakoa diote bertako kazetariak Ipar Euskal Herriko lurralde elkargoa eskatzeko 2013an egin zen manifestaldiaren inguruko berria eman ondoren:

"-Oraitxe bertan gelditzen den zalantza honakoa da: *Ipar Euskal Herriak independentzia bere kabuz lortu ala gainontzeko probintziei itxaron...*

-Bere kabuz? Eta hegoaldea horrela utzi?

-Eta zeini inporta zaio, he-go-al-de-a..."

[UPA21]

Aintzat hartu behar da azken esaldia tonu ironiko nabarmen batean esaten duela kazetariak, "hegoaldea" hitza motelki eta mespretxu aurpegia jarritz aipatuz. Hain zuzen ere, Ipar Euskal Herriarekin gertatzen dena umorez errepikatzen da hemen Hego Euskal Herriarekin,

mintzalariek inori inporta ez zaion edo baliogabea den lurraldea dela agerian jarri nahiko balu bezala.

Ipar eta Hego Euskal Herriak euskal nazioaren irudikarian duten karga eta esangura iraularazi egiten dute *Beranduegi* kideek. Hego Euskal Herriarekiko dagoen hobespena eta Ipar Euskal Herriari ematen zaion garrantzia txikia agerian jartzen dute alderantzizko egoera irudikatuz: hots, "he-go-al-de-a" gutxietsiz. Hala, Ipar Euskal Herriak independentzia lortzeko beste probintziei itxaron behar ote dien aipatzen da lehenengo esaldian. Horren bidez, Ipar Euskal Herria independente izatekotan Nafarroa eta EAE-ri itxaron beharko liekeen edota bere kabuz izan beharko lukeen jarriaz auzitan. Beste behin ere, ironiaz, Hego Euskal Herriari Ipar Euskal Herriarekiko dagoen jarrera jartzen da agerian, prozesu soberanista edo independentista bat gauzatzekotan, Ipar Euskal Herriarekin "zer egin" eztabaidatu baita maiz ezker abertzalearen baitan.

Bigarren esatariari, ordea, deigarria egiten zaio Ipar Euskal Herriak Hego Euskal Herria kontuan izan gabe independente izateko aukera planteatze hutsa, eta horren inguruan galde eginez, agerian jartzen du halako ikuspegia edukitzea ez dela ohikoena. Aditzera ematen du, horrela, eskuarki Hego Euskal Herriaren independentzia dela hobesten dena, Ipar Euskal Herriaren halabeharra zalantzakorra izanik. Indarrez eusten dio beste mintzalariek azken esaldian kontrako ideiare, ordea, eta "he-go-al-de-a" zeini inporta ote zaion ironiaz aipatzean, borobildu egiten da ordu arte edukitako elkarrizketa. Bat batean, bestelako zentzua ematen dio orain arte esandakoari, bigarren irakurketa bat antzeman daitekeelarik haren hitzetan, non, Hego Euskal Herriarekiko alegiazko gutxiespenaren bidez, agerian jartzen duena kontrakoa den: hots, Ipar

Euskal Herriarekiko mantendu ohi den aihergatasun jarrera, eta ondorioz, Hego Euskal Herriari ematen zaion nabarmentasuna. Mugaren alde bati eta besteari esleitzen zaizkion balioak alderantzikatuz sortzen du *haustura* up-ak beraz, "muga" baten presentzia desagerrarazten ez badu ere, mugaren alde bakoitzeko desberdintasunak auzitara ekartzeko saiakera bistako eginez.

Azken adibide horiek kontuan izanik, aztertu diren up-etan Ipar Euskal Herriaz mantendu diren jarrerak lau izan dira. Batetik, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko aldea kontuan hartzen ez duten up-ak daude, euskal nazioaren lurraldea (Euskal Herria lez izendatzen dutena) zazpi lurraldez osatua ikusteagatik up-etan aparteko arretarik eskaintzen ez diotenak. Bestetik, Ipar Euskal Herria aipatu gabe uzten dutenak daude. Honakook ere, ez dute Ipar Euskal Herriarekiko erreferentzialtasunik erabiltzen hauen up-etan, haatik lehen taldearekiko desberdintasun esanguratsu bat erakusten dute. Izan ere, Ipar Euskal Herria aitatzten ez bada, haien up-en irudikarian "existitzen" ez duelako da; *Euskadi*, *Euskal Herria*, *País Vasco* edo *Basque Country* hiru edo gehienez jota lau lurraldez (EAE eta Nafarroa) osatua dagoela hautematen dutelako. Ipar Euskal Herriak euskal nazioaren lurraldeari ez dagokiola islatzeko beste modurik ere badago, hain zuzen ere up-ak Ipar Euskal Herriaren erreferentzialtasuna gutxiesteko erabiltzen dutenena. Hirugarren talde honi dagokion up-ek Ipar Euskal Herriarekiko aipua erabiltzen dituzte haien diskurtsoan, baina Ipar Euskal Herria euskal nazioaren parte izateari edo bere horretan existitze hutsari uko egiteko erabiltzen diren erreferentziak dira nagusiki. Eta azkenik, laugarren taldeko up-ek, joera hau irularaztearen alde jotzen dute. Ipar Euskal Herriaren presentzia modu agerikoan onartzeaz gain, Ipar eta Hego Euskal Herrien

arteko bereizketaren aurka azaltzen baitira. Lurralde "bati" eta "besteari" egozten zaion ikuspegi desberdintasunaren aurka agertu eta horren baitan Ipar Euskal Herriaren gutxiespena salatuz edo agerian jarriaz.

*-Hiru hankako mahaia*

Euskal nazioaren up-etan maiz erabiltzen den beste lurralde banaketa bat EAE-ko hiru probintzien artekoa da. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren arteko banaketa proposatzen duten up-en planteamenduek, naziotzat jotzen den lurralde esparru finkoaren (EAE-ren) "barne-mugen" inguruko irakurketa lurralde desberdintasunean oinarritzen dute. Irakurketa horiek, hala, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko mugak ez bezalako bereizgarria dute. Izan ere, Ipar Euskal Herriaren adibidean, Ipar-Hego mugak euskal nazioaren lurraldearen nolakoari dagokio neurri handi batean, kasu guztietan ez baita Ipar Euskal Herria euskal nazioaren partetzat hartzen, eta zenbait adibidetan ikusten den bezala mugak (edo *bazterrak*, kasu honetan) Ipar Euskal Herria euskal nazioari dagokion lurralde lez ulertzen den edo ez eztabaidatzeko (eta zalantzan jartzeko) balio du. EAE-ko hiru probintzien arteko mugak, ordea, ez du euskal nazioari dagokion lurraldearen nolakotasuna ezbaian jartzen, aintzat ematen baitu EAE dela haren esparru zilegia (EAE eta Nafarroa zenbait kasutan). Hala, hiru lurraldeen arteko mugen azpimarrak euskal nazioaren lurraldean erreferentzialtasun handien duen esparrua (EAE) barnetik "zatiketzea" dakar.

EITB da zatiketa horretan oinarrituriko up nabarmenenak burutzen dituenen. ETB2-k helarazten dituen esketxetan euskal nazioari egozten zaion lurraldea Euskal Autonomi

Erkidegoak dauzkan hiru lurraldeen irudikapenean oinarritzen bada ere, up-ek, paradoxikoa badirudi ere, indartu egiten dute lurralde bakoitzaren arteko desberdintasunaren ideia. Hau da, up-ek *Euskadi* bezala izendatzen duten EAE-ko lurraldea ez dute euskal nazio bateratu bezala aurkezten, horren ordez, lurraldeen arteko zatiketa geopolitiko bat indartzen dute (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba), horrekin batera euskal kolektiboaren banaketa soziokultural eta identitario bat aurkeztuz<sup>32</sup>. Hots, probintzia bakoitzari dagokion biztanleria, eta horien ohitura, izaera, praktikak eta abar, besteengandik desberdinduz. Banaketa horietan bereziki azpimarragarria suertatzen da Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko aldea, zeinak Araba bigarren plano batean uzten duen etengabe. Hala, Gipuzkoa eta Bizkaia beraien artean aurkariak direlako diskurtsoz josiak daude up-ak eta Arabak noizean behinkako eta zeharkako agerpena egin ohi du.

Banaketa geografikoa esplizituki ekartzen da argitara hainbat up-etan gainera. Ondoko adibidean, esaterako, gipuzkoar bat agertzen da kexuan bizkaitarrek ("*Bilbotarrek*", esaten du zehazki) Gipuzkoarrek sortu eta asmatutako guztia kopiatzen dutela esanaz. Egoera horren aurrean soluzio argi bat proposatzen du:

*"Bilbotarrek dena kopiatu digute: Beldurrezko astea, su artifzialak, Santo Tomasetako txistorra... Ze izango da hurrena? Tanborrada? (...) Gipuzkoa eta Bizkaian arteko muga guztin hesi elektrifikatu bat nahi diat. Ta Zubietan harresia, eta kriston langa tzarra, tanke ta guzti."* [UPT57]

32 Azken ideia hau 5.2.4. *Kolektiboa* atalean lantzen da sakonago

Up-ko pertsonaiak Gipuzkoa eta Bizkaiaeren arteko lurralde banaketa fisiko bat proposatzen du, bi probintzien artean inolako iragazkortasunik baimenduko ez duen hesi bat jartzeko eskaera eginez. *Hauptura*, hiperboleak sortzen du kasu honetan, bi lurraldeen artean egon daitekeen desberdintasuna indartzearen alde hain nabarmena den proposamena egiteak, hain zuzen ere. Azpimarragarria suertatzen da, gainera, bereizketa hori egin nahi izateko up-ko pertsonaiak darabilen arrazoia zein den ikustea, Gipuzkoa eta Bizkaiaeren arteko muga bi lurraldeen arteko hurbiltasun eta elkarbanatze kulturala saihesteko baita, hain zuzen ere elkarren artean berdintsuak diren ezaugarri, ospakizun edo ekintza kulturalak ekiditeko. Muga geografikoaren ezarpenak beraz, muga kultural-identitario bati ezartzen dio langa: Gipuzkoarrena dena, beste inorekin ez partekatu nahiak euskal nazio (EAE) zatikatu baten irudikaria indartzen duelarik. Hala, EITB-k igortzen dituen up-etan, euskal nazioaren logika *autonomizista* bat gailentzen da, legez ezarritako banaketa administratiboari eusten diona. Hots, lurraldeari dagokionez euskal nazioa ez da osotasun bezala irudikatzen, autonomia desberdinen arteko elkarketa bezala baizik, espainiar estatuak ezartzen duen lurralde politikari erantzuten dion ikuspegia gailentzen delarik up hauetan



beste behin. Non, *Euskadi* ez den lurralde errealitate bakar eta partikular bezala ulertzen, aitzitik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, horietako bakoitza errealitate desberdin bat izanik, elkarrekin izendatzeko modua da.

Bereizketa horiek sustatzen dituzten up-tan Arabak duen protagonismo falta ere esanguratsua da. Arabari zuzenduriko aipuak ez dira modu zuzenean egiten, hau da, EAE-ko parte dela aintzat emanik euskal nazioari egotzen zaion lurralde irudikariaren baitan txertatua dagoela onartzen da, baina gutxitan egiten zaio zuzeneko apelaziorik. Hala, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko norgehiagokan Araba ez da aipatzen usaian, harekiko erreferentzialtasun faltak euskal nazioarekiko lurralde irudikarian ere pisu txikia izatea ekartzen duelarik. Ipar Euskal Herriari buruzko zenbait up-etan gertatzen den moduan, gainera, Arabaren inguruan egiten diren aipamenak ageriko egiten dute haren garrantzia txikiaren ideia, ondoko kasuan ikus daitekeen moduan:

“-Trebñukoek erabaki dute Burgosen ez diela inork kasurik egiten eta Arabako parte izan nahi dutela. Izan ere gauza jakina da Arabari izugarritzko arreta eskeintzen diola mundu guztiak.” [UPA4]

*Beranduegiko* up hau, Arabaren baitan kokatzen den Burgosi dagokion lurraldeaz ari da, Trebiñuz, eta bertako biztanleak Arabar kontsideratuak izan daitezen eskatzen dutela aditzera ematen da. Azken esaldian, ordea, ideia horrekiko *haustura* sartzen dute *Beranduegikoek*, Araba garrantzia gutxikoa dela, eta beraz, inor gutxi arreta jartzen diola agerian utziz. Hots, gaitza bera baino (Burgosek kasurik ez egitea) soluzioa (Arabaren sartzea) okerragoa izan zitekeela bistaratu.

Beste zenbait up-k, ordea, zuzenean irudikatzen dute Araba euskal naziotik at dagoen lurralde bezala. Horren adibide da, besteak beste, Adan eta Eva (Jainkoak sortutako

lehen bi gizakiak) euskal kolektiboko kide bezala aurkezten diren *Vaya Semanitako* esketx bat. Esketxean, Evak sagarra jan eta Jaungoikoak paradisuatik botatzen dituenekoa irudikatzen da, paradisuatik ateratzean “*diaspora vasca*”-ra [“euskal diasporara”] bidaliz bikotea. Jaungoikoak diaspora bezala “*la llanura Alavesa*” [“Arabako lautada”] identifikatzen du [UPT9], beste behin ere, esplizitu eginaz Arabak euskal nazioarekiko duen urruntasuna.

Hartara, euskal nazioaren inguruko up-ek, EAE-ko hiru lurraldeen arteko bereizketa eta elkarren arteko alderaketa egiteaz gainera, probintzia bakoitzari garrantzia sinboliko desberdin bat esleitzen diote. Balorazio horretan, euskal nazioaren lurralde irudikapenek Gipuzkoa eta Bizkaiari eusten amaitzen diete ia modu esklusiboan, eta Araba nabarmenki atzean geratzen da beste horien konparazioan.

-Bilbo

EAE euskal nazioaren erreferentziako lurralde kontsideratzen duten up-en baitan [UPT1], [UPT2], [UPT7], [UPT8], [UPT9], [UPT16], [UPT19] aipagarria da probintzien hiriburuei ere egotzen zaien irudi eta karga sinboliko desberdina. Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko lehia iraunkorren baitan, protagonismoaren balantzak Bizkaia aldera jotzen du beti Bilbori eskaintzen zaion nagusitasunari esker. Bilbok presentzia iraunkorra du EITB-ko up-etan, bereziki indartua ateratzen baita ez soilik haren zuzeneko erreferentziak hiriaren irudia indartzeagatik, baizik eta zeharka haren presentzia jarraia izateagatik ere.

Izan ere, lurraldearen gaia ukitzen ez den esketxetan, up-en marko gisa Bilbo agertzen da sarri: hiriko ezaugarri kultural edota arkitektonikoek (Guggenheim museoak, Athletic Klubak, Iberdrola dorreak, hiriko alde zaharra, Ibaizabalen bazterrak ...) up-en gibelalde soziokultural eta paisajistikoa osatzen dute. Bilbok bereziki, eta

horren ondorioz Bizkaiak, erreferentzialtasun sinboliko esanguratsu bat eskuratzen du, non, ohikotasuneko eta beraz “normaltasuneko” testuinguru bilakatzen den. Hala, batetik, euskal nazioari dagokion paisaia urbanoaren paradigmaztat agertzen da; eta bestetik, euskal nazioari dagokion hiriburu lez azaltzen da, gaur egun EAE-ko hiriburu izateagatik Gasteizek duen titulua bereganatuz<sup>34</sup>, eta Arabari auzi horretan izan zezakeen protagonismoa kenduz, beste behin ere.

“-Munduko leku bakarti eta apartatuena gomendatzen dizuet. Gasteiz.

-Gasteiz? Ba oso exotikoa ematen du, ez det sekula entzun!

-Ezta nik ere.

-Euskadiko hiriburua da ba.

-Zer diozu? Ez al gara gu, Bilbo?

-Ez, ez, ez.

-Eta zer du? Katedral gotiko inportanteren bat?

-Bueno, ez da Guggenheim, ez da San Mames ere, baina merezi du.” [UPT42]

Are gehiago, *haustura* hiperbolizatuenetan euskal nazioaren hiriburu ez ezik, “mundu osotzat” jotzen da Bilbo:

“Nik sarritan eman diot munduari bira Txurdiagatik hasi eta San Ignazioraino joan eta buelta. Baina ba al dago ezer Bilbotik haratago?” [UPT35]

Bilbok hartzen duen nabarmentasuna hain da esanguratsua ezen EITB-ko zenbait esketxetan ere, telebista kateak egiten duen Bilboren etengabeko errepikortasun horri aipu eginez up-ak sortu dituzten:

—

33 Kontuan izan behar da Gasteiz dela gaur egun EAE-ko hiriburua.

“-Voy a poner una denuncia a ETB por malos tratos.

-¿Disculpe?

-Lo que oye. Por malos tratos a Gipuzkoa, porque en euskal telebista solo se habla de Bilbao. Que si San Mames Barria, que si el Guggenheim. ¿Qué es esto, Bilboko telebista?

-Disculpe esto es un error, esto no es así.

-¿Qué no? Mire, aquí tengo todas las pruebas, que me pasado todo el año viendo euskal telebista con el cronometro en la mano, y he contaú las veces que se menciona la palabra Bilbao. 753 millones. ¡Millones! Frente a 2.532 que se menciona Gipuzkoa. ¿Qué pasa? ¿Que solo existe Bilbao?”<sup>34</sup>

[UPT23]

Bilboren presentzia esanguratsuen inguruko *haustura* egiten da azken adibide horretan, esplizituki agertuz jadanik agerikoa dena. Kritikarako motibo izan zitekeena programaren baitan umorez tratatzean programa egoerarekiko erreflexioa dela agertzen da eta neurri handi batean, egoera leundu edo hutsaltzea lortzen da horri esker. Bilboren presentziak EITB-ren baitan handia izaten jarraitzen badu ere, horrekiko kontzientzia umorez azaltzeak non egoera salatzen duen pertsonaia gipuzkoar bat agertzen den, egoeraren aurka egon daitezkeen maiseoak gehiegikeria lez agertzen ditu, horiek zentzugabekotzat utziaz. Aipagarria da, edonola ere, Bilboren protagonismoaz

34 [“-Tratu txarreatatik salatuko dut ETB/ -Nola diozu?/ -Entzun duzuna. Gipuzkoari emandako tratu txarreatatik, euskal telebistan Bilboz besterik ez baita hitz egiten. San Mames Barria dela, Guggenheim dela. Baina hau zer da ba, Bilboko Telebista?/ -Barkatu baina oker zaude, hori ez da horrela/ -Ezetz? Begira, hemen dauzkate froga guztiak, urte osoa pasa baitut kronometroa eskuan izanik euskal telebista ikusten, eta Bilbo hitza zenbatetan agertu den zenbatu dut. 753 milioi aldiz. Milioi! Gipuzkoa ordea 2532 aldiz. Zer gertatzen da? Bilbo existitzen al da soilik?”]



kexu ageri den pertsonaia gipuzkoarrak ere Bilbo eta Gipuzkoa parean jartzen dituela. Hots, bere salaketan ez du Bizkaia aipatzen, horren ordez, bere haserrean hiria probintziaren pare jartzen du eta Bilbo lurralde historikoaren mailara ekarriz Bizkaia ordezkatzaile bilakatzen du. Hau da, egoeraz protestatzera doan pertsonaia ere bere diskurtsoan Bilboren nagusitasuna barneratua duela erakusten du: salatu nahi duen horren baitan, salatzen duen diskurtsoa bera erreproduzitzen baitu neurri batean.

Ikus daiteke, beraz, Bilbok zuzeneko zein zeharkako aipu edo eszenetan garrantzia handia hartzen duela EITB-ko up-etan, azken adibide hori izanik, behar bada, esanguratsuenetariko bat. Non, Bilboren garrantzia esplizituki salatzen duen egoera hori bera berresten amaitzen den beste behin.

### 5.2.1.c. Ezaugarriak

#### -Herri eta larre

Hiriburu handien altzoan azaltzen da herri txikien presentzia. Up-tariko asko, zuzenean edo zeharka, testuinguru hiritarraren baitan jartzen dira, inguru urbanoari orpoz orpo jarraitzen diotelarik herrixkek eta horiei loturiko paraje menditsu eta paisaia naturalek.

Abaltzisketa, Etxarri, Dulantzi [UPT32], Legazpi, Leiza [UPT33] edo Pasaia [UPT34] euskal nazioaren geografaren paradigma bilakatzen dira, nahiz eta herri horiek irudikatzen duen up-etan erabiltzen diren paisaiak, herriek errealtatean duten irudiarekin zer ikusirik ez izan. Izan ere, euskal nazioaren tasun geografikoa larre oparo eta mendi orlegiz inguratutako herri baketsuz osaturik irudikatzen da

[UPT8], [UPT33], [UPT32], [UPT34], [UPT11]. Halakoetan, eliza, frontoia eta bi isuriko teilatutun etxe zuriz osaturiko herrixketan barne bildua azaltzen da nukleo urbanoa eta inguru geografiko bukolikoa "euskal paisaiaren" "berezkotasunarekin" lotzen da usu.

Inguru natural horrek hiriarenak ez bezalako karga sinbolikoa eskuratzen du, gainera. Izan ere, euskal nazioari, nazioa oro har hartuta, inguru naturala dagokiola aintzat ematen bada ere, *"nuestro paisaje es verde y frondoso"*<sup>35</sup> [UPT8], paisaia horrek gutxitan hartzen du inguru "normalduaren" papera. Hau da, testuinguru naturala (baserria, herri txikia, mendia, ibaia...) beti doa up-ren *hausturari* lotua, up-aren bidez esan nahi den hori girotzen duen irudi egokitu eta erreferentziako gisa agertzen baita. Hala, up-ko pertsonaia baserritarra edo herri txiki bateko kide denean [UPT33], [UPT8], [UPT32], [UPT34], edota up-ak naturarekin loturiko ekintza edo kirolen bati dagokionean [UPT11], testuinguru berde eta menditsuak agertzen dira up-aren baitan, beti ere up-aren diskurtsoak justifikatzen duelarik haren presentzia.

Hiria, ordea, inguru "normaldu" gisa azaltzen da. Hiri konkretu bati erreferentzia egiten dioten up-en kasua salbuespen hartuta (Bilbo, Gasteiz edo Donostiari dagozkionak, batez ere), gainontzeko kasutan hiriaren presentziak ez du up-en baitan agertzeko justifikaziorik behar, testuinguru neutro gisa aurkeztu ohi baitira. Hartara, landa gunea euskal nazioaren ezaugarri exotiko bilakatzen da. Nazioari espresuki lotzen zaion zeinua izanik ere, erreferentzialtasun hori ez baita "normaldua" agertzen eta horren ordez, egoera jakin batzuetan erabiltzen da soilik, inguru naturalari kutsu berezitua esleituz. Hiria da, beraz, euskal nazioaren atze-ohal eta inguru normatiboa, eta herri txikia zein horri loturiko orografia menditsua, aldiz,

35 ["Gure paisaia berde eta mardula da"]

identitate bereizgarri bitxia. Hala, landa gunea eta herri txikiaren erreferentzia beste nazioetatik bereizteko ikur gisa erabiltzen da eta identitate edo nongotasun baten ezaugarri berezitua (kasu honetan euskal nazioarena) adierazteko balio du.

#### -Klimatologia euritsua

Euskal nazioaren lurraldeari egotzen zaion ezaugarri nagusi eta errepikatuenetariko bat klimatologiarekin zer ikusia duena da. Up-etan arrunki agertzen dira Euskal Herriaren egiten duen eguraldi txarraren inguruko aipuak, eta orotan, ezaugarri negatibo bezala dira erakutsiak. Hala, eguraldi txarraren inguruko adibideetan gaiaren trataera hiperbolizatuak ekarri ohi du *haustura*. Euria, haizea eta hotza euskal nazioaren baitan ohikoak direla agertzeko orduan zaparrada baten azpian, haize erauntsi baten kontra borrokan edo uholdeetan bustirik agertzen baitira pertsonaia eta paisaiak.

*"-Yo, he visto cosas que vosotros no creeríais. He visto el Sol brillar más de dos horas seguidas, buen tiempo más allá de la llanada Alavesa, he visto gente en chanclas en la puerta del Sol en marzo... Y mira ahora [euripean dago] calándome como un gilipollas porque en el "Eguraldi" han dicho que no iba a llover"*<sup>36</sup> [UP7]

ETB2-k igorritako adibide horretan, hizketan dabilen pertsonaia aditzera ematen du euskal naziotik at egon dela

36 ["-Sinesgaitzak irudituko litzaizkizuekeen gauzak ikusi ditut nik. Eguzkia distiratsu ikusi dut bi ordu baino gehiagoz, eguraldi ona Arabako lautadaz harago, martxoan jendea sandalietan ikusi dut Soleko atean.... Eta ikusi orain, ergel bat bezala, "Eguraldian" euririk egingo ez zuela esan dutelako"]



eta kanpoan bizitutakoak kontatzen dabil euskal nazioaren baitan inoiz ikusi gabeko gertakizun sinesgaitzak balira lez. Euskal nazioaren klimatologia "beste" lekuetakoekin konparatzera ekartzen du horrela, "besteak" baino askoz hezeagoa eta kaxkarragoa dela aditzera emanaz. Baina zeintzuk dira "besteak"? Eguraldi eskasa aipatzen duten up-ek, zuzenean edo zeharka, Espainiako klimarekin konparaketa egin ohi dute. Kasu zehatz honetan, adibidez, Madrileko eguraldiarekin egiten den moduan ( *"puerta del Sol"*<sup>37</sup> aipatzen baitu mintzalariek).

Espainiako eguraldiaren konparaketan oin hartzen du *8 apellidos vascos* pelikulak euskal nazioaz erakusten duen irudikari klimatologikoak ere. Ondoko argazkian ikus daitekeen bezala, pelikulako pertsonaietariko batek Andaluziatik *Euskadirako* bidea autobusean egiterakoan, ekaitz bortitzez jositako inguru heze eta ilun bezala irudikatzen du euskal nazioa. Aldaketa klimatikoa, *Euskadin* (EAE-n) mugan bertan irudikatua agertzen da gainera. Hots, eguraldi txarra ez dagokio penintsularen "iparraldeari" (Burgos, Kantabria, Nafarroa...), ez eta *Euskadi* inguruari ere. Horren ordez, erauntsi eta euriteek, *Euskadiko* (EAE-ko) geografia politikoari lotuak doazkio zehatz mehatz, pertsonaia *Euskadin* sartzeaz dagoenean (eta ez lehenago) azaltzen baita ekaitza.

37 "Puerta del Sol" Madrileko plaza ezagunenetariko bat da.



Espainiako klimarekin konparatzeko joera izateaz gain, euskal nazioaren baitan ere lekuan lekuko klimak elkarren artean alderatzeko joera agertzen dute zenbait up-k. Joera horren baitan deigarria suertatzen da Ipar Euskal Herriari egotzen zaiona: Euskal Herrian eguraldi txarra baldin badago, txarrean txarrena, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoari esleitzen zaiona baita.

Hain zuzen ere, gai honi heltzen diote *Bidasoa Biga So! Irri Iparak eta Hego erak* antzerkian. Donostian egindako egiazko kale galdeketa bat abiapuntutzat hartzen dute horretarako. Galdeketa Ipar Euskal Herriari buruz dakitenaren inguruan itauntzen zaie Donostiako zenbait gazteri eta jasotako erantzunen artean Ipar Euskal Herriaz askorik ezagutzen ez dutela agerian jartzeaz gainera, Ipar Euskal Herrian "dagoen" eguraldi txarrari buruzko erreferentzia aberatsak eskuratu zituzte. Jasotako datu horiek ironiaz azaltzen dituzte up-an:

*"-Nolakoa da Iparraldeko Klima Donostiako gazteentzat? Lau hitz aipatu dituzte: negua, hotza, zuria eta izotza. Hori horrela al da?"*[B25]

Honela erantzuten die aktoreetako batek gazteek emandako erantzunei:

*"-Baaai, bai, bai. Ni Donostiara noalarik, abiatzen naiz Baigorritik, eta ematen dut hotzaren kontrako alioa, berotzeko bost jauntzi. Lau reno erabiltzen ditut bere lerakin, ta abiatzen naiz. Ta hartzen dut artza xuriak*

*ehizatzeke gezia. Egia da Senpere eta Ezpeleta arteko bidea artza xuriz betea dagola. Gero Senpereko lakuan hizotza mozten dut zerra batekin, bidean arrainak harrapatzeke nire gosariarentzat. Haize hotza eta tenperaturak 30 grado zeropetik. Oso zaila da.*

*-Beraz Irungo mugan, Santiagoko zubia pasatzen duzue nean sekulako aldaketa nabari duzue ez?*

*-Buuu! Bai, bai, bai. Ezin da pentsatu. Jantzi guztiak erantzi eta eguzkitan jartzen ditut idortzeko. Eta arropaz aldatzen naiz, galtza motxak, lorezko atorra, betaurreko beltzak. Iduzkien kolpeen kontrako alioa ematen dut. (...) Gero gamelu bat alokatzen dut Egia eta Donostia arteko basamortua igaroteko. Harrigarria da nola muga batek klima aldatzen duen!"*[B25]

Up-a ez izan arren, esanguratsutzat jotzen da gazteek Ipar Euskal Herriaz esandakoa kontuan hartzea, horrek aukera eman baitu urruntasun (sinboliko) eta eguraldiaren artean sortzen den lotura erreparatzea. Hau da, elkarrizketatutako gazteek, Ipar Euskal Herriko klima lasgarritzat hartzen dutenean Hego Euskal Herriarekin konparatzen ari dira nahi gabe; bertakoa eskasa izan badaiteke ere Ipar Euskal Herrikoa are txarragoa dela aditzera emateko zalantzarik ez baitute. Hots, Bidasoako mugaz bestaldera klima erroitik aldatzen dela argi azaltzen dute.

Litekeena da, ordea, Ipar Euskal Herriko klima hautematean eguraldiak berak baino, Ipar Euskal Herriarekiko duten distantzia (sinbolikoak) edo ezjakintasunak eragin handiagoa izatea, eta hain zuzen

ere, mugaren "bestaldean" zer dagoen ez ezagutzeak klimarekiko iritzian ere eragina izatea. Hala izanik, iluna eta nahasia dena ez litzateke eguraldia, Ipar Euskal Herria(ri) buruzko irudikaria) bera baizik.

*8 apellidos vascos*-ek ere ariketa bertsua egiten duela ikus daiteke. Izan ere, pelikulan euskal nazioaren klima gogor eta bortitz moduan azaltzen da irudikatua. Baina klimaren normaltasun/oldarkortasun jokoak ez du soilik eguraldian jartzen soa, "gureaz" desberdina den zerbait azpimarratzea dakar berarekin, "muga" zehatz batek markatzen duen desberdintasun geografiko (eta sinboliko) bat. Hau da, klima gogor eta bortitzaren bidez "desberdina" dena irudikatzen da, kasu honetan Espainiaren egonkortasun eta epeltasun (klimatikotik) era bat desberdina den euskal lurralde ilun, gorde eta lanjeros baten ideia indartuaz. Pentsa daiteke lurraldeen arteko bereizketa klimatikoa ez dagokiola eguraldiari bakarrik, baizik eta, lurralde batekiko hurbiltasun/urruntasunaren, ezagutza/ezezagutzaren, ohikotasun/berezitasunaren adierazgarri ere badela. Bai Espainiatik Euskal Herriarekiko (kasu honetan EAE-rekiko) hautematen dena, bai eta Hego Euskal Herriatik Ipar Euskal Herriaz dagoena ere; eguraldi txarra ezjakintasunaren eta ondorioz perilos potentzial baten metafora bilakatuz.

Irakurketa horrekiko *haustura* sortzen dute *Bidasoa Biga So!* antzerkian, ironiaz tratatuz jendartean zabalduriko ustea, eta zentzugabekeriatzat erakutsiz, muga geopolitikoaren eta klimatologiaren arteko lotura zuzena.

### 5.2.2. Hizkuntza

Up-etan euskarari egiten zaizkion aipamenak anitzak badira ere, hizkuntzari ematen zaion erabilera eta egozten zaizkion diskurtsoak aldatu egiten da kasutik kasura. Ondorengo atalean, euskararen inguruko aipamenei ezaugarriak zehazten dira, hizkuntzaren *zuzeneko* eta *zeharkako* trataeraren arteko bereizketa oinarritzat hartuz horretarako.

#### 5.2.2.a. Euskararen zeharkako trataera

##### -Hizkuntza erregistroak

Euskara *zeharka* azaltzen dela esaten dugu *haustura* gisa erabiltzeko aipurik egiten ez bazaio ere up-etan testuinguru jakin bat osatzeko edo girtzeko erabiltzen denean.

Joera hori bereziki nabarmena da ETB1-eko up-etan. ETB1-ek euskaraz igortzen ditu up guztiak baina hizkuntzaren erabilera eta horrek hartzen duen forma ez dira berberak kasu guztietan. Eskuarki, up-etako pertsonaia guztiek euskara batua<sup>38</sup> eta zuka darabilte elkarren artean dihardutenean. Ohikoa den hizkuntza erregistro bilakatzen dira horiek, hau da, ETB1-eko testuinguru linguistikoan oinarri edo *tabula rasa* osatzen dute eta euskaraz komunikatzeko era "normaldu" eta aseptiko gisa aurkezten dira.

Baina zenbait kasutan euskararen erabilera "neutraltasun" horretatik ateratzen da eta batua erabili ordez bestelako erregistroez baliatzen dira up-etako pertsonaiak. Hala, badira kasuak non euskalkiak protagonismoa hartzen duten, edota zuka erabili ordez toka eta noka mintzatzen duten. Moldaketa

<sup>38</sup> Euskara batua, *Euskaltzaindiak* eratuak euskararen eredu normatiboa da.

horiek, alabaina, ez dira modu arbitrarioan azaltzen eta ez zaie euskara batuak eta zukak duten erabilera kuantitatibo eta kualitatibo berbera egozten ere; aitzitik, euskalkiak eta hika up-etako testuinguru eta irudikari jakin batzuetan baino ez dira ematen.

Euskalkien presentziari dagokionez azpimarratzekoa da horren erabilera lotua doakiola up-ko pertsonaiari esleitu nahi zaion jatorriaren irudikariari. Hau da, Euskal Herriko herri edo eskualde jakin batekoa izatearen identitate kutsuari. Hala, esaterako, EITB-ko up-an pertsonaietariko bat bizkaitar lez irudikatu nahi bada, pertsonaiak erabiltzen duen euskararen nolakotasuna haren jatorrirra moldatzen da, eta bizkaitarra dena bizkaieraz hizketan agertzen da [UPT5/7] [UPT11/19][UPT12/4][UPT13/13][UPT21/5][UPF1/6]. Baina horrek alderantzizko irakurketa egitea ere badakar. Hots, up-etan bizkaitarra denak bizkaieraz hitz egiten badu, eta hain zuzen ere hori du bere bereizgarri nagusietariko bat, eskusiboki berari dagokion euskalki bilakatzen da honakoa. Hots, euskalkiak jatorri jakin bat bereganatzen du eta Bizkaia ez den gainontzeko probintzietako pertsonaiak ez dira sekula bizkaieraz hitz egiten agertuko<sup>39</sup>, ulertzen baita euskalki hau ez dagokiola haien lekuko lurralde identitateari. Euskararen gaineko irudikaria asko sinpletzea dakar horrek. Batetik, lurralde bakoitzaren muga geopolitikoek langa linguistikoa marrazten dutela irudikatzea dakarrelako, hau da, hizkuntza erregistroak lurraldeka bereiziaz daudela aditzera ematen delako, dauden fluxu linguistikoak eta bestelako aberastasunak mugatuz. Eta bestetik, lurralde bakoitzari bere baitan homogeneotasun linguistikoa esleitzen zaiolako, euskalki bakarra eta kasu guztietan berdina erabiltzen dela aditzera ematen baita.

Probintzien arteko banaketaz gain, Hego eta Ipar Euskal Herriko muga banaketa indartzeko ere balio dute euskararen erregistroek. Ondoko kasuan ikus daiteke joera hori. Adibide honetan [UPS21/1] hizkuntzaren trataera ez da *zeharkakoa zuzenekoa* baizik, euskararen gaia up-aren *hausturarako* erabiltzen baita. Baina hizkuntzaren eta lurraldearen auzia oso ongi isaltzen dituela

<sup>39</sup> Errealitatean ez da horrela gertatzen, Bergara, Eibar, Soraluze edo Arrasate herri gipuzkoarretan, besteak beste, bizkaiera mintzo baita.

ikusita, egokitzen jo da horren aipamena hona ekartzea. Aipu honetan Zuberoa Hego Euskal Herriaz bereizi egiten du up-ak lurraldeari dagokion ahoskera oinarri hartuta ("ü"<sup>40</sup>). Hemen ere euskalkia erabiltzen da lurraldeen arteko bereizketa markatzeko baina lurralde banaketa honi ñabardura bat gehitzen zaio: probintzien arteko desberdintzapena egiteaz batera, Ipar eta Hego Euskal Herriko irudikapenen arteko alderaketa proposatzen baita. Deigarria suertatzen da Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko pisu edo garrantzia desoreka. 5.2.1. *Le Territoire* atalean ikusi bezala, beste behin ere Hego Euskal Herria hartzen da euskal nazioaren zentro gisa eta Zuberoa Euskal Herritik at dagoela esateko hegoaldekoen ezaugarriak abiapuntutzat erabiltzen dira. Esan nahi baita, "Hegoaldea Euskal Herria izatea ezinezkoa da Zuberoan ez baitakite gaztelaniaz" ere esaterik legoke lurralde banaketa adierazteko, baina hala egitekotan lurraldearen irudikaria erabat aldatuko litzateke eta euskal nazioaren nukleotzat Zuberoa (Ipar Euskal Herria) hartuko litzateke gainontzeko lurraldeak periferian utziaz. Kasu honetan, bestalde, alderantzizkoa gertatzen da eta Zuberoa da periferian dagoena Hego Euskal Herriaren mesedetan.



40 "Ü" hotsa frantses hizkuntzaren fonetikari dagokio.

Edonola ere, aipagarria da diskurtso hori helarazteko up-ak darabilen modua, hain zuzen ere, *haustura* sortzeko manera. Izan ere, Zuberoa Euskal Herritik at uzteko logikoena litzateke Zuberoak lukeen gabezia edo akatsen bat aipatzea, aldiz, up-ak Hego Euskal Herriaren gabezia edo ezintasun bat da argitara dakarrena ("ü" ezin esana). Hala, Euskal Herriaren erreferentziaz Hego Euskal Herria hartzen badu ere, zuberotarrei Hego Euskal Herriko herritarrei baino gaitasun linguistiko gehiago aitortzen dizkie.

Horri lotuta azken aipamen bat. [UPS21] adibidean gertatu ez bezala, Ipar Euskal Herriari erreferentzia egiten dioten up gehienetan ohiko joera izaten da Ipar Euskal Herriaren baitan dauden lurraldeen aipamenik ez egitea, ez eta horien arteko alderaketarik proposatzea ere. Hau da, Hego Euskal Herriarekin gertatzen ez den moduan, Ipar Euskal Herriaren up diskurtsoek asko sinplifikatzen dute bertako lurraldeen irudia, lekuko aniztasunaren aitortza egin ordez, zonalde bateratu, bakar eta homogeenaren irudikaria indartzen baitute. Hori ikus daiteke, esaterako, Ipar Euskal Herrikoak diren up-etako pertsonaietan, zeinak euskalki desberdinak erabiltzetik urruti, "frantses doinu" eta hizkera berberaz irudikatzen diren guztiak.

Oro har, eta Ipar Euskal Herriko adibideen salbuespenarekin, ETB1-eko up-etan lurralde bakoitzak euskalki jakin bat zurkaizten du eta hizkuntza aldaerak euskal nazioaren baitako lurralde bakoitzeko biztanleriaren (bai eta lurraldearen) tipologia irudikatzen laguntzen du. Lurralde bakoitzak dituen ezaugarriak, kasu honetan euskalkiak, probintzia bakoitzeko desberdinak eta errepika ezinak bailiran aurkezten dira<sup>41</sup>, eta bidenabar, aurreko kapituluaren aipatutako "barne-mugen" logikari erantzunez (ikus 5.2.1. *Le Territoire*), probintzien arteko bereizketa eta alderaketa xakitzen da. Hots, up-etan egiten den euskalkien erabilerak lurralde tipologia nazional jakin bat irudikatzen du, zeinak gehiago duen ezaugarri desberdinetako autonomien arteko elkargo batetik, anitza izanik ere bateratua dagoen edo bakarra den naziotik baino.

Modu bertsuan funtzionatzen du hikaren erabilerak ere. Hikaren presentzia up-ak irudikatu nahi duen testuinguruaren edo pertsonaien ezaugarri jakin batzuk

41 Gipuzkoa eta Bizkaia modu indartsuan eta Nafarroa eta Araba apalago.

azpimarratzeko asmoari dagokio. Bi dira hizkeraren erabilerari lotzen zaizkion ezaugarriak. Batetik, up-etako pertsonaiaren bat gipuzkoarra dela agerian jarri nahi denean. Izan ere, kontuan hartu behar da gipuzkoarren hizkerak euskara batuarekin antzekotasun handiak dituela errealitatean eta up-etako lurralde alderaketa egiteak zailtasunak sortuko lituzkeela kasu horretan. Gipuzkoarra denak bere euskalkian hitz egingo balu apenas bereiziko litzateke up-ek eskuarki darabilten euskara erregistrotik (batua). Hala, lurralde bereizketa nabarmenagoa izan dadin, hikaz mintzatu ohi dira Gipuzkoari dagozkiola agerian utzi nahi diren pertsonaiak.

Horretaz gain, bestetik, lurraldeaz haratago pertsonaia jakin bat inguru landatar edo tradiziozko bati dagokiola aditzera eman nahi denean ere, hikaren presentzia nabarmen hazten da. Hots, nekazal inguruari dagozkionak (nekazariak, abeltzainak, herri txikietako biztanleak...) [UPT5/4][UPT12/10] [UPF1/16] edota herri kiroletako kirolari lez irudikatzen direnak (segalariak, pilotariak...) [UPT12/12][UPT13/20] azaltzen direnean, hika darabilte elkarren artean komunikatzeko. Hartara hikaren erabilera ere testuinguru definigarriari oso lotua doakio.

Oro har, beraz, zukaren "normaltasunak" bazterreko aldaera gisa aurkezten du hika, anormal edo ezohiko hizkuntza erregistro lez, eta berdina gertatzen da euskara batuarekin ere, euskalkiei nolabaiteko berezitasuna esleitzen baitie<sup>42</sup>. EITB-ko up-etan indartzen den apartekotasun horrek euskalkiak eta hika hizkuntza erregistro singularragoak bailiran erakustez batera, ordea, erregistro "berezi" horiei esleituriko ezaugarriak ere "bereziak" izan daitezen laguntzen du: darabilten hizkera bezain ("ohikotasunetik") aparte baitaude hizkera hori darabilten pertsonaiak. Hala, esaterako, probintzia bateko biztanle izatea beste eskualdeetan errepika ezina den identitate moduan agertzen da; eta ohikotasunetik at geratzen diren inguru exotiko gisa aurkezten dira landa mundu edo tradiziozko kultura jardueri loturiko subjektu posizioak.

—  
42 Beharbada egoera honek gizartea euskaratzeko erabilitako prozedurari ere zor dio, akademian eta ez etxeetan, ikasitako euskarak (euskara batuak gehien bat) zuka tratamendua lehenetsi baitu sozializazio prozesuan, hika ikasketa esparru partikularrean mugatuz.

### -Fonologia

Euskaraz hitz egiterakoan pertsonaiek erabiltzen duten fonologia (doinua eta fonetika, batez ere) lotua dago testuinguru edo pertsonaia jakin bati esleitu nahi zaizkion ezaugarriekin, eta hikarekin gertatu bezala, bereziki lotua doakio testuinguru landatar edo folkloriko bati dagokion pertsonaia dela erakusteari.

ETB1-ek igortzen dituen up gehienetan pertsonaiak euskaraz hitz egiten dutenean doinu leunez aritzen dira hizketan, deigarria suerta daitekeen inolako berezitasun nabarmenik erabili gabe (beti ere up-aren narrazioak hala eskatu ezean). Haatik, hikaren erabilerarekin gertatzen den bezalaxe, hizketan dabilen pertsonaia tradiziozko edo folklorikoa den esparru bati atxikia badago, aldaerak erakutsiko ditu darabilen hizkuntzaren fonologian. Oro har, hizkuntza doinu gogor eta indartsua darabil hitz egiteko erritmo azkar eta gorabeheratsuan jardunez eta "z", "s", "tz" eta "r"-ak deigarriki ahoskatzen ditu [UPT33/14] [UPT44/3][UPT45/10][UPT61/22].

Joera hori bereziki nabarmena gertatzen da ETB2-ko up-etan edota *8 apellidos vascos* pelikulan [B30]. Kasu horietan doinu eta fonetika aldaerak pertsonaia folklorizatu bat irudikatzeko balio izateaz gainera, euskal kolektiboko kidea (edo "vasco"-a) identifikatzeko ere ezaugarri paradigmatico bilakatzen dira. ETB2-k igortzen dituen edukiak gaztelaniaz direnez, haren up-etan agertzen diren pertsonaiek euskal hiztun tankera har dezaten, batetik, doinu nabarmena erabiltzen dute: azkar, ozen eta zenbaitetan oihuka aritzen dira, eta sarri hizkera zakarra eta mugatua darabilte, euskarazko biraoak gaztelaniazko diskurtsoaren baitan tartekatuz, esaterako ("*Kaben zotz!*" [UPF1/9]). Eta bestetik, fonetikoki euskal hotsak interpretatzen dituzte, "ch"-ak "tx" gisa ahoskatuz, eta "c"-ak "tz" edo "z" lez esanaz [UPT5/6] [UPT11/18] [UPT12/9] [UPT13/21].

ETB2-ko up-etan euskal kolektiboko kideztat jo nahi diren pertsonaia guztiak, ordea, ez dute hala hitz egiten, aldaera fonologikoak testuinguru eta baldintza jakin batzuetan baina ez baitira ematen. Bi adarretan sailka daitezke kondizio horiek: batetik indibidualak, hau da, hizketan dagoen pertsonaiaren nolokotasunaren arabera; eta bestetik, interakziozkoak, hots, pertsonaia desberdinak aurrez-aurre daudenean azpimarratu nahi den harreman mota edo ezaugarrien arabera.

Indibidualei dagokienez, ETB1-en bezalaxe ETB2-an ere, inguru soziokultural landatar edo tradiziozko baten tipologiari erantzuten dioten pertsonaiek soilik erabiltzen dituzte aldaera fonologiko nabarmenak. Baina kasu horretan, nekazari eta kirolariez gain bertsolariak [UPT33/5][UPT34/14][UPT35/21] edota lagun koadrilak (txikiteoan dabiltzan gizonez irudikatutakoak eskuarki) [UPT20/17] ere aritzen dira hala solasean.

Aipagarria da ETB2-k helarazten dituen gaztelaniaz eginiko up horietan euskarazko zenbait adiera ere txertatu ohi direla tarteka. Baina bereziki nabarmena dena zera da, erabiltzen diren hitz horiek testuinguru folkloriko edo tradiziozko bati loturikoak izatea (agurtzeko erabiltzen diren hitzak salbu, "gabon" kasu [UPT1]), erabilera horrek euskararen irudikaria marko kostunbristetan iltzatzen laguntzen duena: "baserritar" [UPT3], "arrantzale" [UPT11], "irrintzi" [UPT4], "sokatira" [UPT15], "sagardotegi" [UPT13], eta abar. Baina kontrako efektua ere indartzen du horrek, euskararen erabilera inguru horietara mugatzeak beste espazioetatik arrotzea baitakar halaber. Euskara, beraz, soilik eta eskusiboki euskal folkloerari dagokion elementu gisa irudikatzen da.

Era berean, aldaera fonologikoen esparru politikoari ere heltzen diote. ezker abertzalekoa den inor irudikatu nahi denean (militanteak, jarraitzaileak edo politikariak, esaterako) baserritar edo bertsolari bati egozten zaizkion partikularitasun linguistiko berberak erakusten ditu pertsonaia horrek [UPT13/22][UPT14/7][UPT18/10][UPT21/12].

Baina tipologia jakin bat izanagatik pertsonaiek ez dute kasu guztietan zertan fonologia desberdin bat erabili behar. Izan ere, zenbait kasutan up-aren testuinguruaren arabera eta batez ere pertsonaia horrek up-aren baitan dituen interakzioen arabera, doinu eta ezaugarri fonetikoak agertu edo desagertu egin daitezke. ETB2-ko up-etan euskal kolektiboko kide diren hiritar eta baserritar baten artean, esaterako, baserritarrak eskuratzen du doinu eta fonetika nabarmenena [UPT4/7]. Aldiz, elkarren artean hizketan agertzen direnak bi baserritar (edo baserritar eta pilotari bat) badira, doinua leundu egiten da eta "c", "r" eta "ch"-ak ez dira bereziki deigarriak izaten [UPT12/5]. Berdina

gertatzen da arlo politikoan ere. Ezker abertzaleko kide bat bakarrik hizketan edota ezker abertzalekoa ez den beste norbaitekin eztabaidan agertzen bada, darabilen hizkera nabarmendu egiten da. Aldiz, ezker abertzalekoak beraien artean hitz egiten agertzen direnean ez da elkarren arteko alderik antzematen [UPT13/4]. Kasu horietan up-aren arretak pertsonaiaren izaera ez den beste zer edo zer aldera jotzen du, nolakotasunak pisurik ez duen beste *haustura* bati buruz jardutea bilatzen duelako diskurtsoak. Nolanahi ere, azken kasu horiek ez dira ohikoenak, arruntagoa izaten baita baserritar eta ezker abertzaleko kideak fonetika eta doinu nabarmenez jarduten ikustea.

Ulertzen dugu euskal hizkeraren ahairez mintzatzean gaztelaniaz diharduen pertsonaiaren "euskal" jatortasuna azpimarratzea bilatzen dela. Baina jatortasun horrek badu aparteko izaera bat, fonetikoki euskal ahotsak interpretatzen dituztenak gutxi batzuk baino ez izateak bestelakotu egiten baitu hizkera molde hori bai eta hori darabilten pertsonaia ere, ezker abertzaleko eta giro landatar edo folklorikoan kokatzen direnak izaten direlarik usu. Fonologia mailan dauden aldaketa horien agerpen/desagerpenaren logikak badu loturarik, beraz, ohikotasun/berezitasun edo "normaltasun"/"anormaltasun" auzi batekin, gehienez pertsonaiaren izaera landatar, abarkadun edo atzerakoa azpimarratzeko erabiltzen baita, ezaugarri horiek ere "normaltasunetik" bestelakotzea dakarrelarik horrek.

Fonologia aldaera horiek kolektibo jakin batzuekin lotura egiten duten modu berean (baserritar edo ezker abertzalekoekin), badute nolabaiteko harremanik euskara hizkuntzarekin ere. Paradoxikoki, ordea, euskal fonologia erabiltzearen eta euskara ezagutzearen arteko lotura bi irizpide horien arteko esteka urriak markatzen du. Esan nahi baita, up-etan euskal doinua edo fonetika izateak ez du euskara jakitearekin zertan harremanik izan behar, izan ere, euskal doinuz diharduten pertsonaia "euskal kolektibokotzat" irudikatzen badira ere, normalki ez dira "euskara-dunak" izaten. Darabilten fonologia partikularraz harago pertsonaiek ez baitute euskaraz dakitenik agerian jartzen ez eta haien artean gaztelania ez den beste ezer erabiltzen ere.

Adibidetzat har daiteke Bilboko inauterietan *"el euskera es complicado"*<sup>43</sup> [B16] euskal fonetika imitatuz baina gaztelania erabiliaz dioen baserriarrez mozorroturiko pertsonaren kasua. Pertsona horrek erabiltzen duen hizkerak (fonetika eta doinuak) euskararena gogorarazten du, baina agerian jartzen du, bai darabilen hizkuntza gaztelania delako eta bai "euskara zaila dela" dioelako ere, euskara ez duela menperatzen.

Ulertzen dugu up-etan euskal fonologia ez doakiola euskarari (hizkuntzari) lotua baina baliagarri suertatzen dela alegiazko euskararen ezagutza bati erreferentzia egiteko, euskal hizkuntzari dagokion fonologia erabiltzeak praxian existitzen ez den harreman sinbolikoa sortzen baitu hizkuntzarekiko. Euskal doinua edukitzea "euskal hitzunei" egozten zaien ezaugarri *pastiche* bilakatzen da horrela. Izan beharko lukeen ezaugarri baten (euskaraz jakitearen) alegiazko keinua, euskaraz badakienaren irudi soila, pertsonaiak ez baitu hizkuntzaren gaineko bestelako ezagutzarik zertan eduki. Horrenbestez, gaztelaniaz egiten diren up-etan euskal doinua edo fonetika edukitzea "euskaldun" jator izatearen erakusle da, aski delarik hala hitz egitea euskal nazioari tradizioz, kulturaz edo folklorikoki dagokion zer edo zer dela identifikatua izateko.

Guzti horren gaineko bestelako irakurketak proposatzen dituzten up-rik ere bada, ordea, euskal fonetika eta marko folkloriko-landatarraren arteko loturen gainean *hausturak* egiten dituztenak. Diskurtso horiek, ordea, ez dira zeharka lantzen eta ez dute up-a girotzeko balio izaten, baizik eta up-aren *haustura* gisa jarduten dute gaiari *zuzeneko* trataera emanez. Ondoko adibidean ikus daiteke horietako bat.

*"Real Academia Españolak 'tz' onartzea erabaki du interneten izan duen zabalkundea ikusirik. (...) Iñaki Perurenaren iragarki baten ostetik etorri da "booma". Izan ere, 300 kiloko harri bat jaso ostean, "Danacol funtziona" esaten duen iragarki hau ospetsu bihurtu da Espainiako gazteen artean"*

[UPB3/3]

43 ["euskara konplexua da"]

*Barretartia* blogeko idazki hori Iñaki Perurena harri-jasotzaileak egindako jogurt marka ezagun baten iragarkian oinarritzen da. Iragarkian gaztelaniaz mintzatzen agertzen da Perurena baina nabarmen erakusten du ama hizkuntza euskara duela, besteak beste, "c" hizkia "tz" lez ahoskatzen duelako modu esajeratuan<sup>44</sup>. "Akatsa" nahita egina (produktua euskal kolektiboaren baitan saltzeko *marketing* estrategia moduan) edo nahi gabean egindakoa izanik ere (Iñaki Perurenak gaztelaniaz hala hitz egiten duelako, adibidez), *Barretartiako* idatziak azpimarra egiten du "euskaldunei" egozten zaien doinuaren nabarmenkerian. Hala, egoera irreal batek sortutako *hausturan* oinarrituz (RAE-k<sup>45</sup> "tz" onartzea erabaki izana), ironikoki ulertzea ematen du euskal doinu eta fonetikaren inguruan gehiegikeriak egiten eta esaten direla, zeinak bidenabar, Perurenak bezala hitz egitea arrunta edo ohikoa den ezer izateko posibilitatetik urrundu eta arrotza den desdoi bilakatzen duen.

Euskararen *zeharkako* trataera aztertzean ikusi da EITB-ko up-ak direla horren erabilera zabalena egiten dutenak. ETB1-ek euskaraz egiten dituen up-etan euskara kudeatzeko duen modua ez da hausazkoa. Aitzitik, ikusi da errepikakorra den joera bati dagokiola, non, euskara batua eta zuka ez diren bestelako erregistro edo fonologiaren erabilera testuinguru folklorikora edo politiko oso zehatzetara (ezker abertzalera) mugatzen den arrunki. Eredu berbera darabilte ETB2-ko up-ek ere. Kasu horietan up-ak gaztelaniazkoak direnez euskal fonetika eta doinuaren imintzioa erabiltzen da hizkuntzari keinu egiteko, eta azken horiek ere marko folkloriko eta politiko berdintsuetan agertzen dira. Oro har, beraz, esan daiteke euskararen *zeharkako* erabilerak "berezitasun" bat iradokitzen duela, hizkuntzaren gaineko irakurketa anormal bat; oso adierazgarriak diren inguru konkretu batzuekin lotzean eta horietan soilik agertzean, bai hizkuntza eta baita testuinguru horiek ere ohikotasunetik bestelakotzen baitira.

44 Iragarkia ikusteko, Danacol (2012)

45 Real Academia Española de la Lengua

### 5.2.2.b. *Euskararen zuzeneko trataera*

Euskarak up-etan zuzeneko trataera duela esaten dugu hausturak sortzeko erabilia denean. Zuzeneko trataerak aldaera desberdinak erakuts ditzake.

#### *-Euskara: hizkuntzatik sinbolora*

Euskara *haustura* gisa erabiltzen duten up-etan hizkuntza ezagutzea eta euskal kolektiboko kide izatearen arteko deslotura agerian jartzen da maiz. Hots, fonologia atalean esandakoari jarraituz, euskara hizkuntza bezala bere horretan euskal nazioarekin uztartzen den errealitate lez ulertzen bada ere, ETB2-ko up-ek indar egiten dute euskal nazioako kide izateko halabeharrezko ezaugarria ez dela azpimarratzen. Ondorengo adibidean joera hori antzeman daiteke. Bertan, euskara menperatzen duen neska katalan batez maitemunduriko mutilaren kasua aipatzen da. Honakoa dio mutilak neskaren inguruan:

*“¡Joder con los catalanes y su amor por lo vasco! ¡Yo llevo aquí toda la vida y ella ya sabe más que yo! ¡No puedo quedar mal delante de ella! A amor por el euskera no me gana ni Dios! ¡Así que para ella soy euskaldun de pura cepa! (...) Pero es que hay muchos dialectos en euskera y el “batua” es muy complicado. Además Euskaltzaindia está cambiando las cosas cada dos por tres”*<sup>46</sup> [UPT8/4]

Adibidearen lehen zatian mutilak argi uzten du benetako euskalduna izateko (*“euskaldun de pura cepa”*) beharrezkotzat zer jotzen duen: euskararekiko maitasuna edukitzea, hain zuzen ere (*“amor por el euskera”*). Hots, euskara bere identitateari dagokion elementutzat dauka eta hain zuzen ere horregatik agertzen du neska katalanarekiko asaldura, neska *“bertakoa”* (*“aquí”*) ez izanik

46 [“Katalanak eta haien ditxosozko euskararekiko maitasuna! Bizi osoa daramat hemen, eta hark nik baino gehiago daki! Ezin dut haren aurrean gaizki gelditu! Euskararekiko maitasunean ez nau inortxok irabazten! Euskaldun jator izan behar dut haren begietan (...) baina izan ere, euskalki asko dauzka euskarak eta “batua” oso konplexua da. Hori gutxi balitz, Euskaltzaindiak une oro aldatzen ditu arauak!”]

ere, euskara berak baino hobekiago menperatzen duelako. Horrek sortzen du up-aren *haustura*: bere “euskalduntasuna” frogatu eta horren alde jokatzeko neska katalanarekin lehian sartzeko mutilak erakusten duen desio indartsua, non, ahalegin horretan euskararekiko maitasunaren hiperbolizazioa egiten duen. Izan ere, up-ak ondoren agertzen dituen irudietan mutilak euskararekiko maitasuna aditzera emateko egiten dituenak irudikatzen dira, esfortzu handia eskatzen dioten ekintzak izateagatik irigarri suertatzen direnak: lehendakariaren izenak buruz ikastea edo ereserkia abesten saiatzea, kasu. Baina deigarria dena zera da, ahalegin guzti horien artean ez dagoela euskara bera ikastearena, aintzat eman ez euskara maitatzeko edo “euskaldun” izateko hizkuntzaren ezagutza ez dela halabeharrezkoa.

Hain zuzen ere, adibidean ikus daitekeen moduan, euskaraz ez jakiteagatik bere burua errugabetzen du mutilak, hizkuntzak euskal identitateari dagokiola ikusten badu ere bere esku ez dauden “kanpo faktoreei” egozten baitie nolabait ez ezagutzaren hobena. Hala, euskalki asko izanagatik ulertzea zaila delako batetik, eta Euskaltzaindiak<sup>47</sup> euskararen inguruko arauak etengabe aldatzen dituelako bestetik, euskara ez ikastea arrazoiak objektibatu (zilegitu edo normaldu) egiten ditu. Ezin ikasiaren aurrean, beraz, euskararekiko atxikimendua ez du hizkuntzaren ezagutza edo erabileran oinarritzen, horren ordez, hizkuntzarekiko “maitasunean” (*“amor por el euskera”*) jartzen du arreta eta euskararen inguruan neskarekin pizten duen lehia, hizkuntzaren jakintzatik urrutituta, maila afektibora eramaten du. Hala, euskara ikasten hasi ordez, hizkuntza neskak baino askoz gehiago miresten eta maitatzen duela agerian jartzen saiatzen da mutila, bere “euskalduntasuna” horrek baieztatzen duelakoan.

Euskara euskal kolektiboari atxikia badoakio ere, EITB-ko up-etan hizkuntzaren alde sinbolikoari heltzen zaio batik bat. Hau da, hitz egiten duen pertsonaia ez du “euskara” bizirik dagoen hizkuntza lez agertzen (partekatua, hitz egina, idatzia, erabilia... dena), baizik eta propioa den (euskal nazioari dagokion) ikur edo zeinu bezala; existitu dadin “maitatzearekin” aski dena, edo

47 1919an sortua, euskara hizkuntzaz arduratzen den instituzio kulturala.



erreferente gisa erreproduzitzen jarraitzearekin nahikoa duena. Euskara ez da sozializatorako tresna gisa ikusten eta euskal nazio identitatearen parte gisa ulertzen denean ez du hizkuntza bezala jarduten, erreferentziako zeinu bezala baizik, esparru sinboliko-sentimentalean tankera emotiboaz bere identitate idealizatuarekiko atxikimendu abstraktua adierazteko erabiltzen duena.

Halako up-en diskurtsoetan euskara errealtate *zombi* lez erakusten dela antzeman daiteke, zeina bizirik eta hilik batera dagoen hizkuntza gisa aurkeztua den. *Zombi* izenlaguna Ulrich Beck-k erabiltzen du aurrenekoz modernitateko "kategoria zombiak" aipatzerakoan (Beck, 2006). Autoreak "baliogabeak" izanik ere oraindik indarrean jarraitzen duten kategoriak adierazteko erabiltzen du. Zehazki, familia, lana edo klase sozialaren esanahia era bat aldatu edo desagertu den garai batean gaudela dio, eta horrenbestez, adierak ere garai berrira moldatu beharko lirakeela azaltzen du. Gehienez, ordea, hori ez da gertatzen eta maiz erroz aldatu edo desagertu diren errealtateei dagozkien kategoriak *zombiak* erabiltzen jarraitzen dira.

Goiko adibidera ekarrita, beraz, ETB2-ko up-ek euskara errealtate edo hizkuntza *zombi* lez islatzen dutela esatean, ez da esan nahi euskara hizkuntza gisa "hilda" dagoenik, baina bai ordea, ETB2-ko up-etan euskararen inguruko aipamenak esanahiez aldatu direla eta hizkuntza ez den beste zer edo zerri erreferentzia egiten diotela orain. "E-u-s-k-a-r-a" hitzak ez dagokio "bizirik" dagoen errealtate bati, horren ordez, maitatu (jauretsi) behar den ikur soil gisa erabiltzen da. Bestela esanda, up-ko pertsonaiak euskara *nahi*/maite du, baina modu idealizatuan soilik, egiazki euskara *nahi* izateak suposatzen duen guztia (ikastea, hitz egitea ...) *nahi* izan gabe. Hala, zinez maite duena ez da hizkuntza, hizkuntzak iradokitzen dion lotura identitarioa baizik; eta ondorioz, euskara ez da hizkuntza gisa "bizitzen", aitzitik, identitate bati dagokion zeinu bezala.

Euskararen sinbolismo horri eusten diote beste hainbat up ere badira. Ondorengo adibidean, esaterako, hizkuntza ezagutzea beharrezkoa ez delako ideian indar egiten da eta euskararen alegiazko ezagutza bat erakusteko zer egin behar den azaltzen dute bertako pertsonaiek:

*"-Expresiones que deberás conocer para parecer que dominas el euskera a la perfección. "Oso polita". Sirve para un roto y un descosido: tengas un bolso, hayas sido madre de un bebe, o tu cuñada te haya regalado un cachorro de cocker. Y también nos sirve si vamos a parque Yellowstone, porque si vemos al oso Yogui también podemos decir "Oso polita!". El segundo consejo para que parezcas euskaldun es, cuando te digan "egunon" o "gabon", que todos sabemos lo que quiere decir, contestad un "baita zuri ere". Rápido, como un latigazo. Y lo más importante para parecer que sabes euskera sin tener ni idea, es repetir la última palabra que dice tu interlocutor añadiéndole un "bai". Hagamos una prueba:*

*-Gabon Oscar, astebururako eguraldi txarra.*

*-Txarra, bai, txarra, bai... Baita zuri ere!*

*-Oso polita!"<sup>48</sup> [UPT4/9]*

Up horretako *hausturak* oinarritzat hartzen du aurrez-aurre jarritako kontraesankortasun bat: euskara menperatzearen zailtasuna eta horretarako erremedioaren sinpletasuna (hiru esamolde ezagutzea). Kontraesankortasun diskurtso argi bat helarazten du horren bidez: euskara erraz ikasteko modurik badagoela esatearekin euskara ikasten zaila delako ideia indartzen baitu.

Azken adibide bitzuk [UPT8/4][UPT4/9] erakusten duten ideia berberei eusten diete hizkuntzaren gaineko hainbat up-k. Batetik, euskara euskal nazioari dagokion errealtate gisa hautematen da eta hain zuzen ere horregatik ekiten diote up-etako pertsonaiek horrekiko "hurbiltasun" bat ezartzeari. Baina bestetik, hurbiltasun hori gauzatzeko zailtasunak azaleratzen dira arrunki, oztopo nagusia ikasten zaila den hizkuntza konplexua izatean datzalarik. Hala,

48 ["-Euskara primeran dakizula erakusteko jakin beharreko esamoldeak. "Oso polita". Denetarako balio du: poltsa batentzako, umea izan berri baduzu, edo koinatak cocker txakurkume bat opari egin badizu. Yellowstone parkera bagoaz ere erabilgarria da, Yogi hartza ikusiz gero "oso polita" esan baitezakegu. Euskalduna zarela irudikatzeke bigarren aholkua honakoa da: "egunon" edo "gabon" esaten dizutenean, guztiok baitakigu zer esan nahi duen horrek, "baita zuri ere" erantzutea. Azkar batean. Eta ideia zipitzik eduki gabe euskara menperatzen duzula erakusteko, solaskideak dioen azken hitza errepikatu eta "bai" bat erantsi. Proba dezagun"]

euskarara gerturatzeko nahia eta euskara ezin ikasia hizkuntzarekiko alegiazko hurreratze baten bidez konpondu ohi da, hizkuntza ikastearekin zer ikusirik ez duten bestelako irtenbideak erabiliaz egin ohi dena: besteak beste, adibidetzat hartu diren up-etan ikusi bezala, euskara maitatuaz edo menperatzen delako plantak eginez.

*-Euskararen zailtasuna*

Azken adibidearen ildoari jarraituaz, up-etan errepikakorra den beste ideietariko bat euskarak ulertua eta ikasia izateko duen zailtasun maila altua da. ETB2-k igortzen dituen up-etan, ohikoa da euskara konplexua, aldrebesa eta ikasten nekeza den hizkuntza gisa aurkeztea. Zailtasun hori muturrera eramatearekin jolasten dute maiz up-ek, ondoko adibidean ikus daitekeen moduan euskara jakin badakitenentzat ere hizkuntza zaila suertatzen dela erakutsiz:

*"nik ulertzen ditut euskaldun zaharrak, alukeria da bizitza guztian euskaraz egin eta gero EGA ateratzeko batua ikasi beharra (...) ditxosozko euskara, hitz egiten badakit, baina gramatika..." [UPT39/11]*

*Haustura* hizkuntza ikasteko konplexutasunaren hiperbolizazioak dakar kasu honetan: ama hizkuntzatzat dutenentzat ere euskararen ezaguera nekeza dela erakusten baitu hizkuntzak duen zailtasunaren ideari zilegitasun handiagoa egotziaz batera. Ideia berdintsuari jarraiki, euskara ikastea ez ezik euskara irakastea ere zein korapilatsua eta neketsua izan daitekeen agerian jartzen duen up-rik badela aipatu behar da. ETB1-ek igortzen dituen up-etan, esaterako, "euskaldun berri"<sup>49</sup> baten bikotekide izateak suposatzen duen sufrikarioa aipatzen du *hausturak*: "*Nekagarria da euskaraz ikasten ari den batekin ibiltzea!*" [UPT48], hainbestearino ezen bikote harremana uzteko arrazoi ere bilakatu daitekeen: "*Euskara gure harremana izorratzen ari da!*" [UPT48/14].

49 "Euskaldun berri" deritzo, ama hizkuntza euskara izan ez duen eta gerora (normalki heldua izandakoan) hizkuntza ikasten jarritako pertsonari.

Euskarak duen zailtasunaren ideia *haustura* gisa agertzeaz gain, *zeharkako* trataera ere jasotzen du zenbaitetan. Hala, up-aren *hausturak* hizkuntza ez den beste zer edo zeri eusten dion bitartean euskara zaila dela aintzakotzat ematen den egoeratzat agertzen da, eta ondorioz, baita haren erabilera kaskarra onargarritzat jo ere. Beheko adibidean ikus daiteke honakoa:

*"Kaiso, ni Aitxol, gara, gintxen ¡Qué difícil! Nada, aquí sigo de empalmada con el Ibilaldi. ¡A tope! Voy a empalmar con Araba oinez, Kilometroa, Nafarroa bai... Ya he aprendido varias cosas, mira eh: bos caña, saspi kalimotxo, hiru txirrisklas, bat... [botaka egiten du] ¡Ala! Ahí se ha ido todo el euskera que sabía."*<sup>50</sup> [UPT4/10]

Ibilaldian<sup>51</sup> dagoen pertsona bat irudikatzen du up-ak. *Hausturak*euskararen aldeko festen funtzioa edo erabilera kolokan jartzen du: bertaratzen direnen motibazio iturri nagusia euskara babestu edo sustatzeko nahia baino gehiago, parranda egitea dela iradokiz. Horren bueltan, "*Araba oinez, Kilometroa, Nafarroa bai*" esanaz ageri da pertsonaia *Araba euskaraz, Kilometroak* eta *Nafarroa oinez* esan beharrean, Ikastolen (eta beraz euskararen) aldeko festak haien artean nahasten dituela edo denak berdinak iruditzen zaizkiola agerian jarritz.

Baina horrekin batera, euskararen erabilera baldar eta akasduen bat agertzen da eszenan, ez hainbeste *haustura* gisa funtzionatzeko, ez baita euskaraz gaizki erabiltzearen inguruan aipurik egiten, baina bai up-a bera "girotzeko". Ibilaldira doanaren perfil bat irudikatzen du up-ak: mozkortia eta euskararekiko interesik ez duenarena. Ibilaldiko gora-beherez hitz egiten duen bitartean, ordea, euskaraz aritzeko dituen zailtasunak agerian jartzen ditu ("*¡Qué difícil!*"), eta horrekin batera, hizkuntzaren erabilera eskasa ("*gara, gintxen*") up-a biltzen duen testuinguruaren parte bilakatzen du. Hots, euskara gaizki erabiltzeak ez du up-aren baitan protagonismorik eskuratzen, haren ulermenerako funtsezkoa ez den aipu osagarri lez erabiltzen baita. Hala, kasu honetan ikus daitekeen

50 ["Ze zaila! Hemen nabil, Ibilalditik jarraian etorri naiz. Topera! Araba oinez, Kilometroa, Nafarroa bai...-ra segiko dut jarraian. Zenbait gauza ikasi ditut dagoeneko, begira eh: bost kaña, zazpi kalimotxo, hiru txirrisklas, bat... Ala! Hor joan da nekien euskara apurra"]

51 Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen aldeko ospakizun eguna da.

bezala, zenbait up-etan euskara ez jakitea ez ezik, euskaraz gaizki jakitea ere normaltzat edo ohikotzat jotzen da: Euskal Herrian bizitzeko edo euskararen alde zaudela frogatzeko, euskara jakitea beharrezkoa ez dela iradokiz.

Horrekin batera bestelako irakurketa bat ere indartzen dute up horiek. Izan ere, euskaraz ez jakitea "normala" dela ikusten den hein berean, euskaraz jakitea "anormala" dela azaleratzen da. Zenbait up-k esplizituki ukitzen dute auzi hau, besteak beste, haien hausturaren *muintzat* horixe bera erabiltzen dutelako. [UPT7/5]-an, adibidez, euskaraz hitz egiten ez dakien bankuko funtzionario bat azaltzen da honakoa esanaz: *"es que estoy apuntado en el Euskaltegi, pero solo sé lo básico"*<sup>52</sup>. Bankua lapurtu nahian pistola eskuan daramala, euskaraz mehatxuka eta diru eskean dabilen lapurrari diotsu. Lapurrak euskaraz dakien norbait ekar diezaioten eskean dabil, baina langiletariko eta bezeroetariko inork ez daki euskaraz, eta azkenean atxilotuta eramaten dute lapurreta erdibidean utzi eta euskaraz dakien inor topatu ez duelako etsita.

*Haustura*, kasu horretan, lapurrak euskaraz lapurtzeko duen eskubidearen aldarrikapen jarraian oinarritzen da; eskakizunaren saturazioak eta horren aurrean etengabeko ezezkoak egoera parodiko izatea baitakar. Hala, euskara ez jakitearen normaltasuna islatzen da baina kontrako egoeraren bitartez; hau da, euskara jakiteak suposatzen duen "arrarotasuna" plazaratuz. Izan ere, lapurrak ez ezik beste inortxok ere ez du euskaraz hitz egiten eta euskaraz hitz egiteko bere aldarrikapena zentzugabekotzat (*arrarotzat*, *anormaltzat*) geratzen da horrela.

Euskararen ez ezagutza normaltzat jotzen den bitartean, euskal hiztunek gaztelaniarekiko izan ditzaketen gabeziak barregarritzat aurkezten dira. Euskal doinu eta fonetikaren kasuan ikusi bezala, euskal hiztun jatorrei gaztelania gaizki ahoskatzea edo erabiltzea egotzi ohi zaie zenbait up-etan: *"¡Si yo podría, iba!"*<sup>53</sup> (sic.)[B5]. Hala, bai modu *zuzenean haustura* sortzeko ezaugarri gisa erabiltzen denean, bai eta *zeharka hausturak* beste zerbaiti erantzuten dionean ere, gaztelaniaren erabilera okerra ezjakintasunarekin lotzen da eskuarki:

52 ["Euskaltegian apuntatua nago, baina oinarritzkoa baino ez dakit"]

53 ["Baldin badezaket, joaten naiz"]. Esaldiak euskaraz ez du zentzurik baina berariaz itzuli da horrela, gaztelaniako esaldiaren logika akasduna errespetatuz, hutsegitea ikuserrazagoa izan dadin.

gaztelaniaz ongi ez jakitea isekarako ezaugarri bilakatzen delarik, alderantzizko kasuan gertatzen ez den bezala. Horrek euskara-gaztelania arteko botere-harremana indartzen du. Izan ere, euskara gaizki menperatzeak ondorioz ez badu edota "normaltzat" jotzen bada, eta beraz, euskaraz ongi jakiteari baliorik egotzen ez bazaio, gaztelania bilakatzen da ezagutu, menperatu eta erabili beharreko hizkuntza, berari dagokiolarik "hizkuntza ofiziala" izateko zilegitasuna. Eta ondorioz, euskara ezagutzeko eta ongi erabiltzeko beharrik ez dagoenez, euskal identitatekin lotzen den "maitatu" beharreko ikur posizioan finkatzen da.

Badira, edonola ere, hizkuntzarekiko bestelako *hausturak* helarazten dituzten up-ak ere. Hain zuzen ere, euskarari egotzen zaion zailtasuna edo euskaraz gaizki aritzearen inguruko normaltasun diskurtsoak iraultzen dituztenak. Horien artean, besteak beste, euskal hiztunek gaztelaniaz mintzatzean egiten dituzten akatsen inguruko bestelako interpretazio bat eskaintzen dutenak topa daitezke. Euskal hiztunek gaztelaniaz hitz egiterakoan egiten dituzten akatsak lotsagarriak izatetik urruti, oker horiek defendatu eta irakurketa positibo bat esleitzen diete zenbait up-k. Hona, adibidez, *Barretartiako* idatzietariko baten adibidea:

*"Zuk, nik eta apustu egingo nuke zure bizilagunak ere badaukala trebetasun hau: hizkuntza umorez kutsatzea! "He cupido": gaztelerazko caber aditzaren partizipio berria, geziak botatzen dituen jainkotxo txiki horren izenkidea. (...) Bitxaratxeroa (...) Et et et, niri ez trigirbersa (...) Incidentalmente (...) Las tres pixukides."* (sic.) [UPB5/5]

Kasu horretan, gaztelaniaz eginiko akatsei ohikoa ez den bestelako irakurketa bat egotziz sortzen da *haustura*. Izan ere, "akatsak" ez dira hanka sartze gisa agertzen, horren ordez, "hizkuntza umorez kutsatzeko" modutzat azaltzen dira, euskarari alaitasun eta bizitasuna emateko nahitara eginiko

hutsak bailiran aurkeztuz. Horren bidez, gaztelaniaz hitz egiterakoan gerta daitezken errakuntzak ez dira lotsa-gorritzeko motibotzat jotzen, eta neurri batean, gaztelaniaz gaizki hitz egiteko "diskurtso/espazio legitimatu" bat eratzen da horrekin batera.

Ildo bereko diskurtso horien adibidetzat har daiteke ondorengo ere. *Beranduegi* saioko up-etariko bat da honakoa, zeinak euskarak duen zailtasun edo konplexutasunaren ikuspegia hartzen duen jomugatzat. Bertan, Laura Mintegi<sup>54</sup> Eusko Legebiltzarrean esandako hitzak hartzen dituzte abiapuntutzat: "*sé que tenéis prisa por lo tanto voy a empezar en castellano y seguiré en euskera*"<sup>55</sup> [UPA18/4]. *Beranduegiko* kazetariak ulertzeraz ematen dute Mintegiren ustetan euskara gaztelania baino hizkuntza motelagoa dela, eta beraz, zerbait azkar esan nahi bada hobe dela gaztelaniara jotzea zuzenean. Mintegiren adierazpenak kontuan hartuz up-a osatzen dute *Beranduegikoek* eta saioa modu geldoan hitz eginez jarraitzen dute, horrekin *haustura* sortuz. Hala, saioko kazetariak saioa euskaraz egitekotan, erritmo geldo horretan hitz egin behar dutela adierazten dute, eta azkarrago egitekotan, gaztelaniara jo beste erremediorik ez dutela iradokitzen dute ironiaz.

Adibide horretan, orain arte ikusitakoak ez bezalako diskurtsoa indartzen da euskararen inguruan, izan ere, Mintegiren adierazpenak baliogabetzeaz batera, euskara, (gaztelania baino) geldoa(goa) dela esatea absurdotzat utzi eta hizkuntzari egozten zaion zailtasun edo konplexutasuna uzkaitez dute.

Euskararen inguruko irakurketen ildo berdintsuari eusten dio honako adibide honek ere [UPS25/1]. Twitterren eskegitako ondoko irudian euskarazko eskariak gaizki idatziak dituen kafe makina bateko argazkia ikus daiteke. Bertan agertzen dira, besteak beste, "*kafe huts mehea*" edo "*kafe hutx luzea*" bezalako euskarazko esaldi akasduak. Kasu honetan, euskara ongi erabiltzen ez jakitea onargarria den zerbait izatetik urruti, lotsatzeko moduko motibo gisa agertzen da. Hau da, euskara erabiltzekotan ongi erabili behar dela aintzat ematen du up

54 Laura Mintegi 2012-2014 artean EH bildu koalizioaren aldetik legebiltzarkide izan zen.

55 ["badakit presaz zabiltzatzela, beraz, gaztelaniaz hasiko naiz eta euskaraz jarraituko dut ondoren"]

honek, eta *haustura*, hain zuzen ere, hizkuntzaren erabilera eskasak sortarazten du. Azpimarragarria da, kasu honetan, euskara gaizki erabiltzea bere horretan jada badela *haustura*. Hots, irudiak ez du erakusten duenaz gairik azalpenik eta uler daiteke euskara trakeski erabiltzen duen adibide bat aski dela hizkuntzaren ezjakintasuna ezaugarri lotsarazle eta "anormaltzat" agertzeko.



Berdina gertatzen da *Beranduegikoek* Antonio Basagoitiren<sup>56</sup> euskarazko esaldiak gogora ekartzen dituztenean ere: "*Karta magnaren transformasioia, euskal kosntituisioia sortzeko beharreskoa da*" (sic.) [UPA19/5]. Halako up-ek ez dute gain-lanketarik eskatzen, esandakoaz aparteko esplikazio edo txistearen garapenik, *haustura* gisa funtzionatzen baitu euskararen erabilera txarrak. Edo bestela esanda, desdoi moduan aurkezten da euskara ongi ez menperatzea.

56 Antonio Basagoiti EAE-ko PP-ko lehendakaria izan zen 2008-2014 bitartean.

-“Yo hablo euskaraz”<sup>57</sup>

Up-ak euskararen inguruan helarazten duen diskurtsoaz gaindi edo euskara *haustura* gisa erabiltzeko dagoen moduz aparte, kontuan hartu behar den beste ezaugarrietariko bat up-aren eraketan gaztelania eta euskararen erabilera formalaren nolakotasuna da<sup>58</sup>. Izan ere, aztertu diren euskarazko up gehienak euskara hutsean egindakoak badira ere, adierazgarria da euskaraz egiten diren up-en baitan gaztelaniazko hitzak edo esaerak erabiltzen dituzten up-en kasuen ugaritasuna. Euskararen edo gaztelaniaren erabileraren zergatiak eta funtsak hobeto ulertzeko, up adibideez gain elkarrizketetan jasotako informazioa ere aintzat hartu da ondorengo azpi atalean.

Honakoa aipatzen du elkarrizketatu batek euskarazko up-etan egiten den gaztelaniaren erabileraz:

*“remate asko, esaera asko, dauzkagulako oso argi erderaz, ez dakit grazia gehio iten duela bezela erderaz, eta askotan iten det narrazioa euskeraz dena baina rematea edo hola erderaz (...) Ez dakit zer gertatzen den hor baina egia da erreferente oso garbiak eta oso fuerteak dauzkagula ederatikan. Ordun guk dauzkagu muletilla asko erderatikan datozkigu”* [E15]

Elkarrizketatuak gaztelaniak (“erdarak”) euskara baino umoretsuago izateko duen gaitasunaz dihardu, bere ustez, gaztelaniaz egindako up-ak onartuak eta oso barneratuak baitaude euskal kolektiboaren baitan (Hego Euskal Herriaz ari da batik bat) eta horrek, euskaraz egiten diren up-etan bere eragina duela dio. Besteak beste, up horien forma linguistikoan gaztelaniaren erabilera sustatzea dakarrelako.

Euskara eta gaztelania nahasian erabiltzen dituzten up-en adibideak ugariak dira, hala: ETB1-ean [UPT59/4][UPT60/17], *Bodologoetan* [B7] edo bakarrizketetan [B8] maiz aurki daitezke euskaraz hasi eta gaztelaniaz amaitzen

57 [“Ni euskaraz mintzo naiz”]

58 Hausnarketa horrek ez dagokio hausturei zuzenean. Edonola ere esparru honetan aldaera esanguratsuak ematen direla ikusita, gaztelania eta euskararen erabilera formalak nolakoak diren kontuan hartzea garrantzitsutzat jo da.

diren up-ak. Hots, up-aren *haustura*, graziaren muina alegia, gaztelaniaz burutzen dituztenak. Izan ere, beste elkarrizketatu batek esaten duen gisan:

*“erdera erabili behar da, euskeraz umorea egitean erabili behar da erdera, baita euskera gazki erabilia ere. Azken finean hori da jendeak kalean erabiltzen duena, ta zuk jendeangana hurbiltzea bilatzen duzu”* (sic.) [E16]

Euskara eta gaztelaniaren arteko nahasketak, beraz, kaleko hizkera lez hautematearen abantaila du, euskara hutsean egiten diren up-ek lortzen ez duten “hurbiltasuna” eskaintzen baitio, eta neurri horretan, baita “naturaltasuna” eman ere. Elkarrizketatuen diskurtsoak bat egiten du aurrez aipatu diren up-en adibideenarekin [UPT4/10] [UPT7/5]; euskara eta gaztelania nahasian erabiltzea, nahiz eta euskaraz hanka sartzeak egin, “kaleko” hizkuntzaren parte delako ustearekin.

Ikuspegi horri jarraiki, zenbait up-k esplizituki agertzen dute hizkuntzen nahastearen aldeko ideia, kasu honetan “euskañolari” gorazarre eginez:

*“Hay un idioma que está revolucionando la calle:*

*-¿Qué tal Antxon? Zer moduz?*

*-Super ondo nago ¿y tú?*

*-Bastante ondo*

*-Me alegre ¡Hasta gero!*

*-¡Luego gero!*

*Nuestra academia de “euskañol” le ofrece la posibilidad de ponerse al día en las nuevas tendencias idiomáticas. Nuestros métodos son muy sencillos ¡Etorri pa’ca! No lo dude, el “euskañol” es una apuesta segura para el futuro.*

*Algunos de nuestros antiguos alumnos se lo pueden confirmar ¡Euskañol, molatzen mazo!”* <sup>59</sup> [UPT14/24]

59 [“Kalea iraultzen dabilen hizkuntza bat agertu da: -Zer moduz Antxon?/-Ezin hobe. Eta zu?/-Nahiko ongi/-Pozten naiz, gero arte!/-Gero gero! Gure “euskañol” akademiak hizkuntza joera berrietan eguneratzeko aukera ematen dizu. Metodo errezak darabilzkigu. Etorri hona! Ez zalantzarik izan, “euskañola” etorkizunerako beharrezkoa da. Gure ikasleek baieztatu diezaguzte.”]

Jendeak "kalean" erabiltzen duena euskara eta gaztelaniaren ("españolaren") arteko nahasketa dela deritzo up-ak, eta hain zuzen ere joera horri jarraituaz, "euskañola" irakasten duen akademia sortu izana ematen da aditzera. Gogoan izan behar da hizkera mota hau lagunarteko girora mugatzen dela arrunki eta maiz kritikatu eta gutxietsia izan dela euskararen erabilera baldarra egitea dakarrelako. Kasu honetan, ordea, balioa erantzen zaio "etorkizuneko" lengoia lez irudikatuz ("*apuesta segura para el futuro*"), eta akademian erakustearen ideia indartzeaz batera, ohikoa ez den aldarria egiten du up-ak "euskañolaren" alde: horren izaera akademikoa proposatzean "euskañolak" izan lezakeen "zuzentasun" eta "ofizialtasun" posible bat agertuz. Horrek *haustura* dakar berekin, ohikotasunean kritikatzeko den zerbait ("euskañola") goraiatuz lortzen dena.

Horri dagokionez, iritzi argia dute zenbait elkarrizketatuek eta aditzera ematen dute "euskañola" gaizki ikusia badago, euskara "babestua" dagoelako dela. Bilboko PP-ko udal zinegotziak honakoa dio euskararen inguruan egiten diren up-ez:

*"Bueno pues al final hemos aprendido algunas cosas, que hay que verle el sentido del humor a otras cosas, a cosas banales, (...) cosas casi que, bueno pues, como el euskera ¿no? Que estaba protegido, que no admitía humor ¿no? Bueno pues... Yo me acuerdo de ese programa que había esos cursos de "euskañol". Pues va de eso. Que hay que romper con eso también"*<sup>60</sup> [E13]

Euskararen inguruko up-ak egitearen aldekoa da elkarrizketatua, bere ustez errealitate "banalak" diren heinean up-ak egin baitaitezke. Euskara errealitate horien artean sartzen du, up-en bidez hizkuntzaren bueltan ezarri diren mugekin "hautsi" behar dela agerian jarriaz. "Euskañolaren" inguruan egindako up-a aipatzen du *haustura* horren erakusle gisa, euskarari eta ez "euskañolari" buruzko up-a dela iradokiz. Elkarrizketatuaren ustez, beraz, hizkuntzen

60 ["Azkenean zenbait gauza ikasi ditugu, beste gauza batzuk ere umorez hartu behar direla, banalak diren gauzak, (...), gauzak ia ia, bueno ba, euskara esaterako, ez? Babestua zegoen, ez zuen umorerik onartzen, ez? Bueno ba... Gogoan dut programa hura, "euskañol" kurtsu horiek agertzen zituen. Horretan datza. Horrekin ere hautsi behar da."]

arteko nahasketa goraiatzeak, euskarari egotzi zaion ukiezintasuna edo "zuzentasunarekin" apurtzen laguntzen du.

Bada azken ideia horrekin ados dagoen beste elkarrizketaturik: "*beti euskera zuzentzen aritzeko joera handia izan degu, beti oso korrekto izatekoa, elitismo punto bat, eta hori aldatzen joan behar da*" [E16]. Elkarrizketatu honek ere bat egiten du aurreko ideiarekin, eta euskara errealitate banaltzat ikusten ez badu ere, ez du zalantzarik haren inguruko up-ak egitea onuragarria delaz. Hain zuzen, hizkuntzaren gehiegizko "korrekzioetik" atera eta hizkuntza gizarteratzen lagun dezakeela pentsatzen baitu.

Euskararen larregizko zuzentasun horretan oin hartzen dute hainbat up-ek. Ohikoak dira, besteak beste, Euskaltzaindiari eginikoak, non zaharkitua, aspergarria, eruditua, eta gizartetik urruna den egitura gisa irudikatzen den [UPA6/11]. Bai euskara irakasle edo euskararen adituak direnen inguruan eginikoak ere, zeinetan hizkuntzarekiko duten ezagutza eta jakintzak, pertsona astun, sasi intelektual eta aspergarri bilakatzen dituen [UPT45/18]. Badirudi, beraz, euskarari badariola nolabaiteko kutsu elitista eta minoritarioa, zeina up-en bidez kolpatu eta apurtzen saiatzen diren zenbaitzuk, nahiz eta horretarako halabeharrezko baldintza euskara oker edo gaztelaniarekin nahastua dagoen bat erabiltzea den.

Zenbait elkarrizketatuek, ordea, findu egiten dute haien azalpena eta euskararen zurruntasunetik ateratzeko euskara zertan "gaizki" ez dela erabili behar azaltzen dute: "*Guk euskalkiak erabiltzen ditugu, ez dugu erdera erabiltzen. Agian noizbait, baina euskalkiak erabiltzen ditugu. Hori da lagunekin erabiltzen duguna, guk horrela erabiltzen dugu.*" (sic.) [E26a2]. Kasu honetan, up-ak sortzeko bestelako "kaleko" euskara erabiltzen duela dio elkarrizketatuek, eta hikaren erabilera proposatzen du horretarako bitartekotzat.

Ikuspegi horri jarraiki, euskara eta gaztelaniaren nahasketak euskararen aldeko ondorioak sortarazi baino, euskal hiztunen eskubideak kaltetzen dituela pentsatzen duenik ere badago. Horien artean daude, esaterako, *Beranduegi*



saioko kideak. Honakoa diote EITB-k bere aurrekontuetan %17ko murrizketak izan dituela albistetzat agertzen dutenean:

“-Horregatik Maite Iturbe zuzendari berriak aldaketa handi bat egitea erabaki du: ETB2 kentzea.

-Eta erdaldunen hizkuntza eskubideak?

-Lasai, izan ere aldaketa txiki bat egongo da euskarazko programazioan ere.

Hemendik aurrera egunean hogeita lau ordu Kontuz Atsuak!” [UPA11/3]

Azken esaldia amaitzerakoan, *Kontuz Atsuak!* saioaren irudiak jartzen dituzte *Beranduegikoen*, *Kontuz Atsuak!* saioan ematen diren elkarrizketetan gaztelania maiz erabiltzen dela erakutsiz. Honen bidez, ETB1-ek *Kontuz Atsuak!* saioa produzitzen duenean, hots, euskara hutsean beharko lukeen telebista katean gaztelania erabiltzen duten edukiak igortzen ditutenean, euskal hiztunen eskubideak urratzen direla agertzen dute *Beranduegikoen*.

Ironia darabilte horretarako, esan nahi dutenaren aurkakoa helaraziaz haien elkarrizketan. Batetik, diru murrizketen aurrean ETB2 kenduko dela agerian jartzen dute, EITB-k dauzkan kateen artean gehien ikusten dena hori izanik nekez desagertuko litzatekeela jakin badakiten arren [E6]. Bestetik, “*erdaldunen hizkuntza eskubideen*” inguruan ardura erakusten dute, EAE-n gaztelania hiztunak gehiengo izanik haien eskubideak inoiz gutxi (edo behin ere ez) urratzen direla ezagutzen badute ere [E6]. Eta azkenik, erdal hiztunek ere gaztelaniaz telebista ikusteko duten eskubidea berma dadin ETB1-ek *Kontuz Atsuak!* igorriko duela soluzio gisa planteatzen dute, zeinak, erdal hiztunen eskubideak bermatu ordez, euskal hiztunenak zapaltzen direla aditzera emateko balio duen.

Aipatua behar da *Kontuz Atsuak!* saioan ohikoak direla, oro har, gaztelaniazko aipuak: “*¡No sabes tú bien, oye!*”<sup>61</sup> [UPT71/5], “*¡Menuda bruja estás hecha!*”<sup>62</sup> [UPT67/14], “*¡Eso es sexual!*”<sup>63</sup> [UPT67/15]. Halako aipamenak euskaraz

61 “[Ez dakizu zuk ongi!”]

62 [“Sorgin galanta egina zaude!”]

63 [“Hori sexuala da!”]

egindako esaldien amaieran darabilte eskuarki (up-aren “*remate*” lez [E15]), aurretik esan den moduan up-aren *hausturari* “indarra” eta “hurbiltasuna” emateko baliabide gisa. Euskara eta gaztelania nahastearen gainean sortzen da haustura *Beranduegikoen* kasuan beraz, “ohiko” jarduera lez agertzen den hizkuntza erabileran atentzio fokua jarri eta euskal hiztunen eskubideak kaltetu ditzakeela iradokiz.


Laburbilduz, beraz, euskararen erabileraren nolakotasuna eta euskara eta gaztelaniaren erabilera partekatuen arteko eztabaida irekia dagoela argi ikus daiteke, eta ondorioz, up-ek ikuspegi desberdinen arabera irakurketak sortzen dituztela antzematen da. Azpimarratu nahi da, berriro ere, lanaren helburua up-ekiko hautemana aztertzea ez bada ere, ezinbestekotzat jo dela hizkuntzaren trataeraren inguruan dauden ikuspegiak agerraraztea (modu azalekoan bada ere) eta horretarako egin diren elkarrizketetako informazioaz baliatzea. Batetik, elkarrizketetan ageri diren diskurtsoak (eta diskurtsoen arteko lehiak) up-etan ere presente daudelako, eta horiek ezagutzea, bestetik, up-en *hausturak* kokatu eta hobekiago ulertzeko lagungarri delako.

Aipatu diren up-en eta elkarrizketatuen aipuak kontuan izanik, beraz, honako diskurtso hauek bistaratu dira euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanaren inguruan. Batetik, gaztelania eta euskara elkar nahastea onuragarritzat jotzen dutenak. Horien baitan bi azpitalde: lehena, euskararen elitismoarekin apurtu behar dela esanez biak nahastea hizkuntzari freskotasuna emateko modu gisa hautematen duena. Eta bigarrenaz, euskara (edo euskaraz eginiko up-ak) gizarteratzeko modua izan daitekeela iradokitzen duena. Bestetik, hizkuntzen nahasketaren aurka ageri den korrontea dago, honakoa ere bi azpitaldetan banatua: batetik, gaztelania zertan erabili gabe euskarazko up-ak erabiltzerik badagoela defendatzen duena (hika erabiliaz, besteak beste); eta ikuspegi ezkorrago batetik, euskara eta gaztelania nahasteak euskarari (edo euskal kolektiboari) kalte egiten diola deritzona.



*-Euskara eta gaztelaniaren arteko bestelako harremanak*

Hizkuntzen arteko nahasketak ez du zertan eztabaia piztu beti, hala, up-ak euskara hutsean edo euskara eta gaztelania erabiliaz egitea defendatzen duten iritziak ez dira agerian jartzen ondoko kasuetan.







Argazkian antzematen den adibidean [UPS3/1], esaterako, euskara eta gaztelania batera erabiltzen dituen up bat agertzen da. Ekintza edo jarduera baten definizioa proposatzen da bertan, "barre egitea erratza pasatzea dela" iradokiz. Esaldiak dioena euskara hutsean ulertuko balitz ez luke inolako zentzurik izango, izan ere "barre egitea" irriz aritzeari dagokio, eta itxuraz behintzat, ez luke "erratza pasatzearekin" zer ikusirik. Baina hitz jokoa behar bezala ulertua izateko, gaztelaniaren ezagutza minimo bat edukitzea eskatzen du up-ak. Izan ere, gaztelaniazko "barrer" (euskarazko "eskobatu") aditzean oin hartzen du up-ak, "barre egiten" duena barrezka dagoena izan beharrean erraztatzen dabilenari esateko adiera lez proposatuz.

Antzeko logikari eusten diote Twitterren bidez zabalduriko ondoko up-ek ere, *haustura* moduan baitarabilte bi hizkuntzen arteko semantiken antzekotasuna: "¿Qué hace una manzana en un arbol? Sagarra"<sup>64</sup> [UPS10/1] edo "¿Qué le dice una lenteja a otra? No voyas dilista"<sup>65</sup> [UPS7/1]. Up-ek diotena konprenitzeko beharrezkoa da bai euskara zein gaztelaniaren ezagutza edukitzea, oso konplexua litzatekeelako, bestela, galdera eta erantzunaren arteko harremana behar bezala ulertzea. Lehenengoan "sagarra"-k gaztelaniazko "se agarra"-ri egiten dio erreferentzia, sagarra (fruitua) zuhaitzean eskegita edo zuhaitzari heldua dagoelako ideiarekin jokatuz. Eta bigarrenean, aldiz, "dilista"-k "lenteja" hitzaren euskarazko adierarekin jokatuz, gaztelaniazko "de lista" -ri (azkarra, harroa) dagokio.

64 ["Zer egiten du sagarrak zuhaitzean? Eutsi"]

65 ["Zer esaten dio dilista batek besteari? Ez itzazu azkar plantak egin"]

Gaztelaniarekin ez ezik, frantsesarekin ere uztarketak sortzen dira zenbaitetan. Ondorengo Twitterreko elkarrizketan ikus daiteke kasu bat [UPS19/1]:



Elkarrizketak kafea hartzeko modu desberdinek jasotzen duten frantsesezko izenez dihardu, “noisette” eta “café crème” zerri dagozkion argitu nahian [UPS19]. Baina segidan sortzen dira izen horien inguruko up-ak, eta hizkuntza batak eta besteak eskaintzen dituzten interpretazio ugarietan oin hartzen hasten dira *hausturak*.

“Noisette” (ebakia euskaraz) esateko beste modurik ba ote dagoen galde egiten dutenean zabaltzen da *hausturak* ematen hasteko parada: euskarazko adieran “hur bat” izan zitekeela proposatuz erantzun moduan [UPS19/1]. Euskara eta frantsesaren arteko hitz jokoa sortzen du horrek: batetik, frantsesezko “noisette” hitzaren itzulpen literala erabiltzen delako (“hur”), eta horrek euskaraz esanda kafearekin zer ikusirik ez duelako. Eta bestetik, “hur”-ek duen “ur” hitzaren antzekotasun fonetikoaz baliatuz, “hur bat” eskatzeak kafearen ordeaz ura eskatzea litzatekeelako. Hasierako aipu horiez baliatzen dira ondorengoak ere, eta hitz jokoa korapilatzen eta euskarazko eta frantsesezko hitz eta adierak elkar lotzen jarraitzen dute Twitterreko hizketaldian.

Azken adibide horietan, orain arte ikusitako besteetan bezalaxe, euskara eta frantsesa edota euskara eta gaztelania (“euskañola”) erabiltzen dela ikus daiteke. Baina up hauek ez dute besteek adinako eztabaidarik sortu, alderantziz, Twitter erabiltzaileak gaiaren inguruan parte hartzera animatu eta *haustura* berriak eraikitzea ekarri baitu. Zer dela eta?

Aurreko azpi-atalean (“Yo hablo euskaraz”) ikusitako “euskañolaren” inguruko up-ek hizkuntza erabilera “azalekoa” egiten dutela esan daiteke, up-a ulergarria izan dadin euskarari inolako funtzio aktiborik eman gabe. Aukeraketa estilistiko batengatik, hots, euskararen presentziak up-aren grazia areagotzea dakarrela iritzi delako edota euskarari kutsu “elitista” kentzeko baliagarritzat jotzen delako, euskarak kasu horietan duen betebeharra ez da komunikatzearena, forma estilistiko jakin bat ematearena baizik. Twitterreko adibideak, ordea, urrundu egiten dira hizkuntzaren azaleko erabileratik eta up-aren *hausturan* bi hizkuntzak, euskarak eta gaztelaniak edo frantsesak, paper aktiboa dute, funtzionala, eta hizkuntzen arteko joskerak parekideagoak dira. Hala, pentsa daiteke euskara eta gaztelaniaren arteko botere-harremanen interpretazioan

oin hartzen duela ikuspegiaren arteko aurkakotasunak (euskara eta gaztelania erabiltzeko alde eta aurkako diskurtsoak). Hain zuzen ere, hizkuntzaren erabilera ez doakiolako zuzenean lotuta *hausturaren* ulergarritasunari, up-ri eman nahi zaion itxurari baizik. Esan nahi baita, hizkuntza nahasketak apenas sortzen dute norgehiagokarik baldin eta hizkuntzen pareko erabilera aktiboa egiten bada.

Orain artekoa kontuan hartuz ikus daiteke hizkuntzaren *zuzeneko* trataera egiten duten up-ak *zeharkakoak* baina anitzagoak direla diskurtsoetan. Horrek zer ikusia du egiletzarekin ere, EITB-k ez ezik bestelako matrize kulturala (apostata) dutenek ere hizkuntzaren *zuzeneko* lanketa duten up sorkuntzak egiten baitituzte. Diskurtsoen aniztasun horretan bi korrante nagusi antzeman daitezke, neurri batean gaztelania eta euskararen artean lehendik ere badauden botere-harremanen isla izan daitezkeenak. Batetik, euskararen pragmatismo oro ukatzen duten up-ak daude, euskararen balioa identitate nazionalaren ikur izatera mugatzen dutenak, besteak beste, euskararen ez ezagutza justifikatu eta gaztelaniaren nagusitasuna ohikotasun gisa erakutsiz. Adibide horietan hizkuntzaren erabilerari loturiko irudikarian euskara jakitea ez da ezinbestekotzat hartzen, elite edo euskaltzale bakan batzuen ardurak bilakatzen baita, eta ez ordea, biztanle xumeen eginbeharra. Hala, jokoz kanpo geratzen da euskarak egunerokotasuneko hartu-emanetarako duen pisua, eta horren ordeaz, euskal identitateari esleituriko erreferente “exotiko” bilakatzen da gaztelaniaren arruntasunaren mesedean. Bestetik, euskara sustatzeko joera erakusten duten *hausturak* topatu dira. Halakoek gaztelaniaren normaltasunaren aurkako diskurtsoak indartu ohi dituzte, inplizituki euskararen erabilgarritasunaren eta baliagarritasunaren alde joaz. Honen baitan bada, halaber, euskarari kutsu elitista esleitu eta hori kritikatzeko duenik, eta kaletarragoak izan daitezkeen euskara moldeak edo hizkerak aldarrikatzen dituzte: euskara nagusi izanik gaztelaniaren aldizkako erabilera egiten dutenak, edota hika gisako erregistroak darabiltenak.

Bada up-etan aurkitu den hizkuntzaren gaineko bestelako jokamolderik ere, aipatu berri diren bi korrante nagusi horien artean koka daitekeena, euskara eta

gaztelania (edo frantsesa) erabili eta horren gaineko *hausturak* modu parekidean proposatzen dituenak. Azken korrante honetan, aurrekoetan ez bezala, ez da hizkuntzaren gaineko diskurtsorik helarazten (normaltasun-anormaltasun irudikaririk) baina oso esanguratsua da, aldiz, up hauek darabilten hizkuntza tratamendua. Hizkuntza desberdinez osaturiko up-ak dira, forman eta edukian bi hizkuntzei paper aktibo bat ematen dietenak eta haustura ulertua izateko bien ezagutza edukitzera behartzen dutenak. Kasu horietan hizkuntzen arteko botere-harremanak ez dira ikusgarriak, eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren erakusgarri bihurtzen dira, pareko erabileraz direlako tratatuak up-aren baitan.

### 5.2.3. Kolektiboa

Euskal kolektiboari dagozkion irudikariak ugariak dira up-etan, oso ohikoa izaten baita kolektiboaren ohiturak, diskurtsoak, praktikak edota izaera definitzen duten zuzeneko zein zeharkako edukiak aurkitzea. Jarraian lantzen den atalean irudikapen horien tasuna jartzen da agerian, bi azpiatal nagusitan banatu delarik informazioa horretarako. Alde batetik, ikusi da euskal kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarritariko batzuk kolektiboaren gaineko *ikuspegi konbergentea* darabiltela. Hau da, euskal kolektiboko kideak molde bereko ezaugarriak konpartitzen dituztela aditzera ematen dute, eta ondorioz, bere baitan homogenea den talde gisa irudikatzea dakarte. Bestetik, ordea, kontrako ikuspegia bultzatzen duten up-rik ere badela antzeman da, hain zuzen ere kolektiboaren *ikuspegi dibergentea* darabiltenak. Azken horiek dira kolektiboa bere baitan anitz eta aberats gisa antzematen dutenak, up-etan desberdintasun horiek bistaratzeaz arduratzen direlarik. Up horiek dira, paradoxikoki, kolektiboa beraren kide izatearen sentimendu edo ustetik harago ezaugarri komunik halabeharrez konpartitzen denik uste ez dutenak.

#### 5.2.3.a. *Ikuspegi konbergentea*

Ikuspegi konbergentea deritzogu euskal kolektiboa modu homogeneoan antzematen duten up-en ikuspegiari. Hau da, euskal kolektiboari ezaugarri orokor eta komun batzuk egotzi eta kolektiboko kide guztiak honakook partekatzen dituztela aintzat ematen duten diskurtsoak darabiltzatenei.


Ikuspegi hau konpartitzen duten up-en artean euskal kolektiboaren bi aspektu lantzen dira eskuarki. Batetik, euskal kolektiboaren "sorreraz" dihardutenak daude. Euskal kolektiboak jatorri komun bat duela, eta beraz, gaur egun kolektibokoak direnak enbor beretik sortuak direlako ideia indartuaz sarri. Ikuspegi konbergentearen baitan jorratzen den bigarren ildo nagusiak euskal kolektiboari egun atxikitzen zaizkion ezaugarriak lantzen ditu. Horri dagozkion up-ek kolektiboko kide izateak tasun jakin bat edukitzea eta konpartitzea dakarrela baieztatzen dute, talde bereko izateak halabeharrez ezaugarri berdintsuak edukitzea dakarrela aintzat emanaz.

Jarraian datozen azpi ataletan zehazten dira bi ildo nagusi horien xehetasunak. Horretaz gain, eta ikuspegi konbergentearen baitan joera desberdin ugari daudela kontuan izanik, ideia nagusiak laburbiltzen dituen eskema lagungarri bat erantsi da atalaren hasieran (*aRP.1* eskema).

#### -*"Enborra"*: *Izan edo egin*

Euskal kolektiboaren jatorriaren auziari heldu dioten up-ek kolektiboaren sortzea nondik edo nola jazo den esplikatzeko azalpen desberdinak eskaintzen dituzte. Oro har, bi multzotan sailka daitezke up horiek: zenbaitzuk, euskal kolektiboaren kultura eta identitatearen irakurketa *esentzializatua* proposatzen dute, kolektiboak "betidanik" existitu duela iradokiaz haien diskurtsoetan. Beste batzuk, aldiz, perspektiba *eraikitzaileago* edo politikoago bati heltzen diote eta euskal kolektiboa historikoki eratzen eta formatzen joan den herri gisa aurkezten

aRP.1:



dute. Jarraian ikusiko den moduan, ordea, azken ikuspegi hori darabilten up-ek ere diskurtso *esentzialista* bat indartzen amaitzen dute zeharka.

Lehen korronteari dagozkion up-ek euskal nazioak gizakiaren historiaren hasieratik existitu duela jartzen dute agerian. Nazio bat izatearen kontzientzia politikoa eduki aurretik ere euskal kolektiboa talde beraren parte sentitu eta beste etnia edo kolektiboetatik desberdina den kultura zehatz bat konpartitzen duen gizarte lez irudikatzen da. Ikuspegi hori duten up-en baitan bi joera diskurtsibo topa daitezke. Batetik, euskal kolektiboaren betiereko presentzia irakurketa naturalista/biologizista baten bidez azaltzen dutenak daude. Hau da, tximutik gizakiranzko eboluzio "naturaleko" momenturen batean, gizakia "euskaldun" bihurtu zela iradokitzen dutenak. Hala, esaterako, kobazuloetan bizi ziren lehen gizaki/tximuak jadanik euskal kolektiboko kide balira lez islatzen dituzte zenbait up-k, eta gaur egungo euskal kolektiboaren tasunaren sorburua, historiaurreko kolektibo horren interakzioetan kokatzen dute. Hartara, besteak beste, gipuzkoar, bizkaitar eta arabarren arteko alegiazko desberdintasunak [UPT18/20]; bizkaitar eta gipuzkoarren arteko ustezko ezin ikusia [UPT19/14]; edota euskal kulturaren baitan tradiziozkoztat jotzen diren dantza eta musika tresnen asmakuntza [UPT20/16], kobazuloetako biztanle haien elkarbizitzaren ondorio direla agertzen dute. Euskal kolektiboa betiereko gisa aurkezteaz gainera kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarriak ere betikotu egiten dituzte horrela. Hain zuzen ere, euskal kolektiboaz gaur egun egiten diren hainbat interpretaziok justifikazio sendo bat eskuratzen dutelako up hauetan, funtzionatzeko erak eta ezaugarriak ia "naturalak" bailira aurkeztuz, eta aditzera emanez "gizakia" sortu zen unean ezaugarri horiek jadanik existitzen zutela. Hala izanik, (esentzialki) saihestezinak bailiran aurkezten dira euskal kolektiboari "dagozkion" hainbat jardunbide: "*Es que somos así*"<sup>66</sup> [UPT20/16].

Sorrera naturalista/biologizistaz gain, euskal kolektiboa "betidanik" existitu dela irudikatzen duten up-en artean ohikoak dira kolektiboari sorrera

66 ["Halakoak gara eta"]

jainkotiarra egozten diotenak ere. Halako kasuetan jainkozko kreaizotzat jotzen da euskal kolektiboa, Jainkoak gizakia sortu zuenean (Eva eta Adan) euskal kolektiboko kide gisa sortu zituela iradokiz. Lehen bi gizakiak eta ondorioz haien oinordeko guztiak ere bai, denak, euskal kolektiboari dagozkiola irudikatuz [UPT19/5][UPT19/12].

Ildo horiei dagozkien up-etan *haustura* bi irudikari desberdinen arteko uztarketak sortzen du. Bi zentzutan ematen da honako lotura. Batetik, historiaurreko gizakiari edota figura biblikoei egungo euskal kolektiboko kideek dituzten ezaugarriak esleituz. Izan ere, bai tximino zein Bibliako pertsonaien interakzio, gatazka, amets, nahikaria, kultura jarduera eta hizkuntza erabilerak gaur egungo euskal kolektiboak dituenaren pareko irudikatzen dira<sup>67</sup>, testuinguruaren desdoin horrek tximino eta Bibliako pertsonaien irudikariarekiko *haustura* sorrarazten duelarik. Bestetik, alderantzizko irakurketa hartu behar da kontuan, izan ere up horietan uler daiteke gaur egungo euskal kolektiboa tximinoak edota Jainkoak egindako lehen gizakitik apenas eboluzionatu duen gizartea dela. Kasu horretan, *haustura* gaur egungo euskal kolektiboa "basati" edo aurreratu gabeko gisa ikusteak dakar, hain zuzen ere, testuinguru historikoa delako, eta ez kolektiboa bera, aldatzen joan dena; kolektiboaren ezaugarriak "esentzialak" eta aldakaitzak direla ulertzera ematen duelarik horrek, beste behin.

Edonola ere, euskal kolektiboaren sorreraz diharduten up gehienek kasuan ikuspegi eraikitzaileago bat nagusitzen da. Edo hobe esanda, lehen begiradaz eraikitzaileagoa dela dirudien diskurtsoa darabilte. Bigarren korronte honi eusten dioten up-etan euskal kolektiboa betierekoa den errealitate lez uler badaiteke ere, honen agerpena (kolektiboaren aitortza) lotuagoa doakio une historiko jakin batean eskuratzen den kontzientzia politikoari, betiereko berezotasun "natural" bati baino.

67 Eva eta Adanek, esaterako, gaur egungo hizkuntza moldez dihardute haien artean: "*¿Tienes fuego?*" ["Surik bai?"]

Honakoa dio, adibidez, Sabino Arana<sup>68</sup> irudikatzen duen pertsonaia batek: *“¡Recordad que sois vascos porque a mi me dio la gana!”*<sup>69</sup> [UPT3/6] [UPT4/8]. Kasu honetan, adibidez, aipua agerian jartzen du euskal kolektiboko kideak (“vascos”) historiako une jakin batean eratzten (sortzen) direla, eta beraz, ez dela betidanik existitu den errealitate bat, eskuratutako identitate politiko baten emaitza baizik, Sabino Aranak izenpetutako/egotzitako/sortutako identitate baten ondorio (*“porque a mi me dio la gana”*). Kasu honetan *haustura* ideia horren hiperbolizazioak sortzen du, ahalguztidun gisa aurkezten baita Sabino Arana euskal kolektiboa hark nahi bezala eta nahi izan zuenean sortu zuela erakutsiz. Edonola ere, aipua ez du garbi aitatzten Sabino Aranaren ikuspegi nazionalistak etnizitatetik asko duela. Izan ere gogora ekarri behar da Aranak batik bat arrazan oinarritzen duela euskal kolektiboaz duen ideia, eta beraz, *“sois vascos”* [“euskaldunak zarete”] dioenean ulertu behar da Aranak “v-a-s-c-o” bezala izendatu zituelako dioela berari esker bilakatu zela gizartea “vasco” edo “euskal”. Izan ere, berak defendatzen duen arrazaren ideia kontuan hartzen bada lehendik ere (Aranak izena eman aurretik ere) bazegoen euskal kolektiborik, nahiz eta kolektiboko kideek horren kontzientziarik ez izan.

Sabinoren hitzekin jolasteagatik ez ezik, itxuraz ikuspegi eraikitzaileago bat lantzen duten up horiek euskal kolektiboaren ulermen esentzial eta azpikontzienteari atxikitzen zaizkiola pentsatzeko bestelako motiborik ere bada, ordea. Izan ere, bigarren korrante honi dagozkion up-ak euskal kolektiboa (historikoki) eraikia dela agertzen badute ere, eraketa horri loturiko ezaugarriek determinismo etniko edo kultural baten inguruan jarduten dute gehiengoan. Ondoko adibideetan ikus daitezke horietako batzuk: a) lurraldeari buruzkoak, *“cuatro, siete o tres, nosotros hemos estado aquí desde siempre”*<sup>70</sup> [UPT31/3]; b) jatorri etnikoaz, *“nos hemos ido haciendo una raza fuerte”*<sup>71</sup> [B8]; c) konpromiso politikoaz *“¿Eres de los nuestros?”*<sup>72</sup> (EAJ-PNV-ri egiten dio erreferentzia

68 Sabino Arana Goiri euskal nazionalismoaren sortzailetzat jotzen den politikoa eta ideologoa da

69 [“Gogoan izan euskaldunak zarete nik hala nahi izan nuelako!”]

70 [“Lau, zazpi edo hiru, gu betidanik egon gara hemen”]

71 [“Arraza indartsu bilakatuaz joan gara”]

72 [“Gu’-tarra al zara?”]

[UPT8/11]; d) euskal kulturaren parte sentitu edo honen ezagutza izatea, *“gure kultura bizirik badago, gu ere bai”* [B6]; edota e) hizkuntza, *“el más antiguo de Europa y de ahí hemos salido ¿no?”*<sup>73</sup> (euskarari buruz ari da)[UPT15/4].

Kasu horietan euskal kolektiboaren sorrera historikoki eraldatzen joan diren faktoreetara lotua agertzen da, eta ondorioz, historikoki eraldatzen joan den kolektibo gisa hautemateko bidea erakusten duela dirudi: a) lurraldea aldatu dela (eta aldagarria dela) onartzen da; b) jatorri etnikoa “eraiki” egiten dela agertzen da; c) konpromiso politikoa eskuratzen den zer edo zer dela; eta d) kultura eta e) hizkuntza sozializazioz ikasi eta aldatzen doazen egitateak bezala. Baina funtsean izaera esentzialista duten ezaugarriak dira horiek ere. Izan ere, kolektiboaren sorrerarekin lotzen diren ezaugarriak kolektiboa bera zedarrizteko aldagai gisa funtzionatzen dute: a) lurraldea bateko edo bestekoa izanik ere, euskal kolektiboa halaber horri atxikia dagoela ulertzen da; b) jatorri etnikoa aldatzen joan bada ere, “araza” bati dagokiola helarazten da; c) konpromiso politiko edo ideologia jakin bat izateari mugatzen zaio kolektiboaren parte hartzea (EAJ-PNV-koa izateari); eta azkenik, euskal kolektiboari d) kultura eta e) hizkuntza partikular eta propio bat egozten zaizkio, errepika ezin eta berezkoak dituenak. Horri lotua, halaber, kontuan hartu behar da *hausturak* up-en testuinguruak eta pertsonaien nortasunak baldintzatua datorrela. Diskurtso horiek helarazten dituztenek indartsuki eta konbikzioz adierazten baitute euskal kolektiboari estuki lotuak daudela, talde bateko kide izatearen harrotasun fanatikoaren hiperbolea eginez.

Aipatu berritako ikuspegi eraikitzaileak euskal kolektiboa historikoki (eta motibo desberdinengatik) sortua izan dela ulertzeko parada ematen badu ere, aintzat hartu behar da aipatzen diren ezaugarrietariko bakoitzak halaberrezko baldintzatat erakusten duela bere burua (hizkuntza, jatorri etnikoa, lurraldea...), eta ondorioz, horietariko bakoitza beste ezaugarriekiko esentzial gisa agertzea

73 [“Europako zaharrena, eta hortik sortu gara, ezta?”]

dakarrela ezinbestean. Ondorengo adibideetan ikus daiteke argiago euskal kolektiboaren eraketari lotzen zaizkion ezaugarri historikoki aldagarri horien izaera esentziala.

Lurraldea eta arraza [a] eta b)], adibidez, gutxitan erabiltzen dira *haustura* gisa, oro har, zeharkako aipuak jasotzen dituzten euskal kolektiboari loturiko ezaugarriak baitira. Hala, esaterako, up-an euskal kolektibokoak diren gurasoak dauzkan pertsonaia kolektibokotzat da kontsideratua [UPT4/11], eta berdin Euskal Herriko zazpi lurraldetariko batean jaio dena ere [UPT34/17].

Zenbaitetan, ordea, eta bereziki bi ezaugarri horietako bat betetzen ez duen pertsonaien kasuan, euskal kolektiboko kide izateko (edo izaten jarraitzeko) bestelako baldintza batzuk betetzea eskatzen zaio. Hala, "naturalki" Euskal Herrian sortu ez denak edota euskal kolektiboko gurasorik ez duenak bere euskal identitatea beste era batera "osatu beharko" du; besteak beste, ideologia politiko jakin bat edukiaz [c] edota euskal kolektiboaren praktika kulturaletan aritzen dela frogatuz [d]), adibidez. Azken horri dagokionez ohar bat gaineratu nahiko genuke. Izan ere, euskal kolektiboari up-etan lotzen zaizkion praktika kulturalak dagokionez deigarria da "euskal kultura" zer nola irudikatzen den ikustea, esleitzen zaizkion praktikak eta erreferentziak oso mugatuak izan ohi baitira. Hots, ez zaie musika, poesia, argazkilaritza edo arte plastikoaren inguruko autore edo obrei aipurik egiten, horren ordez, euskal folkloreak topiko bilakatu diren zenbait herri kirol edo dantzak soilik hartzen dira kontuan eta up-ek errepikapenak sortzen dituzte horien inguruan, kultura urri eta tradizioetan oso sustraitua dena etengabe irudikatuz. Halako jarduera kulturalak euskal kolektiboaren muinetako bat izatera iristen dira up-etan (herri kirolak eta euskal dantzak, bereziki) eta horiekiko lotura euskal kolektiboaren parte izateko ia zuzenki proportzionala den baldintza bilakatzen da: horiek gero eta gehiago praktikatuz edo horietaz gero eta gehiago jakin, orduan eta kolektiboko "kideagotzat" jotzen baita pertsonaia, ezagutza horiek euskal kolektiboaren genesiaren eta tasunaren oinarritzko ezaugarri (aldakaitz) bailitza.



Horren adibidetzat har daiteke, esaterako, ETB2-k igorritako ondoko kasua. Bertan kanoi batean sartua dagoen "maketo"<sup>74</sup> bat agertzen da. Egingo dioten galderari behar bezala erantzuteko gai ez bada kanoia piztu eta "Euskaditik"<sup>75</sup> at botako dute. Honakoa da galdera: "*¿Cuál es la diferencia entre cesta punta y remonte?*"<sup>76</sup>. Baina maketoak ez du erantzuna ezagutzen eta kanoia martxan jartzen da mutila Espainiara bueltan bidaltzeko. Kanoikada bota aurretik, ordea, azken aukera bat eskaintzen diote, euskal kolektiboko kide izaten jarrai baitezake EAJ-PNV-ri botoa emanez gero: "*tiene el comodín de hacerse votante del PNV*"<sup>77</sup> [UPT12/16].

Adibide honetan euskal kolektiboko kide izateko bi baldintza jartzen dira agerian. Batetik, oinarritzotzat jotzen diren kultura ezagutzak izatea, herri kirolen inguruko zehazki. Bestetik, atxikimendu politiko jakin bat edukitzea, EAJ-PNV-ko hauteslea izanez. Up-ak aditzera ematen du, hala, kolektiboko kide izaten jarraitzekotan oinarritzotzat jotzen den ezaugarria kulturari dagozkion ezagutzak edukitzea dela. Baina hori bigarren maila batera igarotzen da ideologia politikoa definitzerako orduan: ez-ezagutza kulturala "barkatu" egiten baita EAJ-PNV-ren aldeko agertuz gero. EAJ-PNV-ren aldeko izatea, beraz, euskal kolektiboko kide izateko zuzeneko ezaugarri gisa agertzen da: hizkuntza, lurraldea, jatorria, arraza edo kulturaren inguruko ezagutzarik ez izan arren,

74 Espainiatik Euskal Herrira lan egin eta bizitzera etorri denari dagokio. Mespretxuzko adiera da, bereziki Bizkaia aldera hurbildutako etorkin espainiarrei erreferentzia egiteko erabili izan dena. Azken horiei "coreano" edo "belarrimotz" ere esan izan zaie.

75 Hala izendatzen da euskal nazioa esketxean

76 ["Zein da zesta-punta eta erremontearen arteko aldea?"]

77 ["EAJ-ko hautesle egiteko komodina har dezakezu"]



(up-ko "maketoaren" kasuan gertatzen den moduan) euskal kolektiboaren parte izatea ahalbidetzen baitu botoa alderdi "egokiari" emateak.

*Haustura* desberdinak aipa daitezke kasu horretan. Batetik, irudikatu den testuinguruak sortzen duena. Nahiz eta tonu alai eta dibertimenduzko batean bildurik egon up-ak "garbitasun etniko" bati dagokion jarduera islatzen du, "gogor" edo "baztertzaille" gisa identifikatu daitekeen jokamolde bat inolako konplexurik gabe burutzeak dakarren desdoia *hausturako* baliatuz. Eta bestetik, garbitasun etniko hori aurrera eramateko jartzen diren zailtasun eta erraztasunak dira aipagarri, kolektiboko kide kontsideratua izateko balio gutxiago baitu kulturaren inguruan ezagutzak edukitzeak, alderdi jakin bati botoa emateak baino. Hala, EAJ-PNV euskal kolektiboko kide izateko ideologia politiko egoki gisa agertzeaz gaindi, euskal identitatearen funtsezko ikur ere bilakatzen da.

Hizkuntzaren auziari dagokionez [e], ordea, aipatu behar da jarrera malguagoak direla aspektu horretan. Izan ere, 5.2.2. *Hizkuntza* azpi atalean ikusi den moduan, euskaraz dakiena zuzenean euskal kolektiboko kide gisa irudikatzen bada ere, euskal kolektibokoa izateko ez da halabeharrezko baldintzat hartzen euskaraz jakitea: "¿Yo? Vasco. Y de pura cepa además" <sup>78</sup> [UPT15/16]. Kasu honetan, adibidez, hori dioenak euskal kolektiboko kideztat du bere burua, nahiz eta gaztelania erabiltzen duen hori adierazteko. Aurreko atalean esandakoa birgogoratuz beraz (ikus 5.2.2), euskarak praktikarako hizkuntza baino balio gehiago du identitate zeinu gisa.

Orain artekoa kontuan hartuta, euskal kolektibokoa izatea edo ez izatea zeri dagokion ez da argi ikusten. Up-etan ideia eta ikuspegi anitzak daude gaiaren inguruan eta euskal kolektiboko kide izateko "halabeharrezkoak" diren ezaugarriak aldatu eta elkarren artean konbinatu egiten dira kasutik kasura. Zenbait up-k muturrera daramate azken egoera hori eta ezaugarri edo baldintzak zeintzuk diren ez argi egoteagatik, unean uneko apetaren arabera inor sar edo atera daitekeen kolektibo gisa agertzen dute. Halako

78 ["Ni? Euskalduna. Eta peto-petoa gainera"]

kasuak euskal kolektiboarekiko ikuspegi politiko/eraikitzailearen baitako adibide muturrenakoak dira: euskal kolektiboari esleituriko ezaugarrien kutsu deterministarekin apurtu, eta gogoaren arabera, inolako behartasunik gabe, hartu edo utzi daitekeen kolektibo edota identitatea dela agerian jartzen baitute. Ondoko adibidean argi ikus daiteke esandakoa. Athletic-en futboleko jokatzera sartu berri den jokalariren jatorriaz hitz egiten dute bi pertsonaiek:

*"-Este nuevo fichaje no sé yo si encajará en la filosofía del Athletic jeh! No lo veo.*

*-Mira, mira, mira... ¡Gooooo! Será lo que será ¡Pero ha marcao gol!*

*- ¿Cómo que lo que sea? ¡Este es vasco! Vasco hombre. ¡Más que Sabino Arana!*

*(...)*

*-Pero jeh! Dicen que se va al Manchester ¡Si es que ya sabía yo! Riojano tenía que ser...*

*-¿Riojano? ¡Este lo que es, es un españolazo! ¡Ala porai!"* <sup>79</sup> (sic) [UPT27/5]

Adibidean euskal kolektiboari dagokion edo ez dagokion erabakitzeo irizpidea aldakorra ez ezik interesatua ere badela agerian jartzen da. Golak sartu eta futbol ekipoarentzat onuragarria dela ikusten den bitartean euskal kolektibokotzat onartzen da, eta Errioxan sortua izateak ez du horretarako inolako oztoporik suposatzen. Baina beste futbol ekipo batean jokatzeari Athletic baztertzen badu, eta beraz, zaletuen artean begi onez ikusteari uzten bazaio, ez da gehiago euskal kolektibokotzat hartzen, eta horren ordez, espainiar gisa identifikatzen da. *Hausturak*, beraz, euskal kolektiboaren zehaztugabetasun eta malgutasunaren gehiegikerian oin hartzen du.

Up-an, batetik, euskal kolektiboaren definitzeko orduan ezaugarriak kasuan kasuko balioa eman eta kentzen zaiela ikus daiteke, non, adibidean lurraldearekin gertatzen den moduan, kolektiboko kide izateko edo izateari uzteko baldintzat hartzen den. Bestetik, aintzat hartutako ezaugarria edozein izanik ere up-ak agerian jartzen du horren irakurketa malgua eta

79 ["-Fitxaketa berria, ez dakit nik ba, Athletic-ren filosofiarekin bat etorriko ote den, eh! Ez dut argi ikusten. / -Adi, adi, adi... Gooool! Edozer izango da, baina gola sartu du! / -Nola edozer? Hau euskalduna da! Euskalduna, noski. Sabino Arana bera baino gehiago! / (...) - Baina, eh! Manchesterrera doala diote. Esaten nuen ba nik! Errioxar izan behar... / -Errioxakoa? Hau espainolazoa da! Hor konpon!"]

aldakorra izan daitekeela. Izan ere, goiko kasuan ikusten den bezala, *a priori* euskal kolektiboko kide izateko baldintzat jotzen dena (lurrealdea) une jakin batetik aurrera erabakitzailea izateari uzten dio, Euskal Herrikoa edo Errioxakoa den ez baitu haren sorterriak definitzen, jokalaria egozten zaion irakurketa sinbolikoak baizik (Athletik-ekin duen loturaren eta taldeari egiten dion ekarpenaren arabera). Hala, ezaugarria "objektiboa" dela iruditu badezake ere adibideak iradokitzen du horren interpretazio kolektiboaren balio eta nahien arabera dela, eta beraz, unean une egotzitako kapital sinbolikoak baldintzatzen duela ezaugarriek kolektiboa sailkatzeko duten gaitasuna. Adibidean, hala, Athletic-eko jokalaria euskal kolektiboan sartu eta horretatik ateratzeko duen azkartasun eta erraztasunaren hiperbolearen bidez, euskal kolektiboko kide izateko zehaztugabetasuna agerian jartzen da.

Tentuz ibili behar da, ordea, malgutasuna eta aniztasuna elkar ez nahasteko. Euskal kolektiboaren mugak aldakorrak direla aurkezten bada ere, muga horiek kolektibo guztia barnebiltzen baitute finean eta bere baitan homogeneous den taldetzat erakusten da sarri. Hots, euskal kolektiboa ezaugarri baten arabera "zehazten" duten up-ek ezaugarri desberdinak erabili ohi badituzte ere (bai kolektiboaren jatorriari dagozkionak, bai eta ondoren hori zedarritzen duten ezaugarriak ere, lurrealdea, jatorri etnikoa, hizkuntza, praktika kulturalak...), euskal kolektiboa komun eta konpaktu gisa erakusten dute guztiek. Hala, kolektiboari esleitzen zaizkion tasunak askotarikoak izan badaitezke ere, bata aipatzen denean halabeharrezko ezaugarritzat, funtsezko eta bakartzat, irudikatzen da, besteak, egon badaudela onartuta ere, kontingenteak baliran aurkeztuz. Ikuspegi konbergenteko up-ek agerian jartzen duten euskal kolektiboaren ulerkera, beraz, honela labur daiteke: euskal kolektiboko kide zein den eta zein ez sailkatzeko baldintzak askotarikoak izan badaitezke ere, baldintza horien artean bat aukeratuz gero, taldean dauden guztiek baldintza horixe bera komunean dutela ulertzen da.

Baina ikuspegi horri jarraiki, up-etako irudikarien arabera euskal kolektiboa gainontzeko talde etnikoetatik (nazionaletatik) bereizten dituen ez da hainbeste lurrealdea, arraza/odola, hizkuntza, alderdi politiko jakin batekoa

izatea, euskal kulturaren ezagutza edukitzea edota euskaraz aritzea. Alegia, euskal kolektiboko kidea direnak eta ez direnak up-etan desberdinu arazten dituen ez dira elkarren artean trukagarriak diren aipatu berritako aldagai horiek (hain zuzen ere elkar aldagarriak izateagatik finkoak ez direlako). Horren ordez, euskal kolektiboko kideak definitu edo irudikatu nahi dituzten up-ek bestelako irizpideak erabiltzen dituzte, askoz ere konstanteagoak eta errepikakorragoak izan ohi direnak eta edozein gisako testuinguru zein interakziotan azalpenik eman gabe agertzeko aukera ematen dutenak: horiek, hain zuzen ere, ezaugarri fisiko eta intelektual/kognitiboak dira.

Ezaugarri horiek kolektibo osoari ezartzen zaizkion bereizgarri sinplifikatuak dira, oro har estereotipo lez funtzionatzen dutenak: horien artean daude indartsua, jatun ona, hitzeko pertsona, kirolari sutsua edota sexualki erreprimtua izatea bezalako bereizgarriak. Ezaugarri horiek eta jarraian zehaztuko diren ildo bereko beste batzuk erabilera masiboa dute up-etan, etengabe erreproduzitzen dira, gehienetan up-aren baitan funtzio aktiborik betetzen ez badute ere (*haustura*). Estereotipoen erabilera jarrai horrek, ordea, haiekiko sentikortasuna galtzea dakar. Partikular edo berezi izateari uzten diote, bai eta ondorioz, identifikagarri izateari ere, eta testuinguru "normalduaren" parte bilakatzen dira automatikoki. Hau da, euskal kolektiboko kide batek (masa zabalarri dagozkion irudikapenetan) halabeharrez izan behar dituen ezaugarri izaten amaitzen dute. Bourdieuren hitzek ongi laburbiltzen dute estereotipoek dakarten naturalizazio prozesu hori:

*"son producto de un trabajo social de nominación y de inculcación al término del cual una identidad social instituida por una de estas 'líneas de demarcación místicas' conocidas y admitidas por todos que dibuja el mundo social se inscribe en una naturaleza biológica y se convierte en hábito, ley social asimilada."*<sup>80</sup> (Bourdieu, 2000:68)

80 ["Izendatze eta barneratze lan sozialaren produktu dira. Mundu soziala marrazten duten 'mugaketa mistikoak', zeinak gizartean ezagunak eta onartuak diren eta haien bidez identitate sozial bat osatzen duten. Identitate horiek natura biologikoan txertatzen dira ohitura, onartutako arau sozial, bilakatuaz."]

Modu aurre-arrazionalen euskal kolektiboari esentzialki ("biologikoki" Bourdieuren hitzetan) dagozkion ezaugarri bilakatzen dira, oso nabarmenki antzetzten direnean salbu, up-etan oharkabea eta "normaltasunez" (*framearen*<sup>81</sup> parte bilakatuz) garatu ohi direnak<sup>82</sup>, ("euskal") izate baten "berezkotasun" natural gisa funtzionatuz.

- *Euskal kolektibokoaren tasuna*

#### a) *Ezaugarri orokorrak*

Eta zeintzuk dira ezaugarri horiek? Nolakoa da euskal kolektiboa? Euskal kolektiboaz igortzen den irudikarietariako askok erreferentziatzat izaten dituzte fisikoarekin zer ikusia duten ezaugarriak. Erresistentzia, indarra, bizkortasuna, gorputzaren tamaina handia, gaitasun fisikoa, kemena, esfortzurako ahalmena... bai modu zuzenean (*hausturen* bidez) bai eta zeharka ere (testuinguruaren parte bilakatuz) up-etan sarritan daude presente. Egia da, bestalde, euskal kolektiboaren ezaugarriak ez direla zertan fisikora mugatu behar, izan badirelako izaerari eta jokatzeko moduei heltzen dieten berezitasunak. Horien artean, esaterako, serioak, hitzekoak, egoskorak, sexualki

81 *Frame*-aren kontzeptua Goffmanetik hartu dugu (Goffman, 1986), kasu honetan up-aren testuinguru gisa ulertuz.

82 Honi dagokionez oso adierazgarria suertatzen da *Antena 3* espainiar telebista kate pribatuan bi aktore euskalduni egiten dieten zuzeneko elkarrizketa bat ikustea. Bi elkarrizketuak arrakasta handia lortu berri duen *Ahi Abajo* telesailako aktore izateagatik gonbidatu dituzte. Euskal Herrikoak dira biak eta telesailan, hain justu, euskal kolektiboko kideen plantak egiten dituzte. Adierazgarriena da, ordea, elkarrizketan daudenean (aktore gisa, ez pertsonaia gisa) telesailan erabiltzen dituzten keinu, hizkera, interakzio eta abar berdintsuak erabiltzen dituztela. Hau da, nabarmendu egiten dute euskal kolektiboko izateari egozten zaizkion zenbait ezaugarri, estereotipo edo egiazko nortasunaren arteko bereizketa egitea ia ezinezko bihurtuz. Bideoa ikusteko, El Hormiguero, (2015).

erreprimituak edota pertsona konprometituak izatea bezalakoak. Ezaugarri batzuk zein besteak, ordea, ez dira elkarrengandik hain desberdinak, lehen begiradaz iruditu dezaketena baina harreman handiagoa dutelakoan baikaude. Uste dugu *ikuspegi konbergentetik* euskal kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarri orokorrak elkarren artean erlazionatuak daudela, ulertzen dugulako ikuspegi partekatu baten bueltan eraikitzen eta osatzen joan direla. Esan nahi baita, kolektiboari loturiko bereizgarriak ez direla hausazkoak, baizik eta haien arteko gutxiengo loturarik badutela. Harreman horren xehetasunak azaltzen dira jarraian, non, euskal kolektiboa zedarritzen duten ezaugarriak, gehiago edo gutxiago, gorputz fisikoari loturiko irudikarietatik abiatzen direla proposatzen den<sup>83</sup>. Hala, bai fisikoa modu zuzenean darabiltenek (indartsuak, sendoak...), baita horiek aipatzen ez dituztenek ere (hitzeko pertsonak, konprometituak, mozkortiak...), guztiek gorputzarekin zer ikusia duten ikuspegietatik abiatu diren edota horrekin estuki harremanetan dauden irudikariak direla iradoki nahi da. Lotura hori *gorputz-tasun* gisa izendatu dugu.

Euskal kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarri guztiek ez dute gorputzarekiko lotura berdina. Leunenak direnek gorputzarekiko harreman hori kirolerako zaletasunetik abiatzen dute. Korrika [UPT40/4], txirringa [UPT18/11], sega [UPT41/5], harria jasotzea [UPT45/6], arrauna [UPT50/19], soka-tira [UPT43/12],

83 Kolektiboa eta zehazki nazioa eta gorputz fisikoaren arteko lotura ez da berria: "*Las vinculaciones entre el cuerpo y la nación resuenan inevitablemente a consideraciones ampliamente debatidas en el ámbito de la ciencia política en torno a la figura del rey. El rey, como epitome del estado-nación moderno. La nación, en este sentido, se convertiría en una especie de proyección del cuerpo del rey, de tal forma que el «cuerpo-nación» por excelencia no sería otro que el cuerpo del rey, lo que permitiría la validez de la fórmula: «El rey ha muerto. Viva el rey»*" (Romero, 2006:157) ["Zientzia politikoetan sarri eztabaidatu den erregearen figurari erreferentzia zuzena egiten dio gorputza eta nazioaren arteko harremanak. Erregea Nazio-Estatu modernoaren epitome gisa. Zentzu honetan nazioa erregearen gorputzaren proiektio bihurtzen da, 'nazio-egitura/gorputza' erregearena izango litzakeelarik. Horrek dakar 'Erregea hil da. Gora erregea' formularen onarpena.]. Aipu horretan ikus daiteke nazioa eta gorputzaren arteko loturarik badagoela (sinbolikoa). Antzeko loturaz dihardu proposatu nahi den hausnarketak ere, baina kasu honetan, ez da nazio bat gorputz jakin batean (erregearenean) irudikatzen (*gorputzen*) denik esan nahi, ez eta nazioa gorputz jakin baten (erregearen) "proiektzioa" denik ere. Horren ordez, batetik, azpimarratu nahi da euskal kasuan ere, nazioa eta gorputz fisiko (irudikatu) baten arteko atxikipen sinbolikoa badagoela, eta bestetik, uztarketa sinboliko hori euskal nazioa kolektiboaren irudikariaren oinarritzko erreferentzia bilakatzen dela. Hau da, gorputza, modu zabalean ulertuta, euskal kolektiboari egozten zaizkion irudikari ugariaren muinean dagoela, fisikotasuna delako (eta ez intelektua, adibidez) horien abiapuntua.

pilota [UPT23/22], edo alpinismoa praktikatzen [UPT30/11] trebea eta zaletua den gizartetzat aurkezten da maiz euskal kolektiboa. "Morroskoaren" irudikariak indarra hartzen du halakoetan, eta gizarte gazte, indartsu eta mardul gisa islatzen da; naturarekin zer ikusia duten jarduerak egitea maite eta horietan trebea den taldetzat aurkeztuz. Ezaugarrien erabilera leun honek zeharkako tratamendua jaso ohi du sarrien eta ez da *haustura* gisa erabiltzen, up-en testuinguruaren osagarri bezala baizik.

Baina fisikoa ardatz duen kolektiboaren irudikapen horrek bestelako irakurketa bat ere sustatu dezake, eta gehiengoan, indar eta gaitasun fisikoak ez dira hainbeste iaotasunarekin lotzen, zakarkeriarekin baizik: "*¿Por qué no te vas pa' tu casa y te pones a levantar piedras o lo que sea que hagáis los vascos para relajaros*"<sup>84</sup> (sic.) [B30/4]. Aipuak honetan, esaterako, ikus daiteke euskal kolektibo osoari egotzen zaion ezaugarritzat jotzen dela harria jasotzea, indar fisikoa (kasu honetan herri kirol baten bidez bistaratzen dena) denek ("los vascos") praktikatzen duten ariketa gisa aurkeztuz, eta neurri batean, kutsu kostunbrista egotziz. Baina horretaz gain, antzeman daiteke harri jasotzea ez dela abileziarekin lotzen, laztasun edo oieskeriarekin baizik, eta hain zuzen ere gehiegikeria horrek dakar *haustura*. Harria jasotzea bere burua lasaitzeko terapia gisa erabiltzen duen gizarte trauskilaren zeinutzat ageri baita, atzeratua edo basatia delako ideian indar eginez bidenabar.

Zakarra izatearen irudikariarekin batera bestelako ideia bat ere indartu ohi dute up-ek: maskulinitatearena, hain zuzen ere. Kolektiboari egotzen zaizkion ezaugarri fisikoek ez diete, esaterako, liraintasunari edo malgutasunari garrantzirik ematen, azken horiek fisikoari dagozkion ezaugarriak izanik ere. Aitzitik, gogortasuna edota sendotasuna, azkartasuna eta indarra

84 ["Zoaz etxera eta hasi harriak jasotzen, edo euskaldunek erlaxatzeko egiten duzuen dena delakoa"]

bezalako bereizgarriak dira euskal kolektiboari atxikitzen zaizkionak, hau da, maskulinitateari loturikoak direnak (Bourdieu, 2000:23):

*"-He hecho cumbre en el Everest y me he dicho ¿8 mil? ¿Qué mariconada, no? Y venga pa' rriba, pa' rriba, pa' rriba. Hasta aquí he llegau. -Así que ¿no estás muerto? [San Pedrok Zeruko atarian galde egiten dio] -¿Que no estoy muerto? ¡No te jode! Después de subir aquí a puro huevo y sin oxígeno, muerto igual no, pero si descojonau..."*<sup>85</sup> (sic.) [UPT17/3]

Ibilian-ibilian zeruraino iristea lortu duen mendizalearen kasua agertzen da honako adibidean, egindako esfortzuaren hiperboleak bideratzen duelarik up-ren *haustura*. Azpimarratzen den ezaugarri fisikoaren nolakotasunak gogortasun eta erresistentzian oin hartzen du, eta abilezia eta trebetasunetik urruti, zakarkeria edo gehiegikeriari lotzen zaio batez ere.

Maskulinitasunaren ideia elikatzen du, halaber, up-etan emakumezko protagonisten presentzia urriak; jarduera fisiko gogorak egiten agertzen direnak edota kirol zein gorputz bidezko edozein ariketa egiten dutenak, oro har, gizonezkoak baitira<sup>86</sup>. Maskulinitasunari loturiko ideia horrek, aitzitik, ez die gizonezko guztiei erreferentzia egiten, zehatzagoa litzateke esatea indartsuak eta sendoak diren gizonezkoei dagokiola. Goiko adibideak, gainera, oso modu deigarrian adierazten du hori, "marikoikeriaren" ("*mariconada*") *alter-ego* gisa ulertzen baitu gaitasun fisikoa. Indarra eta erresistentzia ona edukitzea "marikoikeriatik" urruntzen dituenen, ahultasun edo txepelkeriatik urruntzen ditu, eta modu berean, gaitasun fisikoa "ez-marikoitzat" edo maskulinotzat (eta heterosexualtzat) jotzea dakar horrek.

85 ["Everesten gailurra egin eta neure baitan esan dut: 8 mila? Ze marikoikeria, ezta? Eta gora, gora, gora. Honaino iritsi naiz./ -Beraz, ez zaude hilik?/ -Ezetz? Ez to! Leban eta oxigenorik gabe honaino igo ostean, hilik agian ez baina leher eginda bai behintzat..."]

86 Kasu horren salbuespena aerobic egiten dutenena da. Horretan emakumezkoak izaten batira protagonista.

Ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien nolakotasunak euskal kolektiboaren izaeran ere isla dutela antzeman daiteke, gogortasuna eta izaera adoretua agerian jartzen dituzten aipuak ohikoak baitira up-etan. Hala, izaerari dagozkion ezaugarriak ere maskulinitasunarekin loturik doaz arrunki: fisikoki indartsu eta kementsuak ez ezik, izaeran ere indartsu eta kementsu irudikatzen baitira euskal kolektiboko kideak. Irudikapen horietariko zenbaitetan, hausturari zuzenean eragiten ez dion zeharkako erabileraz, arren ezaugarri fisikoak aitatzten dira, esanahian ez ezik izendapenean ere maskulinitasunari erreferentzia zuena eginez: “¿A que no hay huevos!?” [UPT9/4]. Beste batzuetan, izaera maskulino bati dagozkion indar, kemen edota ausardia (Bourdieu, 2000) agerian jartzen da:

“–*Mirame a los ojos ¡Hostia! Que te estoy hablando (...) Mira, esto es lo que te hace un atún de 920 kilos de Costa Marfil [zauritutako bularra erakusten du] cuando te coge con el hilo de nailon al cuello y te hace "cist" ¡eh! Casi una tonelada de peso. Veinte minutos tirando también. Pero no fue capaz de llevarme a su terreno. ¿Entiendes un poquito por donde voy?*

–*Sí. Es una metáfora del atún.*

(...)

–*Como me engañes a mí, tiro del sedal, te cojo, te retuerzo, te ablando a ostias y luego hago contigo un nudo marinero. Y esto sí que no son matéforas ni ostias de estas vuestras.*”<sup>87</sup> (sic.) [B30/35]

Aurrez aipaturiko bi ideiak elkartzen dira azken adibide horretan: batetik, 920 kg-ko atun batekin buruz-buru borrokatzeko gai den pertsona fisikoki indartsuaren irudia; eta bestetik, nortasun gogorreko pertsona izatearena (“no fue capaz de llevarme a su terreno”). Kasu honetan, beste behin ere, *haustura* euskal kolektibokoei esleitzen zaion izaera zakar eta gaitasun fisiko bikainen

87 [“–Begira begietara. Ostia! Hizketan ari naitaizu (...) Begira, hau da Costa de Marfileko 920kg-ko atun batek egiten dizuna, nylon hariak lepotik heldu eta zist! egiten dizunean. la tonako pisua. Hogei minutuz tiraka. Baina ez ninduen bere aldera eramán. Ulertzen duzu nondik noan?/ – Bai. Atunaren metafora da / –Iruzur egiten badidazu, pitatik tira egin, hartu, bihurritu, ostiaka etsi arazi eta gero, itsaso-korapiloa egingo dut zurekin! Eta hau ez da matefora edo zuen ostia horietako bat.”]

hiperboleak sortzen du, hain baita “gogorra” bertan irudikatzen den pertsonaia ezen atunari egindako berbera egin dakioken beste edonori.

Esandakoari bestelako ideia bat ere gaineratzen zaio adibidean, gorputz eta izaera gogorra izatea entelegu eskasa izatearekin harremanetan jartzen baita zuzenean. Izan ere, euskalduntzat irudikatzen den pertsonaiak ez daki “metaforak” zer diren, eta esanahia ez ezagutzeaz gain hitza behar bezala ahoskatzeko ere arazoak dauzka (“*matéforas*”). Euskal kolektiboko kideari, beraz, garapen intelektual eskasa egozten zaio, bere gaian oso jakitun izan badaiteke ere (arrantzan, kasu), bere ohikotasuna oinarritzkoa dela eta bere ezagutzak errealitate horietara mugatuak daudela erakusten baitu. Hala, euskal kolektiboaren errealitatea (ohikotasuna) “fisikotasunera” lotua dagoelako diskurtsoa indartzea dakar horrek kogniziora edo intelektualtasuna urrunekotzat erakutsiz<sup>88</sup>: “*mucho leer, mucho leer... ¡Qué hostias! Aquí hay que coger la pala ¡y venga ahí a trabajar!*”<sup>89</sup> [UPT22/7].

Honakoa kontuan izanik, adimen mugatua, izaera gogor eta tematia eta gehiegikeria fisikoak egiten dituzten “astakirtenak” bilakatzen dira euskal kolektiboko kideak, “*¡No hacemos más que burradas!*” [UPT6/20], up-etan neurrigabekeria eta baldarkeriak egiten dituztenak. Hala, zerbaiti tira egin behar bazaio (erditzen ari den emakumezko baten umeari, kasu), soka-tira talde bat agertzen da kanpora indar eginez [UPT18/4]; eta ezer moztu behar bada, txuleta bat esaterako, aizkolariak agertzen dira haragiari kolpeka [UPT7/4]. Baina “astakilo” edo “astakirtenaren” irudi hau ez da soilik euskal kolektibo astakeriak eginez irudikatzen direlako, baita egozten zaien adimena eskasa izanagatik, astakeriak esaten edo pentsatzen dituztelako ere<sup>90</sup>: “*Al final habrá que cogerlas de los pelos y meterlas en las cuevas*”<sup>91</sup> [UPT25/16].

Azken ideia honi lotuta, ordea, ñabardura bat aintzat hartu behar da. Izan ere euskal kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarriak oinarri maskulinoetan funtsatzen direla ikus badaiteke ere, irudikari maskulinoari dagozkion

88 5.2.2. *Hizkuntza* atalean aipatu den bezala, pertsona intelektualaren irudikaria agertzekotan euskararen gaineko ezagutza handia duen norbait agertu ohi da. Hala, jakintsua izatea euskarari atxikia doakion ezaugarri zehatz bilakatzen da, eta ez ordea, kolektibo osoari dagokiona.

89 [“¡Irakurri eta irakurri...Ze ostia! Hemen pala hartu eta segi lanera !”]

90 *Harluxet* hiztegi entziklopedikotik eskuratutako definizioa

91 [“Azkenean ileetatik heldu eta koban sartu beste erremediorik ez dugu izango”]

ezaugarri guztiak ez zaizkio euskal kolektiboari egozten. Esan nahi baita, euskaldunaren irudikariak ez dio kasu guztietan Pierre Bourdieuk planteatzen duen maskulinoaren ideari erantzuten (Bourdieu, 2000). Izan ere, autoreak sendoa, ausarta, gogorra edota indartsua izate maskulinoari esleitzen dizkion ezaugarriak diren modu berean, ordenatua, zuzena, justua, arrazionala edo orekatu izatea ere, ezaugarri maskulinoetat hartzen ditu (Bourdieu, 2000:66). Baina azken horiek, ordea, ez daude euskal kolektiboari esleitzen zaizkion ezaugarrien artean, hain zuzen ere alderantzizkoa da igortzen den irudikaria (astakiloa edo neurri gabekoarena). Hala, ulertu behar da euskal kolektiboaren nolokotasuna maskulinitasunetik abiatzen bada ere, horri dagokionez zenbait ezaugarri baino ez direla kontuan hartzen, hain zuzen ere gorputz fisikoarekin zer ikusia dutenak, zeinak gerora izaeran ere islatuak geratzen diren.

Izan ere, fisikoki ez ezik izaeraz indartsuak eta gogorrak irudikatzearen muturreko irakurketa gisa uler daitezke gehiegikerian, irrazionaltasunean edo oldarkortasunean oinarritzen diren hainbesteko ezaugarriak. Bourdieuren ikuspegitik izate maskulinoari egozten zaizkion arrazionaltasun eta baretasunaren *alter-ego* dira azken horiek, eta hain zuzen ere horregatik, izate femeninoari dagozkion ezaugarri gisa identifikatzen ditu autoreak.

Maila horretan ulertzen dugu euskal kolektiboari egozten zaizkion ezaugarriek ez diotela izate femeninoari erantzuten, baizik eta izate maskulinoaren muturreko ikuspegi bati, up-en *hausturak* (hain zuzen ere *haustura* gisa funtzionatzeagatik) ezaugarri maskulinoen alde a-normalena agerian jartzea bilatzen baitute. Hala, euskal kolektiboaren izaerari lotzen zaizkion ezaugarriak (gehiiegikeria, irrazionaltasuna...) Bourdieuren arabera femeninoak direnak, up-en *haustura* gisa erabiliak diren heinean (a-normaltasun testuinguruetan), egokiagoztat jotzen dugu ezaugarri maskulinoen hiperbolizazio direla esatea. Maskulinoaren distortsioa delarik eta ez femeninoaren losintxa, up-ak abiapuntutzat hartzen dutena.

Arestian aipatu den astakeriaren eta horren baitako gehiegikeriaren ideari lotu dakizkioke euskal kolektiboari esleitzen zaizkion beste hainbat ezaugarri. Horien

artean esanguratsuenetariko bat euskal kolektiboari egozten zaion jateko eta edateko zaletasuna [UPT43/15]. Honakoa dio, adibidez, *Barretartiako* testu batek:

*"esaten nenbilen bezala goseak (gure aitonak esango zukeen bezala, jateko gogoak) obsesionatuta bizi gara, gosepzionatuta. Ba al dakigu zerbait jan gabe ospatzen/egiten? Hona bururatu zaizkidan ekintzak, ea bat edo beste jan edo edan gabe pasa ote duzun noizbait: Bataio, jaunartze, ezkontza, urtebetetzeak, heriotzak (berak hau nahiko zukeen eskusa gisa erabiliz), Gabonak, herriko festak, auzoko festak, klaseko lagun topaketak, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topaketa, azterketa amaiera, sariren bat jasotzea, nota onak, nota txarrak (hemen jan baina gehiago edan), lanean hastea, poteoa luzatu zaigu eta..., klaseko edo lantokiko bazkariak edota afari amaiezinak, eta abar eta abar luze bat."* (sic.) [UPB2/1]

Oturuntza oparoak bai eta edateko afizioa euskal kolektiboaren egunerokotasunaren baitan txertatuak doazen jarduera "normaldutzat" agertzen dira, beti ere horien inguruan egiten den gehiegikeriaren azpimarran *haustura* eginez:

*"-¿Crees que podríamos celebrar algo sin comer y beber como si se acabara el mundo al día siguiente?*

*-No Sara. ¿Que podríamos esperar de un país como el nuestro en el que cualquier ciudadano te puede decir el nombre de cinco cocineros y sudarían para recordar el de cinco escritores que no fueran Bernardo Atxaga? Aquí somos de "mástico luego existo". ¡Y ni tan mal oye!"*<sup>92</sup> [UPT6/13]

Aintzat ematen da euskaldun guztiek duten ezaugarria dela jateko zaletasuna. Baina azken adibidean, gainera, bestelako kultura jarduera edo adierazpenen ginetik hartzen duen protagonismoa azpimarratzen da. Batetik, jateko zaletasuna delako eta ez sukaldaritza, bertan gorai patzen dena. Hots,

92 ["-Uste duzu gai izango ginatekeela biharamunean mundua bukatuko ez balitz lez jan eta edateko?/- Ez Sara. Zer espero genezake gurea bezalako herri batez, non bost sukaldariren izenak esateko gai den donon, eta aldiz Bernardo Atxaga ez den bost idazleren izenak esateko gorriak pasatzen ditugun. Hemen "mastekatu beraz banaiz" tankerakoak gara. Eta aski ongi, aizu!"]

bazter egiten dio sukaldaritzak suposatzen duen jateaz haragoko bestelako ekintzei (sukaldean trebeziaz aritzeari edo gutxieneko sormen prozesu bat izateari, esaterako). Bestetik, argi agertzen duelako jateko eta edateko zaletasunak beste kultura jarduerak baino zaletu gehiago erakartzen dituela, besteak beste, literatura zaleak direnekin alderatuz. Eta azkenik, *"Aquí somos de 'mástico luego existo"* esaldiaren bitartez, *"cogito ergo sum"* esaldi ezaguneko "pentsatu" aditza "murtxikaturengatik" ordezkatzeko duelako, euskal kolektiboak oinarritzaren duen ekintza jatea eta ez ordea pentsatzea dela azpimarratuz. Hiru ideia horiek indartu egiten dute aurrez aipatutakoa, non, euskal kolektiboak hausnartzeko, pentsatzeko edo arrazoitzeko duen gabezia, eta bidenabar, baita adimen eskasia ere, agerian jartzen den beste behin.

Euskal kolektiboari entelegu eskasa egozteaz gainera badira up-etan maiz errepikatzen diren izaerari dagozkion bestelako ezaugarri batzuk. Horien artean errepikatuenetako bat, hain zuzen ere, kolektibo arduratsu edo engaiatua izatearena.

Up-etan erabiltzen diren irudikari askok engaiamenduaren ideien aldaera desberdinak jartzen dituzte agerian: a) euskal kolektiboko kidea bere hitzarekiko konpromiso erantzuten duen pertsona lez irudikatuz: *"la palabra de un vasco es para siempre"*<sup>93</sup> [UPT15/20]; b) bere lagunetikiko (koadrilarekiko) konpromisoa duena (lagunen laguna): *"Superjatorra, poteak eskatu, arazoak entzun, beti laguntzeko prest, euskal heroi peto petoa"* [UPT51/4]; edota c) bere sinesmen eta usteetikiko fideltasunez jokatzeko duen pertsona gisa agertuz, horren baitan arreta berezia eskaintzen zaiolarik alor politikoa erakusten duen konpromisoari [UPT16/19].

Azken ideia hori da, hain zuzen ere, engaiamenduari dagozkion irudikari ustiatuena. Euskal kolektibo politikoki oso konprometitu den talde gisa agertzen baita sarri, eta horrek laguntzen du (besteak baino) politizatu(ga) den gizarte gisa irudikatzea. Ohikoak dira, esaterako, manifestaldiak [UPT4/21], mitinak [UPT22/10], bilerak [UPT32/21], grebak [UPT30/15], atxiloketak

93 ["Euskaldunak emandako hitza betirako da"]

[UPT11/4] egiten dituzten kideak up-etan agertzea, bai eta testuinguru bakoitzari dagozkion diskurtso desberdinak erakusten dituztenak islatzea (AHTren inguruko iritziak dituztenak [UPA22/5]; atez ateko zabor bilketarenak [UPT22/14]; ERE-en ingurukoak [UPT19/20]; euskararen egoerari buruzkoak [UPT4/22]; euskal preso enxeratzaren gainekoak [UPA17/3]; administrazio eta instituzio publikoen kudeaketaren ingurukoak [UPT23/6] ...). Engaiamendu politikoa, hala, euskal kolektiboari dagozkion testuinguru lez ez ezik nortasunaren edo izate era baten adierazgarritzat da erakutsia: *"parece que no somos nada sin la política"*<sup>94</sup> [UPT15/18].

Gizarte politizatu izatearen ideiak berekin dakar euskal kolektiboarekiko bestelako orokortasun bat egitea, hain zuzen ere, ezker abertzaleko ideologiarekin loturiko kolektibotzat erakusten duena. Independentziaren aldekoak [UPT21/11], estatu propio bat izatearen aldekoak [UPT31/22], gatazka politikoa ulertu edo justifikatzen dutenak [UPT20/14] edota kasu muturrenekoenetan ETA-ren aldekotzat irudikatuz [UPT31/17]. Hala, euskal kolektiboaren irudikari orokorrean presentzia handia hartzen du gatazka politikoa eta bereziki indartsua da jarrera abertzale muturrenekoen presentzia<sup>95</sup>.

Baina gauzak konpromiso hartzeak ganoraz hartzea esan nahi badu ere horren baitan bestelako diskurtso bat ere zabaldu ohi da, non, engaiatzea serioa (umorerik gabekoa) izatearekin lotzen den. Politika eta politikariak (bereziki ezker abertzalekoak direnak) pertsona konprometitu (politizatu) gisa irudikatzen dira eskuarki, eta horrek umore gabeko irudikatzea dakar maiz. Adibidetzat har daiteke, esaterako, ETB2-ko up bat, non, bozkak eskuratzeko estrategia berri bat hartu behar dela eztabaidatzen diharduten ezker abertzaleko alderdikideak agertzen diren. Elkarriketa horretan jendearengana hurreratzeko inoiz egitera ausartu ez diren esfortzu bat egin beste erremediorik ez dutela ondorioztatzen dute eta lehen aldiz jendaurrean irribarretsu agertzea dute erronka [UPT17/12]. Kasu honetan ezker abertzalekoek gorpuzten dute politikoki konprometitu denaren rola, horrekin batera aurre jakintzat emanez (matrize kulturala) umorerako gaitasun gutxi dutela. Hala, aurre uste hori esplizitatzeak dakar

94 ["badirudi politikarik gabe ez garela deus"]

95 Horri buruz gehiago sakontzen da 5.2.4. Zeinuak atalean.



*haustura*, ezker abertzalekoen artean ohikotzat ematen ez den zerbait agerian jartzeak (irribarre egiteko eginahalean aritzeak) desdoia baitakar. Eta horrekin batera, ezker abertzalekoek haien seriotasunarekin amaitzeko duten motibazioa haien engaiamendu politikoak sortzen duela kontuan izanik (jendearengana hurbildu nahi izateagatik), politikoki konprometitua eta serioa izatearen arteko harremana gehiago estutzen da.

Irakurketa hori, ordea, ez dagokie ezker abertzalekoei soilik, ez eta politikariei ere, aitzitik, euskal kolektiboari oro har esleitzen zaion bereizgarria dela esan daiteke: “-*Ahora dirás que los vascos tienen salero... -¡Ni puta gracia tienen!*”<sup>96</sup> [B30/41] edo “-*Vosotros los vascos para otras cosas sois muy punteros, pero para el humor poca gracia tenéis*”<sup>97</sup> [B30/34]. Irakurketa hau kanpo begiradatik zein barne begiradatik irudikatzen da, up-etan euskal kolektibokotzat irudikatzen direnek ere haien buruaz berdintsua pentsatzen dutela agerian jartzen duen kasurik topatu baita: “*Hola, hoy os vengo a presentar un nuevo programa de humor. Porque si algo le falta a Euskal Herria, aparte de un estatus político, noski, es un buen programa de humor*”<sup>98</sup> [UPT25/11] dio bere burua euskal kolektiboko kideatzat duen batek.

Umora falta hori forma desberdinen bidez jarri daiteke agerian. Zenbaitetan, gehiegizko seriotasunak edo irribarre egiteko gaitasun ezak ematen du aditzera. Beste batzuetan, ordea, aspergarria den gizartetzat irudikatzeak ideia berbera elikatzen laguntzen du:

*“Nolatan gaubeila zoragarri baten orde, edo lagunarteko konbertsazio sakon baten orde, edo hondartzako eguzki eta itsasoko dzangadak disfrutatu orde, noranahi goazela, nonahi eta edonorekin, kartak atera, harriak pilatu eta orduak eman ditzakegu “paso, paso, enbido, ez, paso, enbido, nahi, bai, ez, ez, ez, ez, bai, bai, ez, enbido”ka? (...) Galdera bati behintzat erantzuna aurkitu diot: “utzi alde batera euskaldun jendea” zioenak, ziur bereak eta bi egin zituela gurekin barre batzuk botatzeko, baina*

96 [“-Orain ez duzu esango euskaldunek grazia dutenik... / -Ez dute grazia putarik!”]

97 [“-Zuek euskaldunak zenbait gauzatarako oso puntakoak zarete, baina umorean ez duzue batere graziarik”]

98 [“Kaixo, gaur umore saio berri bat aurkeztera natorkizue. Izan ere Euskal Herrian ezer falta bada, estatus politikoaz gain, noski, umore saio on bat edukitzea da.”]


*horren orde pastoral batera eraman genuen, gero herriko jaietako bertso saiora eta handik txosnetara. Etxera heldu eta mus partidatxoarekin bukatu genuen, eta hurrengo egunean, “zelako barreak atzokoak!” komentarioa entzun bezain pronto, atetik irten eta inoiz gehiago ez genuen haren berri izan.”* (sic.) [UPB1/1]

*Barretartiako* adibide honek euskal kolektiboa (eta honen “dibertitzeko” manerak) aspergarriak direla iradokitzen du, atzerritar batentzat pastoralak zein bertso saioak ikustea edota musean ibiltzea gogaikarriak direla agerian jarriz. Horretarako “*Hau duk umorea, utzi alde batera euskaldun jendea*”<sup>99</sup> dioen abesti herrikoia letra egoera honexek sortua dela iradokitzen du, “euskaldun jendearen umorea” aspergarria, edo hain zuzen ere “umore gabekoa” delaz jabetu zen atzerritarren batek sortua dela aditzera emanaz. Hor oinarritzen da *haustura* ere, dibertigarria dena aspergarria delako kontraesanak sortzen duena, euskal kolektiboari atsegingarri egiten zaizkionak beste edozeinentzat gogaikarriak direla aditzera eman eta bertako “umorea” ezbaian jarriz.

Aipatu diren azken adibide horiek (engaiatuak, politizatuak, umore gabekoak... irudikatzea) izaerari dagozkion ezaugarriak badira ere, gorputz fisikoarekin loturarik badutela ikus daiteke. Izan ere, azpi-atalaren hasieran aipatutakoa gogora ekarriz, euskal kolektiboa fisikoki gogor, indartsu eta sakrifikatutzat hartzeak izaeraz ere gogorra, indartsua (eta beraz, serioa eta introspektiboa) eta sakrifikatua (arduratsua eta konprometitua) irudikatzearekin lotura izan dezakeela ikus daiteke. Ulertzen dugu esaterik badagoela euskal kolektiboari up-ek egozten dizkioten izateko moldeek gorputz fisikoaren inguruan egiten den irakurketaren ildo berdintsuari heltzen diotela; gorputz fisikoari egozten zaizkion ezaugarri hainbat izateko erari dagozkionen berdintsuak baitira oinarrian. Bereizgarri desberdinen arteko gutxieneko lotura bat egon daitekeelakoan gara beraz, naturalak bailiran antzematen diren horiek irudikari komun batean sustraituak daudela proposatuz. Edozein kasutan,

99 *Edurra teilatuan* abesti popularraren letra zati bat da.

aRP.2 'Gorputz-tasuna':



honekin ez da esan nahi nolakotasunen irakurketa honek ordenu sinkroniko bati erantzuten dionik, alegia, ez da aditzera eman nahi aurrena ezaugarri fisikoen inguruko up-ak eta azkenik serioak edo umore faltaz dihardutenak agertzen joan direnik. Baizik eta ezaugarrien agerpen/erabilpen hurrenkera edozein izanik ere, irudikarien arteko loturak eta bakoitzaren karga sinbolikoak elkar harremanetan daudela eta gutxieneko koherentzia dutela baizik (*aRP.2* eskeman laburbiltzen dira esan berritakoak).

#### b) *Euskal vs espainiar*

Euskal kolektiboari ezartzen zaizkion ezaugarri askok zuzeneko lotura dute frantziar eta espainiar estatuek indarrean duen kultura nazionalarekin<sup>100</sup>. Paradoxikoki, ordea, euskal kolektiboak espainiar estatuarekin izan dezakeen loturak zer ikusi gehiago du harremanik dagoen edo ez dagoen argitzeko behararekin, praxian harreman hori existitzearekin baino. Hau da, Espainiarekin dagoen lotura edo deslotura agerian jartzeko ahaleginarekin.



<sup>100</sup> Azterketa honetan bereziki azken honekiko lotura bistaratu da, hots, espainiar kultura nazionalarekiko.

*Twitterreko* aipu honek argi azaltzen du lotura-deslotura horiek har dezaketen nahasmen maila: euskal kolektiboak Espainiari dagokion ala ez edota bien arteko harremanak, loturak eta nahasketak nolakoak diren edo izan beharko luketen argitzea afera "katramilatsua" baita, hainbesterako ezen hori aipatzeak ere *haustura* (desdoi) gisa funtzionatzen duen. Hala izanagatik, ordea, egia da up guztiek ez diotela gaiari heltzen. Zenbait kasutan, up-ek aintzat ematen dute euskal kolektiboak espainiarra ez den bestelako identitate nazional bat duela eta bien arteko bereizketa esplizituki agerian jarri beharri ez zaio inolako arretarik eskaintzen. Halakoetan, espainiar/euskal kolektiboaren konparazioa egiten egon beharrik gabe, bestelakotasuna modu "naturalean" ikusten uzten da: euskal kolektiboak espainiar naziotik at dagoen errealitate, mundu ikuspegi, jarduera kultural, hizkuntza edota interakzioetan bilduta dagoela agerian jarriz. Horri dagokionez *Pirritx, Porrotx eta Marimototx*-ek egindako up-ak dira aipagarri [UPY6/3][UPY6/5], Espainiari edo Frantziari erreparatu gabe logika "propio" batez lantzen baitituzte euskal kolektiboaren errealitateak, Euskal Herriko gertaera, kolektibo, hartu-eman, jai, ospakizun edota historia, "bertakotua" den ikuspegi batetik landuz. Hau da, Frantzia eta Espainiaren kultura nazionalarekin dagoen harremana aipatu gabe.

Jokamolde berdintsua dute, halaber, kontrako diskurtsoa darabilten up-ek. Euskal kolektiboak espainiar kolektiboari dagokiola aintzat ematen duten up-en kasuan, elkarketa ez da begi bistakoa egiten, "normaltasunez" kudeatzen baita bata zein bestea, euskalduna eta espainiarra kolektibo eta errealitate beraren parte direla aintzat emanez. Halakoetan, euskal kolektiboaren bereizgarritzat jo daitezkeen ezaugarriak (hizkuntza, tradizioak...) espainiar kolektiboari dagozkion zeinuekin nahasian agertzen dira, zein kolektiborenak diren zehazki bereizi gabe, edo hobe esanda, kolektibo berarenak direla agerian utziz. Adibide horien artean aipagarri dira, esaterako, ETB2-ko esketxetan espainiar kolektiboarekin uztar daitezkeen zeinuen zeharkako ugaritasuna. Izan ere, euskal sinbolo eta kultura elementuekin nahasian agertzen dira, besteak beste, espainiar politikariak (Mariano Rajoy, Alfredo Pérez Rubalcaba, Luis Bárcenas,

José María Aznar edo José Ignacio Wert<sup>101</sup>) [UPT4/17][UPT10/6], Espainiako erregea eta horren familiakoak [UPT6/11], edota espainiar telebista kateek ezagun bilakatu dituen hainbat pertsonaia eta kazetari (Paquirrin, Frank de la Jungla, Jorge Javier Vazquez edo Conchita<sup>102</sup>) [UPT14/10] [UPT22/5] [UPT25/17]. Baina pertsonaia eta zeinu horien trataera ez da euskal kolektiboarekin duten lotura edo lotura eza agertzeko, horren ordez, "normaltasunez" txertatzen dira edozein gisako up-etan, euskal kolektiboari lot dakizkiokeen bestelako diskurtso eta testuinguruaren artean (txosnak, herriko jaiak, herri kirolak...) agertu eta euskal kolektiboak "propioztat" dituen ikurren pare aurkeztuz. Hala, gisa horretako up-en diskurtsoek edozer esaten dutelarik ere, testuinguruek bi kolektiboen arteko uztarketa iradokitzen dute, eta euskal kolektiboa espainiar identitatearen baitako berezitasun erregionalista gisa aurkezten da.

Beste zenbait up-k, ordea, afera horri zuzenean, esplizituki, heltzen diote eta euskal kolektiboak Espainiarekin dituen hurbiltasun eta urruntasunak up-etako irudikari eta *hausturetan* agertzen dituzte. Kasu horietan bi joera aurki daitezke. Batetik, bai espainiar eta euskal kolektiboa desberdinak direla agerian jartzen dituzten up-ak, eta bai bi kolektiboak berdinen parte direla agertzen dutenak, dela kolektiboen arteko bereizketa egiteko argudiorik ez dagoela agerian jarriaz; dela bi kolektiboak desberdinak direla azaltzeko argudioak ahulak edo itxurazkoak (funtsik gabeak) direla agertuz, eta ondorioz, bi kolektiboak elkar bereizten dituen oinarri gabekoa dela bistaratu.

Espainiar eta euskal kolektiboen arteko bereizketa modu agerikoan bideratzen duten up-en artean *Madriki Eguna* [B4] har daiteke adibidetzat. 2008-2011 artean Hondarribiko (Gipuzkoa) gazte talde batek urtean behin eginiko egun osoko ospakizuna da honakoa. Frankismo garaitik aurrera herrian

101 Mariano Rajoy, 2011-2015 artean Espainiako estatu burua izandakoa; Alfredo Pérez Rubalcaba, PSOE-ko politikaria; Luis Bárcenas, PP-ko diruzain ohia; José María Aznar, 1996-2004 artean Espainiako estatu burua izandakoa; José Ignacio Wert 2011-2015 artean Espainiako Gobernuako hezkuntza, kultura eta kiroletarako ministroa izandakoa.

102 Paquirrin, Espainiako abeslari eta torero ezagun batzuen semea; Frank de la Jungla, animalien inguruko telebista saio bateko aurkezlea; Jorge Javier Vazquez, prentsa arrosako telebista saio bateko aurkezlea; Conchita, prentsa arrosako telebista saio bateko kolaboratzailea.



oso nabarmena izan den uda garaiko turismo madrildarraren presentzia abiapuntutzat hartuz, turistei parodia egiten diete herriko gazteek. Hala, *madrikiari*<sup>103</sup> egozten zaion identitatearen errepresentazio hiperbolizatuaz (espainiar nazionalista, aberaskume eta sinestunarena), gazteak "madrildarrez" mozerrotu eta herrian barrena dihardute identitate horren irudikapena eginez. Jarduera horretan aritzen dira, besteak beste, Eliza kantuak ozenki abestuz<sup>104</sup>; etengabe gaztelaniaz mintzatuz; espainiar nazionalismoaren aldeko aldarriak oihukatuz<sup>105</sup>; keinu frankistak eginez (eskuin besoa luzatuz); Madrileko kulturari loturiko praktikak burutuz (*chotis*<sup>106</sup>-ak kalean dantzatzuz); bai eta Euskal Herrian egiten diren aldarri politikoen aurkako jarrera publikoki erakutsiaz ere<sup>107</sup>.

103 Hondarribian "madriki" deritzo Madriletik datorren turistari. Oro har kapital ekonomiko eta sozial altukoak direnei.

104 "¡Bendito seas Señor!" ["Bedenkatua zu Jauna!"]

105 "¡España, una, grande y libre!" ["Espainia, bat, handi eta libre!"]

106 *Chotis*-a munduko hainbat herrialdeetan dantzatzen eta entzuten den musika bada ere (Argentina, Paraguay, Uruguay...) XIX. mende bukaeratik aurrera bereziki, madrildar dantza popular eta jatorra bihurtu da.

107 "¡Vascos separatistas!" ["Euskaldunak separatistak!"] edo "¡Vascos sí, ETA no!" ["Euskaldunak bai, ETA ez!"]

*Madrikiaren* figurak barnebiltzen duen identitate nazional espainiarraren parodia eginez, horrek nazio identitate euskaldunarekiko duen erretena marrazten dute herriko gazteek. Baina alderaketak ez du soilik euskal eta espainiar identitateen arteko desberdintasunak agerian jartzeko balio, identitateak kalifikatzeko eta elkarren arteko botere-harremanak birdefinitzeko ere baliagarria da. Izan ere, kontuan izan behar da frankismo garaitik, oro har, Madriletik etorritako turistekiko jarrera apala eta ia mirabezkoa erakutsi dutela herritarrek, besteak beste, haiek baino kapital sozial eta batez ere ekonomiko handiagoa zutelako udako bisitan zetozenek.

Botere-harreman horiek bistaratzen ditu *Madriki Eguna*. Herriko gazteek gaitzesgarritzat, baztergarritzat jotzen dituzten jarrera eta izaerak (espainiartasunarekin sinbolizatzen direnak) esajerazioaren bidez parodiatu ahala, onargarriak eta beharrezkoak diren bertuteak agerian jartzen dituzte (euskal kolektiboari dagozkionak). *Madriki Eguna*, beraz, ez dagokio hondarribitar eta madrildarren arteko bereizketa "soil" bati, madrildarraren irudikariaren (*madrikiaren*) baitan dagoen espainiar identitatea saturatuz, hondarribitar (eta euskal kolektiboko) izatearen desiragarritasuna agerian uzteari baizik. Hots, "gu" (hondarribitar eta euskal kolektiboko gisa) ez gara "hori" (*madriki* eta identitate espainiarrari dago kionez); desberdinak gara, bai eta "hobeak" ere (hiperbolearen bidezko *hausturak*, botere-harremana alderantzikatzea baitakar).

Euskal eta espainiar kolektiboaren arteko harremana modu agerian eta zuzenki tratatzen duten up-en artean bada, halaber, bestelako diskurtsorik defendatzen duenik. Zehazki, bi kolektiboak berdina direla, edota hobe esanda, desberdinak ez direla agerian jartzen dituzten up-ak topa daitezke. Horien baitan bi joera dira aipagarri. Batetik, euskal eta espainiar kolektiboaren arteko desberdintasuna azaltzeko gai den arrazoirik ez dagoela defendatzen dutenena. Kasu horietan euskaldunak bere kolektiboari dagozkion ezaugarriak defendatu eta espainiar kolektiboari dagozkionetatik desberdintzeko motibo argirik ez dagoela agerian jarri ohi da; kolektibo bata zein besteren berezitasunak hain nabariak ere ez direla, eta finean uste baino antz handiagoa dutela erakutsiz horrela:

*"-Ikusten Rajoy-k ez du ezertxo ere egiten, dena okerrera doa, langabezia handiagoa, murrizketa gehiago eta gainera besteei leporatzen die errua, aurrekoek utzitako herentzia dela...*

*-Bueno egia esanda hemen ere ez dugu hobera egin Urkullurekin*

*-Baina alde handia dago eh! Hemen PNVk ez du errurik. Espainiak garamatza arrastaka eta Patxi Lopezek utzitako herentzia ojo! Bueno tira, berdin zait. Ez daukate zer ikusirik. Bata euskalduna da, eta bestea espainola! Eta kitto! ¡Se acaba!"* [UPT51/17]

Adibidean bi kolektiboaren desberdintasuna alegiazkoa dela agertzeak dakar *haustura*. Bata eta bestea baloratzeko orduan erabiltzen diren irizpideak zein apetatsuak diren ikusteak, egoera (politiko) berdintsuaren irakurketa era bat desberdina baita Euskal Herriaz edo Espainiaz ari denean. Hala, azken esaldiak argitara ekartzen du sakoneko arrazoiak zein den: bereizketa egitearen motiboa batzuk "espainiarrak" eta besteak "euskaldunak" izatean baitatza, "izate" hutsak, erredundantziak, desberdin izatea dakarrelarik. Kolektiboaren arteko bereizketari dagozkion bi alde erakusten ditu adibideak, beraz. Bata, bi gizartearen errealitatea uste baino antzekoagoa izan daitekeela, arazo (kasu honetan politiko-ekonomiko) bertsuak pairatzen dituzten kolektiboak baitira. Eta horri lotuta, bestea, bien arteko alderaketa semantikoa dela batez ere, pertsonaiak agerian jartzen baitu "izenaz" haratago elkarrengandik bereizteko beste argudiorik ez duela ezagutzen.

Idea berbera bestela lantzen duen up-rik ere bada. Up-en bigarren ildo batek euskal eta espainiar kolektiboak desberdintzeko arrazoiak (semantikoa diren horietatik harago) egon badaudela onartzen du, baina argudioak funtsik gabeak eta ondorioz baliogabeak direla agerian jartzen du halaber. Argudioak "zentsugabeak" direla erakusteko up-ek ondoko diskurtsua indartzen dute: euskal kolektiboa espainiarraren desberdina dela esateko arrazoi bakarra desberdina izan "*nahi*" izatea dela, eta hori ez dela pisuzko arrazoiak. Euskal kolektiboaren eta espainiarraren arteko bereizketan hizkuntzak, lurraldeak, edo ideologia politikoak baino garrantzia handiagoa hartzen du euskaldunek

espainiarrez bereizteko duten grinak, desio hori bilakatzen delarik desberdina izateko arrazoi objektibo bakar<sup>108</sup>. Baina up-etan, arrazoi horren hutsaltasuna bistaratzen da, desberdina izateko desioa egon badagoela onartzen bada ere, nahia "besterik ez" dela ikusarazten baita, bien arteko bereizketa defendatzen duten argudioak azalekoak direla agerian jarritz. Azalekotasun horren azpimarra kontraesanen bidez ekartzen da up-etan argitara (*haustura*), euskal kolektiboak esaten/nahi duenaren eta egiten duenaren arteko desberdintasunak horretarako baliatuz. Diskurtso eta praktikaren arteko desdoiek diskurtsoa ahultzea dakarte, eta horren bidez, argudioen ahultasuna eta arrazoi falta agerian gelditzea ere bai.

*"-Los vascos son así. Mucha independencia, mucha independencia, pero al final lo español les encanta."*<sup>109</sup> [B30/29]

*Haustura* ideien aurkakotasunak sortzen du, hots, proposatzen den inkoherentziak berak. Batetik, aintzakotzat ematen da euskal kolektiboak Espainiarekiko(moduzabalean ulertuta) bereizketanahia duela ("*independencia*"). Baina bestetik, euskal kolektiboak Espainiarekiko ager dezakeen desberdintzeko goga itxurakeriatzat uzten du; nahiz eta onartu ez, sakonean gustuko baitute Espainiari dagokion errealitatea ("*lo español*"). Horretaz gain, kontraesana ageriko egiteaz harago doa aipua eta "euskal nortasunaren" berezko jarreratzat jotzen du hori, euskal kolektibokoak "halakoak" direla baieztatuz ("*son así*"); onartu ez arren "izatez" gustuko baitute "espainiartasuna" ("*les encanta*").

8 *Apellidos vascos*-etik ateratako aipu horrek dioena indartu egiten da pelikulan zehar. Pelikulak neska euskaldun baten eta Sevillako jaunxkila baten arteko maitasun harremana hartzen du ardatz eta horren bueltan garatzen ditu

108 Banatzeko nahi hori forma desberdinetan adierazten da up-etan: independentziaren aldeotasunez, Espainiarekin zer ikusia duten instituzio edo errealitate kulturalen ukazioz...

109 ["Euskaldunak halakoak dira. Independentzia asko, independentzia asko, baina gero espainiarra dute gogoko."]

euskal kolektiboaren inguruko irakurketa eta up-ak<sup>110</sup>. Hala, neskak Espainia eta bertako kulturarekiko gorroto eta mespretxua duela hasieratik agertzen bada ere, Sevillara mutilaren ondora doa azkenean; maitasunak "muga" guztiak gaindi ditzakeelako usteaz batera (edo horren baitan), euskal kolektiboa inkoherentzietan mugitzen delako ideia indartuz, hots, a) hasieran Espainiaren aurkakotasuna agerian jarritz, eta b) praktikan kontrara jokatzuz.

Joera horrek forma desberdinak har ditzake up-etan. Ondoko adibideak, esaterako, Espainiako indar polizial eta militarrekiko aurkakotasuna hartzen du identitate nazional desberdindu baterako oinarri gisa, euskal kolektiboa honakoen aurka dagoela agertuz:

*"Aquí mucho decir que estamos en contra del ejército y de la Guardia Civil pero bien que nos acordamos de ellos cuando estamos con una pierna rota a 2000 metros de altura. Y a ver a qué vasco se le pasa por la cabeza llamar a la Ertzaintza (...) He visto yo "Agurtzanes", con un simple esguince agarradas a Guardias Civiles!"*<sup>111</sup> [UPT3/10]

Adibideak aditzera ematen du euskal kolektiboa Espainiaren irudikariari dagokion poliziaren (instituzioen) aurka agertu ohi dela harik eta horien beharra duen arte. Beste behin ere diskurtsoa (nahia) eta praktikaren arteko aldea nabarmentzen da, pentsatu edo esan eta egiten denaren arteko bereizketak sortzen duen inkoherentzia agerian jartzeak dakarrelarik *haustura*.

Berdintsua gertatzen da monarkiarekin ere. Espainiarekin lotzen den sinbolotzat jotzen den heinean, horretatik bereizteko argudio gisa baliagarria izan liteke. Baina up-ek argudio horren baitako inkoherentziak azaleratzen dituzte, praktika eta diskurtsoaren arteko jauzia bistaratuz, beste behin: "*Mucho*

110 Edonola ere, kontuan hartu behar da maitasun istorioak argumentuaren lokailu gisa funtzionatzen duela soilik, euskal kolektiboari buruzko up-ak egiteko aitzakiatzat funtzionatzen baitu.

111 ["Hemen asko esaten da ejertzito eta Guardia Zibilaren aurka gaudela baina gero haietaz gogoratzen gara 2000 metrotan hanka apurtuz gero. Ea ze euskalduni otutzen zaion Ertzaintzari hots egitea (...) "Agurtzaneak" ikusi ditut bihurtura txiki bat edukita Guardia Zibilen besoari heltzen ziotela!"]



*estar en contra de la monarquía, pero luego todo dios ve al rey en Navidad*"<sup>112</sup> [UPT3/22]. Espainiako estatu buruak (erregeak) Gabon-gaua telebistan egiten duen hitzaldiaz dihardu aipuak, euskal kolektiboak bai interesarengatik, bai jakin-minarengatik edota bai hurbiltasunarengatik ikusi egiten duela azalduz, eta ondorioz, monarkiaren aurka esan zitekeenari balioa kenduz.

Inkoherentzia horien adibide esanguratsuenak, ordea, *La Roja* Espainiako futbol selekzio nazionalaren adibideen bueltan sortzen dira batez ere. Espainiar nazioari dagokion futbol taldea izanik, sinbolo indartsua da espainiar naziotasuna aldarrikatzeko, eta beraz, taldeak egiten dituen partidua ikusteak edota haien garaipenak ospatzeak, neurri batean, espainiar naziotasunaren errotzea sustatzen duela uler daiteke<sup>113 114</sup>. Orain arte ikusten gatozen moduan *La Rojak* espainiar nazioari dagokion heinean euskal kolektiboaren errefusa pizten duela ulertzen dute up-ek, baina beste behin ere, arbuioa azalekoa besterik ez dela agerian jarriaz sortarazten dute *haustura*:

*"Batzokiak, Casas del Pueblo, Herriko tabernak. Garaiotan, PP-koak ere telebistan agertzen garen honetan, beste pausu bat eman nahi dugu. Ongi etorri Euskadiko Alderdi Popularraren tabernara: PPetxea. Armairutik ateratzek leku hobereana:*

*-Gooo! behingoagatik ospatu dezaken Espainiaren gola! Gol, gol! Eta gainera Xabi Alonsok sartu du, euskalduna eta Madrilekoa, oeoioe!"*

[UPT50/13]

Adibidean euskal kolektiboak *La Rojarekiko* zaletasuna lotsarik gabe agertzeko aukera ematen duen PP-ren ustezko egoitza baten berri ematen da. "Armairutik atetzeko" aukera dute bertan euskal kolektiboko sentitzen diren kideek, hau da, "egiazki" diren hori lasai agertzekoa, publikoki onartzen ez duten espainiar futbol selekzioaren partidez gozatu eta taldearekiko afizioa

112 ["Monarkiaren aurka gaudela asko esan bai, baina gero mundu guztiak so egiten dio erregeari Gabonetan"]

113 Honako ideia hau 5.2.4. Zeinuakatalean lantzen da sakonago.

114 Ekain Rojo autoreak lantzen du honako ideia (Rojo, 2013).

adieraztekoa. Hala, PP-ren egoitza gune "aske" gisa irudikatzen da, betebeharrak edo itxurakeriarik egin beharrik ez denekoa, eta euskal kolektiboak, aldiz, itxia eta hertsatzaile gisa. *Haustura*, kasu honetan ere, praktika eta diskurtsoaren arteko distantzia handia dela ageriko egiteak dakar: euskal kolektiboko kideek publikoki agertu ohi dutena (*La Roja* gustuko ez izatea) eta pribatuan "egiazki" direnaren (La Roja-ko zale izatearen) arteko desorekak sortutakoa.

Idea berdinean oinarritzen da *Vaya Semanitas* egindako antzerkia ere [B3] zeinak funtzioaren amaieran euskal kolektibokoei *La Roja* ikustea gustatzen zaiela eta onartu beharko luketela oihukatzen duten aktoreek<sup>115</sup>. Ezkutuan mantentzen den desio bat bailitzan eta hori agerian jartzeko kuraia izatera dei eginez edo.

Orotara esan daiteke, beraz, Espainiaz desberdindu nahia euskal kolektiboaren ezaugarri gisa jotzen dela, Espainia ez den bestelako errealitate eta identitate bati dagozkionaren sentimendu eta ustea agerian jartzen duen aurkakotasunaren bidez agertzen dena. Baina diskurtso horren ahultasuna ageriko egitea dakarte up hauek, kolektiboen arteko alderaketa horiek uste baino txikiagoak direla agertuz, eta beraz, aitortutako desberdintasun horiek itxurakeriatzat joaz.

Euskal kolektiboak igortzen diren irudikarien artean euskal kolektiboak dagoen kanpo begiradaren inguruko hausnarketa proposatzen dute zenbait up-k. Ariketa auto-erreflexibo bat balitz bezala, halako up-etan euskal kolektibokoei nola pentsatzen duten kanpotik ikusten dituztela azaltzen da, kanpo begirada horren agentea espainiarra delarik kasu guztietan.

Ondoko adibidean argi ikus daiteke aipatutako irudikapenen jokoak. Bertan Euskal Herrira bisitan etorri den bikote espainiarrak euskal kolektiboko kide batekin duen elkarrizketa agertzen da. Eskolako umeei egindako antzerki eta dantza saio bat ikusten dabilta hirurak eta honakoa diote funtzioari buruz:

115 Honako esaldia pluraleko lehen pertsona idatzia dago ("euskaldunoi", "zaigula"), antzerkiaren amaieran ikusle goari zuzentzen zirelako honakoa esanez, aktoreak beraiek eta ikusle goa, denak, euskal kolektiboko kide gisa hartuaz. Ikerlari gisa ikusle goaren baitan egonik, diskurtso hark ni neu ere barnebiltzen ninduen beraz.



–[Españ.] *Ui Manolo, que esto va de etarras ¡Que la niña esa lleva una capucha!*

–[Euskal.] *Es caperucita Roja señora.*

–[Españ.] *¡Ui, mira si tocan el acordeón!*

–[Euskal.] *Y no es un acordeón, es una "trikitixa"*

–[Españ.] *Pues hijo mío, es igual que la de María Jesús, la de los pajaritos. Que lo he visto en Benidorm. Estos se creen que por ponerle un nombre raro ya es vasco.*

–[Euskal.] *Es que son instrumentos diferentes.*

–[Españ.] *¡Pues tal y como la toca ese crío es un instrumento de tortura!*

–[Euskal.] *Puede ser. Porque vosotros de tortura sabéis un rato ¿no?*

–[Españ.] *¿Esos niños llevan espadas? ¡Madre mía! ¡Si al final van a ser todos cachorros de la ETA!*

–[Euskal.] *Es una "ezpatadantza" ¡Es un baile tradicional!*

–[Españ.] *¿Y cómo sigue la tradición? ¿Con cocteles molotov?"* <sup>116</sup> [UPT24/16]

Kontuan izan behar da up honetan euskal kolektiboaz gain espainiar kolektiboaren gaineko irudikapenak ere helarazten direla. Bikote espainiarra, esaterako, haien nazio identitatea beste edozeren gainetik aurrejartzen duten pertsonatzat agertzen dira irudikatuak. Alegia, errealitatearekiko iritzi eta balorazio guztiak identitate espainiarraren prismatik hautematen dutenak (eta ez, adibidez, genero edota adinak markatutako identitatetik). Espainiarrek kultura nazional espainiarrari dagozkion betaurrekoz ulertzen dute mundua eta begirada horretatik, esaterako, "trikitixa" akordeoi gisa ulertzen dute, hori baita espainiar kultura nazional hegemonikoak botoi eta hauspoz osaturiko musika instrumentu batez duten erreferentzia bakarra. Egiten dituzten gainontzeko

116 ["-Ui Manolo, hauek guztiak etakidez doaz. Neskato horrek kapelera darama! -Txanogorritxu da andere! -Ui, akordeoia jotzen dute! / -Eta hori ez da akordeoia, trikitixa baizik / -Ba, María Jesusek zeramanaren berdintsua da. Benidormen ikusia dut. Hauek uste dute izen arraroa jartzearekin euskaldundu egiten dutela edozer./ -Instrumentu desberdinak dira eta/ -Ba ume horrek jotzeko moduak torturarako instrumentu bilakatu du! /-Baliteke. Izan ere zuek torturaz zertxobait badakizue, ezta?/ -Umeek ezpatak daramatzate? Ai ama! Azkenean guztiak ETA-ko txakurkumeak izango dira eta! -Ezpatadantza da, dantza tradizionala! /-Eta nola darrai tradizioak? Molotov koktelekin?"]

balorazioak ere ikuspegi berdintsutik abiatzen dira, euskal kolektiboari loturiko errealitateak ulertzeko eta azaltzeko erabiltzen dituzten argudio guztiek espainiar kultura nazionalari erantzuten baitiote. Hala, ikus daiteke, up-ak aintzat ematen duela espainiar kultura nazionalak euskal kolektibo gatazka politikotik bana ezina den errealitatez jotzen duela, "cachorros de la ETA" edo "cocteles molotov"-ekin lotzen baititu etengabe. *Hausturak* hartara, espainiarrek euskal errealitatearekiko duten ustezko ikuspegi urrian oin hartzen du; kolektibo euskalduna gatazka politikora mugatzeak dakarren errealitatearen "distortsioak" egoera barregarritzat uzten duelarik ("*la niña esa lleva una capucha!*", "*Es caperucita Roja*"). Baina horrekin batera, beste hausnarketa bat ere kontuan har daiteke, up-ak ez baitu soilik espainiarren ikuspegiaren inguruko informazioa eskaintzen, horrekin batera ageriko egiten da euskaldunek nola irudikatzen duten haien buruaz uste dena. Kasu honetan bi gauzek bat egiten dute. Hau da, espainiarrek euskal kolektiboak borroka armatuarekin harremanetan jartzen dituztela irudikatzen den neurri berean, euskal kolektibokoek borroka armatuarekin lotutako irudia igortzen dutela uste dutela agerian jartzen da ere.

Ez da berdina gertatzen, ordea, hurrengo adibidean. Ondoko kasuan up-an agertzen den euskal kolektiboko kideak kanpora igortzen duen irudia gatazka politikoarekin uztartutako horixe bera dela ulertzen bada ere, espainiarraren pertzepzioa bestelakoa da orain. Espainiarrak ez du gehiago euskal kolektibo gatazka politikoarekin lotzen, eta horren ordean, irudikari berri bat esleitzen dio, kasu honetan kolektibo barregarri gisa hautematea dakarrena.

Adibidetzat har daiteke ondorengo up-a. Bertan telebista lehiaketa baten parodia egiten da eta parte-hartzaile madrildarrak galderaren erantzun egokia asmatu beharko du saria irabazi nahi badu. Hona galdera: "*¿Quién cae peor en Madrid: los franceses, los vascos o los catalanes?*" <sup>117</sup> [UPT29/2].

117 ["Zeintzuk maite dira gutxien Madrilén: Frantsesak, euskaldunak edo katalanak?"]



Parte-hartzaile madrildarrak hiru lagun ditu aurrean, euskalduna, frantsesa eta katalana, eta haien arteko bat aukeratuz erantzun behar du. Inor hautatu aurretik, ordea, kide euskaldunarekin eztabaidan hasten da:

–[Parte-hartza.] *Uf, está muy difícil. Los franceses caen mal en todas partes.*

*Los catalanes no los traga ni Dios. Hay que ver la rabia que da Guardiola...*

–[Euskal.] *Un momento, eso no es así. Los vascos caemos peor en Madrid, de toda la vida.*

–[Parte-hartza.] *No es pa' tanto, eh. ¡Si tenéis mucha gracia! Solo hay que ver "8 apellidos vascos" ¡Qué cachondos! ¿eh?*

–[Euskal.] *Que no, que no. A ver, ¿no te acuerdas del conflicto vasco?*

–[Parte-hartza.] *¡Hombre como no voy a acordarme! ¡Que en Euskadi no se folla! ¡Jajaja!*

–[Euskal.] *¿Y qué me dices de la kale borroka?*

–[Parte-hartza.] *Pues que es buenisima la escena del contenedores quemándose! ¡Jajaja! ¡Qué descojono! ¡Jajaja!*

–[Euskal.] *¡Si llevamos años intentando irnos de España! Acuérdate del plan Ibarretxe*

–[Parte-hartza.] *A ver, pero Ibarretxe fue al congreso de Madrid en plan noblote. Vosotros vais de frente. No como los catalanes que lo hacen como por detrás. Venga, me quedo con que los catalanes caen peor.*

–[Aurkezlea] *La respuesta es... ¡Correcta! Vamos con la siguiente. ¿Quién cae mejor en Madrid, los vascos o los andaluces?*

–[Parte-hartza.] *Está claro ¡Los vascos! Son muchísimo más agradecidos que todos los gaditanos juntos.*"<sup>118</sup> [UP29/2]

Adibidean, batetik, euskaldunen irudikoz espainiarrek haietaz uste dutena jartzen da agerian. Hala, aurreko adibidean ikusi den moduan euskaldunaren ustea da espainiarrek ez dituztela gogoko ("Los vascos caemos peor") eta horren arrazoitzat jotzen du gatazka politikoa ("conflicto vasco"). Haustura, kasu honetan ordea, diskurtso horren etendurak sortzen du, aintzakotzat ematen den euskaldunekiko ikuspegi ezkorra era bat eraldatua dagoela azaltzen baita bertan. Euskaldunak ez dira gehiago ezatsegin edo gorrotagarriak, xeble eta umoretsuak baizik ("¡Qué cachondos!", "Son muchísimo más agradecidos"), iritzi aldaketaren motiboa 8 Apellidos vascos pelikulari egozten diolarik. Adibideak aintzat ematen du pelikula horrek euskaldunekiko iritzia aldarazten lagundu duela Espainian, gatazka politikoa orain artekoa ez bezalako irakurketa berri

118 ["-Uf, zaila da. Frantsesak ez ditu inork gogoko. Katalanak ez ditu inork jasaten. Zein amorragarria den Guardiola.../ -Itxaron pixka bat. Hori ez da horrela. Euskaldunak dira Madrilen gutxien maite direnak, betidanik./ -Ez da hainbesterako ere. Grazia handia duzue! 8 apellidos vascos ikustea besterik ez dago. Zeinen xebleak! Eh?/ -Ezetz ba. Ea, ez al zara euskal gatazkaz akordatzun?/ -Gizona, nola ez naiz gogoratuko ba? Euskadin ez dela txortan egiten! Jajajaj./ -Eta zer diozu kale borroka?/ -Ba oso ona dela kontainerrak erretzen diren eszena! Jajajaj! Ze barregura! Jajajaj! -Baina urteak daramazkigu eta Espainiatik alde egin nahian! Gogoratu Ibarretxe Plana/ -Baina Ibarretxe Madrileko kongresura on-puska eginda agertu zen. Zuek aurrez aurre esaten dituzue gauzak. Ez katalanek bezala, ezkutuan dabiltzala. Katalanak gutxien gogoko dituztenak direla diot./ -Erantzuna ... zuzena da! Segi dezagun hurrengoarekin. Zeintzuk dira maitatuagoak, andaluzak ala euskaldunak?/ -Argi dago, euskaldunak! cadiztar guztiak batera baino grazia gehiago dute eta!"]

bat esleitu diola agerian jarriz, non, egon zitezkeen iritzi ezkorrak interpretazio umoretsuengatik ordezkatu arazi dituen. Hala, up-an euskal kolektiboari atxikitako "gatazka" adiera ez da gehiago politikarekin uztartzen, horren ordez, frustrazio sexualei lotua doakio orain ("*¡Que en Euskadi no se folla!*"); eta gatazkaren baitako adibide konkretuak, kasu honetan kale borroka, ez dira gertaera lazgarritzat joko gehiago, baizik eta izan lezaketen larritasuna galduz jazoera parodikotzat hartzen da ("*es buenisima la escena del contenedores quemándose*").

Horrenbestez, euskal kolektiboa orain artekoak ez bezalako irakurketekin uztar daitekeela agertzen du up-ak, gatazka politikoaren (zenbait aspekturen) irakurketa gogorrenetatik lokabe daitekeela agerian jarriz. Gertaera historikoak edo euskal kolektiboaren ezaugarriak, diskurtsoak eta praktikak aldatu ez badira ere horiekiko kanpo begirada eta interpretazioek (espainiar kultura nazionaletik eratorritakoek batez ere) umorerako bilakaera izan dutela iradokitzen du up-ak.

Ildo berberari eusten dio ondoko aipuak ere. Kasu honetan ez da hausturarik agertzen, baina honakoak ere agerian jartzen du euskal kolektiboarekiko kanpo begirada aldatu egin dela.

*«Zera esan digu, graziosoak garela; tira, zehazki, "¡qué gracias sois!". Eta ez dugu txisterik kontatu, ez gara adarrean ibili, ez dugu xebebrekeriarik egin. (...) Eta hirurok badakigu zertaz ari den, baina esatera behartu nahi dut, eta galdetu diot zergatik garen bada graziosoak. Zapla bota du, ebidentziaren indarrez: ¡Es que sois tan vascas!»*<sup>119</sup>

Errealitateko gertakari batez dihardu aipuak, euskal kolektiboko kide izate hutsak ("vascas") grazioso izatea berezkoa duelako ustea kalean topa daiteken diskurtsoa dela bistaratuz.

Euskal kolektiboaren kanpo hautespenaren jarrera erreflexibo bat iradokitzen dute azken up-ek. Euskal kolektiboak, batetik, gatazka politikoarekin izan duen lotura estua dela agerian jarriz; eta bestetik, azken aldian kanpo hautemate

horrek aldaketa izan duela proposatuz. Hala, euskal kolektiboaz orain arte gailendutako ikuspegiak (gatazka politikoarenak), estatu espainiarraren umore jomuga bilakatu izanarekiko duen antagonismoa up-en *haustura* gisa baliatzen da maiz. Eta horren bidez, euskal kolektiboari orain arte egotzi zaion ikuspegitik urrunduz, espainiar estatuari dagokionez talde umoretsu "berri" gisa hautetsia delako sentsazioa bistako egiten da. Hau da, espainiar kultura nazionalak umorerako eta umorez erabiltzen duen kolektibotzat ikusten dute haien burua: "*¡Somos los nuevos andaluces!*" [UPT3/7]<sup>120</sup>.

Oro har, aipagarria da up-etako euskal kolektiboaren irudiak espainiar Estatu-Nazioarekin (eta horren kolektibo eta kulturarekiko) duen menpekotasuna. Izan ere, euskal kolektiboaren tasuna zedarrizteko orduan Espainiarekiko lotura (edo deslotura) azaldu eta zehaztu "beharreko" elementu bilakatzen da maiz. Hala, harremanik dagoen onartu, zalantzakor utzi edota ukatuta ere, justifikatu edo argitara ekartzeko aldi oro egiten den ahaleginak agerian uzten du euskal kolektiboaren definizioak, euskal kolektiboa bera baina "handiagoa" edo "boteretsuagoa" den zerbaiti zor zaiola: hain zuzen ere, espainiar kultura nazionalari, eta zehazki, bertatik egindako irudipenen hegemoniari. Horren erakusgarritzat har daiteke aipatu den azken adibideetariko bat: euskal kolektiboa umoretsutzat ikusten hasi izana [UP29/2]. Izan ere, gatazka politikoaren irudikaria baztertu eta euskal kolektiboaren irudia umoretsutzat hartzeak ekartzen duen "diskurtso aldaketa" *haustura* gisa planteatzeak, agerian jartzen du espainiar kultura nazionaletik euskal kolektiboaz egiten diren irakurketa eta balorazioek zuzeneko eragina dutela. Esan nahi baita, euskal kolektiboaz dagoen kanpo irudia up-en gaitzat (*hausturatzat*) erabiltzeak erakusten du euskal kolektiboaz taldearen baitan egiten diren up-ek euskal kolektiboaren kanpo iruditik edaten dutela, eta ondorioz, euskal kolektiboaren auto-irudian espainiar kultura nazionaletik helarazten diren diskurtso eta irudikariek eragina dutela.

120 ["Andaluziar berriak gara"] Andaluziarrak "xelebre" gisa hauteman ohi dira espainiar kultura nazionaletik (Garcés eta Vicente, 2013), eta esaldi honek barrengarri izatearen estereotipoa euskal kolektiboari esleitzen hasi zaiola dakar aditzera.

119 Eskisabel, I (2013).

### 5.2.3.b. *Ikuspegi dibergentea*

Aipatu berri den euskal kolektiboaren inguruko irakurketa orokor horretatik harago, zenbait up-k euskal kolektiboa talde heterogeneo gisa ulertzen dute. Hala, gaingiroki ezaugarri konkretu eta komun batzuen inguruan irudikatu beharrean, euskal kolektiboa ezaugarri desberdinak dituzten subjektuz osaturiko kolektibo anitz gisa ulertzen dute. Up hauek kolektiboa irudikatze modu zabal eta irekia darabilte, zenbait kasutan kide guztiek komunean ezer dutenik ere zalantzan jartzeraino, eta euskal kolektiboa egon badagoela onartzen badute ere, malgutasun, ugaritasun eta iragazkortasunari asko zor dion ulerkeria izan ohi da. Euskal kolektiboa halako ikusmoldez darabilten up-ak ikuspegi dibergenteari dagozkiola ulertzen dugu.

Ikuspegi dibergentea duten up-ak azaltzeko bost azpiatal lantzen dira jarraian. Lehenik, ikuspegi dibergenteak zer nolako euskal kolektibo anitza irudikatzen duen eta aniztasun hori zer nola hautematen den ekarri da argitara. Segidan, euskal kolektiboa anitz bezala irudikatzen laguntzen duten hiru aldagai nagusi aztertu dira, generoa, lurraldea eta ideologia politikoaren arabera berezitasunak hurrenez hurren landuz. Amaitzeko, azaldu da ikuspegi dibergentearen baitan euskal kolektiboak agertzen dituen desberdintasunak desagerrarazi eta taldearen elkartasuna eta parekidetasuna sustatzen laguntzen duen aldagairik ere badagoela, "etsai komun" bat izateak euskal kolektiboaren baitako aniztasunak leun ditzakeela bistaratuz<sup>121</sup>.

#### - *Zenbat buru hainbat "euskal"*

Euskal kolektiboaren inguruko irakurketa dibergentearen aniztasuna modu argiengan irudikatzen dutenatariko batzuk Bi Balako kideak dira.

<sup>121</sup> Kasu honetan, ikuspegi konbergentean ez bezala, ez da atalaren eskema-laburpenik gehitu, azpi-atal honen edukiak ulerterrazagoak eta ez hain nahasgarriak direla ulertu baita.

*"Bakoitzak bere memoria ta /Gudariei maitasuna / Bere Batzoki, bere Alarde/  
Bere euskalduntasuna /Bakoitzak bere greba, bakoitzak / Bere Aberri Eguna /  
Orduan ez dut ulertzen zer den/ Herri egiten gaituna"*<sup>122</sup>

Desberdintasunen hiperboleaz *haustura* proposatzen dute aipuan, non hainbestekoak diren taldearen baitan aurki daitezkeen aldeak ezen kolektiboa zertan datzan edota zerk elkartzen duen identifikatzea ezinezko ariketatzat aurkezten duten. *Bi Balakoen* bertso sortak urrunago doaz aniztasunaren inguruko hausnarketaren ariketan eta euskal kolektiboaren barne desberdintasunak zerk sortzen dituen zerrendatzeko gai ere badira:

*"Oinaztar edo Ganboatarra / Zuhaitz bereko famili / Karlista batek liberalari/  
Teilatupea kiskali / Arzallus edo Garaikoetxea / Mili edo polimili / Zu gabe ezin inora joan / Zurekin ezin ibili."*

*"Bi bandotako herria da hau / Euskara edo erdara / Ezker, eskubi, Mirri edo Porrotx / Diario edo Gara / Atxaga, Sarri, Lete, Laboa / Ta hau luze joaten bada / Zaborragatik elkar hiltzeko / Kapazak izango gara"*

Historia, hizkuntza, politika eta alderdi politikoak, idazleak, poetak, pailazoak... adibide desberdinak erabiltzen dituzte euskal kolektiboaren baitan dauden diskurtso desberdinen (eta beraz, kolektiboa hautemateko modu aberatsen) testigantza gisa. Diskurtso eta pentsaera ugaritasunari balorazio bat egozten diote halaber, eta euskal kolektiboaren baitako aniztasuna gatazkarako motibo (historiko) izan dela agertzen dute haien hitzetan. Desberdintasunak markatzeko arrazoiak aldatzen joan badira ere, elkarren arteko arazoak beti presente egon direla azalduz. Hala, gizarte lau eta bateratuaren irudiarekin

<sup>122</sup> Ohar bat gaineratu behar da *Bi Balako* up-ei dagokienean. Izan ere, haiek egiten dituzten abestien letrak hutsean irakurriz gero ezin dira up lez atzeman. Hots, *Bi Balakoen* abestiak up dira zuzeneko emanaldietako interpretazioetan eta zentzua (umore kutsua) galtzen dute *performance* testuinguru horretatik kanpo irakurriak direnean. Adibide gisa ikus bideoa: Bi Bala (2013).

hautsiaz, bere baitan desberdina den eta desberdintasun horiengatik elkarren lehian dabilen taldetzat irudikatzen dute euskal kolektiboa (“*elkar hiltzeko / Kapazak izango gara*”).

Ikuspegi berdintsuari eusten dio ondorengo up-ak ere. Zenbait kasutan, elkarrengandik desberdinak izateagatik elkar ulertzea edo batzea ezinezko lorpen gisa aurkezten da. Alegia, kolektiboaren baitan ematen diren banaketak termino dikotomikoetan planteatuz desberdintasunak behin betikoak eta aldakaitzak direla agerian jartzen dute zenbait up-k. Kasu horietan, kolektibo bateragaitza izatearen hiperbolea erabili ohi da hausturatzat: “*Las dos cosas no puede ser. O eres, o no eres. O eres de Korta o eres de Juanito. O eres del Athletic o eres de la Real*”<sup>123</sup> [UPT2/11]. Euskal kolektiboa bere baitan desberdina izateaz gainera, elkargaitza delako ideia indartzen du honako up-ak, batekoa edo bestekoa izatea beste erremediorik ez dagoela eta guztia batuko duenik egotea ezinezkoa dela agertuz.



123 [“Bi gauzak batera ezin da izan. Edo bazara, edo ez zara. Edo Korta zale zara, edo Juanito zale. Athletic zale do Real zale.”]

Bestelako begiradaz jokutzen du *Twitterren* eskegitako ondoko irudi honek. Etxe-aurrealde bateko balkoietan dauden ikur desberdinen argazkia agertzen da bertan. Presoak Euskal Herriratzearen aldeko bandera; Reala futbol taldearena; Abiadura Handiko Trenaren kontrakoa; eta atez ateko zabor bilketaren aurkakotasuna agertzeko zakar poltsa ikus daitezke bertan. Irudia *#conflictovasco*<sup>124</sup> traolaz izendatua dator, hots, gatazka politikoari erreferentzia egiteko erabilia izan den terminologia berberaz, eta *haustura* sortzen du Euskal Herrian dauden gatazka eta enfrentamenduren ugaritasuna bistaratzearekin. Esan nahi baita, “euskal gatazka” gisa ulertu ohi den horretatik urrunduz (gatazka politikoa), euskal kolektiboaren baitan beste hainbat “gatazka” badaudela ageriko egiten du (AHT, futbola edota birziklatzea), eta kolektibo liskartia delako ideia indartzen du horren paradigmatzat argazkiko irudia erabiliz. Baina egia da argazkiak bestelako diskurtsorik ere indartzen duela zeharka, euskal kolektiboaren baitan dauden eztabaida eta horren ondoriozko azpitalde desberdinek eraikin berebetean lekua dutela erakusteko herri batean aniztasunak tokia ere badutela agertzeko metafora gisa ulertzea baitakar<sup>125</sup>.

Euskal kolektiboaren baitan desberdintasunak egon badaudela onartzetik abiatuz, horrek sor ditzakeen erretanak leuntzeko intentzior aritzen diren up-en artean euskal kolektiboko sektore guztiak komunean dutena topatzea izaten da ariketa ohikoenetarikoa bat. Hala, euskal kolektiboa anitza dela ulertuta ere kolektibo beraren parte izateko komuna den elementua zer nolakoa den definitzeko ahalegina egiten da sarri. Saio hau, ordea, ez da ikuspegi konbergentearekin nahasi behar. Hau da, ikuspegi konbergenteak, euskal kolektiboko guztiak komunean elementu batzuk dituztela hartzen du abiapuntutzat eta baieztapen horren gainean eraikitzen dira up-ak. Ikuspegi dibergenteak, aldiz, kolektiboa desberdina dela hartzen du oinarritzat eta denak elkartzen dituen ezer ba ote dagoen galde egiten du ondoren.

Galdera horren adibidetzat har daiteke, esaterako, *Bidasoa Biga So! Irri Iparrak eta Hego erak!* antzerkia. Ikuspegi dibergenteari dagokion up

124 [“euskal gatazka”]

125 Interpretazio horiek *twittari* emandako erantzunetatik jaso dira.

horrek, adibidez, Ipar eta Hego Euskal Herriko kolektiboko kideen arteko desberdintasunak oin hartuta, berdintasunik ba ote dagoen bilatzean sortzen dituzte up-ak: “*Zerk batzen gaitu eta zerk bereizten? Eta batzen gaituztela uste dugun gauza horiek benetan batu edo banatu egiten gaituzte?*” [B25]. Bilaketa horretan lurretik botatzen dituzte lokailu gisa ulertuak izan diren hainbat elementu. Horien artean, esaterako, hizkuntza, klima, gastronomia, parrandak, edo ligatzea (edo ligatzeko ezintasuna, zehazkiago). Ezaugarri horiek lekuan leku (Ipar edo Hego Euskal Herrian bereziki) desberdinak direla edota berdinak izanik ere desberdinak bailira hautematen direla (klimaren kasuan bereziki) eta ondorioz elementu komun gisa hartzea ezinezkoa dela azaltzen dute, euskal kolektiboa elkartzen duen elementu edo ezaugarri totemikoa<sup>126</sup> erantzunik gabeko galdera irekitzat utziaz.

*Bidasoa Biga Sol*-koek proposatutako igarkizunari *Bi Balakoek* erantzun posible bat topatzen diote eta arazoa zena soluzioa izan daitekeela iradokiz sortzen dute haien up-aren haustura:

*“Ez hormigoizko lur zatituak / Ez ikurrina kursiak / Ez ikasteko horren zaila den / Ereserki itsusiak / Ez historiak / Ez hizkuntzak ez / Munduko urre guztiak / Euskal Herria batzen du soilik / Elkar ezin ikusia”* [B19/13]

Hala, jatorria, hizkuntza, zeinu edo ikur guztien gainera, kolektibo osoak komunean duena (eta akaso gauza bakarra), elkarrengandik desberdinak izateak sortzen dituen norgehiagokak direla proposatzen dute; konpartitzen den gauza bakarra, hain zuzen ere, “*elkar ezin ikusia*” delarik.

Aniztasuna ez dute hain modu negatiboan hautematen *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimototxek*, desberdintasunak gatazkarako motibotzat hartu beharrean gizartearentzako positibo eta aberatsa den ezaugarritzat jotzen baitute, eta

—  
126 Hainbat autorek lan egin dute euskal kolektiboaren identitatea definituko duen ezaugarri bateratzailearen inguruan. Aipagarrietako bat Ander Gurrutxaga da (1990) zeinak identitatearen “dosel sakratuaren” gainean lan egingo duen, esanaz 90. hamarkadako euskal kolektiboak bereizi eta bakartzat irudikatzen duela bere burua, horretarako baliagarriak diren bereizgarri komunetatik abiatuz.

hala erakusten dute haien up-etan ere, ezaugarri desberdineko pertsonaiak etengabe nahasten baitituzte haien saio eta istorioetan. Adin (umeak, helduak eta adintsuak); ogibide edo jarduera (baserritarrak, enpresariak, irakasleak, medikuak, zorrotzaile, arrantzale, sorginak, piratak, etxeko andreak...); familia (haur adoptatuak, guraso bakarrekoak, guraso homosexualakoak...); hizkuntza (gaztelania, euskara, amazigha...); kondizio sozioekonomiko (eskaleak, langileak, aberatsak); edota nazionalitate edo sorterri desberdinekoak (afrikarrak, ijitoak, bereberrak...) elkar bizitzan irudikatzen dituzte, elkar ulermen eta sintonian, gatazkarako motibo izatetik urruti, elkarrengandik ikasi eta hurbilago egoteko (maitatzeko, bizi pozerako, alaitasunerako) motibotzat joaz [UPY6/2][UPY6/2] [UPY6/4]. Kasu horietan euskal kolektiboa aberatsa lez irudikatzen da, baina horren gaineko balorazioa kaltegarri gisa ulertzetik urruti, positibo lez erakustea lortzen dute pailazoek.

Euskal kolektiboa heterogeneo gisa aurkezten dute up askok, nahiz eta aniztasunaren inguruan batzuk eta besteek egindako irakurketak era bat desberdinak izan daitezken. Zenbait *hausturetan* aniztasuna gatazka eta liskarrerako motibo izan eta talde identitatea ikuspegi gatazkatu batean lerrotzen duen ezaugarri gisa irudikatzen da. Bestetan aberatsa eta positibo den berezitasuntzat da ulertua. Baina aniztasuna positibo edo negatibo, aberasgarria edo mugatzailea dela adierazteaz gainera, up-ek euskal kolektiboaren baitako desberdintasunak markatzen dituzten aldagaien gaineko balorazioak ere egiten dituzte. Esan nahi baita, euskal kolektiboarekiko ikuspegi dibergentearen baitan kokatzen diren up-ek ez diete desberdintasun guztiei balio eta karga bera egozten; horren ordez, berezitasun batzuk besteak baino esanguratsugotzat jotzen dira eta up-etan presentzia handiagoa eskuratzen dute.

Euskal kolektiboaren baitan ez da pisuzko aldagaitzat jotzen, esaterako, erlijio desberdintasuna (katolikoa, laikoa, agnostikoa, musulmana edo judua izatea ez baita kontuan hartu denik behin ere ikusi), aldiz, garrantzia handia eskuratzen du euskal nazioaren baitako nongotasunak (adibidez, gipuzkoarra



edo bizkaitarra izateak). Desberdintasun horiek, ordea, ez dira kasu guztietan modu zuzenean (*hausturen* bidez) helarazten, eta maiz, bigarren plano batean mantendu ohi dira, up-ak bestelako gaiak jorratzen dituen bitartean euskal kolektiboaren baitan desberdintasunak daudela eta horiek "normalak" direla helaraziz.

Datozen orrietan, zuzenean eta zeharka egiten diren diferentzia esanguratsuenak zeintzuk diren azaltzen da; generoak, lurraldeak eta ideologia politikoak, hurrenez hurren, markatzen dituzten kolektiboaren baitako aldeak agerian jarri.

Azken ideia horri lotuta, aipu garrantzitsu bat gehitu nahi da. Izan ere, badira euskal kolektiboaren baitako banaketa ekar dezaketen bestelako aldagai batzuk, horien artean adierazgarrienetariko bat hizkuntzarena (euskara). Hizkuntzaren erabilerak kolektiboaren banaketa ekar dezakeela ulertzen da euskal eta erdal hizkuntza kolektiboaren arteko bereizketa eginez. Baina harrigarria badirudi ere, hizkuntza up-etan ez da euskal kolektiboaren baitako elkar lehiarako elementu gisa aurkezten, alegia, hizkuntzak (euskara, frantsesa edo gaztelaniaren erabilerak) kolektiboaren baitan banaketa sortzen duela ikus badaiteke ere ez dira aurkakotasun horren gaineko up-ak topatu. Up-rik topatzekotan hizkuntza kolektiboaren ingurukoa izan ordez hizkuntza beraren gainean egindakoa izan da (euskararen ingurukoa normalki). Hots, up-etan ez da esaten euskal hiztuna "atzerakoia" denik, euskara hizkuntza "atzerakoia" dela baizik. Ulertzen da, noski, halako up-ek bigarren irakurketa bat iradokitzen dutela euskaraz mintzatzen denaren gainean ere, eta euskara ez ezik, euskal hiztuna ere "atzerakoitzat" hartzea dakarrela horrek. Baina zuzenean kolektiboa ukitzen ez denez, baloratu da hizkuntzaren gaineko irakurketak 5.2.2. *Hizkuntza* atalean landu direla eta kolektiboaren inguruko irakurketarik egitekotan atal horretan egindako interpretazioetatik atera beharko litzatekeela.

- *Generoa: "Euskal emakumea"*

Up-etan euskal kolektiboaz egiten diren irudikariek agerian jartzen duten barne bereizketarako aldagai gisa agertzen da generoa, eta zehazki, emakumezkoarena. Euskal kolektiboari dagozkion emakumeak ez dira zuzenean euskal kolektiboko kide gisa aurkezten, horren ordez, apartekotasun bat esleitzen zaie, aurrenik emakumezkoak eta ondoren euskal kolektibokoak direlarik<sup>127</sup>.

Generoaren ñabardura hori haien izendapenean antzeman daiteke maiz, emakumezkoak "euskaldunak" izan beharrean "euskal emakume" edo "mujer vasca" gisa identifikatzen baitira [UPT4/9][UPT23/12]. Hegemonia androzentrikoari erantzuten dion "bestekotasun" horrek dakar halako adierazpenik egiten ez denean euskal kolektiboa maskulinoz irudikatzea; gizonetzkoak bilakatzen baitira bestelako aipurik behar ez duen gizarte "normalduaren" irudi. Zenbait kasutan gainera, up-etan irudikatzen diren "euskal emakumeak" mozorroturik doazen gizonetzkoak dira, gizonetzko aktoreek karakterizaturikoak. Kasu horietan ere, non irudikatu nahi dena "emakumezkoa" den, gizonaren presentzia saihestu ezina bilakatzen da, eta "euskal emakumearen" irudikaria are eta "a-normalago".



127 Ikus aRP:2 eskema (563 orr.)



"Euskal emakume" azpi taldeari dagokion soslaiak gizonetzkoie esleitzen zaizkien ezaugarri bertsuak erakusten ditu, emakumezkoa izateak ez baitu haien "feminitatea" agerian jartzeko aukerarik uzten. Gizonetzkoen kasuan bezalaxe, emakumezkoak ere nortasun gogor eta hotzekoak dira, jenio txarrekoak, serioak, umore gabekoak eta langile sutsu eta konprometitu gisa agertzen dira. Hala, ("euskal") emakumea "zeinen gogorra" izatera irits daitekeen agerian jartzeko "gogorrenarekiko", hots, gizonarekiko, duen alegiazko gailentasuna irudikatzen da maiz up-etan, halakoetan *hausturak* hiperbole bidez osatzea izaten delarik ohikoena: *"Cómo os gusta a las mujeres vascas exhibir vuestro poderío. Algún día la ONU, o la OTAN mandarán construir un monumento en nombre del marido vasco humillado."*<sup>128</sup> [UPT1/15]. Euskal kolektiboaren ordenu sozial matriarkalari keinu egiez, gizonetzkoa emakumezkoaren menpeko irudikatzen da usu eta aurreneko horiek egin, jan, esan edo pentsatu beharrekoaren gainean agintzeko gaitasuna egozten zaio andrazkoari [UPT1/21].

Baldintzapen horren adibide adierazgarrietariko bat esparru sexualean ematen da. "Euskal gizonaren" gainetik egoteko gaitasunak sexu harremanak noiz eta nola edukitzeko erabaki ahalmena egozten dio "euskal emakumeari", eta ondorioz, gizona emakumearen erabakitzeko botere horren menpeko irudikatzen da: *"lo que quiero es echar un polvo con mi novia, un meneo en condiciones, que llevamos tres años juntos y ni siquiera me has dejau tocarte el culo!"*<sup>129</sup> [UPT11/13]. Baina kasu honetan sexu harremanen kontrola edukitzea bi aldeko txanpon bilakatzen da, emakumea "boteretsu" gisa agertu ordez sexurako beti prest dagoen gizonetzkoaren aurrean sexualki erreprimitu gisa azaltzen amaitzen baitu: *"Las parejas el primer día aquí no se suelen liar (...) nos presentaron unas amigas mías y estuvimos tres semanas hasta que... me dio el teléfono"*<sup>130</sup> [B30] dio "euskal emakume" batek. Honen bitartez, euskal

128 ["Zeinen gogoko duzuen euskal emakumeok zuen boterea erakustea. ONU eta OTAN-ek euskal gizonetzko umiliatuaren izenean monumentua egin dezaten aginduko dute egunen batean"]

129 ["Nere neskarekin larrutan egitea da gura dudana, behar bezalako astinaldi bat, hiru urte baitaramatzagu elkarrekin eta ipurdia ere ezin izan diot ukitu"]

130 ["Bikoteak, hemen, ez dute lehen egunean amodio aferarik izaten (...) nire adiskide batzuk aurkeztu gintuzten eta hiru astez egon ginen harik eta... telefonoa eman zidan arte"]

kolektiboa sexualki itzalia edo urria den gizarte gisa agertzen denean [UPT12/11] [UPT15/23], ez da gizonarengatik izaten, baizik eta "euskal emakumearen" aiurri gogor eta hotzaren ondorioz baizik: *"Adán y Eva no formalizan su relación hasta pasados 10 años. Eva se enfada y no hay más sexo. La maldición de los vascos."*<sup>131</sup> [UPT9/13]. Sexu harremanak izateko oztopoa nesken aldean kokatu ohi da, up-etan aditzera ematen baita behin eta berriz haiekin harremanak edukitzea izugarri kostatzen duela, bikotekide duen norbaitekin edo neska lesbiana batekin ligatzea baino zailagoa izateraino:

–*¡Qué maravilla de mujeres oye!*

–*¿Qué? ¿Esas tres Currito? ¡Ni se te ocurra!*

–*¿Qué? Si tienen novio ¡mejor!*

–*¡Peor!*

–*¿Peor? ¿Tijerazo?*

–*¡Peor!*

–*¿Peor?*

–*¡Que deben ser vascas por lo menos!"*<sup>132</sup>(sic.) [B30/3]

Eta hain zuzen ere horregatik, "neska euskaldun" batekin oheratzea lortuz gero, handiagoa da "meritua":

–*¿Te has tirao a la vasca?*

–*No, no, no cuenta. Hemos dormido na más*

–*¿Por qué no cuenta? Dormir con una vasca e como tirarte tres veces a una de Málaga"*<sup>133</sup>(sic.) [B30/11]

131 ["Adan eta Evak ez dute haien harremana formalizatuko 10 urte igaro arte. Eva haserretu egingo da eta ez dute sexu gehiago izango. Euskaldunen madarikazioa da"]

132 ["-Zeinen emakume zoragarriak! –Zeintzuk? Hiru horiek, Currito? Ezta erotuta ere! – Zergatik ba? Bikotea badute, hobe! –Okerrago! –Okerrago? Lesbianak? –Okerrago! –Okerrago? –Euskaldunak dira gutxienez!"]

133 ["-Euskaldunarekin txortan egin duzu? –Ez, ez, ez, horrek ez du kontatzen. Lo besterik ez dugu egin/ –Zergatik diozu ez duela kontatzen? Euskaldun batekin lo egitea Malagako batekin hirutan txortan egitea bezala da"]

Emakumezkoek erakusten duten "gogortasun" eta "hoztasuna", beraz, gizonezkoenen bestelako esparruei dagozkie. Gizonezkoetan gertatzen ez den moduan, esaterako, emakumezkoen "gogortasuna" ez da aspektu fisikoan kokatzen, hots, ez dira indartsu edo erresistentzia fisiko handiko subjektu lez irudikatzen, horren orde, maila afektibo edo nortasunezkoan soilik egozten zaie sendotasuna, eta fisikoki, gizonezkoa baino ahulagoztat agertzen dira. Desberdintasun nabarmenena, edonola ere, emakumezkoek beren emakumezko identitateaz agertzen duten alegiazko kontzientzia maila altua da. Gizonezkoetan ez bezala "euskal emakumea" feminista gisa aurkezten da askotan, zeinak, emakumeen parekidetasuna aldarrikatu eta praktikara eraman nahi izaten duen subjektu politiko lez irudikatzen diren. Kontzientzia feminista horren baitan, bi eredu (fisiko) desberdini erantzuten dieten emakumezkoak irudikatzen dira. Batetik, "euskal emakume" zabarra: bere itxura fisikoari arretarik jartzen ez diona eta erakargarria ez dena: "*Gora la selva negra y los matojos del Amboto*"<sup>134</sup> [UPT2/10]. Adibide horiek gizonezkoen antz fisiko hartzen duten emakumezkoen irudikaria indartzen dute, ideologia feministaren aldeotasunean emakume ederraren estereotipo hegemonikotik urrundu egiten den "euskal emakumeak" erakutsiz. Bestetik, ordea, bere burua asko zaintzen duen neska gazte panpoxaren eredu bultzatzen da: arropa, jantzi osagarriak edota orrazkera oso kontuan hartzen duen pertsona gisa aurkeztuz "euskal emakumea", hain zuzen ere, lehen ereduak saihesten duen emakumezkoaren irudi kanonikoari bete betean erantzuten diona. Baina bi adibideetako emakume ereduak, itxuraz desberdinak badirudite ere, funtsean ideia berberaren inguruan mugitzen dira; feminista gisa irudikatu nahi diren emakumezko horiek hegemonia maskulinoaren meneko izaten bukatzen baitute finean.

Batak, emakumezko gogor eta feministaren ideia indartzeko gizonaren antz fisiko duen "maskulinizaturiko" emakumezkoa irudikatzen duelako, hein handi batean 70-80. hamarkadetako mugimendu feministetako emakumezkoen ezarritako estereotipoak erreproduzitzen (Martínez,2004:46). Eta besteak,

134 ["Gora oihan ilun eta Anbotoko sastrakak!"]

kontrako muturrean, bere burua feministatzat jota ere edertasun kanoniko androzentrikoekin bat datorren itxura (eta jarrera fisiko) erreproduzitzen duen emakumezko "panpina" irudikatzen duelako. Batak zein besteak, beraz, eredu maskulinoak emakumezko duen irudi sinbolikoari erantzuten diote (emakumezko *mutil-atuarena*<sup>135</sup>), erreferentzialtasun maskulintik harago doan emakumezko eredu baten ezaugarriak ekidin edo erauziz ("mutilatuz") eta honen bitartez ikuspegi maskulino bati erantzuten dion emakumearen irudi bat indartuz ("mutilduz").

#### - Lurraldekako desberdintasunak

Aurreko ataletan ikusi den bezala, lurraldea euskal nazioaren baitako bereizketa geografiko (5.2.1. *Le Territoire*) eta linguistikorako (5.2.2. *Hizkuntza*) elementu esanguratsuenetariko bat da, nazioaren barne alderaketak sorrarazten dituen ardatz gisa funtzionatzen baitu maiz. Eragin berdintsua du lurraldeak kolektiboari dagokionez ere, leku batekoa edo bestekoa izateak taldeetasunari dagokionez ezaugarri desberdinak izatea ekartzen baitu gehiengoan. Bi dira lurraldeak markatzen dituen banaketa nagusiak: batetik, Ipar eta Hego Euskal Herriko kolektiboen artekoa; eta bestetik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarkoen artekoa. Lurraldearen araberrako kolektibo alderaketak kanpoan uzten du Nafarroa, bertan bizi direnei apenas ematen zaielarik protagonismoari up-etan. Ondorioz, 5.2.1. *Le Territoire* atalean Ipar Euskal Herriak up-etan zuen erreferentzialtasun murriztarekin ikusi den moduan, Nafarroa eta nafarrak dira kolektiboari dagokionean apenas presentziarik jasotzen ez dutenak. Nafarroako gizartearen inguruko aipu faltaren zioaz nafarrak erreferentzialtasunik gabeko kolektibo lauso eta zehaztugabe gisa aurkezten dira; jasotzen duten atentzio urriarengatik "bigarren mailako herritar" lez uzten direlarik bai eta zuzenean euskal kolektiboaren irudikaririk at geratu ere.

135 Angel Erroren *Neska mutilatua* poesiari dagokio kontzeptu honek. Zehazki, osoa izateko "falta zaion haragi puskagatik" nahigabetua dagoen neska batez dihardu. Poesia osoki irakurtzeko ikus: Erroa, A. (2016).

Kolektiboaren lurraldekako bereizketak bestelako aldagai bat dakar berarekin gainera. Izan ere, nongotasunak markatzen dituen euskal kolektiboaren baitako ñabardurek nekazal giro eta hiri gunearen arteko aldearekin zer ikusi zuzena agertzen dute. Ipar eta Hego Euskal Herriko biztanleriaren arteko desberdintasuna, adibidez, hiri/landa guneen arteko alderaketan funtsatzen da. Ipar Euskal Herriko gizartea baserri munduarekin lotzen da [UPT60/4], hiriko bizimodutik erabat aparte dagoen gizartetzat aurkeztuz. Naturekiko atxikimendu estua duten nekazariz osatua irudikatzen da eta ohitura eta kultura arkaiko eta folklorikoa ohikoak ditu (gaztak egin, euskal dantzetan aritu, txistua edo txalaparta jo...) [UPT17/20][UPT30/17]. Horien parean orojakile eta aurreratu gisa agertzen dira Hego Euskal Herriko hiritarrak, maiz enpresa munduarekin zer ikusia duten lanetan aritzen direnak eta kultura aberats eta jori batez gozatzeko aukera dutenak: besteak beste, futbola ikusi, kirolak praktikatu, zinera joan, erosketak egin, tabernetan aritu, parrandan atera edo lagunekin gelditzea bezalako ekintzak egiten irudikatzen baitira. Hego Euskal Herriarekin konparazioan Ipar Euskal Herriko gizarteak duen "berezitasuna" *haustura* gisa aurkezten da up-etan, batzuen eta besteen arteko aldea agerian geratzen baita, Ipar Euskal Herriko euskal kolektiboa "normaltasunetik" at dauden jarrera eta praktikak dituen gizartetzat erakutsiz.

Baina giro landatarrak hegoaldeko kolektiboaren hautematean ere eragina du eta "normatik" at geratzen dira, berdin, nekazal mundura loturik irudikatzen diren bertako subjektuak. Hots, Ipar-Hego arteko bereizketa egiteko aldagai izateaz gain nekazal munduak, oro har, eta "baserritarraren" irudiak, zehazki, Hego Euskal Herriko biztanleriaren bereizketa egiteko ere balio du. Hala, "*panazko galtza, franelazko alkandora, artilezko jertsea, abarketako galtzerdi potoloak, botak eta txapela buruan*" [UPT42/11] darabilten herri txikietako biztanleak (gizonezkoak usu), hiritarren "neutraltasunetik" kanpo geratzen diren subjektu "berezitu" gisa aurkezten dira.

"Berezitasun" horren gaineko irakurketa, bestalde, oso lotua doakio "euskaldun jatorraren" irudikariari. Hots, "normaltasunetik" at dagoen kolektibotzat jotzen bada ere esleitzen zaizkion ezaugarriak, euskal kolektiboko

jatorrizko kidearen irudiarekin bat datoz bete betean: "*miralo con la txapela ¡Ese sí que es un vasco de verdad!*"<sup>136</sup> [UPT23/4]. Baserritarra eta horri loturiko klixek beraz (janzkeran, izaeran, praktiketan, hizkuntzan...), "euskalduntasunaren" paradigma bilakatzen dira neurri handi batean; euskal nazioko kidearen ikono. Baina aldi berean, normatik aparteko trataera ematen zaio eta baserritarra euskal kolektiboko kide bada ere, euskal kolektiboko kide izateko ez da baserritarra izan beharrik. Hala, eta hain zuzen ere euskal kolektiboko kidearen paradigmatzat hartzen delako, euskal kolektiboaren neutraltasunetik at geratzen den figura bihurtzen da finean.

Baina landa gunetik landa gunera aldeak daude eta nekazal kolektiboaren baitan Ipar-Hego mugak ere zer esana du. Hego Euskal Herriko gizarteari esleitzen zaizkion "benetako euskaldunak" ("*un vasco de verdad*") ez dute Ipar Euskal Herrikoek jasotzen duten irakurketa berbera eskuratzen. Hots, nekazari gisa irudikatzen den Ipar Euskal Herriko gizarte eta Hegoaldeko baserritarrek komunean gauza asko badituzte ere, ez dira berdin ulertuak: elkar desberdintzen dituen, hain zuzen ere, "mugaren" alde banatan egotea baita. Honakoa dio, adibidez, Ipar Euskal Herriko kolektiboaz baserritarrez mozorroturik doan Hego Euskal Herriko batek: "*¡Ba! Esos son diferentes, no son como nosotros [barre egiten du] ¡Son franceses!*"<sup>137</sup> [UPT26/9]. Up-ak argi erakusten du baserritarren arteko aldea estatu batekoa edo bestekoa izateak markatzen duela: klase sozial edo gremio berdina izateak ez baitu elkar identifikatzeko balio baldin eta estatu desberdinetakoak diren. Sailkapen hori ageriko egiteak dakar *haustura*, ohikoa ez den garrantzia eskuratzen baitu estatu frantseseko kide izateak (espainiarrekoa izateari egozten ez zaiona) eta gutxiespenaren bidezko bereizketa egitea dakar horrek.

Up-etan Ipar Euskal Herriko gizartea Hego Euskal Herriko nekazarien berdina diren interakzio eta kultura praktikak dituen kolektibo gisa agertzen bada ere (baserritar janzkera, kultur adierazpen folklorizatuen praktika,

136 ["ikusi txapela jantzia duela. Hori bai dela egiazko euskalduna!"]

137 [Ba! Horiek desberdinak dira, ez dira gu bezalakoak, frantsesak dira!"]

nekazaritzarekin loturiko ogibideak ...), Ipar Euskal Herrikoak ez dira “vasco de verdad” [UPT23/2] gisa hautematen, hain zuzen ere frantziar estatuaren pean egoteak “desberdinen” artean (baserritarren artean) “desberdinagoak” bilakatzen dituelako. Euskal nekazari jatorraren estereotipoez irudikatzeak egotzen dien “euskal kolektiboko kide” paradigmatico izateko aukera zulatu egiten da Frantziarekin lotua dagoen kolektibo gisa hautematen den unean.

Bigarren irakurketa bat dakar horrek. Izan ere, Ipar Euskal Herriko kolektibo frantses(tu) eta ondorioz “desberdin” gisa ikusten bada, “dagokion” estatuarekiko (Frantziarekiko) duen lotura bistakoa suertatzen delako da. Baina, halaber, Hego Euskal Herriko baserritarrak “normalizat” ikusteak, espainiar estatuarekiko lotura desberdin balioesten dela agerian jartzen du. Hala, Hego Euskal Herriko baserritarrak ez badira espainiar(tu) gisa hautematen, espainiar estatuarekiko loturarik dagoenik ere uste (edo ikusten) ez delako da. Edo bestela esanda, espainiar estatuaren “baitan” egoteak ez du inolako “bestekotasunik” sortzen, normalizat hartzen baitira alde horretako baserritarren ohitura, interakzio eta mundu ikuskerak. Hain zuzen ere Ipar Euskal Herrikoak prisma horretatik baloratzeak dakar azken horiek “desberdin” gisa antzematea: espainiar eta frantsestasunaren arteko desberdintasunak direlako eta ez “euskal kolektiboko kide” izatearen berdintasunak erreferentziatzen hartzen direnak, kolektiboaren balorazioan estatu ikuspegia euskal nazioarenari gainjarriz.

Hiritarren eta landa guneko baserritarren artean ez ezik, probintzia desberdinen arteko mugek ere Hego Euskal Herriko biztanleria elkarren artean bereizten dute. Alderaketa hau bereziki esanguratsua gertatzen da EITB-k igortzen dituen up-etan, kasu horietan, EAE-ko lurralde bakoitzeko biztanleriari ezaugarritasun jakin batzuk esleitzen zaizkio, batzuk eta besteak elkarrengandik bereiziak eta desberdinak direlako ideia indartuz.

Ondoko kasua har daiteke adibidetzat. Bertan, Gasteiz, Bilbo eta Donostian saldu nahi diren hiru automobil modelo desberdinen publizitatea egiten duen up bat azaltzen da. Automobil bakoitza hiri bakoitzeko kolektiboaren ezaugarrietan oinarrituz izan da diseinatua, hartara, automobil ereduak lekuan lekuko (alegiatzko) gizarte ereduak islatzen amaitzen du neurri handi batean. *Hausturak*

automobil eta biztanleriari esleitu nahi zaizkion ezaugarriak harremanetan jartzean ematen dira. Honela dio Gasteizko autoari dagokion aipuak:

*“Seat Vitoria-Gasteiz. Un coche normal y corriente hasta la última pieza. Un vehículo en el que nadie se fijaría jamás. Perfecto para usted, gasteiztarra que quiere pasar desapercibido. No tiene lector de CD sino de Ken Follet. GPS para distinguir los barrios de Vitoria.”*<sup>138</sup> [UPT14/5]

Kotxearen ezaugarriak kolektiboaren tasunaren isla dira. Gasteiztarrak hutsaltzat jotzen dira, oharkabean igarotzen direnak (“pasar desapercibido”) eta beraz, garrantzi gutxikotzat dira hartuak. Irakurketa horrek bat egiten du 5.2.2. *Le Territoire* atalean ikusitakoarekin; Arabaren edo Gasteizen presentzia euskal nazioaren baitan ezdeusa dela agerian jartzen da kolektiboaren inguruan diharduten up-etan ere, bertako biztanleriak esanguratsua den ezaugarri ez duela edota ekarpen gutxiak direla irudikatzen baita. Ideia berbera maiz errepikatzen da up-etan, eta kasu batzuetan gainera Gasteiztar eta Arabarren inguruko aihergatasunetik balorazio negatiboak jaurtitzen dira: “Oye, no le comentas nada pero un poco raros sí que son. Éstos tienen que ser de Álava o así” [B30/18]. Edozein kasutan, bai aintzat hartzen ez direlako edota bai desberdin eta arrarotzat jotzen direlako ere (“raros”), Arabar eta zehazki Gasteiztarren inguruan aipurik egiten denean (maiz ez baitira egiten) oinarri edo ezaugarri zehatzik ez duen eta hain zuzen ere horregatik desberdintzen den talde bezala identifikatzen da. Gasteiztar eta Arabarrak euskal kolektibotik at utzi edo urrutiratzeko jarrera diskurtsiboa gailentzen delarik.

Arras desberdinak dira Bilbori, eta ondorioz bilbotarre, dagozkien ezaugarriak: gehiegikeria eta ahoberokerian oinarrituriko presentzia eta protagonismo nabarmena eskuratzen baitute.

138 [“Seat Gasteiz. Goitik behera arrunta den kotxea. Inork inoiz arretarik jarriko ez liokeen ibilgailua. Zuretzat egokia, oharkabean igaro nahi duzun gasteiztar hori. Ez du CD irakurgailua, Ken Follet irakurgailua baizik. Gasteizko auzoak bereizteko GPSa”]

*"Seat Bilbao: Un coche para los bilbaínos. Con 350 puertas, las que todo bilbaíno necesita para hacer subir a su cuadrilla. Se alimenta con agua de la Ría. No tiene caballos, tiene leones de potencia. Construida en titanio como el Guggenheim, figurita de la virgen de Begoña en el salpicadero y un maletero tan grande como el vestuario de San Mames. Es totalmente ecológico, menos cuando entra en Donosti, allí echa todo tipo de mierda por el tubo de escape."*<sup>139</sup> [UPT14/5]

Gasteiztarrei ez bezala Bilbotarrei beste probintzietako biztanleriatik bereizten dituen ezaugarri argiak egozten zaizkie. Batetik, edozertan erakusten duten gehiegikeria eta nabarmenkeria: 350 ateko kotxea, zaldien ordezkariak, titaniozkoa... Beharrezkoak izan edo ez, gauza asko, handiak eta ikusgarriak edukitzeagatik nabarmentzen dira. Horretaz gain, Bilbotarra Athletic zale gisa identifikatzen da beti eta futbol taldearekin zer ikusia duen edozer propietzat dutela agerian jartzen da ("leones" edo "vestuario de San Mames"). Hirugarrenez, Begoñako Ama Birjinari<sup>140</sup> debozioa agertzen dion kolektibotzat aurkezten da, hori soilik Bilbotarrearen zeinu izanik. Azkenik, Donostiarekiko (eta oro har Gipuzkoarekiko) etsaitasuna du presente: Bilbotar identitatearen harrotasun zeinuetariko bat, hain zuzen ere, Gipuzkoar ez izatearen baitatza. Honen bidez up-ak laburbildu egiten du Bilbotarrei oro har egozten zaizkien irudikari nagusietariko batzuk.

Amaitzeko Donostiarren adibidea agertzen du up-ak. Honakoei ere besteengandik bereiziko dituen berezko ezaugarriak esleitzen zaizkie, horien artean nagusia aberaskume izatearena delarik.

139 [Seat Bilbo. Bilbotarrentzako kotxea. 350 aterekin, bilbotar orok bere koadrila igotzeko behar dituen adina. Ibaiko uraz dabil. Ez ditu potentzia zaldiak, lehoiak baizik. Titaniozkoa, Guggenheim lez. Aginte-mahaian Begoñako amabirjinaren irudia eta San Mames adinako maletategia. Erabat ekologikoa da Donostian sartzen denean salbu, bertan orotariko zaborra botzen baitu ihes-hoditik.]

140 Bilboko patroizko izendatua izan baitzen 1903an.

*"Seat Donostia: 20 km por hora para saborear los paseos en la ciudad más bonita del mundo. 80 caballitos de carrusel de potencia. El mejor equipo de música (el orfeón en la parte de atrás) y una figura de Odón en el salpicadero. Precio 500 mil euros. ¡Genial! ¡Ese sí es un precio de Donostia!"*<sup>141</sup> [UPT14/5]

Aipu hau up-ak irudi bidez agertzen duenarekin lotu behar da. Izan ere, Donostiarrei saldu nahi zaien "autoa" estalkia duen motorrik gabeko txirringa da benetan, eta kotxearena behar zuen musika ekipoa txirringaren atzealdean eserita eta abesten doazen Donostiako Orfeoiko zenbait kide dira. Hala, "autoa" eta horren ezaugarriak txepelkeriaz beterik daude, bohemiar itxura hartzen duten ezaugarri a-funtzional eta esajeratuak izanik guztiak. Donostiarrak ere halaxe islatzen dira beraz: kapital kultural eta ekonomiko altukoak; gauzak patxadaz egiten dutenak; ia kontenplaziozkoa den bizitza lasai eta aspergarria dutenak; eta horretaz gain, jarrera hamalauaz dihardutenak.

Ikuspegi horri bestelako irudikariak gaineratzen dizkiote beste zenbait up-k. Bilbotar Athletic zalearekin gertatzen den modu bereberetan, Donostiarrei ere kluxe eta ikur jakin batzuk lotzen baitzaizkie. Horien artean izozkia, suziriak edota Kontxako baranda zuria [UPT51/12], bai eta izaera finolatua eta kexatua izatearena ere [UPT48/3]. Horiek guztiak, hala, ez dira ulertu behar modu soltean egozten diren ezaugarri iragazkor edo arbitrario gisa, baizik eta donostiarren identitatearen parte diren ikur eta ezaugarri bezala, zeinak *hiritar-tasun* jakin bat definitzeko gaitasuna duten zeinu bilakatzen diren.

Ezaugarri horiek, halaber, hiri edo lurralde bateko biztanleriaren ezaugarriak definitzeko gainera beste lurraldekoekiko harremanen nolakotasuna ere zehazten dute. Honakoa da, esaterako gipuzkoar eta bizkaitarren kasua.

141 [Seat Donostia: munduko hiri ederrenaz gozatzeko orduko 20 km-tara doana. Karruseleko 80 zalditxoko potentziaduna. Musika ekipu hobereana (atzealdean du orfeoia) eta Odonen panpina bat aginte-mahaian. 500 mila euroko prezioa. Izugarri! Hori bai dela Donostiako prezioa!]

lzan ere, donostiarrak eta oro har dipuzkoar guztiak, bizkaitarrekiko jeloskor irudikatzen dira up-etan; bizkaitarrek gipuzkoarrei dirua lapurtzen dietela edota protagonismo gehiegi hartzen dutelako irudikaria oso ohikoa baita up-etan.

*"Gipuzkoan karretera guztik txiki txiki inda zeudek, zea, desastre. Ta Bilbon ze? Metroko hiru linea. Ta geo beste hoi nola da, la Supersur. Inor ibiltzen ez dana. Ta hemen? Topo puta bat besteik etzeukeagu. Gure dirua bakik non daon? San Mames berri hortan. Ta gu gipuzkoarrak taka-taka ai gaituk gu hua dena pagatzen. Ala venga! Dena Bilboa, no te jode!"* (sic.) [UPT34/20]

Gipuzkoako edo Bizkaikoa den pertsonaia bat agertzekotan bere nongotasuna indartzeko baliabidetzat agertzen du beste probintziarekiko dagoen aurkakotasuna, kasu batzuetan elkarren arteko ezin ikusia "etsaitasun" gisa aurkeztuz esplizituki. Honakoa dio, esaterako, Donostiako Igeldo auzoa Bilbo bilakatu nahi duen politikari bizkaitar batek: *"Etsaiaren lurraldean dagoen kolonia Bilbotarra izango zarete"* [UPT41/19].

Aurreko adibideetan ikusi bezala, lurraldeak markatzen dituen kolektibo desberdinen arteko aldeak ez dira talde beraren baitan dauden joera desberdin gisa ulertu behar. Hots, ez dira kolektibo beraren baitan ematen diren berezitasun erregionalista gisa aurkezten. Horren orde, probintzia bakoitzeko kolektiboa beste lurraldetakoen erabat desberdina den gizartetzat irudikatzen da; euskal kolektibo berdin bati dagokion identitate komun bat partekatu orde, probintzia bakoitzekoa izatearen harrotasuna eta identitatea (identitate gipuzkoar, bizkaitar edo arabarra) delarik sustatzen dena [UPT21/18][UPT8/4][UPT2/21]. Alderaketa horien bidez, lurraldeen arteko desberdintasunak zeintzuk diren, eta ondorioz, bertako biztanleria besteengandik zertan desberdintzen den agerian jartzen da, hain zuzen ere, baten ezaugarriak ez dituelako beste bietariko inork errepikatzen; elkar bereizteaz gain identitate partikular eta errepika-ezin baten ideia indartzen duelarik horrek.

Lurralde identitate batetik bestera, ordea, alde nabarmenak daude. Azken adibideek argi uzten dute bizkaitarra (edo bilbotarra) izatea positiboagoa dela gipuzkoar edo arabarra izatea baino. Batetik, arabarra izateak ez dakarrelako identitate jakinik edota, hain zuzen ere, hori delako haien identitate zeinu bakarra, hots, (bizkaitarrekin konparatuz) arruntegiak izateagatik "definiezinak" izatea. Bestetik, gipuzkoarrak Bizkaiari begira daudela dirudielako, bizkaitarrek mesprexuz hartzen baitituzte gipuzkoarrak azken horiek inbidiaz (bizkaitar izan nahi batez) begiratzen dituzten bitartean. Hori dela eta, gainontzeko identitateak (*hausturen* bidez osatzen direnak) bizkaitarraren arabera eraikiak daude eta bizkaitarrei egozten zaizkien irudiakariak ez dira besteena bezain "negatibo" suertatzen finean.

Aipatu behar da, halaber, Bilbo eta Gasteizen kasuan hiriburuek lurraldearen ordezkari bilakatzen direla. Hau da, *5.2.1. Le Territoire* atalean ikusi den moduan, up-etan ez da kasik alderik egiten hiriburua eta probintzia horretako gainontzeko herriei dagokionean, eta hiriburuen erreferentziak probintziaren baitako gainontzeko biztanleria osoa sinbolikoki barne hartzen amaitzen du. Bilbo eta Bizkaiarekin gertatzen den moduan, gasteiztarrek Araban bizi diren guztien "ordezkari" bilakatzen dira; gasteiztarra izatea arabarra izatearen sinonimo bilakatzeraino. Donostiaren trataera, ordea, desberdina da Gipuzkoarekiko. Gipuzkoak bi irudikari desberdineko biztanleria baitu: hiriburuko biztanleria hamalau, fin eta sasi intelektuala batetik, eta herri txikietako nekazari folklorikoa, bestetik. Hala, aurretik aipatutakoa gogora ekarriaz, Hego Euskal Herriko baserritarrek Gipuzkoaren baitan kokatzen dira nagusiki, hiritarraren "normaltasunetik" at geratzen den kolektiboa izanik honakoa. Gipuzkoa bi bider estereotipatzea dakar horrek: Donostiako biztanleriaren aldetik lehendabizi, eta landa guneko biztanleriaren aldetik ondoren. Gipuzkoako eta Bizkaiko biztanleriaren konparazio balantza are eta desorekatuagoa uzten du horrek, eta oro har, Bizkaia edo Araba baino "a-normalago" bilakatzen da Gipuzkoa.

"a) *Ñoñostiartasuna abordatuz*"

Baina Donostiarrez diharduten up guztiek ez dituzte irudikari berberak indartzen eta zenbaitzuk hiriburuaren eta hiritarren bestelako ikuspegi bat helarazteko ahaleginean dihardute. Up horien adibide paradigmaticoa Donostiako *Piratena* da eta beraiek egindako ekintzen artean *Irrikitaldia* da azpimarragarrienetariko bat [B29].

2006tik aurrera Donostiako Aste Nagusiko jaiei amaia emateko parodia da *Irrikitaldia*. Bi aldarrikapen mota egiteko erabiltzen dute honakoa: batetik, hiriko alkateak edota bestelako autoritateek urte horretan zehar egin dituzten hiri kudeaketen inguruko hiru kexak publiko egiten dituzte. Horretarako, udaletxearen aurrean jarri eta alkateari gorespen ironiko bat egiten zaio urtean zehar herriaren alde egin duenagatik "eskerrak emanez" [E19c]. Bestetik, Donostiari eta donostiarrei egozten zaizkien irudikari pijo eta finduaren gaineko parodia egiten dute [E19c]. Bi aldarriak argitara ekartzeko, beste bi elementuren eszenifikazio parodiko baliatzen dira: batetik, Salbearen prozesioa hartzen dute kontuan; eta bestetik, donostiarrei dagokien alegiazko "ñoñostiartasuna". Salbeak, abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunean egiten den ospakizunari dagokio. Zehazki, Donostiara uda pasatzera etortzen zela, Francisco Francori<sup>142</sup> harrera egiteko garaiko mandatari eta kleroak burututako zeremonia da. Francori harrera egiteko antolatzen zen "festa" horren eremuan oinarrituz, beraz, Donostiako *Piratek* Salve forma ematen diote *Irrikitaldiari*.

Baina *Irrikitaldiak* badu beste ezaugarri bat ere, hiri identitatearekin, edota "ñoñostiartasunarekin" zer ikusia duena, hain zuzen ere. "Ñoñostiartasuna" dagokio Belle Époque-tik markatua datorren hiri eta hiritarren irudikariari eta bi ideia indartzen ditu *Piraten* aburuz. Batetik, espainiar kutsua duen inposatutako identitate gisa hautematen dute. Garai hartan Espainiatik zetorren

turismo handia jasotzen baitzuen Donostiak, eta ondorioz, "badago joera bat ñoñostiartasuna lotzeko Madrildik etortzen zen aristokrazia guztiarekin" [E19c2]. Bestetik, XIX. mende amaierako gizartearen bai eta hiri eta jai ereduari ere [E19b]. Alegia: "hiri mansoa edo umila izatearena, protestarako gaitasunik ez duena, espaziorik eskaintzen ez zaiona, parte hartzeko eskaintzarik ematen ez zaiona, garbia, inpolutoa, ze polita, ze zintzoak garen denak, Kontxako badia, ez dugu zaratarik ateratzen..." [E19c2]. Azken irudikari horrek, batez ere, gaur egungo Donostiaren, bertako Aste Nagusiaren bai eta hiritarren irudikarian pisu handi hartzen duela deritzote elkarrizketatuek (eta hala antzeman daiteke Donostiaren inguruan egiten diren up gehienetan ere). Belle Époque-aren garaitik gizartea asko aldatu bada ere, orduko ereduak gaurko donostiar identitatearen ikur (eta parte) izaten jarraitzen du, eta identitate hiritarrak hein handi batean "ñoñostiartasun" horrek kanonizatua segitzen duela deritzote elkarrizketatuek:

*"ñoñostia hitza aipatzen dugunean burura etortzen zaizkigun elementu guzti horiek dira konstrukzio bat guk ere poliki-poliki barneratu ditugunak." [E19c], eta ondorioz, "badaude ñoñostiartasunaren identitatearen barruan nik asumitzen nituen guzak: nik suak ikustea gustoko dut, nik elatuak jaten ditut. Hori ez da ñoñostiarra izatea, hori da Donostiarra."* [E19c2]

Donostiartasunak badu, beraz, "ñoñostiarrismotik" zerbait. Baina ez da hori bakarrik. Izan ere, *Piraten* ustetan donostiarra izateak bestelako ezaugarri batzuk ere badauzka, eta egozten zaien identitate xalo horrekin bat ez datozenak horietako asko. Hartara, irudi eta jarrera pasibo horretatik aldentzeko eta desberdina den identitate (eta irudikari) hiritar bat sortu eta garatzeko esparrutzat erabiltzen dute *Irrikitaldia*.

142 Francisco Franco ("El Generalismo" edo "El Caudillo" bezala ere ezaguna), espainiar diktadore eta militarra, 1936tik 1975 arte Espainiar estatu burua izandakoa.





143



144

"Inposatutako" irudikarien "inplasioa" proposatzen da up honetan; identitate "ñoñostiarraren" hiperbolizazioaz identitatea bera barrendik leherrarazi eta gaingintzea, alegia. *"Bada modu bat ere garai horretara itzultzea ba gaur egungoaz barre egiteko."* [E19c2]. Gaur egun Donostiarrei egozten zaien irudikariaz kontziente izanik, beraz, irudikari horren erabileraz honakoa gaingintzen saiatzen dira; "beste batzuek" egotzitako identitate baten objektu izatetik, identitatea eratzeko subjektu izatera igaroaz.

Baina kontuan hartu behar da, edonola ere, haien identitatearen parte bati soilik barre egiten diotela, eta beraz ez dela "haien buruaz" osoki barre egitea. Izan ere elkarrizketan aipatzen duen moduan: *"Irrikitaldian barre egiten diogu gehiago gutaz ulertzen duten horri eta ez hainbeste gu geranari."* [E19c2]. Hots, "ñoñostiarrismoa" haien identitatearen partetzat hartzen dute, kanpo begiradatik eta begiradari dagokionean hiritar identitatean karga handia duela baiteritzote. Baina hori ez da beraien hiri identitatearen osotasuna, hain zuzen ere "beste zerbait" direla sentitzen dutelako egiten baitute "direla onartu baina izateari utzi nahi dioten horren" parodia, hots, "ñoñostiarrismoaren" parodia. Hartara, identitatearen irudi esteretipatu horri ekiten diote up-en bitartez, eta ez ordea identitate osoari; "aita hiltzeko" (eta subjektu berri bat osatu eta indartzeko) mekanismo gisa erabiltzen dutelarik *Irrikitaldia*.

143 Donostia, 1964. Francori Donostian egiten ziztaion harrera irudikatzen da bertan. Ez da zehazki Salvearen irudia, baina gairako gizartearen jarrera islatzen du.

144 Irrikitaldia 2014. Belle Époque jantzita, Donostiako Santa Maria eliza aurrea.

*Irrikitaldiaren* adibideak kontuan izanik ikus daiteke, up-ak euskal kolektiboaren baitan lurraldea ardatz hartuta irudikatzen diren desberdintasunak argitara ekarri edo areagotzeko erabiltzeaz gainera, lurraldeak banaturiko kolektibo identitatea gaingintu edota eraldatzeko tresna gisa ere funtzionatzen duela. Hala, up-en erabilerak horrek euskal kolektiboarekiko dibergentzia propio bat eratzeko aukera ematen du; alteritatetik egotziriko diskurtsoak (Donostiarrak ez direnek egotzirikoak) subertitu eta burujabetza identitario (eta ondorioz politiko) baten (eta baterako) erreminta gisa funtzionatuz.

#### - Ideologia eta alderdi politikoak

Euskal kolektiboa anitz gisa irudikatzen duen aldagaia da politikarena, korronte ideologiko desberdinaek eta bereziki alderdi politiko desberdinek zatikatua eta elkarren etsai gisa irudikatzen baitute euskal kolektiboa.

*Ezaugarri orokorren* azpi atalean aipatu bezala euskal kolektiboa, oro har, gizarte politizatutzat aurkezten dute up-ek. Gatazka politika eta aldarrikapen independentistan oin hartuz, batik bat, euskal nazioa bertan egiten den jarduera politikoak markatua islatzen da: barrura begira politikarik gabe bizitzea ezinezkoa duen kolektibotzat aurkeztuz [B9/11], eta kanpora begira ekintza politikoarengatik nazioarte mailan ezaguna den nazio gisa erakutsiaz [UPA13/6]. Ondoko aipuan ikus daiteke azken kasu horren adibide bat, non, euskal nazioak Kataluniaren aurrean galtzen ari den protagonismoak euskal kolektiboan jeloskortasunak sortzen dituen:

*"Esto de Cataluña es indignante, que nos están comiendo la tostada a los vascos, que ya nadie habla de nosotros, a este paso vamos a ser como un pan sin sal: como la Rioja, o como Cantabria! Antes hablaban de Euskadi hasta en Radio Tropical, pero ahora..."*<sup>145</sup> [UPT8/13]

145 ["Kataluniakoa lotsagarria da, baztertzten ari gaituzte, inork ez du jada gutaz mintzo, horrela jarraituz gero gatzik gabeko ogi izango gara: Errioxa edo Kantabriaren pareko. Lehen Euskadiz mintzo ziren Radio Tropikalen ere, baina orain..."]

Antzeman daiteke nola jotzen den politika nazioaren zeinu bereizgarritzat, halakorik gabe beste "edozein" probintzia bezalakoxea litzatekeela adieraziz ("Errioxa" edo "Kantabria" bezalakoa). Era bat politizaturiko gizartetzat joaz, beraz, ez da harrizkoa politika eta alderdi politikoak talde barneko bereizketak sortzeko motibotzat erabiltzea, gizarte politizatu gisa ikusteak erraztu egiten baitu gizarte zatikatu gisa ikustearen ideia, aski baita korronte ideologiko desberdinen norgehiagoka bistaratzea kolektiboaren baitako desberdintasunak agerian uzteko. Korronte guztiek ez dute, ordea, trataera kualitatibo berbera jasotzen eta alderdi bakoitzaren arabera up-en *haustura*, eta ondorioz diskurtsoak, kualitatiboki desberdinak izaten dira. Hala, up-etan maizen kolpatua den jarrera ideologikoetarikoa bat ezker abertzalearena da.

#### a) Ezker abertzalea

Gehienetan, ezker abertzalekoei loturiko up-ak ez dira "ur handitan" sartzen. Alegia, up gisa aurkezten diren gaiak abertzaletasunari eta bereziki ezker abertzaleei loturikoak badira ere, alderdi horren inguruan egon litezkeen diskurtso eta errealitate guztiak ez dira umorez ukitzen. Hala, kolektiboaren ikuspegiari dagozkion up-etan ezker abertzalearen kudeaketa politikoaren inguruko up-ak bai eta ezker abertzalearen klixeeen ingurukoak izaten dira arruntenak, besteak beste, alderdikideei eta alderdiari esleitzen zaizkion ezaugarriez dihardutenak.

Lehen ildo horren baitan ikuspegi orokorrenari heltzen dioten up-ek ezker abertzalearen azken urteetako gora-behera eta zailtasun politiko-judizialen inguruan dihardute. Ondoko adibidean ikus daiteke halako kasu bat. Bertan, ezker abertzaleari zegokion Batasuna<sup>146</sup> alderdi politikoko kide bat irudikatzen da zeinak "proba" desberdinak gairatu behar dituen hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko<sup>147</sup>.

146 Batasuna 2001ean fundatutako alderdi politiko abertzale eta sozialista zen, 2003an Espainian legezkoa izateri utzi ziona. Frantziar, legezkoa izanik, 2013an desegin zen.

147 Ezker abertzalekoak izan diren zenbait alderdik hauteskundeetara aurkezteko izan dituzten arazo eta trabe erreferentzia egiten die up-ak. Kontuan izan behar da ezker abertzalearen baitan kokatzen diren alderdi politiko zein bestelako talde edo mugimendu legez kanpo utzi izan dituztela hainbatetan. Horien artean aipatu berriakoa Batasuna alderdi politikoa.

Up-ak garatzen duen ideia hori testuinguru jakin batean irudikatzen da, Batasunak hauteskundeetarako iristeko igaro beharreko probak irudikatzen *Humor Amarillo* saioko partaide gisa irudikatzen baita pertsonaia. Espainiar telebista publikoak 90. hamarkadan igorri zuen umore saioa (up) da *Humor Amarillo*. Bertan partaide desberdinek hainbat proba fisiko igaro behar izaten zituzten garaile izatera iristeko, horietako gehienak proba irigarriak izanik: lokatzetan zikinduta, uretara erorita edo kolperen batekin amaitzen baitzuten gehienetan. Kasu honetan Batasunako kide bat da proba horiek igaro behar dituen:

*"-Prueba de la Ley de partidos con el juez supremo. Da la salida al primer concursante. Un Batasuno Cudeiro.*

*- Gora Euskadi askatuta!*

*-Pero si quiere presentarse a las elecciones tendrá que superar las pruebas de la Ley de partidos. La primera, aceptar el Estado de Derecho ¡Y lo pasa! Eso sí, ahora mismo está más perdido que Fernando Barrena en una Jura de bandera. Pero el Batasuno Cudeiro no se rinde y corre a la siguiente puerta. Crear una formación limpia. Mmm, le ha costado. Normal. Cada vez es más difícil encontrar candidatos limpios para sus listas. Pero el bravo se levanta y ahí va, a por la prueba definitiva. [ETA biolentziari uko egin behar diola agertzen da idatzita] Un momento, está dudando, parece que no lo tiene claro... ¡Y ahí va! ¡Por fin lo han conseguido! Un momento, aun te queda la prueba más difícil: "El laberinto de la justicia". Para llevar los estatutos al Tribunal Supremo tendrá que superar al "Constitucionalista feroz"<sup>148</sup> [UPT3/11]*

*Hautura*, aurrenik, bi testuinguru nahasketak sortzen du. Hots, *Humor Amarillo* eta Batasuna alderdi politikoaren hauteskundeetara aurkezteko

148 ["-Alderdien legearen proba epaia aurrean duela. Lehen jokariari irteera eman dio. *Batasuno Cudeirori, -Gora Euskadi askatuta!* -Baina hauteskundeetara aurkeztu nahi badu Alderdien legearen proba gairatu beharko du. Lehena, Ongizate estatua onartzea. Igaro du! Hori bai, Fernando Barrena bandera agur batean baina galdutako dago. Baina *Batasuno Cudeiro* ez da kikiltzen eta hurrengo atera korrika doa. Osa ezazu formazio garbi bat. Mmm, kostatu zaio. Normala. Gero eta zailagoa du bere zerrendarako garbiak diren pertsonak topatzea. Baina altxa eta berriz doa azken probara. Egon piskat, duda-mudetan dago, badirudi ez duela argi... Hor doa! Azkenean lortu du! Zaude, oraindik proba zailena gelditzen zaizu: "Justiziaren labirintoa". Estatutuak Auzitegi Gorenera eramateko *Konstituzionalista basatiari* aurre egin beharko dio"]

zailtasunen elkarketak. Up-ak inoiz amaitzen ez den joko gisa agertzen du Batasunaren egoera, Alderdien legeak<sup>149</sup> egozten dizkion baldintzak betetzea oztopoz eta zailtasunez jositako bidetzat erakutsiz, ia lor ezina dena. Izan ere "Zuzenbidezko Estatu" onartu, "formazio politiko garbi bat sortu", eta "ETA-ren biolentziari uko egin" eta gero ere, oraindik "justiziaren labirintoa" eta "Konstituzioak onartzen duen proposamena egin" behar ditu hauteskondeetara joan nahi badu. Guzti hori *Humor Amarillo*-ren testuinguruan kokatzeak latza edo maldatsua den egoera bat arintzea dakar, eta ondorioz, ohikotasuneko ikuspegietatik ateratzea ere bai, horrekin *haustura* sortuz.

Alderdiaren gaineko irakurketa orokorrak lantzeaz aparte badira ezker abertzalearen baitako zenbait alderdik hartutako erabaki politiko jakinen inguruan diharduten up-ak ere. Gai errepikatuenetariko bat birziklatzeari dagokio eta horren harira gizartean sortutako eztabaida eta etsaitasun desberdinak hartzen dira up-en muin gisa.

Gogora ekarri behar da EH Bilduk<sup>150</sup> 2011kako hauteskondeen ostean Gipuzkoako Aldundia eskuratu zuenean, birziklatzeari zegokion politika berri bat ezarri nahi izan zuela udalerrietan, atez-ateko zabor bilketan oinarritzen zena. Baina alderdi denak ez ziren ados agertu aldaketa berriarekin eta horrek liskarrak sortu zituen bai maila sozial zein politikoan ere<sup>151</sup>. Gizartean sortutako eztabaida horiek luzerako eman zuten eta up-ek ere islatu zuten ezinegon hori: "*Marron el que tienen en Guipuzcoa con el reciclaje. Hemos pasado del ¡Jaia bai eta borroka ere bai! Al ¡Jaia bai birziklatu ere bai!*"<sup>152</sup> [UP1/14]. Birziklatzearen gaia forma anitzetan islatzen bada ere, gehienetan birziklatzearen aldeko jarrera da *haustura* gisa erabiltzen dena.

Adibidetzat har daiteke haur batzuei nola birziklatu erakustera joango zaien "Mery Poppins" euskaldun baten inguruko up-a. Ontzi bakoitzaren kolorearen arabera zaborra nola banatu erakusten die umei honako abestia kantatzen dien bitartean:

149 Espainiako Alderdien legea 2002an jarri zen indarrean eta alderdi guztiek demokrazia eta konstituzioaren aldeko zirela bermatzea zuen helburu.

150 EH Bildu koalizioa Sortu, Alternatiba, Aralar eta Eusko Alkartasuna alderdi politikoei osatzen dute.

151 Maila politikoan diogunean instituzio eta erakundeei egin nahi zaie erreferentzia

152 ["A ze arazoa duten Gipuzkoan birziklatzarekin. *Jaia bai eta borroka ere bai!* adarritik *Jaia bai birziklatu ere bai!* aldarrira igaro gara."]

*"Lo más importante es ser... Súper abertzale anti españolista y rojo. Sortu, Bildu y Amaiur ya cuentan con mi voto. Reivindicando Navarra tú serás dichoso. ¡Súper abertzale anti españolista y rojo!"*<sup>153</sup> [UPT15/3]

EH Bilduren diskurtsoa testuinguru infantilizatu batera darama up-ak; umeak (biztanleria) gisa batekoak (atez-atekoaren aldeko) izan daitezen konbentzitu behar dituen irakasle moduan aurkeztuz alderdi politikoa. Gizartea "hezi" nahi izatearen ideia hori behin eta berriz errepikatzen da birziklatzearen gaian, eta EH Bildu irakasle paperean islatzen da beti, irakaslearen pertsonaia aldatuz doalarik kasuan kasu: Mery Poppins [UPT15/3], ezker abertzaleko militante bat [UPT14/6] edo Laura Mintegi [UPT10/14], agertuaz, besteak beste, lan horretan.

Ezker abertzalea up-ek ukitzerakoan erabiltzen den bigarren korronteak alderdiari eta alderdikideei dagozkien ezaugarriekin du zer ikusia. Ezaugarri horien artean aipagarria da, besteak beste, ezker abertzaleko alderdiak ilegalizazio eta atxiloketekin lotzeko dagoen joera zabala. Horren adibidetzat honakoa diote *Beranduegikoek* Sortu alderdi politikoaren<sup>154</sup> inguruan:

*"-Egia esan ganora handirik gabe hasi da Sorturen ibilbidea, lehen kongresua izan zen asteburukoa eta idazkari nagusia ez zen joan.*

*-Aizu, errespetu pixkat. Gartzelan dago.*

*-Yaa!"* [UPA19/4]

Ezker abertzaleko politikariak maiz atxilotuak direla agerian jartzen du up-ak eta ideia horren esajerazioak sortzen du *haustura*. Zehazki, Sortuko idazkari nagusia (Arnaldo Otegi) alderdia osatu aurretik jada kartzelan zegoela jakin

153 ["Garrantzitsuena da... Super abertzale anti-espainiar eta gorria izatea da. Sortu, Bildu eta Amaiurrek nire bozka dute. Zoriontsu izango zara Nafarroa aldarrikatzen. Super abertzale anti-espainiar eta gorria!"]

154 Sotu 2011ean ezker abertzaletik aurkeztu zen alderdi politikoa da.

gabe, bigarren esatariak ulertzen du alderdiaren lehen kongresua ospatu baino lehen kartzelatu dutela, alegia, apenas alderdiaren lehen urratsetan. Hiperbolea sortzen da horrela ezker abertzaleko kideak atxilotzeko ekintzen gainean eta ezker abertzaleko kideen tasunak preso izatearekin edo kartzelan sartzearekin lotura zuzena duelako ideia indartzen da.

Alderdikideekin ez ezik alderdiak berak dituen ezaugarriekin ere lotura izan ohi dute up-ek. Maiz *haustura* gisa erabilia da ezker abertzalekoek duten izen andana eta Bildu, Amaiur, EH Bildu eta Sorturen arteko aldea nahasgarritzat erakutsiz [UPT42/17] hauteskudetara aurkezten diren aldi oro talde berdina edo desberdina ote diren zalantzan geratzen dela ematen dute aditzera<sup>155</sup> [UPT44/8]. Nahasmenaren aurrean honakoa dio Donostiako Bilduko alkate ohia (Juan Carlos Izagirre) irudikatzen duen pertsonaia batek: *"Me hago el lio hasta yo. No me extraña que en Madrid digan que todo es ETA, es mucho más fácil de acordarse"*<sup>156</sup> [UPT22/16]. Kasu honetan argi ikus daiteke alkateak bere alderdiaren izena ez ezagutzeak dakarrela *haustura*, baina horri bestelako ñabardura ere gehitzen dio up-ak, ezker abertzalea ETA gisa izendatzeak auzia sinpletuko zukeela iradokitzen baitu. *Haustura* indartzea dakar azken horrek, hutsaltasunez aurkezten baitu ezker abertzalea ETA-rekin elkartu eta talde armatuaren pareko jotzeak suposa lezakeena: horrek ekarriko lituzkeen konnotazio eta ardura politikoen gainetik izen aldaketaren abantailak soilik aipatzen baititu.

Ezker abertzaleak hartu dituen izenak ez ezik erabili dituen ikur eta logoak ere hizpide dira up-etan. Horren adibidetzat, *Beranduegik Ernai* gazte antolakundearen inguruan esandakoa kontuan har daiteke. *Beranduegikoek* antolakundeak erabiltzen duen logoaren harira egiten dute *haustura*, logoa *Bob belakia* marrazki biziduneko pertsonaia batekin alderatuz: *"benetan interesgarria Ernairen logoa da. Ernai Patrik izarra da!"* [UPA9/2]

155 Ilegalizatua izanagatik, askotan alderdiak izenez aldatu behar izan du hauteskudeetara aurkeztu ahal izateko.

156 ["Ni ere nahasi egiten naiz. Ez zait harritzen Madrilen dena ETA dela esatea, oroitzea baino errazagoa da"]



Kasu honetan *haustura* erkaketak dakar, berez loturarik ez duten bi elementuren artean aurkitutako ezusteko antzekotasunak<sup>157</sup>.

Ezker abertzalearekin loturiko estetikaren inguruko up-ak alderdiaren ikurrei ez ezik, militante edo gogaide direnen ezaugarri fisiko eta janzkera estiloari ere heltzen diote: *"peinado de nuca rapada con flequillo escalonado, piratas y camiseta ancha, pins de Euskal Herria o de Presos, una riñonera y un Lauburu como colgante"*<sup>158</sup> [UPT15/15]. Hala, ezker abertzalearen inguruan mugitzen den jendearen irudi kanoniko bat eskaintzen dute up askok:

*"unas sandalias con cierre de belcro, unos pantalones pirata, ta hiru kamixeta imprescindible: bat la de tu equipo, Athletic o Real, otra Euskal Selektzioa, ta luego alguna con algún motivo euskaldun. Y ya con estas camisetas tienes para tirar un mes entero fuera de casa. Y como complemento el Lauburu. Y lo más importante, la ikurriña.*

*-Eskerrik asko, ahora sí que puedo ir por ahí sin que se piensen que soy española."*<sup>159</sup> (sic.) [UPT14/20]

157 Honako alderaketa honek eztabaida sortu du sare sozialetan, eta zalantzan jarri da *Beranduegikoek* "zilegitasunik" ote duten halako up-a egiteko. Análisi honetan gehiago sakontzen da hurrengo atalean, hots, 5.3. *Distantzia*-an.

158 ["garondoa soildua eta mailakatutako kopeta-ilea duen orrazkera, pirata eta kamiseta zabalak, Euskal Herriaren edo Presoen pinak, gerriko poltsa eta Lauburu lepoan"]

159 ["belkroz isten diren sandaliak, galtza piratak, eta ezinbestekoak diren hiru kamiseta: zure futbol taldeko bat, Athletic edo Real, Euskal Selektzioko beste bat, eta euskal apaingarririk duen beste bat. Eta kamiseta horiekin hilabete etxetik kanpo pasatzeko adina duzu. Eta osagarri gisa Lauburu. Eta garrantzitsuena, ikurriña./ -Eskerrik asko, orain bai joan naitekeela lasai, jendeak espainiarra naizenik pentsatu gabe."]

Adibide horretan bi *haustura* proposatzen dira. Alde batetik, eta azken esaldiak argi uzten duen moduan, ezker abertzalekoek espainiar gisa kontsideratuak izateari dioten "beldurra", hots, espainiar izatetik ahalik eta gehien urruntzeko desioa agerian jartzen da. Eta horrekin lotuta bigarrena, alegia, desberdintzeko esfortzu horretan egiten diren ahalegin estilistikoaren hiperbolea, espainiarrengandik bereizteko arropaz aldatzearekin "aski" dela aditzera emanez. Ezker abertzaleko kide izateko (edota espainiar gisa errekonozitua izateari uzteko) erraztasuna da, hala, *haustura* dakarrena; hizkuntza, lurraldea, identitate politikoa edota kulturarekin dauden atxikipeanak edo praktikak edozein izanik ere, aldaketa estetiko bat egitea batekoa edo bestekoa izateko aski dela agerian jartzeak.

Antzeko zeinu estetiko eta estilistikoak erabiltzen ditu *Beranduegik* ezker abertzalekoak irudikatzerakoan. Up-etariko batean, adibidez, Sortu alderdiaren afiliatu izatearekin eskuratu daitekeen txartelaren abantailaz dihardutenean agerian jartzen dira ezker abertzaleko militante eta jarraitzaileei egotzen zaien ezaugarrien tasuna. Besteak beste, Sorturen txartela edukitzeak ondorengo abantailak dakartzalako: "*besoa sendotzeko asteroko gimnasioa*", "*Salomon botak eta Skunk Funk denda oso bat*", "*Hondakinak gaika biltzeko kubo sorta*", "*Otegiren liburua*", "*Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendiren bertso hautatuak*" eta "*kontrol batean bost ordu zutik ematea*"[UPA2/4]. Bi alde azpimarra daitezke up honen inguruan. Batetik, ezker abertzaleko kideei loturiko klixeeen zerrenda egiten dutenean aipatzen dituzten elementuen exajerazioa egin izana. Besteak beste, *Eusko Gudariak* abestia (ezker abertzalekoen artean abesten dena) besoa altxatuta kantatzen delako, eta beraz, ariketa fisikoa egiteko aukera ematen duelako horrek; edota *Skunk Funk* markako jantziak Ezker abertzaleko direnen artean ustez ohikoak direnak (matrize kulturala), Sortuko txartelak halakoak nahi adina kontsumitzeko aukera ematen duela adieraziz. Bestetik, ordea, up-aren *haustura* Sorturen txartela izateak abantailak (bakarrik) eskaintzen dituela agerian jartzean eraten da, Sortuko benetako militante izateak dituen oztopoak ere "positiboak" bailiran agertzen baitituzte: kontrol polizialean gelditua izateko aukera gehiago daudela aipatuz horien artean. Azken adierazpen horrek ironia darabil hitzez adierazten deunaren aurkakoa helarazteko, abiapuntutzat hartuz ezker abertzalekoei egiten zaizkien kontrol polizialak.

Ezker abertzaleko jendearen ezaugarriari dagokienez badira bestelako hausnarketa korrante bat bultzatzen dituzten up-ak ere. Hau da, ezaugarriak zerrendatu edota hiperbolizatu orde, horien gaineko balorazio kritiko bat proposatzen dutenak: hain zuzen ere, ezker abertzaleko militante eta jarraitzaileek hartzen dituzten jarrerak eta egiten dituzten ekintzak "itxuraz" eta "itxuragatik" egindakoak direla baloratzen dituzten up-ak. Joera horren paradigmatzat har daitezke *Bi Balakoen* letrak:

*"Zenbat aldatu gara / ehun urte hontan / Zenbat Angiolillo / kartzela zulotan / Zenbat sasi Txirrita / manifa ondotan / Asko lotsatu gabe / presoei bertsotan.*

*Eta jendeak txalo / ene hau zirrara / Kontzientzia dugula / akordatu gara / Bilbon aterkipean / denok manifara / Horrela tokatzen da / gaur urtarrila da.*

*Lagun bat daukat Fleuryndiot harrotzeko / Bost urte daramatza / han dagoeneko / Guztia daukagu prest / bere alde emateko / Baina urruti dago / bisitan joateko.*

(...)

*Nere argazki izan / nahi zuen gaurkoak / Hau gera ez besterik / jatorrak, guapoak / ezker abertzaleko / hautesle majoak / Sozial demokraziak / irentsitakoak."*[B16/4]

Kontuan hartu behar da bertso sorta horren amaieran *Bi Balakoen* egiten duten aipua. Izan ere, adierazgarria suertatzen da ezker abertzalekoei egindako kritika horren baitan kokatzen direla beraiek ere ("*Nere argazki izan / nahi zuen gaurkoak*"), neurri handi batean haien buruari eginiko auto-kritika egiten dabiltzala ulertu behar delarik<sup>160</sup>. *Hasturari* dagokionez bertsoek inkoherentzietan indar egiten dutela esan daiteke. Alegia, ustez ezker abertzaleko batek izan beharko lituzkeen ekintza eta pentsamenduekin bat ez datozen jarrerak azpimarratzen dira. Horien artean manifestaldietara "tokatzen duelako" joaten den jendea dela edota presoren bat ezagutzea harrotzeko

160 Ideia hau kontuan izatea garrantzitsua da hurrengo atalereko, 5.3. *Distantzia*

motibotzat hartzen dutenak direla aipatuz. Ezker abertzaleko "esana eta izanaren" arteko kontraesanak agerian jartzen dira horrela, eta auto-kritika forman helarazia, ustez egin beharko litzatekeenaren eta "egiazki" egiten denaren arteko desorekak up-aren *haustura* eragiten du. Baina non kokatzen da zehazki *haustura*? Alegia, zer dagokio egitea eta izatea ezker abertzalekoa den bati? Zehazkiago, zer nolako matrize kulturaletik abiatzen dira ezker abertzalekoen inguruko up-ak? Up-en bidez igortzen diren ezker abertzalearen inguruko irudikariek kontraesanekoak diren jokamoldeetan egiten dute maiz azpimarra. Halako adibideetan, beraz, bistaratu egiten dira ezker abertzalekoek "izan beharko" litzuketzen ezaugarriak zeintzuk diren (matrize kulturala):

*"Es abertzale aunque de euskera no sepa ni papa. Traduce sus apellidos al euskera siempre que puede y compra el Gara. Cuando juega la Roja siempre lo ve y si hay nubes huye a Laredo. Sabotea la 'Y' vasca, pero si la hacen será el primero en usarla."*<sup>161</sup> [UPT10/19]

Ezker abertzaleko bati egokitu beharko litzazkiokeen ezaugarriekiko desdoiak diren jarreretan oinarritzen da azken adibidea, egin "beharko" litzuzkeen eta egiten ez dituenetan edo gaizki egindakoetan oin hartzen duelarik *hausturak*. Hala, ezker abertzalekoa denak egin ezin dituenak zer diren agerian jartzen da eta honekin batera baita ezker abertzalekoa den baten tasuna ere. Besteak beste, halabeharrez euskaraz hitz egiten duela, guraso euskaldunak dauzkala, Euskal Futbol Selektzioaren aldekoa dela edota AHT-aren aurkako jarrera izan behar duela erakusten baitu up-ak. Kasu honetan, ordea, ezker abertzalekoa izatea itxurakeriatzat uzten du up-ak, dagokien "eginbehar" edo ezaugarriak betetzen ez dituztela, eta ondorioz, inkoherentziaz (eta ahuldadez) beteriko jarrera politikoa dela agerian utziz.

161 ["Abertzalea da euskaraz tutik ez badaki ere. Ahal duen guztietan bere abizenak euskarara itzultzen ditu eta Gara erosten du. La Rojaren partido guztiak ikusten ditu eta eguraldi txarrarekin Laredora ihes egiten du. Euskal 'Y'-aren aurka dago, baina egiten badute lehena izango da erabiltzen."]

Joera berdina ikus daiteke ondorengo adibide honetan ere. Bertan, Hispanitatearen eguna, alegia, Espainiako festa nazionala hartzen da testuinguru gisa. Ezker abertzalekoek Espainiarekiko desloturan sinesteagatik ospatu beharko ez luketen jaia dela aintzat ematen du up-ak baina ideologia politiko eta praktikaren arteko desloturan oin hartuz ezker abertzalekoak inkoherente gisa erakustean funtsatzen da *haustura*:

*"-¿Vas a abrir la herriko [taberna]<sup>162</sup>, eh?; ¿Que se note que aquí en Euskadi no celebramos el día de la hispanidad!*

*-[Abestuz erantzungo dio] A veces olvido que voté a los de ANV... Nos da igual que la fiesta sea española, no dar un palo al agua es lo que nos mola. Y es que hoy, soy abertzale soy español, me voy a Castro o hasta Salou y cojo puente igual que un Borbón. Con tal de irme a Benidorm, acepto España como nación."*<sup>163</sup> [UPT10/23]

Up-ak aditzera ematen du ezker abertzalekoen ideologia politikoa ez dela itxuraz erakusten dena bezain zurrun eta koherentea. Kasu honetan oporrak hartzeko nahia haien ideologiarekiko deslotzeko aski arrazoi sendo bihurtzen da, hainbestearino ezen Espainia nazio bezala onartzeko prest ere agertzen diren. Halako up-etan arrazoi desberdinak tarteko egonik (kasu honetan interes indibidual eta kapitalistak) ezker abertzalea ahul agertzen da beti eta ideologia horren aldekoak pertsona faltsu edo maneiagarri bezala.

Ikusi berritakoa kontuan hartuz antzeman daiteke ezker abertzalea up-en jomugatzat erabilia dela sarri, eta nahiz eta kolpatzeko moduak erabilitako *hausturen* arabera alda daitezkeen up horien presentzia jarraitua da. Legez kanpoko alderdiak edukitzea (edo eduki izana), ETArekiko nolabaiteko lotura

162 "Herriko taberna" dagokio ezker abertzalearen inguruko jendearen ardurapean dauden tabernei.

163 ["Herriko taberna irekiko duzu, eh? Argi erakutsi hemen Euskadin ez dela hispanitatearen eguna ospatzen!/-Batzutan ANV bozkatu nuela ahazten dut... Berdin zaigu festa eguna espainiarra izatea, tripaz gora egotea da gustuko dudana. Izan ere gaur, abertzale eta espainiarra naiz, Castro eta Saloura noa eta borboitarrek bezala zubia hartzen dut. Benidormera joateagatik Espainia nazio gisa onartzeko gai naiz."]



(lausoa) esleitzea, estetika edota estilo markatua izatea, bai eta ideologiarekiko inkoherentziaz diharduen kolektiboa izatea dira up-ak sortzeko erabiltzen diren gai ohikoenak. Edozein kasutan ezker abertzalea ez da up-ek kolpatzen duten korrante politiko bakarra, eta nahiz eta gainontzekoak ez diren azken hauek bezain ugariak, egon badaude bestelako ideologiaren inguruan sortzen diren up-ak.

#### b) Alderdi Popularra (PP)

PP alderdi politikoa da horietako bat. Ez da ezker abertzalea bezainbeste erabiltzen baina haren balio sinbolikoa indartsua da nolana ere, bera baita politikoki Espainiarekiko lotura estuena egozten zaion alderdia. Horretaz baliatuz, joko dikotomiko interesgarriak egiten dira up-etan, ezker abertzalea eta PP-ren aurrez-aurreko konparaketa sinbolikoak proposatzen dituztenak. Paradoxikoa bada ere, bata eta bestea elkartu eta alderatzearen ariketa horietan ezker abertzalea eta PP ez dira *alter-ego* gisa erakusten, edo ez behintzat funtsean. Aitzitik, lehen begiradaz antzeman daitezkeenak baino antzekotasun gehiago egozten zaizkie up-etan: bata Euskal Herriari begira eta bestea Espainiari lotua egonik, zein baino zein erradikalago eta muturrekoago erakusten baitira. Ohikoa da, beraz, up berbera (karakterizazio, istorio, pertsonaia edo gai berbera jorratzen duena), alderdi batekin zein bestarekin erabiltzea.

Horren adibidetzat har daiteke, esaterako, batetik, "*Hermano Rajoy*" eta bestetik "*Super Hernani*" bi up desberdinetako bi pertsonaia. Lehenak, telebista kate espainiar eta pribatu batean igortzen den *Hermano Mayor* saioari egiten dio erreferentzia [UPT29/13]. Programak nerabe gatazkatsuei orientazioa eta laguntza eskaintzen dien hezitzaile batez dihardu. Kasu honetan, Mariano Rajoy Espainiako presidenteak hartzen du hezitzailearen papera eta familia batean

sartzen da gurasoei beren haurra nola "espainiar" esplikatzeko [UPT31/10]. Bigarrenak, "*Super Nani*" telebista saioari dagokio; ume bihurri eta gatazkatsuek hezten dituen psikologo baten gora beherak erakusten dituena. Kasu honetan ezker abertzaleko gazte batek betetzen du hezitzailearen papera eta familiako haurrei nola birziklatu eta "abertzale on" izan erakustez arduratzen da. Bi kasutan funts bera dute *hausturek*, antzeko rolak esleitzen baitzaizkie bati eta besteari, bi diskurtsoak berdin muturrekoak eta ondorioz "normaltasunetik" berdin urruti daudela erakutsiz.

PP-koei egozten zaie beste ezaugarri errepikatuenetariko bat "tenteltasuna" da. Alegia, ulergarriak edo errazak diren bistako errealitateak ulertzeko gaitasun gutxiak, memelo edota kaikuak izatea. Hala, *Beranduegin* PP-koak haien alderdiaren baitan gertatzen denaz jabetzeko gaitasunik ez dutela edo horretarako "ere" memeloak direla iradokitzen dute up-etan. Besteak beste, alderdiaren baitan azken hilabeteetan (2013tik aurrera bereziki) agertzen joan diren iruzur eta diru beltzarekin loturiko eskandaluak dakartzate gogora *Beranduegikoek*. Alderdikideak beraien artean ematen ari ziren diru mugimendu ilegalak ez ikusteagatik eta horiek publiko egin ostean justifikatu edo ezkutatzeko alderdiko buruek emandako arrazoiak sinesteagatik, horiek *haustura* gisa erabiltzen dituzte [UPA15/4].

Halako up-ez gain *Beranduegikoek haustura* egiten dute PP-ko buruek publikoan egindako adierazpenekin ere.

*"Mi primera hija que ya tiene 15 años, nació con escolta/Hasta los familiares del noruego Debreigbik son menos malos que los familiares de los presos de ETA / Ese al que yo me refiero no tiene fama de muy laborioso y tiene menos títulos académicos que Homer Simson / Aquí cada día es más importante hablar inglés, hablar castellano y el euskera debe de ser una lengua a mantener, a cuidar, a proteger / A mi juicio los jugadores de fútbol vasco tienen un canguelo de primera división por Batasuna."*<sup>164</sup> [UPA18/2]

164 [15 urte dituen nire lehen alaba bizkartzaina zuela jaio zen/ Norbegiako Debreigbik-en familiartekoak baino gaiztoagoak dira ETA-ko preso senideak/ Diodan horrek ez du langile famarik eta Homer Simsonen baino titulu akademiko gutxiago dauzka/ Gaur egun ingelera eta gaztelania jakitea gero eta garrantzitsuagoa da, eta euskara mantendu, zaindu eta babestu beharreko hizkuntza da/ Euskal futbol jokalariek izugarritzko beldurra diote Batasunari]



Antonio Basagoitiren hitzak dira esan berritakoak, 2004-tik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko PP-ko lehendakaria izandakoarenak. Adierazpenak errealak dira bere osotasunean, alegia, *Beranduegikoek* ez dituzte moldatu, eta hala ere, *haustura* gisa funtzionatzen dute. Izan ere, adierazpenen edukiak ez dagozkio kargu publiko batek bete beharko lukeen subjektu posizioaren diskurtsoari eta lekuz kanpo edo desegoki lez agertzen dira, horrexek berak umoretsu izan daitezzen dakarrelarik.

Ikus daiteke ezker abertzalearen inguruan egiten diren up-ena baina mugatuagoa dela PP-ri buruzko up-ek darabilten *haustura* moldea. Oro har, aipatu berri diren bi diskurtso ildo horien bueltan osatzen dira. Batetik alderdikideen tenteltasuna ardatz hartzen dutenak daude, eta horren baitan hutsetik asmatutako up-ak edota up gisa funtzionatzen duten errealitateko gertaera edo pasarteak erabiltzen dituztenak topatu daitezke. Bestetik, identitate espainiarra izatean funtsatzen direnak aurki daitezke, zeinak nortasun edo ideologia politiko espainiar nazionalista edukitzea abiapuntutzat hartuz euskal kolektibotik bestelakotzen dituen irudikaria osatzen den. Bestelakotze hori, gainera, indartu egiten da PP-koak muturrekoak diren jarreretan irudikatzen direnean. Hau da, euskal kolektiboari haien ikuspegia inposatu eta kolektiboa aldarazteko debaldeko ahaleginak eginez agertzen direnean. PP euskal kolektiboaren oso bazterrekoa den errealitatetzat antzematea dakar horrek, guztiz integratzeko zailtasunak dauzkana, eta testuinguru horretan ezker abertzalekoekin alderatu ohi da, komunean duten egoskortasun politikoak bultzaturik euskal kolektiboa haien ideologiaren arabera etengabe aldarazten saiatzen direnak.



#### c) Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

Baina up-etan azaltzen diren alderdi edo ildo ideologiko guztiek ez dute trataera berdina jasotzen, izan ere ezker abertzalea eta PP muturrekoak diren moduan EAJ-PNV zentro orekatua da, "normaltasuna".

EAJ-PNV-ren inguruko up-ak ez dira ohikoak eta hain zuzen ere urriak direlako dira esanguratsuak. Telebistaz apenas igortzen da alderdiaren inguruko up-rik, eta egitekotan, paper inpartziala hartu ohi du, hots, gutxitan erabiltzen da *hausturarako* up-en bigarren planoan geratu ohi baita. *Haupturarako* erabilia denean jasotzen duen trataera, gainera, ez da bereziki esanguratsua. Alegia, EAJ-PNV-ren inguruko up-ek helarazten dituzten diskurtsoak ez dira konprometitu edo hauskorak; kutsu infantilekoak baizik, gutxi landutako edo oso bistakoak diren *hausturak* izan ohi direnak. Azaleko trataera horren adibidetzat har daitezke, esaterako, Andoni Ortuzar, 2013-an EAJ-PNV-ko lehendakari aukeratu zenaren buru tamaina handia isekaten duen up-a [UPA2/5], edota Ortuzarrek inauterietan mozorrotzeko duen ohitura *haustura* gisa erabiltzen duena [UPA2/6]<sup>165</sup>. Hala, EITB-k EAJ-PNV-ren erreferentzia up-tan maiz erabiltzen badu ere, kontuan hartu behar da haren trataera beste alderdien oso bestelakoa dela.

<sup>165</sup> Argazkian Andoni Ortuzar ikus daiteke 2011ko inauterietan amerindiarrez jantzia.

Adibide esanguratsua da, esaterako, ETB2-k igortzen duen *Nekane Amaia* deituriko pertsonaiaren kasua. *Nekane Amaiak* EAJ-PNV-ren aldekoa den pertsonaia ijitoa irudikatzen du<sup>166</sup>. Kasu honetan irudikari desberdinen nahasketak sortzen du haustura, izan ere, ijitoak arropa postu batean egiten du lan, ikurrinak zintzilik dituela han eta hemen, eta euskarazko hitz bat edo beste erabiltzen du bere produktua saltzeko bere burua euskaldun peto bezala identifikatzen duelarik aldi oro: "*Vamos que me lo quitan de las eskuas*"<sup>167</sup> [UPT11/12]. Euskal nazionalista den ijito baten ideiak sortzen du *haustura*, abertzale euskaldun baten irudikari paradigmaticoarekiko ezohikotasuna sortzen baitu horrek, edo bestela esanda, ijitoei abertzaleak ez diren ideologia politikoak esleitzen zaizkielako irudikari sozialean. Planteamendu horren baitan, gainera, *Nekane Amaia* pertsonaiak bereziki indartzen dituen estereotipoak ijitoei dagozkien horiek dira eta ez hainbeste euskal nazionalista bati dagozkionak. Hala, hitz egiterakoan nabarmena eta zaratsua da, alaia, saltzaille ona, genio indartsukoa eta lapurra zenbaitetan: "*Nik no tengo paperak*"<sup>168</sup>, "*ni naiz una langile honrada*"<sup>169</sup>, "*Yo solo quiero pisu bat*"<sup>170</sup>. Oro har beraz, EAJ-PNV etengabe presente egonik ere ez dira apenas alderdiaren inguruko *hausturak* egiten, eta ondorioz, alderdiaren presentzia *haustura* gabekoa baina konstantea izanik haren gaineko normaltasunaren alde jotzen da.

Aztertutako kasuen artean EAJ-PNV-ren trataera horren salbuespen bakarra topatu da. Hain zuzen ere, EAJ-PNV-ko politikariak enpresa pribatuekin dituzten

166 Ijitoen kolektiboa ez da euskal umore etniko autoerreferentzialetan maiz aipatzen eta horrek argi uzten du ez direla euskal kolektiboaren baitakotzat hartzen. Hala izanik, kasu honetan ijitoa izateak ere *hausturan* laguntzen du euskal umore etnikoaren ikuspegitik ezohikotasun bat sartzen duelako abertzaleen perfilaren baitan. Jabetzen gara, nolahi ere, ijitoz diharduen pertsonaiaren gaineko irakurketa gehiago egiterik badagoela, batez ere bestelakoa litzatekeelako up-aren gaineko irakurketa ijitoen umore etnikoaren ikuspegitik begiratu balitz. Ez baita ahaztu behar oro har (eta ez euskal umore etnikoan bakarrik) up-ek asko kolpatzen duten kolektiboa direla. Horren adibide bat ijitoen estereotipoak erreproduzitzen dituzten telebista saioak dira, kolektiboaren aldetik hainbat kexa jaso badituzte ere indarrean jarraitzen dutenak egun. Ikus: Carrasco, L (2016); Redondo, D. (2015); Federació d'Associacions Gitanes de Catalunya, (datarik gabe).

167 ["Eskuetatik kentzen didatela!"]

168 ["Ez dut paperik"]

169 ["Langile zintzoa naiz"]

170 ["Pisu bat baino ez dut nahi"]

lotura eta "ate birakariez" diharduen EITB-k igorritako up bat [UPT14/9]. Bertan, gainontzeko kasuetan ez bezala, alderdiaren politiken inguruan egiten da *haustura* eta zalantzan uzten da zenbait jokaeren zintzotasun edo egokitasuna<sup>171</sup>. Aipagarria bihurtzen da honakoa telebistaz (EITB-n) ez delako alderdiaren halako beste trataerarik aurkitu, eta aurretik esan bezala, ohikoagoak direlako alderdiaren azaleko irakurketak (fisikoarekin zer ikusia dutenak edota zenbait rolen apurketa dakartenak).

Edonola ere, aipatu behar da telebistak igortzen ez duena lantzen dutela sare sozialek, eta EAJ-PNV up-etan gutxi ukitzeak ez duela esan nahi ukigaitza denik. Hain zuzen ere Internet bidezko sare sozial, bideo eta blogek alderdiaren politikak, diskurtsoak eta diru zein enpresa publikoen kudeaketak up-en bidez kritikatu edo agerian jartzen dituzte. Halako kasutzat jo daiteke ondoko twitta [UPS20/1]. Aipuan, EAJ-PNV-k errealitateaz maiz egiten duen irakurketa interesatua irudikatzen da (*#PNVstyle* traolak adierazten duen moduan). Bi mailatan egiten da *haustura*: batetik, errealitatearen irakurketa silogismo gisa



171 Up honek eztabaida soziala piztu du, ez soilik EAJ-PNV-ren inguruan erabiltzen duen ezohiko diskurtsoarengatik, bai eta up-ak gerora izan duen zentsurarengatik ere. Honako kasua, edonola ere, 5.3. *Distantziak* atalean sakontzen da gehiago.

aurkezten da, #Petronor "genozidioarekin" alderatzen amaitzen baitu aipiak, tartean #Kutxabank eta EAJ-PNV aipatuz. Horrek bigarrena sortzea dakar, alderdiak enpresa pribatuekin duen esku hartzearen zilegitasun eta egokitasuna zalantzan jartzen baitu.

Ikusi berritakoa kontuan izanik, antzeman daiteke euskal kolektiboaren irudikapenean alderdi eta ideologia politikoek eragina dutela, horien araberrako talde barruko kategorizazio, eta ondorioz, banaketa bat proposatzen baitute. Banaketa horren eraketan, ordea, desberdinak dira kasutik kasura erabiltzen diren *hausturak* eta horren arabera sortzen den marra gorriak "normalagoak" edo arrotzagoak bilakatzen ditu batzuk eta besteak. EAJ-PNV, adibidez, euskal kolektiboaren zurtoin politiko gisa irudikatzen da gehienetan: oreka, "normaltasuna" eta zintotasuna islatzeko balio baitu *haustura* gisa zuzenean erabilia ez den kasuetan (Interneteko up-etan ez beste guztietan). Ezker abertzale eta PP-k, ordea, ez dute haien aldeko up-rik eta aipatuak diren orotan *haustura* gisa erabiltzen dira. Hala, nahiz eta euskal kolektiboaren baitako errealitate gisa identifikatzen diren onarpen horrek ez ditu bazterreko lez irudikatuak izatetik libratzen, eta euskal kolektibokoak badira ere erradikal, inkoherente edo tentel gisa aurkezteak "normaltasunetik" bereizten ditu.

- *Dibergentziaren baitako konbergentzia: etsai komuna*

Euskal kolektiboa bere baitan anitza eta oso desberdina izanik ere, egoera jakin batzuetan talde bakar eta elkartu gisa jokatzeko aukera erakusten duen gizarte moduan da irudikatua, hain zuzen ere, azpi talde guztiek komuna duten etsai bat agertzen denean. Hala, euskal abertzaletasunaren baitako ikuspegi desberdinen arteko aldeak desagertu egiten dira etsai komuntzat Espainiari dagokion errealitate edo zeinuren bat hartzen denean.

*"-¿Qué está pasando con el nacionalismo vasco? Primero unos puros ponen en aprieto al PNV y ahora unas mondas de patata y cuatro raspas de*

*pescau van a acabar con Bildu. Pero señores, ¿dónde están los enemigos de siempre: el Gobierno de Madrid, los tertulianos de la Cope, el gazpacho con pepino?"*<sup>172</sup> (sic.) [UPT3/5]

Aipiak agertzen du memelokeriengatik borrokan dabilzala euskal nazionalismoaren baitako alderdi politikoak, elkarrengandik banatzen dituenari elkartzten dituenari baina garrantzia gehiago ematen baitiote. Alderdi politikoak buruz-buru jartzen dituen arazoan artean bi aipatzen ditu up-ak: batetik, Lemoako alkate ohiak 2007 eta 2011 artean 50 mila euro dietetan (horietarik 16 mila zigarro-puruetan) gastatu zueneko<sup>173</sup>; eta bestetik, atez ateko birziklatze planak sortutako gatazka<sup>174</sup>. Indar eta haserrearekin beste norabait bideratzeko proposamena egiten du beraz, eta Espainia "betiko etsaia" gogoan har dezatela iradokitzen du hala. Alderdien arteko tira-bira eta ez ulertuak asko izan badaitezke ere, Espainiak "etsai komun" gisa funtzionatzen duenean alderdiak berdintsuak direla eta alderdien arteko desberdintasunak indargabetzen direla iradokiaz sortzen du *haustura*. Hau da, orain arte ikusitako adibideetan ez bezala, ustez desberdinak direnak muinean lotuak daudela erakutsiz.

Espainiarekiko aurkaritzak alderdi politiko desberdinen arteko erretena leuntzeaz gainera, euskal kolektiboaren baitako bestelako norgehiagokak lasaitzeko baliagarria ere bada. Ondorengo adibidean, esaterako, Athletic futbol taldea animatzeko kantikak asmatzen dituen konpositore bat irudikatzen da. Honela dio berak:

*"-Hoy tengo el privilegio de recibir a uno de los músicos más grandes de este país. El compositor de la Peña Múgica de la Real Sociedad. Sí, sí, sí, de la Real. Nadie es perfecto."*<sup>175</sup> [UPT19/3]

172 ["Zer ari da gertatzen euskal nazionalismoarekin? Lehendabizi puru batzuk estualdian jarri dute EAJ eta orain patata azal eta arrain hezur batzuk Bildu akabatuko dute. Jaun andreak, non daude betiko etsaiak: Madrileko gobernua, Copeko hizlariak, pepino dun gazpatxo?"]

173 Naiz, (2013)

174 Berria, (2013)

175 ["Gaur herri honetako musikari hoberenetako batekin egoteko ohorea dut, Realeko Peña Mugikako konpositorea dut nerekin. Bai, bai, bai, Realekoa. Inor ez da perfektua"]

Honaino aipua argi uzten du, beste behin ere, Real eta Athletic-en arteko areriotasuna baina badirudi ez duela gorrotoz hartzen haren presentzia. Ondoren azaltzen du horren zergatia:

*"-Muchas veces hemos unido nuestras fuerzas creativas sobre todo para componer contra el enemigo común: ¡Es-es-español el que no bote!"* <sup>176</sup>

[UPT19/3]

Real eta Athletic-ek etsai komuna izateak elkarren arteko norgehiagokak desagerraraztea dakar: alderdi politikoen kasuan gertatu bezala Espainiaren presentziak bi taldeak komunean dutena (euskal futbol taldeak izatea) indartzea baitakar.

"Etsai komunaren" inguruan batzeko erraztasun hori, ordea, zaila suertatzen da lortzea PP-koak tarteko diren up-etan. Kasu horietan Espainiaren erreferentziak ez du balio izaten eta oldarkorragoa diren bestelako zeinuak erabiltzen dira PP-k gainontzeko alderdiekin edo azpi-taldeekin bat egiten duela erakusteko. Zeinu horien artean erabilienetariko bat Francisco Franco diktadorearen irudikaria da. Ondoko adibidean, esaterako, Francisco Franco zonbi gisa berpiztua agertzen da honakoa esaten:

*"Devoraré a todos los vascos separatistas creando un ejército de zombies nostálgicos del Régimen, que serán igual de descerebrados que mi guardia mora"* <sup>177</sup> [UPT9/13]

Elkarren artean eztabaidan dabiltzan alderdi desberdinetako zinegotziak agertzen dira iruditan. Mahai beraren bueltan daude eserita atetik Franco sartzen den arte. Politikariek ordu arte izandako eztabaidak ezerezean geratzen

176 ["Maiz elkartu ditugu gure sormen gaitasun etsai komunaren aurka abestiak egiteko: Espainiarra da salto egiten ez duena!"]

177 [" Erregimena faltan botatzen duten zombien ejertzito bat osatuko dut euskal separatista guztiak irentsi ditzaten. Nire guardia mora bezain burugabeak izango dira"]

dira une horretan, Francorenganako etsaitasuna komunean baitute, izan dituzten eztabaidak baina garrantzitsuago delarik honakoa. Aipatzekoa da, halaber, halako up-etan ezker abertzalekoei ez zaizkiela bestelakoetan atxikitzen zaizkien ezaugarririk egotzen, ez baitute euskal doinu gogorrez hitz egiten, ez eta pertsona gogor edo hotz gisa agertzen ere. Horrek agerikoago egiten du taldeen arteko berdintasun edo lotura.

Ikus daiteke, hala, taldeen baitan desberdintasunak egon badaudela onartzen bada ere zenbait aldagaik, "etsai komun" baten aukeraketak esaterako, kolektiboaren azpi-taldeen arteko parekidetasuna eta identitate komuna (euskal kolektiboko kide gisa "sentitzeak" sor dezakeena) sustatzea dakarrela. Edozein kasutan, euskal kolektiboaz proposatzen den irakurketa honek, alegia, dibergentzia onartu eta aldagai baten aurrean talde bateratu gisa irudikatzea ekartzen duena, ez da ikuspegi konbergenteko up-en pareko. Ikuspegi konbergenteak baliogabetu egiten du taldearen baitan egon daitezkeen diferentziak, kolektiboaren irudi sinplifikatu bat erakusten amaitzen duelarik; askotan, Espainiatik euskal kolektiboaz egin diren irudikarien eduki berberak erreproduzitzen (eta "normaltzen") dituztenak. Ikuspegi dibergenteak, aldiz, aniztasunaren onarpena hartzen du abiapuntutzat eta horren gainean eraikitzen ditu up-ak; zenbaitzuk, aniztasun horren baitan dauden batzuen eta besteen arteko botere-harremanak erreproduzitzen ("gu"/"haiek", "hobeak"/"okerragoak", "propioak"/"arrotzak" direnak seinatuz, adibidez), eta beste batzuetan, aniztasun horretan identitate (eta diskurtso) ahaldundu bat garatzeko aukera emanaz (eta beraz, ordu arteko botere-harreman edota irudikari hegemonikoak irauliz).

Orain arte esandakoa aintzat izanik, ikus daiteke euskal kolektiboaren gainean ertz askoko irudikariak aurki daitezkeela, kolektiboari ezartzen zaizkion ezaugarri eta izaeren ugaritasuna up-en harrobi aberatsa izanik. Kolektiboa definitu

(eta ondorioz zedarrituko) duen sailkapen irizpide komunik ezin adostek orotariko *hausturak* ereiteko aukera ematen du: taldearen oinarria zein den edota taldekoak direnak eta ez direnak nola bereizi daitezkeen ezin zehazteak talde izaeraren muina zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko esparrua zabaltzen duelarik.

Aniztasun horren baitan badira, nolana ere, euskal kolektiboari gutxiengo oinarri komunak ezartzen dizkietenak. Kolektiboaren jatorriari dagokionez, esaterako, *ikuspegi konbergentea* da nagusi, nondik eta nola sortua den azaltzeko *haustura* desberdinak erabiltzen badira ere eta gerora kolektiboaren baitan desberdintasunak daudela onartzen bada ere, aintzat ematen baita komuna den ardatz bat eduki duela haren sorrerak. Halaber, euskal kolektiboak ze ezaugarriren inguruan orbitatzen duen ezin zehazteak ez dio trabarik egiten kolektiboari zenbait estereotipo ezartzeari, eta aintzat ematen da euskal kolektibokoak direnek elkarren artean izaera edo ezaugarri orokor batzuk partekatzen dituztela. Hala, kolektiboa anitza dela aintzat ematen bada ere, nabarmenak dira *zuzenean* edo *zeharka* kolektibo osoari atxikitzen zaizkion bereizgarriak badirela ikustea, gehienez gorputz fisikoaren irudikari maskulinitik abiatzen direnak izanik horiek. *Ikuspegi konbergentetik* heltzen zaio, baita ere, euskal kolektiboak Espainia edo Frantziarekin izan dezakeen harremanari. Lotura horri dagokionez diskurtso desberdinak aurki daitezke (lotura badagoela edo ez dagoela esaten dutenak) baina beti ere kolektibo osoari eragiten dion planteamenduak izanik: euskal kolektiboak Espainiari dagokiola edo aparteko errealitate dela iradokitzean talde guztiari eragiten dion zerbait dela argi erakutsiz, eta ondorioz, tartekoak izan daitezkeen bestelako aukerak kontuan izan gabe (batzuentzat lotura egotea eta besteentzat ez, kasu).

Azken adibide horietan zeharka ikusgarri egiten den kolektiboaren aniztasunari zuzenean heltzen diote *ikuspegi dibergentea* darabilten up-ek. Up horiek aintzat ematen dute taldea bere baitan anitza dela eta ideia horretatik abiatuz indartu egiten dute aniztasun horrek sortutako malgutasun eta iragazkortasun ekidinezinaren ustea. Hau da, alde batetik, euskal kolektiboa bere baitan dibertsoa dela irudikatzeak azpi-taldeetan banatua dagoela eta azpi-taldeak haien artean elkargaitzak direlako irudikaria bultzatzen du. Banaketa

hori bideratzeko irizpide desberdinak erabiltzen dira, *zuzenean* aipatuena direnak ildo politiko-ideologikoa eta lurraldea izanik, eta *zeharka* gehien bat genero irizpideak nagusitasuna hartuz. Badira, ondoren, horren gaineko ikuspegi positiboagoak edo negatiboagoak darabiltenak eta aniztasuna aberastasun edo enfrontamendurako motibo gisa planteatzen dutenak. Paradoxikoki, ordea, azpi-taldeen presentzia hutsak ageriko egiten du euskal kolektiboa definitzeko irizpideen ahultasuna, edo zehatzago esanda, euskal kolektiboa definitzeko tradizionalki erabili diren ardatzen balio urria. Hizkuntza, lurraldea, kultura, ideologia edo interakzio jakin batzuk edukitzea euskal kolektiboa zehazteko baliogabeak direla agerian jartzen da eta bistaratu egiten da horiek eusten jarraitzen dituztenen iraungitze data. Hau da, lurraldeen arteko edo ideologia politiko desberdinen arteko bereizketan indar egiteko aukera gehiago dago kolektibo guztia elkartzen duen irizpide baliagarrikerik ezin bada aurkitu. Azken ildo horren baitan, gainera (politiko-ideologikoa), nabarmendu egiten da joera hori eta euskal kolektiboa halako irizpideen inguruan ulertzen jarraitzen dutenak (oro har ezker abertzalekotzat jotzen direnen bitartez irudikatzen direnak) kolektiboaren gaineko ikuspegi mugatua dutela ematen da aditzera. Besteak beste, beraiek ere ohikotasunean uste horietatik at jotzen dutela eta inkoherenteak direla agertuz. Nolanahi ere, eta up-ek euskal kolektiboa inoiz definitzeko baliagarri izan diren irizpideen baliogabetasunean indar egiten badute ere, ez dituzte kolektiboaren gaineko ezaugarri guztiak zalantzakortasun berberaz tratatzen, eta ezaugarri batzuen gaineko duda sustatzen badute ere badira zalantza horien eraginez indartuak ateratzen diren beste figura (edo azpi-talde) batzuk. Hala, besteak beste, politikoki EAJ-PNV-ren irudikaria sendotua ateratzen da, generoari dagokionez gizonezkoa, eta lurraldearen aferan Bizkaia eta bizkaitarrak dira ziurtasun eta "normaltasunean" kokatzen direnak.

Azkenik, aipagarria da aniztasun horren batasuna bultzatzeko gai den elementu bakarra "etsai komunaren" figura izatea. "Etsai komunak" lausotu egiten ditu azpi-taldearen arteko desberdintasunak eta agerian jartzen du kolektiboa elkartzeko giltzarria kanpo mehatxuetan datzala eta ez ordea talde barnean partekatu daitezkeen bereizgarrietan. Hala, logika negatiboko identitate garapenean ("ni ez naiz hori") paratzen da euskal kolektiboaren lokailua.

#### 5.2.4. Zeinuak

Lurralde, hizkuntza eta kolektiboaz gain bada up-etan euskal nazioaren irudikariaren eraketan kontuan hartu beharreko beste aldagairik; zeinuena, hain zuzen ere. Modu zabalean hartuta zeinu gisa ulertu dira up-etan euskal nazioari dagozkiola aintzat ematen diren orotariko errealitateak. Errealitate horiek euskal nazioaren partikularitasun gisa hautemanaz "propioak" eta parteka ezinak bailitza dira erabiliak, eta beste nazioetatik bereizteko kapital sinboliko indartsua esleitzen zaie. Horien artean daude ikur edo sinboloak, baina baita praktikak, interakzio motak, ohiturak edota aktore sozial konkretuak ere.

Aniztasun horren baitan zeinuen azterketa lausoegi gera zitekeela ikusita hiru irizpide erabili dira horien interpretazioa burutzeko garaian. Batetik, sailkapena egin da topatu diren zeinu guztien artean eta adierazgarrienak lehenetsi dira. Izan ere, "zeinuek" askotariko adibideak barnebil ditzaketenez orain arteko azpi-ataletan aipatzen gatozen adibideetariko asko zeinu gisa ere identifikatu daitezke (lurralde, hizkuntza eta kolektiboaren baitako hainbat up<sup>178</sup>). Jada erakutsi diren adibide guztiak berriz ez errepikatzearen atal honetan arreta berezia eskaini zaie orain arte aipatu gabe geratu direnei, edota aipatuak izan badira ere zeharka agertu izanagatik behar besteko sakontasunez aztertuak izateko aukera izan ez dutenei. Hala, duten esanguratsutasunarengatik<sup>179</sup> adierazgarritzat jo diren kasuak aintzat hartu dira hemen.

Bigarren irizpidetzat zeinuaren atalkako sailkapena hartu da kontuan. Oro har hiru ataletan banatzen dira zeinuak: a) batetik adierazlea, alegia, zentzumenen bitartez antzematen dena eta zeinuaren euskarri gisa funtzionatzen duena; b) bestetik erreferentzia, adierazleari dagokion errealitate ontikoa; c) eta amaitzeko esanahia, adierazlearen bidez iradokitzen den irudi edo abstrakzio mentala. Kasu honetan adierazleari ez zaio arretarik eskaini,

178 Zeinu gisa uler daitezke, esaterako, orain arte aipatu diren hainbat praktika (mendizaletasuna, ugari jatea edo edatea ...); praktika kulturalak (herri kirolak, euskara, euskal dantzak ...); izaerak (sexualki frustratuak izatea, arduratsuak ...); edota sinbolo gisa funtzionatzen duten beste batzuk (Athletic, Reala, Guggenheim ...).

179 Kualitatiboki esanguratsuak diren zeinu gisa sailkatzeko kontuan izan dira elkarrizketatuen iritziak eta arrakastatsua edota gatazkatsutzat jo dituztenak bildu dira (Ikus 4. *Conception de la recherche -CR-*). Horiekin batera ikerketaren bilakaeran nabarmenak izan diren bestelako zeinuak ere aintzat hartu dira, oro har topatu diren zeinu guztiei aipamena egin zaielarik ikerketako atal desberdinetan.

ikusi delako up-etako zeinua idatziz, irudiz edo soinu jakin batez gorpuzten bada ere euskarriaren ezagutzak apenas duela eraginik igortzen dituen diskurtso eta irudikarietan, eta ondorioz, azterketa honetarako ez da funtsezkoa suertatzen haien sailkapena egitea. Aldiz, oso kontuan hartu dira esanahia eta erreferentzia. Azken horiek elkar banatuak dauden atal gisa aurkezten badira ere, kasu honetan zeinu baten esanahiaren eta erreferentzearen artean banaketa egitea ia ezinezkotzat jo da. Izan ere, errealitate ontiko baten existentzia egon daitekeela onartzen badugu ere, errealitate hori ematen zaion esanguraren arabera eraikitzen dela ulertzen dugu eta objektu ontikoa eta objektuarekiko esperientzia/irudikaria/diskurtsoa bana ezinak direlako ustetik abiatzen gara (ikus 3.3. *Comprendre la nation (comme un noyau) imaginé(e)*). Hala, irudikari abstraktu eta mentalak etengabeko prozesu aldakor batean errealitate ontikoa performatzen duela aintzat emanez, atal honetan adibide gisa aipatzen diren zeinuen esanahiari begiratu zaio gehien bat; erabiltzen den objektuari baino objektu horri ematen zaion *haustura* bidezko trataera (eta ondorioz, esangura) kontutan hartuz.

Aurrekoarekin oso lotuta, hirugarren irizpide gisa baliatu dira zeinuaren dimentsio maila desberdinak, edo zehatzago esanda, zeinuaren esanahiaren baitan dauden mailaketa desberdinak. Izan ere, ikusi da zeinuek errealitateen gaineko esanahiak igortzen dituztenean dimentsio sinboliko desberdinetan jokaten dutela horiek, orotara hiru bereizi direlarik. Horien arteko banaketa errazago azaltzeko adibide batez baliatuko gara eta "harri jasotzaile" zeinuaren esanahiak dauzkan dimentsio desberdinak azalduko ditugu jarraian. Ondokoak dira:

1) Batetik "harri jasotzailea" harriak jasotzeko herri kiroletan jarduten duen subjektu partikularrari dagokio. Esanahi hau zeinuak adierazten duen errealitate ontikoa edo erreferentziaren berdina da, errealitatearen gaineko lehen mailako irakurketa egitea dakarrena.

Lehen maila hau ez da kontuan izan ikerketan, batetik, zeinua errealitate ontikoaren parekoa delako, eta ondorioz, bestetik, euskal nazioaren irudikariaren gaineko informaziorik apenas helarazten duelako.

2) Bigarrenez, aurrekoa baino maila zabalago batean ikusi da "harri jasotzaileak" euskal nazioari esleituriko (praktika) kulturari keinua egin diezaiokeela. Alegia, harriak altxatzen dabilen subjektu baten irudikapenetik harago, edo kirol bati erreferentzia egitetik urruti, espresuki euskal kolektiboari loturiko kulturari dagokion zeinua ere bada. Esan nahi baita, harri jasotzeak euskal kolektiboaren baitan (eta ziurrenik euskal gizartearen baitan ere bai) badu esangura jakin bat bestelako praktikek ez duten karga sinbolikoa eskuratzen duena; patinaje artistikoak edo ballet klasikoak ez bezalakoak, adibidez. Hori oso lotua doakio euskal kolektiboari edota kulturari esleitzen zaion irudikari orokorrari. Beste nazioetatik desberdintzeak dakarren elementu edo zeinu bereizgarri gisa hautematen da, eta ondorioz, "harri jasotzailearen" bidez ekintza edo pertsona jakin bat irudikatzeaz gainera, euskal kolektiboko kideek "propioa" duten zerbait ere helarazten da, kultura propio baten adierazgarri bihurtuz<sup>180</sup>.

Azken ikuspegi hori da ikerketan aintzat hartu denetarikoa bat. Hau da, zeinu jakin bat zeinak erreferentzia egiten dion berehalako errealitatetik harago, euskal nazioari dagokion zeinu gisa funtzionatzen duen bere esanahiaren dimentsioetako batean. Baina horretaz gain, ikusi da halako zeinuek euskal nazioari atxikiak egoteaz batera, orokorragoa den beste zeinu zabalago baten parte ere bilakatzen direla: "euskal" zeinuaren parte, hain zuzen ere. Azken hori ere kontuan izan da ikerketan.

3) Antzeman da "harri jasotzailea" kultura jakin bati (konkretuki "euskal kultura" deritzonari) esleitzen zaion sinbolismoaren parte izanik (b), baduela gaitasuna euskal nazioari loturiko ideia abstraktuago batean aritzekoa. Hau da, azken maila honetan zeinuaren izaera singularra era bat galtzen da orokorragoa den beste irakurketa baten mesedetan, non, "harri jasotzailearen" ordez "bertsolaria", "baserritarra" edo "pilotaria" izateak inolako desberdintasunik ez duen sortzen: "h-a-r-r-i-j-a-s-o-t-z-a-i-l-e-a" ikusi edo entzutean "euskal" zera bat delako aditzera ematen dena. "Euskal" da euskal nazioari esleitzen zaion zeinu orokorra, zeinak bere baitan jasotzen dituen zehatzagoak diren bestelakoak. Euskal nazioarekin lotzen diren zenbait zeinuk euskal nazioari atxikitzen zaion

beste zeinu orokorrago baten parte bilakatzen dira horrela, euskal nazioaren irudikaria bi mailatan elikatzeke gai direnak (euskal nazioari lotzen zaizkiolako eta horrekin batera "euskal"-en partetzat jotzen direlako).

Honekin lotuta bi auzi azpimarratu nahi dira. Batetik, "euskal" bere horretan euskal nazioari dagokion zeinu gisa aritzen dela ulertzen dugu. Hau da, zeinu desberdinez osatua ager daiteken "euskal" hori (pilotari, harri jasotzaile, bertsolari, basajauna, ea.), euskal nazioaren beste zeinu bat da bere osotasunean, bere baitan dituen zeinu zehatzagoek egiten duten moduan euskal nazioari lotu eta horren gaineko esanahi jakin bat igortzeko gai dena. Eta horrekin batera, bestetik, joan etorriko bide lez ulertu behar da harreman hori, zeinu desberdinak "euskal" betetzen/eraikitzen duten gisan, eta ondorioz, euskal nazioaren irudikaria osatzen duten neurrian, "euskal"-en baitan txertatuak geratzen dira beste hainbat zeinu ere: "harri jasotzailea" "euskal" den heinean, "euskal" "harri jasotzailea" ere izanik. "Euskal" edozein edo edozer izanik ere, beraz, horri atxikitzen zaion zeinua (praktika, aktorea, sinboloa) ez da izenlagun soil bat izango, baizik eta mundu sinboliko oso bat agerian jartzeko eta ordezkatzeko gai den zeinua, beti ere up-etan jasotzen duen tratamenduaren araberkoa izango delarik lotura hori sortzeko potentzialtasuna.

Aipatutakoa kontuan izanik, beraz, adierazgarritzat jo diren zeinuen esanahien gainean jarri da soa eta horiekiko bi ikuspegi hartu dira aintzat. Batetik, "euskal"-ek bere horretan euskal nazioari dagokion zeinu gisa nola jokatzeko duen ikusi da. Horretarako kontuan izan da "euskal" hori nola osatzen den ikustea, eta zehazki, bere baitan zein beste zeinu txertatzen diren antzematea. Eta bestetik, euskal nazioari esleitzen zaizkion bestelako zeinuak (jardun horretan "euskal" hori ere eraikitzen dutenak) zer nolakoak diren zehaztu da. Horiek ere "euskal" zeinua osatzen laguntzen dute, baina era zeharkakoago batean (edo ez behintzat halabeharrez), oro har gehiago erabiltzen baitira zeinu bezala duten bakarkako esanguraz. Azken horren baitan sailkapen bikoitza egin da: praktika kulturei eta politika arloari dagozkion zeinuen arteko bereizketa eginez<sup>181</sup>.

<sup>180</sup> Hala dela ondorioztatu da elkarriketetan.

<sup>181</sup> Sailkapen hau tipoa ideal gisa ulertu behar da « praktika kultural » eta « politikoak » uztartuak daudela (edo neurri handi batean bana ezin direla) ulertzen baitugu.



#### 5.2.4.a. "Euskal" zeinua

Jarraian aipatzen diren adibideetan up-etan egiten den "euskal" zeinuaren trataera nolakoa den azaltzen da. Zeinuaren erabilera forma eta modu askotara eman daiteke baina kasu guztietan lortzen du erabilia den testuinguruan agertzen diren errealitate desberdinak "euskal" zera orokor bati lotzea. Hau da, up-an barnebiltzen diren elementuak edozein izanik ere, "euskal"-i dagokion dimentsio sinbolikoaren irakurketa indartzen da horietan, eta hartara, *hausturak* sortzeko gai den zeinu independente bilakatzen da "euskal".

Adibidetzat har daiteke "euskal striperraren" zerbitzuak saltzen dituen iragarkiaren up-a [UPT17/8]. ETB2-ko up honetan strip-teaseko artista bat agertzen da bere burua iragartzen. Hainbat zerbitzu desberdin eskaintzen ditu baina harrotasun bereziz azaltzen du Olentzeroz<sup>182</sup>, Athletic-eko jokalariz edota sukaldariz mozorrotzeak ematen diola gremioko gainontzekoekiko aldea, halako mozorroek ematen baitiote beste kideengandik bereizi arazten duen ezaugarria. *Haustura* bi elementuak sortzen dute hemen. Batetik, up-ak duen testuinguru sexualizatua aipatu behar da. Izan ere up-an erdi biluzik agertzen da striperraren paperean dagoen aktorea eta bere jarrerak, dantzak eta jantziak, up-aren irakurketa sexuala indartzen dute. "Norma(la)rekiko" *haustura* gisa uler daiteke hori, izan ere, egunerokotasunean eduki erotikosexualak ugariak izan badaitezke ere (publizitatean, komunikabideetan, ea.), paradoxikoki espazio publikoan ez dira interakzio arrunt (ohiko, zibiko, publiko ea.) moduan antzematen, eta juzgu moral, kultural, politikoz beterik dagoen esparrua da oro har (Ziga, 2011). Hain zuzen ere horregatik, sexuaren gaia darabilten *hausturak* ugariak dira up-etan (Freud, 1976; Kuipers, 2015). Baina horretaz gain bada up-an kontuan hartu beharreko beste alderik ere: euskal nazioaren irudikapenari dagokion *haustura*, hain zuzen ere. Striperraren figura nazioen irudikariei dagokien ikuspegi batetik "neutral" gisa uler daiteke. Hau da, nazio jakin bati

182 Gabonetako pertsonaia, Eguberrian opariak ekartzen dituen ikazkin gisa irudikatzen dena.

lotzea zaila den errealitatea da<sup>183</sup>, "denena" eta beraz "inorena" ez den figura baita. "Neutraltasun" horri, ordea, bestelako adierazle batzuk atxikitzen zaizkio kasu honetan (Athletic, sukaldariak eta Olentzero), zeinak horiek bai, "euskal" gisa interpretatu, eta beraz, striperra euskal nazioarekin lotzea dakarten.

Kasu honetan ez dugu sakonduko Athletic, sukaldariak edota Olentzero euskal nazioari zer dela eta atxikitzen zaizkion, besteak beste, up-ez gain euskal nazioaren irudikaria osatu eta elikatzen duten bestelako mediazioak hartu beharko lirakeelako kontuan azalpen horretarako (ekonomikoak, politikoak, kirol munduari dagozkionak, historikoak, ea.). Horren ordez, ulertzen dugu urteetako mediazio prozesu eta interakzio desberdinen bitartez adierazle horiek eskuratu duten "euskal" esanguraz baliatuz up-ak berariaz erabili dituela euskal nazioari dagozkion zeinu gisa agertzeko. Hain zuzen ere horregatik, Athletic, sukaldariak eta Olentzero, ez dira Athletic, sukaldariak eta Olentzero. Esan nahi baita, adierazle horien irakurketa zuzenean dagokien errealitate ontikoaz harago doa, eta Athletic, sukaldariak eta Olentzerori baino "euskal" zera horri dagozkiola aditzera ematen dute. Hala, up-ak darabiltzan zeinu horien ordez pilotaria, harri jasotzailea edota baserritarra agertu izan balira up-aren *haustura* berdin geldituko litzateke, ez baita elementuen partikularitasuna baizik "euskal" irudikarian duten karga sinbolikoa bertan azpimarratzen dena. Interpretazio hori are nabarmenagoa egiten du striperraren izenak: "euskal striper" gisa izendatzen baitu bere burua. Hala, up-an erabilitako zeinuek (Athletic, sukaldariak eta Olentzerok) markatutako ildoari jarraituz "euskal" izenlaguna esleitzeak nazioari dagokion irudikari orokor batean ("euskal" irudikarian hain zuzen ere) indar egiten laguntzen du.

Azken ildo horri eusten diote beste hainbat up aurkitu dira. Aipagarri dira, besteak beste, "euskal loteria" [UPT37/11] promozionatzen duen up-a, zeinak loteria "propio" baten iragarkia egiten duen; edota "eusko zantantzarrak"

183 Mendebaldar kulturako nazioek duten figuratza uler daiteke baina ezin esan daiteke nazio zehatz bati dagokionik, ez baita ingelesa, frantsesa, portugesa edo alemana, nahiz eta guzti horiei ere lotu dakioken.

diharduen beste bat [UPT38/14], ordaindu gabeko zorrak kitatu arte atzetik segitzen duen fraka dun gizonaren bertsio "euskaldundua" azaltzen duena. Badira, halaber, "euskal" edo "eusko" izena erabili gabe ere "euskal" zeinua elikatzen duten up-ak. Adibidez, "Teletxotx"[UPT48/9] Hernani eta Astigarragako (Gipuzkoa) sagardo menua etxera ekartzen duen janari lasterreko enpresa bati buruz hitz egiten duen up-a; edota "Arin Twerkig"-az diharduena [UPT54/21], jendeak arin-arin eta *twerking* dantza estiloak elkar nahastuaz dantzatzera animatzen duena.

Kasu guztietan neutralak edo globalak direla uler daitezkeen elementuei "euskal" izaera bat atxikitzen diote up-ek: bai "euskal" edo "eusko" gisa izendatuz, bai "euskal" horri lotzen zaion (eta trukagarriak diren) zeinuren batekin uztartuz ere (txotx egitea edo arin-arina). Joera horretatik antzeman daiteke up guzti horien *hausturek* muin berbera partekatzen dutela. Izan ere, beste inolako diskurtsorik garatzen ez dutela kontuan izanda up-en *haustura* dakarrena elementu neutralak "euskalduntzea" da. Ez dira arin-arina edo zanpantzarrak *haustura* sortzen dutenak, baizik eta arin-arina edo zanpantzarrak ordezkagarriak diren zeinuak izanik, horiek "euskal" gisa identifikatzeak dakar desdoia. Hala, zeinu desberdinen bitartez irudikatuta ager badaiteke ere, "euskal", beste inolako azalpen gehiagorik eduki gabe, *hausturak* sortzeko elementua da, bere kasa funtzionatzeko eta esangura edukitzeko autonomia duen zeinu gisa jardunez. Baina horrekin batera bestelako hausnarketa bat ere egin daiteke, izan ere, *hausturak* sortzeko zeinua izateaz gainera, *hausturak* sortzeko soilik erabiltzen den zeinua dela ere antzeman da: "euskal" zeinu orokorrak zuzenean *haustura* iradokitzen duenez (graziosoa denez) funtzio horretarako baliatua baita bakarrik.

Baina azken horrek berekin dakar "euskal"-en baitan kokatzen diren unean uneko errealitateek ere irakurketa bera jasotzea, eta beraz, "euskal"-ekin gertatu bezala horiek ere *hauskortasun* (a-normaltasun) horretatik interpretatuak izatea. Adibidetzat har daiteke, esaterako, "Txapelterkia"-ri publizitatea egiten dion up-aren kasua [UPT48/16]. Up honetan eguraldi txarrantzako diametro

handiko txapela saltzen duen iragarki parodikoa ageri da. Bertan Athletic futbol taldearen partidua zuzenean ikusten dabilen gizonetzkoa agertzen da, euria ari badu ere "Txapelterkiari" esker partidua lasai ikusteko aukera duena. Kasu honetan *hausturaren* parte bat hiperboleak sortzen du, txapelaren tamainaren ezinezkotasunak esajerazioa baitu oinarri. Baina bestetik, txapelaren inguruko irudikaria bai eta txapelari egozten zaizkion funtzioak ere *haustura* moduan joketzen dutela antzeman daiteke. Azter dezagun azkeneko hori lasaiago.

Lehenik eta behin txapelak "euskal"-ekiko duen atxikimendu hurbila hartu behar da kontuan. Txapela ohiko janzkia izan da Euskal Herrian, bere erabilera bereziki hedatua izan zelarik XX. mendean eta neurri handi batean "tradiziozkotzat" jotzen da<sup>184</sup>. Hala, txapela bada "euskal" horri lotzen zaion zeinu identifikagarri bat, eta arin-arina, Olentzero edo zanpantzarrekin gertatu lez, euskal nazioarekiko duen lotura sinbolikoa handia da. Goiko adibideetan aipatu bezala, beraz, txapelaren kasuan ere up-ak "euskal" zeinuari erreferentzia egiten dio txapela zeinuaren bitartez. Baina honakoan ez da neutrala den elementurik "euskalduntzen", zuzenean "euskal" gisa irudikatzen den elementu baten presentziak indartzen baitu *haustura*. Oinarri horren gainean, beraz, up-ak ez du soilik "euskal"-en gaineko *haustura* egiten, baita txapela zeinuarengan ere. Hala, txapelaren tamainak piztutako hiperboleak eta txapela "euskal" *zerarekin* lotzeak ez ezik, "txapela" zeinuak berak ere parte hartzen du *hausturaren* osaketan.

Txapela Euskal Herrian ohikoa dela esan badugu ere, kontuan izan behar da bere arruntasunak ez dagokiola duen erabilera kuantitatiboari, baizik eta ematen zaion balio kualitatiboari. Txapelaren erabilerak nabarmenki egin du behera azken mendean eta zenbait sektoretan erabiltzen jarraitzen bada ere (pertsone nagusien artean, gremio jakin batzuetan...), haren erabilera alde sinbolikora mugatu da bereziki: euskal jantzi tradizioaletan, euskal dantzetan edota zenbait kirolen edo ekintza kulturalen sariketetan finalistei edota irabazleari egiten zaion ofrenda gisa erabiltzen baita batik bat. Txapelak garrantzirik baldin badu, beraz, egozten zaion kapital sinbolikoagatik da batez ere eta hori da,

184 Ohikotasun horren seinale da euskal nazioako kideak irudikatzen direnean (marrazki, pintura, komiki, istorio edota up-etan) usu txapela buruan dutela agertzea.

hain justu ere, up-ak *haustura* indartzeko darabilen markoa: txapela euritik babesteko baliagarri dela irudikatzea (eta beraz erabilera praktiko bat duela iradokitzea) a-normaltasun gisa erakusten baitu. Hala antzeman daiteke up-ak txapela izendatzeko darabilen moduan ere, euritik babesteko balio duela aditzera emateko txapelari "Txapelterkia" izena jarri baitio, aditzera emanez txapelak berez bete ezin duen funtzioa aterkiak osatzen duela. Txapelaren inguruko *hausturak* oin non hartzen duen argiago ikusteko txapelaren erabilera praktikoaz diharduen bestelako diskurtso bat har daiteke kontuan. Jorge Oteizaren (1963) hitzak berreskuratu nahi ditugu horretarako eta artistak txapelaren inguruan eta zehazki txapela eta aterkiaren arteko harremanaz egiten duen hausnarketa gogora ekarri nahi da. Aipu hau gehitzearen helburua ez da txapelaren inguruko beste diskurtso mota honetan sakontzea, besteak beste Oteizaren obran zehaztasun askoz gehiagoz murgiltzea beharrezkoa izango baitzen horretarako. Baina txapelaren bueltan dauden diskurtso desberdinen alderaketa egiteak up-aren *haustura* ikustarazten lagun dezakeelakoan gaude eta Oteizak darabilen ikuspegia egokitzen jo da horretarako. Honenbestez, aipuaren esanahi berehalakoenean jarri dugu arreta. Honakoa dio Oteizak:

*"El paraguas quizá más antiguo que nuestra boina, es mucho más ajeno a nuestra tradición. Yo casi no preciso de paraguas, con la boina. Yo mismo (con la boina) soy paraguas, con las dos manos en libertad."*<sup>185</sup> (Oteiza, 1963:134).

Oteizak up-ak bezalaxe txapelak "euska"l"-ekin duen lotura azpimarratzen du, kasu honetan "gure tradizioari" ("*a nuestra tradición*") dagokion elementu gisa hautemanez. Baina horretaz gain, txapelaren "aterki funtzioa" ohikotasunaren barnean dagoen erabilera praktiko gisa ulertzen du. Hots, euskal kolektiboan arruntasunez jazotzen den praktika ("normal") moduan hitz egiten du hartaz, eta hain zuzen ere horregatik, txapelaren funtzio praktikoa eztabaidagai ikusten ez duelako objektuaren bestelako irakurketa sinbolikoak burutu ditzake autoreak. Up-ak, ordea, txapela aterki gisa erabiltzearen praktika darama zalantzara,

—  
185 ["Aterkia, txapela baino zaharragoa izanik ere, gure tradizioetik gehiago aldentzen da. Nik apenas dut aterkiaren beharrik. Ni neu (txapela jantzita) aterki naiz, bi eskuak aske izanik."]

arroztasun / "normaltasunaren" jokora. Aterkia eta txapelaren funtzioak elkarren desberdinak direla aintzat emanez: bata euritik babesteko eta bestea ospakizun jakinetarako (Athletic-en partidak ikusterakoan janzteko) dela agerian jarritz. Bi objektuen erabilerak elkar konbinatzeak *haustura* dakar beraz, eta zeinua bera (txapela eta txapelaren alde praktikoa) up-ko elementu zentral bihurtzen ditu. Oteizak txapelarekiko duen oso bestelako diskurtsoa eskaintzen du up-ak hala. Batetik, objektua bera ohikotasunetik edo "normaltasunetik" kanpo uztea dakarrelako; eta bestetik, objektuaren a-funtzionaltasunean indar eginez txapelak izan dezakeen erabilgarritasun edo pragmatismoa jomugatzat hartu eta maila sinbolikora mugatzea dakarrelako. Hain zuzen ere, "euska"l" gisa identifikagarria den erabilgarritasun mugatuko zeinu *pastiche* bihurtuz.

Irakurketa honek, hala, ez dio "txapela" zeinuari soilik eragiten, baizik eta baita "euska"l" zeinuari ere. Izan ere, txapela "euska"l"-ekin lotzen den zeinua den heinean, txapelari egozten zaion funtzionaltasun mugatu eta *pasticheak* "euska"l"-en irakurketa baldintzatzen du: "euska"l" ere *praxi* lausoko zeinu sinboliko batetara mugatuz, eta egunerokotasuneko normaltasunetik kanpo geratzen den ("euska"l") errealitate baten irudikapen estetiko huts moduan aurkeztuz. Laburbilduz beraz, ikus daiteke "euska"l" eta horri atxikitzen zaizkion zeinuen arteko lotura estua dela, bata eta bestearen irakurketak lotuak dauden heinean (txapela "euska"l" da; eta "euska"l" txapela ere bada), haien inguruan egiten diren up-en diskurtsoak ere bieie eragiten diela.

"Euska"l" zeinua beraien artean ordezkagarriak diren zeinuez osatzeaz gainera, badira kasuak non zeinu jakin baten inguruan egindako up-en bidez (ordezkagarritasun gutxiago duten zeinu zehatzak direnak) "euska"l"-i nolabaiteko esangura ematen zaion. Ondorengo orriotan "euska"l"-ekin lotzen diren bestelako zeinu horiek zer nolakoak diren sakontzen da. Irakurketa erraztearren bi ataletan sailkatu dira honakook: batetik, kultura esparruari dagozkion zeinuak jorratzen dira (praktika kulturalak, mitologia eta tradizioak), eta bestetik, politikari loturiko zeinuak azaldu dira (gatazka politikorekin zer ikusia dutenak batik bat).

#### 5.2.4.b. Zeinu kulturalak

Up-etan "euskal" zeinuari atxikitzen zaizkion edukietariko askok esparru kulturalako praktika eta ikurrekin dute zer ikusia, eta usu "euskal kultura" tradizional gisa uler daiteken horri loturikoak izaten dira.

Kasu esanguratsu moduan Bilbo (Bizkaia) eta Tolosako (Gipuzkoa) inauterietan zenbait konpartsetako kideek eta lagun taldeek erabilitako mozorroak har daitezke adibidetzat, bertan egindako behaketetan [B27] [B12] "euskaldun" mozorroturik doala dioten jendea aurkitu baita. Zenbaitzuk, koadrodun alkandora, txapela, mahoizko galtza eta abarkak jantzita; beste zenbait euskal dantzetan erabili ohi diren trajeak soinean [B12/9]; eta horiekin batera, baita gabon jantziekin doazenak ere (Olentzeroz, esaterako [B27/8]). Halako kasuak topatu diren guztietan mozorrotutakoek haien burua euskal kolektiboko kide gisa dutela diote, baina paradoxikoki, haien egunerokoa halakoak ez dituztela jantzen onartu dute: haien auto-identifikazioa eta mozorroaren gaia berdina izanik ere (euskal kolektiboko kidea) bata eta bestearen artean nolabaiteko bereizketa egiten dutela agerian jarriaz.

Bi afera dira hemen aipagarri. Batetik, figura edo pertsonaia desberdinez mozorroturik badoaz ere galde egin zaienean guztiek "euskaldun" gisa mozorrotuak doazela erantzun izanak agerian jartzen du "euskal" zera hori dela mozorro guztien lokailua. Alegia, "euskal" dela haien mozorroen muin eta gaia, baserritar, arrantzale edo dantzarien irudikariek (zeiniek) izaera partikular bat eskuratu ordez, "euskal" zeinu orokorrari egiten baitiote erreferentzia funtsean.

Horrekin batera, bestetik, ageriko egiten da beste behin ere "euskal" zeinuak up-etan bikain funtzionatzen duela, hots, umoretsua den ezer lez hautematen dela, eta beraz, *hausturak* sortzeko gaitasuna baduela. Baina kasu honetan zehaztasun bat eransten dute inauterietako mozorroen adibideek, izan ere ageriko egiten dute "euskal" zeinuaren baitan dauden zeinu eta irudikariak ez direla orotarikoak, baizik eta zehaztasunez aukeratutako batzuk baino ez direla

horretarako baliagarri. Zehazki, ikus daiteke "euskal" lotuago dagoela testuinguru folkloriko bati dagozkion ereduak eta ez hainbeste egunerokotasunean topatzen direnei, hain zuzen ere haien burua euskal kolektiboko kide gisa ikusten duten arren haien ohikotasunetik kanpo dauden arropak erabiltzen baitituzte. Eta egiazki, ezin liteke bestela izan. Izan ere, nola mozorrotu liteke norbera bere buruaz? Mozorro orok ezinbestekoa du nabarmendu edo desberdindu duen elementurik izatea, eta beraz, norbere buruaren mozorroa egitea oximorona litzateke. Horrek ageriko egiten du "euskaldun" mozorroturiko pertsona horiek darabilten "euskal"-en gaineko interpretazioak identitatearen nolabaiteko alienazioa duela oinarrian; norbere burua (identitatea) ulertzeko moduaren bestelakotzea egiten baitute. Izan ere, egiazki ez dira haien buruaz mozorrotzen ari (nahiz eta mozorroa eta haien identitatea "euskaldun" gisa identifikatu duten), baizik eta "euskal"-i egozten dioten irudikariak; haiek ez bezalakoa den beste "euskal" batek proiektatzen duen irudiaz. "Euskal"-en ohikotasun/a-normaltasunaren aldea performatzen da mozorroaren bidez: batetik, "euskal" baserritar, dantzari edo arrantzalea arrotzuz, eta bestetik, "euskal" hiritarra edo kosmopolita normalduz. Uler daiteke, beraz, baserritar, arrantzale edo dantzari zeinuak (beste hainbat artean) "euskal" errealitatearen parte direla, baina ez egunerokotasun "normalduari" dagokion mailan, "euskal" irudikapenaren zeinu gisa (soilik) eta ondorioz a-normal moduan interpretatzen diren neurrian baizik.

Berdintsua gertatzen da Bilboko inauterietan "joaldun" mozorroturik doazenen kasuan ere. Zintzarriak bizkarrean hartuta eta ardi larru itxurako txaleko bat soinean jantzita, euskal inauteri tradizioletako pertsonaiez mozorrotu dira zenbait lagun [B27/5]. Kasu honetan mozorroaren efektua desberdina da, edo hobe esanda, aurrekoa baino paradoxikoagoa. Izan ere, baserritar, arrantzale eta dantzariarekin gertatu bezala joaldunak ere "euskal" zeinuaren parte gisa hautematen dira<sup>186</sup>, eta beraz, honakoan ere badago "euskal"-en baitan egiten den bestelakotze efektu hori. Baina horretaz gain, kontuan izan behar da "joaldunak" euskal inauteri tradizionaleko pertsonaia

186 Hala adierazi dute mozorroa zeramatenek.

direla. Ituren edo Zubieta bezalako inauterietan (Gipuzkoa), adibidez, funtzio jakin bat (rol aktibo bat) betetzen dutenak<sup>187</sup>. Bilboko inauterietan joaldunez doazenek, ordea, ez dute diskurtso hori baliatzen eta inauterien baitan paper aktibo bat izan ordez mozorro (pasibo) gisa darabilte joaldunen jantzia. Joaldunen funtzioa eraldatzeak (kasu honetan funtziorik gabe uzteak) inauterietako pertsonaia izatetik mozorro (huts) izatera igarotzea dakar, eta horrek "euskal" *meta-inauteri* efektua sortzen du, alegia, inauterien inauteri bat egitea. Kasu honetaz, hortaz, "euskal" ez ezik joalduna eta "euskal inauteria" zeinuak ere bestelakotzen dira, eta txapelaren kasuan gertatu bezala, horien ez funtzionaltasunean oin hartuz zeinuak erabilera sinbolikora mugatzen dira.

#### -Bertsolaritza

Bertsolaritza euskal kolektiboaren baitan (sektore euskal hiztunean batik batik) ematen den kultur praktika da. Kantu inprobisazio hauek duten antzinatearenarengatik eta bere ezaugarriak partikularrak izanagatik euskal kulturaren zeinu eskusibo eta adierazgarrienetariko bat lez hautematea ekarri du, eta ondorioz, "euskal"-i lotzen zaio zuzenean. Azken hamarkadan, gainera, oihartzun mediatiko handia eskuratu duen jarduera da<sup>188</sup>. Zenbaitzuk masifikazio gisa ulertu dute honakoa eta bertsolaritzaren espektakularizazio edota zentzu galera bat jazotzeko arriskua nabarmentzen dute<sup>189</sup>. Horren aurrean badira bestelako irakurketa baten alde daudenak eta taldetasuna sortu eta identitate ("euskal") bat indartsuki birsortzeko gaitasuna egotzen diote: "*rite du faire ensemble. Faire ensemble, pour être*"<sup>190</sup> (Laborde, 2005:269). Batera zein bestera, egia da azken urteetan jaso duen arretak bertsolaritza "euskal kulturaren" erreferentziak zeinu gisa (ber)indartzea ekarri duela, eta hain

187 Besteak beste halako funtzioak dituzte: "*lurra esnatu nahi dute, udaberriarekin batera indar baikorrak itzul daitezen. Eskuan daramaten ixopoa izpiritu ezkor-gaiztoak uxatzen dituzte*" (Aurkenerena, 1999:81).

188 Arrakastaren erakusle da, besteak beste, 2013ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa zuzenean ikustera 13 mila pertsona hurbildu izana.

189 Ikusi: Eizagirre, E. [2011-02-27]

190 ["taldea egiteko erritua. Taldea egin, izate komun bat sortzeko"]

zuzen ere horregatik ("euskal"-ekiko duen lotura estuarengatik), up aunitzek *haustura* elementu gisa erabiltzen dute sarritan.

Bertsolaritzan gai-jartzaileak ematen duen gaiaren bueltan abestu behar dute bertsolariek. Ariketa horretan balioesten den aldeetariko bat, hain zuzen ere, gaia interpretatzeko eta irakurtzeko bertsolariek agertzen duten abilezia delarik. Gaiaren inguruan espero gabekoak (errealitatearen berehalako irakurketetatik bestelako *hausturak*) diren ekarpenak egitea asko preziatzen da, eta horretarako, bertsolariak maiz egiten dute up-en erabilera<sup>191</sup>. Baina bertsolaritza originaltasun, sormen edota up-z inguratua dagoen praktika gisa ulertetik urruti, up-ek zalantzan jartzen dute praktika kultural horrek ikuslegoa dibertiarazteko duen gaitasuna, eta horren ordez, ohikoa izaten da aspergarria delako irudikaria indartzea. Hala ikus daiteke ondoko adibidean: "*¿Cómo se dice aburrimiento en euskera? –¡Bertsolarismo!*" [UPT14/14]. Kasu honetan galderari ematen zaion espero gabeko erantzunak sortzen du *haustura*. Izan ere, galderaren erantzun logikoa ("normala"), "*aburrimiento*" euskaraz "aspertze" edo "gogaitzea" dela esatea litzateke, eta ez ordea, hemen gertatzen den moduan "*bersolarismo*" aipatzea. Bertsolaritzarekiko diskurtso jakin bat indartzea dakar horrek, bertsolaritzak umore eta dibertimenduarekin zer ikusirik ez duela agerian jartzen duena, hain zuzen ere, jarduera aspergarri gisa aurkezten baitu. Baina horretaz gain, up-ak bertsolaritza euskararekin (hizkuntza edota hizkuntz komunitatearekin) zer ikusia duen praktikatzat jotzen du eskusiboki, up-a planteatzeko moduak (euskaraz nola esaten den galde egiteak) agerian uzten baitu euskaraz dakitenek soilik ulertzen eta gozatzen duten jarduera dela. Hala, euskaraz dakitenei dagokien praktika dela azpimarratzen da, eta euskaraz ez dakitenezako jarduera baztertzaila dela iradokitzen du bidenabar. *Hauturak* orotara bertsolaritza aspergarria delako ideia indartzen du, eta zehazki, "euskal" praktika kultural baztertzaila (eta aspergarria) delakoa.

191 Bertsolaritzan up-en erabilera hain da arrunta ezen Euskal Herrian up-ekin uztartzen den praktika kultural tradizional gisa ikusia den elkarrizketatu gehienaren artean.

Bertsolaritza euskarari atxikitzeaz gainera identitate jakin bati lotzearekin ere egiten dira *hausturak*. Izan ere, kontuan izan behar da bertsolariak edozein izanik ere, bertsoen bidez helarazten diren diskurtsoek (kulturalek, politikoez, sozialek, ea.) euskal ikuspegi nazionalista bati erantzuten diotela eskuarki. Hala, bertsolaritzaren inguruko up askok bertsolaritzan "euskal" izateari egozten zaion aldebakartasun hori abiapuntutzat hartzen dute *hausturak* sortzeko. Ondoko adibidean bertsolari bihurtu den PP-ko zinegotzi bat irudikatzen da. Honakoa dio bere bertsoan:

*"PP-k nahi du euskal telebistarik onena / Armadan desfilea ta gero zezenak / Bikoiztuko du zine arrakastatsuen / Pajares ta Torrenterenak / Ez da ahaztu behar kirola / Pelota gutxiago, ekarri La Roja / Horrela audientzia joango da gora / Telebista euskaraz baina espainola"* [UPT43/17]

*Hautura*, bertsolariari (eta ondorioz bertsoaren edukari) egozten zaion irudikari (rol) eta diskurtso aldaketak dakar. Hots, aipatu berri dena kontuan hartuz, bertsolaria abertzalea, euskal zalea edo euskal kulturaren aldekoa ez duela zertan izan behar agerian jartzen du up-ak, hain zuzen ere kontrako jarrera erakutsiaz. Alegia, espainiar instituzio eta kulturaren aldekoa eta euskal kulturari dagozkion praktiken aurkakoa ere bertsolari izan daitekeela ageriko eginez.

Batetik euskal zalea izatea eta bestetik diskurtso nazionalistari lotzea *hausturan* zeharka parte hartzen duten ideiak diren heinean, up-ek bertsolaritzari egozten zaizkion ezaugarriak birdefinitzeko saiakera argia erakusten dute, horietako gehienak ETB2-k igorritakoak izanik. Orain arteko beste adibideetan ez bezala, ordea, azken honetan ez da zuzenean zeinuaren alde funtzionala kolpatzen, ez eta zeinua esparru sinboliko hutsera mugatzen ere. Horren ordez, zeinua berak barnebiltzen duen esangura zabaltzeko (edo eraldatzeko) joera antzeman daiteke: bertsolaritza beste modu batzuez

(espainiar kultura nazionalari lot dakioken era batez, nahi bada) sortzeko eta praktikatzeko aukera dagoela proposatuz. Horrek bertsolaritzari ez ezik "euskal" zeinuari ere esangura egozten dio "euskal" zera hori bizitzeko eta praktikatzeko "bestelako" moduak ere badaudela dioten diskurtsoak indartuz. Horien artean, ez-abertzalea edo ez euskal zale gisa aritzekoa.

#### *-Euskal mitologia*

Euskal mitologia da "euskal" zeinuari erreferentzia egiten dion beste irudikari multzo bat, non, *haustura* bezala erabiltzen ez bada ere, testuinguru askoren parte izan ohi diren *zeharka* Erreka Mari [UPT7/1], lamiak [UPT52/5], basa jaunak [UPT54/11], Olentzero [UPT31/7] edota Anbotoko Mari [UPT12/19], besteak beste.

Mitologiarekin harremanetan dagoen pertsonaia erabilienetarikoa bat aipatzekotan hori sorgina da zalantzarik gabe. Sorginak euskal kulturaren baitan Mari jainkosaren neskametzat hartu izan diren izaki mitologikoak dira, ostiral gauetan mendi zelaietan erritu magiko-erotikoak burutzeko elkartu eta bilkuretan Akerbeltz gurtuz irudikatu izan direnak<sup>192</sup>. Up-etan euskal mitologiaren irudikarietatik abiatu ordez mendebaldar gizartean eratu den irudikari komertzialari heltzen diote batik bat. Hala, sorginen inguruko irudikariek zer ikusi gutxi dute Euskal Herriko emakume belargileekin, eta horren ordez, atso itsusi, zarpail eta ilun gisa irudikatzen dira, eltze handien aurrean salda miragarriak egiten dituzten izaki zimurtu eta txano dunak lez. Irudi komertzializatu honen pean, edonola ere, up-ek "euskal" horri dagozkion pertsonaia gisa agerrarazten ditu sorginak.

Erabilera horren adibidetzat har daiteke ETB2-k igorritako esketx batean irudikatzen den Zugarramurdiko (Nafarroa) sorginen kasua [UPT21/14]. Akelarrean dabilta sorginak espero gabea Alberto Chicote eszenan sartzen

<sup>192</sup> Ipuinetako pertsonaia izateaz gain, sorginen presentziak gertaera historikoei ere eusten die. Izan ere, sorginak, Europako eta Euskal Herriko emakumezkoen historian pisu esanguratsua hartu zuen Aro Modernoaren hasieran. Garai horretan sorginen aurkako izua zabaltzen hasi zen gizartean, Eliza Katolikoak hala sustatuta bereziki, eta "gaizkiarekin" eta "Deabruarekin" zuten alegiazko harremanean funtsatuta, Inkisizioak gogor jo zuen haien aurka. Euskal Herrian ere pairatu ziren sorgin ehizaren ondorioak, bereziki bortitza izan zelarik Ipar Euskal Herrian egin zena (nabarmenki Donibane Lohizune inguruan), non Pierre de Lancre magistratu frantziarraren eskutik, besteak beste, ehunka pertsona (gehienek emakumezkoak) erailak izan ziren.

den arte. Chicote, *Telecinco* espainiar telebista kate pribatuan sukaldari buruzko programa bat egiteagatik berriki pertsonaia mediatiko bilakatu den sukaldari madrildarra da. Bere telebista saioan gaizki funtzionatzen duten jatetxeetara joaten da aholkuak eman eta negozioa berriro ere modu egokian abian jar dadin. Berdina egiten du sorginekin ere, up-an Chicote irudikatzen duen pertsonaiak sorginei sukalde aholkuak emateko agertzen baita bertan: *"Así no se puede llevar un negocio ¡Joder! Aquí tenéis mierda para dar y regalar ¡A barrer todo esto! ¡Cuando vuelva quiero verlo como los chorros del oro!"*<sup>193</sup> [UPT21/14]. Chicoteren presentziak sorginen jarduera aztoratzen du eta bat bateko hainbat moldaketa egiteari ekiten dio:

"- [Chic.] *He reformado el lugar y yo creo que ahora sí que os van a venir clientes.*

-[Sorg.] *¿Has convertido la cueva de Zugarramurdi en un asador?*

- [Chic.] *¡Claro! ¿Y os acordáis de la cabra negra de antes? ¡Pues ahí la estoy cocinando!*

-[Sorg.] *¿¡Has cocinado a Akerbeltz!?! ¿Has profanado al maligno!*

-[Chic.] *De maligno nada. ¡Está cojonudo! Para chuparse los dedos. La cabra, la cabra, la puta de la cabra, la madre que la parió ¡Hey!"*<sup>194</sup> [UPT21/14]

Bi dira Chicotek egiten dituen aldaketa nagusienak. Batetik, sorginen kobazuloa desagerrarazi eta erretegi bihurtzen du; sorginen koba, leku pribatua eta karga sinbolikoz betetakoa, publiko zabalarentzako eroso eta atsegina den espazio aseptiko eta a-sinboliko bilakatuz (ez-leku<sup>195</sup>). Eta bestetik, sorginek gurtzen duten izate magikoa, Akerbeltz, hil, erre eta jan egiten du.

193 ["Horrela ezin da negozioa aurrera ateratu! Izugarritzako kaka pila duzue hemen. Eskobatu ezazue hau guztia! Bueltan diz-diz ikusi nahi dut dena!"]

194 ["-Lekua itxuraldatu dut eta pentsatzen dut oraingoan bai jendea etorriko zaizuela./ -Zugarramurdiko koba erretegi bihurtu duzu?/ -Noski! Eta gogoratzen duzue lehengo aker beltza? Ba hortxe sukaldatzen nabil!/-Akerbeltz erretzen zabilta? Deabrua profanatu duzu!/-Deabrua, bai zera. Izugarri dago! Behatzak miatzatzeko modukoa. Ahuntza, ahuntza, ahuntza puta, erditu zintuena, ei!"]

195 Marc Augé-k ez-lekuen inguruan egindako hausnarketaz baliatzen gara honakoa esateko. Honen inguruan gehiago jakiteko ikus Augé, 2008.



Up-ak proposatzen duen *hausturatik* hainbat irakurketa azpimarra daitezke. Hasteko, elkarren artean desberdinak diren bi testuinguru harreman zuzenean jartzeak dakar *haustura*: Chicote batetik (espainiarra, telebista saio bateko protagonista), eta sorginak bestetik (izaki mitiko eta "euskal") elkarrekin aurrez-aurre jartzeak desdoia dakar. Baina uztarketa *hauskor* horretan up-ak iradokitzen duen irakurketa zabalagoa da eta pertsonaia bakoitzak duen sinbolismoa (kulturala eta nazionala) ez da modu orekatuan tratatzen. Up-a arretaz behatuz gero, batetik, esanguratsua suertatzen da Chicotek Akerbeltz "desagerrarazteko" duen "modua": alegia, Akerbeltz jatea. Pentsa liteke Chicote sukaldaria izateak logikoa egiten duela Akerbeltz sukalderako erail izana. Baina "sokratua" den zeinua irensteak hori baino karga sinboliko handiagoa duelakoan gaude. Izan ere, sorginentzat (hots, "euskal" zeinuaren ordezkari direnentzat) garrantzitsua den izaki sokratua Chicotek bere baitan literalki hartzeak iradoki dezake "euskal" kulturaren bereganatze (irenste) bat, kasu honetan espainiar kultura nazionalari dagokion pertsonaia baten eskutik datorrena. Honako ustea are gehiago indartzen da Akerbeltz jaten duen bitartean Chicotek *"La cabra, la cabra, la puta de la cabra, la madre que la parió ¡Hey!"* abesten duenean, Akerbeltz euskal mundu mitikotik urrundu eta berinterpretazio sinboliko/kultural bat ematen baitio honen bitartez, espainiar kultura nazionalaren ikuspegiaren



arabera berrizendatu eta performatuz akerra. Up-ak, hala, *hausturaren* bidez bi errealitate kultural jartzen ditu elkar-harremanetan (euskal eta espainiar nazioei dagokienak), baina uler daiteke bata gailendu egiten zaiola besteari. Hain zuzen ere, espainiar kultura nazionalaren parte den pertsonaiak sorginen espazio eta ikur sakratuen jabetze (eta enpoderazio) sinbolikoa (eta ondorioz politikoa) burutzen duelako. Edo bestela esanda, up-ak nolabaiteko kolonizazio sinboliko bat irudikatzen duela uler daitekeelako (Krebs, 2003).

Aipatutako adibideetan, "euskal"-ekin loturiko zeinuen iraulketa bat antzeman daiteke. Hots, duten esangura (mitikoa, tradizioazkoa, ea.) berinterpretatu eta duten karga sinbolikoa arinduz honakook "profanagarri", ukigarri edo arruntago izan daitezkeela erakusten du. Baina kasu honetan, gainera, adierazgarria da zeinuaren hutsaltzea zeinua bera "espainiar kulturara" txertatuz eta bertan gorpuztuz (*in corpus*) gauzatzen dela. Zeinuaren esangura ber-gizarteratzen du horrek; sorginak modu kaletarragoan erakutsiz (gizartera hurreratuz) batetik, eta horretarako urrats gisa horiek "espainiartuz," bestetik. Aurreko adibideetan bezala honakoan ere diskurtso hori "euskal" zeinura zabal daiteke eta sorginen kasuan ez ezik, "euskal"-ek ere duen izaera mitiko edo karga sinbolikoa eguneroko bizitzaren parte (erabilgarri, arrunt) izateko modua (edo moduetako bat behintzat) hori "espainiartuz" dela ageriko egiten duten up askok.

#### -Tradizioari traizio

Aipatzen gatozenari eusten diote ondoren azaltzen diren up adibideek ere, hain zuzen sinbolikoki esanguratsuak diren tradizio, jai, erritu zein ikurrak gainditzeko nahia antzeman baitaiteke beraietan. Baina orain azalduko den kasuan tradizio edo zeinuei egiten zaien up-ek ez dute zeinua funtziorik gabe uzteko ariketa burutzen, ez eta bestelako kultura nazionaletara hurbiltzeko beharrik agerian jartzen ere. Horren ordez, zeinuen funtzioak eta diskurtsoak bir-definitu bai eta eraldatzeko saiakera (erreflexibo/politiko) bat antzeman

daiteke baina modu introspektibo batean egindakoa, hots, "euskal" zeinuari aldaketak barnealdetik eginez.

*Medeakeko* kideek, adibidez, jarrera kritikoz hartzen dute haientzat maiz erreakzionarioa den euskal nazioaren kultura, eta "euskal" gisa ulertzen den hori birziklatu edo eraldatu beharko litzatekeela pentsatzen dute, besteak beste autokritikarako edo gizarteak izan ditzakeen kutsu matxista eta atzerakoia agerian jartzeko modua baita haien ustez. Noranzko horretan erabiltzen duten baliabideetako bat up-ak dira.

Adibide gisa aipa daiteke, esaterako, *Medeakek* sortu zuen San Tomas festaren ospakizun eraberritua: 2012an San Tomas ospakizuna "*reputifikatzeko*" [E20a2] erabakia hartu baitzuten<sup>196</sup>. Euskal kultura nazionala, eta ondorioz, "euskal"-i dagozkion zeinuak, tradizional eta tradizionalistak direla ulertzen dute *Medeakeko* kideek, eta horren baitan eta horren ondorioz burutzen diren ohituren erreproduktzio itsua auzitan jartzeko beharri nolabait erantzun nahi izan diote. Ibilbide horretan egin duten up-etariko bat emakumezko baserriarraren trajea (San Tomasetan janzteko ohitura dagona) goitik behera eraldatzea izan da:

*"Atera ginen kaxeraz, minifalda jarrita, takoiekin, korseekin, pelukakin, margotuta, dildoeikin gona azpitik, ta pixkat hori, ba tradizioari traizio egitea ze beldur dagon ikusteko. Nik ez det nahi Euskal Herri tradizional bat ez? Inungo zentzutun"* [E20a2]

Tradizioa (San Tomasetako jaia eta honen baitan burutzen diren ekintzak), bai eta jaiari loturiko zeinuak (horien artean emakumezkoen trajea) *hausturarako* erabili dute, horien berrirakurketa sexualizatu eta ludikoa eginez. "Euskal"-i loturiko zeinuak up gisa erabiltzeak inertziak onartutako mugen tasuna bai eta zeinuen kontingentzia ere agerian jartzea dakar. "Euskal" baserriarra

<sup>196</sup> "*Reputifikazio*" gisa izendatzen du kultura judu-kristauaren eraginez euskal gizartearen barneratuak dauden hainbat praktika edo pentsamolderen des-erakitzeta eta bereziki erreferentzia egiten die sexualitate, bikote harremanak edota emakumezkoaren rol sozialei dagozkionei. Horren inguruan gehiago jakiteko ikus Ziga, 2011.

gorputza ia osorik estaltzen duen trajez janztetik urruti, emakume (hiper) sexualizatu moduan erakusten dute eta auzitara dakarte "euskal" emakumezko tradizionalaren irudikariaren mugiezintasuna. *"Hay que matar al cura que llevamos dentro"* <sup>197</sup> [E20a2] dio elkarrizketatuak, bere ustez euskal kultura nazionalen nagusi diren hainbat auto-zentsura, arau eta menpekotasun jarrerekin (ez soilik matxistak direnekin) amaitu behar dela adieraziz, eta up-ak horretarako baliagarri direla azpimarratuz. *Medeakeko* elkarrizketatuak ez du uste up-en bidez, eta bereziki "euskal" horri lotzen zaizkion zeinuekin erabiliak direnean, hari burla egitea edo indargabetzea ekarri behar duenik halaberharrez. Alderantziz, horien birziklapena egiten dela ulertzen du, modu erreflexiboz jokatzuz gero eguneratze eta iraunkortasuna bermatzeko modutzat jotzen baitu. Zeinuak gainazpikatu behar direla ulertzen du beraz, besteak beste, jarrera horrek gizarteko ohikotasunean barneratutako praktika tradizionalistak/ hegemonikoak/zapaltzaileak erreproduzitzea ekidin dezakeelako, eta ondorioz, baita gizarte irreflexibo eta atzerakoi bat erreproduzitzen jarraitzea ere.

Kasu honetan praktika kultural edo tradizioen subertsioak nahitara bilatzen den eraldaketa bati dagokio, baina aurretik ikusitako kasuekin alderatuz jarrera politiko aktibo eta burujabe bat erakusten du azken honek: erreferenteak ahuldu edo "desagertarazi" beharrean edota horiek espainiar edo frantziar kulturen ikuspegietara hurbildu beharrean, dauden ("euskal") posiziotik identifikatu, gainditu, aldarazi eta birplanteatzeko nahia eta praktika indarrean jarritz. Ariketa honek "euskal" ber-diseinatzea (kontingeneta dela erakutsi, ber-izendatu eta performatzea) dakar, baina zeinuari funtzionaltasuna erauzi gabe, baizik eta hain zuzen ere, zeinu (eta lanabes) erabilgarri eta aktibo gisa ulertuz eta praktikatzuz.

197 ["Barnean daramagun apaiza erail behar da"]

#### 5.2.4.c. Zeinu politikoa

"Euskal" zeinuari estuki lotzen zaizkion esparru politikoko zeinuek zer ikusi handia dute Euskal Herrian jazo eta pairatu den gatazka politikoarekin<sup>198</sup>, eta zehazki, gatazkan parte hartu duten agente sozial eta instituzional desberdinekin. Ondorengo atalean gatazka politikoari loturiko errealitate desberdinak up-etan zeinu gisa nola erabiltzen diren zehazten da. Bost ataletan bereizi dira up-etan esanguratsuki agerian jarri diren gatazka politikoaren inguruko errealitateak: gatazka politikoa (orokorrean ulertuta), euskal preso politikoa, tortura, Ertzaintza, eta ETA hurrenez-hurren landuz.

#### -Gatazka politikoa

Gatazka politikoa "euskal"-ekin duen lotura hertsia agerian jartzen duen aurreneko zantzua gatazka izendatzeko moduan ikus daiteke. Izan ere up-etan gatazka politikoak jasotzen duen izendapena beti doakio "euskal" izenari lotua: *"euskal gatazka"* [UPT52/10] edo gaztelaniazko *"conflicto vasco"* [UPT5/14] adierak direlarik ohikoenak. Izendapen hori erabiltzeak gatazka politikoak euskal nazioari soilik dagokiola aditzera ematen duelakoan gaude, espainiar edo frantses estatu eta agente politikoekin dagoen lotura ez aipatzean (ez baita "gatazka frantses-espainiar-euskaldun" gisa izendatzen, adibidez) sinbolikoki desagerrarazi egiten baita estatuak duten inplikazioa<sup>199</sup>. Hizkuntzaren erabilera honen bidez "normaltzen" eta naturalizatzen den diskurtsoa, beraz, gatazka Euskal Herriko errealitatera mugatua dagoelakoa da.

198 "Gatazka politikoa" adieraz erreferentzia egin nahi zaio XX. mende erdialdetik hona Frantzia eta Espainia estatuak eta Euskal Herriaren Nazio Askapenerako Mugimenduak aurrez aurre jarri dituen konfrontazioari. Gatazkan parte hartu duten agente politiko, sozial eta instituzionalak ugariak izanik gatazkaren zentzua modu zabalean ulertzen da hemen.

199 Honek lotura zuzena du Antonio Gramsci-k hegemonia ulertzeko duen moduarekin, non zenbait errealitate normalizatu (eta aurre-politiko gisa erakutsi) eta beste zenbait politiko gisa berariaz islatzeko borondatea dagoela ikusten duen (Gramsci, 1981). Kasu honetan ulertzen dugu gatazka politikoari ematen zaion ñabardurak ("euskal") funtzio hori betetzen duela.

Izenekin ez ezik gatazka politikoarekin zer ikusia duten up-en *hausturekin* ere antzeko joera nabarmentzen da. Izan ere up-ek, oro har, ez dituzte gatazkari lotu dakizkiokeen errealitate guztiak jorratzen, eta gehienetan ez da diskurtso konkreturik landu behar izaten ere, gatazkarekin zer ikusia duten gertakizunei eta agenteei egozten zaien karga sinboliko gogorrak *hausturen* agerpena nabarmenki errazten baitu. Hots, gatazka politikoarekin zer ikusia duen elementuak eszena berberean aurkeztea aski izaten da bere horretan *haustura* bat sor dadin.

Hori ikus daiteke, esaterako, ETB2-k igorritako *Los Santxez*-en inguruko up-etan [UPT8/15] [UPT9/10]. *Los Santxezek* jarrera politiko antagonikoak dituzten kideez osaturiko familia bat irudikatzen du: Espainiatik Euskal Herrira bizitzera etorritako gurasoak, ertzain sartutako seme bat, eta ezker abertzalekoa den beste batek osatua. Pertsonaien konbinaketa horrek *haustura* sortzen du bere horretan, historikoki borrokan egon diren figura politikoen uztarketa dakarrelako. Horri, gero, familia horretan emango diren bestelako gertaerak gehitu behar zaizkio, baina azken horiek ez dute gatazka politikoa modu zuzenean hartzen edo aipatzen, figura bakoitzari dagokion rola agerian jartzearekin eta elikatzearekin aski baita *haustura* jazo dadin<sup>200</sup>.

Gatazka politikoarekin harremanetan dauden figura desberdinak aurkezteaz gainera, gatazkari tratamendu ironikoa eman ohi zaio zenbaitetan. Ondoko adibidean kale borrokan aritutako bi gazte eta ertzaina elkartuko dituzte telebista plato batean, eta gatazkaren inguruko irakurketak ohiko doinu serio eta zurbiletik at aterako ditu aurkezleak:

“- [Programa aurkezlea] Hoy tenemos con nosotros unos invitados muy muy especiales. Miembros de un famosísimo grupo que no hace tanto tiempo actuaba todos los fin de semanas: "Iraulsa" y "Aris" de la kale borroka. Os hemos traído al programa para recordar aquellos maravillosos tiempos en el que todo el mundo hablaba de vosotros, sobre todo los jueces de la Audiencia Nacional.

200 *Los Santxez* 2005eko *Vaya Semanita* programan igortzen zen. 2013an kapitulu zaharren bat atxiki zuten beste esketx berriagoen artean.

- [Kale borr.] *¡Qué tiempos aquellos! Salíamos en todos los Teleberris montándola. Día sí y día también.*

- [Prog aurkz.] *Aquellos maravillosos autobuses, ardiendo en la noche. ¡Qué tiempo tan feliz!*

- [Kale borr.] *Qué bien se nos da quemar contenedores, tantos recuerdos... Todos los findes de pancartada, corriendo por lo viejo, ese olor a gasolina...*

- [Prog. aurkz.] *Hemos traído un amigo de aquellos tiempos: el sargento Gurrutxaga.*

- [Ertzaina] *La de veces que he corrido detrás de estos valientes.*

[Kale borrokako kideak eta ertzaina elkar besarkatzen dira]

- [Kale borr.] *Quemando autobuses en lo viejo, luchábamos los dos contra el estado opresor. Huyendo de los beltzas ¡Qué recuerdos! Haciendo barricadas con un contenedor.*

- [Ertz.] *Que de ostias que daba yo, zurrando con la porra siempre he sido el mejor.*

- [Kale borr. eta Ertz.] *Ahora eso ya se jodió, porque llevo a Euskadi la pacificación.*<sup>201</sup> [UPT18/13]

Kasu honetan ironiaren erabileraz, alegia, adierazi nahi dena agertzeko adierazi nahi den horren kontrakoa esanez, gatazkaren iruditegi lazarria azpimarratzen da. Hala “*para recordar aquellos maravillosos tiempos*” edo “*¡Qué tiempo tan feliz!*” esatean kontrakoa ematen da aditzera, hots, une eta garai gogor eta latzak bizi izan direla. Berdina gertatzen da pertsonaiek elkarren

201 [\* -Gaur gurean gonbidatu bereziak izango ditugu. Duela gutxi arte asteburu oro aritzen ziren talde ezagun bateko kideak: Iraulsa eta Aris, kale borrokakoak. Programara gonbidatu zaituztegu mundu guztiak, bereziki Audientzia Nazionalako epaileak zuetaz hitz egiten zuen garai zoragarri hura gogoratzeko/ - Horiak garaia! Teberri guztietan ateratzen ginen/ -Gauetz erretzen ziren autobus zoragarri horiek. Ze garai zoragarriak! -Ze abilak garen kontainerrak erretzen, hainbeste oroitzapen... Astebururo pankartarekin, alde zaharretik korrika, gasolina usaina.../ -Garai hartak adiskide bat ekarri dugu: Gurrutxaga sarjentua/ -Zenbatetan egin dudak korrika hauen atzetik!/ -Alde zaharrean autobusak erretzen estatu zapaltzailearen aurka aritzen ginen guztiok. Beltzetatik ihes. Ze oroitzapenak! Kontainerrekin barrikadak eginez/ -Zenbat egur ematen nuen, porrarekin beti izan naiz iaioena/ -Orain amaitu da hori, bakea ezarri delako Euskadin”]

artean duten harremanarekin ere; etsaitasuna erakutsi ordez lagun gisa irudikatzen baitira, elkar besarkatuz eta bata eta bestearen ekintzak goraiatuz. Eta parekoa baketze prozesuarekin ere, zeina "negatibotzat" aurkezten den up-an ("*Ahora eso ya se jodió, porque llevo a Euskadi la pacificación*"), Ertzaintza eta kale borrokan aritu direnen arteko harreman "ona" bertan behera geratzearen errua horri egotziz. Baina *haustura* horietan up-aren diskurtsoaren posizionamendua ez da argi gelditzen. Alegia, gatazka politikoarekin zer ikusia duten agente desberdinak batera agertzen direnean modu parekidean jokatu ohi da beraiekin; hots, aurkako pertsonaia aurrez-aurre jarriaz hain argia eta sortzen erraza da *haustura* ezen up-ak ez duen haragoko diskurtsorik lantzen. Hala, elkarrekiko aurkaritza hori elikatzen du up-ak baina ez du (oro har) baten edo bestearen alde edo kontra jokatzeko.

Horixe bera antzeman daiteke, esaterako, Guggenheimen aurrean *Village People*-n *Y.M.C.A.* abestiaren erritmorik gatazka politikoarekin zer ikusia duten agente desberdinak elkarrekin dantzan agertzen denekoan [UPT10/11]. Kasu horretan ere, gatazka politikoaren bertsio ironizatua eskaintzen du up-ak, alde desberdinetako agenteak elkarrekin ongi moldatu eta gatazka dibertigarria den zer edo zer gisa aurkeztuz. Gatazka politikoa, gainera, euskal nazioaren "parte" integratua balitz bezala irudikatzen da, non, guardia zibila, ertzaina, eta etakideak ez ezik, harri jasotzailea, apaiza eta zesta puntista ere azaltzen diren bertan. Hots, gatazka politikoko agente desberdinak Euskal Herriko beste edozein ogibide gisa bai eta identitate nazionalaren erreferentetzat aurkeztuz. Beste behin ere, pertsonaia antagonikoak elkarren ondoan jartzea aski da *haustura* gerta dadin, *hausturen* erabilera horrek ageriko egiten baitu, hain zuzen ere, gizartean egon badagoen *haustura* bat dela jada, eta ondorioz, azalpenetan edo gidoi konplexuetan sartu gabe pertsonaia desberdinak elkartzeko aski dela up-rako baliagarria den desoreka sortzeko. Kasu hauetan guztietan gatazka politikoa "euskal"-i lotzen zaio, hain zuzen ere bistako egiten den horretaz harago up-ak ezer gutxi gehiago azaldu behar duelako zertaz ari den ulertua izateko, eta gatazka "euskal" dela ulertzea zuzeneko irakurketa bilakatzen da.

Up-en bidezko gatazka politikoaren planteamenduetan batzuk eta besteak parekatzeko joera antzematen bada ere, besteak beste aipatutako adibideetan ez delako posizio diskurtsibo argirik ageri, egia da inplizituki egon badagoela gatazkarekin lot daitezkeen errealitate desberdinen arteko desoreka sinbolikorik. Desoreka horrek zer ikusia du up-ek aipatzen eta aipatu gabe uzten dituzten errealitateekin, up-ek ez baitituzte gatazkari loturiko errealitate guztiak berdintzatzen. Hala, aipamenik gabe geratu ohi dira gatazka politikoaren zenbait biktimen irudikapenak; zenbait instituzioren ordezkariak (epaitegiak, epaileak, kartzela, gobernuak, komunikabideak, ea.); edota gertakari historiko zenbaiten aipuak. Hala, gatazkari (modu orokorrean) keinu egiten bazaio ere gatazkaren iruditeria jakin bat bultzatzen dela ikus daiteke, up-etatik babestuenak gelditzen baitira hainbat eduki. Desoreka sortarazten du horrek, up-en bidez aipagarriak ez direnak ("sakratutzat" jo daitezkeen errealitateak) eta aipatu daitezkeenen artean ("profanagarriak" direnen artean), aurrenekoei babes eta ukiezintasun balio erantsia emanez. Jarraian azaltzen dira zeintzuk diren gatazka politikoaren gaia agertzean up-ek darabilten errealitate aipatuenetarikoak, hots, gatazka politikoaren irudikariaren zeinu osagarri ohikoenak.

#### - Euskal preso politikoak

Euskal preso politikoaren inguruko aipamenak up-etan agertzen direnean honen harira egiten diren *hausturetariko* gehienek zer ikusia izaten dute "preso politikoa" kontzeptuak berak duen eta izan beharko lukeen esanahiarekin, hots, adierazleari ematen zaion zentzuarekin. Up-ak joera hau zer dela eta agertzen duten ulertzeko momentuko testuingurua kontuan hartzea beharrezkoa da. Izan ere gogoan hartu behar da 2013an Eusko Legebiltzarrak Euskal Herrian eta oro har Espainian "preso politiko"-rik ez dagoela esateko erabakia hartu zuela, eta ondorioz, "preso politiko" adieraren erabilera publiko (eta politikoari) uko egin zitzaioa<sup>202</sup>.

<sup>202</sup> Hainbat erakunde eta talde sozialek ez dute bat egiten erabaki horrekin eta euskal preso politikoak egon badirela defendatzen dute. Eusko Legebiltzarraren erabaki hartzeaz gehiago jakiteko ikusi: Naiz, (2013). Erabakiarekin bat ez datozen bestelako ikuspegiak ezagutzeko ikusi: Askatasuna, (2013).

Hori jakinik, ondoko adibidea errazago interpreta daiteke: *“Mi hermano es un preso político. Lo pillaron robando en sedes de partidos ¿eso es o no es político?”* [UPT17/5]. Up-ak ez ditu preso politikoak jardura politiko edo gatazka politikoarekin zer ikusia duten pertsona gisa irudikatzen, horren ordez, adieraren esanahia zabaldu eta “politikarekin” (oso modu zabalean ulerturik) zer ikusia duen edonor “preso politiko” gisa identifikatu daitekeela agerian jartzen du, besteak beste, alderdien egoitzekin kontaktu minimo bat izan duen inor (*“robando en sedes de partidos”*). “Preso politiko” adierak jatorrian duen testuingurutik ateratzeak dakar *haustura* kasu honetan, gatazka politikoarekin lotura zuzenik ez egiteak adieraren zabaltasun edo malgutasuna nabarmentzea baitakar, eta kontzeptuaren mugak lausotzen dira “preso politiko” adieraren esanahia zalantzakor bilakatuz. Kontzeptuaren anbiguatearen bitartez, adieraren indeterminazioan soa jarritz, horren baliogabetzea bideratzen eta indartzea bultzatzen du up-ak, eta “preso politiko” gatazka politikoarekin (eta ondorioz “euskal”-ekin) lotzen bada ere, lotzen den elementuaren (“preso politikoen”) diskurtsoa berrinterpretatzeak esanahi galera (edo berrinterpretazioa) bultzatzen du. Alegia, gatazkari lotzen zaion errealitate moduan duen aitortza bakarra errealitate gisa ulertzeari uztekoa da (auto-negazioa, nahi bada). Halako adibideek erakusten dute “preso politiko” zeinuk up-etan jasotzen duen erabilera ohikoenak gatazkarekin eta ondorioz “euskal”-ekin duen lotura desagerraraztera bideratzen dela.

Badira, nolana ere, preso politikoen inguruko bestelako diskurtsorik igortzen dituzten up-ak. Zenbait up-etan “preso politiko” kategoriak zeharkako presentzia eskuratzen du, eta *haustura* gisa erabilia ez bada ere, nolabaiteko egonkortasuna lortzen du up-aren narrazioaren barnean, non, existitzen den errealitate gisa onartua den. Horren adibide dira, esaterako, *Beranduegiko* esketx bat non preso politikoen aldeko manifestazio bat irudikatzen den [UPA11/2], edota *Bi Balakoen* abestietako zenbait letra, zeinetan preso politikoen inguruko erreferentziak egiten diren [B16/4]: *“Zenbat aldatu gara / ehun urte hontan / Zenbat Angiolillo / kartzela zulotan / Zenbat sasi Txirrita / manifa ondotan / Asko lotsatu gabe / presoiei bertsotan”*.

### -Tortura

Zenbait errealitate zalantzakor bilakatzea bultzatzen den modu berean (“preso politikoen” adibidean bezala), zalantzakorrak edo sozialki erabat onartuak ez dauden beste errealitate batzuk baieztatzea edo agerian jartzea ahalbidetzen dute zenbait up-k. Honen harira aipagarria da torturen kasua, adibidez. Torturen testuinguruan kokatzearen, esan behar da gatazka politikoaren ondorioz atxilotuak izan diren hainbat pertsonen poliziaren eskutik torturak jasan izana adierazi dutela<sup>203</sup>. Diskurtso horiek, ordea, ukatuak izan dira espainiar eta frantziar estatuengatik eta maila sozialean ere ez dute erabateko aitortzarik ez eta zilegitasunik eskuratu. Zenbait up-k, ordea, torturaren testuinguruaz baliatzen dira beste gaiekin zer ikusia duten *hausturak* sortzerako orduan, eta horren bidez agerian jartzen dute diskurtso publikoetan oro har onartua ez den egoera bat, hots, torturen existentzia edo errealitatea.

ETB2-k proposatzen duen esketxetariko batean, adibidez, gela ilun batean mahai baten aurrean eserita izaturik dagoen gazte bat agertzen da. Bere aurrean zutik bi polizia, gaztearen erreguei kasurik egin gabe oihuka eta mehatxuka ari zataizkiola: *“¡Ya verás la paliza que te va a meter éste!”* [UPT16/11]. Poliziak egindako mehatxuak mehatxu up-an ez da inor jipoitzen dutenik agertzen, horren ordez, atxilotuarengana hurreratzen den beste polizia (“*éste*”) isildu gabe hizketan hasten zaio erretolika luze bat boteaz. Gaztelaniazko hitz joko baten bidez sortzen du *haustura* up-ak, hain zuzen ere *“dar una paliza”* norbait jo eta *“dar la paliza”* norbait gogaitu edo aspertzearen artean nahasmena sortzen baitu hasierako esaldian (*“la paliza que te va a meter”*). Hala, gaztea kolpatu ordez, luze hitz egiten diote, aspertuaren aspertuz egindakoa aitortzen duen arte.

Up-an inor zauritua agertzen ez bada ere, bertan islatzen den tentsioa, atxilotu-polizia botere-harremanak, oihukak eta mehatxuak, eta sermoia boteaz “torturatzen” dutela irudikatzeak, poliziaren eskuetan torturatua izan den batek pairatu ditzakeen egoerarekiko lotura zuzena egitea dakarte<sup>204</sup>.

203 2016an aurkeztu den ‘Proyecto Tortura 1960-2013’ ikerketak erakusten du 1960tik aurrera gutxienez 4.009 tortura kasu egon direla.

204 Honek bat egiten du EAJ-PNV-ren diskurtso eta ikuspegiekin. Ikusi: Vázquez, M. (2015).

Honako jarrera ez da zorizkoa eta ikus daiteke up-ak igorritakoak Eusko Jaurlaritzan agintean dagoen alderdi politikoaren diskurtsoarekin (EAJ-PNV-renarekin) bat egiten duela. Izan ere gogoan hartu behar da 2015ean EAJ-PNV-k Europari eskatu diola Espainiako indar polizialek (ustez) egindako torturak iker ditzala. Up-ak ere aditzera ematen du honako ikuspuntua, torturak "aitortuak" eta bistaratuak izateko nahia, hain zuzen ere up-en bidez horiek "diskurtsibizatzea" lortzen delako, eta gatazkari bai eta "euskal"-i lotua doakion errealitate gisa aitortzea bideratzen duelako, bidenabar.



### -Ertzaintza

Gatazka politikoari erreferentzia egitekotan maiz agertzen den beste elementuetariko bat Ertzaintza da. Adibidetzat har daiteke, esaterako, *Beranduegiko* up-etariko bat, non, Donostiako 2013ko Askegunean<sup>205</sup> gertatutakoa hartzen den testuinguru gisa, eta zehazki, ertzainak gunea hustu arazi zueneko irudiak erabiltzen diren up-a sortzeko. Irudietako batean megafonoz hitz egiten ari den ertzaina azaltzen da, baina Beranduegikoek ertzainaren jatorrizko ahotsa eta diskurtsoa ordezkatzen dute [UPA14/4]<sup>206</sup> ertzaina bertsoa botatzen dagoela irudikatuz: "Zuek ez bazeate kontentu / Errua ez daukat ez nik / Txistuak jo dituzue baina / Maite zaituztet oraindik" dio ertzainak, Xalbadoren kopia ezaguna gogora ekarriaz<sup>207</sup>.

Up-ak *haustura* sortzen du ertzainaren rola bertsolariaren rola ordez aldatuz, hots, honi autoritatea kenduz, eta desoreka are gehiago indartzen da abestutakoan dioenarengatik, *Askeguneko* testuinguru gogorra eta Ertzaintza eta gazteen arteko enfrentamendua leuntzen baitu ironiaz; jendeak ertzainei oihu eta txistuak egin badizkiete ere ertzainak gazteak "maitatzen" jarraitzen dituela agertuz. Hala, up-ak zeharka nahiz zuzenean, Ertzaintza gatazka politikoaren dimentsio desberdinetan (kaleko adierazpen politikoetan bereziki)

presentzia nabarmena duen agente gisa hautematen du, bai eta espazio horietan boterea eta autoritatea duen figura gisa ere, eta hain zuzen ere horregatik, kasu honetan bezala, botere horren galeraren irudikapenak erabiltzen dira *haustura* gisa.

Baina azpimarratu behar da gatazkari dagozkion up-etan Ertzaintzak presentzia nabarmena eskuratzen badu ere agertzen den guztietan up-ek ez dutela zertan gatazkaz jardun behar. Ertzaintzaren presentzia arrunta izan ohi da gatazka ez beste gisako *hausturak* erabiltzen dituzten up-etan eta horietan agertu ohi direnean oso gutxitan erabiltzen da erakundea *haustura* moduan. Aipatu berri den *Askeguneko* adibidean ez bezala, ohikoa da Ertzaintza errealitate "neutral" gisa irudikatzea eta maiz dagokion rola aurreikusgarria den modu zuzenean ("normalean") betetzen agertu ohi da. Hala, kontrol polizialak eginez edo inor atxilotuaz ikus daitezke up-etan, egunerokotasunean dagokion botere rola erreproduzitzen. Ertzaintza, beraz, "euskal"-i atxikitzen bazaio ere ez du zertan gatazkarekin lotua joan behar eta up-etan duen presentzia esanguratsua bada ere berekiko irakurketa, gatazkaz harago, lotua doakio "testuinguru normalduaren" diskurtsoari.

<sup>205</sup> *Askeguneko* erresistentzia zibileko ekintza da, Espainiako Audentzia Nazionalak ETA-ren laguntzaitzat jotzeagatik atxilotuak izango direnei eskaintzen zaien herri babesa. Eskuarki, atxilotua izango diren inguruan jendea bilduaz burutzen da. Irudiak ikusteko: Askegunea, (2013).

<sup>206</sup> Argazkiaren iturria: Argia, (2013).

<sup>207</sup> 1967an Donostian egindako Bertsolari Txapelketa Nagusian botatakoa. Bertso gogoangarria da jaso zuen txistu eta txaloengatik. Irudiak ikusteko: Xalbador, (2013).



Ez da berdina gertatzen, ordea, Guardia Zibilarekin, horiek indar polizialak izanik ere autoritate gabeko figura gisa irudikatzen baitira aldi oro [UPT9/17] [B8/2][B18/4][B24]: geldo, tentel, ez jakin, arrunt, motel eta baldar gisa erakutsiz up-etan. Hanka sartze eta akatsak egitea edota jende xehearekiko botere-harremanak alderantzikatzea Guardia Zibilaren figurarekin maiz erabiltzen diren *hausturak* dira. Pentsatu behar da Guardia Zibilaren trataera horrek, ziurrenik, Ertzaintza eta Guardia Zibilaren identitate nazionalaren diferentziari dagokiola, non, Ertzaintza euskal kolektibokotzat ("proipio") eta Guardia Zibila espainiarizat hartzeagatik ("arrotz"), bata eta besteak "euskal"-ekiko edukitzea nahi den autoritate desberdintasunak irudikatzen dituztelarik up-ek: errespetuzko figura gisa aurkeztuaz "propioa" dena, eta pertsonaia umiliagarritzat "arrotza"<sup>208</sup>.

-ETA

Up-etan gatazka politikoarekin zer ikusia duen errealitate erabilienetarikoa bat aipatzekotan hori ETA<sup>209</sup> da zalantzarik gabe. ETA-k gatazkarekin duen lotura hain da estua ezen gatazka politikoak ETA-n gorpuztua aurkezten den gehienetan. Alegia, up-etan gatazka ezeri lotzekotan hori ETA da, zeina orain arte aipatzen



208 Guardia Zibil eta bestelako espainiar segurtasun indarren inguruko up-ak, bai eta Espainiako monarkiaren gainean egindakoak darabiltzan kasu adierazgarri bat Altsasun (Nafarroa) egiten den *Ospa Eguna* da. Kasu hori zehatzago lantzen da 5.4 *Gozamena* atalean. Nolanahi ere atal honetan haintzat hartzen ditugu bertan ematen diren *hausturak*.

209 ETA (Euskadi ta Askatasuna) 1958an sortutako talde armatua, Euskal Herriaren independentzia eta estatu sozialista bat eskuratzea helburu duena. 2011ean ETA-k bere jarduera armatua bertan behera utzi zuen.



gatozen beste edozein errealitate baino gehiago gatazka politikoaren zeinu identifikagarriena den.

*Hausturetan* hartzen duen presentziaren arabera bi trataera jaso ditzake ETA-k: zeharkakoa, alegia, *haustura* gisa erabilia ez denean eta horren ordean up-aren testuinguru modua bigarren plano batean agertzen denean. Edo zuzeneko, hots, *haustura* sortzeko aipatzen denean edo *hausturak* ETA-ren inguruan diharduenean.

ETA-ren *zeharkako* trataeran ohikoa da talde armatuaren estetika eta ikonografiaren erreproduzioak ikustea, eta batez ere, ETA-k bidezko komunikatuetan erabili duen eszenografia erreproduzitzea.<sup>210</sup>

Lehen irudian ETA-k bere komunikatuak igortzeko erabili duen eszenografia ikus daiteke. Bigarren irudian ETA-ren estetikari jarraitzen dion "*Goxua eta Askatasuna*" euskal gozogileen taldea irudikatzen da [UPT45/11]. Bi argazkiak konparatuz gero, argi ikus daiteke iruditan agertzen diren pertsona kopurua, horien jarrera fisikoa, *attrezzoak*, guztien janzkera berbera izatea, eta bereziki, buru eta aurpegiak estaliak eramatea, ETA-ren jatorrizko estetikari dagozkiola.

Baina ETA-rekin zer ikusia duten baliabide estetikoaren erabilera azalekoa da soilik. Alegia, "*Goxua eta Askatasuna*" irudikatzen duen up-aren *haustura* ETA ez den beste gai bati dagokio, eta ondorioz, ez du zer ikusirik talde armatuarekin. Ulertu behar da, hala, ETA-ren eszenifikazio eta estetika baliatzeak ez diola ekarpenik egiten gozogileen inguruan diharduen up-ari, up-an zeharkako trataera ematen baitaio talde armatuari.

210 ETA-k komunikatua ematean darabilen eszenifikazioa. Argazkiaren iturria: Libertad Digital,(2011).



Baina zeharkako trataera jasotzea kontuz irakurri behar da kasu honetan, izan ere, orain arte ikusi diren zeharkako beste adibideekin gertatzen ez den moduan (gaztelaniarekin edo EAJ-PNV alderdiarekin, adibidez), kasu honetan "normalizatzen" dena ez da ETA-ren presentzia, ETA-ren presentzia parodizatua baizik. Esan nahi baita, trataera zeharkakoa izanik ere, ETA-ren gaineko diskurtso bat helarazten du up-ak, non ETA ez den bere "egoera naturalean" azaltzen, baizik eta "bertsio banalizatuan". Gizartean (euska, espainiar eta frantziarren batik bat) ETA auzi serio, gogor, gordin edota beldurgarri gisa izan da hautemana<sup>211</sup>, eta talde armatuarekin zer ikusia duten elementuak (komunikatuak, ekintzak, biktimak, bai eta itxura estetikoak ere) ikuspegi gogor eta serio horren baitan baloratuak izan dira halaber. Neurri batean, beraz, *hausturarako* beharrezkoa izan gabe up-an ETA-ren irudi estetikoak hargatik arintzeak edo hutsaltzeak taldearekiko irudikaria arintzen edo fribolizatzen ere laguntzen du. Edo bestela esanda, talde armatuaren itxura beldurgarri, gogor edo serioa aldatzeak honen irudikaria ez hain gogor, gordin edota beldurgarri ikustea dakar berekin. Hala, oro har aztertu diren up-etan ETA-ren zeharkako trataerek talde armatuaren banalizazioa irudikatzen dute non itxuraren eta diskurtsoaren karga eta seriotasuna arinduz, taldearekiko igortzen den irudikaria ere "arindu" egiten den.


Honekin batera, ETA-ren trataerari irakurketa zabalago bat ere esleidi dakiokela pentsatzen dugu, izan ere ETA-ren inguruko banalizazio honek, gatazka politikoaren banalizazio bati erantzuten diolakoan gaude. Aurrez esan bezala, up-ek gatazka politikoaren muin gisa ETA aurkezten dutela kontuan izanik [UPT32/19][UPT44/15][UPT45/16], ETA-ren hutsaltasunean indar egiteak gatazka bera lasaitzeko, askatzeko, hutsaltzeko, ea. ariketa gisa funtzionatzen duelakoan gara. Bada, gatazka gainditzeko keinu gisa uler daiteke, gatazkaren agente nagusizat jotzen den hori ahultzeko (eta bir-definitzeko) saiakera batean.

—

211 Hala adierazten dute zenbait elkarrizketatuk.

Antzeko diskurtsoak errepikatzen dira ETA-k *zuzeneko* trataera jasotzen duenean ere: oro har bultzatzen dena, ETA-k izan duen hautemate sozial gogor eta serioaren inguruko *haustura* baita.

Forma desberdinetan garatzen da honakoa, baina oro har, up gehienek ahuldutako edo noraezean dagoen ETA-ren irudikari bat indartu ohi dute. Beheko irudietan, adibidez, 2012ko *Bilboko Barrea!*-n komikigile desberdinek marraztutako ETA-ren inguruko binetak ageri dira<sup>212</sup> [B5]. Batean "*¡Al final salimos por la puerta grande!*"<sup>213</sup> dio etakide batek arratoi zulo batetik ateratzeaz batera. Bigarrenak "*¡Abandono!*"<sup>214</sup> dio xake-jokoan aurkariak irabazi diola ikusten duenean, bere aukera libre delakoan balego bezala.



"¡Al final hemos salido por la puerta grande!"

"¡Abandono!"

Bi kasu horietan kontraesanean oinarritzen dira hausturak, non, irabazle/galtzaile rolen arteko jokoak, eta zehazki, irabazle atera direla uste duten galtzaileena irudikatzen den bertan. Up horietan indartu egiten da ETA-ren inguruko zeharkako trataera darabilten up-en diskurtsoa, ETA ahula edo inozoa delako ideia azpimarratzen baita hemen ere. Ildo bertsuari eusten dio jarraian agertzen den adibideak [UPE4].

—

212 Oso kontuan hartzekoa da komiki horiek biltzen zituen erakusketaren giroa. Umore bineten bidez gatazka politikoaren inguruko irakurketa eta hausnarketa dibertigarri eta umorezkoa sustatu nahi bazen ere, aretoaren ekipamenduak kontrakora bultzatzen zuen. Era bat ilundutako gela zen, zeuden argi bakanak binetetara enfokatuak zeudelarik eta isiltasuna nabarmena zen bisitariak elkarri xuxurlaka baitzebiltzan. Horrek guztiak klima formal eta solemnea sortzen zuen areto barruan, umorez tratatua izateko saiakera egin arren, gatazka politikoaren gaineko ohiko trataera serioa nabarmenki gainjartzen zelarik.

213 ["Azkenean irabazle atera gara!"]

214 ["Etsi dut!"]



Kasu honetan bi etakide agertzen dira idazten dabilzan agiri baten inguruan hizketan. Batak besteari testua zer moduz doan galde egiten dionean "Euskal Herriari" dioen izenburua baino ez duela idatzi erantzuten dio bigarrenak. Haustura sortzen da aurreneko etakideak horri ematen dion erantzunarekin, bikaina iruditzen baitaioizenburua, zehatzegia ez bada ere sakontasun handikoa dela esanaz. Izenburua mamitsua dela pentsatzeak dakar desdoitzea, "Euskal Herriari" idazteak duen ageriko sinpletasunaren irakurketa ironikoa helarazten baita horrekin, edo bestela esanda, etakideek sinplea dena izugarri landua delako ustea dutela bistaraten du. Adibide honek, hala, aurreko kasuen antzeko diskurtsoa azaleratzen du, etakideak inozo, zozo edo oinarrizkoak direlako, non, beste behin ere, talde armatuari dimensio politikotik egozten zaion irudikari erradikal edo beldurgarria iraultzen den.

Diskurtso horixe bera oso modu ikusgarri eta agerikoan antzeman daiteke ondoko adibidean. Bertan elkarren artean hizketan agertzen dira bi etakide. Ondoko bi adibidetan bi etakide elkarren artean hizketan agertzen dira. Egiaztatzaile internazionaleri haien armak eman dizkiete eta prozesua nola joan den komentatzen dabilza orain<sup>215</sup>:

"-¿Tú crees que ha salido bien?

-Sí hombre sí. No le des más vueltas. Cuando les has dado la lista parecías súper seguro.

-¿Sí? No sé yo... Es que con estas capuchas... Teníamos que habernos puesto el pañuelo blanco. Viste más.

-No hombre no, que el blanco engorda y yo estoy echando papada.

215 Esketxak irudikatzen du ETA-ren arma uztea.

-Bueno, ahora sí. Acabamos de hacer la primera entrega de armas de la historia de ETA.

-Sí pero ha sido todo como rápido ¿no? Han venido los verificadores, han mirau la lista, se han pirau...

-Y eso que cobran 750 euros al día.

-¿750 al día por leer una lista? ¡Qué cabrones!

-Y eso que ni han revisado las armas. ¿Te imaginas que no las hubiéramos inutilizau?

[Arma batek tiro egiten dio nahi gabean]

-¡Ostia!

-Pero ¿no habías sellau las pistolas?

-¡Pero eso te tocaba a ti! Yo tenía que hacer la lista.

-¡Pues te habrás herniau! Si son cuatro putas cosas...

-En fin, pues lo tendremos que llevar otra vez.

-¿Qué hacemos con todo esto? ¿Lo llevamos a un Garbigune?

-No, espera que haya otras elecciones, anunciamos que hay otra entrega de armas y presentamos las mismas, con un par."<sup>216</sup> (sic.) [UPT22/12]

Haustura talde armatuaren ohiko irudia zartatzeak dakar, hots, aurretik aipatu den taldearekiko irudikari gogor eta serioa iraultzeak. Etakideak trakets eta baldar gisa aurkezteak aditzera ematen du *haustura* etakideekiko dagoen irudikari sozialean kokatzen dela; alegia, talde armatuko kideak serioak, gogorak edo konbikzio politiko sendoko gisa irudikatzeagatik sortzen dela.

216 [« -Zuk uste ongi atera dela ?/ -Bai gizona. Ez buelta gehiago eman. Zerrenda eman diezunean oso ziur zeundela zirudien/ -Bai? Ez dakit ba nik... Izan ere kaputxa hauekin... Zapi zuria jarri behar genuen. Apainagoa da/ -Ez gizona, ez. Zuriak loditu egiten baitu eta niri paparra ateratzen ari zait/ -Beno, orain bai. ETA-ren historiako lehen arma uztea egin dugu/ -Bai baina dena azkar antzean joan da, ez? Egiaztatzailean etorri, zerrenda begiratu eta joan egin dira.../ -Eta hori 750 euro eguneko kobratzen dituztela/ -750 euro eguneko zerrenda bat irakurtzeagatik? Kabroiak!/ -Eta hori armak begiratu ere ez dituztela egin. Imaginatzen duzu baliogabetu izan ez bagenu?/ -Ostia!/ -Baina ez al zenuen pistola zigilatu?/ -Baina hori zuri zegokizun! Nik zerrenda egin behar nuen/ -Nekatuko zinen ba! Lau gauza puta dira ta.../ -Tira, berriz eraman beharko dugu/ -Zer egingo dugu guzti honekin? Garbigune batera eramango dugu?/ -Ez, itxaron hurrengo hauteskundeetara, beste arma uzte bat egingo dugula iragarriko dugu eta arma berdinak eramango ditugu.»]

Etakideen, eta ondorioz, ETA-ren irudia "lurreratu" egiten du up-ak, hau da, "kaleko pertsona arrunt" gisa irudikatzen ditu, haien zalantza eta akatsekin, baina akats horietan indar egiten du up-ak eta "kaleko pertsona arruntak" baino apalago eta kankailuago erakusten amaitzen du finean. Etakideak eta ETA "gizarteratu" egiten dira hala, baina ez gizartearen "mailara" ekartzeko, "normaltasunaren" azpitik jartzeko baizik: hots, ahul, noraezean edo "galtzaile" moduan aurkezteko.

Ahuldade hori agerian jartzeko beste era bat ETA-ren desagertzerari aipua eginez lortzen da:

*"Cada día desaparecen cientos de especies en planeta. Por eso aquí en Euskadi hemos creado este espacio natural para preservar a una criatura que está a punto de extinguirse, el etarra. Aquí nos encargamos de que el "etarra" pueda vivir sin molestar a nadie. Nos encargamos de conservar su hábitat natural.*

*-¡Mira! ya han hecho otra madriguera, aquí es donde guardan las cosas que necesitan para subsistir [armak]. Hay épocas en el que se juntan para formar tríos. -¿Para aparearse?*

*-No, para emitir un comunicado. Es que es época de tregua.*

*-¿Y cada cuanto es época de tregua?*

*-No hay periodos fijos, se produce cuando la banda se debilita por el acoso de sus depredadores naturales. Algunos intentan emigrar a Francia, pero no todos lo consiguen. Es la ley. La ley antiterrorista"<sup>217</sup> [UPT3/15]*

Up-an turista talde bat azaltzen da basoan barrena ETA-k nola funtzionatzen duen erakusten dien gidari bati segika, izan ere, talde armatua desagertzeko

217 [« Egunero milaka espezie desagertzen dira planetan. Horregatik hemen Euskadin espazio natural bat sortu dugu desagertzeaz dagoen espezie bat babesteko: etakidea. Etakideak inor molestatu gabe bizi dadin zaintzen dugu. Haren habitat naturala kontserbatzeaz arduratzen gara. / -Ikusi! Egin dute beste gordeleku bat, hemen gordetzen dituzte bizitzeko beharrezkoak dituzten gauzak. Batzuetan hirukoteak osatzeko elkartzen dira/ -Ernaltzeko?/ -Ez, komunikatu bat helarazteko. Su-eten garaia da eta/ -Eta noiz izaten da su-etena?/ - Ez dago garai finkorik, harrapakari naturalek taldea ahultzen dutenean gertatzen da. Batzuk Frantziara emigratzeko saiakera egiten dute, baina denek ez dute lortzen. Legea da. Lege antiterrorista"]

zorian dagoen Euskal Herriko animalia espezie bat bailitzan agertzen da irudikatua. Kasu honetan ezaugarri eta joera propioak dituen animalia izanagatik inguru naturalean existitzea ezinezkoa duen espezieztat jotzen da etakidea, eta hala, gatibutasunean mantentzen jarraitzeko hautua egin du gizarteak. Beste behin ere ETA-ri eta etakideei egozten zaien izaera arriskutsuaren irudikaririk abiatzen da *haustura*, kasu honetan basatia den "animalia" izaten jarraitzen badu ere, beldurgarri izateari utzi eta kontrolpean mantendu daitekeen espezie exotiko bilakatzen dela irudikatuz.

ETA-ren inguruan lantzen den beste ohiko up bat espainiar estatutik helarazi den *"todo es ETA"* ["dena da ETA"] diskurtsoari dagokio. Baltasar Garzon espainiar Auzitegi Nazionaleko epaileak bultzatu zuen ildo politiko-judizial-diskurtsiboa da hori, zeinak ETA-rekin zer ikusirik ez izan arren (gerora frogatua izan den gisan) hainbat gizarte mugimendu, mugimendu euskaltzale, euskal komunikabide, ea. ETA-rekin eta terrorismoarekin lotu eta ehunka atxiloketa burutzea ekarri zuen.

Ikuspegi honi dagozkio hainbat up [UPA16/3] [UPT9/19], non guztiek "dena ETA da"-ren inguruan hiperboleaz *hausturak* sortzen dituzten. Horietako batean, adibidez, telebista programa batean irudikatzen dira Jose Maria Aznar<sup>218</sup> eta Mariano Rajoy<sup>219</sup>. Telebista saioan "¿Qué es ETA?" ["Zer da ETA?"] galdetu diete eta haien erantzunak neurrigabekoak bihurtzen dira hasieratik: *"ETA es: abortar, el 11M, el 15M, Prestige, Willi Toledo, Wayoming, Gordi Evole, La Sexta en general"* [UPT3/20] erantzunez. Alegia, Euskal Herriarekin zer ikusia duten elementuetatik at PP-ko alderdikideek oro har gustuko ez duten oro ETA gisa hautematen dutela azaltzen du up-ak.

ETA-ren inguruko birdefinizioak ageriko egiten dira kasu horietan, ETA gizartean nola ulertua izan den eta nola ulertzea nahi den ikus baitaiteke up-

218 1996 eta 2004 artean PP-ko espainiar Gobernuako presidente izandakoa.

219 2011tik PP-ko Espainiako Gobernuako lehendakaria izandakoa.

etan: batetik, hasieran aipatutako up-ak kontuan izanik Euskal Herrian egin diren ETA-ren inguruko ikuspegiei ("barne" begiradari) seriotasuna eta indarra kendu araziz (nahiz eta honek ez duen zertan auziaren garrantziaren galera ekarri behar); eta bestetik, espainiar ikuspegitik ("kanpo" begiradatik) ETA nola ulertu eta erabili den auzitara ekarriaz, honekiko desadostasuna agerian jarriaz eta "euskal" eta ETA-ren arteko banaketa bultzatuaz.

Aipatu diren adibideak kontuan izanik esan daiteke oro har badaudela azalpen askoren beharrik izan gabe, ia modu zuzenean, "euskal"-i lotzen zaizkion hainbat zeinu eta horiek ere eragina dutela euskal nazioaren inguruan eraikitzen den irudikarian. Kasu honetan, ordea, bereziki azpimarragarria suertatzen da "euskal"-en bitartez euskal nazioaren irudikariari potentzialki lotu dakizkiokeen zeinu guztien artetik up-en gehiengoan zenbaitzuk soilik erabiltzen direla ikustea, gutxi batzuk (atal honetan esan direnak, adibidez) modu esanguratsuan eta jarraian errepikatzen baitira. "Euskal" zeinuaren eraketa, beraz, ez da zorizkoa, ikusi bezala zeinu guztiak ez baitira baliagarri; horren ordez, diskurtso eta zeinu jakin batzuek bete eta beste batzuek hustu edo ez betetzeko hautu jakin bat dago eta joera honen araberako "euskal"-en eta oro har euskal nazioaren irudikari jakin bat sortzea ahalbidetzen da.

Orain arte aztertutakoa kontuan izanik antzeman daiteke euskal nazioaren gaineko irudikariak askotarikoak direla. Azken lau azpi-ataletan landu diren adibideek erakutsi dute up euskal etniko autoerreferentziales euskal nazioaren lurraldeari, hizkuntzari, kolektiboari eta zeinuen dagokien hainbat errealitate kolpatzen dituztela, eta horrek guztiak ageriko egin du euskal nazioaren eraketaren amarauna, bai eta kokatu ere up-en bidezko mediazio prozesuan sakontzeko aurreneko harria. Baina informazio guzti hori ulergarria izan dadin beharrezkoa da modu soltean aztertu diren adibide horiek doitu eta euskal nazioarekiko zer nolako diskurtsoak osatzen dituzten ezagutzea. Hori dela eta, hurrengo atalak xedetzat du *hausturen* bitartez kolpatu diren errealitateekiko zein diskurtso helarazten diren argitzea, up-ek jatorrian duten matrize kulturalari erreparatuz zer nolako euskal nazioaren irudikaria helarazten duten definituaz batera.

## DISTANTZIA

### Abstract - Distance

*Nous appelons distance, le changement des références socio/symboliques qui apparaissent dans des réalités constituant l'objectif des ruptures des ph, ainsi que le processus d'objectivation qui en découle. Dans cette partie du travail, on analyse les représentations et les discours qui nous parviennent des objectivations faites à partir de la matrice culturelle hégémonique et de la matrice culturelle apostate. Pour ce faire, deux éléments de chaque matrice culturelle ont été pris en compte : d'une part, l'on décrit les différentes objectivations (leur nature et sur quoi elles portent) qui sont encouragées à travers les ruptures provoquées par les ph ; et d'autre part, l'on explique en quoi consistent les réalités et les discours qui sont considérés comme « normaux ». Pour finir, l'on souligne dans ces éléments la diversité du discours dans le noyau imaginé de la nation basque, et on a essayé en même temps de comprendre et d'éclaircir la nature du caractère multipolaire du noyau imaginé de la nation basque, dont nous avons parlé dans le chapitre 3 de notre travail, intitulé La nation. Le chapitre suivant contient un graphique qui résume ces explications.*

Up-ek errealitatearen hautemate sozialekiko (jakintzat ematen diren ezagutzekiko) desorekak edo desdoitzeak eragiten dituzte hausturak sortzeko. Baina egite horretan bestelako prozesu bat ere gauzatzen da; errealitatearekiko *distantziamentua*, hain zuzen ere. Up batetako hausturak errealitate bat jomugatzat hartzen duenean errealitate horren erreferentzia sozial/sinbolikoa aldatu egiten du. Hausturak sortzen duen desoreka dela medio, errealitatea ohikotasunean duen testuinguru eta interpretazio arruntetik urrundu egiten da, eta bestela ulertua izateko aukera dakar horrek berekin. Prozesu sinboliko horri *distantzia* deritzogu.

*Distantziak* (edota errealitateak haien inguru arruntetik urruntzeak) laguntzen du, orobat, errealitate horien kontingentzia bistaratzeko. Ohiko

perspektibetatik "des-lekutzeak" errealitateek halabeharrezko irakurketa bat ez dutela zertan eduki ageriko egiten du eta horrek, halaber, errealitateen eraketa soziopolitikoaz jabetzeko aukera ematen du (gehienean modu aurre-arrazionalean). Hausturen bidez sortzen den *distantziak*, hala, errealitateen oinarritzko egitura soziala agerian jartzen du, sozialki adostu eta eraikiak direla eta jasotzen duten esangura bestelakoa ere izan zitekeela ikusteko aukera emanez.

Ariketa horretan *objektibazio* bat gauzatzen da, errealitate horiek "distantziatik" behatu eta "berezko" izate bat ez dutela ikustekoa, edo zehazkiago, berezko izate kontingente bat dutela antzematekoa. *Objektibazio* adiera zentzu zabalean ulertzen dugu hemen; errealitateari izaera objektibo bat ematen dion ariketa gisa, edo nahiago bada, objektuari dagokiona edo honen "esentzia" agerian jartzen duen prozesu lez. Utopiatik asko du honek, ordea, ulertzen baitugu errealitatearen hautematea erreferentziazkoa dela beti. Hau da, beste errealitateekiko erlazioan bai eta kokatua dagoen testuinguruarekiko harremanean hartzen duela zentzua. Hala, plano teorikoaz gaindi, enpirikoki errealitate bat "berez" nolakoa den ikustea/ulertzea ezinezkoa da gure aburuz. Baina up-ek errealitatearen jatortasun edo "esentzia" hori "hutsean" erakusten ez badute ere, ariketa hori egin egiten dutela esan liteke. Nola? Hain zuzen ere *distantziaren* bitartez, hau da, errealitate jakin bati ohikoak ez dituen esanahi edo diskurtsoak esleituz. Hau da, up-ek ageriko egiten dute errealitatearen "berezko" izate baten existentzia (hain zuzen ere "berezkotasuna" kontingentea dela) errealitate horri bestelako irakurketa bat esleituz. Ohikoa ez den beste ikuspegi bat emate hutsak erakusten baitu errealitatea beste hainbat modura ulertzeko aukera badagoela, eta hain zuzen ere horrek dakar errealitatearen *objektibazioa* egitea.

Bestelako irakurketa horiek errealitateak *objektibatzen* hiru eratan gauzatu daitezke. Errealitate bati diskurtso bat esleituz (errealitate jakin bat aurrenekoz izenpetuz); duen diskurtsoa eraldatuz (birdefinituz, edo birdefinizio berriak sortzeko posibilitatea zabalduz); edota jadanik duen diskurtso horretan finkatuz (errealitate bati ematen zaion irakurketa indartuz). Halaber, honako ariketa hau bi modutan jazotzen dela ikusi da: modu positibo batean, alegia, *objektibatutako* elementuaren aldeko diskurtso bat helaraziz; edota negatiboan, hots *objektibatu* den elementua baztertu edo gutxiesteko joera azalduz.

Euskal up etniko autoerreferentzialetan egiten diren distantzia bidezko *objektibazioek* euskal nazioaren *nukleo irudikatua* elikatzen dute, *hausturetan* aipatuak izan diren errealitateei diskurtsoak egotzi eta euskal nazioarekiko iruditeria jakin bat igorritz. Hau da, (positiboki edo negatiboki) *objektibatzen* diren errealitateei diskurtso jakin bat egotzen diete, eta horren bitartez errealitateak euskal nazioaren inguruko *nukleo irudikatuan* sartu, horietatik atera, edo jatorrizko lekuz/diskurtsoz alda ditzakete. Ariketa horretan, gainera, kontuan izan behar da errealitate batzuen *objektibazioek* beste errealitate batzuen "normalizazioa" bultzatzen dutela, up-etan badira *objektibatu* gabe gelditzen diren hainbat errealitate up-etan *haustura* izan gabe presentzia lortzen dutenak, eta zeharka aintzakotzat ematen diren errealitateen finkatzean laguntzen du horrek. Horiek *nukleo irudikatuaren* "zentro normalduan" kokatzen dira eta euskal nazioaren "berezko" ezaugarri "eztabaidaezin" gisa zeharka inposatzen diren errealitate/diskurtso moduan uler daitezke<sup>1</sup>.

Ondorengo orriotan *matrize kultural hegemoniko* eta *matrize kultural apostatak* eskaintzen duten euskal nazioaren *nukleo irudikatuen* tasuna azaltzen da. 5.2. *La rupture* atalean aipatu diren up-en bigarren irakurketa bat egin da horretarako, eta up-ek darabilten hausturek *objektibatzen* eta


<sup>1</sup> Zenbait kasutan *nukleo irudikatu normalduaren* baitan dauden errealitateak *objektibatutako*en berberak izan daitezke, edo bestela esanda, errealitate berbera *objektibatua* eta "normaldua" ager daiteke. Izan ere, zenbaitetan, aintzakotzat ematen den errealitate bati, hots, up-tako testuinguru "normalduen" parte lez azaltzen den bati, azpimarra egiten zaio beste up baten batean, errealitate bat indartu edo ageri(ago) egiteko nahian. Hala gertatzen zaio, esaterako, matrize kultural hegemonikotik euskal nazioaren lurraldea EAE delako diskurtsoari: usu, lurraldea ez bestelako gaiak jorratzen dituzten up-ek testuinguru "normaldu" gisa agertzen dute euskal nazioaren lurraldea EAE dela. Baina up batzuetan, diskurtso honi balio erantsi bat egotzeko asmoz, positiboki *objektibatua* agertzen da.

"normaltzen" dituzten errealitateak/diskurtsoak nolakoak diren arakatu da. Abiapuntutzat, beraz, hausturen atalean erabilitako laginaren analisia hartu da, jarraian egiten den azterketa horren jarraipena delarik.

Azterketa hori bideratzeko, matrize bakoitzeko bi azpi atal sortu dira. Batetik, up-ek helarazitako *hausturetan* zerekiko eta nolako *objektibazioak* bultzatzen diren zehaztu da; eta bestetik, "normaltzat" jotzen diren errealitate/diskurtsoak nolakoak diren jarri da agerian. Batzuen eta besteen artean, finean, euskal nazioaren *nukleo irudikatuaren* baitako diskurtso aniztasuna jarri da agerian, eta horrekin batera, 3. *La nation* kapituluan aipatutako euskal nazioaren *nukleo irudikatuaren* izaera *multipolarraren* tasuna ulertzea eta argitzea bilatu da.

### 5.3.1. Euskal nazioaren nukleo irudikatu multipolarra







### 5.3.2. Matrise kultural hegemonikoa

Matrise kulturalen atalean ikusi da (ikus 5.1. kapitulua) euskal nazioari buruzko matrize kultural hegemonikoa dutenen berezitasuna zertan datzan, eta azaldu da errealitate sozialaz egiten duten hautematea azaltzeko beharrik (sentitzen) ez dutenen mundu ikuskerari dagokiola horrek. Subjektu posizioak bai eta darabiltzaten (up) diskurtsoak instituzionalizazio maila altua izateagatik, zilegituak eta ondorioz "normal" eta ohikoak diren ikuspegiak dituztela aintzat ematen dutenak kokatzen dira bertan. Iker lanean egin diren elkarrizketetan esandakoa kontuan izanik ikusi da EITB-ko langileak eta udal zinegotziak direla ikuspegi horri dagozkionak<sup>2</sup>. Izan ere, alderdi politikoetako ordezkariak (PP, PSE-EE, EAJ-PNV, Bildu) eta EITB-ko langileek haien artean ezaugarri desberdinak dituzten agente sozialak izanik ere, antzekotasun handiak erakutsi dituzte euskal up-etniko autoerreferentzialarekiko ikuspegietan.

Matrise kultural hegemonikoaren baitan aztertu diren up-etariko gehienak, ordea, EITB-k produzitutako horiek izan dira, besteak beste, alderdi politikoei dagozkien up-ak kopuru aldetik eskasagoak direlako eta horietako asko ez direlako euskal up-etniko autoerreferentzialak izaten. Horren ondorioz, ulertzen dugu matrize kultural hegemonikoko up-ek EAJ-PNV-k darabilen posizio diskurtsiboari dagozkiola nabarmen, EAJ-PNV baita Euskal Gobernuko alderdi nagusia, bai eta ondorioz, telebista publikoaren, hots, EITB-ren kudeatzaile nagusia ere. Gainontzeko alderdi politikoetako ordezkariak iritziek, nolatan ere, nabarmenki babesten dute EITB-ko up-en diskurtso moldea, eta alderantziz, molde horretatik ateratzen diren up-ei kritika egiten diete sarri (matrise kultural apostatar<sup>3</sup>). Hala, ulertzen dugu diskurtso nagusi berdintsua darabiltela up-ei dagokionean.

Azpimarratu nahi da, edonola ere, salbuespen nabarmen bat agertu dela Bildu alderdi politikoaren kasuan. Izan ere, euskal nazioarekiko bere ikuspegia

<sup>2</sup> Hasiera batean, agente sozial horiek elkarrizketetan erakutsi duten euskal nazioarekiko "azalpen falta" kontuan hartuta kokatu dira matrize kultural hegemonikoan. Kokapen hori baieztatua geratu da, nolatan ere, up-ak aztertu ostean elkarren arteko antzekotasun diskurtsiboak bistaratu direnean.

<sup>3</sup> *Matrise kultural hegemoniko eta apostataren aldea ulertzeko berrikusi 5.1. La matrice culturelle kapitulua.*

azaldu ez izanagatik, eta EITB-k sortzen dituen zenbait up-ekiko adostasuna agertzeagatik matrize kultural hegemonikoan kokatu badugu ere, alderdiak ez ditu up diskurtso horiek bere osotasunean onartzen, aurkakotasun esplizitua erakusti baitu bertako zenbait gairen tasun eta tratamenduari dagokionez. Matrize kulturalaren hegemonikoaren bazterrean (periferian) kokatzen dugu Bildu beraz, up-ekiko eta euskal nazioarekiko apostata den matrize kulturalarekiko hurbiltasun handikoa dela baloratuz.

Aipatu berritako salbuespena kontuan hartuta, beraz, oro har esan daiteke matrize kultural hegemonikoaren baitan kokatzen diren up-en diskurtsoek bat egiten dutela haien *objektibazioetan*, eta euskal nazioari dagokionean ildo diskurtsibo berdinean baitan mugitzen direla eskuarki. Ondorengo orriotan zehazten dira horien ezaugarriak.

#### 5.3.2.a. Euskal nazioaren nukleo irudikatua objektibazioak

Laginaren azterketak agerian jarri duen informaziotik honakoak nabarmen eman digu atenzioa: batetik, matrize kultural hegemonikoak darabiltzan up-en *objektibazio* eta diskurtsoek, eta bestetik, espainiar kultura nazionalak euskal nazioaz historian zehar erabili dituen elkarrekiko duten antzekotasuna<sup>4</sup>. Hurbiltasun horretan sakontzeko hiru atal desberdinetan banatu da informazioa. Aurrenik, matrize kultural hegemonikoak eta espainiar kultura nazionalak horien up-etan konpartitzen dituzten *objektibazioak* zeintzuk diren azaltzen da. Segidan, *objektibazioak* berdintsuak ez izanik ere parekoak diren diskurtso moldeak nola erabiltzen dituzten xehatzen da. Eta amaitzeko, matrize kultural hegemonikoak helarazten dituen bestelako *objektibazio* eta diskurtsoen tasuna zehazten da, hain zuzen ere, espainiar kultura nazionalak bultzatzen dituenekin zer ikusirik ez dutenak.

<sup>4</sup> Ulertzen dugu espainiar kultura nazionala homogeneoa denik ezin dela esan, eta ziurrenik, egokiagoa litzatekeela espainiar kultura nazional bat baino gehiago dagoela onartzea. Hori kontuan izanik, zehaztu nahi da kasu honetan espainiar kultura nazional hegemonikoari egiten zaiola erreferentzia, espainiar estatuaren batasuna, egonkortasuna eta bertuteak indartzea helburu duen diskurtso/irudikariari, zeina komunikabide eta erakunde nagusienek gizartearen helarazteaz arduratzen diren (Ikus 3.4. *Récapitulatif de l'évolution historique du noyau imaginé multipolaire de la nation basque* kapitulua).

- *Berdintzuak diren objektibazioak*

Matrize kultural hegemonikoak gaur egun darabiltzan up-etan Industrializazio garaitik aurrera espainiar kultura nazionalak euskal nazioaren inguruan sustatutako hainbat *objektibazio* errepikatzen direla antzeman da. Honakoak dira esanguratsuenetariko batzuk:

**Lurraldea:** Espainiar kultura nazional hegemonikoak euskal nazioaren lurraldeaz historikoki indartu duen diskurtsorik nabarmenatariko bat paisaiari dagokiona da. Baserriz jositako landa gunee orlegi eta mendi kate heze eta euritsuen irudia oso erabilia izan da euskal nazioaren inguruko up-en testuingurua osatzeko garaian. Irudikari horiekin bat egiten du matrize kultural hegemonikotik euskal nazioari esleitzen zaion paisaiak ere, eta landa gunee bukolikoak positiboki *objektibatuak* agertzen dira usu. Bi kasuetan parekoa da euskal nazioari egozten zaion paisaia eta bietan diskurtso positibo bera indartzeko da erabilia.

**Hizkuntza:** Hizkuntzari dagokionez bat datoz matrize kultural hegemonikoaren eta espainiar kultura nazionalen up-en *objektibazioak*. Batetik, euskal doinuan jartzen dute arreta biek eta bi kasuek trataera negatiboa ematen diote: euskal doinua edukitzeari kutsu landatarra egozten zaio eta horren bidez basa edo oinarritzkoa delako ideia indartzen da. Bestetik, gaztelaniaz ongi mintzatzen ez jakitea up-etan *objektibatuak* agertzen den beste errealitate bat da, honakoa ere ikuspegi negatibotik lantzen dena, gaztelaniaren ezjakintasuna ezaugarri lotsagarritzat joaz.

**Kolektiboa:** Euskal kolektiboko kideak zein ezaugarriaren arabera zehaztu daitekeen ez da argi geratzen matrize kultural hegemonikoko up-en *objektibazioetan*, eta nahiz eta kolektiboaren jatorriari determinismo etniko edo kulturala egozteko ohikoa den, partaide izateko ezaugarrien zehaztugabetasuna handia izateak talde malgu edo iragazkor gisa ulertzea ekartzen du usu; bertatik erraz sar edo atera daitekeena. Paradoxikoki, ordea, malgutasun horrek kontrako

efektua bultzatzen du up-etan, hots, euskal kolektiboa zehazteko sutsutasuna agertzekoa, eta joera horren baitan matrize kultural hegemonikoa eta espainiar kultura nazionala bat datoz ondoko bi baieztapenetan. Batetik, kolektiboarekiko interpretazio konbergentea egiten dute biek<sup>5</sup>, zeina determinismo etniko kulturean oinarritzen den eta berezkoak eta aldakaitzak diren ezaugarriak dituen taldeetat ulertzen duen euskal kolektiboa. Horren eraginez kolektiboko guztiek ezaugarri berdin batzuei dagozkiela defendatzen dute, eskuarki *gorputz-tasunari* loturikoak direnak. Azken ezaugarri horiek baserritarren figura hartzen dute paradigmaz, eta horrek dibergentzia bat sortarazten du ikuspegi konbergente orokortuaren baitan. Izan ere, euskal kolektiboko guztiak *gorputz-tasunari* loturiko ezaugarriak izanagatik "xelebretzat" (a-normalizat) jotzen badira ere, horien baitan nolabaiteko mailaketa bat ageriko egiten da eta "xelebre/a-normalenak" baserritar edo landa giroko biztanleak direla erakusten da ("a-normalen" baitan "a-normalenak")<sup>6</sup>. Bestetik, euskal kolektiboak espainiar kolektiboari dagozkielako ideia indartu egiten da; bai modu positiboan, ideia horren aldeko *objektibazioak* eginez, bai eta modu negatiboan ere, euskal eta espainiar kolektiboak desberdinak direlako diskurtsoa helarazten duten *objektibazioak* aurkakotasunez tratatuz.

**Zeinuak:** Kasu honetan matrize kultural hegemonikoak egiten dituen bi irakurketa dira aipagarri. Batetik euskal kulturaren *objektibazio* negatiboa da azpimarragarria, non, praktika kulturalerako "normaltasuna" hautsi (hizkuntza, interakzioak, bertsolaritza, mitologia, ea.) eta hutsal edo baliogabekotzat jotzen diren oro har. Indartu egiten da euskal kulturaren eta "euskal" zeinuaren gaineko irakurketa folklorikoa, non, horri lotuak agertzen diren zeinu eta praktikak

5 Ez da zorizkoa matrize kultural hegemonikoak ikuspegi konbergentea indartzea. Hain zuzen ere kolektibo oso batekiko boterea eta zilegitasuna mantentzeko giltzarrietako bat hori baita, kide direnak oinarri eta errealitate berdinen parte direla ikustaraztea. Irudikapen horiek sinbolikoki sustatzen eta ustiatzen diren heinean lortzen da gizarte (ia) osoaren onespina eta neurri batean ekiditen da esparru sozialean eztabaidagarriak izan daitezkeen gizarte-harremanean sortutako ezberdintasunaz jardutea.

6 Baserritarren irudikariari beste hainbat ezaugarri esleitzen zaizkio: euskal doinua, euskal kultura folklorikoaren zalea, gipuzkoarra izatea...

balio praktikorik gabeko erreferentzia (*pastiche*) bilakatzen diren (txapela, Olentzero, joaldunak, bertsolaritza, ea.). Irakurketa hauxe bera indartzen du, halaber, "euskaldunez" mozorrotzeko joerak, "euskal" zeinu folklorizatuarekiko distantzia sinbolikoa badagoela agerian jartzen baitu horrek ere. Neurri batean "euskal" zeinua up-etan *objektibatu* daitekeen kategoria gisa erabiltzen da, non, trataera negatiboa eman ohi zaion a-normal (eta ondorioz irrigarri) moduan aurkeztuz oro har. "Euskal" horri atxikitzen zaizkion ezaugarrietan ere bat egiten dute matrize kultural hegemoniko eta espainiar kultura nazionalak; biak ala biak aurretik aipatzen gatozen berezitasunak egozten baitizkiote honakoari, *gorputz-tasunarekin* edo euskal kulturako zeinu eta praktikekin zer ikusia dutenak.

Honekin batera aipagarri dira gatazka politikoaren gainean egiten diren diskurtsoen gaineko antzekotasunak ere. Euskal nazioak eta zehazki "euskal" zeinuak ETA-rekin duen lotura modu positiboan *objektibatzen* dela ikusi baita. Diskurtso horrek aintzat ematen du gatazka politikoa eta ETA euskal nazioaren afera direla, ezaguna, jakina eta ohikoa den errealitate bat bailitzan, zuzenean edo zeharka beti presente dagoena. Gatazka politikoa, hala, "euskal" zeinuaren (eta identitatearen) ezaugarritze gisa erabilia da.

Aipatu diren diskurtso molde horiek agerian jartzen dute matrize hegemonikoak espainiar kultura nazionalak euskal nazioaren inguruan darabiltzan ikuspegiekin antzekotasunak badituela. Baina zer dela eta? Ez dugu antzekotasun hori zorizkoa denik uste eta *objektibazioen* errepikapen hori zertan datzan azaltzen duten bi afera kontuan hartu beharrekoak direla pentsatzen dugu. Batetik, urte hauetan guztietan espainiar kultura nazionaletik sortu eta helarazi diren up-ek (bai eta bestelako moldez igorriak/ezarriak/inposatuak izan diren diskurtsoek ere) euskal nazioaren baitan izan duten eragin sozializatzailea kontuan hartu beharrekoa delakoan gaude. Aspaldiko kontua da euskal kolektiboa basatia zelakoan umorez kolpatzen zuten diskurtsoei "belarrimotzen" inguruko up-ekin erantzuten zietenen jarrera ihardukitzailea (ikus 3.4 kapitulua). Frankismotik aurrera diskurtso horiekiko lehia desorekatuan, non, publikoki horiekiko

aurkakotasunik ezin ager zitekeen, euskal kolektiboa itu zuten up-en eragina Euskal Herrian zabaldu egiten da (gogoratu, esaterako, *Txomin del Regatoren* arrakasta). Eta trantsizio eta demokrazian ere umore "zuriak" bultzatutako umorearekiko hautemate otzanari esker, joera hori indartzen doa.

Oro har up-ak gutxitan izan dira borroka esparru politikotzat hautemanak (honakoa gaur egun denen ahotan dagoen ikuspegia bilakatzen ari bada ere<sup>7</sup>), eta Euskal Herrian aspektu horretatik apenas landu da up-en ahalatasuna; ez euskal nazioaren diskurtsoak helarazteko, ez eta espainiar edo frantses kultura nazionalen bestelaketzea indartzeko. Honela erantzuten du elkarrizketatu batek up-en eraginkortasun politikoaz galde egin zaionean:

*"No creo que propicies cambios, a lo mejor alguien toma conciencia de algo, pero de ahí a pensar que el humor pueda cambiar las cosas... Yo creo que no, yo creo que hace gracia porque te toca cosas que, pero no creo que pueda llegar a cambiar actitudes o formas de pensar. No creo que eso influyera en la gente, que cree un nuevo pensamiento. Es solo humor, por decirlo de alguna manera."*<sup>8</sup> [E25]

Hala, "umorea besterik ez" delakoan edota euskal nazioaren aldeko borroka bide "serioagoetatik" egitearen garrantziaz konbentziturik, maiz, espainiar kultura nazionalako up-ak ateak zabalik eduki dituzte nahi adina eragin/ondorio sozial sortarazteko/performatzeko. Prozesu honek azalduko luke euskal nazioa jomugatzat duten gaur egungo up-ek, oro har, euskal kolektiboarentzat mingarri edo iraingarri ez izatea (Industrializazio garaian gertatzen zen moduan, esaterako); eta horren orde, gaur egunean umoretsu edo barregarri

7 Hala azaltzen dute elkarrizketatu batzuk: "umorearen bidez egin dezakezu politika, baina orain ari gara konturatzen piskat gehiago horretaz. Nahiko berria dela uste dut. Lehen politika zen gauza bat eta umorea beste bat. Hori aldatzen ari da nire ustez, ulertzen duzu umorea ere politika egitea dela." [E10]

8 ["Ez dut uste aldaketak errazten direnik, baliteke norbaitek zerbaitekiko kontzientzia hartzea, baina hortik, umoreak ezer alda dezakeela pentsatzera... Nik ezetz uste dut, nik uste grazia egiten duela zenbait gauza ukitzen dituelako, baina ez dut uste jarrerak edo pentsamoldeak alda ditzakeenik. Ez dut uste horrek jendearen eragin zuenik, pentsamendu berri bat sortzen duenik. Umorea besterik ez da, nolabait esatearren"]

gisa hautematea (8 *Apellidos Vascos* pelikularen arrakasta konparazione). Zilegi da esatea up-ei dagokionez euskal gizartea espainiar kultura nazionalistik, eta ondorioz, horri dagozkion diskurtsoak dauzkan up-etan (eta up-ekin) nabarmenki izan dela sozializatua. Edo bestela esanda, euskal gizarteak up-ekiko eta bere buruarekiko espainiar kultura nazionalaren biolentzia sinbolikoa jasan/ onartu duela, neurri batean estatuaren kosmobisio hegemonikoa bereganatuz honen bitartez.

Bilakaera historiko-politiko horrek azal dezake euskal nazioak halako diskurtsoekiko duen hurbilpen maila handia, baina bestelako irakurketa bat kontuan hartzea beharrezkotzat jotzen dugu up horiek kontsumitu edota onartu ez ezik, euskal nazionalismoak zer dela eta produzitzen dituen ulertzeko. Izan ere, kontuan izan behar da ez dela soilik espainiar kultura nazionala halako edo bestelako up-ak sortzen dituen, gaur egun diskurtso molde horiek up euskal etniko autoerreferentzialaren parte ere baitira. Afera horren inguruan euskal nazionalismoaren diskurtsoak gaur egunean duen anbiguotasunak zer esana duelakoan gaude. Aurretik aipatu den moduan<sup>9</sup> ikusi da euskal nazionalismoak kuantitatiboki aberastearen mesedetan diskurtsoaren zehaztasunean galdu duela, eta ondorioz, egoera berrietara moldatzeko zailtasunak erakutsi dituela sarri<sup>10</sup>. Gogora ekar dezagun diskurtso nazionalistaren ardatza arraza edota hizkuntza izan ostean, gaur egunean bereziki lurraldea eta borondatearen arteko irakurketa zabal (eta lauso) batean mugitzen dela (Zabalo, 2006), euskal kolektiboko kide guztiak elkartuko dituen arrazoibide komun eta bateragarri bat lortzeko zailtasunak izanik. Malgutasun horrek, gainera, euskal nazioaren definizio bat eskaintzea zailtzen du (honen baitan identitatearen afera ere

kontuan har daitekeelarik), eta kolektibo euskaldun osoarentzat baliagarri diren elementuen identifikazioa konplikatzen du. Are gehiago estatu propiorik ez duen nazio baten kasua dela kontuan izanda; hau da, euskal nazioa nazio dela esateko zertan oinarritzen den espainiar eta frantziar estatuetatik etengabe galdetzen den auzia denean.

Kontuan hartu behar da, beraz, 3. *La nation* kapituluaren esandakoa gogoratu, iruditeria komuna izatea funtsezkoa dela identitate eta nazioa sortzeko, honek ahalbidetzen baitu, neurri handi batean, propiotzat jotzen ez diren estatuetatik bestelakotzea, bai eta ondorioz, estatu propiorik gabeko nazioaren (edo diskurtso nazionalistaren) biziraupen eta zilegitasuna bermatzea ere. Hartara, pentsa daiteke euskal nazionalismoak euskal nazioa irudikatzen (beste estatu-nazioengandik bereizteko) bai eta kolektiboaren baitan konpartitua izan zitekeen euskal identitate (eta nazio) posible bat artikulatzeko ere "eskura izan" dituen elementuez baliatu dela berriki (azken hamarkadetan). Atxikimendu kuantitatibo emankorra bermatzearen alde, euskal kolektiboaren gehiengo batek komunean izan zezakeen iruditeriaren alde joaz, eta pixkanaka baztertzen (edo indar gutxiagoz erabiltzen) joan dira gizartearen parte handi bat barnebiltzeko ezigauza diren bestelako errealitate edo arrazonamenduak.

Hala, Hego Euskal Herrian bereziki, nazionalismoak euskal gizartearen konpartitua den euskal nazioaren inguruko iruditeria berrartu duelakoan gara, zeina, hain zuzen ere, espainiar kultura nazionalak mendeetan zehar sozializatu duen horixe bera den. Honakoa ageriko egiten da, adibidez, euskal baserritarrak, euskarak (maila sinboliko hutsean), herri txikiek, paisaia berdeek, ikurrinak edota folklorizatuz joan diren kultura adierazpenek (herri kirol, euskal dantza,

9 Ikus 3.4. *Récapitulatif de l'évolution historique du noyau imaginé multipolaire de la nation basque* kapitulua.

10 Puntu honetan ohar bat gaineratu nahi da. Izan ere, euskal nazionalismoaren diskurtsoak jardutean euskal mugimendu nazionalistaren baitan nagusi izan den korronte diskurtsiboaz dihardugu. Ulertzen da euskal nazionalismoak euskal nazioa irudikatzen diskurtso desberdinak agertzen joan direla historian zehar (bereziki alderdi politiko nazionalista desberdinak ere agertzen joan diren heinean) eta ondorioz, gaur egunean diskurtso nazionalista bat baino gehiago aurki daitezkeela. Edonola ere, eta aztertuak izan diren up kasuan kontuan izanik, diskurtso nazionalistaz dihardugunean EAJ-PNV-k erabili duen diskurtso moldeari egiten diogu erreferentzia. Batetik, aurretik esan den gisan, Bildu alderdia matrize kultural hegemonikoan egonik ere, honen baitako up-ekin desadostasunik agertu duelako, eta ondorioz up horiekin bete-betean bat egiten duenik ezin baieztatzen dezakegulako. Eta bestetik, honakoa ere aurretik esan bezala, EAJ-PNV EITB euskal telebista publikoaren kudeaketaz arduratzen delako, zeina kuantitatiboki up-en produkzio iturri nagusia den gaur egun.

jantziak, musika tresnak...) euskal nazioaren jatorrasunaren iruditerian duten pisu esanguratsuan, zeinak, beste edozein ezaugarri baino gehiago (hizkuntza, esaterako<sup>11</sup>) euskal nazioaren irudi erreferentzial (nazional) gisa erabiliak diren sarri (nazioarteko komertzioan, alderdien hauteskunde kanpainetan, ea.). Joera berbera antzeman daiteke up-en kasuan ere, adierazgarria baita, esaterako, euskal nazionalismoak demokrazia garaia hastapenean *Txomin del Regatoren* aurkako aldarria nola egiten zuen ikustea, honakoak euskal nazioari eta batik bat euskal hiztunari burla egiten ziola esanaz, eta egun aldiz, iruditeria bertsuetan oin hartzen duten up-en sustatzaile bilakatzea (*Vaya Semanitarena* adibidez). Uler daiteke euskal nazionalismoak berarentzat inoiz adierazgarriak izan diren elementu gisa ikus ditzakeela horiek (euskal gizarte ustez tradizional baten erreferentzia gisa, adibidez), bai eta horiek sustatzeak euskal nazionalismoari erroturiko iruditeria gogorarazten/indartzen duela ere. Eta baliteke hala izatea, baina ez da ahaztu behar XIX. mendean Espainiatik sortutako up-ek zerabilten elementu berberetz ari garela hitz egiten, eta beraz, euskal nazionalismoak bere onurarako erabili nahi izan dituen iruditeria horien gainean sortutako diskurtsoak ere eraman dituela berekin. Esan nahi baita, egia da euskal nazioari buruzko iruditeria mitiko-sinbolikoa euskal nazioko kolektiboarentzako erreferente komun gisa aritzeko baliogarria izan daitekeela, eta beraz, euskal nazioaren eraketarako iruditeria komun gisa funtzionatu dezakeela euskal nazionalismoarentzako erabilgarria izanik. Baina horretaz gain, mendeetan zehar up-en jomuga izanagatik iruditeria horrek badu bereganaturiko diskurtso jakin bat ere. Hots, Industrializaziotik, mespretxatzeko hasieran eta modu "sinpatikoan" ondoren, Espainiatik egindako up-etan

11 Hizkuntza euskal nazionalismoarentzako oso baliagarria den errealitate bat izan liteke praktikan. Baina egia da, haren baliagarritasuna baloratzea sartu gabe, azken urteetako diskurtso euskal nazionalistek gero eta indar gutxiago egiten dutela euskararen aldeko borrokan. Gure ustez hori bada azterna ulertzeko euskara ez dela euskal nazioaren irudikari komuna osatzeko guztiz baliagarria denik uste. Euskararen erreferentzialtasunaren lermaz gehiago jakiteko Zabalo, Mateos, 2005; Zabalo, 2006.

indartuz eta euskal (eta espainiar) gizartean barneratuz joan den horixe bera. Hala, gure ustez, euskal nazionalismoak euskal nazioarentzako zeinu konpartitu batzuk irabaztearen mesedetan, jatorriz espainiar gizarteak euskal nazioari egotzitako diskurtsoak bereganatzen eta erreproduzitzen amaitu du, eta ondorioz, baita iruditeria hori espainiarren estilora<sup>12</sup>/*habitusarekin* erabiltzen ere: up-en bidez *objektibatutako* elementuak izanik, euskal nazioari loturiko iruditeria hori "normalaren" alteritate gisa aurkeztuz. Horien artean, besteak beste, baserritarrarena, landatarrarena edota euskal hiztunarena. Prozesu horrek azalduko luke, gure ustez, zer dela eta sustatzen dituen egun euskal nazionalismoak up horiek<sup>13</sup>, eta ondorioz, zer dela eta duten matrize kultural hegemonikoaren eta espainiar kultura nazionalaren up-ek elkarren hainbesteko antza.

#### - *Berdintsuak diren diskurtsoak*

Baina matrize kultural hegemonikoak eta espainiar kultura nazionalen up-en edukiek elkarrekiko duten antzekotasuna ez ezik, azpimarragarritzat jotzen dugu bestelako ezaugarri bat ere: haien arteko antzekotasun diskurtsiboak, hain zuzen ere. Izan ere, matrize kultural hegemonikoak egindako zenbait up-k ez dituzte espainiar kultura nazionalak erabiltzen dituen *objektibazio* berberak erreproduzitzen eta up-en gaien aukeraketan aldeak nabari daitezke baten eta bestearen artean. Deigarriena zera da, edukiak zehatz-mehatz berdintsuak ez diren kasuetan ere, matrize kultural hegemonikoaren up-ek espainiar nazio

12 Estiloa ulertzen dugu "egiteko modu" bezala, praktika edo jarduera bat burutzeko era partikular bat zeinaren bidez subjektua osatzen eta eraikitzen doan. Honela definitzen du kontzeptua Juan Luis Moraza artista eta pentsalariak: "el estilo es el modo, el modo en el que uno se constituye a través de lo que hace, y el modo en que lo que hace le constituye a uno como sujeto." (Moraza, 2010:70).

13 Irakurketa sinplistegia egitea ekidin nahi dugu, ordea, eta honekin ez da esan nahi euskal nazionalismoak diskurtso molde hau indartu edo erabili duenik soilik, ez eta iruditeria honi euskal nazionalismoaren baitan leku eta une guztietan tratamendu berbera eman zaionik ere. Horren ordez, alderantzizko irakurketa da hemen aditzera eman nahi dena, hau da, euskal nazionalismoak iruditeria hau (ere) erabiltzeak azal dezakeela gaur egungo up erabiltzenen tasuna (eta horien arrakasta).

kulturalari doitutako diskurtso moldeak erabiltzen jarraitzen dituztela. Hau da, up-ak egiterako orduan matrize kultural hegemonikotik burututako *objektibazioak* berdinak ez izanik ere (espainiar kultura nazionalako up-ek *objektibatu* ez dituzten errealitateak erabiltzeagatik), honakoek agerian jartzen dituzten kosmobisioak espainiar kultura nazionalak dituenarekin bat datozela. Ondoko kasuen bidez argiago ikus daiteke esan berritakoa, bertan agertzen baitira matrize kultural hegemonikoak erabiltzen dituzten bestelako *objektibazioen* tasuna:

**Lurraldea:** Espainiar kultura nazionalak egindako up-etan ez bezala, matrize kultural hegemonikotik indarrez *objektibatzen* dira paisaiak harago doazen lurraldeari loturiko errealitateak.

Modu negatiboan jorratzen diren *objektibazioen* artean aipagarri da, batetik, "Euskal Herria" izendapenarena, izan ere adierari kutsu politizatua esleitzen zaio eta oldarkortasun edota gatazkarekin zer ikusia duen adiera gisa (bir)definitzen da. Bestetik, modu negatiboan tratatzen da euskal nazioa Espainiari ez dagokiolako *objektibazioa*, eta kontrakoa baieztatzen ez bada ere, alegia, euskal nazioa Espainiari dagokiola esplizituki adierazi ez arren, up-etan aurkakotasunez tratatzen dira bi errealitate desberdin direla agertzen duten diskurtsoak. Aldeko tratamendua jasotzen dute, aldiz, euskal nazioaren lurraldea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola dioten up-en *objektibazioek*, horrek berekin dakarrelarik Nafarroaren presentziaren lerma eta Ipar Euskal Herriarekiko erabateko isiltasuna. Guzti horrekin batera, halaber, sustatu egiten dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko desberdintasun eta lehiakortasunak.

Honen bidez, batetik, zuzenean zein zeharka up-ek fidelki erantzuten diote espainiar estatuak bere lurraldearen banaketan darabiltzan lurralde sailkapen politikari (sailkapen autonomikoari), non "Euskadi"-ri EAE osatzen duten lurraldeak egozten zaizkion esparru geopolitiko gisa. Horrekin batera, bestetik, indartu egiten da autonomia bakoitzeko lurralde identitatea (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia), hiru lurraldeak euskal nazio bateratu gisa ager ditzakeen edozein ezaugarri atek itxiz, eta ondorioz, euskal nazio komun baten

iruditeria oztopatuz. Horrek espainiar kultura nazionalak sostengatzen dituen diskurtsoei erantzuten die, hain zuzen ere, estatu politikoaren lurralde marko autonomikoa indartzea baitakar.

Euskal nazioaren izendapenari dagokionez ikusi da modu positiboan *objektibatzen* direla "Baque Country" eta "País Vasco" adierak, euskal nazioaren izen "naturalizat" hartzen ez badira ere, onartuak eta onargarriak izanik biak. Lehena, euskal nazioa "munduratzeko" keinu gisa ulertzea ematen delako; eta bigarrena, "Euskadiren" gaztelaniako itzulpen gisa hautematen delako, espainiar kultura nazionalaren ikuspuntuarekin bat eginez honakoan ere.

**Hizkuntza:** Hizkuntzak jasotzen duen tratamendua espainiar kultura nazionalak egiten duenarekin bat egiten du oro har, baina berezitasuna matrize kultural hegemonikoak euskararen aurkako diskurtsoak positiboki *objektibatzeak* dakar. Hala, batetik, euskarak erregistro asko dauzkalako (euskalkiak, hika/zuka); eta bestetik, euskara batua "zuzenegizat" jo eta esleitzen zaion gehiegizko korrekzioak hizkuntza elitista gisa (berezitu eta apartekoa) aurkezten duelako, euskara zaila dela aditzera ematen da finean. Diskurtso ildo bertsuari jarraitzen diote bestelako up-ek zeinak euskara jakitea modu negatiboan *objektibatzen* duten, bai eta euskalki zein hikaren erabilera jarduera berezitu edo aparteko gisa azaltzen duten testuinguru landatarrari lotua edota lurraldekako bereizketa baten adierazle gisa sarri.

Horrek, batetik, bat egiten du espainiar kultura nazional hegemonikoaren diskurtsoarekin, zeinak bere hizkuntza politikaren baitan "hizkuntza erregionalistak" bazterreko edo bigarren mailakotzat jotzen dituen, gaztelaniaren zilegitasun eta nagusitasunaren atzetik (Nuñez, 2010). Eta ondorioz, bestetik, justifikatu (eta "normaldu arazi") egiten da euskara ez jakitea edota hau modu traketsen erabiltzea, bai eta bultzatu ere gaztelania edo "euskañolaren" erabilera egitea (honakoak ere up-etan ikusgarri).

Azken puntu horri dagokionez ohar bat gehitzea intereskotzat jotzen dugu, izan ere adierazgarria da EITB-ko gidoilari erdaldun eta aktore euskaldun

batek up-etako hizkuntzaren erabilerari dagokionez duten ikuspegi desberdina kontuan izatea. Honakoa dio lehenengoak hizkuntza eta umorearen arteko harremanaz:

*"Hay tipos de humor, pero yo no sé si es tanto...Hombre, evidentemente te influye donde vives y lo que haces, pero no sé si te influye el idioma. No sé yo si cambia que el sentido de humor de una persona castellanoparlante o de un vasco parlante, no tiene tanta influencia. (...) Yo creo que muchas veces se refiere más a giros o expresiones, o a personajes que en un mundo euskaldun hay, pero que no hay o no ves tanto en el mundo erdaldun. Eso sí, pero no por el idioma."*<sup>14</sup> [E25]

Bigarrenak, aldiz, bestela pentsatzen du:

*"Erdal munduak ezagutzen du euskal mundua baino gutxi eta oso barreratik, esango nuke. Eta hizkuntza ulertzen ez dezun neurrian kontatu itten dizute zer esaten duten, baina klabeak oso diferentek dia. Ikuspegia mugatzea dakar horrek."* (sic.) [E17]

Gogora ekarri behar da euskal nazioaren inguruko hautemateari dagokionez matrize kultural hegemonikoaren baitan daudenen artean oro har azalpenik emateko beharrik sentitzen ez bada ere, salbuespen kasu bat badagoela: euskararena, hain zuzen ere<sup>15</sup>. Izan ere ikusi da matrize kultural hegemonikoaren baitan egonik euskarazko up-ak bultzatzen dituztenek haien posizioa azaltzen/justifikatzen dutela afera linguistikoarengatik. Aipatu berri diren aipuek agerian jartzen dute azaltzeko "behar" horren muina non dagoen. Izan ere aktore euskal hiztunaren ustez euskara jakiteak bestelako kosmobisio baten berri edukitzea ahalbidetzen du, eta hizkuntza ez jakiteagatik, aldiz, "errealitatearen" parte bat up-etan ulertzen/islutzen ez deneko gabezia ikusten du. Euskal hiztuna ez den

gidoilariak, ordea, ez du honakoak alderik sortzen duenik estimatzen, aintzat ematen baitu bere ikuspegia (eta hizkuntza) "normalduak" eta "orokortuak" direla eta errealitatearen hautemate "fidela" erakusten dutela. Hausnarketa horrekin bere posizioa hegemonikoa dela agerian jartzen du nahi gabe, eta bat egiten du, bidenabar, up-ek hizkuntzarekiko darabilten diskurtsoaren ildo nagusiarekin, zeina espainiar kultura nazional hegemonikoak duenaren berdina den. Egoera honek iradokitzen du ikuspegi hegemonikoak asko zor diola espainiar kultura nazionalari; edo bestela esatearren, ikuspegi hegemonikoa edukitzea edo diskurtsoen azalpenik eman behar ez izatea, espainiar kultura nazionalaren antzekotasunarekiko zuzenki proportzionala dela.

**Kolektiboa:** Espainiar kultura nazionaletik euskal nazioaren inguruan azken hamarkadetan helarazi diren zenbait diskurtsotan oin hartzen dute matrize kultural hegemonikoko up-ek. Hala, modu positiboan lantzen dira, esaterako, euskal nazioa politizaturiko gizartea delako ideia (80. hamarkadatik aurrera Espainiatik indartutako ikuspegia), bai eta gaur egunean euskal kolektiboa "umoretsua" edo xelebrea delakoa ere (azken hamarkadan sustatutakoa). Lurraldearen inguruan erabiltzen diren *objektibazioen* diskurtsoarekin bat eginez, kolektiboa ere bereizi egiten da lurraldearen arabera, eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoarren artean aldeak egiten dira, Ipar Euskal Herri eta Nafarroakoak kolektibotik at utziaz. Hala, *objektibazio* hauek indartzen dituzten diskurtsoek bat egiten dute espainiar kultura nazionalak duen ikuspegiarekin. Batetik, "euskal kolektibo" komuna beharrean, gipuzkoar, bizkaitar edo arabar identitatearen harrotasuna delako up-en bidez sustatzen dena; eta bestetik, euskal kolektibotzat baten bat hartzekotan, EAE-ko horixe delako soilik hala kontsideratua dena.

Honi bestelako ideia esanguratsu bat ere atxiki behar zaio, izan ere, kolektiboari dagokionez up hauen baitan bereziki kolpatua agertzen da ezker abertzalea. Espainiar kultura nazionalako up-ek ez dute ezker abertzalea

14 ["Umore motak badaude, baina ez dakit nik ba... Argi dago, eragina du bizilekuak eta egiten duzunak, baina ez dakit hizkuntzak eraginik ote duen. Ez dakit nik gaztelaniadun baten edo euskal hiztun baten umore sena aldatzen ote den, ez du hainbesteko garrantzirik (...) Nik uste zer ikusi gehiago duela bira edo espresioekin, edo euskal munduan badiren pertsonaiekin, erdal munduan ez daudenak. Hori bai, baina hizkuntza ez."]

15 Ikus 5.1 *La matrice culturelle* kapitulua.



zuzenean *objektibazio* elementu gisa erabili ohi, baina horren presentzia agerikoa egiten da matrize kultural hegemonikoaren baitan. Joera hori bat dator espainiar kultura nazionalaren diskurtso hegemonikoarekin ere kontuan izan behar baita ezker abertzaleak duen euskal nazioaren iruditeriak (eta politikak) ez duela kultura nazional espainiar hegemonikoak proposatzen duenarekin bat egiten, eta halaxe islatua geratzen da ere up-en *objektibazioetan*.

**Zeinuak:** Matrize kultural hegemonikoko up-en *objektibazioek* gatazka politikoari heltzen diote nabarmen, eta honen tratamenduak espainiar kultura nazionalaren diskurtsoarekin bat egiten duela ikus daiteke. Gatazka politikoaren harira honakoak euskal nazioarekin (soilik) lotura duela onartzen da eta horren baitan ideia nagusi bat da indartzen dena, ETA beldurgarria ez delakoa, hain zuzen ere. Gatazka politikoaren irakurketa horrek bat egiten du espainiar kultura nazionalaren ikuspegiarekin, non, batetik, gatazka politikoa agente bakarrean gorpuztea dakarren (ETA); eta bestetik, agente horri esparru politikoan egotzi zaion irudikaria banalizatu, irauli edo gainditzea bilatzen den. Ikuspegi honetatik jardunez ETA-rekin lotu daitekeen edozer negatiboki tratatua da, eta banal, hutsal, irrigarri edo zentzugabe gisa da aurkeztua. Hala, gatazkari lotutako beste errealitatearik dagoenik (edo egon zitekeenik) gutxitan erakutsiko dute *objektibazioek*, eta horri lotu dakizkiokeen bestelako errealitateak aipatu gabe uzten dira, edota daudenik ukatu egiten da. Azken horren adibidetzat har daiteke *euskal preso politiko* kategoria, zeina gatazkari lotua dagoela uler badaiteke ere, up-ek hori ukatzera jotzen duten, kategoria horren gaineko *objektibazio* negatiboak proposatuz.

Kasu horietan ikus daiteke espainiar kultura nazionalak egindako up-en bidezko mendeetako sozializazioak up-en edukiak ez ezik, up-ak egiteko *estilo* bat ere "normalizatzen" bukatu duela, non, edukiak berdintsuki erreproduzitzen ez badira ere (espainiar kultura nazionaletik historikoki egin diren up-ek ez baitituzte hemen aipatu berri diren *objektibazioak* erabili), jatorrian diskurtso molde berberari (espainiar nazionalistari) erantzuten jarraitzen dioten berdin.

- *Objektibazio eta diskurtso desberdinak*

Matrize kultural hegemonikoko *objektibazioek* badute adierazgarria den beste ezaugarriker ordea, izan ere, espainiar kultura nazionaletik jasotako up-etako diskurtsoak erreproduzitzeaz gainera, euskal nazionalismoaren "uzta propioa" ekarpenak ere topatu dira aztertutako up-etan. Hain zuzen ere, matrize kultural hegemonikoaren baitan orain arte ikusitako korrante diskurtsiboaz gain (espainiar jatorrikoa, nagusiki) euskal nazionalismoaren aldeko bestelako diskurtsoak indartzen dituzten *objektibazio* ere aurkitu da. Bi kasu dira aipagarri:

**Kolektiboa:** Matrize kultural hegemonikotik positiboki *objektibatu* den errealitateetako bat frankistak eta espainiarrak (azken horiek maiz PP-ko kide gisa irudikatzen direnak) euskal kolektiboaren arerio direla erakustearena da, eta hain zuzen ere arerio komun bat edukitzeak euskal kolektiboaren baitako batasuna indartzen duelako diskurtsoa helarazten da. Adibide horiek aldendu egiten dira espainiar kultura nazionalak proposatzen dituen *objektibazioetatik* bai eta horien diskurtsoetatik ere eta errealitate "berri" bat da ageriko egiten dena, non, euskal kolektiboak espainiar kolektiboarekiko berezitasun bat duela markatzeko intentzioa antzeman daitekeen.

**Zeinuak:** Beste ekarpen esanguratsu bat euskal errealitateak (oro har ulertuta), ETA-rekin harremanik ez duela zertan izan erakusten duten *objektibazioek* positiboki lantzeak dakar. Alegia, "dena ETA da" baieztatzen duen (zuen) espainiar gobernuaren diskurtsoari modu ihardukitzailaz erantzuten diotenak. *Objektibazio* horiek errealitatearekiko birdefinizio bat proposatzen dute, non jadanik emana dagoen diskurtso bat ("dena ETA da") gezurtatzea eta birformulatzea dakarren.

Espainiar kultura nazionalarekiko bereizte horri heltzen diote bestelako diskurtso batzuk ere. Horien artean segurtasun indarren gaineko *objektibazio*

negatiboak proposatzen dituztenak (Guardia Zibila-ren gainekoak bereziki), bai eta torturen auzia *objektibatzen* dutenak ere. Azken horrek balio du, atxilotuak direnak torturatuak izan daitezkeela espainiar kultura nazional hegemonikotik onartua ez dagoen diskurtsoa izanik, up-en baitan "existitzen ez zen" errealitate bat aurrenekoz izendatu eta diskurtso bat egozteko, bai eta, ondorioz, euskal nazioaren inguruko *nukleo irudikatuaren* baitan txertatzeko ere.

Egia da, ordea, halako diskurtso berezituaren presentzia ez dela esanguratsua up-en artean, horiek baino are nabarmenagoak eta ugariagoak baitira espainiar nazio kulturari eusten diotenak. Baina edonola ere, arreta jarri beharreko zantzuak direlakoan gaude; kuantitatiboki adierazgarriak ez izan arren, balio kualitatibo handiko datuak direlako, euskal nazionalismotik euskal nazioari espresuki egotzi nahi zaizkion irudikari jakin eta zehatzen berri ematen baitute. Gure aburuz, matrize kultural hegemonikoak espainiar kultura nazionalistaren up diskurtso hauetan *objektibazio* (nazionalista) propioak txertatzeak (*kolektiboa* eta *zeinuen* harira egindakoak) agerian jartze du euskal nazionalismoak bat egiten duela bertan esaten (eta *objektibatzen*) den guztiarekin. Alegia, oro har, egokitzen jotzen dituela bertako edukiak eta diskurtsoak eta beharra ikusten duenean aldaketak egiten dizkiola horri, *objektibazio* berriak erantsiz, adibidez<sup>16</sup>. Horrenbestez, gure ustez zilegi da esatea matrize kultural hegemonikoak jatorriz espainiar kultura nazionalari dagozkion diskurtso moldearen up-ak bereganatu (bere egin) dituela, eta ez direla bi, baizik eta diskurtso nazionalista bakarra (gaur egungo euskalduna) bertan islatzen dena. Bestela esanda, gure irudikoz up-ak ez dira espainiar kultura nazionalak *biolentzia sinbolikoz* onartu eta bereganatu arazi dituen diskurtso gisa ulertu behar jada. Horren orde, egokiagoztat jotzen dugu euskal nazioko matrize kultural hegemonikoak (euskal nazionalismoak) gaur egunean darabilen diskurtsoaren adibide direla ulertzea. Honakoa dio, esaterako, EITB-ko gidoilariak berak sortzen dituen up-en inguruan:

16 Artikulazio prozesuaren adibide gisa ulertzen dugu honakoa, non, etengabe aldatzen eta moldatzen doazen diskurtsoen arteko inkoherentziak eta desdoitzeak ikusgarriak diren. "Kolektiboa" atalean gehitu den *objektibazioaz* dihardugu zehazki. Deigarria baita espainiar kolektiboarekiko desberdintzea esplizituki bultzatzen duten *objektibazioak* topatzea, gainontzeko up-ek kontrako diskurtsoa indartzen dutela jakinik. Hots, euskal kolektiboa espainiarra delakoa. Diskurtsoen etengabeko doiketa prozesu baten ondorio dela ulertzen dugu, non, beharren arabera horiek egokitzen, aldatzen edota horien arteko inkoherentziak desagertzen (eta berriak azaltzen) doazen.

*"En lo que hacemos nosotros, nos referimos a las personas de aquí, a nuestros problemas, a nuestro tipo de problemas. Quizá ahora ya no tanto pero siempre ha sido una sociedad politizada, hemos vivido la política de una forma que en otras partes no es normal, que en otras partes no pasa. Eso por ejemplo, o que reflejen costumbres nuestras, el poteo, el ser bastos a veces, formas de vestir que tenemos, formas de hablar, la blusa de cuadros, las apuestas, que no ligamos... Lo que es nuestro en particular. Creo que eso sí es un valor a tener en cuenta en un programa de humor."*<sup>17</sup> [E25]

Elkarrizketatuak argi agertzen du berak sortzen dituen up-en edukiek (*objektibazio* eta "normalizazioek") bertako (euskal) errealitatearen "berezkotasunetik" abiatzen direla, eta ondorioz, up-etako diskurtsoak "propio" gisa identifikatzen dituela; hots, ez direla beste inoren errealitate/diskurtsoak, baizik eta "berek"/"gureak". Iritzi berekoa da beste elkarrizketatu bat ere:

*"hacen gracia determinadas cosas que son nuestras, pues el carácter de los vascos, que si ligamos o no, que somos honestos o no, el tiempo, los chicos por una lado las chicas por el otro, ese tipo de cosas."*<sup>18</sup> [E13]

Horri dagozkionez beste ideia bat ere gehitzerik bada, izan ere, elkarrizketatuaren hitzetan ez da argi geratzen up-ak euskal nazioaren isla gisa hautematen dituen edota euskal nazioa halakoa denik pentsatzen ote duen. Hala, aipua irudikapenen performazioaren erakusletzat jo daitekeela pentsatzen dugu eta ikerketa honetan up-en prozesua (eta ez hainbeste ondorioak) aztertu nahi bada ere, uste dugu halako aipamenetan ikus daitekeela zenbait elkarrizketaturentzat euskal nazioa up-tako *nukleo irudikatuaren* bertsua dela neurri handi batean. Edo bestela esatearren, irudikapenak "errealitate" direla.

17 ["Guk egiten ditugun gauzetan, bertakoez ari gara, gure arazoez, gure arazo motez. Baliteke orain gutxiago izatea, baina oso gizarte politizatu izan da beti, beste lekuetan normala ez den gisan bizitu dugu politika, beste lekuetan ematen ez den moduan. Hori adibidez, edo gure ohiturak islatzea, poteoa, baldarrak izatea zenbaitetan, janzteko erak, hitz egiteko manerak, koadrudun atorra, apustuak, ez dugula ligatzen... Jatorki gurea dena. Uste dut hori umore saio batean kontuan izatekoa dela"]

18 ["Grazia egiten dute gureak diren zenbait gauzek, euskaldunen karakterrak, ligatzen dugun edo ez, zintzoak garen edo ez, eguraldiak, mutilak eta neskak banatuak ibiltzea, halako gauzak"]

Matrize kultural hegemonikotik egiten den iruditeriaren honako erabilerak, ordea, euskal nazioaren eraketan espero gabeko ondoriorik izan dezakeelakoan gaude. Hau da, gizarteak konpartitzen duen "euskal" iruditeria honetan oin hartzen duten up-en erabilerak nazioaren ikuspegi komun bat sortu (zein performatu) eta euskal nazionalismoa sustatu badezake ere, horien eraginak euskal kolektiboaren (barne) hautematean beste norabait jo dezaketela pentsatzen dugu. Izan ere, 3.4. kapituluaren ikusi den bezala, industrializazio garaitik Espainiatik egin diren gisa horretako up-ek, testuinguru historikoaren arabera eta bereziki nazionalismoen bilakaera diskurtsiboen arabera aldaketak jasan dituzte. Maila handi batean up-ak euskal gizartearen errealitatearen arabera moldatzen joan dira haien edukietan. Hala ikus daiteke, esterako, euskal nazionalismoaren diskurtsoan euskara ardatz gisa erabiltzen hasitakoan Frankismoaren garaiko up-ek euskal nazioaren ezaugarri linguistikoei heldu ziotenean. Hots, euskal nazio identitatea zuzenago kolpatzeko borondatean.

Azken hamarkadetan, ordea, up-en iruditeriak apenas jasan du aldaketarik (*objektibazio* berriak gehitzen joan bazaizkio ere), eta egungo euskal errealitate soziala irudikatu ordez, "euskal baserriar folklorizatuaren" irudian oin hartutako diskurtsoetan jarraitzen dute tinko. Edo modu zabalagoan hartuta, euskal nazioaren gaineko (lurraldea, hizkuntza, kolektiboa, zeinuak) irudikari sinbolikoetan. Hartara, up-etan apenas aldaketarik ez gertatu izana, edo hobeto esanda, Espainiatik hauekiko aldaketarik bultzatu ez bada, dauden moduan espainiar estatuaren zilegitasuna bermatzeko baliagarriak izaten jarraitzen dutelako dela pentsa daiteke. Hau da, espainiar kultura nazionalarekiko koherenteak direla<sup>19</sup>. Ulertzen dugu espainiar kultura nazional hegemonikotik historikoki datozen diskurtsoak direnez, Espainiaren nagusitasun eta zilegitasuna mantentzeko erabilgarriak izan direla historikoki, eta gaur egunean aldatu ez badira helburu horretarako funtzionalak izaten jarraitzen dutelako izan daitekeela. Bi arrazoi nagusi ikusten ditugu hala dela esateko.

Batetik, espainiar gobernuak up horien aurrean zein eskuzabaltasunez jokatzeko duen ikustea da interesekoa. Espainiak ez du trabarik jartzeko halako

up-ak garatzerako orduan, alderantziz, maiz hauspotu egin ditu horiek produzitu eta kontsumitzeko zilegitasun diskurtso berriak sortuz. Entzutetsua da, esaterako, 2003tik aurrera (*Vaya Semanita* programaren sorrerarekin) halako up-en alde espainiar kultura nazional hegemonikotik zabaldu ziren irakurketak (gerora euskal gizartearen ere barneratu direnak), "norbere buruaz barre egitea ona edota sanoa delako" ideia indartzea<sup>20</sup> ekarri dutenak. Baina arrazoi horiek, itxuraz atsegin eta positiboak diruditenak, ez dute kasu guztietan funtzionatu. Izan ere, badirudi "normalaren" parte denak (edo "boterean" dagoenak) ez duela onura berbera antzematen haren inguruan up-ak egiten direnean. Ez da kasualitatea, esaterako, *Vaya Semanitare*n arrakasta Espainia mailan errepikatu nahian programaren bertsio espainiarrak izan zuen porrota. *Vaya Semanitare*n eskubideak erosita *Telecinco* espainiar kate pribatuak 2005ean *Agitacion+IVA* umore saioa sortu zuen, urte bete baino gutxiago iraun zuena; eta 2009an *Cuatro* espainiar kate pribatuak *Vaya Tropa* atera zuen, antenan hiru hile iraun zuena. Dirudenez, espainiar ikuslegoari euskaldunari ez bezala, ez zaio bere "normaltasunaz" (ohikotasunaz) barre egitea gustatzen, ez eta sanoa denik pentsatzen ere. Espainiar gizarteak, beraz, (dagokion botere posizioari men eginez), nahiago du "euskal gizartearen" (eta oro har besteen) alteritatea ukitzen duten up-ak kontsumitu; eta hara non, aipatuaz geroz arrazoi desberdinengatik kontsumo horretan euskal gizartearen up "gustuekin" bat egiten duen. Horren harira honakoa dio EITB-ko aktore batek: "*Umore espainolan ardatz nagusia da reirse del vecino. Eta euskaldunana nik usteet dela gehio barrura, gure buruez itia*" (sic.) [E15]. Espainiar kultura nazionalak bazterrekoetat edo a-normlatzat jotzen dituenak erabiliko ditu up-etan eta logika horren baitan egin ditu euskal nazioaren inguruko up-ak ere. Eta zer dela eta ez dute berdin jokatzeko euskal kultura nazionalarekin egiten diren up-ek? Uler liteke euskal nazioaren baitan "gure buruez barre egitea" sozializazio prozesu baten ondorioa izan dela, espainiar kultura nazionalak sustatu duena, eta non, euskal kultura nazionalak bereganatu egin dituen espainiar kultura nazionalarekin eratorritako up diskurtsoak. Ez da ulertu behar, beraz, euskal gizarteak beste

<sup>19</sup> Gogoan izan behar da 3. *La nation* kapituluaren ikusi bezala estatu politikek haien lurraldeko kultura nazionalaren duten esku-hartzea nolako den: hain zuzen ere, estatuaren (eta estatuko) boterearen zilegitasuna mantenduko duten diskurtso horiek baino ez dituzte sustatzen.

<sup>20</sup> Eldiario, (2014).

nazioetakoe (espainiarra adibidez) baino gaitasun gehiago duenik bere buruaz barre egiteko, nahiz eta askotan hala dela pentsatu, baizik eta ariketa horretan irakatsia izan dela. Honakoa baieztatzen du, esaterako, Bilboko Udaleko zinegotzi batek:

*"Yo creo que ha habido programas que nos han gustado a todos y que todos veíamos y nos reíamos y hemos llegado a aprender a reírnos de nosotros mismos"*<sup>21</sup> [E8]

Elkarrizketatuak *Vaya Semanita* saioari egiten dio erreferentzia ("*programas que nos han gustado a todos*"), eta "gure buruez" barre egiten erakutsi izana azpimarratzen du. Baina up-ek jasan duten bilakaera historikoa ikusita, azken ideia hori ("gure buruez" barre egiten ikasi izana) ez dugu uste "berezko" joera gisa uler daitekeenik eta horren ordez, gehiago zehaztu beharreko baieztapena delakoan gaude.

Gaur egunean matrize kultural hegemonikotik egiten diren up-etan XIX. mendean nagusitu zen logika diskurtsiboak indarrean dirau. Gogora ekarriko dugu Industrializazio garaian Bizkaian jaso zen etorkinen presentzia indartsuak euskal-espainiar *alter-egoan* oinarrituriko up-ak sustatu zituela, non up-en muinak "kanpotar" eta "bertakoen" arteko aldeak azpimarratzen zituen. Alderaketa horrek ohiko bizimoduaren ezaugarrietan oin hartu zuen "bertakoen" kasuan, eta euskal kolektiboaren inguruan egiten ziren up-ek baserri mundua, nekazaritza, esku-lan gogorra edota naturari loturiko ohitura eta tradizioak edukitzea *hausturatzat* hartu zituzten. Momentu hartan puripurian zegoen industrializazioak balio sinboliko erantsia egotzi zion up horiei gainera, euskal gizartearen ohiko bizimodu hura espainiarrarekiko "alteritate" gisa ez ezik, aurremoderno eta ondorioz oinarritzko eta basatia zen gizarte egitura eta errealitate moduan ere agertu baitzuen.

Irakurketa horren parte batek indarrean dirau gaur egun egiten den up-en artean, euskal nazioaren iruditeriaren parte handi bat "hiri" (aurreratu, "normal",

21 ["Nik uste guztioi gustatu zaizkigun saioak egon direla, denok ikusten genituenak eta gure buruez barre egiten ikasi dugula"]

orekatu, ea.) eta "landa" (basati, astapotro, ea.) arteko bereizketan kokatzen baita oraindino. Hala ikusi da matrize kultural hegemonikotik egiten diren up-en diskurtsoetan, "euskal baserriar folklorikoaren" (eta honetatik deribatutako beste *objektibazioen*) irudia ikuspegi konbergentetik indartu eta erabiltzen baita euskal nazioaren errepresentazio gisa. Baina irakurketa honek ñabardura adierazgarri bat dakar berarekin, izan ere, "hiritar" aurreratu eta "landatar" baldar eta atzeratuaren ideia ez da gehiago "espainiar" eta "euskaldunaren" arteko bereizketa egiteko erabiltzen, hain zuzen ere "euskal baserriararen" *alter-egoa* ez delako gehiago "espainiarra", "euskal hiritarra" baizik.

Industrializazioan sortutako euskal kolektiboaren iruditeria horretan oinarritzen diren up-ak erabiltzen jarraitzen badira ere, aspaldi da euskal kolektiboaren gehiengoaren errealitate sozial, ekonomiko edo kulturalak XIX. mendekoaren antza izateari utzi ziola. Hartara, jatorrian euskal kolektiboa espainiarrarengatik desberdintzeko erabiltzen ziren up-ek ez dute jada bi kolektiboen arteko aldea egiteko balio. Gaur egun, up horien bidez kolpatzen den kolektiboa ez da hainbeste "euskal kolektibo" gisa uler daitekeen orokortu hori, baizik eta oraindik ere halako bizi estilo eta ohituretan diharduten baserriar, edota herri txiki eta landa guneko biztanleak: hots, euskal kolektiboaren baitako zenbait azpitalde. Logika berdinari dagozkio gaur egun egiten diren beste hainbat *objektibazio* berrik ere, horien artean Athletick eta Realzaleen arteko aldeak, lurraldearen arabekoak, ea. Hala, up-ek espainiar gizartearekiko alderaketa egin beharrean euskal kolektiboaren baitan dauden talde desberdinen artean bereizketak sortzen dituzte, eta bereizketa horien ondorioz, baita mailaketak eta elkarrekiko botere-harremanak eratu ere: batzuk "normalak" baitira besteak "a-normalak/bereziak/alteritate" diren bitartean, endo-taldearen baitako erretenak indartuz. Horrekin ulertzen dugu euskal gizarteak ez diola "bere buruari" barre egiten, ez behintzat zentzu zurrunean, gure ustez egokiagoa da esatea bere kolektiboaren baitan dauden zenbait azpitalde jakini egiten diela trufa<sup>22</sup>.

22 Honen salbuespenik ere topatu da, hau da, bere buruaz barre egiten duenik. Adibide horiek 5.4 *Gozamena* kapituluaren lantzen dira.

Honenbestez, euskal nazionalismoak bere mesedetan iruditeria hau bereganatu badu ere, ez du horien *objektibaziorako* molde/estilo propioarik sortzeko tarterik hartu, eta zetozen modu berean erabiltzen jarraitu du; espainiar *habitusari* dagokion eta euskal gizarteak sozializazioz bereganatu duen estiloa erreproduzitu. Michel Pêcheux-en hitzak erabiliaz esan liteke euskal nazioaren inguruko iruditeria/diskurtso horien *subjektu enunziatzailea* euskal nazionalismo moderatua (EITB edo EAJ-PNV) bada ere, hots, diskurtsoak helarazi eta erreproduzitzen dituen bera izanik ere, *subjektu diskurtsiboa*, alegia, diskurtsoen iturri edo sortzailea, espainiar kultura nazional hegemonikoa izaten jarraitzen duela (Pêcheux, 1978). Hala, euskal nazionalismoak honako iruditeria indarberritu badu ere (helarazi, publikoki ustiari, ea.), "normaltasunaren" pertzepzioetik urrundu du, eta "euskal" zeinu izan badaiteke ere, iruditeriak jaso duen trataerak "zeinu klise" bilakatzea ekarri du. Hau da, ("euskal") errealitatearekiko a-funtzionalak edo hutsalak. Iruditeria horiek, beraz, euskal gizartearen baitako alteritate gisa funtzionatzen dute funtsean eta horien ordeztatu agertzen den errealitatea, hau da, "normaltzat" agertzen den gizarte, espainiar kultura nazionalak nahi/gustuko/zilegi duena da finean. Horrek azalduko luke, batetik, up-ak azken urteetan zehar ez aldatu izana, eta bestetik, Espainiak horiekiko onarpena eta hedapena bultzatu izana.

### 5.3.2.b. *Euskal nazioaren nukleo irudikatu normaldua*

Esan berritakoa antzeman daiteke jarraian agertzen diren irudikapenetan. Bertan, matrize kultural hegemonikotik "normal" gisa irudikatzen diren errealitateak bildu dira, alegia, up-etako *haustura* gisa agertzen ez direlako *objektibaziorik* jasotzen ez dutenak. Hala, errealitate horiek badute nolabaiteko presentzia up-etan baina ez dira gatazkatsu gisa aurkezten ez eta zalantzan jartzen ere, eta horren ordeztatu, "normaltasunaren" parte bailitzan aurkezten dira (matrize kultural jakin bati erantzuten diotenak). Jarraian agertzen da matrize kultural hegemonikoak bultzatzen duen euskal nazioaren *nukleo irudikatu normaldua*:

Euskal nazioari "Euskadi" deritzo, eta Euskal Autonomi Erkidegoa hartzen du bere baitan. Hiriek osatzen dute lurralde euritsu honen nukleo urbano nagusia, eta Bilbo, eta oro har Bizkaia dira lurraldearen irudi erreferentzial/paradigmatiko normaldua. Honakoak Espainiaren parte gisa irudikatuz usu.

Lurralde iruditeriaren tasunari estuki lotzen zaio kolektiboarena ere. Euskal kolektibo "normala" EAJ-PNV-ren aldeko gizonetzko hiritarra eta Hego Euskal Herriari bizi dena baita, eta honen adibide perfektutzat Bilbotarrak jotzen dira. Kolektibo euskalduna espainiarraren partetzat uler daiteke oro har, nahiz eta espainiarrei ez bezalako zenbait ezaugarri atxikitzen zaizkien, horien artean, adibidez, emakumezkoak sexualki erreprimituak izatea. Nolanahi ere, eta desberdintasunak ager badezake ere, bi kolektiboen arteko aldeak hutsalak dira funtsean: Espainiaren baitan dagoen erregio desberdinek dituzten berezitasunen pareko eta ez apartekoa den kolektibo (nazio) gisa ulertzeko bezainbestekoak. Besteak beste, euskal kulturari loturiko zeinuak ikuspegi folklorikotik/sinbolikotik direlako tratatuak, eta espainiar kulturari loturikoak zeharkako presentzia nabarmena ("normala") eskuratzen dute. Horren erakusgarri dira, kasu, espainiar kultura nazionalari dagozkion zeinu, pertsonaia edo praktiken presentzia jarraitua (Espainiako erregearena, adibidez).

Edonola ere euskal nazioak partikularki berari dagozkion ezaugarri batzuk ere baditu, horien artean esanguratsuenetariko bat gatazka politikoa, zeina nazio identitatearen zeinu ("normaldu") gisa hautematen den. Irakurketa horren baitan ETA-k hartzen du protagonismoa, hori delako, hain zuzen ere, gatazka gorpuzteko erabiltzen den agente nagusia. Horrek ispilu efektua sortzen du gatazkari lotu dakizkiokeen gainontzeko errealitateekin, ETA-z gainera ez baita gatazkari loturiko beste ezer aipatzen up-etan, eta hori ere "normaltzat" da hartua. Salbuespen gisa Ertzaintzaren adibidea aipa liteke, sarri azaltzen den kasua baita hori. Ez da, ordea, gatazka politikoarekin zuzenean lotzen den errealitatea, up-etan ohikoagoa baita haren presentzia jarrai eta normaldua, up-en zeharkako trataeran nagusi dena.

Hizkuntzari dagokionez gaztelania da arruntasun eta "normaltasuna" bereganatzen dituen, erabilgarri eta baliagarria dena. Euskara, ordea, zuka eta batuan egiten denari dagokio soilik eta euskal nazioari propio zaion hizkuntza

gisa onartzen bada ere ez da funtzionala ez eta nahitaezkoa. Arlo kulturean (eta elitistan, nolabait) erabiltzen den hizkuntza gisa da hautemana eta euskaraz ez jakitea edota ezagutza eta erabilera maila baxua edukitzea "normaltzat" jotzen da.

Begi bistakoa da espainiar nazio kulturaren diskurtsoekiko hurbiltasuna esanguratsua dela matrize kultural hegemonikotik "normaltzen" diren diskurtsoen artean, eta honek up-etan sustatzen den euskal nazioaren inguruko *nukleo irudikatuaren* tasunaren inguruan zer pentsatu ematen du.

Euskal nazioa espainiarretik bereizteko ahaleginean baliagarritzat hartu diren *objektibazioek* balio sinbolikoa eskuratzen dute "euskal" gisa baitira hautemanak. Baina paradoxikoki, *objektibatze*ko manerak alteritate moduan agertarazten ditu horiek eta euskal nazioak espainiarrarekin konpartitzen dituen errealitateak aurkezten dira "normal" lez. Euskara edo euskal doinua, landa gunee berdeak, baserritarrak, ohiturak, praktika kulturak, eta oro har "euskal" lez interpretatzen diren zeinuei kutsu *exotikoa* egotzen zaie; euskal nazioari dagozkiola ulertuta ere "berezitasun" gisa baitira hautemanak, errealitate "periferiko" moduan, zeinak sinbolikoki esangura badute ere pragmatikoki baliagarri izateari utzi dioten. Ikuspegi honetatik interpretatu daiteke 5.2.4. *Zeinuak* kapituluaren aipatutako adibideetariko bat, hain zuzen ere Tolosa eta Bilboko inauterietan zenbait jende "euskaldunetz" mozorrotzen direnekoa. Izan ere hainbat zeinu edo praktika kultural "euskal" gisa hautematen badira ere (baserritarrak edota joaldunak kasu honetan), "txinatarrez", "indioz" edo "bakeroz" mozorratzeak bezainbeste "berezitasun" eskuratzen dute. Ez dira hurbileko gisa ikusten, ez eta "euskal" zeinu izateaz harago berezko esanahi

edo rolik dutenik ulertzen ere; horren orde, alteritate moduan hautematen dira (*endo-taldearen* alteritate gisa), eta beraz, beste edozein mozorro etniko duen esangura "berezitua" eskuratzen dute<sup>23</sup>. Hala, gure ustez, euskal nazioari atxikitako *nukleo irudikatu* hau, bai eta ondorioz euskal nazioa bera ere, *pastiche* bilakatzen dira, ez dute euskal nazioaren subjektibaziorako<sup>24</sup> balio funtzionalik betetzen, estereotipikoa baizik, interakzio sozialek (egunerokotasuneko praktiken erreferentziek) espainiar "normaltasunari" erantzutearen mesedetan.

### 5.3.3. Matrize kultural apostata

Matrize kultural hegemonikoarekiko apostata direla ulertzen da "norma(l)tzat" jotzen diren mundu ikuspegiei ez dagozkien irakurketa/diskurtsoak proposatzen dituzten up-ak. Horiek diskurtso hegemonikoarekiko menpeko izanagatik (modu erreflexibo zein aurre-erreflexiboan), menpekotasun posizio horretatik sortutako up-ak darabiltzate eta errealitate sozialekiko (euskal nazioarekiko) hautematea azaldu eta xehatzeko beharra izaten dute horregatik. Hain zuzen ere, inguru sozialearen ohikotasunarekiko diskurtso bestelakotuak proposatzeagatik.

Euskal nazioaren inguruko bestelako irakurketak orotarikoak dira. Aniztasuna nabarmena da ildo hegemonikotik at kokatzen diren euskal nazioaren inguruko diskurtsoei dagokienean, bai "normal" gisa identifikatzen dituzten errealitateen aukeraketan bai eta *objektibatzen* diren (eta *objektibatze*ko modu positibo

23 Aldea nabaria da, esaterako, Lantzeko inauterietan [B11] halako pertsonaiei egotzen zaien diskurtsoarekiko. Lantzen ez baitira "mozorro" gisa hautematen, "inauterietako pertsonaia" gisa baizik (Joaldunak, Ziripot, Mielotxin, ea.). Kanpo itxura (mozorroa bera) gisa batekoa edo bestekoa izateaz gainera, inauterien baitan funtzio, rol eta esangura jakin bat dute. Hala, ez dira alteritate gisa erabiltzen, erreferentziakoak eta funtzionalak diren irudikapen/errealitate bezala baizik.

24 Subjektibazio gisa ulertzen dugu subjektu (emantzipatu, politiko) gisa osatzearen prozesua. Jacques Rancière eta Hannah Arendt-en ikuspegiak aztertzen dituztela, honela azaltzen dute kontzeptua Anders Fjeld eta Étienne Tassin autoreek: "à la différence de la notion classique de sujet, ce concept de subjectivation désigne un processus et non un principe, un état ou un résultat. Ce processus n'est pas simplement celui d'un devenir sujet comme s'il était entendu qu'on savait ce que signifie « être sujet » et qu'il faille le devenir : c'est plutôt celui d'un devenir qui ne saurait se fixer, se stabiliser sous la forme « sujet », que ce soit au sens de la subjectivité, de la subjectivité ou de la sujétion." (Fjeld eta Tassin, 2015).

eta negatiboen) errealitateen tasunean ere. Hala, zenbait kasutan gertatu da matrize apostataren baitako up-en *objektibazioek* elkarren kontrakoak diren diskurtsoak helaraztea.

Matrize kultural apostataren baitan biltzen diren up desberdinek euskal nazioarekiko dituzten orotariko ikuspegiek, ordea, antzekotasun handiak erakusten dituzte zenbait ezaugarri dagokionez, eta euskal nazioa modu desberdinetan ulertzeko zantzuak agerian jartzen badituzte ere, nahiko modu bateratuan jokatzeko dute euskal nazioarentzako esanguratsuak izan daitezkeen errealitateei dagokienez (lurraldea, hizkuntza edo kolektiboari dagokionez, adibidez). Jarraian ikus daitezke euskal nazioaren nukleo irudikatu normalduan komunean dituzten zenbait elementu.

#### 5.3.3.a. *Euskal nazioaren nukleo irudikatu normaldua*

Egia da matrize kultural apostaten *nukleo irudikatuak* askotariko diskurtsoak barnebiltzeagatik ikuspegi "normaldurik" dagoenik esatea ez litzatekeela guztiz egokia izango, aniztasunak euskal nazioaren irudikapen "normalaren" baitan eta horretatik kanpo uzten direnen arteko mugak lausotzen baititu. Edonola ere, irudikapen batzuk "bestelako azalpenik eman gabe" erreproduzitzen direnez, hots, *objektibatu* gabe agertzen direnez, up-en baitan "normaltzat" jotzen diren errealitateak direla uler daiteke. Ondokoak dira esanguratsuenak.

"Euskal Herri" moduan izendatzen du euskal nazioa, zeinak zazpi lurralde historikoak biltzen dituen bere baitan, aintzat emanez Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ere nazioaren parte direla. Ez dago lurraldearen iruditeria paradigmatorik landa gunea eta hiria berdinki erabiliak baitira eta kolektiboaren aldetik ere aniztasuna dagoela onartzen da haren ikuspegi dibergentea onartuz. Ugaritasun horretan, aldiz, zedarrizapen bat ezartzen zaio kolektiboari, hain zuzen ere espainiar kolektiboaz bereizaraztea dakarrena, euskal kolektiboak Espainiatik desberdinak diren praktika, zeinu eta oro har kultura nazionala duela ageriko

egiten baita. Euskal nazioari partikularra zaion mundu ikuskera horretan *euskal preso politikoen* onarpena aipatu daiteke, zeina existitzen duen errealitatetzat hautemana den.

Hizkuntzari dagokionez euskara funtzional baten hautematea da "normaldua" dagoena (besteak beste izaera identitarioa) eta horrek, batetik, "euskara" gisa ulertzen den horri ezaugarri anitzak egozteak dakar, hizkuntza erregistro eta fonologiari dagokienez. Bestetik, euskaraz ongi jakitea halabeharrezko bihurtzen du, bai eta gaztelania ongi ez menperatzea onargarritzat ere.

Ikus daitezkeen moduan matrize kultural apostatako *nukleo irudikatu normaldua* matrize kultural hegemonikoak erakusten duena baina murriztagoa da. Izan ere, matrize kultural apostatan kokatzen diren up-en produkzio iturriak ugariagoak dira bai eta horien perfila askotarikoa, eta ondorioz, konplexuagoa da diskurtso guztiek komunak dituzten ezaugarriak edukitzea. Bereziki atentzioa ematen digu gatazka politikoari loturiko errealitate gutxi direla aintzakotzat hartuak. Kasu honetan nabarmendu behar da bai laginaren azterketan halako kasuen urritasuna antzeman delako eta bai elkarrizketatuek hala adierazi dutelako ere gatazka politikoaren gaia up-en bidez kudeatzen zaila den aferatzat jotzen dela: "*Ez dakit oso ondo nola egin ahalko zen egin hori. Borroka armatuaren inguruan umore ona egitea, ez betiko txisteak, zerbait aportatuko duena, iruditzen zait oso zaila dela*" [E11].

Edozein kasutan, parekotasunak gutxi izanik ere zenbaitzuk egon badaudela ikus daiteke, eta dauden horiek, gainera, matrize kultural hegemonikoaren *nukleo irudikatu normalduarekin* zer ikusi gutxi dutela agerikoa da. Esan nahi baita, ikuspegi hegemonikotik bultzatzen den euskal nazioaren bestelako irudikapen bat indartzen dutela, eta ondorioz, urrundu egiten dira espainiar nazio kulturalak euskal nazioaz igortzen duen ikuspegitik. Baina matrize kultural hegemoniko eta apostaten artean dagoen harremana ez da beti hain urrun eta aseptikoa izaten, eta up-en *objektibazioek* matrizeen artean elkar eragina badagoela agerian jarri dute maiz.



Ondorengo orriotan matrize kultural apostataren *objektibazioen* tasuna zehazten da, eta honekin batera, bi matrizeen arteko harremanak nolakoak diren ere ikus daiteke.

### 5.3.3.b. Euskal nazioaren nukleo irudikatuaren objektibazioak

**Lurraldea:** Lurraldeari dagokionez matrize kultural apostatatik *objektibatzen* diren errealitateak matrize kultural hegemonikoak igortzen dituenekiko modu ihardeslean jokatu ohi dute. Alegia, matrize kultural hegemonikotik esaten denaz bestelakoak diren diskurtsoak bultzatu edota errealitatea bestela birdefinitzen duten *objektibazioak* izan ohi dira gehienak. Hala, matrize kultural apostatatik positiboki *objektibatzen* dira, esaterako, euskal nazioa Espainiari ez dagokiolako ideia, bai eta Ipar Euskal Herria euskal nazioaren parte delakoa ere. Ikus daiteke bi diskurtso horiek matrize kultural hegemonikotik bultzatzen den euskal nazioaren lurralde diskurtsoaren oso bestelakoak direla baina bi kasutan modu desberdinetan burutzen da diskurtsoaren bestelakotze hori.

Lehenengoan, "euskal nazioa Espainiari ez dagokiola" bultzatzen da. Nahiz eta diskurtsoa modu positiboan *objektibatua* dagoen (aldeko diskurtsoa baita) ukazio gisa planteatu ohi da ("ez dagokiola" esanaz). Euskal nazioa zeri ez dagokion definitu beharra baldin badago, ordea, aurretiaz zerbaiti dagokiola aintzat ematen delako dela pentsa daiteke. Hala, up honek "euskal nazioa Espainiari dagokiola" dioten diskurtsoei erantzun gisa funtzionatzen duela uler daiteke, hau da, hori baliogabetzeko ahalegin gisa, eta ondorioz, oinarritzat matrize kultural hegemonikoak bultzatzen duen diskurtsoa hartzen duela. Bigarren *objektibazioan*, ordea, bestelakoa da jarrera. Izan ere matrize kultural hegemonikoan kontenplatu ez den errealitate "berri" bat agertzen da bertan (Ipar Euskal Herria), eta honakoaren alde jokatzeko ez da aurretik dagoen diskurtsorik ukatu behar, hain zuzen ere matrize kultural hegemonikoan Ipar Euskal Herriak apenas jasotzen duelako diskurtsorik. Kasu honetan, beraz, modu positiboan *objektibatzearekin* aski da Ipar Euskal Herria euskal nazioaren lurralde iruditerian kontuan hartzeko.

Honako joera hau apurtuz, ordea, zenbait kasutan lurraldeari dagozkion *objektibazioen* artean matrize kultural hegemoniko eta apostatak bat egiten dute. Esaterako, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren artean dauden desberdintasunak positiboki *objektibatzen* dira bi kasutan. Baina matrize kultural apostatak horiez egiten duen irakurketa ez dagokio matrize kultural hegemonikoak indartzen duenari. Apostataren kasuan, lurralde desberdintasunak aniztasun edo aberastasun moduan interpretatzen baitira, eta ez dira ikusten, ordea, elkarren arteko lehia motibo gisa. Kasu honetan adibidez, bi matrizeak bat egiten dute *objektibazioan* baina batak eta besteak egozten dioten diskurtsoa erabat desberdina dela ikus daiteke. Apostataren jokaerak agerian jartzen du lurraldeen arteko desberdintasunak egotea errealitate moduan hautematen dituela, baina errealitate horrekiko irakurketa birdefinitzen du, eta zuzenean, matrize kultural hegemonikoaren bertsioa kontuan izan gabe, bestelako diskurtso bat esleitzen dio: "aberastasunarena".

Modu negatiboan tratatzen dira, aldiz, Hego eta Ipar Euskal Herriaren mugaren inguruko interpretazioak, eta *objektibazio* horrek, gainera, bi diskurtso desberdin gorde ditzake bere baitan. Zenbait kasutan, matrize kultural apostatak bat egiten du hegemonikoarekin eta Ipar-Hego mugak desberdintasunak markatu/sortzen dituelako diskurtsoa indartzen da. Ondorioz, mugak euskal naziotik at uzten du Ipar Euskal Herria eta matrize kultural apostatak indartu egiten du hegemonikoak darabilen diskurtsoa eta *objektibazioa*. Ikuspegi honekin aurrez-aurre topo egiten du, ordea, bestelako batek, izan ere matrize kultural apostataren baitan ipar-hego mugak lurraldearen baitan desberdintasunak markatzen dituelako diskurtsoaren aurka jotzen duten *objektibazioak* ere aurki daitezke. Hala, up horiek muga errealitate gisa onartzen badute ere (*objektibatu* egiten baita) up-etan honi ematen zaion trataera negatiboa izan ohi da; "mugak" lurraldea banatzeko duen eragina ahuldu edo bertan behera utziaz eta ondorioz, horri egozten zaion esanahia birdefinituz.

Joera bikoitz hori antzeman daiteke ere euskal nazioari atxikitzen zaion eguraldi txarrean. Izan ere, zenbait up-k eguraldi txarraren irudikapenaren gehiegikeria (eta beraz kontingentzia) agerian jartzea bilatzen dute, eta horren bidez matrize kultural hegemonikotik igortzen den diskurtsoa baliogabetzea

bultzatzen dute. Kasu honetan *objektibazioa* ez da bestelako diskurtso batengatik ordezkatzeko baizik eta zuzenean matrize kultural hegemonikotik objektibatzen den errealitatearen egiazkotasuna edo existentzia zalantzan jarriz honakoa "desagerraraztea" bilatzen da. Beste up batzuk, ordea, matrize kultural hegemonikoaren diskurtso hauxe indartzen dute eta *objektibazio* negatiboaren bidez eguraldi txarrarekiko duten gogaipena adierazi, eta ondorioz, errealitate horren baieztapena indartzen dute.

**Hizkuntza:** Hizkuntzari dagokionez ere ohikoak dira halako jarrera anitzak. Batetik, matrize kultural apostata eta hegemonikoak zenbait *objektibazioetan* bat egiten dutela ikus daiteke. Hala, adibidez, euskal hiztunek gaztelaniaz hitz egiterakoan akatsak egiten dituztela bi matrizeetatik baieztatzen den errealitatea da. Baina batean eta bestean balioespen desberdina ezartzen zaio: matrize kultural hegemonikoak igortzen duen diskurtsoak lotsagarri gisa aurkezten du, baina apostatak ez du hori kontuan hartzen eta zuzenean berirakurketa positibo bat egozten dio, gaztelaniaz mintzatzean akatsak egitea onuragarria edo ohikoa den zerbait gisa formulatuz.

Berdintsuki tratatzen da euskara hizkuntza elitista delako planteamendua ere. Bi matrizeetatik *objektibatzen* den errealitatea da baina matrize kultural apostatak euskara bera hartzen du ardatz eta kutsu elitista hori kentze edo leuntze aldera euskalkien erabilera bultzatu behar dela iradokitzen du. Hots, nolabaiteko alternatiba eskaintzen du euskara erabiltzeari utzi gabe ("euskañolarengatik" edo gaztelaniarengatik ordezkatzeko ibili gabe) euskarak elitista izateari uzteko. Hala, *objektibazio* berberaren gainean bestelako diskurtso bat ezartzen du matrize kultural hegemonikoak duen ikuspegiarekiko zuzeneko aipamenik egin gabe. Honen bitartez euskalkiak hizkuntza erregistro "herrikoiago" gisa positiboki *objektibatzen* dira eta errealitate aktibo eta erabilgarri lez txertatzen dira euskal nazioaren *nukleo irudikatuan*.

Euskararen konplexutasunari dagokionez matrize kultural apostatak, hegemonikoak bezala, *objektibatu* egiten duen errealitatea da, baina kasu honetan horren aurkako diskurtsoa esleitzeko. Hau da, euskara konplexua

ez delako ideian indar egiteko. Hori bultzatzeko, ordea, matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoetik abiatzen da ("euskara konplexua da") horren gainean ukazio bat egiteko ondoren ("ez da" konplexuagoa). Hala, jatorrian matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoa hartzen du oinarritzat. Antzekoa gertatzen da euskararen erabilera akasunari dagokionean ere. Matrize kultural apostatak *objektibatu* egiten du hegemonikoak "normal" gisa hautematen duen errealitate hori, eta modu negatiboan *objektibatzen* du.

*Objektibazioak* ez dira berdinak, ordea, gaztelaniaren erabilerari dagokionez. Matrize kultural apostatatik ez baita horren aurkako *objektibazio* negatiborik zuzenean bultzatzen, eta horren ordean, hegemonikoari ihardesten dio gaztelaniaren erabilera euskararenaren rol fultzional berbera duen bitartean onargarria dela soilik defendatuz (botere-harremanean parekide direnean bakarrik). Hala, errealitatea bir-definitzea lortzen du matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoa zuzenean aipatu edo aintzat izan gabe.

Badira halaber matrize kultural hegemoniko eta apostatak modu berean *objektibatzen* dituzten errealitateak ere. Euskararen doinuaren gaineko *objektibazioak* horren adibide dira. Izan ere, matrize kultural hegemonikoak modu negatiboan *objektibatzen* du euskal doinua, eta "a-normaltasun" gisa erakusten du. Matrize kultural apostatak, ordea, negatiboki *objektibatzen* badu ere, ez da euskal doinua baizik eta euskal doinuaren gehiegizko erabilera azpimarratzera dakarrena. Hain zuzen ere, matrize kultural hegemonikoak darabilen "a-normaltasun" ikuspegi hori iraultzea bilatzen duena. Hala, matrize kultural hegemonikoak euskal doinuaz egiten duen irakurketa eta erabilera da finean *objektibatzen* dena.

**Kolektiboa:** Matrize kultural apostataren baitan kolektiboarekiko ikuspegi dibergentea da nagusi. Ez soilik ikuspegi apostatako up-etariko bakoitzak euskal nazioaren irudikapen desberdin bat proposatzen duelako, baizik eta irudikapen horiek euskal nazioa bere baitan desberdina eta anitza dela proposatzen duelako ere bai. Aniztasun honetan, hala, interpretazio desberdinak agerian jartzen dira, hain zuzen ere, euskal nazioa bat eta bakarra izanik ere ugaritasun eta

desberdintasun honen testigantza ematen duten diskurtsoak indartuz. Euskal nazioa ulertzeko bestelako diskurtso bat definitzen da honen bidez, matrize kultural hegemonikoak euskal nazioaz duen ikuspegiari bestelako diskurtso bat egotzen baitzaio, hain zuzen ere, nazioa batzen duena definitzea ezinezkoa dela edota batzen duena elkarrekiko desberdintasun horixe bera dela agerian jarriaz.

Aniztasun honen baitan, ordea, uko egin ohi zaio euskal kolektiboa espainiarra dela esaten duen diskurtsoari eta modu positiboan aurkako ideia indartu ohi da; euskal kolektiboa espainiarra ez delako *objektibazioaren* alde agertuz up-ak. Akaso hori da komunean dagoen ideia bakarra, hots, euskal kolektiboa anitza bada ere espainiarraren desberdina delakoa. Edonola ere, espainiar gisa ez ikusi arren, euskal kolektiboaren baitan egon daitezkeen bestelako desberdintasunak agerian jartzen dira nabarmenki up-etan. Hala, lurraldekakoak edota *gorputz-tasunari* loturiko desberdintasuna indartu, bultzatu, eta kolektiboaren aberastasun gisa interpretatuak dira. Kasu honetan hala, errealtate berberak *objektibatuta* ere, matrize kultural hegemonikoak indartzen dituen diskurtsoen birdefinizio bat eskaintzen dute apostatek: desberdina izatea "aberastasunaren" ikur gisa ulertuz beste behin.

Jarrera negatiboz tratatu ohi dira, ordea, beste zenbait *objektibazio*, horietariko zenbaitzuk ere matrize kultural hegemonikoarekiko modu erantzunzalean jokatzeko dutenak. Aipagarri dira, esaterako, euskal kolektiboa espainiarrentzako umoretsu gisa hautematen hasia delako diskurtsoaren kontrako jarrera. *Objektibazioa* onartu egiten bada ere (alegia, honakoa egiazat onartzen bada ere) ez da "begi onez" ikusten eta *objektibazioa* negatiboki tratatuz, iraingarri edo mingarria den diskurtsoa delako ideia indartu ohi da.

Baina dena ez da aurkaritza, eta kolektiboaren kasuan bi matrizeetako *objektibazioak* bat datoz zenbait kasutan. Ezker abertzalearen gaineko kritikak dira adibide esanguratsuena. Oro har, matrize bitzukados daude ezker abertzaleak inkohorentziak jokatzeko duela ustean, baina matrize kultural apostatak modu "autokritikoan" jokatzeko du horrekiko. Hau da, ezker abertzalearen zenbait jarrera

eta jokamolde *objektibatzeaz* gain (matrize kultural hegemonikoak egiten duen bezala), jarrera horrek gehiago du "akatsak" agerian jarri zer bait aldatu nahi izatetik, agerian jarri eta hutsean kritikatzetik baino. Antzekoa gertatzen da PP alderdiaren gainean ere, apostata eta hegemonikoek *objektibatzen* duten errealtatea baita, bi kasutan PP-koak ezgauzak edo baldarrak direla erakusteko *objektibazio* negatiboaren bitartez. Aipatzekoa da matrize kultural apostatak, hegemonikoak ez bezala, berdina egiten duela EAJ-PNV alderdiarekin ere, hegemonikoaren kasuan nukleo "normalduaren" baitan kokatzen dena.

Honela azaltzen dute matrize kultural apostatako zenbait elkarriketatuk ezker abertzalearen inguruko objektibazio negatiboak egiteaz duten ikuspegia:

*"Euskal egitazko ezkerrekin badaukegu amodio eta gorroto bat, denok daukeguna azkenean. Identifikatzen zea parte batzutan baino beste batzuk ez dituzu ondo ikusten, baino azken finean zu sartzen zea hor, ta manifara juten den batekin guaya sentitzen zealako, zu ez zea ai, ez da gure helburue jendea ez manifetara joatea, baizik beste giro bat ematea zure pentsamenduai."* (sic.) [E22a]

*"Bai eske ridikulizatzea baino, ba, guazen tabutaz hitzitea. Guazen ez dakit... Zein ez da sentitu inoiz guay preson manifa batera juteagatik? Danok! Ba guazen hoi kritikaztea, ta geo hortik aurrea guazen zeoze itea. Ematen do ezin diela gai batzuk ukitu, ba guazen ikutzea! Baina horrek hausnarketa bat ekarri dezan, eta bihar hobek izan gaitezen, ez debalde, hobek, edo bihar beste modu baten segiko diogu gure buruei parre itten. Baina ez da ridikulizau, da aldatzea, edo aldaketa eragitea."* (sic.) [E22b]

Up-en *objektibazio* eta diskurtsoak matrize kultural hegemonikoarekin bat datoz kasu honetan, ezker abertzalearen inkohorentziak edo honen aldekoen

jarrerak kritikatu egiten baitira. Baina kasu honetan aipagarria da matrize kultural apostatatik egiten dutenek haien burua kritikatzeko duten errealitate honen baitan kokatzen dutela.

*"Eske lehenengo baldintza dek guk gure buruei parre ittia, gure buruei parre itten badiok, hik ya legitimoa dek edozeini itia, ze hik ya hire buruai parre in diok. Esan dek, ez haizela ezer, edo ezkerrekoa haizela kasu hontan"*

(sic.) [E22a]

Aztertuak izan diren up kasuen artean hain modu argian azaldu den "autokritika" adibide bakarrenetakoa da honakoa. Elkarriketatuek up-ak (eta horien *objektibazio* eta diskurtsoak) eboluzionatze edo hobetze ariketa gisa erabiltzen dituzte; jarrerak aldatu edo jendearen kontzientzietan eragiteko modu lez, eta eginahal horretan haien burua eragiten (eta kolpatzen) ari direlako jabetzen dira. Horretaz gain, up-etan egiten dutenari buruz agertzen dituzten kezka ere agerian jartzen dute jarrera "autokritikoa": maila pertsonalean zerbait galtzeko edo kalteak sortzeko arriskuak kezkatzen baititu, besteak beste, aldaketa edo hausnarketa sustatu beharrean ezker abertzalearen aurkako diskurtsoak publikoki plazaratzen ari direla ulertzera emateak.

Orain arte ikusitako beste kasuetan ez bezala, batetik, up-ak egiten dituztenek "propietat" dituzte haiek erabiltzen dituzten *objektibazioak*, hau da, *objektibazioak* haien egunerokotasuneko errealitateen parte zuzena dira; eta bestetik, horien *objektibatze*ko duten manera negatiboa da, hau da, ez dute beren matrize kulturala lausengatzen, baizik eta (hobetuko delakoan) kritikatu egiten dute. Esandakoa kontuan izanik, beraz, honakoa "norbere buruaz barre egitearen" adibide bakarrenetakoa delakoan gaude.

Hala, matrize kultural hegemonikoaren kasua ez dugu berdina denik uste, hots, ez dugu "norberak buruaz barre egiten duenik" pentsatzen. Izan ere, abiapuntua bestelakoa da ezker abertzalearekiko bai eta bestelako gaiekiko up-en *objektibazio* eta diskurtsoen formulazioan; hegemonikoa denak ez baitu bere

burua bertan txertatua ikusten, ez behintzat hain modu zuzen eta engaiatua. Hala, aurretik esandakoa baieztatzea geroz honakoan ere, matrize kultural hegemonikoak "norbere buruaz barre egin" beharrean euskal nazioaren baitako alteritateak kolpatzen dituelakoan baikara.

**Zeinuak:** Oro har, joera nagusi zenbait azpimarra daitezke, non, euskal kultura deritzonaren baitako zeinuak indartuak agertzen diren. Matrize kultural hegemonikoan gertatzen den moduan matrize kultural apostatak ere *objektibatu* egiten ditu "euskal" gisa hautematen diren hainbat zeinu eta praktika (praktika kultural edota ohiturei dagozkienak, esaterako), baina horiei egozten dien diskurtsoa positiboa izan ohi da, praktika baliogarri eta aktibo bezala ulertzen laguntzen duena (ikuspegi sinboliko hutsetik urrunduz). Hots, matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoak aintzat hartu gabe ("euskal" zeinu eta praktikak alteritate gisa erakusten dituenak), apostatak errealitate horien aldeko diskurtsoak sortarazten ditu, non, "euskal" zeinuei balio funtzional/erreferentzial bat ematen dien eta eguneroko bizitzan txertatuak daudela edota baliagarriak direlako ikuspegiak bultzatzen dituen.

Horretaz gain, matrize kultural apostatan arreta ematen duen jaiduretariko bat zeinuzat hartzen diren errealitateen "berriztapen" joera da. Hots, euskal nazioaren zeinu izateko zahartzat/baliogabetzat jotzen diren errealitateak baztertu eta bestelakoak/erabilgarriak direla ulertzen direnak indartzeko etengabeko joera ageri baita, tradizioen (San Tomas festa) edo zenbait sinesmenen (erlijio katolikoa) birmoldatzeko nahia ageriko eginez. Honen baitan bi ekiteko era dira nagusi. Batetik, ohikoa da zeinuen baitan aurrekoz definitzen diren *objektibazioak* agertzea, alegia, matrize kultural hegemonikoak kontenplatu gabeko errealitateak diskurtso bilakatzea. Eta bestetik, negatiboki tratatzen diren *objektibazioak* edota etengabeko ber-definizioetan ibiltzen direnak usu azaltzen dira. Izan ere, euskal nazioari oso atxikiak egonik ere, berriro beharrekotzat jotzen diren zenbait tradizio, ohitura edo praktika kulturalen aurka jotzeko joera antzematen da. Horren barruan aniztasuna (eta kontraesan

edo aurkakotasunak) askotarikoak izan daitezke, izan ere batzuek indartu nahi dituzten praktikak, beste batzuek gairitu edo baztertu beharrekoak direla defendatu baitezakete. Ezaguna edo ezarria dena iraultzeko joera honen baitan kontuan hartu beharrekoak dira ere gizarteko botere estamentu, erakunde edo agente desberdinak negatiboki *objektibatu* eta banal, ahul edo botere gabeko islatzen dituzten up-ak. Horien baitan daude Ertzaintza, segurtasun indarrak edota espainiar monarkia kolpatzen dituztenak. Indar galera sustatu nahi izatearen ikuspegitik uler daitezke ere gatazka politikoaren gaineko up-ak eta bereziki ETA-ri dagozkionak, non, talde armatua ahul edo trakets gisa den aurkeztua, hain zuzen ere beldurrik ematen ez duelako ideia indartzen laguntzen duena.

Oro har ikus daiteke matrize kultural apostataren euskal nazioaren *nukleo irudikatuak* matrize kultural hegemonikoak baino iruditeria/diskurtso aberatsagoak barne biltzen dituela: a) bai *objektibazio* berdin baten inguruan hainbat diskurtso desberdin topa daitezkeelako, zenbaitetan elkarren artean aurkariak ere izan daitezkeenak; b) bai *objektibazioen* diskurtsoak aldatu edo birdefinitzen ibiltzeko joera zabala dagoelako; eta c) bai lehendik *objektibatu* gabeko errealitateak aurrenekoz *objektibatzen* direlako ere, horrekin guztiarekin euskal nazioaren *nukleo irudikatua* zabalduz, birziklatuz eta aniztuz. Jarrera horrek euskal nazioaren eraberritze dinamiko bat ahalbidetzen du, transformazio konstante bat, non, batetik, kasuan kasu zeinu gisa zer hartu nahi/behar den aldatzen eta moldatzen aritzeko aukera eskaintzen duen; eta bestetik, aldaketa horiek burutzeko matrize hegemonikoak kontenplatu ez dituen bezalako ekinbideak ahalbidetzen diren ("norbere buruaz barre egitekoak" kasu).

Ulerzen dugu, beraz, matrize kultural apostatak *kaleidoskopio* gisa funtzionatzen duela. Hau da, ikuspegi metaforikoan matrize kultural apostataren baitan egiten diren *objektibazioek* eta horiei eginiko diskurtso desberdinen esleipenak, euskal nazioaren iruditeria etengabe mugitu arazten dutela irudikapenak irularazi, elkarren artean kolpatu, indartu edo ahulduz. Hala, aldaerak etengabekoak direnez, une zehatz batean begiratuta euskal

nazioaren *nukleo irudikatuak* forma edo irudikari jakin bat agertzen badu ere, litekeena da hurrengo "astinaldian" egitura hori era bat aldaraztea.

*Kaleidoskopioa* astintzen duen eskua, ordea, matrize kultural hegemonikoa ez ote den susmatzen dugu. Izan ere, aniztasun eta dinamikotasuna matrize kultural apostatan nabarmena bada ere *objektibazioak* burutzeko moduan maiz matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoak dituzte oinarri. Izan ere, eta metaforekin jarraituz, matrize kultural hegemonikoak euskal nazioaren irudikariak *diapositiba* gisa aurkezten dituelakoan gaude. Une jakin batean errealitate jakin bati ateratako argazkia da bere iruditerian erabiltzen duena (XIX. mendeko euskal gizartearen irudikariari oso estuki loturik dagoena normalean), eta marko horretan kabitzen dena baino ez du kontuan hartzen euskal nazioaren errealitate gisa, markoa zabaltzeko (iruditeria birziklatu eta aldatzeko) oztupoak jarritz etengabe. Metaforarekin jarraituz, *diapositiba* gisa ulertzeak dakar, gainera, errealitatearen pareko (1:1 eskalan) proiektatua izateko gaitasuna izatea, eta maiz, honen interpretazioa, errealitatearen hautemate "objektibo" eta bakar gisa aurkezten da, up-etan ikusten dena errealitatearen parte bat (edo parte baten interpretazio bat) dela "ahaztea" ekarriz.

Hala, eta orain arte esandakoa kontuan izanik, *diapositibak* matrize kultural apostataren jokabidean eragina duelakoan gaude. Izan ere, egon badauden arren, ez dira asko euskal nazioaren irudikapena matrize kultural hegemonikoak esaten duenetik aparte (honakoak dioena aintzat hartu gabe) garatzen dutenak. Ohikoena matrize kultural hegemonikoaren diskurtsoa erreferentziatuz hartuz horren gainean *objektibazio* eta diskurtsoak (des)eraikitzea baita. Hala, bi joera nagusi antzeman dira. Batetik, *iragazkortasunezkoak*, hau da, matrize kultural hegemonikotik apostatarantz eginiko up fluxuak eragindakoak, non batean zein bestean, *objektibazio* eta diskurtso berberak erreproduzitzen diren, jatorriz, matrize kultural hegemonikoari dagozkionak izanik horiek. Eta bestetik, eragin *ihardeslea*, hots, matrize kultural hegemonikotik igortzen den diskurtso edo *objektibazio* batekiko aurkakotasun esplizitua agertu eta bestelako diskurtso edo *objektibazio* bat indartzen dutenak, edota zuzenean diskurtso hegemonikoa ukatzen dutenak.

Esandakoa laburbilduz, matrizeen arteko harremanak bi afera erakusten ditu gure ustez. Batetik, euskal nazioaren *nukleo irudikatua multipolarra* dela. Hots, ez dagoela euskal nazioa ulertzeko/irudikatzeko modu bakarra, baizik eta hainbat, eta ikuspegi (*objektibazio*, iruditeria, diskurtso) horien guztien harremanean eraiki eta ber-eraikitzen (performatzen) dela euskal nazioa etengabe. Baina bestetik, iruditeriaren tasuna matrize kulturalen arteko botere-harremanek eta horien kudeaketak baldintzatzen dutelakoan gaude. Besteak beste, matrize kultural apostatak botere kontzesio bat egiten diolako hegemonikoari euskal nazioaren *nukleo irudikatuan* zenbait diskurtso "emanikotzat", "ohikotzat" edo "zilegitzat" direla onartzean. Azken hori da, hain zuzen ere, hurrengo kapituluan lantzen den puntua: matrize kultural desberdinen arteko botere-harremanak eta horietatik igortzen diren iruditeria/diskurtso desberdinak nola artikulatzen diren azaltzen da jarraian.

## GOZAMENA

### *Abstract-Plaisir*

*Le terme plaisir est utilisé ici pour désigner la capacité des ph à réjouir. Toutefois, cette capacité n'est pas constante, car elle change en fonction du degré de légitimité que l'on accorde à un discours, et cette légitimité dépend également des rapports de force entre le récepteur et le donneur, ainsi que des distances entre les matrices culturelles de ces derniers. Dans ce chapitre, l'on montre que les distances entre les rapports de force et les matrices culturelles peuvent être réunies en une seule variable, et que la variable espace devient le facteur principal qui conditionne la légitimité des ph (et par conséquent le plaisir). À partir de là, on souligne les différences dans la gestion des ph des matrices culturelles apostates et hégémoniques au niveau de l'espace public, ainsi que les différences de légitimité et de plaisir qui en découlent. Finalement, tout cela permet de constater l'existence de différentes utilisations et capacités politiques (performatives) des ph des matrices culturelles dans la constitution de la nation basque.*

*"les émotions ne sont pas moins rationnelles que la pensée et qu'elles ne sont pas innées, c'est-à-dire qu'elles ne se manifestent pas indépendamment d'une médiation culturelle"<sup>1</sup>*

(Cotte, 2012:15)

Up-ek dituzten ezaugarri desberdinen artetik (*haustura* eta *distantzia* -objektibazioak eta "normalizazioak"-), *gozamena* sortzea da, zalantzarik gabe, bere ezaugarri esanguratsuenak. Hainbat elkarrizketatuk [E8] [E12] [E16] [E19a] "umore" deitu diote horri, up-ek sortarazten duten sentsazio multzoari, eta up-ak up izan daitezen ahalbidetzen dituena, hain zuzen ere, "umoretsuak" izatea dela azaldu dute. Baina "up-ak umoretsuak direla" esateak dakarren tautologia antzua ekiditearren up-ek sortarazten duten sentipena gozamen gisa ulertu dugu guk. Izan ere, uste dugu elkarrizketatuek up-ak "umorea" sortzen dutela

1 ["Emozioak pentsamendua bezain arrazionalak dira, eta ez dira berezkoak, hau da, ez dira mediazio kultural batetik at jazotzen."]

aditzera ematean agerrarazi nahi dutena positiboa eta atsegingarria den sententzia zehatz bat dela. Hain zuzen ere up-ek bakarrik sor dezaketen katarsi zoriontsu jakin bat, barre egin arazteko gai dena (baina ez halabeharrez) eta kontrolatu badaiteke ere, oro har menderatzen zaila dena<sup>2</sup>. Gozamen adiera modu zabalean erabiltzen dugu beraz, horren baitan up-ek sortarazi ditzaketen hainbat emozio desberdin atxikiaz; alaitasuna, poztasuna, askatasuna, lasaialdia edo dibertsioa, esaterako. Baina tentuz ulertu behar da esandakoa, ordea, honekin ez baita aditzera eman nahi up-ak direnik *gozamina* edo plazera sortarazten duten komunikazio harreman/diskurtso bakarrak, baizik eta komunikazio harreman/diskurtso batek halabeharrez sortu behar duela *gozamina* up izateko<sup>3</sup>.

*Gozamina* sortzeko gaitasunak up-en nolakotasunean duen garrantziaz jabetzeko baliagarria da plazerik gabeko "up-ak" (hala dei badakieke behintzat) behatzea. *Haustura*, *objektibazio* eta "normalizazio" bat sor ditzaketen diskurtsoak gozamenik gabekoak direnean nekez hautemango dira up lez, eta horren ordez, komunikazio harreman/diskurtso horiek birao, irain edo errespetu falta gisa interpretatuak izateko aukera handiak izango dituzte. *Gozamina* ez baitagokio soilik sententzien munduko hautemate positiboei, baita diskurtso desberdinei egotzen diegun zilegitasun mailari ere. Hots, komunikazio harreman/diskurtso jakin bat irain edo birao gisa ulertua bada, horrek agerian jartzen du diskurtsoak hartzailearentzat laidogarria den irakurketaren bat helarazi duela. Hau da, desadostasuna dagoela edota ez dela zilegitzat jo bertan komunikatutakoa, eta hain zuzen ere horregatik, ez duela diskurtsoa gozagarritzat jo. Up-en *gozamenak* berekin dakar diskurtso batekiko

—  
2 Elkarrizketatuen aipuetatik ateratako definizioa da.

3 Tesiaren hasieran aipatu den gisan, ez da gure helburua up-ak zer diren definitzea, baizik eta haien prozesua ulertzea. Ondorioz, batetik, aipu honekin ez da up-ak zer diren definitzeko intentziorik dagoenik ulertu behar; eta bestetik, gozamenarekiko egin den lotura honetan, plazera sortzea halabeharrezko ezaugarritzat jotzen badugu ere, ez dugu uste honakoa aski denik komunikazio harreman/diskurtso bat up kontsideratua izateko ere, besteak beste ikerketa honek agerian duelako up-en mediazioak plazera sortzeaz gain beste hainbat ezaugarri ere badituela: *haustura* eta *distantziak* sortzeko gaitasuna, esaterako. Hala, *gozamina* up-en mediazio prozesua ezaugarritzen duen beste bereizgarri gisa ulertzen dugu, zeina behar bada besteak baina nabarmenagoa egiten den gizarte mailan up-ei lotzen zaion nolakotasun nabarmen edo ezagunena izateagatik.

gutxieneko onargarrtasun eta zilegitasuna<sup>4</sup> (modu aurre-arrazionalean bada ere), eta hori konpartitzea, baieztatzea edota onestea nahitaezko baldintza da plazera sentitzeko. Gure ustez, beraz, up-etan *gozamenaz* aritzeak zilegitasunaz aritzea dakar funtsean.

Baina up-ek *gozamina* ezinbestekoa badute ere, gozagarria dena eta ez denaren hautemana aldagarria da, eta horren ondorioz, baita komunikazio harreman/diskurtso bat up gisa ikustea edo ez. Zerk egiten du, beraz, komunikazio harreman/diskurtso bat gozagarria izatea eta up gisa bizitzea? Orain arte aipatzen gatozen hainbat adibideetan antzeman da up-a gozagarria izateko zenbait faktorek eragina dutela. Aurreko atalean ikusi da euskal nazioa ulertu, hauteman, bizi eta irudikatze modu anitzak daudela. Euskal nazioa "bakarra" bada ere *objektibatu* eta "normalizaturiko" irudikari desberdinen arteko diskurtsoen elkar-harremanek osaturiko nukleo aberats eta aldakorra du: *nukleo irudikatu multipolar* gisa izendatu duguna. Baina irudikari desberdinen arteko harreman horiek, ordea, ez dira beti modu parekidean jazotzen, eta beraz, up diskurtso/irudikarien eraginkortasun eta zilegitasuna, bai eta up diskurtso/irudikari batzuek eta besteek euskal nazioaren performaziorako duten gaitasuna ere, desberdina da harreman horren eraginez. Orain arte aipatzen gatozen adibideak kontuan hartuta bi dira diskurtsoen elkar harremanean (eta beraz horien gozagarritasun eta up izaeran) eragina dutela agerian jarri duten faktoreak. Batetik, hartzaileak eta emaileak elkarrekiko duten botere-harremana, eta bestetik, up hartzaile eta emailearen matrize kulturalen arteko distantzia dira aipagarri.

Up bat gozagarri suertatzeko hartzaile eta emailearen arteko botere-harremana parekide gisa hautematea beharrezkoa da<sup>5</sup>. 3. *La nation* kapitulu

—  
4 Irain edo birao batek gozamina sor dezaken egoerarik egon badagoela kontuan izan behar da edonola ere. Besteak beste, irain baten igorleak gozamina, askatasuna, lasaitua, ea. sentitu baititzake inor/ezar laidotzean. Baina kasu honetan, komunikazio harreman/diskurtso batean parte hartzen duten guztien plazera hartu nahi da kontuan, komunikazio harremanaren alde bakarreko gozamenaren ordez, igorle eta hartzaileak konpartitzen duten sentimendu atsegin gisa funtzionatzen duena.

5 Parekidea "hauteman" behar dela diogu, gerta daitekeelako parekide ez izanik ere desoreka horren jabetzarik (erreflexibotasunik) ez edukitzea, eta beraz, botere-harremana egonik ere up-a gozagarritzat jotzea. Honakoa bistakoa da, besteak beste, "biolentzia sinbolikoa" eman/onartzen den kasuetan.



aipatu den adibidea birgogoratuko dugu hori argiago ikusteko. Euskal nazionalismoak XIX. mendean Espainiatik euskal nazioaren inguruan eginiko up-ak umiliagarri gisa ulertzea espainiar estatuaren aldetik jarduera zapaltzaile bat nozitzen zelako pertzepzioak sortarazten zuen. Hau da, botere-harreman desorekatuen pairakuntzaren burujabetzak. Gaur egun, aldiz, diskurtso haien oso antzekoak darabilten up-ak (*Vaya Semanitas* helarazitakoak, kasu) onartzen eta sustatzen dira, euskal nazionalismoaren aldekoak direla eta "gure buruez barre egitea onuragarria dela" iritzita. Hots, parekideen arteko up trukaketa dela hautemanda. Up-ekiko ikuspegi aldaketa, kasu honetan, horien egiletza euskal kolektiboari egozteak dakar, non, botere-harremanik dagoenik ez den antzematen, eta ondorioz, espainiar kultura nazionaletik helarazitako diskurtsoekiko desberdintzat jotzen diren, nahiz eta muinean diskurtso bertsuak darabiltzaten biek. Hemen ikus daiteke nola diskurtso bera (edo ia berdintsua dena) arbuatua edo indartua izan daitekeela egile eta hartzailearen artean dagoen botere-harremanaren pertzepzioaren arabera. Eta zehazki, *gozamina* sentiarazteko botere-harreman hori ahalik eta parekideen hautematea beharrezkoa dela irain edo zapalkuntza gisa ulertua izan ez dadin, eta ondorioz, up-a zilegia dela sentiarazteko.

Baina bada besterik ere. Matrize kultural apostatak eta hegemonikoak aztertu direnean ikusi da, hartzaileak eta emaileak duten matrize kulturalaren antzekotasuna handia denean up-ek arrakastatsuak izatea lortzen dutela, edo bestela esanda, gozagarri suertatzen direla. Matrize kulturala berdintsua izateak errealitate sozialarekiko ikuspegia ere berdintsua izatea bermatzen du, eta beraz, errealitate(areki)ko diskurtsoak konpartitzeak up-aren *gozamina* modu antzekoan bizitzea dakar. Hala, esaterako, elkarrizketatuen artean *gozamina*

errazago partekatu da hartzailea eta emailea matrize kultural berdintsuari dagozkien kasuetan (emailea eta hartzailea apostata edota hegemoniko direnean). Eta alderantziz, *gozamina* sentitzea zailagoa da hartzailea eta emailea, bakoitza, matrize kultural desberdinekoa denean.<sup>6</sup>

Hori kontuan izanik, eta orain arteko up-en analisiak agerian jarri dituen bi elementu horiek bere horretan hartuz gero, alegia, horietan gehiago sakonduko ez bagenu, esan genezake matrize kulturalak eta botere-harremanek up-en "edukiei" eta "agenteei" dagozkiela hurrenez hurren. Esan nahi baita, irakurketa azkar bat eginez pentsa liteke batetik, up-a gozagarria dela helarazten duen "edukia" hartzailearen matrize kulturalaren ikuspegiarekin bat egiten badu. Eta bestetik, gozagarritasuna sortuko dela up-an parte hartzen duten "agenteek" elkarrekiko botere-harremanik dagoenik hautematen ez badute. Baina gure aburuz, honako planteamenduak sakontasun gehiago eskatzen du eta up-en analisiak agerian jarritako matrize kultural eta botere-harremanen afera ez dagokie bi kategoria analitiko desberdinei ("edukiak" eta "agenteak") baizik eta horiek biak elkartzen dituen bakar eta berdin bati baizik. Sakon dezagun ideia honetan.

Up-etan parte hartzen duten matrize kultural eta botere-harremanen bilakaerak arretaz begiratzuz gero, bi faktoreek elkarrekiko dituzten desberdintasunak baino loturak sendoagoak direla ikus daiteke. Izan ere, egin diren behaketa eta elkarrizketek erakutsi duten moduan, matrize kultural berari dagozkion subjektuek ez dute soilik errealitate soziala modu berdintsuan ulertzeko gaitasuna, baizik eta horretaz gain, edo hobeto esanda horregatik, elkarren artean parekide gisa hautematen dira, hau da, botere-harremanik gabeko lez. Bai eta bestela ere, botere-harremanik dagoenik hautematen ez

6 Harreman horretan datu esanguratsu bat azpimarratu behar da, izan ere, oro har matrize kulturalen arteko harremana testuan aipatu bezala suertatzen bada ere, zenbait elkarrizketatutako bestelako joera batzuk erakutsi dituzte haien gozamenen. Bi ganu dira aipagarri: batetik, ikusi da emailea eta hartzailearen arteko gozamina lortzea errazagoa dela biak matrize kultural hegemonikoari dagozkionean, eta ez ordea, biak apostatak direnean. Izan ere 5.3 *Distantzia* kapituluaren ikusi den bezala, apostatak direnen artean hegemonikoen artean baino diskurtso eta euskal nazio irudikapen aniztasun handiagoa dago, eta beraz, elkarren arteko desorekak ugariagoak eta arruntagoak dira hegemonikoan baino. Bestetik, matrize kultural desberdinetako hartzaile eta emailearen arteko up-en *gozamina* zailagoa da hartzailea hegemonikoa denean, eta aldiz, *gozamen* hori sentitzea errazagoa da hartzailea apostata denean. Hau horrela izatea botere-harreman desorekari esleitzen diogu, eta zehazki, matrize kultural apostata dutenak inguru sozial hegemoniko batean hazi eta bizi zeari, non, gehiago edo gutxiago, ikuspegi hegemonikoak barneratuak dituzten, eta neurri batean, baita gozamenarako gako jakin batzuk ere (hegemonikoak direnak, hain zuzen ere).

duteren artean matrize kultural bera konpartitzen delako sentipena dago<sup>7</sup>. Hartara, matrize kulturalen arteko desberdintasunak botere posizio desberdinen luzapen bat direla ulertzen dugu, edo funtsean, elkar lotuak daudela eta elkarrengandik bereizteak beharrezkoa ez den "zauri" analitiko bat egitea dakarrela.

Baina matrize kultural eta botere-harremanak modu idealean elkarrengandik bana ezinak direla antzematen bada, nola uler daiteke up-en gozamenerako jitea? Kasu honetan, ez da ukatu nahi matrize kultural eta botere-harremanek up-en gozamenen eragina dutenik baina ez dugu uste faktore erabakigarriak direnik ere, eta horren orde, bi horiek baldintzatzen dituen bestelako aldagai bat arreata handiagoz behatu behar delakoan gaude, matrize kultural eta botere-harremanen eragina kasuan kasu aldarazteko gaitasuna duena. *Espazioa*, hain zuzen ere.

Gorago aipatu den moduan, gogoan hartu behar da euskal nazioa irudikatze diskurtso/irudikari anitzak erakutsi dituztela up-ek (5.3. *Distantzia*). Kapitulu honetan zehar ikusiko den bezala, ordea, ikuspegi desberdin horiek ez dute gozamen maila berbera eskuratzen kasu guztietan, eta beraz, up-en zilegitasuna eta performatzeko gaitasuna ere, ez dira berdintsuak batetik bestera.

Hasiera batean pentsa zitekeenaren aurka, up jakin bat inguratzen duen matrize kultural eta botere-harremanek haren gozamenen eragina badute ere, bi aldagaiak ez dira finkoak ez eta betierekoak izango, eta ondorioz, kasutik kasura up baten zilegitasuna aldagarria izan daiteke. Hots, matrize kultural apostatak sorturiko up-a izateak edota up-a botere-harreman zapaltzaile baten baitan egokitua egoteak ez du esan nahi horren zilegitasuna urria (eta

7 Puntu honetan azalpen bat gehitu nahi dugu. Izan ere ulertu behar da matrize kulturalak (hegemonikoak eta apostatak) tipo ideal gisa formulatuak izan direla ikerketarako, eta ondorioz, ezin berma daitekeela matrize kultural bakoitzaren baitan kokatu ditugun kasu guztiek beraien artean talde homogenea osatzen dutenik. Hala, gerta liteke matrize kultural apostataren baitan daudenen artean zenbait errealtate sozialekiko erabateko adostasunik ez egotea. Kasu horretan, eta nahiz eta guk matrize kultural berdin eta bakar baten baitan jarri ditugun, eta ondorioz, haien artean parekide direla ulertzen dugun, gertagarria da errealtate soziala berdin-berdin ulertzen ez duten neurrian, puntu horri dagokionez elkarren artean botere-harremanik ere egotea. Edonola ere, ikuspegi zabal batetik behatuta, botere-harreman eta matrize kulturalen artean testuak aipatzen duen joera orokorra gailendu da: matrize kultural beraren baitako elkarrizketatuek elkarrekiko botere-harremanak apenas nabarmendu baitituzte, eta bai ordea, bestelako matrize kulturaleri dagokienez.

*gozamena* eskasa) izan behar duenik beti. Eta berdina alderantziz ere, alegia, matrize kultural hegemonikoaren edota botere-harreman batean nagusitasuna duenaren up batek ez du bermatzen honakoa halabeharrez zilegitasun (eta gozamen) handikoa izango denik. Hala, matrize kultural apostata eta hegemonikoko up-en norgehiagokak botere-harremanean finkatzen badira ere, up-ek dituzten gozamen (zilegitasun) desberdintasunen oinarria ez datza hainbeste euskal nazioaren inguruko iruditeria desberdinak izatean (matrize kultural desberdinetan), eta ondorioz ikuspegi desberdinen oinarri eta ondorio diren norgehiagokan (botere-harremanetan). Horren orde, gure ustez, iruditeria desberdin horiek gizarteratuak direnean erabiltzen diren espazioen kudeaketan datza gakoa.

*"zuk umorea publiko zabalean egiten duzunean, ikuslego edo entzule eta irakurleen esparru zabal bati ari diozunean, ardura desberdina da. Zeren hor ai zea postura bat hauspotzen. Ez da lagun bati txiste bat kontatzea bezala, hor lasai gozatzen duzu, zure esparru intimoan bezala, hori neurtzea errazagoa da. Baina bestean, mezu bat zabaltzen ai zea gizartean, eta gizarteak horren aurrean erreazionatzen du."* [E14]

Elkarrizketatu apostataren aipuak argi adierazten du espaziotik espaziora aldea nabaritzen duela, espazioaren arabera up-en eragin esparrua bai eta hortik sor daitezkeen ondorioak ere desberdinak direla. Zehazki, arreata handiagoz begiratzen dio "publiko zabalean" (espazio publikoan) egiten dituen up-ei, "mezu bat zabaltzen" ari delako jabetza baitu eta neurri batean, mezu edo diskurtso hori gizarteak ikusi, entzun bai eta ebaluatuko duelakoan dago, aurreikusi edo kontrolatu ezin dituen ondorioak sortarazteko arriskuaz, beti ere. Aldiz, up-ak helarazterakoan erosoago sentitzen da "*esparru intimoan*", bere up apostaten irakurketa eta ondorioak "neurgarriago" edo kontrolatuagoak izateko aukera gehiago duela aditzera ematen baitu.

Ikus liteke kasu batean zein bestean up-a ez dela aldatzen baizik eta up-aren testuingurua (espazioa) dela aldatzen dena: elkarrizketatuak "zabaletik" "intimora" gisa izendatzen duen aldaketa eginez, hain zuzen ere. Baina aldaketa honekin up-ak bilakaera handi bat jasaten du eta inguratzen duen espazioaren

tasunaren arabera matrize kulturalaren zilegitasuna eta botere-harremanak ere aldatu egiten dira, eta ondorioz, up-aren *gozarena* desberdin hauteman daiteke, "lasai gozatzeko" aukera edukiaz, edo ez.

Zerk aldarazten du espazioaren tasuna, ordea? Zerk egiten du bata "zabala" eta bestea "intimoa" izatea? Ikerketa honetan aztertutako izan diren up guztiak espazio publikoan jazo dira, edo bestela esatearren, potentzialki edozein ikuslek hauteman ahal izateko esparrutan izan dira produzituak. Baina egin diren behaketek erakutsi dute, publiko gisa uler daitekeen espazioaren baitan desberdintasunak daudela kasutik kasura, eta guztiak publikoak izan arren, batean eta bestean ahalbidetzen (eta galarazten) diren interakzio sozialak desberdinak izanagatik beraietan egiten diren up-ak ere desberdinak direla, eta ondorioz, baita horien *gozarenaren* hautematea ere.

Izan ere, espazio publikoa modu irekian ulertu behar da. Ez dugu soilik subjektu guztiak legalki erabiltzeko eskubidea duten esparru gisa entenditzen (Loflan, 1985:19); ez eta 90. hamarkada bitarte nagusi izan den ikuspegi teknikorik mugatzen ere, zeinak eraikinen arteko hutsuneak ahalbidetzen duen hiritarren kasualitatezko topagune komun gisa ulertzea ekartzen duen (Lynch, 1985; White, 1988; Rapoport, 1978). Horren ordez, filosofia politikotik abiatzen dugu kontzeptuaren urreratzea eta ikuspegi espazialaz gain (fisikoa), harreman sozialak eraiki eta kudeatzeko prozesu gisa planteatzen dugu; askatasun formal (publiko) eta lege aurreko berdintasunaren diskurtsoan oinarritzen den dominazio politiko eta zentsura moralaren instituzionalizazioarekin zer ikusia duena (Delgado, 2011: 28). Urrundu egiten gara, beraz, harri, beira eta adreiluz markaturiko distantzia urbanoak ulertzeko terminotik, bai eta subjektu anonimo eta emantzipatuen arteko komunikazio harreman parekide eta kontsensuzkoak burutzeko eremuaren uste idealizatutik ere. Eta horren ordez, topografia jakin batean/batek/batetik bideratu (neuritu, kontrolatu, zentsuratu, sustatu eta baldintzatu) diren interakzioen gauzatze esparru/prozesu politiko gisa ulertzen dugu espazio publikoa.

Espazio publikoa ez dugu, beraz, "askea" denik kontsideratzen. Botereak kudeatzen duen eremu lez ulertzen dugu, eta hartara, espazio publikoan jazotzen diren gertaera eta harreman mota guztiak ere, botere-harreman horiek baldintzatuak daudelakoan gaude (Foucault, 1999). Zentzu honetan, Edward

Sojak (2000) hiriaz egiten duen hausnarketarekin bat egiten dugu. Autoreak dio urbanizatua izatea "polis"-aren existentzian oin hartzen duen kultura eta ideologia baten partaide izatea dakarrela halabeharrez. Ideia horren luzapena eginez espazio publikoa kultura eta ideologia horren gauzatzea (bi zentzutan: gauza, fisiko ukigai, egitea eta burutzea) ahalbidetzen duen eremu/prozesu gisa ulertzen dugu. Espazio publiko horretan/horrek/horretatik kudeatzen dira subjektuen arteko interakzioak, bai eta errealtate soziala, egunerokotasuneko jardun "normalizatua" eta horri buruzko ikuspegi eta usteak, erreproduzitu ere.

Baina kudeaketa hori ez dago guztien esku, edo ez behintzat modu berean, eta horren ordez botere hegemonikoak normalizaturiko interakzio sozial eta mundu ikuspegiak nagusitzen dira, hain zuzen ere, botere korrelazioen ondorioz (hegemonikoaren autoritatez, gehienetan) eratzen den errealtate sozialaren agerpen materializatua eta horiek birsortzeko joko-zelaia baita. Hala, espazio publikoa, Manuel Delgadok (2011), boterea (estatua) eta gizartearen arteko mediazio gisa ulertzen duena, demokratiko, arazo gabeko, otzan eta parekide bailitzan azaltzen bazaigu ere, botereak bere gailentasuna mantendu eta bermatzeko interesarekin kontrolatu eta kudeatzen duen eremua da batetik, eta menperatuak botere hori bereganatu, "normaldu" eta erreproduzitzeko modua, bestetik.

Irakurketa hori up-en alorrera hurbilduta, gure ustea da espazio publikoan egiten diren beste edozein gisako interakzio edo komunikazio harremanekin gertatu bezala, espazio publikoko up-etan ere botereak esku hartzen duela, eta zehazki, up-ak kontrolatu eta kudeatu, (des)zilegitu, eta finean, gozagarri edo gaitzesgarri gisa identifikatu eta performatzeko gaitasuna duela, beti ere espazio publikoaren eraketa orokorrarekin koherentzia mantenduz. Hala, eta ikergaira hurbilduz, gure ustez matrize kultural hegemonikoak (botereak) duen euskal nazioaren inguruko diskurtso zilegituaren erronka handiena ez datza hainbeste up-en edukien kontrolean, baizik eta up-ak kudeatzen diren espazioen jagoletzan; eta gero bai, kontrol-kudeaketa honen ondorioz, up-en matrize kultural eta botere-harremanak baldintzatuak suerta daitezke.

Horrela pentsatzeko motiboa ondokoan oinarritzen dugu: Barberok mediazioaz esandakoa kontuan izanik (Barbero, 1991), botereak (kasu honetan

euskal matrize kultural hegemonikoa kudeatzen dutenak, besteak beste euskal nazionalismoak) euskal nazioaren nukleo irudikatu jakin bat sortzeko baliabide sinbolikoak erabiltzeko gaitasun (botere) eta zilegitasun handia badu ere, ezin ditu bereak bezalakoak ez diren ikuspegiak erabat baliogabetu edo desagerrarazi. Esan nahi baita, matrize kultural hegemonikoak diskurtso "normalduaren"/ zilegiaren jabetun izanik eta hori gizartean helarazteko baliabide ugari edukirik ere, ezin berma dezake bere diskurtsoak kasu guztietan eragina izango duenik<sup>8</sup>. Ez eta gizartean maila sozial desberdinetan ematen diren interakzio guztiak kontrolatu, botereak zilegituriko diskurtsoak soilik erreproduzitzen direla ziurtatzeko ere. Egoera horren aurrean, beraz, botereak bestelako irakurketa bat egiten du, hain zuzen ere zerbaitek bere presentzia publiko<sup>9</sup> bermatzeko nahiko botereak ez badu oro har existitzeko gaitasunik ez duela pentsatzekoa. Hartara, gizarteko diskurtso guztien edukiak gainbegiratu ezin baditu horien hedapenerako espazioak kontrolatzeko ahalegina egiten du, hori baita, hain zuzen ere, diskurtsoak (up-ak) "desagerrarazteko" bere eskuetan dagoen bide eraginkorrenetarikoa bat.

Horren arabera, up-en arteko harremanek, eta zehazki botere-harremanek, baldintzatzen duten up-en diskurtso/irudikarien zilegitasuna (*gozamena*) ez datza diskurtsoaren ("edukiaren") edo egilearen ("agentearen") tasunean, baizik eta up-a inguratzen duen espazioan (gure kasuan espazio publikoan), eta are zehatzago, azken horiek (egileek) up-ak gauzatzen diren espazioa kontrolatzeko eta kudeatzeko duten ahalmenean.

Izan ere, espazio publikoaren kudeaketa eta horri lotuta doakion boterearen presentzia eta esku hartzea ez dira berdinak kasu guztietan. Ikerketak agerian jarri du lekutik lekura aldatu egiten dela bai espazio publikoaren kontrol maila, bai eta, ondorioz, bertan eman daitezkeen (eta eman ezin diren)

8 Eta hain zuzen ere horren adibide argiena euskal nazioaren inguruan nukleo irudikatu multipolarra dagoela ikustea da. Hots, hegemonikoaz gain apostatak diren ikuspegiak ere existitzen dutelako testigantza.

9 Kasu honetan "publiko" diogunean gizartean agerikoa dena edota guztiek horren jabetza dutela edo eskuratzerik badutela aditzera eman nahi da.

diskurtso, errealitate sozial edota interakzio harremanen ezaugarriak<sup>10</sup>. Hala, jarraian ikusiko den moduan, espazio publikoaren kudeaketa nagusia botere hegemonikoaren esku dagoen arren (kaleak, plazak, boulebarrak, ea.), espazio publikoari dagozkion zenbait eremu fisikotan (zenbait tabernetan, Gaztetxetan, ea.) boterearen aldetik jasotzen den kontrola malguagoa izan ohi da (beti ere up-ez ari garela gogoan hartuz<sup>11</sup>). Ondorioz, bertan ahalduntzea, hau da, espazio publiko hauen kontrol eta kudeaketa gaitasuna eskuratzea errazagoa izan ohi da subjektuentzat, eta honek ahalbidetzen du zilegi diren eta ez diren matrize kulturalak eta horien diskurtsoak, botere-harremanak, eta finean, up-en *gozamena* nagusi diren espazio publikoetan jazotzen direnetatik desberdina izatea.

Jarraian lantzen diren kapituluetan sakonago aztertzen dira aipatutako joera horiek. Horren bidez agerian jartzen da espazioaren bilakaerak up-en gozagarritasunean nola eragiten duen bai eta kudeaketa desberdineko espazio publikoetan up apostata eta hegemonikoek duten garapena nolakoa den ere.

Bi azpiataletan banatu da informazioa. Batetik, boterearen kontrol maila altua dagoen *espazio publiko hegemonikoan* up apostatekiko jarrera eta up hauekiko kontrola nolakoa den aztertzen da, behaketan topatu diren bi adibide esanguratsu aipatuz horretarako: Altsasuko *Ospa Eguna*, eta Bilboko *Konpartsen desfilea*. Bestetik, espazio publikoaren kontrol maila altu horrek galarazten dituen up apostatak garatzeko alternatiba gisa, kontrol maila baxuagoa duten *espazio publiko apostaten* erabilera nola lantzen den eta espazio hauekiko zein bertan egiten diren up-ekiko hautemateak, hausnarketak eta finean up-en gozamenak nolakoak diren zehazten da. Horretarako up apostatak burutzen dituztenen testigantzak erabili dira oinarri gisa.

10 Modu iragazkor batean ulertu behar da esan berritakoa, alegia, espazio batek duen kudeatzeko mailaren arabera interakzio jakin batzuk (eta ez besteak) ahalbidetzen dira, eta beraz, espazioak baldintzatzen ditu bertako harremanak; baina baita alderantziz ere, jazotzen diren eta oztopatzen diren interakzioen arabera aldatzen baita espazioaren izaera.

11 Honakoa diogu gerta litekeelako up-ak ez diren bestelako prozesu edo praktikan joera desberdina izatea

#### 5.4.1. Espazio publiko hegemonikoko up topaketak

Espazio publikoak up-en gozamenen duen eraginaz esan berritakoa sakontzeko, lehen atal honetan, espazio publiko hegemonikoan up apostatak nola kudeatzen diren argitara ekartzen da. Horretarako, landa lanean topatu diren bi adibide esanguratsu aipatzen dira: Altsasun (Nafarroa) egiten den *Ospa Eguna* batetik, eta Bilboko (Bizkaia) inauterietako *Konpartsen desfilea*, bestetik<sup>12</sup>. Baina up kasu horien inguruko hausnarketa orokorretan sartu aurretik, beharrezkotzat jotzen dugu bakoitzaren ezaugarri nagusienak banan-banan azaltzea.

##### - *Ospa Eguna*

Aipatzen gatozena ikusteko adibide ona da 2011an Altsasun egindako *Ospa Eguna*.

Altsasuko egunerokoa definitu beharko balitz, "lasaia" edota "baketsua" dela esan liteke: ez dago gatazka soziopolitiko esanguratsurik, ez eta bizi soziala aztoratzen duen arazo larri edo deigarrikeria ere. Baina hala eta guztiz ere, polizia kopuru izugarri altua dute herrian. Adierazgarriak diren zenbait datu har daitezke adibidez: 8 mila biztanle inguru izanik, 9,2 polizia daude mila biztanleko, espainiar estatuko bataz bestekoaren hirukoitza; hilabeteko epean, herritarrei jarritako isunen batura 12 mila eurotik gorakoa izatera iritsi da zenbait kasutan; eta herri inguruan 40tik gora kontrol polizial zenbatu dituzte, eguneko bat baino gehiago, alegia [E23].

Poliziaren presentzia jarrai hori azaltzen duen arrazoirik ez dagoela ikusita, 2011n egoera honi aterabide bila hasi ziren zenbait herritar, eta kexak helarazteko

12 Ohar bat gehitu nahiko genuke, izan ere kontziente gara bai Altsasuko *Ospa egunean* bai eta Bilboko inauterien gatazkaren adibidean, ikuspegi asko egon litezkeela eta up-ez gain, kasu horiek bestelako errealitate politiko, administratibo, ekonomiko, kultural edo sozialekin zerikusia izan dezaketela. Hori dela eta, gure irakurketa eta ondorioak, up-ekin harremanetan jartzen direnak, egoeraren irakurketa orokor eta zabal bat burutzeko balioak edo eskasak izatea ulertzen dugu, azken finean gure helburua ez baita gatazka orokorraren berri ematea, baizik eta gatazkan parte hartzen duten up-ekin lotura duten errealitateak ezagutzea. Halaber, aurrez esanda doa, irakurketa hauek up-en gain balorazio bat egitea ekidin nahi dutela, up-ak soilik aztertuko badira ere dena up-ak direnik ez baitugu uste. Hala, Altsasu zein Bilboko kasuetan egon litezkeen bestelako irakurketen egiazkotasuna ez dugu zalantzan jartzen, azken finean guk egiten dugun ekarpena, beste irakurketa batzue(ki)n osagarria izan litekeela uste baitugu.

bitarteko desberdinak sortu zituzten horretarako. Batetik, udaletxean (Bildu agintean zegoela) "batzorde antierrepresibo" deitu zitzaion taldea osatu zen, egoeraren nondik norakoak ikertu eta herritarren eskaerei erantzun bat ematea helburu zuena. Eta bestetik, zenbait herritarrek *Ospa* asanblada eratu zuten, zeinak "Alde Hemendik" inizatiba berrartuz, indar polizialen aldetik herritarrek jasaten zuten errepresioa salatu eta desmilitarizazioa eskatzeko ekimen desberdinak burutzen hasi ziren. Testuinguru honetan sortu zen *Ospa Eguna* ere, jazarpen poliziala salatzeke helburuz herritarrek emango zuten beste urrats gisa eratu zena.

Baina urrats horrek bazuen berezitasunaik. Izan ere ordu arte egindako ekintzak ez bezala, *Ospa Eguna* egoera hura gaitzesteko egin zen aurrenetariko up-a izan zen. *Ospa Eguna* herriak bizi zuen presentzia poliziala salatzeke xedez burutu zen egun osoko parodia zen, zeinetan ehunka altsasuarrek parte hartu zuten indar polizial eta militar desberdinen uniformeaz mozorroturik<sup>13</sup>. Desfile polizial/militarra; praktika militarren irudikapena; Espainiako erregeari egindako agur ofiziala; bonba abisuaren simulazioa; eta beste hainbat performance eta ekitaldi egin ziren, beti ere, salatu nahi zen egoeraren hiperbolea ardatz hartuta.

Ekintza horiek burutzeko herriko kale eta eraikin desberdinak erabili ziren eta herriko espazio publiko hegemonikoaren ohiko erabilera eta itxura erabat eraldatu zituen parodiak. Kale eta balkoiak espainiar banderez apaindu zituzten; plaza eta eraikinei ohikoak ez ziren erabilerak eman zitzaizkien (*Ospa Egunaren* beharren arabera erabili ziren) eta parodia ikustera hurbildu zirenez bai eta mozorroturik zihoan jendez bete zen herria<sup>14</sup>.

Baina "salaketa umoretsua" izateko asmoz sortu zen ospakizunak altsasuarrek aurreikusi ez zituzten ondorio zabalak sortarazi zituen. Izan ere, posizio boteretsu/zilegietan zeuden zenbait instituziok berehala erreakzionatu zuten herrian gertatutakoaren aurrean. Jazo ziren erreakzio horien artean

13 Polizia foralez, espainiar legionarioz, polizia nazionalaz eta guardia zibilez jantziak.

14 Irudiak hemen ikusgai: *Ospa Eguna*, (2011).

aipagarrienerako bat *Asociacion de Victimas del Terrorismo*<sup>15</sup>-k Espainiako Audentzia Nazionalen kereila kriminala ezartzea izan zen. Salaketak argi erakutsi zuen berehalako erreakzio horren motiboa zein izan zen: espainiar estatuko sinbolo eta instituzioei olgeta egin izana leporatu zituztazien altsasuarrei. Hiru ziren, hain zuzen ere, salaketak azpimarratzen zituen kalteak: batetik, 2011an espainiar estatu burua zen Juan Carlos erregearen irudia kaltetzea; bestetik, espainiar Legioa irudikatzeko erabilitako Jesukristo gurutzean irudikatzen zuen panpina eramateagatik katolikoen sentimendua iraintzea; eta azkenik, estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen irudia laidozteza [E23].

Baina salaketak kontrako agertzen bazuen ere, arazoa ez zetzan upen diskurtso/irudikarieretan (*haustura, objektibazio* eta "*normalizazioetan*"), diskurtso/irudikari horiek helarazteko aukeraturako espazioan baizik. Izan ere, kontuan hartu behar da *Ospa Eguna* burutu aurretik ere, herritarrek parodian agerian jarritako iritzi eta diskurtso berberak konpartitzen zituztela beraien artean. Alegia, presentzia polizialaz gogaiturik halako adierazpenak altsasuarren interakzioen eta errealitate sozialaren parte zirela, elkarren artean partekatutako egiten baitzituzten egoeraren inguruko iritziak, txistek eta kexak, eta hain zuzen ere diskurtso sozial horiek lehendik ere egoteak ekarri zuela *Ospa Egunaren* zertzea.

Baina egoera polizialaren inguruko diskurtso horiek esparru pribatuetan egin ziren ordu arte, lagunarteko aldizkako eztabaidetan, berdinen arteko interakzioetan edota konfiantzazko eremuetan partekatuz soilik. *Ospa Eguna*, ordea, diskurtsoa berdimentsionatzea zekarren, eta ordu arte "itzalpean" garatzen eta osatzen joandakoak espazio publiko hegemonikoan erakutsi zituen aurrenekoz.

*Ospa Eguna* burutu arte interes gabekoak izan ziren herritarren diskurtsoak, hala, haraindiko bilakatu ziren espazio publiko hegemonikoan erakusterakoan. Edo bestela esanda, ordu arte herritarren artean halako diskurtsoak egon bazeuden arren, horiek publikoki helarazteko jarduerak sortu zuen boterearen

gaitzespen erreakzioa. Izan ere, egunerokotasuneko ordenuan antagonikoak ziren bi diskurtso/errealitate parean jartzea zekarren *Ospa Eguna*, non, indar polizial/militarren presentzia "normaldu" eta zilegia zalantzan jartzen zuen bestelako ikuspegi bat aurkezten zuen. Hain zuzen ere, indar polizial/militarren presentzia "a-normala" eta ez-zilegia zela erakusten zuen bestelako errealitate bat. Hala, diskurtso hegemonikoaren parte ziren instituzioen kontrolpeko errealitatea buruz-buru (modu agerikoan/publikoan) auzitan jarri zuen parodiak.

Honen aurrean, espazio publiko hegemonikoaren baitan sortutako "desdoia" ber-orekatzeko makineria soziopolitiko oso bat abian jarri zen berehala, zeinak diskurtso berria baztertu (edo baztergarri bilakatu) eta ordenu "normaldua" berreskuratzea zuen helburu nagusi.

Botereak bere esku zituen bitartekoak erabili zituen horretarako. Alde batetik, ordezkari publikoek, kasu honetan herriko alkateari, salaketa jarriaz: Altsasuko alkateak ospakizun hura egingo zela halaberrez jakin behar zuela, bai eta hura ekiditeko ezer egin ez zuelako ardura leporatuz. Hots, ordezkari publiko baten jarduera "normalari" ez zegokion berriazko jarrera ustez matxinatua hartzea egotziz. Bestetik, jarrera "desegoki" hura bai eta horregatik egotziko zitzaion zigorra ere komunikabideen bidez lau haizetara zabalduz. Izan ere, espainiar estatuko prentsak Altsasuko herritarrei eta alkateari emaniko jazarpen eta setiatzeek, bai eta gertatutakoaren inguruan kontatutako asmakizun eta esajerazioek ere, egindako "kaltea" eta kaltearen punizioak oihartzun izugarria lor zezan ahalbidetu zuen:

*"Beste bi gaztek ez zuten salaketarik izan baina jaso zuten medioen aldetik kriston jazarpena. Izan zirela erregez mozoratu zana eta beste gazte bat. Zenbait egunkari hasi ziren haien ambito pertsonalean sartzen, eta beraien bizitzak kontatzen eta trasgibersatzen. Ihes egin zutela Hego Ameriketara ta ez dakit zer. Ta bat zegoen han praktketan. Bat joan zen Brasilera lanera eta bestea joan zen unibertsitateko praktketara. Eta hor El Mundon agertu zen que se habían fugao (...) Komunikabideena izan zen pasada bat."* (sic.) [E24]

15 *Asociacion de Victimas del Terrorismo* (AVT), 1981ean sortu zen Espainian eta ETA-ko biktima eta biktimen senideek osaturiko elkarte da.

*"Guk ez dugu indarra komunikabidetan. Eurak dute (...) eta lortu dute beraien helburua: alkatea Audientzia Nazionalera ematea, eta Bilduren deslejitimazioa bultzatzea eta komunikatiboki hau parodia bat izatea. Parodia azkenean beraiek sortu dute. Beraiek egin dute zirko mediatiko hau."*

(sic.) [E23]

Gizartearentzat (Euskal Herrikoa zen Espainiakoarentzat) eredugarria zen zigor publikoa egitea zekarren horrek. Komunikabideen bitartez ospakizuna bai eta ospakizunaren gainean ezarritako salaketen berria masiboki zabaltzeak<sup>16</sup>, XIX. mende aurretik egiten ziren plaza publikoko zehapenen desinhibizio funtzioa zekarren berekin: errealitatearen ordenu hegemonikoa bai eta hori bermatzen duten instituzioen zilegitasuna kolokan jartzea debaldekoa ez zela azalduz batetik, eta horretan aritzeko asmotan zebilen beste inori gerta zekiokkeenaren lezioa erakutsiz, bestetik.

Jarrera hori are bistakoago egin zen Altsasuko alkatea zigortu ez zutelako notiziak apenas oihartzunik jaso ez zuenean. Izan ere, Altsasuko alkatea ez zen epaiaren aurrean jarri; udalak oro har, eta alkateak zehazki, *Ospa Egunaren* antolaketa eta ospakizunean zer ikusirik izan ez zutela frogatu baitzen eta karguetatik absolbitu zituzten horregatik. Baina horrek ez zuen pisurik edo garrantzirik eduki prentsan, hain zuzen ere bestelakoa zelako honen gainean indartu beharreko ikuspegi "ofizial" eta publikoa: *Ospa Eguna* "zigortua" izan (behar) zelakoa, hain zuzen ere.

Idea honi jarraiki, ordenu/diskurtso hegemonikoaren zilegitasuna indartze bidean, beste hainbat ekintza ere burutu ziren herrian, horietako zenbaitzuk esangura sinboliko handikoak. Aipagarri da, esaterako, gertaeraren ostean Guardia Zibilen zuzendari nagusia, Arsenio Fernandez de Mesak, Altsasura egindako bisita: bertako kuarteleko ofizialen lana goraiatu eta hura "ofizialki" eta publikoki balioestera joan zena. Honakoak bere adierazpen publikoak:

16 Komunikabide askok heldu zioten gaiari, adibideak hemen ikusgai: Zuloaga, J.M. (2011); *La Vanguardia*, (2011); *Diario de Navarra*, (2011); *Gara*, (2011).

*"Su compromiso con Alsasua, Navarra y España va mucho más allá del estricto cumplimiento de sus derechos o deberes individuales. La Guardia Civil en España y, por ello también en Navarra, asume voluntariamente un plus que significa un propósito personal que va mucho más allá y supera los derechos y obligaciones comunes, para servir a los alsasuaras, a los navarros y a todos los españoles"*<sup>17</sup> (Europa press, 2012)

Adibideak argierakusten du publikoki sostengatu nahizen "normaltasunaren" izaera zein zen: egindako kaltea zuzendu eta errealitate hegemonikoari dagozkion instituzioak (eta diskurtsoak) publikoki zilegitasunez janztea berriro ere.

Zigor publikoaz batera, *statu quo*a berriz kolokan jar ez zedin neurriak hartu zituen botereak. Honako jarrera antzeman zitezkeen, besteak beste, Altsasun hurrengo urteetan egin ziren *Ospa Egunei* ezarritako kontrol neurrietan. 2013koan adibidez [B24], Nafarroako espainiar gobernu delegatuak *Ospa Egune*ko bertsolariak eta herri bazkaria ez beste ekintza guztiak debekatu zituen. Alegia, errealitate sozial hegemonikoarekiko apostata izan zitezkeen beste edozein ekintza esanguratsu. Aipagarri da, kasu honetan, botereak debekatu zituen bestelako ekintza horiek zilegi ez zirela argudiatzeko erabilitako estrategia zein izan zen ikustea: zilegitasuna kentzeko honakoak ber-izendatu, eta beraz, bestelako izaera egotzi (performatu) baitzitzairen. Hala, 2013ko *Ospa Egunean* egiteko asmotan zenbiltzan *kalejira*, "manifestazio" gisa ber-izendatu zen; *jazarpen poliziala salatzen zuen deklarazio baten aurkezpena* eta honen inguruko *sinadura bilketa*, "ekintza politiko ilegal" gisa; eta *failak erretzea*, zuzenean "burutzea ezinezkoa den jarduera ilegal" moduan [E24][E23]. Esan gabe doa, agindua beteko zela ziurtatzeko Guardia Zibilak (GRS eta GAR) herrian barrena ibili zirela egun eta gau osoan zehar.

Oztopoak oztopo, *Ospa Egunak* ospatzen darrai orduz geroztik, baina presio eta kontrol instituzionalak direla medio Altsasuko espazio publiko hegemonikoan

17 ["Altsasu, Nafarroa eta Espainiarekiko haien konpromisoak gailendu egiten ditu haien eskubide eta betebeharrak indibidualak. Guardia Zibilak, Espainian eta ondorioz Nafarroan ere, borondatez hartzen du ohikoak diren eginbeharrak eta eskubideak gailentzen dituen plus bat, altsasuarren, nafarren eta espainiarren zerbitzura egoteko." ]



egiten diren up-en bidezko diskurtsoen helarazpenak nabarmenki aldatu ("leundu") dira hasierakoekin alderatuz.

- *Konpartsen desfilea*

Altsasuko adibidea ez ezik, aberasgarritzat jo dugu bestelako kasu bat ere aintzat hartzea: Bilboko inauterietako *Konpartsen desfilea*, hain zuzen ere.

80. hamarkadatik aurrera Bilboko udalak eta Konpartsek elkarrekin prestatu eta ospatu dituzte inauteriak. Aste betez, ekintza desberdinez beteriko egutegi bat adostu eta ekintza guztietan elkarlana ahalbidetu dute beti, bai eta ekintza horien artean protagonista den *Konpartsen karrozen desfilea* antolatzeko garaian ere. Izan ere, Bilboko inauterietan beste hainbat inauteri urbanoetan bezalaxe, inauterietako larunbateko (edo Igandeko) desfileak hartzen du jaien erreferentzialtasun nagusia (Aguirre, 1984), eta Bilboren kasuan Konpartsek egindako karrozak izaten dira bertan ateratzen direnak. Azken hamarkadan, ordea, udala eta Konpartsen arteko elkar-lan eta harremanen egoera guztiz aldatu da.

2003-an Konpartsetako batzuk euskal preso politikoen argazkiak atera zituzten desfileko karrozetan. Ekintza hark baina, PP alderdi politikoen desadostasuna sortu zuen eta argazkia haiek erakusteak zuen edo ez zuen zilegitasuna zalantzan jarriaz, inauterietako larunbateko desfilea bertan behera geratu zen urte hartan. Gertaera horiek ez errepikatzearen, 2004ko inauterien aurretik Konpartsek eta Bilboko udalak halakorik berriz gertatuko ez zela bermatzen zuen kontratu bat sinatu zuten elkarrekin. Urte hartako inauterietan, hala, larunbateko desfile egunaren bezperan PP alderdi politikoko zenbait zinegotzi Konpartsen karrozak ikusgai jartzen dituzten erakustazokara hurbildu ziren, besteak beste, karrozen diseinu eta dekorazioak kontratu hartan sinatutakoa betetzen ote zuen ikusteko asmoz. Baina Konpartsetako batek svastikez apaindurik zegoen Ertzaintzaren tanke bat irudikatzen zuen bere karrozan, eta PP-ko zinegotziek desfilean halakorik ateratzea iraingarria

zela iritzi zioten. Debekuaren aurrean, hartara, Konpartsek karroza estali eta "Zentsuratua" zioen kartel batekin agertzea proposatu zuten, baina horrekin ere ez zen adostasunik lortu. Egoera hartan zinegotzi eta konpartsakideen arteko tentsioa handitu eta liskarra sortu zen haien artean, eta gertaeren larritasuna kontuan hartuz urte hartan ere inauterietako larunbateko desfilea bertan behera uztea erabaki zuen udal gobernuak.

Baina zer dela eta sortzen da halako aztoramena Konpartsen up-ekin?

*Ospa Egunean* bezalaxe Konpartsen karrozen up-en diskurtsoen tasunak baino honakoak publiko egin izanak sortarazi zuen "desoreka". Hots, Ertzaintza nazien pareko hautematea edota euskal preso politikoen aldeko jarrera edukitzea badira gizartean dauden diskurtso/irudikariak, eta beraz, nahiz eta diskurtso hegemonikoarekin bat egiten ez duten, badute existentziarik. Baina existentzia hori, ordea, neurri handi batean "itzalpekoa" da, edo nahiago bada, ez da diskurtso hegemonikoen parekoa eta gizartean ikusgarriak izan badaitezke ere ez zaie trataera publiko/legitimo berbera eman ohi.

Oreka hori iraularaztea lortu zuen Konpartsen up-ak, ordea, Bilboko udalaren izenean egindako inauterien desfile publikoan agertzerakoan "hiritik" sortzen zen diskurtso gisa azaltzen baitzen (diskurtso publiko/ofizial moduan), eta horrek une batez bada ere, errealitatea hautemateko bestelako modu bat (Ertzainen aurkakoa edo euskal preso politikoen aldekoa) errealitate hegemonikoaren parean jartzea zekarren.

Boterearen eta horren instituzioen hegemonia bermatzeko, beraz, Altsasun gertatu bezala, zenbait kontrol neurri ezarri zituen Bilboko udal gobernuak. Horien artean bi dira aipagarri. Lehena *Konpartsen desfilea* "lekuz aldatzea" izan zen. Konpartsetan, eta ondorioz inauteriko desfilean, milaka pertsonak parte hartzen zutela kontuan izanik Bilboko udalak ez zituen horiek galarazi (horrek hauteskundeetan izan zezakeen ondorioengatik behar bada) eta Konpartsek desfilatzen jarraitzeko baimena indarrean mantendu zuen. Ñabardura esanguratsu bat ezarri zuen ordea: Konpartsek jada ezingo zuten, ordu arte moduan, On Diego Lopez Haroko kale nagusitik gehiago igaro. 2005etik 2013ra

arte, beraz, kale nagusia ez bestelako kaleetatik desfilatzeko "zigorra/araua" izan zuten<sup>18</sup> Konpartsek.

Gure ustez, Bilboko udalak hartutako erabaki horrek bete-betean jotzen du espazio publiko hegemonikoaren botere adierazpen batekin. Izan ere, kontuan eduki behar da *kale nagusia* Bilbo hiriaren etorbide esanguratsuenetarikoa dela:

*"La Gran Vía de Bilbao fue la nueva arteria creada a finales del siglo XIX que dirigió el cambio a la transformación y el progreso de la nueva ciudad. Desde entonces también ha sido escenario de todas las grandes manifestaciones públicas, sociales y políticas que han dirigido el camino de la vida del país. Es un tramo central en torno de la plaza elíptica, hay edificios relevantes como el Palacio Txabarri. Es donde se empezaron a concentrar las grandes mansiones de los potentados de la oligarquía industrial y banqueros del País Vasco en aquellos momentos."*<sup>19</sup> ("La república que nació en Eibar", dokumentala<sup>20</sup>)

Bilborentzat ez ezik Euskal Herriarentzat ere garrantzizkoak izan diren une historikoen testigu izan da honako kalea, eta bere egitura luze eta zabalak bai eta duen kokagune zentralak hiriko arteria nagusi bilakatzen du; garrantzia arkitektoniko edo urbanistikoa ez ezik, esangura sinboliko handia ere baduelarik. Horrenbestez, kale nagusia ez da pasabide bat (soilik), hiriaren identitatearen erakusgarri ere bada:

*"Azkenean Gran Vía zer da? Gran Vía eta erreka ondo hori ba udalaren sinboloa dira ez? Haien txokoa, balio gehiago du horrek hirian. Hori da erreferentzia"* [E10]




18 2014an Konpartsak berriro ere kale nagusitik desfilatzen hasi ziren.

19 ["Bilboko kale nagusia XIX. mende amaieran sortutako arteria berri bat izan zen. Hiria transformaziorantz eta garapenerantz bideratu zuena. Orduz geroztik, herriaren ibilbidea markatu duten manifestaldi publiko, sozial eta politiko ororen eszena ere izan da. Plaza eliptikoaren inguruan dagoen gun zentrala da. Txabarri jauregia bezalako eraikin garrantzitsuak bertan daude. Garaiko industria oligarkiaren eta bankariaren luxuzko etxeak bertan hasi ziren egiten."]

20 Irudiak ikusteko: (zuzendari ezezaguna). (datarik gabe). *La república que nació en Eibar* [dokumentala].

Hala, *Konpartsen desfilea* kale aldaketa bat egitera behartzea ez da espazio fisikoaren desplazamendu gisa ikusi behar soilik, baizik eta aldaketa edo erauzketa sinboliko bat bezala. Udal gobernuaren begietan Konpartsak ez ziren gehiago Bilboren identitatea/diskurtsoa/irudikaria ordezkatzeko baliagarriak. Bestela esanda, hiriaren identitatea/diskurtsoa/irudikaria (hegemonikoa) arriskuan jartzen zutela hauteman zen, eta beraz, zilegitzat jotzen ez zirenez "ez zegokien" hiriko pasabide nagusitik igarotzea. Botereak (udalak) Bilboko espazio publiko hegemonikoko zonaldeei esleitzen dien balio sinboliko desberdinak, beraz, baldintzatu egin zuen haien baitan eman zitezkeen eta eman ezin ziren interakzioak, eta zehazkiago, helarazi zitezkeen edo ezin ziren up-ak. Hemen ikus daiteke, beraz, nola guztiak espazio publiko izanik ere, zona bakoitzak (kaleak, bulebarrak, plazak, ea.) trataera (kontrol, kudeaketa) desberdina jasotzen duten horiei egozten zaien balio sinboliko edo erreferentzialtasun desberdinaren arabera.

*Konpartsen desfilea* bestelako kaleetara bidaltzeko erabaki honek, ordea, kale nagusia hutsik eta hiria desfile "zentralik" gabe uzteko arriskua sortu zuen; alegia, Bilbo, inauterietako diskurtso/irudikari zilegi, ofizial eta "publiko" gabe uztekoa. Hori ekiditearren, beraz, bigarren erabaki bat hartu zuen udal gobernuak, eta kale nagusiko ibilbidean enpresa pribatuek antolatutako ordainpeko inauteri desfilea egiten hastea erabaki zuen. Hainbat urtez, hala, inauterietako bi desfile izan zituen Bilbok: bata, desfile "alternatibo" edo "sozial" gisa izendatu zena, Konpartsen, kale nagusia ez beste pasabideetatik atera izan zena; eta bestea, "ofizial" edo "pribatu" gisa ezaguna, kale nagusitik zihoana. Ondoko mapetan ikus daiteke batzuen eta besteen ibilbideen arteko aldea.



Goitik hasita lehen irudiak kale nagusia markatzen du gorriz. Hori zen *Konpartsen desfileak* eta gero ordainpekoak egiten zuten ibilbidea. Bigarren eta hirugarren irudiek udal gobernuaren erabakiaren ostean *Konpartsen desfileari* eman zitzaizkion ibilbideak erakusten dituzte (Konpartsek urtearen arabera kale desberdinetan egin baitute haien desfilea). Nabarmena da kale nagusia eta beste kaleen arteko aldea; bai hiriaren erdigunearekiko posizioari dagokionez, bai eta kalearen luzerari erreparatuz ere kale nagusiaren garrantzia agerikoa baita.

Espazioaren kudeaketa egiteaz gainera bigarren kontrol neurri bat ere ezarri zuen udal gobernuak, eta *Bilboko Jaien Ordenantza* finkatu zuen (gatazka aurretik zirriborratzen hasia zena). Horrek hirian ospatuko ziren mota guztietako jaiak kudeatu, homogeneousatu eta kontrolatzeko ahalmena ematen zion Bilboko Uualari eta jai-giroan egin zitezkeen eta egitea debekatua zegoenaren (zillegitasun) marra ezartzea lortu zen honen bidez:

*"(...) baimenak ezeztatu ahal izango dira honako inguruabarrak gertatzen badira: arriskua, desordenak, nahasteak edo interes orokorreko beste edozein. Horien artean sartzen dira pertsonen duintasunaren aurka eraso egiten duten kartelak edo/eta ikurrak erabiltzea, horrekin jaietako ekitaldien bizikidetzatza edo normaltasuna arriskuan jartzen bada. Horrelakoetan, udaltzaingoak beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartuko ditu."* (Bilboko Jaietako Ordenantza. VI. Kapitulua, Beste Arau Orokor Batzuk. 27. artikulua, Emandako baimen eta lizentzien izaera: 11.orria)

"Arriskua, desordenak" edo "nahasteak" sortzen zuen oro jaietatik kanpo geratuko zen, horiek eta beste hainbat kasu "interes orokorreko" nahiei ez zegozkiela ulertzen baitzen. Edo bestela esanda, Bilbon egingo ziren jaiak orokorrean, eta inauteriak zehazki (eta honekin batera bertako up-ak), *ordenatuak* eta *otzanak* izan behar zuten aurrerantzean, honen bidez "normaltasuna arriskuan" jar ez zedin bermatuko baitzen eta honen baitan

sartuko ziren inoren "duintasunaren aurka eraso egiten zuten" ikurrak erabiltzea, besteak beste.

Gaur egun (2015ean) egoera dezente baretu da eta Konpartsek berriro ere eskuratu dute kale nagusitik igarotzeko eskubidea. Baina "eskubide" hori ez dute debaldekoa ez eta betierekoa ere, haien up-en *gozarena Bilboko Jaien Ordenantza*-k zilegitzat jotzen duen horren baitan mantentzen den bitartetan soilik izango baitute Bilboko pasabide nagusiaz gozatzeko aukera.

#### 5.4.1.a. *Up apostaten kudeaketa espazio publiko hegemonikoan*

*Ospa Egunean* zein *Konpartsen desfilearen* kasuan boteretik (instituzioetatik) emaniko erantzuna bai eta egoeraz eginiko kudeaketa oso antzekoak dira. Botereak, batean zein bestean, molde bertsuan jokatu baitu gure ustez: batetik zigorrak ezarriaz, eta bestetik honen osteko kontrola indartuz.

Zigorrak, oro har, up-en bidez helarazitako diskurtso apostataren zilegitasun galerari lotua doakio. Alegia, hegemonikoa ez den errealitatearekiko diskurtsoa espazio publiko hegemonikoan helarazteak diskurtsoa baliogabetzeko erreflexua pizten du boterean. Izan ere:

*"La importancia de evitar cualquier manifestación pública de insubordinación no deriva simplemente en una estrategia de divide y vencerás; la insubordinación abierta constituye una contradicción patente de la tranquila superficie del poder eufemizado"*<sup>21</sup> (Scott, 2003:94)

*"Toda la escena, como imagen y como demostración de poder, transmite el sentido de unidad y de disciplina bajo una autoridad única y decidida (...)"*

21 [" Mendekotasuna ukatzen duten ekintza publikoak galaraztearen garrantzia ez datza soilik banatu eta irabaztearen estrategian; mendekotasuna publikoki ukatzeak kontraesan handia sortzen du botere eufemizatu lasaieran"]

*Cualquier manifestación de desorden, de división, de indisciplina, y de informalidad cotidiana se elimina de la escena pública."*<sup>22</sup> (Scott, 2003:99)

Hala hegemonikoak ez diren up-en baliogabetzea erdiesteko diskurtso apostatek up-en bidez publiko egin aurretik zuten "bazterreko" egoera areagotzeko zigor mekanismo desberdinak erabiltzen dira. *Ospa Egunean* kasuan, salaketak eta jazarpen mediatikoak ahalbidetu zuten diskurtsoaren des-zilegitze eta bazterkeria sustatzea; eta *Konpartsen desfilearen* kokapen fisikoa aldatuaz ordu arte izandako balio sinboliko bai eta protagonismoa erauzi zitzaion.

Neurri horiek zigor gisa identifikatzen ditugu beraz, ez dutelako up-ak gertatu aurretiazko "oreka" egoera berrezartzea bilatzen, baizik eta diskurtso apostata horiek jatorriz duten egoera baino are eta des-zilegiago eta isolatuago bat lortzerantz zuzenduak daudelako. Egoera horien aurrean erabiltzen diren bitartekoak eta horien garapenaren tasuna kontuan hartzen badira agerian jartzen da, gure aburuz, up-ek sortzen duten "normaltasunaren" haustura egoeratik botereak bilatzen duena zera dela: bere autoritatea are eta bermatuagoa eta apostaten diskurtsoa are eta baztertuagoa geratzea. Hartara, ez da ordenu sozial hegemonikoa lehengoratzeko ariketa bat, botere-harremanak (eta posizioak) are eta gehiago polarizatuz horiek ber-indartzeko balio duen zigorra baizik.

Modu berean, eta zigorraz gain, halako "desoreka" egoerak etorkizunean berriz gertatzea ekiditeko botereak bestelako "neurriak" ere hartzen dituela ikusi da: Altsasun, besteak beste, hurrengo urteetan egingo diren *Ospa Egune* ekintzak debekatuz; eta Bilbon jai guztien tasuna eta ondorioz egin daitekeena eta ezin denaren muga definitzen duen *Jai* *Ordenantza* indarrean jarriaz. Hala, up-en bidezko aldi bateko "desoreka" egoerak "desoreka" hori gertatu aurretiaz egon zitezkeen kontrol mekanismoak gogortzea edota berriak

22 [" Eszena publikoak irudi eta boterearen erakusgarri gisa, autoritate bakar eta ziur batek zaindutako batasun eta diziplinaren zentzua helarazten du (...) Desordena, banaketa, diziplina eza edota informaltasuna dakarren edozein ekintza desagerrarazi egingo da eszena publikotik"]

ezartzea zilegitzen du nolabait, beti ere zigorraren kasuan bezalaxe, boterearen zilegitasuna bermatzea helburu delarik.

Baina bistakoak diren jarrera horiek baino garrantzia handiagoa hartzen dute, gure ustez, jokamolde horien egikaritzea moldeak; alegia, neurri horiek burutu ahal izateko botereak erabiltzen dituen makulu diskurtsiboak. Izan ere, Bilbo eta Altsasun burututako elkarrizketetan ikus ahal izan den gisan, testuinguru diskurtsiboak (edo nahiago bada espazioaren gaineko irakurketak) baldintzatzen du up-en zilegitasun/des-zilegitasuna, eta finean, honakoen esku geratzen da up-ak zer diren eta zer ez zehazteko ahalmena ere. Baina ikus dezagun mantsoago esan berritakoa.

#### 5.4.1.b. *Demokrazia, sen ona eta "normala"*

Bai Altsasun zein Bilboko kasuetan boteretik erabili diren testuinguru diskurtsiboek up apostaten auzia "gizartearen gehiengoaren ongizatearekin" lotu izan dute. Altsasuko kasuan, esaterako, Guardia Zibilen zuzendari nagusiak, Arsenio Fernandez de Mesak esandakoa ekar daiteke gogora, zeinak Ospa Egunaren aurka hartutako neurriak beharrezkotzat joko dituen, hain zuzen ere "altsasuar, nafar eta espainiar guztien zerbitzura" dagoen Guardia Zibila "iraindu" zelako bertan. Adierazpen horien atzean gizarte oso baten hobe beharrez lanean diharduen instituzio baten kaltetzea salatzen da; alegia, *Ospa Egunak* gutxi batzuen interesen alde jokatzearen mesedetan gehiengo baten alde egiten dutenen aurka aritu izana kritikatzeko da, eta ia silogismo baten moduan "gizartearen interesen aurka" jokatzeko duen ekintza gisa deskribatzen bukatzen da.

Argiago ikus daiteke diskurtso molde hori Bilboko kasuan. Bertan zenbait elkarrizketatut gehiengo baten hobe beharra kontuan hartu ez izana jarrera "antidemokratiko" gisa izendatzen baitute zuzenean:

*"Las normas están por el bien común. Las normas se pueden cambiar democráticamente, cualquier norma. Pero en el momento que la tienes en vigor hay que cumplirla, si no es antidemocrático, y en este caso salir así lo es"* <sup>23</sup> [E8]

Konpartsen eta udalaren artean sinatutako lehen akordioari egiten dio erreferentzia hizlariak. Arauak ez betetzeak guztien hobe beharri kalte egitea dela adierazten du, eta beraz, zenbait diskurtso up-en bidez jorratzea interes eta ongizate komun horren aurka aritzea dela deritzo, hots, demokraziaren aurka aritzea dela.

Baina nola bereizi zeintzuk diren arauaren (eta ondorioz demokraziaren) barne eta kanpo geratzen diren up-en diskurtsoak? Bilboko kasuan euskal preso politikoen argazkiak erakusteagatik bai eta Ertzaintzak naziekiko konparatzeagatik sortu zuen udalak *Jaien Ordenantza*. Horrek ematen ditu, hala, "demokratikoak" diren (eta ondorioz zilegiak eta espazio publiko hegemonikoan erabili daitezkeen) up diskurtsoen tasuna non datzan ulertzeko zenbait zantzu. Baina azalpenak ez dira guztiz argigarriak. Izan ere *Jaien Ordenantzak* dioena kontuan hartuz gero, ordenu soziala zein autoritatearen "urraketa" burutzen duten diskurtso/praktikak, bai eta "nahasgarriak" zein "bizikidetzaren" aurkakoak direnak "debekagarritzat" jotzen dituela ikus daiteke, baina zehaztu gabe uzten du diskurtso horiek zehazki zer nolakoak diren. Alegia, euskal preso politikoen irudiak hala hautemanak dira, hots, "bizikidetzarren" aurkakotzat jotzen den errealitate baten erakusgarri dira (zeinu), eta ondorioz, galarazi egiten da haien erabilera *Konpartsen desfilean*. Baina aldiz, ijitoz edo euskal baserritarrez mozorrotzeari ez zaio inolako trabarik jartzen, nahiz eta bistakoa den honakoez ere, zergatik ez, kolektibo batzuen "duintasunaren aurka eraso egin" dezakeela<sup>24</sup>. Alegia, badirudi jarrera ustez demokratiko horren baitan up-en bidez helarazitako diskurtsoen (eta nukleo irudikatuen) arteko diferentziazioak egiten direla, non, diskurtso orok duen "duintasunak

<sup>23</sup> ["Arauak guztion hobe beharrez daude ezarriak. Arauak demokratikoki alda daitezke, edozein arau. Baina indarrean baldin badago araua bete behar da, gainerakoan antidemokratikoa da, eta kasu honetan hala ateratzea bada"]

<sup>24</sup> Desfilean bai eta inauterietan oro har, ijitoz eta euskal inauteriz mozorrotzen zen jendea zegoen.



kaltetzeko" potentzialtasuna ez den berdin epaitzen. Izan ere Manuel Delgadok dioen moduan: *"En eso consiste el efecto óptico democrático por excelencia: el de un ámbito en el que las desigualdades se proclaman mágicamente abolidas"*<sup>25</sup> (Delgado, 2011:42) eta honi gehitzen diogu ikuspegi demokratikotik "desberdintasun" edo "duintasunaren aurka" jotzen dutela identifikatzen diren horiek boterearen iraunkortasuna bermatzeko ariketaren ondorio direla. Hots, boterearen autoritatearentzat Ertzainen inguruko up-ak euskal baserriarraren ingurukoak baino arriskutsuagoak izateagatik direla "duintasunaren aurkako" gisa identifikatuak.

Baina orduan, ustezko jarrera demokratikoak up guztiak berdin tratatzen ez baditu, zeren arabera erabakitzen da diskurtso bat "demokratikoa", eta ondorioz gozagarria eta up gisa hautematen den ala ez?

*"Es difícil esa pregunta, muy difícil. (...) Yo creo que (...) hay cosas que a la gente le hace gracia por muy grave que sea y otras que son intocables. Y hay que tener cuidado. Y yo creo que eso solamente se hace con sentido común. Y yo creo que la mayoría de la gente tiene sentido común, no creo que haya que aclararlo todo. No creo que el mundo vaya por ahí descerebrau."*<sup>26</sup> (sic.) [E8]

Galderak bezainbeste zailtasun eta mami du erantzunak: up-a zer den eta zer ez bereizteko termometro gisa aipatzen baitu elkarrizketatuak sen ona. Gizartearen gehiengoak komunean duen errealitatearekiko ikuspegi zentzudun gisa ulertzen du, eta esan daitekeenaren eta ukigaitza denaren arteko aldea (ustez demokratikoa dena) ikustarazten laguntzen duela baieztatzen du, hala. Hainbat elkarrizketatu bat datoz ikuspegi honekin [E7][E12][E13][E18], kontzeptu berbera (sen onarena) aipatzen baitute up-ek izan beharreko mugaren kokaleku gisa.

25 ["Hortan datza demokraziaren efektu optikoak: desberdintasunak magikoki desagerrarazten dituen egoera dela"]

26 ["Zaila da galdera hori, oso zaila. (...) Nik uste (...) badira oso larriak izanagatik ere jendeari grazia egiten dioten gauzak eta ukiezinak diren beste batzuk. Eta kontu eman behar da. Eta nik uste hori sen onez soilik egin daitekeela. Eta nik uste jende gehienak baduela sen ona, ez dut uste dena azaldu beharra dagoenik. Ez dut uste mundua erotua dagoenik."]

Baina sen ona ez da up-en sailkapena egiteko baliagarria den ardatz diskurtsibo bakarra, "normaltasun" kategoriak ere paper berdina betetzen baitu:

*"Lo que sí que es cierto es que si alguien se siente herido con algo que ve, y es lo que dice la Ordenanza, es eso lo que no puede ser (...) Y la ordenanza está pensada para que nadie se sienta herido. Y durante mucho tiempo jalea a quienes a otras personas han hecho daño, pues puede ser entendido en una sociedad normal, si eres normal, eso lo entiende mal."*<sup>27</sup> [E8]

Gizarte "normal" batean mingarria eta iraingarria zer den berehala ulertzen dela aipatzen du elkarrizketatuak, eta hain zuzen ere, "normaltasun" horri erantzuten dion ikuspegia *Jaien Ordenantzak* defendatzen duen berbera delakoan dago. Hala, ikuspegi "normala" izatea sen ona edukitzeari dagokio, biak ala biak, up-en mugak zehazteko gaitasuna dutelarik matrize kultural hegemonikoko elkarrizketatuen ustez. Hain zuzen ere, bitzuk interes orokorren (demokratikoen) alde jokatzeko dutela hautematen baitute.

Baina "normaltasunaren" ikuspegiak eta sen onak ezer gutxi dute demokratikotik (honakoa gizarte bateko herritarren subiranotasunean oinarrituriko sistema politiko gisa ulertzen bada). Sen ona subjektuen arteko interakzioek ahalbidetzen duten errealitatearen objektibazio baten ondorioz eratu eta gizartean emanikotzat jotzen den ezagutza soziala da (Berger eta Luckmann, 2006). Izan ere sen ona edo "normaltzat" jotzen den kosmobisioa, beraz, intuizio edo inguruarekiko ulermen espontaneo eta "neutroa" izatetik urrun dago, honen eraketan gizarteko botere posizio desberdinetatik ekiten den heinean bertan instituzionalizatzen ("normaltzen") diren errealitateak ere botere-harreman haien meneko baitira. Hala, errealitate sozialaren sen oneko ikuspegiak (des)zilegitzeko gaitasunak horiek bultzatzen dituztenen botere

27 ["Egia dena zera da, ikusi duenarekin inor mindua sentitzen bada, eta hori da Ordenantzak dioena, hori da ezinezkoa dena (...) Eta ordenantza pentsatua dago inor mindua sentitu ez dadin. Eta denbora luzean beste batzuei min egin dietenak goraiatzea, ba, gizarte normal batean uler daiteke, normala bazara, hori gaizki ikustea."]

posizioen arabera aldatzen dira (baliabideak erabili, sortu edo kontrolatzeko boterearen arabera, besteak beste), eta hartara, errealitatearen ikuspegi "normaldua" ez da gizartean dauden ikuspegi guztien artikulazio parekide bat, boterean dagoenari komeni zaion ikuspegiaren hegemonizazioaren emaitza baizik (Bourdieu, 2001).

Hala, euskal nazioarekiko matrize kultural desberdinetatik abiatzen diren irudikari eta nukleo irudikatu desberdinak egoteak azaltzen du, adibidez, euskal preso politikoen argazkiak erakusteak (Bilbon) edo indar polizial eta espainiar koroaren parodia egiteak (Altsasun) batzuentzat eta besteentzat (apostata eta hegemonikoentzat) zilegitasun maila desberdina duela. Baina honako up-ak espazio publiko hegemonikoan egiten direnean kontrolatuak edo zigortuak izateak agerian jartzen du, baita ere, nukleo irudikatu desberdinen zilegitasunek ez dutela berdin balio, eta beraz, horien artean botere harremanak daudela, non, up apostaten diskurtsoak sen onetik edo "normaltasunetik" at geratzen diren, boterea delako, hain zuzen, "normaltasunaren" marra non datzan marrazten duena.

Diskurtso honek agerian jartzen du, beraz, matrize kultural hegemonikoko elkarrizketatuek espazio publiko hegemonikoa "normal" eta demokratiko gisa hautematen duten heinean "normal" eta demokratikotzat jotzen ari direla ere espazio publiko hegemoniko horrek/horretatik/horretan errealitate sozialaz egiten diren arauketa guztiak, eta hain zuzen ere bertan nagusi den neutraltasun dogmatiko horrek ahalbidetzen eta errazten diela zilegitasuna, *gozamina* eta finean up-ak identifikatzen, bai eta "desberdinak" diren bestelako interakzio edota diskurtsoak (batez ere apostata direnak) zigortzen eta kontrolatzen.

"Normaltasunaren" marra gainditzeak berekin dakarren punizio ia automatikoak, ordea, ez dira hala direnik ulertzen. Alegia, diskurtso "demokratiko", "normal" eta sen onekoetan oinarritzeak bere baitan dakartza elementu horien ongizatea bermatzeko egin beharreko ekintzen justifikazioa ere. Hain zuzen ere botereari dagozkiolako, sen onekoak edo "normalduak" diren ikuspegiak ez dute haien posizioa azaldu behar/nahi izaten, eta oro harrean modu dogmatikoan jokatzeko dute. Errealitatearen ikuspegi zilegia "bat eta

bakarra" dela aintzakotzat ematen dutenez, honako hori jotzen dute gizartearen "interes orokorre" erantzuten dien bakar gisa, eta noski, "demokratikoa" eta "errespetuzkoa" den bakarra ere bai.

*"Se tomó la decisión por parte del equipo del gobierno de suspender o no salir en el desfile con las Konpartsak hasta que no tuvieran otra actitud con respecto sobre todo a toda la población"*<sup>28</sup> [E13]

Adierazpen honetan ikus daiteke "gizarte osoarekiko errespetua" ez gordetzea dela up apostatak debekatzeko arrazoitzat hartzen dena, eta hain zuzen ere, botere hegemonikoak "errespetu" gisa ulertzen duena behar bezala ez erreproduzitzeak halabeharrezko bihurtzen duela horien galerazpena. Hartara, ikuspegi honek suposatzen du "errealitate absolutu" (hegemoniko) horretatik at geratzen diren bestelako up-ei ematen ahal zaien zigor edo kontrol tratamendua "gizarte osoaren hobe beharrez" egiten dela, eta are gehiago, hain zuzen ere "gizarte osoaren hobe beharrez" eginak direnez ez direla ez zigor ez eta kontrol ere; ekintza edo jarrera demokratikoak baizik:

*"no es nuestra función ser los censores. Otra cosa distinta es hacer cumplir la normativa, un acuerdo democrático y pactado. Hay que poner las cosas en su sitio"*<sup>29</sup> [E8]

Bilboko Konpartsen adibide honetan ikus daitekeen moduan, arauak ez betetzeagatik *Konpartsen desfileari* kale nagusitik ateratzea galarazten bazaio ere, hori ez da "zentsura" gisa hautematen, baizik eta "akordio demokratikoaren" emaitza lez.

28 ["Gobernu taldearen aldetik erabaki zen Konpartsen desfilea galarazi edo horiek ez ateratzea, haien jarrera, batez ere biztanle guztiekiko, desberdina izan arte"]

29 ["ez da gure eginbeharra zentsuratzaileak izatea. Beste gauza bat da araudia bete araztea, demokratikoa eta adostua den akordioa dena. Gauzak bere lekuan jarri behar dira"]



## 5.4.1.c. Zer dira up-ak?

Gauzak "bere lekuan" ("en su sitio") jartzeko irizpide honek, gainera, "normalaren" barruan eta kanpoan geratzen dena zehazteko gaitasuna duen modu berebean, up-ak direnak eta ez direnak sailkatzeko ere baliagarri suertatzen da. Edo bestela esanda, errealitate sozialarekiko ikuspegi jakin bat instituzionalizatzeko, eta ondorioz, gizartean "normal" gisa zabaltzeko gaitasuna duenak, up-ak zer diren edo ez definitzeko ahalmena ere badu.

Hala, up-ak up gisa identifikatzekotan halabeharrez egon behar dute errealitatearen ikuspegi "normalaren" baitan, non, sen onak markatzen dizkion "mugak errespetatuko" dituen, eta (botereak sustatzen duen) errealitatearen ikuspegi hegemonikoarekiko koherentea den. Honakoa dio matrize kultural hegemonikoko elkarrizketatu batek Bilboko Konpartsek esbataka batekin apainduta atera nahi zuten Ertzainen tankeak suposatzen duen "marra" ("línea") igarotzearen inguruan:

*"Sobre todo era el equiparar una policía, como te he dicho, son los buenos, con unos criminales. Que todos sabemos lo que hicieron sin importarles nada, ¡Es que hicieron hasta experimentos con personas! Con las cámaras de gas... Que se nos ponen los pelos de punta todavía. Y han pasado un montón de años. Y ya no es que traspases una línea, ya, es que vamos, no es que lo hagan adrede para ofender tantísimo, pero vamos... ¡Es que tienen un sentido del humor que es incomprensible! ¡Con eso no te lo puedes pasar bien, ni es humor ni nada! Pero vamos..."*<sup>30</sup> [E13]

Izan ere, eta argi adierazten du elkarrizketatuak, "normaltasun" eta sen on horren aurka egiten duten diskurtso/irudikariak darabiltzaten up-ekin, apostatak diren heinean (eta beraz "muga" horiek ez bestelakoak

30 [" Batez ere polizia, esan bezala onak direnak, gaizkile batzuekin alderatzea izan zen. Denak dakigu zer egin zuten ezerk axola izan gabe, pertsonekin esperimendua eta guzti egin zituzten! Gas kamerekin... Oraindik ere oilo ipurdia jartzen zaigu. Eta urte mordoa igaro da. Eta ez da marra igaro duzula, ez da hainbeste iraintzeko nahita egiten dutela... Ulergaitza den umore sena dute! Horrekin ezin duzu ongi pasa, ez umore eta ez ezer! Tira..."]

darabiltzaten), ezin da "ongi pasa" ("no te lo puedes pasar bien"). Edo bestela esanda, ez dira gozagarriak. Honako kasuan argi ikus daiteke aurrez aipaturikoa. Elkarrizketatuak Konpartsek egindako up-aren *haustura* eta objektibazioa (distantzia) ikusi ditzake baina bere matrize kulturaletik gizarte errealitateari buruz duen interpretazioa ez dator up-a egin dutenenarekin bat, bestelakoa du errealitatearekiko hautematea, eta ondorioz, ezinezkoa du gozamenik sentitzea. Hala, gozatzea ezinezkoa duenarentzat, beraz, ez dago up-rik.

Matrize kultural apostatatik egiten diren up-ak diskurtso/irudikari hegemonikoari ez dagozkionez ez dira zilegi ez eta gozagarri ere, eta ondorioz, ez dira up gisa hautematen. Hala, gozamenik sentitzea ezinezkoa delako up gisa ulertzen ez diren up-ak bestelako izendapen (eta performazioa) jasotzen dute, eta beste gauzen artean, irain, birao edota diskurtso politiko gisa ber-izendatu ohi dira<sup>31</sup>.

*"Trasladando reivindicaciones políticas al ámbito festivo nunca nos vamos a encontrar", señaló Sánchez. Carlos García, uno de los concejales populares, explicó: "Había 500 personas gritando euskal presoak Euskal Herrira como auténticos salvajes"*<sup>32</sup> (El País, 2004)

*"Por su parte, el portavoz de las Comparsas de Bilbao, Iker Urigüen, denunció que los partidos políticos han utilizado el desfile de Carnaval como "arma electoral"*<sup>33</sup> (El Mundo, 2004)

31 Alderantzizko egoera gertatzea errazagoa da, alegia, matrize kultural hegemonikoak egiten dituen up-ak matrize kultural apostatan dabiltzanentzat gozagarri suertatzea. Izan ere, kontuan hartu behar da matrize kultural apostatan dabiltzanek ikuspegi hegemonikoak zuzenduriko errealitatean egiten dutela haien egunerokotasuna (darabiltzaten sinboloak, interakzioak, praktikak, diskurtsoak, lengoaia...), eta nahiz eta testuinguru horrekiko modu erreflexiboan joka dezaketen (horren adibide dira, esaterako, darabiltzaten up-ak), zailagoa izaten da bizitza sozialeko espazio eta dimentsio guztietan kontzientzia maila horrekin jokatzeko. Hots, apostatek ere halabeharrez barneratuak dituzte hegemonikoak diren errealitate ikuspegiak, eta neurri horretan, uler daiteke matrize hegemonikoko up-ak ere gozagarri gisa hautemateko erraztasun gehiago izatea.

32 ["Aldarri politikoak festa gunera eramanez, inoiz ez dugu elkar topo egingo" dio Sáncezek. PPKo zinegotzietako bat den Carlos García azaldu zuenez: " 500 pertsona euskal presoak Euskal Herrira ohiuka zebiltzan modu basatian"]

33 ["Iker Urigüen, Bilboko Konpartsetako bozeramaileak salatu zuen alderdi politikoek inauterietako desfilea erraminta politiko gisa erabili izana"]

Kontuan hartu behar da, ordea, ikuspegi hau dutenak ez direla matrize kultural hegemonikoa duten elkarrizketatu solteak, baizik eta haien errealitatearen ikuspegia hegemonikoa izan dadin bermatzen duen espazio publiko (harreman sozial, sistema, diskurtso, ea.) sare oso baten parte direla. Honako adibidea, beraz, ez da salbuespen gisa hartu behar, baizik eta botereak bere eragin esparruaren baitan (espazio publiko hegemonikoan) ezartzen duen logikaren azalpen gisa baizik. Logika honen baitan espazio publiko hegemoniko, demokratiko, "natural" eta neutral honetatik at geratzen diren harreman, diskurtso eta, oro har, errealitateak jarduera politiko gisa ulertzea ohiko argudioa da halako kasuetan.

Arrazoibide berbera erabili da, esaterako, *Pirritx, Porrotx eta Marimototx* pailazoan up-ak des-zilegitzeko orduan. Gogora ekarri behar da hiru pailazoek haien funtzioetan erabiltzen duten euskal nazioaren nukleo irudikatua hegemonikoarekiko apostata dela, non, besteak beste, zazpi lurralde historikoek osaturiko nazio anitz eta euskaltzale bat islatzen duten. Pailazoek lortu duten arrakasta soziala medio, Euskal Herriko (bai eta atzerriko) hainbat lekutan aritu izan dira milaka pertsona elkartuz haien zenbait funtzioetan, eta bilakaera horrek, oihartzun sozial eta mediatikoa eman die. Hots, espazio publiko hegemonikoan "ikusgarri" egin ditu.

*"askotan Beken, Anaitasun Egunean, Polikiroldegietako emanalditan , 8, 9, 10 mila pertsonen aurrean egiten dezunean, sentitzen dezu, ostras herri bat gera! Gauza txikiak baloratzen ditugu, eta aktuzio txikiak egiten ditugu eta hori ez da galdu behar, oso politikak dira, gertutasuna goxotasuna mantentzen dute. Baina beste momentu handi horiek ere, hainbeste jende bilduta, balore, hizkuntza ta nortasun baten inguruan saltoka, kantari, oso inportanteak dira irudikatzen dutelako herri bat, mundu batean, elkarrekin amankomunean daukagun zerbaiten amets baten edo bizitzeko modu baten aldekoak."* [E21]

Kasu honetan *Pirritx, Porrotx eta Marimototxek* espazio publiko hegemonikora egiten duten aldarria espainiar estatuak Euskal Herriari egozten dion oso bestelako errealitate bat da. Alegia, herri anitz, euskaltzale eta bateratuarena, etorkizun propio bat eraikitzen duenaren irudikaria/diskurtsoa zabaltzen baitu. Honako hau, ordea, hegemonikoarekiko apostata da, eta beraz, zuzenean antidemokratiko eta ondorioz debekagarri gisa da hautemana.

Baina horretara iristeko tarteko urrats bat ematen da aurrenik, alegia, *Pirritx, Porrotx eta Marimototxen* up-ak botere hegemonikoaren aldetik up ez direla agerian jartzen da lehendabizi. Hala, pailazoan up-ak debekagarri (zigorgarria/kontrolagarri) badira, ez da zuzenean diskurtso apostata daukatela onartzen delako izango baizik eta pailazoek egiten dutena up-ak izan beharrean "politika" delako baizik<sup>34</sup>:

*"El Colectivo de Víctimas del Terrorismo del País Vasco (Covite) pidió hoy que la ETB o televisión de esta comunidad autónoma no contrate a los payasos Pirritx y Porrotx (...) La representante de las víctimas del País Vasco ha instado a la responsable de la ETB «a replantearse la conveniencia de promocionar a quienes no han dudado al utilizar su posición para intoxicar a los más pequeños con proclamas políticas plagadas de posicionamientos sectarios y sesgados"*<sup>35</sup> (Lainformación.com, 2013)

*Pirritx, Porrotx eta Marimototxek* egiten dutena ez dira up-ak "sektario eta partzialak diren aldarri politikoak" baizik, umeak "intoxikatzeko" balio dutenak, zehazki. Baina ikuspegi honek ez du kontutan hartzen up guztiek egiten dutela errealitatearen irakurketa jakin bat, eta ondorioz, *Pirritx, Porrotx eta Marimototxek* bezalaxe, matrize kultural hegemonikotik egiten diren up-ek erabiltzen dituzten *haustura* eta *objektibazioek* (distantziek) errealitatearekiko diskurtso eta ikuspegi partzial bat eskaintzen dutela. Hala izanik horiek ere kanpotik ikusiak oso otzanak iruditu dezaketen arren, gizartean nolabaiteko

34 Honela labur daiteke prozesua: [Up > Hegemonikoarekiko apostata > Antidemokratiko > Ez da up > Politika/ iraina/biraoa... da > Diskurtso zigorgarri/kontrolagarria]

35 ["Euskal Herriko Víctimas del Terrorismo Kolektiboak (Covite) eskatu du ETBk ez ditzala kontratatu Pirritx eta Porrotx pailazoak (...) Euskal Herriko biktimen ordezkariak ETBko arduraduna honakora estutu du: 'haien posizioa etxeko txikiak aldarri politikoz intoxicatzeko probesten dutenak sustatzeko erabakia birpentsatzera.' ]

eragin edo ondorioz sorrarazten dute. Hau da, up guztiek dakarte diskurtso "politiko" bat, eta alderantziz, diskurtso oro potentzialki izan daiteke up, hala dela kontsideratzen duen (*haustura, objektibazio/naturalizazio* eta *gozamenarekin* bat egiten duen) subjekturen (kolektiboren) bat baldin badago noski. Baina diskurtso oro birtualki up izatearen aukera mugatu egiten da botere-harremanek baldintzaturiko errealitateko diskurtsoen (des)zilegitasun mailaren arabera, eta hain zuzen ere horrek bukatzen du markatzen errealitate sozialean up "dena" eta "ez denaren" arteko marra gorria.

Hala, Konpartsek edo Altsasuko herritarren up-ak hegemoniarekiko apostata diren heinean ez dira gozagarriak eta diskurtso politiko debekagarri gisa hautematen dira. Eta alderantziz, Bilboko udalak ordainpeko desfilean egiten duena "dibertimenduzko" [E13] eta "besterik gabeko" [E8] up lez ulertzen dira, nahiz eta horien bidez egunerokotasuneko errealitate hegemonikoaren birprodukzioan laguntzen duten diskurtsoak (politikoak beraz) ere badauden. Besteak beste, eta hala adierazten dute zenbait elkarrizketatuk [E10] [E9], ordainpeko inauterietako desfileak gizartean dauden botere-harremanak, klase zein kultur banaketak, genero desoreka eta bereizkeriak, arau sozial eta legalak, edota sakralizazio, tabu eta baloreak bere horretan erreproduzitzen segi dezaten ahalbidetzen baitute.

Gure kasura ekarrita, hots, euskal nazioaren eraketari dagokionez ere, beste hainbesteko irakurketa politikoa egin daiteke up hauetaz. Izan ere, Bilboko udalaren ordainpeko desfileak normaltasun eta objektibazio linguistiko, kolektibo, lurraldekako edo zeinu hegemonikoak erreproduzitzen ditu. Alegia, baliteke Bilboko ordainpeko desfileak euskal nazioaren inguruko diskurtso hegemonikoak zuzenean ez indartzea (zuzeneko *hausturak* ez burutzea), haren desfileko karrozek ez baitute euskal nazioaren irudikari espliziturik agerian jartzen. Baina kontuan izan behar da euskal nazioarekiko ikuspegi horiek matrize kultural hegemonikoaren parte diren heinean aski dela horiek kolokan jarriko dituen diskurtsorik ez erabiltzea diskurtso horiek berdin erreproduzitzen jarraitzeko. Hots, up-ek itxuraz diskurtsorik ez daramatela iruditu arren, muinean errealitatearen ikuspegi hegemonikoa da indartzen ari

dena, ez baita errealitatea "bestela" hautemateko modurik agerian jartzen, eta beraz, errealitateak berdintsuki (hegemonikoki) erreproduzitzen jarrai dezan ahalbidetzen du horrek. Ikuspegi honetatik, beraz, garrantzizkoa da, gure ustez, up-ek helarazten dituzten diskurtsoak kontuan hartzeaz gain esaten ez dituzten horiei ere arreta jartzea, hain zuzen ere diskurtso (publiko) zenbaiten gabeziak errealitate sozialaren (eta zehazki euskal nazioaren) eraketa jakin bat bultzatu (edo oztopatzen) baitu.

Horren adibide esanguratsu bat ETB2-k helarazitako up batean aurki daiteke. *Vaya Semanitik* igorritako esketx batek EAJ-PNV-ko zenbait kide irudikatzen zituen "ate birakarian" sartuta. Hau da, politikari jarduna amaitu ondoren enpresa pribatuetako goi karguetan lanean hasten, ibilbide horrek dakartzan diru joko eta interesak bistako eginez [UPT14/9]. Diskurtso horrek, ordea, modu apostata batean jokatzeko botereak duen diskurtsoarekiko, besteak beste, EAJ-PNV-ko ordezkariak zuzenean erakusten zituelako joko zikina eginez. Hala izanik, erreakzioa berehalakoa izan zen. Esketx hura behin baino ez zen igorri telebistaz, EAJ-PNV-k esplizituki eskatu baitzuen hura gehiago ez plazaratzea, eta afera publiko egin zen Bildu alderdiak zentsura hura salatzeke erabakia hartu zuenean<sup>36</sup>. Horrek berehalako erreakzio soziala piztu zuen, argi erakusten zuelako *Vaya Semanitari* egotzi izan zaion neutraltasun eta arbitrariotasun ezetik harago, programaren edukiak ildo politiko-ideologiko argi bati erantzuten ziola, eta ondorioz, alderdi bakoitzari saioan ematen zaion trataera EAJ-PNV-ri mesede egitera bideratua dagoela. Kasu horretan argi ikus daiteke lehendik aipatzen gatozena. Nola botere hegemonikoak espazio publiko hegemonikoan ahalbidetzen edota oztopatzen dituen diskurtsoak berariaz aukeratutakoak diren, eta aukeraketa horretan esaten direnak eta batez ere aipatu gabe uzten direnak ordenu hegemonikoa eta boterearen zilegitasuna eusteko pentsatuak dauden.

Orain arte ikusitakoa laburbilduz esan daiteke espazio publiko hegemonikoa (errealitate sozialaren hautematea, interakzio sozialak, helarazitako diskurtsoen tasuna, ea.) botereak kudeatzen duela nabarmenki, eta honen ondorioz, bere

36 Ikusi: InfoLibre (2014)

zilegitasun eta autoritatea kolokan jar dezaketen bestelako diskurtso/irudikariak, eta zehazki, errealitatearen interpretazio hegemonikoarekiko bestelako ikuspegiak luzatzen dituzten up apostatak zigor eta kontrol mekanismo desberdinen bitartez des-zilegitzeko ahalegina egiten duela. Prozesu honen baitan halako ekintzak ahalbidetzen diren testuinguru diskurtsiboak osatzen dira, oro har matrize kultural hegemonikoak eraiki eta instituzionalizatutako ("normaldutako") kontzeptuen gainean osatzen dena (demokrazia, sen ona edota "normala" gisakoak direnak) zeinak zigor eta kontrol mekanismoak justifikatzeaz batera, up-en *gozamina*, bai eta ondorioz, up-ak beraiek ere zehazten eta definitzen amaitzen duten.

#### 5.4.2. Espazio publiko apostatetako up-ak

Up apostatak zailtasunez mugitzen dira espazio publiko hegemonikoan hain zuzen ere boterearen kudeaketa eta kontrolaren menpe dagoelako. Ikusi bezala espazioaren gaineko nagusitasuna edukitzeak ahalbidetzen du horren baitan emango diren praktikak (diskurtsoen, jardueren, interakzioen, ea.) kudeatzeko aukera ere izatea, eta kudeaketa hori egiten duena boterea denean, bere hegemoniaren aurkako diskurtsoak helarazten dituzten up-ekiko zorroztasunez jokatzeko du. Espazio publiko hegemonikoan, beraz, up (*gozagarri*) gisa kontsideratzen dira errealitate hegemonikoarekin bat datozen diskurtsoak helarazten dituzten horiek. Gainontzeko up-ak (apostatak, alegia), aldiz, edo up ez beste zer edo zer moduan performatzen dira (diskurtso politiko bezala, esaterako); edo bigarren plano baterantz bidaltzen dituzte, espazio publikotik urrutiratuz.

Egoera honetaz jabetun dira up apostatak egiten dituztenak ere, eta baldintza horietan haiek sortutako up-en inguruan erreflexibotasun handiz jokatzeko dute: zer esan/egin eta bereziki non esan/egin oso kontuan hartzen baitute.

Ondorengo atalean, up apostatek izaten duten kudeaketa sakontzen da eta elkarrizketatu apostatek egoera nola bizi eta hautematen duten, bai eta horren aurrean zer nolako ihes-bide edota bestelako aukerak bilatzen dituzten ere ikusten da.

##### 5.4.2.a. "Bestelako" espazio publikoen erabilera

Up apostaten egileek agerian jarri dute elkarrizketetan up-en helarazpenari dagokionean erreflexibotasun handiz jokatzeko dutela, bai eta espazioaren aukeraketak duen garrantziaz oso kontzienteak direla ere:

*"Jendea dago prest entzuteko gai batzuk, ez denak. Hitzekin, beti hitz egin da, baina "zeataz", hola ibiltzia ba igual ez, ta gai batzun inguruan ba ezta ere ez da hitzitzen (...) Ezin dezu jendian aurrian nahiko zenukeen guztia esan"*

(sic.) [E22a]

Elkarrizketatuak espazioaren inguruko hausnarketa orokor bati heltzen dio aipu honetan. Hots, "*jendean aurrean*" edo espazio publiko hegemonikoan nahi dena esatea oro har zaila edo ezinezkoa ("*Ezin dezu*") dela agerian jartzen duenean ez da up-etan zentratzen ari soilik, baizik eta egoera zabal bat deskribatzen du, oro har, espazio publiko hegemonikoan dagoen kontrolak norberak nahi duen moduan jokatzeko galarazten duela agerian jarriaz.

Askatasun falta hori up-en esparrura hurbiltzen du elkarrizketatuak ondoren, eta espazioaren inguruko beste ideia bat gehitzen du honekin batera: hain zuzen ere, espazio publiko hegemonikoaren gaineko kontrolak hainbat praktika/diskurtso egitea galarazten duen heinean, bestelako praktika/diskurtso horiek beste espazio batzuetan burutu behar direla. Hala, eta kapituluaren hasieran aipatzen genuena birgogoratu, "zer" esan/egin ("edukiak") edo "nork" esan/egin ("agenteak") baino garrantzitsuagozat jotzen du "non" esaten/egiten diren (espazioa) kontuan hartzea:

*Baina bueno, lehen, txiste politikok toa la puta vida izan ditugu. Irene Villak zenbat txiste izan ditu, ta Ortega Larak ere bai, eta hori onartzen zan, bai, baina atzean. Baina oha hori kontatzea "Txiskolara"! Kontazak! Denen bistan, ba ez... Ezin da."*<sup>37</sup> (sic.) [E22a]

Elkarrizketatuak espazioaren kudeaketan jartzen du arreta. Argi uzten du botereak darabilen kosmobisio normatibotik at geratzen diren up-ak, kasu honetan ETA-ren biktima izandakoen inguruko txisteak direnak, gizartean dauden edo egon diren diskurtsoak izanik ere publikoki zabaltzea (telebistan igortzea) egin "ezin den" ekintza dela. Izan ere, espazio publiko hegemonikoan aritzeak "denen bistan" egotea dakar, baita boterearenean ere, eta ondorioz, zigortua (zentsuratua, des-zilegitua, ea.) edo kontrolatua izatea ekar dezake berekin. Baina elkarrizketatuak agerian uzten duen beste auzi bat azpimarratu nahi dugu, ordea, izan ere bere hitzetan azpimarratzen du espazio publiko hegemonikoan aritzea arriskutsua izateak ez du esan nahi diskurtso horiek "desagertu" egiten direnik, eta horren orde, apostatak diren up-ak bestelako espazioetara "desplazatzen" dira: lasaitasunez helaraziak izateko aski babes eta erosotasun eskainiko dienetara.

*"-Badakigu toki batzutako dala hau. Ez toki guztitako. Ta kasu hortan bakigu udaletxetatik deitutako saiotako normalen, ezpada salbuespen kasu bat, beti ezetz esango deula, adibidez.*

*-Adibidez Orion. Bertatik esan zeuen: Joko dezue? Ta udaletxian ta gainera hor toki edarra zio ta? Ta esan genun, ez! Joko diau baina tabernan joko diau. Ta holaxe esan nion (...) udaletxen normalen oso areto politik eta, baina... hor ez deu behar dan bezala funtzionatzen.*

*-Eta oso entzule konkretuntzako dalako baita ere. Duela gutxi arte gazte izandakontzat ta gazteentzat, eh, bertsokin kontaktu minimoa daukenezat ta musikalki ere estimauko duenantzat eta, begin behatza sartzeko prest dagonantzat.*

*-Errespetuaren kontzeptu oso jakin bat duenantzat...*

*-Korrekotasunetik kanpo dagon zerbait da, ta entzuten dunak hortako prest eon behar du. Eta udaletxen hori topatzia... segun ze udaletxen igual, baina zailagoa da, bai...*

*-Ta telebistak adibidez deskontestualizatu iten du erabat. Guk esan genun, gure saioak ordu ta laurden baldin badauka, hasi ta buka in beharreko zerbait da. Korte bat ateratzia telebistan ta kontestutik kanpo ta gainera irudiz eta...*

*buf! Oso oso zaila da, oso oso zaila da behar bezala ulertzia. Arrisku asko do.*

*-Gaztetxetan, gu bertsotan edo musikakin Gaztetxetan ibili gea eta bakigu Gaztetxiak guk nahi ditugun baldintzak dituela, lekua ta jendia. Lehen esaten zenun udaletxiak. Eta udaletxiak baldintza ekonomiko oso onak jartzen ditu baina hortara mugatzen da. Oso zaila da bertako mimo hori sentitzea eta Gaztetxe baten badaukezu." (sic.) [E22a eta E22B-ren arteko elkarrizketa]*

Argi azaltzen dute elkarrizketatuek espaziotik espaziora aldatzen dena, batez ere, honen baitan jazotzen diren komunikazio/interakzio harremanen tasuna dela. Alegia, udaletxeek duten ordainsari eta azpiegitura onek, bai eta telebistak eskainiko liekeen hedapena beraientzat onuragarria izan badaitezke ere, haien up-ak behar bezala igorriak eta ulertuak izateko ez dute bermerik ikusten. Espazio publiko hegemonikoaren gabeziak Gaztetxe eta tabernetan asetzea lortzen dute, ordea, bertan aurkitzen baitute behar besteko "mimoa". Hala izendatzen du elkarrizketatu batek bestelako espazio publiko horiek (espazio publiko apostatek) eskaintzen duten giro babestua, zeinetan beraiek bilatzen dituzten gisako entzuleak topa ditzaketen, bai eta entzuleekin haien up-ak behar bezala azaldu eta ulertuak izateko hartu-emanak garatu ere. Hots, parekideen artean (antzeko matrize kulturala dutenen artean bai eta botere-harreman leunak dituztenekin) egongo dela berma dezake, eta hau, espazioak baldintzatzen dion zer edo zer da. Hala, ez da Gaztetxe baten oholtza edo tabernaren barra (soilik) haien up-en ikuskizuna burutzeko egoki bihurtzen dituen, baizik eta halako espazio publiko apostatek ahalbidetzen dituzten

<sup>37</sup> Txiskola 90. hamarkadan EITBk igorri zuen saioa da. Jendea txisteak kontatzera joaten zen bertara.

interakzioak dira (bertaratzen direnen ezaugarriak, adina, ideologiak, interesak, iritziak, harremanak izateko moduak, ea.) parekideen<sup>38</sup> arteko testuinguru egoki bat sor dadin ahalbidetzen duten baldintzat, bai eta ondorioz, haien up-ak garatzeko espazio egokia izatea dakarrena.

Ikerketan aztertu diren kasuen artean elkarrizketatu apostata batetik bestera up-ak igortzeko apropostzat jotzen dituzten espazioak aldatu egin badira ere, aipagarritzat jotzen dugu horietako gehienek Internet aipatu izana [E6][E14][E10].

*“Nik uste sareak asko kendu diola telebistari eta nik uste orain bertan sareak dala edozein eskinetara iristeko komunikabide potenteena. Eta nik uste, hor segitu nahi badugu jendearengana iristen euskaraz eta euskaraz egiten adibidez, nik uste sare oso garrantzitsua dala. Gainera orain sarean presentzia oso erraz izan dezakezu, edozer gauza grabatzea inoiz baino errezagoa da ta sarean eskegitzea gero”* [E15]

Erraza, azkarra eta edonora iristeko gaitasuna duen komunikabide gisa hautematen dute elkarrizketatuek Internet. Up-ak oparoki sortu zein partekatze aukera eskaintzen baitie eta espazio publiko hegemonikoetan lortzen ez duten presentzia eta ikusgarritasun publikoa eskuratzeko aukera ematen diela azaltzen dute. Hots, haien diskurtsoak oro har, eta up apostatak zehazki, helarazi eta hedatzeko espazio ezin hobetzat jotzen dute.

*“Sare sozialak ekartzen duena da, bueno bestelako ereduak, bestelako umore motak gure umorea ere, zabaldu eta konpartitzeko aukera (...) uste det Twitter eta sare sozialak funtzionatzen dula hain ondo garaiagatik. Oraingo sare bat dalako, eta ematen digu territorio libre bat nahi deguna iteko, ta hor ikusten da umoreak iten dula komunitate txiki bat”* [E5]

Azken elkarrizketatu honek *“territorio libre”* gisa ulertzen ditu Interneteko sare sozialak, non, *“bestelako ereduak”* eta *“bestelako umore motak”* darabiltzaten up-ak helarazi eta batez ere partekatze espazio apropostzat jotzen duen. Espazio publiko apostatak egokiak izatearen motibo nagusienetariko bat botere hegemonikoaren begiradatik at (ustez) dagoen espazio gisa hautemateak dakar: nahi dena esateko eta egiteko askatasuna duelakoan baitago, eta zehazki, euskal nazioari dagozkion up (diskurtso/irudikari) ez hegemonikoak helarazi eta partekatzea. Baina horrekin batera, bigarren hausnarketa esanguratsu bat egiten du elkarrizketatuak, hain zuzen ere, espazio publiko apostatetan up-ak igortzen aritzeak hegemoniatik at dagoen *“komunitate”* bat sortzeko aukera ematen diola azpimarratzen baitu. Alegia, boterearen kontrolpetik urrunago dauden espazio publiko apostatetan nahi bezalako up apostatak erabiltzeak praktika eta diskurtso horien bueltan sortzen den taldetasun bat eratzen duelakoan dago. Beste hitzetan esanda, up jakin batzuen inguruan sortzen diren interakzioak *“territorio librean”* egiten direnez, bai eta up-ak (euskal etniko autoerreferentzial) apostatak erabiltzen direnez ere, hor sortzen diren harremanen tasunak hegemonikotik bestelakotzen den euskal nazioaren inguruko komunitate bat sortzen duelakoan da. Hain zuzen ere, euskal nazioaren eraketaren parte den komunitate (ez hegemoniko) bat performatzen delaz dihardu.

#### 5.4.2.b. Espazio publiko apostaten (des)egokitasuna

Baina gauzak aldatu bidean doaz eta Internetek (ustez) eskainitako adierazpenerako askatasun hori murriztuaz doa azkenaldian. Edo akaso, Interneten ezaugarriak ez dira aldatu eta aldaketa bakarra betidanik egon den askatasun murriz eta kontrol maila handia orain agerikoagoa egin dela da, ez besterik. Edonola ere, egia da boterea (ageriki) esku hartzen dabilela honetan

38 Matrice kultural zein botere-harremanean parekideak direnak.

ere eta adibide gisa har daiteke espainiar estatuan, azken bost urtetan, ikuspegi hegemonikotik zilegitzat jotzen ez diren up-ak helarazteagatik isunak edo zigorrak jaso dituzten Internet erabiltzaileen kasuak nabarmenki ugaritu egin direla<sup>39</sup>. Badirudi, beraz, Internetek up-ekiko orain gutxi arte erakutsi duen zabalkortasuna aldatze bidean dagoela.

Aztertu diren zenbait kasutan gertaera horiek eragina izan dute up apostaten egileek komunikabide honekiko duten pertzepzio eta erabileran, eta hainbat kasutan Internet espazio publiko hegemoniko edo apostata ote den zalantza agerian jarriz eztabaidak sortu dira haien artean. Adibide esanguratsuenetariko bat *Ernai* gazte antolakundearen inguruan egindako up baten harira sortutakoa da<sup>40</sup>. Taldearen logoaren inguruan *Beranduegitik* egindako up-ak oro har erantzun positiboa jaso badu ere, bada helarazpen hau bestela hartu duenik ere. "Gazte" izen goitia darabilen erabiltzaile batek *Topatu.info*-ko blogean salatzen du *Ernai*-ren "aurkako" up-ak Interneten egiteak ekar dezakeen kaltea, eta auzitara dakar Internet up apostatentzat espazio "segurua" den edo ez. Eztabaidan gainontzeko erabiltzaileek up-ak erabiltzearen mesedeen alde agertu ostean, honela zehazten du "Gazte"-k bere kezka:

*"Bai ados zurekin umorerik gabeko iraultzak ez du etorkizunik. Baina nire ustez umorea batzuentzat dena, errespetu falta edo "seriotasun" (ez umorerik gabeko zentzuan) falta da. Adibidez, bideo hori barne mailan egindako zerbait izango balitz publikoa egin gabe beste gauza bat irudituko zitzaidake; guk barre batzuk bota ta nahiko. Baina, jendeak bideo hori ikustean pentsatzen duena da(eta neri esan didate) tontakeria hutsa dela eta ez duela inolako ekarpenik egiten."*

Alegia, *Beranduegiren* up-az kexatzen den "Gazte" honen ezinegona ez dagokio up-ak igortzen duen diskurtsori, baizik eta igorritako espazioari, berak "publikoan" egitea deitzen dionari. Kezka honek, noski, zer ikusia du up-an esaten denarekin ere, hain zuzen ere *Ernairen* inguruan trufa egiteagatik

hasten baita eztabaida. Baina trufa "*barne mailan*" egin izan balitz hainbeste inportantziarik emango ez liokeela aditzera ematen du blog-eko erabiltzaileak, "*barre batzuk botatzeko*"balioko bailuke "*ta nahiko*". Baina up-a publikoki eginez ondorioak bestelakoak izan daitezkeela uste du, "ekarpenik egiten ez duena", edo ziurrenik eta zehatzago esanda, ekarpen positiborik egiten ez duena. Hain zuzen ere espazioak baldintzatu egiten du espazio hori konpartitzen dutenen eta konpartitzeko moduen botere-harremana bai eta parte hartzen dutenen matrize kulturala ere. Hala, arrisku gisa hautematen du "Gazte"-k aukera hori, up apostatak erabiltzearen alde agertzen bada ere, bere ustez, up apostata nork ikusi eta nola ikusiko duen ez jakitea baitakar Interneten helarazteak. Eta zehazki, boterearen kontrola eta zigorra jasotzearen arriskua baino, norbere ahultasunak bistaratzearen larritasuna ekartzen du eztabaidara. Izan ere gogoan hartu behar da, up apostata hau ez dela botere hegemonikoarekiko apostata, baizik eta apostata direnekiko (*Ernai*) apostata, eta ondorioz, honakoak publiko kontrolatuan helarazteak etxeko teilatuari harriak botatzen aritzeko arriskua ekar dezakeelakoan dago: gozagarritasuna sortu edota horren orde (auto) iraina egiten ibiltzen ari ote direlako zalantza agertuz.

Kasu honetan ikus daitekeen moduan espazio publiko apostaten bai eta horietan egiten diren up apostaten helarazpenaren arteko kudeaketa konplexua eta gatazkatsua izatera iritsi daiteke. Honek agerian jartzen du, batetik, espazio publiko apostatarekiko erreflexibotasun maila handia dagoela up apostatak egiten dituztenen artean, bereziki espazio bakoitzak sor ditzakeen eragin eta ondorioei dagokionez. Hala, Interneten kasuan ikusi bezala, espazio batek duen kontrol maila anbigua edo ongi definitu gabea delako ustea egonez gero, eztabaidak sor daitezke haien artean esan/egin daitezkeen eta esan/egin ezin diren up apostaten doiketa zehazteko. Bestetik, erreflexibotasun maila altu horrek up apostaten egileen artean sortzen duen ekintza/diskurtsioen inguruko kontrol maila altua izatea dakarrela ikusi da, eta ez soilik botere hegemonikoaz gaindi ongizate komun (apostata) bati begira elkarrekiko izan dezaken kontrolarengatik, baizik eta baita norberak bere buruari ezartzen dionagatik ere.

39 Adibideak ikusteko: 20 minutos (2016); Libertad Digital (2016); Olaya, V. (2015); Del Barrio, A. (2016).

40 Gogoan hartu 5.2.3 Kolektiboa atalean aipatutako adibidea. *Ernairen* logoaren inguruan *Beranduegitik* egindako up-a.



## 5.4.2.c. (Auto)kontrola

Honi dagokionez up apostaten artean dagoen auto-kontrolari erreparatu zaio, hots, beste inork ezer esan aurretik (ez botere hegemonikoak, ez eta beste egile apostatek ere), up apostaten egileek haien up-ak mugatu, zentsuratu edo kontrolatzeko duten erreflexibotasunari. Bi aldaera topatu dira honen baitan. Batetik, orain arte esandakoa kontuan izanik aurreikusgarria dena; hau da, espazio publiko hegemonikoetan haien up-ak igortzeko/ez igortzeko duten (auto)kontrola. Eta bestetik, espazio publiko apostaten baitan, hots, orain arte ikusitakoaren arabera up apostaten egileek nahi dutena helarazteko askatasuna duten horietan, zenbait errealitate up bidez jorratzeko orduan dituzten mugak eta (auto)kontrola.

Aurrenekoan sakontzeko, elkarrizketatu baten aipua ekarri nahi da gogora:

*"Bueno ba nik uste dut, eta esan nuen lehenguan, marrazkilariok badakigu gure lanean guk egiten dugun hori dela monigoteak (...) baina jendeak oso gaizki hartzen ditu gauzak. Oso gaizki. Ez dute gure ikuspegi hori, dela monigote bat eta momentu batean egindakoa. Ez, ez, ez. Iruditzen zaie dela doktrina bat. Esaten ari zarela zeozer oso pisuzkoa. Eta bueno, ematen du baloreen aurkako bonba bat izan daitekeela. Neretzat ez da hainbesterako, baina bueno, jakinda nola hartuko dituzten, ba ez dituzu egiten eta kitto."*

[E27]

Jendeak izan dezakeen arbuio erreakzioa dela medio egingo lituzkeen baina egiteari uzten dion up-en auto-zentsura ariketa burutzen du elkarrizketatuak. Hemen up-a burutzen duen subjektuak berak egiten du up-ak sor zitzakeen efektu posibleen balorazioa (gozagarritasunaren edo honen gabeziaren irakurketa) eta horren arabera birmoldatzen du up-an erabiltzen dituen *haustura, objektibazio* eta "naturalizazioen" tasunak. Kasu honetan, sistema panoptiko baten eragina antzeman daiteke (Foucault, 2002), alegia jarrera jakin batzuen (auto)korrekzioa burutzea, jarrera horiek gizartean (errealitate

sozial hegemonikoan) helarazterakoan sor dezaketen "desbiazio" hipotetiko bat zuzentzeko. Kasu honetan auto-kontrola edo auto-zentsura ekintza burutu aitzinekoa da; espazio publiko hegemonikoa espazio zelatatu gisa ulertzen baitu elkarrizketatuak eta bere ekintzak erreprimitzeko edota era bat erreprimituak izan gabe ere honakoak egokitu, leundu edo mugatzeko ahalegin kontzientea egiten du. Honako jarrera hedatua dago up apostatak burutzen dituzten artean eta hain zuzen haien up-ak moldatzen ibili behar ez izateko espazio publiko apostaten bila jotzen dute maiz.

Baina espazio publiko apostatetan dagoen askatasuna ez da erabatekoa. Aipatu nahi den bigarren kasuari helduz, espazio publiko apostatetan helarazten diren up-ei dagokionez ere zenbait muga badaudela agerian jarri da. Kasu horietan egiten den auto-zentsura edo auto-kontrola, ordea, ez da up apostata batek espazio horren baitan sor dezaken ondorioetan oinarritzen, baizik eta up apostataren egileak up-ez egiten duen hautematean baizik. Zenbait elkarrizketatuk agerian jarri dute up apostatak helarazteko espazioetan oso babestu eta eroso sentitu badaitezke ere zenbait gai up-ez jorratzea ezinezko ikusten dutela. Euskal presoen gaia da, adibidez, horietako bat.

*"Euskal presoetaz umorea egitea? Ez, nik ezin dut. Bai enuen hori pentsatzen baina badira bai gauzak irriz ez ikutzeko Euskal Herrian baitan."* [E18]

*"Neri oso gogorra egiten zait presoen inguruko txiste bat egitea. Ordun, pues klaro, holako gai bat tratatzean beti enfokatzen duzu, ez dakit. Bai eta limitazio bat da, seguruna eduki beharko genuke lasaitasuna, ez dakit hortaz ere umorea egiteko."* [E6]

Espazio publiko apostatak babestuak izateaz gainera, irekiak eta hauskorrak diren up-ak sortzeko eta partekatzeko egokiak direlakoan egon gara orain arte. Baina zenbait elkarrizketaturen testigantzak kontuan hartzen badira, eta bereziki zenbait gai up-z jorratzeko agerian jarri dituzten zailtasun handiak

aintzakotzat izaten badira, espazio publiko apostaten ezaugarriak ulertzeko modua findu beharrean ikusten gara.

Errealitate soziala (beti ere euskal nazioaz ari garela gogoan izanik) hegemonikoa ez den bestelako moduez hautemateak bai eta up-etan bestelako ikuspegiak agerian jarri nahi izateak ez du esan nahi ikuspegi horiek entropikoak direnik. Hau da, orain arte ulertu da espazio publiko apostetan garatzen diren up apostatek hegemonikoa den errealitate eta ordenuari aurka egiten diotela eta hain zuzen ere horregatik espazio publiko hegemonikoan agertzeko zailtasunak izaten dituztela. Baina elkarrizketatuen azken aipu horiek kontuan hartzen badira agerian jartzen dira apostata direnek ere nolabaiteko zailtasunak badauzkatela up-ak erabiltzerako garaian, eta espazio publiko apostatetan jardunda ere zenbait ezintasun edo auto-muga gainditzea dezente kostatzen zaiela.

Muga, ezintasun, auto-zentsura edo auto-kontrolaren zantzu horiek, beraz, apostatek duten errealitate sozialaren ikuspegiaren baitan nolabaiteko ordenu bat badagoela pentsatzera garamatza. Hau da, up apostatak erabiltzean ez dago errealitate sozial hegemonikoa "des-eraikitze" nahi hutsa, baizik eta baita bestelako errealitate desberdin (eta zehaztu) bat "eraikitze" gogoia ere. Hots, espazio publiko apostatetan egiten diren up-en erabilerak ez du errealitate hegemonikoa zartatzea bilatzen soilik, baizik eta baita bestelako errealitate sozial bat indartu edo agerian jartzea ere. Eta bestelako errealitate horiek anitzak izan badaitezke ere (apostaten artean dagoen diskurtso/irudikari ugaritasuna kontuan izanik), errealitatea ikusteko modu jakinak diren heinean haien gutxieneko logikak, arauak, balioak, ea. dituzte. Halaber, gutxieneko logika horiek "haustura", "normalizazio" eta objektibazio propio batzuk baldintzatzen dituzte, eta ondorioz, baita up-ak zer diren ulertu, kudeatu eta gozatzeko modu jakin batzuk ere.

Apostaten kasuan nabarmena da euskal preso politikoen gaiari up trataera emateko orduan zailtasunak dituztela, zeinak elkarrizketetan ez ezik, behaketetan ere ageriko egin diren. Honen adibide esanguratsua da, besteak beste, 2013an *Etixerat*-ek<sup>41</sup> Oiarzunen (Gipuzkoa) antolatutako bertso saioan topatutakoa

[B10]. Bi kontu argitu behar dira behaketan ikusitakoa azaltzen hasi aurretik. Batetik, aintzat izan behar da bertso saioetan up-ak erabiltzea ohiko jarduera dela [B10] [B9] [B16] [B18]. Bertsolariek *hausturak* sortzen dituzte elkarren artean zirikatuz edota gaiari "ustegabeko" iraulia emanez (ohikoak ez diren irakurketak sortuz), up-ak erabiltzeak saioak arin eta atseginak izan daitezela laguntzen baitu (Dicharry, 2013). Honekin batera, beste datu bat ere kontuan hartzekoa da. Hain zuzen ere, *Etixerat*-en bertso saioaren helburua elkarteari ekonomikoki lagundu bai eta euskal preso politikoen errealitatea gizartean landu eta ikustaraztea denez, bertso saioa gai jartzaileak presoekin zer ikusia dituen gaiak jarri ohi dituzte saioan zehar eta horien inguruan abestu behar izaten dute bertsolariek. Hartara, bi datuok kontuan hartzen badira, badirudi halabeharrezkoa dela, batetik, euskal preso politikoen gaia, eta bestetik, up-ak elkarrekin agertzea; edo bestela esanda, euskal preso politikoen gaia up-en bidez jorratua azaltzea. Behaketak, ordea, bestelako egoera bat aurkeztu zuen.

Gai jartzaileak, espero bezala, euskal presoekin zer ikusia zuten gaiak jarri zituen saioan zehar, oro har, gai tragiko edo gogor gisa planteatu zirenak, baina hauekin batera, presoekin zer ikusirik ez zuten gai arinagoak tartekatu zituen, up-ez tratatuak izateko aproposak zirenak eta saioari nolabaiteko arintasuna ematen ziotenak. Hala, bi esparruak, alegia euskal preso politikoen gaia eta up-ak ez ziren inongo momentuan elkartu. Gai jartzaileaz harago, bertsolariek ere errespetatu zuten gaiekin egin zen banaketa eta gai arinak up-ak egiteko erabiltzen zituzten modu berean, presoentzako erreserbatu zituzten ikuspegi sakonagoko hausnarketak. Hartara, batetik, euskal preso politikoen gaia ez zen behin ere up-en bitartez jorratu baina bestetik saioak atsegina (eta ez oso astun edo sakonegia) izatea lortu zuen.

Adibide horrek agerian jartzen du espazio publiko apostata izan daitezkeen horietan ere, non interakzioak, diskurtsoak edo kosmobisioak parekideak diren bertan dauden gehienen artean, zenbait gai, eta kasu honetan euskal preso politikoen errealitatea up-en bidez ukitzeko dagoen erreparoa handia dela oro har. Aurretik esandakora bueltatuz, beraz, honakoa ikusten dugu: up-en bidez gai oro ukitu ezinak up-ekiko hautematearekin zer ikusi zuzena duela,

41 ETAko preso senideen elkarte

non, esparru hegemonikoetan bezalaxe esparru apostatak direnetan ere up-ei mugak (auto)kontrolak eta (auto)zentsurak ezartzen zaizkien. Hartara, up apostatak bai eta up apostata horiek garatu eta helarazteko erabiltzen diren espazio publiko apostatak ere potentzialtasunez beteak egon arren, ez dira kaotiko, aske edo kontingente gisa ulertu behar. Horren ordez, hegemonikoak direnak baino malgu edo zabalagoak badira ere (ikuspegi desberdin eta kontrajarri gehiago onartzen dituztelako) badute haien baitan hegemonikoa ez den beraien errealitate sozial propio bati lotuak doazkion "ordenuak"/"logikak", eta up-en tasuna eta kudeaketa horiei lotua doakio era bat.

Honen bitartez ikusi da up-ak aurre-ezarria dagoen errealitate ( $x^1$ ) ikuskera bati lotua doakiola, bai hegemonikoetan zein apostaten kasuan ere, eta nahiz eta up-en bitartez honako errealitateak aldarazi daitezkeen, errealitatearekiko *haustura*, aurrezarria dagoen errealitate horrekin ( $x^1$ ) bat ez datorren beste errealitate sozial desberdin bateko ( $x^2$ ) up-ak sortaraziko du. Hots, errealitate hegemonikoarekiko ( $x^1$ ) apostata ( $x^2$ ); edo apostaten ( $x^2$ ) apostata ( $x^3$ ); edota apostaten apostaten ( $x^3$ ) apostata ( $x^4$ ) direnak, ea. Oso nekeza eta zaila baita aurrezarritako errealitate horretan daudenek ( $x^1$ ), horretan sinetsiak dauden bitartean behintzat, errealitate hori *hautsiko* duen bestelako (up) diskurtsorik helaraztea.

Edonola ere, kontuan izan behar da up-ak komunikazio harreman bat diren heinean horien praktika hutsak uste gabeko ondorio eta irakurketak sortarazi ditzakeela eta ondorioz, bestelako errealitateak garatzeko aukera ematen duela honek. Bai eta up-ak darabilten hausturengatik ere maiz errealitate soziala kontingente gisa erakusteko aukera ematen dutela, eta horrek ere errealitatea bestela ulertu eta performatzeko aukera ematen duela. Hartara, goian planteatu den eskema [( $x^1$ ), ( $x^2$ ) ...] up-ek oro har erakutsi duten joera gisa ulertu behar da, baina ez, inondik ere, up-ek duten halabeharrezko funtzionamendu sistemiko gisa. Izan ere, ulertzen dugu up batek aurre-ezarria dagoen errealitate bat espero gabe (edo horretarako borondaterik izan gabe) eraldatzeko gaitasuna ere izan dezakeela, ikerketan halako kasurik topatu ez bada ere, maila teorikoan aukera hori gertagarria dela agerian jarri baita (ikus 2. *L'humour* kapitulua).

Aipatu berritakoaz gain oso kontuan izan beharrekoa dela deritzogu elkarrizketatu apostatek "muga" horiez jabetun direla ikustea (hegemonikoek kasuan gertatzen ez den bezela) eta horiek aldatzeko kontzientzia eta borondatea dutela kasu askotan. Gogora ekarri behar da elkarrizketatu hegemonikoek up-en kudeaketaz jarduterakoan "sen ona", "normala" edo "demokratikoa" gisako planteamenduak erabiltzen dituztela up-ak hauteman eta baloratzeko orduan. Elkarrizketatu apostatek, ordea, botere hegemonikoak jartzen dituen kontrol eta zilegitasun mugez kontzienteago izanagatik behar bada, up apostak sortzerako garaian dituzten gabezia eta zailtasunez jabetun dira, eta honakoak auzitan jarri eta kritikatzeko erreflexibotasun handiagoa erakutsi dute.

*"Agian lortu daiteke modu bat, eta orain ez zait etortzen burura, lantzeko gai hauek ere. Egin beharko litzateke, baina egia esan dispertsioa parodiarekin lantzea pues esque, ez dakit nundik heldu(...) Klaro parodia egin dezakezu me rio de este o me rio del otro. O no. Honekin ari dizut kontatzen egoera gordin bat. Ez dakit, uste dut egin daitekeela baina zailagoa da eta kontu handia izan behar da ondo kontatzeko zer esan nahi duzun horrekin"* (sic.) [E24]

*"Nik uste det azken urteetan bai ematen ari dela saiakera bat, Konpartsetan adibidez. Karo imagino bastante ortopedikak egongo gerela hainbeste urte eta gero beste gauza batzutan edo beldur asko egongo da sartzeko umorea hainbat kontutan. Zeintzuri okurrituko litzaiguke presoan inguruko aldarrikapen bat edo umorez planteatzea, orain dela... Eta gaur egun ere ez da oso erreza, baina gure egoera erlajatzen dijoan neurrian gauza batzuetarako hobeto eta beste batzuetarako okerrago, bueno borroka moldeak ere eraldatzen doazela eta hor umorea ezinbestean sartu behar dala, nahi dala, behar dala."* [E20a2]

*"Iruditzen zait presoan gaiarekin ere poliki poliki sartzen ari dela umorea baina asko dago egiteko oraindik(...) Sendatu beharko dira hainbat zauri eta sendatu beharko dira hainbat zera. (...) Herri honetan oraindik oso*

*konplikatu egiten da gatazkaren ondorioak oso presente daudelako behar bada, baina saiakera horretan jarraitu beharko genuke, onuragarria baita."*

[E19c2]

Gai guztiak up-en bidez jorrazteko borondatea agerikoa da elkarrizketatu apostatetan, baina horretaz gain, azken elkarrizketatuak zantzu bat ematen du euskal preso politikoen gaia up-en bidez jorrazteko zailtasunak oinarria non duen ikusteko. Izan ere, argi uzten du bere ustez "gatazkaren ondorioak" oraindik ere hurbilegi daudela eta up-en tratamenduaren (egoki)tasuna nolakoa beharko lukeen ikustea zailtzen duela horrek. Hala, agerian jartzen du berak duen errealitate sozial apostata horretan gatazka politikoa "irekia dagoen zauria dela" edota bestela esatearren, bere errealitate sozialaren "ordenu" edo "logikan" mingarria eta sentikorra den gaitzat duelako ez duela up-etan askeki tratatzeko aukerarik ikusten, ezta espazio publiko apostatan ere.

Honi lotuta, aipu bat gaineratu nahi dugu puntu honetan. Izan ere, bai espazio publiko hegemonikoetan zein apostatetan egin diren up-etan, hegemoniko eta apostaten aldetik egin diren up-etan gatazka politikoiari eman zaion trataera oso antzekoa izan dela aipatu nahi da. Hots, apostatek gatazkari loturiko zenbait gaien inguruan aritzeko erakutsi dituzten zailtasunak gaiaren sentikortasunari lotuak doazkion modu bereberetan, hegemonikoek ere agertu dituzte gatazka politikoa up-ez tratatzeko erreparoa. Besteak beste, hala interpretatu daiteke Bilboko *Konpartsen desfilean* euskal preso politikoen argazkiak atera zitezten aurka agertu izana. Egia da, batzuk eta besteak, apostata eta hegemonikoek, ez dutela gatazkaren inguruan ikuspegi berbera konpartitzen (matrize kulturala) eta batzuen eta besteen arteko botere-harremana ere ez dela berbera eta horrek sortzen du, besteak beste, up bati eman diezaioketen irakurketa desberdina izatea kasuan kasu. Baina egia da, bestalde, gaia, bere horretan, kontu handiz maneiatzen dutela oro har, eta up baten batean plazaratzeko erabakia hartzen dutenean ere, zailtasun, min eta sentikortasun antzekoak agertu ohi dituztela hegemoniko eta apostatek.

*"Hori egiten zuen Ciklos Iturgaitz taldeak, sortzen du egoera bat oso berezia dana. Gogoratzen dut duela pare bat urte, jo zun Bilboko Aste Nagusian txosna batean eta hasi ziren, bueno beraien letrak dira denak oso satirikoak, nahiko umore azidoa, eta kontzertua ematen ari ziren bitartean zeuden karetekin, Zapateroren kareta bat, Rajoyrena, ez dakit jende ezaguna, eta tontoarena egiten, ez dakit. Baina klaro momentu batean atera zuten Miguel Angel Blancoren kareta bat eta hor ya, nik uste, edo nire inguruan behintzat giro aldatu zen. Bale orain arte parra egiten ari ginen, baina orain ez dakit ya... Igual parre eginez gero ere, igual ya da beste, litzake ya, disfrute bat kulpaz bete bezela. Klaro umore mota hori oso delikatu da zentzu horretan ze zabilta marra batean ya gusto txarretik edo ukitu ezin diren gaiak ukitzetik ez? Eta hor sortu dezakezun umorea da oso umore berezi bat baina bestetik uste det oso zaila dela umore hori egitea, ze klaro, oso gogorra egiten da Miguel Angel Blancoren kareta batekin norbait tontoarena egiten ikustea, ez?"*[E6]

Honako jarrerek Daniel Innerarity filosofoak dioenarekin bete bete josten duelakoan gaude: "umorea, tragedia gehi denbora dela" esaten duenean<sup>42</sup>. Izan ere, badirudi gatazka politikoa ez dela oraindik behar adina digeritu gizartean; gertaerak, agenteak, ekintzak, sentimenduak, eta a abar. ez daudela behar bezala finkatuak, edota gatazka, modu sinboliko/politikoan bereziki, eraikitze prozesu batean dagoela oraindik. Hartara, modu metaforikoan esanda, xake partidaren estrategia, arauak eta figurak behar bezala zehaztuak ez daudenez, egiten diren mugimenduak neurtu eta kontrolatuak izan daitezen saiatzen dira guztiak, eta up-ak, ziurrenik neurgabe eta deskontrolarazleak izanagatik (kontrolatzen zailak diren ondorioak sortarazten dituztelako), jokotik kanpo uzten dira halako kasuetan, izan ere, "oso zaila da umore hori ondo egitea" [E24]. Jawal Mejjad-ek (2007) umorearen erabilera sozialaz egiten duen irakurketa gehi dakioke honi, hain zuzen ere, eraikitze bidean dauden errealitate sozialen inguruko up-ak sortzea zaila edo gaizki ikusia dela defendatzen baitu

42 [E16] elkarrizketatuak emandako erreferentzia

autoreak; eta alderantziz, ongi finkatuak dauden errealitatei buruz jarduten duten up-ak askoz ere errazagoak eta hobe ikusiak direla deritzo. Kasu honetan, pentsatzen dugu apostata zein hegemonikoek gatazka politikoaren inguruko up-ak erabiltzeari uko egitean bat datozela, hain zuzen ere definitzeko dagoen prozesu bat delako, eta beraz, Innerarity- dioenera bueltatuz, egoera finkatu eta honen inguruko sentimenduak argitu edo gaintzeko denbora igarotzea beharrezkoa da, gatazka politikoa up-en bidez gizartean lasai uki daitekeen gaia izatera pasatzeko.

#### 5.4.2.d. *Up-en hautematea*

Egoera honetan, ordea, gatazka politikoa bezalako errealitateak nola, nork eta nondik finkatu eta definituko lituzkeen ikustean legoke gakoa (tesi honek hori egingo ez badu ere) eta finkatze horretan up-ak, orain arte tentuz erabili direnak, errealitate jakin baten definizio edo egonkortzearen nolakotasuna zehazteko (gatazka politikoa, kasu) baliagarri izan daitezkeen edo ez jakitean.

Honen inguruko hausnarketak asko aldatzen dira apostata eta hegemonikoak diren elkarrizketatuen artean; up-ak duten potentziala era bat desberdina baita batzuen eta besteen begietan. Matrize kultural hegemonikoari dagozkion elkarrizketatuek, esaterako, up-ak dibertimendu edo gozamererako praktika gisa hautematen dituzte soilik. Gilles Lipovetsky-ren ikuspegiari jarraiki (ikus 2. *L'humour* kapitulua), up-ak harreman sozial eta praktika kultural "atseginak" sortzeko bitarteko gisa ulertzen dituzte, hots, diskurtso jakin bat dibertimenduzkoa izatea ahalbidetzen duen "forma" diskurtsibo moduan (Lipovetsky, 1983). Hala, ez dute uste up-ek inolako eraginik izan dezaketenik eta bete betean jotzen du botereak up-ez igortzen duen mezuarekin, alegia, up-ak dibertitzeko bitarteko atseginak direlako ustearekin, eta beraz, kaltegabea (edo eragin gabekoak) izatearen sinesmenarekin.

Bestelakoa da apostaten ikuspegia. Izan ere zenbait gairekin up-ak erabiltzeko erreparoa izan arren, horiek gaintu eta espazio publiko

hegemoniko zein apostatan up-ak erabiltzeko borondate argia erakusten dute (gorago adibidetzat hartutako aipuetan ikusi bezala), besteak beste, subjektua eta errealitate soziala eraikitze potentzial politikoa esleitzen diotelako.

Subjektuaren eraketari dagokionez, hainbat elkarrizketatuk agerian jarri dute up-en bidez haien burua "agerian" jartzeko modua topatzen dutela. Pentsatzen eta sentitzen dutena gizartearentzat "zilegiagoak" diren moduetan azaleratzekoa, eta beraz, espazio sozialean subjektibotasun berriak eraikitzekoa ere bai. Alegia, errealitatearen ikuspegi hegemonikoa konpartitzen ez dutenek up-etan diskurtso hegemonikoarekiko desadostasun hori agerian jartzeko bide bat topatzen dute, eta ariketa horretan, haien buruak ere hegemonikoa ez den bestelako diskurtso horietan identifikatu, osatu eta bir-sortzen dituzte. Up-ak "bizitzeko" modu bat ere baitira:

La participation que rend possible la matrice culturelle hégémonique dans la médiation des ph est d'un autre ordre, selon nous. Nous entendons que la matrice culturelle hégémonique participe (en jouant un rôle politique) également à la constitution de la nation basque, c'est-à-dire qu'elle est présente dans cette médiation, et d'une manière peut-être plus significative/manifeste que l'apostate, notamment parce que son discours apparaît comme prédominant dans l'espace public hégémonique. La médiation proposée par la matrice culturelle hégémonique, en revanche, est plus conservatrice car, dans une large mesure, elle permet seulement d'agir en tant que reproducteur des imaginaires/discours de la nation basque qui sont préétablis, en limitant considérablement les possibilités de les modifier ou de les révolutionner. Cela a pour conséquence, selon nous, d'éloigner les imaginaires correspondant à la nation basque (qui sont des discours et des pratiques, en fin de compte) des référentiels pratiques (de la réalité de la rue), de les fonder sur le caractère symbolique des imaginaires et d'attribuer à la perception imaginée du signe « basque » et de la nation basque un caractère stéréotypé. Autrement dit, même si les imaginaires liés à la nation basque reproduisent la nation basque, il semble qu'il n'y ait pas de possibilité de les modifier dans le collectif basque, ce qui suppose, à notre avis, que les signes, pratiques et caractéristiques assignés à la nation basque par le biais des ph hégémoniques demeurent distanciés de la société. Nous pensons donc que ce que la matrice culturelle hégémonique encourage dans la médiation des ph, ce sont les *processus d'identification* de la nation basque, et pas tant les pratiques identitaires (pratiques de subjectivation), ce qui profite indirectement au développement des pratiques sociales quotidiennes selon la « normalité » espagnole.

Dans le droit fil de ces mentions, il s'agit d'exprimer clairement, quoi qu'il en soit, que cela ne signifie pas pour autant qu'il existe des discours de la culture nationale hégémonique espagnole au cœur du nationalisme basque, notamment parce que l'analyse des ph n'est pas suffisante pour évaluer

complètement le discours nationaliste. Mais on a constaté, l'analyse des ph l'ayant montré, que les imaginaires/discours du nationalisme basque présentent de grandes ressemblances avec ceux de la culture nationale espagnole au sujet de la nation basque. La raison pourrait en être que le nationalisme basque, pour compléter le *branding* de la nation basque, s'est beaucoup servi des imaginaires/discours des ph émis depuis l'Espagne. Ainsi, nous comprenons que la matrice culturelle hégémonique s'est approprié ce type de discours correspondant à la culture nationale hégémonique d'origine espagnole. Par conséquent, il ne faut pas percevoir la violence exercée par la culture nationale espagnole sur la culture nationale basque comme symbolique, mais, même si cela a pu être le cas, on pourrait l'interpréter comme un indicateur ou une partie du caractère du discours nationaliste hégémonique basque actuel, qui fait également partie, dans une large mesure, de l'imagerie dominante à propos de la nation basque. Ce qui, ajouté à l'influence du processus de socialisation mentionné plus haut, pourrait expliquer le succès qu'ont les discours-ph dans le collectif (et dans la société en général), ainsi que la raison de leur création/production principalement au Pays Basque.

Même si dans l'imagerie/les discours sur la nation basque, certains sont hégémoniques, nous nous en tenons à l'idée de diversité. Diversité dans les manières de vivre et d'appréhender la nation basque (dans les matrices culturelles), dans les discours qui sont en lien avec ces dernières, et par conséquent, dans les ph également.

On pourrait dire que nous comprenons l'humour comme un champ dans lequel cette diversité est présente, et que nous considérons l'humour en tant que médiation puisqu'il offre une conjoncture permettant de gérer, articuler et intégrer socialement cette diversité. On a vu que cette médiation des ph qui se déplace au sein des possibilités et des limites offertes par la *rupture*, la

*distance* et le *plaisir*, permet de transmettre à la société les différents discours de la nation basque et donc aussi, de performer l'imagerie de la nation basque portée par les différents discours. Ainsi, sur elle repose la potentialité de conserver la réalité sociale en l'état ou de la faire évoluer. Mais dans la mesure où la position de pouvoir de chaque discours est différente (hégémoniques et apostats), chacun d'entre eux utilise des voies (tactiques) différentes afin que le discours soit transmis, ou afin d'empêcher les revendications autres que les siennes. Ces rapports de pouvoir/articulations entre les discours ont également lieu au sein de cette médiation des ph et facilitent la possibilité d'orienter la constitution de la nation basque vers un *processus d'identification* ou un *processus de subjectivation*. Nous comprenons donc que la médiation des ph est un champ social spécifique pour la constitution de la nation basque qui a ses propres possibilités et limites, et qu'elle constitue une conjoncture permettant de refléter (ce qui se dit), d'influencer (laisser en l'état ou faire évoluer) la structure du système social (en l'occurrence celle qui correspond aux discours sur la nation basque), de connaître et de créer les changements et les impacts qui vont au-delà de l'espace exclusivement humoristique.

Conjoncture *confortable*, d'une part. Car, bien qu'elle ne donne pas une totale immunité pour transmettre ce que l'on veut, étant donné le caractère inoffensif et positif qui est associé socialement aux ph, elle offre, d'une certaine manière, protection et tranquillité lorsqu'il s'agit d'émettre des discours. Conjoncture *hautement transversale*, d'autre part. Car, grâce au large assentiment dont bénéficie le plaisir qu'elle suscite, elle permet une diffusion rapide auprès des espaces sociaux auxquels il serait difficile d'accéder autrement. Et aussi *politique*. Ceci pour deux raisons majeures.

D'une part, parce qu'elle donne la possibilité d'influencer expressément la réalité sociale, alors que ses conséquences évolueront selon le type d'impact que l'on cherche à obtenir. En effet, comme l'ont montré les entretiens des

apostats, elle dispose d'une capacité à interroger ou perturber la structure et la « norm(alité) » sociale, autrement dit, elle peut mettre en lumière, et donc faire évoluer, la contingence de la réalité sociale. Mais encore, comme le travail de terrain l'a montré, elle permet aussi de pérenniser et de garantir une réalité et un ordre social donnés.

D'autre part, elle performe la réalité sociale au moyen des discours. D'un côté, elle entraîne la *politisation* (de manière irrationnelle) de tout ce qui participe directement ou indirectement aux ph. C'est-à-dire, compte tenu de l'approche post-structuraliste qui reconnaît le ph, qu'elle devient partie de ce discours (cette reproduction), en reconnaissant à ce discours une légitimité (le *plaisir*). Par ailleurs, comme cela est apparu dans les entretiens, la reproduction des ph permet de « vivre » dans ses discours, à savoir, d'imaginer « selon son gré » la nation basque et d'expérimenter cet imaginaire, et aussi, par voie de conséquence, de percevoir d'autres subjectivités qui ne sont pas permises par le contexte social habituel (hégémonique), de les construire, de construire en elles et à partir d'elles. Concrètement, nous considérons cette opération comme la base de la performance de la nation basque, qui, parce qu'elle constitue l'apport issu de cette conjoncture d'expérimentations et d'expériences que permettent les ph, influe sur les imaginaires et les discours des sujets (et donc aussi sur leurs pratiques quotidiennes).

#### *-Prospective*

Approfondir cette influence est précisément l'une des principales voies que ce travail laisse ouvertes. Cette thèse a eu pour objectif de jeter un pont entre l'humour et la constitution de la nation, et de découvrir les caractéristiques de ce pont, mais cette réflexion s'est ouverte sur d'autres champs qui mériteraient, selon nous, d'être explorés et analysés avec plus de profondeur.

L'un d'eux, qui n'a pas été exploré par cette thèse mais qui, à n'en pas douter, aiderait grandement à enrichir et à connaître plus en profondeur l'approche de la médiation des ph, est la connaissance et l'étude de l'influence qu'exerce la médiation sur les récepteurs de ph.

De même, l'étude du traitement, au moyen des ph, réservé aux thèmes considérés aujourd'hui comme conflictuels, nous paraît particulièrement intéressante. Compte tenu du lien étroit que les ph entretiennent avec le contexte social, et de leur capacité à influencer le quotidien, nous estimons particulièrement intéressant de connaître la gestion des réalités liées directement ou indirectement au conflit politique du Pays Basque. Ainsi, nous pensons que savoir comment les ph, à travers cette capacité qu'ils ont, non seulement de refléter la réalité sociale, mais aussi de la performer, projettent les réalités sociales à court et moyen terme, pourra aider à savoir à quoi ressemblera, à l'avenir, l'imaginaire social concernant le conflit politique. Nous pressentons que les ph actuels pourraient être, dans le futur, les précurseurs de la structure sociale que l'on veut obtenir, et donc, s'agissant du conflit politique, nous avons l'espoir qu'observer quel type de mémoire historique les discours des ph sont en train de composer et de transmettre, et quelles bases ils établissent pour que l'imaginaire de la future mémoire historique prenne telle ou telle tournure, est un champ de recherche fécond.

## 6

## ONDORIOAK

*"Este pueblo no ha menester que le diviertan, sino que le deben divertirse"*

(Gaspar Melchor de Jovellanos, 1744-1811)

Ikerketaren abiapuntua umoreak euskal nazioaren eraketan duen rol politikoa ezagutzeko galderak markatu du, baina ikerketan zehar jasotako erantzunek nabarmenki gainditu dute itaunaren langa. Arrunki erabili ohi den barre inozente eta debaldekoak markatzen duen umorearen ohiko optika naroki dilatatu, eta hastapenean pentsa zitekeena baino askoz aberatsagoa eta korapilatsuagoa den errealtate sareaz inguraturik dagoela antzeman da. Bada, umoreak nazio eraketan duen esku hartzea, umorearen jardun politikoak dakarren kate luzearen azkenetariko begia dela ikusteraino.

Ikerketak argitara ekarri nahi izan du umorearen eta euskal nazioaren eraketaren arteko harreman zubia, hau da, umore bidezko nazio eraketa prozesuaren beraren nolokotasuna. Baina ildo honetan miazten aritu diren ikerlanen urritasuna dela medio, harriz harri eraiki beharreko zubia izan da hori; abiapuntua (ikuspegi soziologikoa) eta helmuga (eraketa prozesua ezagutzea) izan baitira hastapeneko ipar orratz bakarrak.

Urritasun hori gainditzeko halabeharrez egin da sakoneko hausnarketa teorikoa, perspektiba makro-mikroak zein teoriko-enpirikoak kontuan hartuz, ikerketarako

egokiak diren urratsak ematen lagundu duena. Eta hain zuzen ere hausnarketa teoriko hori egin izanak ahalbidetu du, gure ustez, umorearen azterketa soziologikoan egon den gabezia handi bati irtenbidea topatzea: izan ere, umore bidezko euskal nazioaren eraketa ezagutzeko gutxiengo nozioak bistaratzeaz gain, lan honen ekarri nagusitzat jotzen dugu, umorearen analisirako baliagarria den teorizazio eredu soziologiko bat osatu izana.

- *Eredu teorikoa*

Eredu teorikoaren oinarrian dago elkar lotu beharreko bi kategorien (nazioa eta umorea) bakarkako lanketa, nahiz eta horren helburua ez den izan horien definizio bat lortzea, horiek ezagutzea baizik. Esan nahi baita, nahiz eta ikerketaren ostean nazioaren eta umorearen definizio propioak osatzeko adina eduki argitara ekarri den, hastapeneko jarrera bestelakoa izan da: nazioa eta umorea zertan dautzan estalgabetzeko gogoak, eta ez hainbeste zer diren finkatzekoak, bideratu baitu horien inguruko gogoeta.

Nazioa ikuspegi sinboliko/diskurtsiboan oinarritzeak ahalbidetu du harekiko jakinmina asetzen joatea. Aurrezarritako errealtate bat dela zalantzan jarri eta nazioa hautemangarriak diren baldintza materialetatik harago, hari buruz dauden usteek, diskurtsoek edota irudikariek (ere) baldintzatzen dutela ikusiaz. Ulertu dugu nazioa egon badagoelako kontzientzia sozial (maiz aurre-arrazional) baten existentziak performatzen duen errealtate soziala dela, egunerokoan lantzen diren diskurtso/irudikarietan bere muina duena (edo muin nagusietariko bat bai behintzat), eta hain zuzen ere horregatik, iheskor, aldakor, malgu eta anitz gisa suertatzen zaigula.

Hala diote oinarri lez hartu ditugun ikuspegi teorikoek

eta hala agerrarazi du landa lanak ere. Elkarrizketatuek euskal nazioa ulertzeko duten moduak (nazioari dagokion matrize kulturalak) eta haiek erabilitako up-ak zuzenean lotuak daudela ikusi baita. Bakoitzak euskal nazioa ulertu eta sentitzeko ikusmoldearekin bat datorren umorea erabili eta aldarrikatzen du, eta alderantziz, arbuaiatu egin du usu berea ez bezalakoak diren ikuspegiak helarazten dituzten up-ak. Eta logikoa dirudi hala izatea, baina diskurtsoen koherentzia horrek (nazioaren inguruko ikuspegi eta up-en artekoak) kontuan izan beharreko bestelako ebidentzia erakusten du gure aburuz. Hain zuzen ere, eguneroko praktikak, kasu honetan up-ek, kultura nazionalaren unibertso sinbolikoari dagozkiola (ere), eta ondorioz, umorea ez dela "bere kasa" funtzionatzen duen praktika aparteko bat, baizik eta kolektibo edo talde baten uste, sinesmen, tabu, sakralizazio, irudikari eta oro harreko diskurtsoetara (nazionala) estuki lotua dagoela.

Baina up-en diskurtsoak ez dira bat eta bakarrak, kultura nazionala homogeneous ez den bezalaxe, eta ondorioz, nazioaren izaera aldebakarrekoa ez den moduan. Up-ak gizarteari lotuak dauden heinean, horrekin batera aldatuz doaz.

Aldaketa horiek, batetik, diakronikoak direla ikusi dugu, non garai historiko desberdinetako behar eta baldintza soziopolitikoan arabera up-en diskurtsoak eta erabilerak moldatzen joan diren. Historian eztera begira jartzeak erakutsi digu umorearen aldaerak ez direla halabeharrezkoak edo kasualitatezkoak, baizik eta estrukturalak. Hots, egitura soziopolitikoan aldaketei doitutakoak. Eta are gehiago, umore etnikoari dagokionean behintzat, berariaz bultzaturiko aldaerak izan direla gehienean, hau da, helburu politikoei (nazional) erantzuten dietenak. Horrek, historian errepikagarria den gertaera egunera inferitu gabe,

gonbidatu gaitu aintzat izatera gaur egun erabiltzen diren up-ek ere gutxi dutela zorizkotik, eta beraz, nazio eraketari eman nahi zaion izaerari lotuak daudela horiek ere.

Baina zein nazio eraketa izaera? Izan ere up-en bilakaerak badira diakronikoak ere, eta historian zehar aldatu ez ezik, gaur egunean ere hainbat umore sen desberdin topa daitezke euskal up etniko autoerreferentzialen baitan, horietako bakoitza, aurretik esan bezala, euskal nazioaren ikuskera desberdin baten adierazle izanik.

Euskal nazioa bai eta euskal nazioa kide izatea ulertzeko, bizitzeko eta ondorioz birsortzeko hainbat diskurtso/irudikari molde desberdin topatu dira: haien artean desberdinak eta maiz kontrajarriak, eta hala ere guztiak errealak. Zer ikusia du horretan estatu propioari gabeko nazioa izateak ere, kultura nazional bakar bat finkatzeko eta hedatzeko organo zentralik (estatu) ez edukitzeak ahalbidetzen baitu diskurtso/irudikarien ugaritasun eta dinamismo handiagoa egotea. Hala, euskal nazioa, kategoria sozial gisa bakarra bada ere, hori performatzen duten sinesmen eta diskurtso aunitzen (zein tesi honek kontuan hartu ez dituen bestelako mekanismo ekonomiko, sozial, administratibo, eta abarren) artikulazioaren emaitza da. Gauza bat eta kontrakoa batera izan daitekeena, eta hala ere existentzia eta zentzua izaten jarraitzen duena.

Euskal nazioaren irudikapena *nukleo multipolar* lez ulertzea eraman gaitu horrek: aldakorra, dinamikoa, malgua eta iragazkorra dena, elkarrekin bizi diren diskurtso/irudikari anitzez osatua, eta beraz, diskurtso/irudikari horien artikulazioaren arabera (bai eta euskal nazioaren kanpoko bestelako diskurtso espainiar zale edota frantziar zaleen arabera ere) bateko edo besteko joerak edo izaerak erakusten dituena. Baina errealtate baten inguruko ikuspegi desberdinak egoteak "borroka gune" bihurtu du kontsensuzko artikulazio izan beharko

lukeena, eta diskurtso guziak "libreki" helarazteko bitarteko izatetik urruti, umorea euskal nazioaren gaineko diskurtso desberdinen (des)zilegitze norgehiagokarako esparrua dela agerian jarri da. Hori ezin uler liteke ordea, umoreak mediazio lez jokatzeko duen rola kontuan izan gabe.

Umorea mediaziotzat jotzea umorearen gaineko teoria soziologikoen gabezia ase nahian egin den hausnarketaren emaitza da. Umoreari esleitu zaizkion planteamendu soziologiko mugatuegi bezain lausoegien balantzaren zorabiotik urrundu nahian teorikoki zein enpirikoki erabilgarria den proposamen bat osatzeko ahaleginaren ondorio, hain zuzen.

Umorearen definizio zehatz batetik abiatzeari uko egin izana da ahalegin horren iturburua. Batetik, ez delako ikerketaren beharretara moldatzen den umorea ulertzeko ikuspegi soziologiko egokirik aurkitu. Baina baita, definizioetatik urruntzeak umorearen ezaugarri desberdinak, bestelako teoriak orain arte kontuan hartu gabekoak izan daitezkeen ezaugarri potentzial horiek ere, ezagutzeko modutzat jo delako. Umorea ulertzeko *begirada* jakin bat osatzeko ariketa egin da beraz: "zer den" zehaztu beharrik izan gabe soziologikoki harengana hurreratzeko bezain zehatza, eta lermatu gabe haren zabaltasun/aniztasuna kontuan izateko bezain malgua dena.

Ikuspegi soziologikoak hala eskatuta, umorea eraketa sozial gisa hartu da hastapenetik, definizio auto-ebideenteetatik harago harreman sozialek sortu eta moldatzen duten fenomenotzat joaz. Baina uste baino aberatsagoa suertatu da honako planteamendua, berehalakoan agerian utzi baitu bikoiztasun teoriko bat, umorearen ikuspegi sozialaren bi hausnarketa ildo desberdinetarako ateak batera zabalduz.

Horietakoa lehenak ageriko egin du umorea eraketa soziala den heinean umoretzat jotzen dena ez dela uste zitezkeen bezain egonkor edota identifikagarria, baizik

eta etengabeko negoziaketa sozialen ondorioz (des) eraikitzen, aldatzen edo desplazatzen diren mugen araberkoa dela haren hautematea. Horrek eraman gaitu umorearen entendimendua aldebakarreko kategorizaziotik urrutiratzerara eta testuinguru sozialaren arabera ageriko egiten duen aldakortasun zein heterogloxia haren prozesu (sozial) izaeran datzala ulertzerara.

Prozesutzat hartzeak erakutsi digu, halaber, umorea eta nazioa antzeko perspektibaz uler daitezkeela. Umorea, nazioaren gisan, errealitate bakarra izanik ere ez baitu zertan errealitate bera izan kasu guztietan. Horren ordeaz aurpegi anitzekoa izan daiteke, kasuan kasuko baldintzen eta interakzio sozialen arabera aldatzen doana. Prisma honetatik abiatzeak ahalbidetu du umorea baino *umoreak* (pluralean) adiera zuzenagotzat jotzea, eta hala, umorea partekatua bada ere (soziala) ez duela zertan adostua izan antzematea. Edo bestela esanda, umorea zer den eta zer ez zehazten duen irizpidea botere-harremanekin lotua dagoela ikustea, eta ondorioz, up guztiek zilegitasun (eta botere posizio) berberaz gozatzeko aukerarik ez dutela kontuan hartzea.

Honekin batera bigarren hausnarketa ildo bat ere ireki du umorea eraketa sozial (orain prozesu sozial) lez hautemateak. Izan ere, umorea prozesu soziala bada bere hartu-eman eta eraginak gizarte harremanetan gauzatzen direlako da noski, baina horrek esan nahi du gizartekideen artean partekatua eta halaberrez ulertua ere behar duela izan. Nahitaezko ulermen horrek suposatzen du umoreak komunikatu ere egiten duela, eta beraz, kasu orotan errealitateaz "zerbait" dioela. Hala izanik, komunikazio harremana prozesuaren oinarri (edo oinarritariko bat) izateak umorea *praktika diskurtsibo* gisa ulertzeko aukera zabaldu du.

Halaxe antzeman da elkarrizketetan ere. Maiz umoreak eraginik ez duela pentsatzen bada ere, haren bidez diskurtsoak eta mundu ikuskerak helarazten

direla argi dute hainbat elkarrizketatuk. Hain zuzen ere umoreari sarri egotzen zaion ez-eraginkortasun horretan oinarritzen dute elkarrizketatuek haren potentzialtasun nagusia: diskurtsoak "konturatu gabe" igortzeko modua dela adieraziz. Umorearen eraginkortasun hori modu ez kontzientean ideia bat barneratzeko eta onartzeko bitarteko limurgarri lez funtzionatzeko ahalmenean datzala aditzera ematen da horrela. Baztertu egiten dugu, beraz, umore prozesuak otzanak direlako ustea eta aintzat hartzen dugu horiek erreproduzitzen diren aldi oro diskurtso jakin bat helarazten duen komunikazio jarduerara (eta ondorioz jarduera politikoa) egiten dela.

Ikuspegi honen interpretazio postestruturalistak jarduera politikoa hori up-en performatzeko gaitasunean oinarritzea ahalbidetu digu. Up-ak errealitatea hautemateko posizio jakinak erakusten dituzten diskurtso sistemen (ideologien) partetzat hartu dira, bai eta diskurtsoa(k) eta errealitate soziala etengabe elkar elikatuz (eta elkar banatu ezinik) prozesu beraren partetzat jotzea ere. Hala, up oro diskurtso bati dagokiola jakinik (euskal nazioa ulertzeko modu jakin bati), up-a darabilenak mundu ikuskerara jakin bat igortzeaz gain (errealitateaz, euskal nazioaz, "zerbait esateaz" gain) up-etako irudikariak ere birproduzitzen ditu; diskurtsoaren ideologia bai eta errealitate soziala (nazioa) horren arabera performatuz.

Heterotopia foucaultiar moduan uler genezake honako lotura, non erreala eta irudikatuak elkarren artean duten harremanak elkar eraiki, moldatu eta birproduzitzea dakarkien: errealitate soziala irudikari bilakatu eta irudikariak errealitate gisa egonkortzen dituen etengabeko interakzio batean. Ulertzen dugu up-ak badirela euskal nazioak "materializatze" duen moduetako bat, eta hain zuzen ere, irudikari ez ezik egikari bihurtzen direlako up-ek aukera ematen dutela "materialtasun" horretatik nazioa bera eraikitze, deseraikitze edota berreraikitze. Hala ikusi da, esaterako, zenbait elkarrizketaturen testigantzetan,

non, up-etan haiek nahi bezalako nazioa "bizitzeko" modua aurkitzen dutela dioten. Hain zuzen ere up-en bidez "bizigarri" bilakatzen delako irudikaria, hau da, euskal nazioa esperimintatzeko modua da, bizipen horretan nahi bezalako nazio batean jarduteko aukera ematen diena. Edo beste hitzetan, up-ak nazio(aren parte) *direlako*.

Nola umoreak prozesu gisa jarduten duelako, hala praktika diskurtsiboa delako, umorearen inguruko hausnarketak sortzen duen bidebanatze teorikoaren bi adarrak elkar topo eginarazteko modua da up-ak mediaziotzat jotzea.

Mediazioa uler daiteke orotariko baliabide sinbolikoen komunikazio prozesuek haien jardunaren bidez ahalbidetzen duten errealitate sozialeko diskurtsioen interakzio dialogikorako koiantura gisa. Esan nahi baita, komunikazio prozesu orok baliabide sinbolikoez errealitate soziala (des)eraiki, negoziatu, sortu edo deuseztatzeko duen gaitasun birtuala burutzeko abagunea.

Mediazioa komunikazio harremanetan oinarritzen denez, bere baitan aintzat hartzen du praktika diskurtsibo oro, baita up-ena ere. Eta prozesu gisa jokatzeko duenez, bere gain hartzen ditu up-etan eman daitezkeen diskurtso desberdinen interakzio/artikulazio bai eta ondorio (performatiboak) ere. Hala, up-ak mediazio gisa ulertzeak dakar errealitate sozialaren (des)eraketarako komunikazio prozesuak ahalbidetzen dituen abagunetzat ikustea, zeina errealitate sozialetik elikatu, eta halaber, errealitate soziala elikatzen duen etenik gabeko prozesu malgu eta iragazkor gisa funtzionatzen duen.

Errealitate sozial hori euskal nazioa dela kontuan hartzen dugunean honela itzultzen da planteamendua: batetik, up-ak mediaziotzat har daitezke komunikazio praktika bat abiatzen duten heinean euskal nazioaren inguruko diskurtsoak helarazten dituztelako. Eta horrekin batera, aurretik aipatu duguna kontuan hartuz, euskal nazioaren inguruan dauden diskurtso desberdin horiek



elkarren artean dituzten botere-harremanak artikulatzen diren koiuntura gisa jokatzeko dutelako, diskurtsoen artean egon litezkeen indar korrelazioak (bir)produzitzeko edota aldarazteko aukera emanez.

Hala, up-en mediazioak barne hartzen du up-ak euskal nazioaren eraketan duen eragin politiko bikoitza: batetik, diskurtsoak igortze eta birproduzitzeak ahalbidetzen dion gaitasun performatiboak berekin dakarrena (errealitate sozialean eragiteko gaitasun politikoa); eta bestetik, up-en berriazko erabilera estrategikoa zein taktikoa egiteko aukerak sortutakoa, diskurtso desberdinen arteko artikulazioak kudeatzean sortzen dena, eta euskal nazioarekiko diskurtso bata edo bestea nagusitzea dakarrena.

Hain zuzen ere azken ideia hori da iker objektua biribildu eta fintzen lagundu duena: bi kategoria nagusien inguruko hausnarketek a) nazioa, nukleo irudikatu multipolar lez eta b) umorea, up (euskal etniko autoerreferentzial) moduan planteatu ostean, c) umoreak nazioarekiko duen rol politikoa, mediazio gisa ulertzea baitakar horrek.

#### - Up-en mediazioa euskal nazioaren eraketan

Mediazio prozesu hori ezagutzea izan da iker lan honen hezurrami. Baina nola aztertzen da mediazio bat? Orain arteko ikuspegiari nabardura bat gehitu dio galdera horrek, up-ak mediazio gisa funtzionatzen dutela ikusteaz gainera, up-ak mediazio mota jakin bat direla ulertzera eramanez. Hau da, up-ek, bestelako mediazioetatik bereiziaraziko dituzten funtzionatzeko era, baldintza edo jokabide propioak erakusten dituztela pentsatzeko.

Uste horri eutsiz bilatu dira up-ek partekatzen dituzten ezaugarri posibleak, up-en mediazio orotan agertu eta bestelako mediazioetatik bereiziarazteko suposatuko luketen

horiek. Hiru irizpide edo ardatz topatu dira bilaketa horretan -*haustura*, *distantzia* eta *gozamen* gisa izendatu ditugunak- up-en mediazioak erakusten dituen hiru ezaugarri orokor gisa identifikatuak izan direnak. Haatik, honako hauek ez dira umorea tipo ideal lez definitzeko baliagarri izan zitezkeen irizpidetzat hartu, jabetzen baikara, batetik, aukeraketa honek duen partzialtasunaz, eta ondorioz, beste irizpiderik ere egon zitekeenaren posibilitatea aintzat hartzen dugu. Baina baita ere, ez direlako kategoria itxi eta betiereko gisa hauteman. Up-en mediazioak dituen gutxieneko ezaugarriak bistaratu eta mediazio prozesuan aldeberekoak eta elkar lotuak dauden fenomeno desberdinak ulertu eta urratsez urrats aztertu ahal izateko irizpide (mapa) orientagarri gisa funtzionatu dutelako. Horrenbestez, honako proposamena ez da elkar banatuak dauden ardatzen justaposizio gisa ulertu behar, baizik eta elkar elikatzen diren prozesu bereko fase osagarri gisa, non up-en mediazioaren prozesu eta jarduera esparrua agortu nahi izatetik urruti, eskala eta plano anitzetan jokatzeko duen errealitate bat dela azpimarratu nahi izan den.

Up-en *hausturak* eta *distantziak* bere baitan jaso dute mediazioak duen gaitasun politiko bikoitzaren aldeariko bat, hain zuzen ere, euskal nazioaren gaineko diskurtso jakinen helarazpena nolakoa den ezagutzea; eta *gozamenean* aztertu da bigarrena, diskurtso desberdinen arteko artikulazioen tasuna agerian jartzen dituen.

Hiru ardatz horien inguruan egin den azterketa enpirikoak erakutsi du euskal nazioari dagozkion up diskurtsoen artean badaudela botere eta zilegitasun maila desberdinak, eta ondorioz, botere posizio abiapuntu desberdinetatik jorratzen dela up-en mediazioa. Batetik, agerian jarri da badagoela euskal nazioari buruzko diskurtso

(matrize kultural) hegemoniko bat. Horretan kokatzen diren elkarrizketatuek ez dute beren ikuspegia defendatzeko edo argudiatzeko beharrik izan, hain zuzen ere haien diskurtsoa gaur egungo testuinguruan "normaldua" dagoelako. Bestetik, hegemonikoarekiko apostatak diren diskurtsoak antzeman dira. Horiek lantzen dituztenak argudiatu behar izan dute erabiltzen duten euskal nazioaren irudikari/ diskurtsoa zer nolakoa den, bai eta horrelakoa zergatik den ere. Horrek agerian jarri du zilegitasun eta botere gutxiago duten diskurtsoak (matrize kulturalak) direla haienak, eta espazioaz egiten duten erabilera, jarraian azalduko dugun moduan, hegemonikoaren oso bestelakoa da horren ondorioz.

Matrize kultural hegemonikoaz azpimarragarri suertatu zaigun ezaugarrietako bat Industrializaziotik hasi eta duela hamarkada bat arte espainiar kultura nazionalak euskal nazioaren inguruan sustaturiko hainbat diskurtsoekin duen antzekotasuna da. Pentsa daiteke horren jatorria euskal kolektiboak izan duen mendeetako sozializazioan datzala. Espainiatik euskal nazioaren inguruan historikoki egin den up jarioak, maila handi batean helburu politikoei erantzuten zietenak, eragina izan baitute halako up-ek zekarten diskurtsoaren eta formaren asimilazioan. Honekin batera iradoki dugu halako up- diskurtsoen arrakasta ez dela soilik sozializazio baten ondorioz gertatu, baizik eta baita euskal nazionalismoak (EAJ-PNVk batez ere) bere diskurtso nazionalista indartu eta hedatzeko intentzioz eginiko hautuen eraginez ere. Pentsatzen dugu up-en sozializazioz euskal nazioaren inguruko iruditeria mitiko-sinboliko jakin bat barneratua izan delako, halako up-etako irudikariak baliagarri egin zaizkiola euskal nazionalismoari euskal nazioa eta euskal identitatearen diseinua (eta ondorioz beste nazioetatik bereiziarazteko irudia) osatzeko. Bestek beste, arraza edota hizkuntza (azken hau sektore

batzuetan mantentzen bada ere) euskal nazioa batzeko zein ordezkatzeko zeinu (kuantitatiboki) baliagarri izateari utzi diotenean.

Baina honekin batera, gure ustez, euskal nazioaren irudikari konpartitu horiez baliatzeak berekin ekarri du jatorriz espainiar kultura nazionalak euskal nazioari egotziriko diskurtsoak bereganatu eta erreproduzitzea ere. Hala, espainiar kultura nazionalak igorritako iruditeria berbera erabiltzeaz gain (horren zantzu Espainiatik halako up-ak bultzatzea), euskal nazionalismoak iruditeria hori maneiatzeko espainiar kultura nazionalaren estilo/*habitus* berbera ere birproduzitu du: baserritarra edo euskal-hiztuna euskal nazioaren irudikariaren parte bihurtu baditu ere, "normalarekiko" alteritate gisa erakutsiz. Hori kontuan izanik, ulertzen dugu euskal kolektiboko kideek ez dutela oro har bere buruaz barre egiten, bere kolektiboaren baitan eraiki diren alteritate edo azpitaldeez baizik.

Haatik, ikusi da badagoela norberaren buruaz barre egiten duenik, matrize kultural apostatan kokatzen diren up-ak horretarako abagunea eskaintzen baitute. Matrize kultural apostatako up-ak urrundu egiten dira matrize kultural hegemonikoak helarazten duen *nukleo irudikatu normaldutik* eta bestelako euskal nazioaren irudikari/ diskurtsoak zabaltzen dituzte haien up-etan, nazioaren ikuspegi aberatsagoa eta anitzagoa eskainiz. Baina apostatek proposatzen duten diskurtso/ikuspegiak desafio egiten diote hegemonikoak euskal nazioari egotzitako estatus sinbolikoari. Eupada sortzen du, batetik, euskal nazioaren bateko edo besteko diskurtsoak helarazten dituztelako, baina batez ere, hegemonikoaren desberdinak diren diskurtso alternatiboak existitu daitezkeela proposatze hutsagatik. Errealitatea bestela azaltzeko gaitasuna duten diskurtso apostatak euskal nazioaren unibertso sinbolikoaren ikuspegi hegemonikoa mehatxatzen dute,

eta horrekin batera, unibertso sinboliko horrek zilegitzen duen ordenu instituzionalarentzako mehatxu praktikoko ere bilakatu litezke. Besteak beste, desberdina den unibertso sinboliko bat eskaintzeak bertan behera uzten duelako indarrean dagoena saihetsezina dela sinestea.

Mehatxutzat agertzeak dakar, ordea, espazio publikoan up apostatak gauzatzeko zilegitasun gutxiago, eta ondorioz, zailtasun eta arrisku gehiago edukitzea. Izan ere, landa lanean ikusi den moduan, desbideratuak kontsideratzen diren diskurtsoei estatus ontologiko negatibo bat egotzi ohi zaie, eta beraz, apostatak diren up-ek izaera kognoszitibo ez-serio bat eskuratzen dute. Hots, up izateko zilegitasunik gabe geratu ohi dira eta galtzen dute gizartean haien diskurtsoak aintzat hartuak izateko ahalmena. Prozesu horretan, bestalde, up apostatak baztertuak eta zigortuak izateaz gainera diskurtsiboki ere ber-kokatzen dira. Alegia, ez-up gisa seinalatzeaz gain horietako zenbait unibertso hegemonikoaren ikuspegitik ber-izendatzen dira, up-ak izan ordez diskurtso politiko gisa identifikatuz, esaterako. Honen bidez, ikuspegi hegemonikoaren mehatxu izan zitekeen up hori, hegemonikoaren unibertso horretan barneratua geratzen da, up gisa "desagertu" eta diskurtso hegemonikoa bera indartzeko (gehiago zilegitzeko) baliagarri bilakatuz.

Halako egoerak sortzeko arriskuak dakar apostatak diren up-ak garatzeko bestelako espazio seguruagoetan jarduteko beharra. Bestelako espazio horien egokitasuna espazio horietan ematen diren (edo ematea posible diren) interakzio moten araberkoa dela ikusi da. Hain zuzen ere, interakzio horiek ahalbidetzen duten "normaltasunaren" (eta ondorioz "anormaltasunaren", demokraziaren, sen onaren, bai eta umorearen) hautemateak apostaten matrize

kulturalarekin komunizatzen dutelako. Eta horrenbestez ulertzen dugu up-en zilegitasun maila (*gozamena*) espazioa kontrolatzeko, kudeatzeko edo hartara egokitzeko gaitasunaren zuzenki proportzionala dela (*ez zentzu matematikoan*).

Hori horrela izanik, espazio desberdinetara egokitzeko abilezia handiz jokatzeko da matrize kultural apostaten up-en ezaugarri nagusietariko bat. Honen baitan bi erabilera adierazgarriekin egin dugu topo. Batetik, up-ak euskal nazioaren inguruan dauden diskurtso apostatak espazio publikoan helarazteak sortzen dituen arazoak gainditzeko bitarteko politiko gisa erabiltzen dela ikusi da. Hala, up-ak taktikoki baliatzen dira bestela helaraztea ezinezkoa liratekeen euskal nazioaren inguruko diskurtsoak gizarteratzeko. Bestetik, espazio seguruetan ematen diren ariketa erreflexiboak dira esanguratsu; euskal nazioaren inguruko diskurtsoak helarazteko ez ezik, haien buruen autokritikak egiteko baliatzen baitira usu. Hau da, gorago esan denarekin lotuaz, norberaren buruaz barre egiteko.

Up-en erabilera apostatak ahalbidetzen du, gure aburuz, euskal nazioaren *subjektibazio prozesu* bat. Euskal nazioaren eraketa parte hartzaile eta aktibo bat edukitzea, zeinak aukera ematen duen matrize kulturaletik/irudikaririk/diskurtsotik euskal nazioaren irudikari jakin bat birstortzea, baina batez ere, aukera ematen duelako horiek irauli eta biziberritu eta berriak ere eratzeko. Up-en erabilera apostaten dinamismoak, aniztasunak eta aldakortasunak erakutsi du testuinguru soziopolitiko eta kulturalarekiko hurbiltasun handi bat, praktika kulturelekiko (oro har) lotura argia eta horiek interpretatu, hausnartu eta kritikatzeko balioa. Eta ondorioz, baita ariketa horretan nazioa eta subjektu kolektiboa eraikitzen joatekoa ere. Ulertzen dugu,

beraz, apostatek egiten duten up-en mediazioa funtzionala dela euskal nazioaren eraketan, baina ez funtzio bat betetzen duelako, baizik eta rol aktibo bat izateko koituntura eskaintzen duelako.

Bestelakoa da, gure iritziz, matrize kultural hegemonikoak up-en mediazioan ahalbidetzen duen parte-hartzea. Ulertzen dugu matrize kultural hegemonikoak ere parte hartzen duela (rol politikoa duela) euskal nazioaren eraketan, hots, mediazio horretan presente dagoela, eta apostatak baino modu esanguratsuagoaz/nabarmenagoaz behar bada, bere diskurtsoa espazio publikoan nagusi azaltzen baita, besteak beste. Matrize kultural hegemonikoak eskaintzen duen mediazioa, aldiz, kontserbadoreagoa da, hein handi batean aurre-erariak dauden euskal nazioaren irudikari/diskurtsoen erreproduktore gisa aritzeko aukera eskaintzen baitu soilik, horiek aldatu edo iraultzeko posibilitateak asko mugatuz. Honek dakar, gure iritziz, euskal nazioari dagozkion irudikariak (diskurtsoak eta praktikak direnak, finean) erreferentzialtasun praktikoetatik urruntzea (kaleko errealitatetik), irudikarien izaera sinbolikoan funtsatzea eta "euskal" zeinua eta euskal nazioarekiko hautemate irudikatuak izaera estereotipatua eskuratzea. Alegia, euskal nazioari loturiko irudikariak euskal nazioa erreproduzitzen badute ere, horiek aldatzeko aukera badirudi ez dagoela euskal kolektiboarengan, eta horrek, gure ustez, up hegemonikoen bidez euskal nazioari egozten zaizkion zeinu, praktika eta ezaugarriak gizarretik distantziatuak egotea dakar. Hala izanik beraz, pentsatzen dugu matrize kultural hegemonikoak up-en mediazioan sustatzen duena euskal nazioaren *identifikazio prozesuak* direla, eta ez hainbeste identitate praktikak (*subjektibazio praktikak*), zeharka, egunerokotasuneko praktika sozialak

espainiar "normaltasunaren" arabera garatzearen mesedetan.

Aipamen horien harira argi utzi nahi da, edonola ere, ez dela esan nahi euskal nazionalismoaren muinean espainiar kultura nazional hegemonikoaren diskurtsoak daudenik, besteak beste, up-en azterketa ez delako aski diskurtso nazionalista osoki baloratzeko. Baina ikusi da, up-ak aztertzeak hala erakutsi duelako, euskal nazionalismoaren irudikari/diskurtsoek antzekotasun handiak erakusten dituztela espainiar kultura nazionalak euskal nazioaz dituenarekin. Horren arrazoia izan liteke euskal nazionalismoak euskal nazioaren *branding-a* osatzeko Espainiatik igorritako up-en irudikari/diskurtsoez asko baliatu izanean. Hala, ulertzen dugu matrize kultural hegemonikoak jatorriz espainiar kultura nazional hegemonikoari dagozkion diskurtso molde horiek *beregana-tu* dituela, eta ondorioz, ez dela euskal kultura nazionalarengan espainiar kultura nazionalak egindako biolentzia sinboliko gisa hauteman behar, baizik eta, inoiz hala izan bada ere, uler litekeela egungo euskal diskurtso nazionalista hegemonikoaren izaeraren erakusle edo parte bezala; neurri handi batean euskal nazioaren inguruko iruditeria nagusiaren parte ere badena. Horrek eta aurrez aipatutako sozializazio prozesuaren eraginak azal lezakete horrelako up diskurtsoek euskal kolektiboan (eta gizartean oro har) duten arrakasta, bai eta horiek nagusiki Euskal Herrian sortzearen/produzitzearen zergatia.

Euskal nazioaren inguruko iruditeria/diskurtsoetan hegemonikoak direnik badaude ere, aniztasunaren ideiarekin gelditzen gara. Aniztasuna euskal nazioa bizi eta ulertzeko moduetan (matrize kulturetan), horiei loturik

doazkien diskurtsoetan, eta ondorioz, baita up-etan ere.

Esan genezake, aniztasun hori presente dagoen esparru gisa ulertzen dugula umorea, eta aniztasun hori kudeatu, artikulatu eta gizarteratzeko abagunea eskaintzen duen heinean umorea mediaziotzat jotzen dugula. Ikusi da *haustura*, *distantzia* eta *gozamenak* eskaintzen dituen posibilitate eta mugen baitan mugitzen den up-en mediazio horrek aukera ematen duela euskal nazioaren diskurtso desberdinak gizartera helarazteko, eta horren ondorioz baita ere, diskurtso desberdinek duten euskal nazioaren iruditeria performatzeko. Hala, errealitate soziala dagoen moduan utzi edo aldarazteko potentzialtasuna du bere gain. Baina diskurtso bakoitzak duen botere posizioa desberdina den heinean (hegemonikoak eta apostatak), horietako bakoitzak bide (taktika) desberdinak erabiltzen ditu diskurtsoa helarazia izan dadin, edota berea ez bezalakoan aldarrikapenak galarazteko. Up-en mediazio horren baitan ematen dira diskurtsoen arteko botere-harreman/artikulazio horiek ere, zeinak ahalbidetzen duten euskal nazioaren eraketa *prozesu identifikatibo* edo *prozesu subjektibatzaile* gisara bideratzeko posibilitatea. Ulertzen dugu, bada, up-en mediazioa euskal nazioaren eraketarako esparru sozial espezifiko delako. Aukera eta muga propioak dauzkana eta sistema sozialaren egitura (kasu honetan euskal nazioaren inguruko diskurtsoei dagokiena) islatu (zer esaten den), eragin (bere horretan utzi edo hori aldarazi) eta eskusiboki umoretsua den esparrutik harago doazen aldaketa eta eraginak ezagutzeko eta sortzeko aukera eskaintzen duen abagunea delako.

Abagune *erosoa* batetik. Nahi dena helarazteko erabateko immunitaterik eman ez arren up-ei sozialki egozten zaien izaera onbera eta positiboa delako medio, diskurtsoak igortzeko orduan nolabaiteko babesa eta lasaitasuna eskaintzen baitu. *Transbertsalitate* handikoa,

bestetik. Sortzen duen gozamenak duen onarpen zabalari esker, bestela heltzea nekeza litzatekeen espazio sozialetara azkar hedatzeko aukera ematen duelako. Eta *politikoa* baita ere. Azken hori bi arrazoi nagusirengatik.

Batetik, errealitate sozialean berriaz eragiteko aukera ematen duelako, lortzea bilatzen den eragin motaren arabera aldatuko direlarik haren ondorioak. Bai apostaten elkarrizketek erakutsi duten moduan, egitura eta "norma(ltasun)" soziala itaundu edo asalatzeko gaitasuna duelako; edo bestela esanda, errealitate sozialaren kontingentzia agerian uzteko ahalmena duelako, eta ondorioz, aldaraztekoa. Baina baita ere, landa lanak agerian jarri bezala, errealitate eta ordenu sozial jakin bat iraunarazi eta bermatzeko aukera ematen duelako ere.

Eta bestetik, errealitate soziala diskurtsoen bidez performatzen duelako. Batetik, up-etan zuzenean edo zeharka parte hartzen duen oro (ez arrazionalki) *politizatzea* dakarrelako. Hots, ikuspegi postestrukturalista kontuan izanik up-a errekonozitzen duena diskurtso horren (erreproduzioaren) parte bilakatzen delako, diskurtso horri zilegitasuna (*gozamena*) aitortuz. Eta bestetik, elkarrizketetan ageriko egin den moduan, up-en erreproduzioak aukera ematen duelako haren diskurtsoetan "bizitzeko", hots, euskal nazioa "nahi bezala" irudikatu eta irudikari hori esperimenezkoak, bai eta ondorioz, ohiko testuinguru sozialak (hegemonikoak) ahalbidetzen ez dituen bestelako subjektibotasunak hauteman eta horiek/horietan/horietatik eraikitzeak. Hain zuzen ere azken ariketa hori ulertzen dugu euskal nazioaren performazioaren oinarri. Up-ak ahalbidetzen duten esperimenezko eta esperientzia abagune horretatik sortzen den ekarria delako subjektuen irudikarietan eta diskurtsoetan (eta ondorioz baita ere haien eguneroko praktiketan) eragina duena.

- *Aurrera begirakoak*

Eragin horretan sakontzea da, hain zuzen ere, lan honek zabalik utzi duen ate nagusietariko bat. Tesi honek umore eta nazio eraketaren arteko zubia sortu eta zubi horren ezaugarriak ezagutzeko izan du helburu baina hausnarketa horrek berekin ekarri ditu gure ustez sakontasun gehiagorik mamitzea eta arakatzeko mereziko luketen beste hainbat esparru.

Mediazioak up-en hartzailenganduz eragina ezagutzeko eta haztatzea jotzen dugu horietako bat, tesi honek jorratu ez duena baina zalantzarik gabe up-en mediazioaren ikuspegi aberasten eta sakonago ezagutzen lagunduko lukeena.

Bereziki interesgarritzat jo da, halaber, egun gatazkatsutat jotzen diren gaiei ematen zaien up bidezko tratamenduaren ikerketa. Up-ek testuinguru sozialarekin duten lotura estua kontuan izanik, bai eta egunerokoan eragiteko gaitasuna dutela kontuan izanik ere, Euskal Herriko gatazka politikoa zuzenean edo zeharka lotzen zaizkion errealitateen kudeaketa nolako den ezagutzeko bereziki interesgarritzat jotzen dugu. Hala, up-ek errealitate soziala islatzeaz gaindi performatzeko duten gaitasun horretan epe labur zein ertainera begirako errealitate sozialak nola proiektatzen dituzten ezagutzeak, gatazka politikoa inguruan etorkizunean egongo den irudikari soziala nolako izango den ezagutzen lagunduko lukeelakoan gaude. Susmatzen dugu gaurko up-ak etorkizunean lortu nahi den egitura sozialaren aurrekari izan litezkeela, eta beraz, gatazka politikoa dagokionez up-en diskurtsoek zer nolako memoria historikoa helarazten eta osatzen ari diren, eta etorkizuneko memoria historikoa irudikaria batekoa edo bestekoa izateko zer nolako oinarriak ezartzen dituzten ikustea iker esparru emankorra delakoan gaude.

7. BIBLIOGRAFIA

Acevedo, C., Campabadal, P., Costa, J., Echevarría, I., Fernández-Savater, A., García, D., García, I., et. al (2012). *CT o la Cultura de la Transición. Crítica a 35 años de cultura española*. Bartzelona: Debolsillo.

Aguirre, A. (1984). "El carnaval en Euskal Herria: Estudio comparativo entre el carnaval rural y el carnaval urbano". *Zainak, Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 2, 149-172.

Akzin, B. (1968). *Estado y Nación*. Mexico: Fondo de Cultur Económica.

Althusser, L. (1999). *La filosofía como arma de la revolución*. Mexiko: Biblioteca del pensamiento socialista.

Althusser, L. (2005) [1988]. *Ideología y aparatos ideológicos de Estado; Freud y Lacan*. Buenos Aires: Nueva visión.

Alvarez, I. (1993). *Diversidad cultural y conflicto nacional*. Madril: Talasa.

Anderson, B. (1993). *Comunidades imaginadas*. Mexiko: Fondo de cultura económica.

Andrade, L. (2007). "Del tema al objeto de investigación en Hugo Zemelman". *Cinta de Moebio*, 30, 262-282.

Andréu, J. (data gabe). "Las técnicas de Análisis de Contenido: Una revisión actualizada". Iturria: <http://public.centrodeestudiosandaluces.es/pdfs/S200103.pdf>

Apodaka, E. eta Villarreal, M. (2004): Presente y futuro de las identidades nacionales. In A. Gurrutxaga, (ed.), *El presente del Estado- Nación*. Bilbo: UPV-EHU.

Apte, M. (1985). *Humor and Laughter: An Anthropological Approach*. Ithaca: Cornell University Press.

